Jakintza-arloa: Ekonomia

Goi mailako ikasketen nazioarteko eskaria baldintzatzen duten faktoreen analisia

Egilea: **VIRGINIA RINCON DIEZ**

Urtea: 2013

Zuzendaria: JON BARRUTIA GUENAGA

Unibertsitatea: UPV/EHU

ISBN: 978-84-8438-476-2

Hitzaurrea

Ikerketa honen gai nagusia goi mailako ikasketen nazioarteko eskaria da. Gai hau aukeratu genuenean arrazoi ezberdinengatik gaurkotasun handiko gaia zela iruditu zitzaigun.

Lehenik, goi mailako ikasketen sektorea, gero eta lehiakortasun handiagoko sektorea dela esan beharra dago. Espainiako sistema unibertsitarioaren kasuan, esaterako, unibertsitateen arteko lehiakortasuna gero eta handiagoa dela hauteman daiteke: beherapen demografikoa dela eta, unibertsitate kopuruaren gehikuntzagatik, beste hezkuntza-aukeren erakargarritasunaren hazkundeagatik, e.a..

Horrez gain, mendebaldeko herrialdeetan goi mailako hezkuntza finantzatzera bideratutako funts publikoen kopurua gero eta txikiagoa dela ikus daiteke, erakundeen arteko lehiakortasuna oraindik gehiago areagotzen duena.

Bestalde, Espainiako eta Europako unibertsitateak Goi mailako Hezkuntzaren Europar Esparrura egokitze prozesu batean daude, prozesu honen helburu nagusia Europako unibertsitateen arteko konparagarritasuna eta unibertsitate horien erakargarritasuna areagotzea delarik.

Beraz, gero eta lehiakortasun handiagoko testuinguru honetan, gure ustez, goi mailako hezkuntzaren esportazioa, unibertsitateentzat onura ekonomiko zein ez ekonomikoak sor ditzakeen jarduera bat da eta ondorioz goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskaria baldintzatzen duten faktoreak aztertzea interesgarria izan daitekeela pentsatu dugu.

Gainera, adierazi beharra dago, goi mailako ikasketen eskariari buruz garatutako ikerlan gehienek, Espainian behintzat, eskaria bere osotasunean aztertzen dutela eta ez nazioarteko ikasleen segmentuak sortzen duen eskari espezifikoa. Beraz, ikerketa hau garatzean egin nahi izan dugun ekarpen nagusia nazioarteko eskari hori baldintzatzen duten faktoreak determinatzen laguntzea izan da. Horrez gain, goi mailako hezkuntzaren eskariaren analisiari ikuspegi lehiakor bat erantsi nahi izan diogu, adibidez, herrialde bat edo erakunde unibertsitario bat erakargarriago egiten duten aldagaiak zeintzuk diren aztertuz.

Virginia Rincon
2013

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

TESIAREN IZENBURUA

GOI MAILAKO IKASKETEN NAZIOARTEKO ESKARIA BALDINTZATZEN DUTEN FAKTOREEN ANALISIA

Egilea**: Virginia Rincón Diez**

Zuzendaria**: Jon Barrutia Guenaga**

Bide luze honetan nire ondoan
egon zareten guztiei …

Eskerrik asko

ESKER ONAK

Lehenik eta behin Jon Barrutia Guenagari eskerrak eman nahiko nizkioke tesi honen zuzendaria izateagatik, proiektu honetan eman didan adoreagatik eta eskaini didan denbora guztiagatik. Bide osoan zehar berak emandako aholkuak eta egindako ekarpenak funtsezkoak izan dira lanaren garapenean. Azken finean, tesia egiteak dakarren esfortzu guztia errazagoa egin zait bere ondoan lan eginez.

Bestalde, Ekonomia Aplikatua I eta Finantza Ekonomia II sailei tesi hau aurrera atera dadin emandako babesa ere eskertu nahi diet. Laguntza eskatu dudanean laguntzeko jarrera ona aurkitu baitut beti. Lankideei tesia egiten egon naizen bitartean eman didaten laguntza eta animoengatik eskerrak eman nahi dizkiet.

Modu askotan, aholkuen bidez, laguntza eskainiz edo motibazioa emanez, lagundu didaten adiskideei ere eskerrak eman nahi dizkiet.

Azkenik, noski, nire familiari beti eman didaten baldintzarik gabeko maitasun eta laguntzagatik. Beti nire ondoan egoteagatik.

Guztiei tesi hau eskaini nahi diet.

AURKIBIDEA

1. KAPITULUA: GOI MAILAKO HEZKUNTZAREN ESKARIAREN ANALISIRAKO EREMU TEORIKOA ETA IKERKETAREN HELBURUA

1.1 Sarrera 15

1.2 Hezkuntzaren Ekonomiaren Jaiotza eta Garapena 17

1.2.1 Giza Kapitalaren Teoria 18
1.2.2 Iragazkiaren Teoria 22
1.2.3 Barne Lan Merkatuen eta Lan Merkatu Segmentatuen Teoriak 24
1.2.4 Giza Kapitalaren Teoriaren Hezkuntza Eskari Ereduaren Hedapena 27
1.2.5 Goi Mailako Hezkuntzaren Eskariaren gaineko Ikerketa 32

1.3 Marketin Unibertsitarioa 50

1.3.1 Marketina Hezkuntzaren Esparruan Aplikatzeari buruzko Eztabaida 52
1.3.2 Marketin Unibertsitarioari buruzko Ikerketa 56
1.3.2.1 Goi Mailako Hezkuntzaren Eskariaren Faktore Erabakigarriak 57
1.3.2.2 Ikasleak Erakartzea, Ikasleen Asebetetzea eta Ikasleen Fideltasuna 64
1.3.2.3 Zerbitzuaren Kalitatea eta Merkaturako Orientazioa 66
1.3.2.4 Merkatuen Segmentazioa eta Posizionamendua 70
1.3.2.5 Erakundearen Irudia 74

1.4 Goi Mailako Hezkuntzaren Nazioarteko Eskaria 75

1.5 Espainiako Unibertsitate-Sistemaren Eboluzioa eta Egungo Egoera Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparruaren baitan 85

1.6 Diziplina Matrizea eta Tesiaren Helburuak 93

2. KAPITULUA: GOI MAILAKO HEZKUNTZAREN EUROPAR ESPARRUKO HERRIALDEETAKO HIRUGARREN MAILAKO IKASKETEN NAZIOARTEKO ESKARIA

2.1 Sarrera 117

2.2 Hirugarren Mailako Ikasketen Eskari Internazionala Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparruan..... 123

2.2.1 Ikasleen Mugikortasuna Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparruan 123

2.2.2 Hirugarren Mailako Ikasketen Eskari Internazionalaren Jatorria Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparruan 127

2.3 Hirugarren Mailako Ikasketen Eskari Internazional Globalaren Jatorria Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparruko Herrialdeetan . 131

2.3.1 Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparruko Herrialdeen Sailkapena Eskari Internazional Globalaren Jatorriaren arabera 132

2.3.2 Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparruko Herrialdeen Posizioa bakoitzaren Eskari Internazional Globalaren Jatorriaren arabera..... 140

2.4 Hirugarren Mailako Ikasketen Eskari Internazional Europarra Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparruko Herrialdeetan 146

2.4.1 Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparruko Herrialdeen Sailkapena Eskari Internazional Europarraren Jatorriaren arabera ... 147

2.4.2 Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparruko Herrialdeen Sailkapena Europako Herrialde Ezberdinetarantz Sortutako Eskariaren arabera..... 153

2.5 Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparruko Herrialdeen Hirugarren Mailako Ikasketen Eskari Internazionalaren Faktore Baldintzatzaileak..... 157

2.5.1 Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparruko Herrialdeen Hirugarren Mailako Ikasketen Eskari Internazionala Kokapen Geografikoaren arabera..... 157

2.5.2 Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparruko Herrialdeen Hirugarren Mailako Ikasketen Eskari Internazionala Hezkuntzan Burututako Inbertsioaren arabera 161
2.5.2.1 Hezkuntzan Burututako Gastu Publikoa Barne Produktu Gordinaren Portzentaje bezala..... 161
2.5.2.2 Goi Mailako Hezkuntzan Ikasle Bakoitzeko Burututako Gastu Publikoa Biztanle Bakoitzeko Barne Produktu Gordinaren Portzentaje bezala..... 163
2.5.3 Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparruko Herrialdeen Hirugarren Mailako Ikasketen Eskari Internazionala Ikerketa eta Garapenean Burututako Inbertsioaren arabera..... 166
2.6 Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparruko Hirugarren Mailako Ikasketen Nazioarteko Eskariaren Analisiaren Ondorio Nagusiak 168
ERANSKINA: UNESCOren Estatistika Institutuaren Datu Zentroa..... 175

3. KAPITULUA. ESPAINIAKO UNIBERTSITATE MAILAKO HEZKUNTZAREN NAZIOARTEKO ESKARIARI BURUZKO DESKRIBAPENA

3.1 Sarrera 187
3.2 Espainiako Unibertsitate Mailako Ikasketen Nazioarteko Eskari Totala..... 190
3.2.1 Espainiako Unibertsitate Mailako Ikasketen Nazioarteko Eskari Totalaren Bilakaera 190
3.2.2 Espainiako Unibertsitate Mailako Ikasketen Nazioarteko Eskari Totalaren Gaur Egungo Osaketa Jatorria eta Irakaskuntza Adarraren arabera..... 195
3.2.3 Unibertsitate Mailako Ikasketen Nazioarteko Eskaria Autonomia Erkidegoetan 206
3.3 Titulazio Unibertsitarioen Nazioarteko Eskaria 208
3.3.1 Espainiako Sistema Unibertsitarioaren Titulazioen Sailkapena Nazioarteko Eskari Mailaren arabera..... 210
3.3.2 Espainiako Sistema Unibertsitarioaren Titulazioen Sailkapena Nazioarteko Eskariaren Jatorriaren arabera 218

3.4 Erakunde Unibertsitarioen Nazioarteko Eskaria 225

3.4.1 Espainiako Unibertsitateen Sailkapena Nazioarteko Eskari Mailaren arabera 227

3.4.2 Espainiako Unibertsitateen Nazioarteko Eskariaren Jatorria... 246

3.5 Espainiako Unibertsitate Mailako Hezkuntzaren Nazioarteko Eskariari buruzko Deskribapenaren Ondorio Nagusiak..... 277

ERANSKINA: Hezkuntza Ministerioaren Ikasle Unibertsitarioen Estatistika 289

4. KAPITULUA: ESPAINIAKO GOI MAILAKO HEZKUNTZAREN NAZIOARTEKO ESKARIAREN FAKTORE ERABAKIGARRIAK

4.1 Sarrera 299

4.2 Ikasketen Iraupenaren eta Irakaskuntza Adarraren Eragina Espainiako Titulazio Unibertsitarioen Nazioarteko Eskarian 302

4.2.1 Ikasketen Iraupena 302

4.2.2 Irakaskuntza Adarra..... 309

4.3 Espainiako Unibertsitateen Nazioarteko Eskariaren Faktore Baldintzatzaileak..... 317

4.3.1 Faktore Kontrola Ezinek Unibertsitateen Nazioarteko Eskarian duten Eragina Adarra 320

4.3.1.1 Titulartasun Publikoa edo Pribatua..... 320

4.3.1.2 Kokapena..... 325

4.3.1.3 Konkurrentzia Maila..... 334

4.3.1.4 Antzinatasuna 342

4.3.1.5 Tamaina..... 348

4.3.1.6 Irakaskuntza Adar Ezberdinetara Orientazioa..... 354

4.3.2 Kontrola daitezkeen Faktoreek Unibertsitateen Nazioarteko Eskarian duten Eragina 365

4.3.2.1 Irakasle eta Ikertzaileen Ezaugarriak..... 365

a) Lanean Egonkortasuna duten Irakasleen Portzentajea . 366

b) Irakasle Katedradun edo Baliokideen Portzentajea..... 368

4.3.2.2 Argitalpen Zientifikoak 374
a) Ekoizpen Zientifiko Kopurua Irakasle bakoitzeko 376
b) Ekoizpen Zientifikoaren Kalitate Erlatiboa 379
4.3.2.3 Ikerketa Jarduera 387
4.3.2.4 Patenteak 390
4.3.2.5 Eskaintzaren Aniztasuna 392
4.3.2.6 Matrikularen Prezioa 396
4.3.2.7 Unibertsitateetan Iragarritako Egoitza Unibertsitario eta Ikastetxe Nagusien Edukiera 399

4.4. Espainiako Goi Mailako Hezkuntzaren Nazioarteko Eskariaren Faktore Erabakigarriei buruzko Ondorio Nagusiak 404

ERANSKINA: Nazioarteko Eskaria Baldintza dezaketen Faktoreak 415

5. KAPITULUA: ATZERRITARREN UNIBERTSITATE MAILAKO IKASKETAK BURUTZEKO ERABAKIA BALDINTZATZEN DUTEN FAKTOREAK

5.1 Sarrera 425

5.2 Datuak eta Aldagaien Deskribapena 428

5.2.1 Lagina 428
5.2.2 Aldagaiak 430
5.2.2.1 Goi Mailako Ikasketen Eskaria 431
5.2.2.2 Ezaugarri Pertsonalak 432
5.2.2.3 Familia-ezaugarriak 437
5.2.2.4 Lan-ezaugarriak 444
5.2.2.5 Ezaugarri Geografikoak 449

5.2.3 Analisi Deskriptiboa 453

5.3 Goi Mailako Hezkuntzaren Atzerriko Eskariaren Eredu Teorikoa 462

5.3.1 Esangura Indibiduala 466
5.3.2 Efektu Marjinalak 467
5.3.3 Ereduaren Doikuntza Egokitasuna 469

5.4 Estimazioaren Emaitzak eta Eztabaida 472

5.5 Atzerritarren Unibertsitate Mailako Ikasketak Burutzeko Erabakia Baldintzatzen duten Faktoreei buruzko Ondorio Nagusiak 488
ERANSKINA: Estatistikako Institutu Nazionalaren Biztanleria Aktiboaren Inkesta 493

6. KAPITULUA: ONDORIO NAGUSIAK 497

Taula eta Grafikoen Aurkibidea 511

BIBLIOGRAFIA 517

1.KAPITULUA

GOI MAILAKO HEZKUNTZAREN ESKARIAREN ANALISIRAKO EREMU TEORIKOA ETA IKERKETAREN HELBURUA

1.1 Sarrera

Azken hamarkadotan, goi mailako hezkuntzaren sektorean, munduko herrialde ezberdinetako unibertsitateek lehiakortasunaren areagotzeari aurre egin behar izan diote, bai nazio mailan bai nazioartekoan (Barrutia Guenaga, 2001; Chen, 2008; Fernández López, Rodeiro Pazos eta Ruzo Sanmartín, 2003; Ghosh, Javalgi eta Whipple, 2007; Mavondo, Tsarenko eta Gabbott, 2004; Mora Ruiz, 2004; Soutar eta Turner, 2002; Voon, 2007). Honek, azken bi hamarkadotan mendebaldeko herrialdeetan goi mailako hezkuntzako erakundeen jarduera finantzatzera bideraturiko funts publikoen muturreko murrizketarekin batera (Barrutia Guenaga, 2001; Chen, 2008; Fernández López, Rodeiro Pazos eta Ruzo Sanmartín, 2003; Ghosh, Javalgi eta Whipple, 2007; Kinnell, 1989; Soutar eta Turner, 2002), gero eta interes handiagoa eragin du unibertsitate mailako eskariaren azterketari dagokionez.

Hurrengo ataletan, goi mailako hezkuntzaren eskariaren hainbat aspektu aztertzen dituzten berriki egindako zenbait azterketa aipatzen dira. Lan horietako askok eremu teoriko bateratua dute, Hezkuntzaren Ekonomia izenarekin ezaguna, ikerketa ekonomikoaren baitako espezialitate desberdin gisa jaio zena berrogeita hamarreko hamarkadaren bukaeran (Eicher, 1988).

Era berean, egiazta daiteke ikerketa ugarik Hezkuntza-Marketinaren ikuspegitik heltzen diotela unibertsitate mailako eskariaren arazoari. Zenbait herrialdetan, Estatu Batuetan, Erresuma

Batuan, Kanadan edo Australian, kasu, marketina hezkuntzako erakundeetan aplikatzeko orduan onarpen handia dutenetan, azterketa ugari egin dira esparru honetan. Hala ere, Espainian ere aurki daitezke duela gutxiko lanak goi mailako hezkuntzako erakundeen irudiarekin, ikaslearen asebetetzearekin edo marketin tresnek unibertsitate mailako eskariaren gainean duten eraginarekin lotuta, zenbait aipatzearren.

Kapitulu honen helburua da, lehenik eta behin, Hezkuntzaren Ekonomiaren nahiz Hezkuntza-Marketinaren funtsezko oinarri teorikoak azaltzea, eta eremu bien baitan garatu diren goi mailako hezkuntzaren eskariari buruzko ikerketa nagusiak aipatzea.

Bestetik, tesi honen gai nagusia goi mailako hezkuntzaren eskariaren zati zehatz baten azterketa da, zehazki, nazioarteko ikasleek eragindako eskariarena. Hori dela eta, kapitulu honetako laugarren atalaren ardatza goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskaria da, gai honen inguruan egindako hainbat lan azalduta bertan.

Gainera, ikerketa hau funtsean Espainiako unibertsitate-sistemaren eremura mugatzen denez, bosgarren atalean azalpen labur bat egiten da azken hamarkadotan Espainiako unibertsitateetan gertatu diren eraldaketei dagokienez. Hala, unibertsitate mailako eskariaren eboluzioa, eskaintzaren gehitzea, unibertsitateen finantzaketa sisteman izandako aldaketak edo Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparrura egokitzeko unibertsitateen egungo prozesua dira hizpide.

Azkenik, kapitulua ikerketaren helburu nagusien deskribapenarekin bukatzen da.

1.2 Hezkuntzaren Ekonomiaren Jaiotza eta Garapena

Hezkuntzaren Ekonomia, Hezkuntzaren azterketaz ikuspuntu ekonomikotik arduratzen den diziplina da. Ekonomiaren adar honen baitan, ekonomiaren eta hezkuntzaren munduen artean dauden harremanak eta elkarreraginak aztertzen dira. Azken hamarkadotan, diziplina honen finkapenak ekarpen garrantzitsuak egin ditu, frogatuta geratu baita hezkuntza sistemari buruzko gogoeta ekonomikoak oso baliagarriak izan daitezkeela sistema horrek egoki funtziona dezan.

Eremu honetan garaturiko hainbat azterketatan, Hezkuntzaren Ekonomia terminoaren definizio desberdinak eman dira. Oroval Planasek (1996) hedatu egiten du Graok eta Ipiñak (1996) proposaturiko definizioa eta Hezkuntzaren Ekonomia hezkuntza-ondasun eta zerbitzuen ekoizpena, banaketa eta kontsumoa arautzen dituzten legeak, hala nola beren ondorio sozioekonomikoak aztertzen dituen diziplinatzat jotzen du.

Hezkuntza ikuspegi ekonomikotik aztertzeko arrazoi nagusietako bat xurgatzen dituen eta beste lehentasun batzuetara bidera litezkeen ekoizpen-baliabideen kopuru handia da (Mora Ruiz, 1990; Pineda Herrero, 2000; Quintás, 1982). Baliabide hauen erabileraren efikaziak eta efizientziak gomendagarri egiten dute hezkuntza-gaien inguruko azterketa ekonomikoa (Turner, 2005).

Erlazionaturiko literatura aztertuta, eremu honen baitan gai ugariri heltzen dioten lan asko egin direla egiazta daiteke. Zenbait azterketa, herrialde bateko hezkuntzaren eta hazkunde ekonomikoaren elkarrekiko eragina baloratzen edo kuantifikatzen

saiatzen dira. Beste lan batzuetan, hezkuntza-etekin eta kostuak, hezkuntzaren finantzaketa, hezkuntzak lan merkatuarekin duen harremana edo hezkuntzaren eskaria aztertzen dira, garrantzitsuenetako batzuk aipatzearren. Atal honetan zehar, lan hauetako batzuk aurkeztuko ditugu, nagusiki goi mailako hezkuntzaren eskariarekin lotuak.

Hezkuntzaren Ekonomiaren jaiotza, Ekonomiaren baitako adar independente gisa, berrogeita hamarreko hamarkadaren bukaeran koka daiteke, Giza Kapitalaren Teoriaren agerpenarekin batera. Hainbat egilek adierazten dute diziplinaren unerik gorenena hirurogeiko hamarkada izan zela, mendebaldeko herrialdeetako hezkuntza sistemen hedapenarekin bat etorrita (Blaug, 1985; Eicher, 1988; Pineda Herrero, 2000). Hamarkada honen hasieran, Giza Kapitalaren Teoria garatu zuten Schultz, Becker eta Mincerrek, nagusiki. Teoria honek ahalbideturiko eremu teorikotik aurrera, hainbat ikerketa egin ziren planteamendu teoriko berriekin. Hurrengo paragrafootan, jarrera teoriko nagusiek proposaturiko funtsezko ideiak aurkezten dira.

1.2.1 Giza Kapitalaren Teoria

“Giza kapitala” terminoa oro har Theodore Schultzi esleitzen zaio, berak aurkeztu baitzuen lehenbizikoz 1959an emandako hitzaldi batean, pertsonen prestakuntzak produktibitatean eta hazkunde ekonomikoan duen garrantzia azaltzeko. Kontzeptu honen

inguruan, Becker, Mincer eta Schultz izen bereko teoria garatuz joan ziren.

Teoria honen ardatz nagusia da banakoek, beren buruan inbertituz, beren ekoizpen-ahalmenak areagotzea lortzen dutela, etorkizunean soldata-errenta handiagoak ekarriko dizkiena[1]. Inbertsio mota honi giza kapitalean inbertitzea deitzen zaio eta oso baliagarria izan daiteke pertsonen errentan gertatzen diren desberdintasunak ulertzeko (Becker, 1962).

Giza ahalmenak hobetzen dituzten eta etorkizuneko errentetan eragina duten jarduera nagusien artean hezkuntza dago[2]. Beraz, Giza Kapitalaren Teoriaren arabera, banakoek hezkuntzan inbertitzen dute beren trebetasunak eta ezagutzak hobetzeko eta, horrela, etorkizunean beren produktibitatea eta soldatak handitzeko. Ondorioz, baiezta daiteke hezkuntzan egindako gastuak inbertsio izaera nabarmena duela, izan ere, denbora eta dirua jarduera honetan inbertitzea erabakitzen duten banakoen helburu nagusia etorkizunean errentak eta beste zenbait asebetetze lortzea baita.

Giza kapitalaren eredutik ateratzen den ondorio nagusietako bat banakoek eskuratuko duten hezkuntza mailari buruz hartzen dituzten erabakiekin dago lotuta. Esan bezala, hezkuntza inbertsio ondasun bat da, eta banako bakoitzak hezkuntza jasotzeko erabakia kostuen, zuzeneko zein zeharkakoen, eta inbertsio horrek bere bizitzan zehar ekarriko dizkion onuren arabera erabakitzen du. Hau da, giza kapitalaren teoriaren ikuspegiaren arabera, banakoen

[1] Giza kapitalean inbertitzea honela defini daiteke: pertsona baten ekoizpen-ahalmena areagotzera bideraturiko baliabide eskasen borondatezko mobilizazio oro (Eicher, 1988).

[2]Osasun zerbitzu edo lan aukera hobeak aurkitzeko migrazio-mugimenduak jarduera mota hauen beste adibide bat dira.

jokabide araua banakoek beren bizi-zikloan zehar jasoko dituzten errenta garbien fluxuen itxarondako uneko balioa maximizatzen duen hezkuntza maila eskuratzea da (Modrego, 1988; Modrego, 1990). Finean, hezkuntzaren eskaria inbertsio ondasun baten eskaria da, hezkuntza jasotzen duten banakoen ekoizpen-ahalmena eta soldata-errentak handituko dituena (Mora Ruiz, 1990).

Beste alde batetik, teoria honek onartu egiten du giza ahalmenak hobetzen dituzten jardueretan inbertitzearen garrantzia herrialde baten hazkunde ekonomikoaren aldagai erabakigarri gisa. Hots, kapital fisikoaren hazkundeak herrialdeen errentaren hazkundearen zati bat baino ez duela azaltzen uste du. Bestela esanda, teoria honen arabera, gizarte baten hazkunde ekonomikoa azaltzeko, ekoizpen-faktore tradizionalez gain, alegia, lanaz eta kapital fisikoaz gain, giza kapitala deritzon aldagai bat kontuan hartu behar da, banakoen hezkuntza mailarekin lotua.

Ondorioz, hezkuntza bi alderditik uler daiteke inbertsio ondasun gisa: maila indibidualetik eta gizarte mailatik (Modrego, 1986). Batetik, banakoek hezkuntza eskatzen dute beren bizitzan zehar errenta garbien fluxu handiagoa lortzeko, eta, bestetik, gizartearen ikuspuntutik, hezkuntza-inbertsioek, kapital fisikoan egindako inbertsioek bezala, ondasun eta zerbitzuen ekoizpena areagotzen laguntzen dute.

Zentzu honetan, ikus daiteke Hezkuntzaren Ekonomiaren hasierako ekarpen ugarik Giza Kapitalaren Teorian jartzen dutela arreta, bai hezkuntza maila ezberdinen etekin tasak aztertuz, bai hezkuntzak hazkunde ekonomikoan duen eragina baloratuz (Becker, 1964; Becker, 1993; Blaug, 1970; Blaug, 1976; Blaug, 1985; Blaug,

1987; Bowman, 1986; Carnoy eta Levin, 1985; Hanushek, 1979; Hanushek, 1986; Mincer eta Polachek, 1974; Psacharopoulos, 1987; Psacharopoulos eta Woodhall, 1985; Rosen, 1977; Schultz, 1961).

Aurretik esan bezala, Giza Kapitalaren Teoria hirurogeiko hamarkadaren hasieran garatu zen, hedapen ekonomikoarekin batera. Hirurogeita hamarreko hamarkadan zehar, krisi ekonomikoak eta gobernu gehienen hezkuntza-aurrekontuen murrizketak aldaketa garrantzitsuak eragin zituzten Hezkuntzaren Ekonomian.

Hamarkada berriarekin batera, diziplinaren garapen garrantzitsua gertatu zen, beste norabide batzuetara jota. Aurrekontu-tentsioen areagotzearen ondorioz, hezkuntza-baliabideen esleipen optimoaren inguruko hainbat ikerketa burutu ziren, eta hezkuntza-finantzaketa eredu desberdinak aztertu ziren (Balcão Reis, 2006; Blaug, 1985; Calero, 1996; Carnoy, Miller eta Luschei, 2005; Díaz Malledo eta Moreno Becerra, 1988; Eicher, 1988; Fernández López, 2004; Pineda Herrero, 2000; San Segundo Gómez de Cadiñanos, 1995; Villarreal, 1996).

Era berean, garaturiko zenbait lanetan hezkuntzaren eta lan merkatuaren arteko harremanak aztertu ziren. Urte hauetan, Giza Kapitalaren Teoriak kritika ugari jaso zituen. Kritika hauek aldaketa esanguratsuak ekarri zituzten Hezkuntzaren Ekonomiaren corpus teorikoan, eta ikuspegi eta teoria berriak eragin zituzten, Iragazkiaren Teoria edo Lan Merkatu Segmentatuen Teoria, kasu.

1.2.2 Iragazkiaren Teoria

Iragazkiaren teoria ekonomikoaren arabera, hezkuntza banakoak iragazki jakin batzuetatik igarotzeko edo ez egiteko irizpidearen arabera banako horiek sailkatzea ahalbidetzen duen prozesua da, eta hezkuntza sistemak hautaketa mekanismo moduan funtzionatzen du, biztanleria arrakastaz igarotzea lortu duen iragazki edo proba kopuruaren arabera etiketatuz (Hagemeister, 2002; Quintás, 1982; Salas Velasco, 2008).

Teoria honek zuzenean eragiten dio giza kapitalaren ereduaren funtsezko hipotesiari, izan ere, horren arabera, hezkuntzak hobetu egiten du berau jasotzen duenaren ekoizpen-ahalmena. Iragazkiaren teoriaren arabera, aldiz, hezkuntzak ez die ezer eransten banakoen ekoizpen-ahalmenei; ekoizpen sistemak kontuan hartzen dituen subjektuen ezaugarri jakin batzuk, adimena, pertseberantzia, lanerako ahalmena eta diziplina, kasu, publikoki jakinaraztera mugatzen da (Arrow, 1973; Cañabate Carmona, 1997; Eicher, 1988; Quintás, 1982; Stiglitz, 1975).

Ikuspegi honen arabera, enplegatzaileek, langileen ekoizpen-ahalmenari buruzko informaziorik ez dutenek, hezkuntza-seinale edo etiketak erabiltzen dituzte pertsonen balioa estimatzeko. Informazio honekin, enpresek soldata handiagoak ematen dizkiete hezkuntza maila altuagoa duten pertsonei, hau da, iragazki kopuru handiagoa gainditu dutenei, honek ekoizpen-ahalmen handiagoa adierazten baitu.

Aurretik azaldu bezala, Giza Kapitalaren Teoriak ere uste du badagoela harreman positiboa hezkuntza, produktibitate eta

soldaten artean. Hala ere, Iragazkiaren Teoriaren arabera, produktibitate handiagoa ez da hezkuntza-prozesuak egindako eraldaketaren ondorio, baizik eta aurretik badagoen zerbait, eta hezkuntza sistema horren berri ematera mugatzen da (Modrego, 1986; Quintás, 1982).

Teoria honen planteamenduak murrizketarik gabe kontuan hartuta, ondorioztatzen da, Eicherrek dioen moduan (1988), enplegu eskatzaileak ekoizpen-ahalmenen arabera sailka litezkeela test-sorta baten laguntzarekin. Eicherrek argudiatu bezala, sistema honek hezkuntza sistemak baino askoz gutxiago kostatuko lukeenez, frogatu egin beharko litzateke hezkuntzaren beste funtzioak, lan-bizitzarako prestatzeko ez bestelakoak, nahikoa garrantzitsuak direla, garaturiko herrialde gehienetan, hezkuntza sektoreari aurrekontu publikoen ehuneko 15 eta 20 artean eskaintzeko.

Edozelan ere, gizabanakoaren errentagarritasunaren ikuspuntutik, baldin eta soldatak hezkuntzarekin positiboki erlazionatuta badaude, harreman horren azpian dauden suposizioak edozein direla ere, hezkuntza inbertsio ondasun bat da hezkuntza eskatzaile gisa banakoen jokabidean eragiten duena (Modrego, 1986).

Iragazkiaren Teoria oinarri hartuta, pertsonen hezkuntza mailak enplegatzaileei informazioa ematen dien etiketa bezala funtzionatzen du, perfektua ez den informazioa bereizgarri duen lan merkatu batean. Teoria honek hezkuntzaren paper hautatzailea planteatzen du, kontratazioaren unean, hau da, enpresak ez duenean langileen gaitasun pertsonalen inguruko informaziorik, hala ere, ez

du azaltzen hezkuntzaren eta lan-bizitzan zeharreko soldataren arteko harremana (Blaug, 1985; Selva Sevilla, 2003). Alegia, nahiz eta iragazkiaren ikuspegiak adierazi enplegatzaileek hobeto ordaintzen dietela gehien jantzitako banakoei beren trebetasunak ezagutzen ez dituztenean, ez ditu argitzen zein diren arrazoiak gauza bera egiten jarraitzeko langileen gaitasunak egiaztatzeko aukerak izan ondoren. Izan litekeen azalpen bat da, hurrengo paragrafootan azaltzen den bezala, barne lan merkatuak daudela.

1.2.3 Barne Lan Merkatuen eta Lan Merkatu Segmentatuen Teoriak

Barne lan merkatuen teoria Peter Doeringer eta Michael Piore (1985) ekonomialariek garatu zuten. Egile hauen esanetan, barne lan merkatu bat administrazio-unitate bat da, eta bertan soldatak eta lanpostuen esleipena barne mailako arau eta administrazio-prozedura multzo baten arabera arautzen dira, kanpo lan merkatuak lehiakortasunaren arabera funtzionatzen duen bitartean. Merkatu hauek, barne eta kanpokoak, kanpo merkatutik datozen langileek bete eta sarrera atakak osatzen dituzten lanpostu jakin batzuen bidez daude lotuta. Gainerako lanpostuak betetzeko, barne merkatura jotzen da, alegia, jada enpresa barruan dauden langileengana.

Bestela esanda, lan-egitura konplexuak dituzten enpresa handiek barne sustapenera jotzen dute lanpostu huts gehienak betetzeko, kanpo lan merkatua erabili beharrean, eta kanpo kontratazioa lanpostu edo sarrera ataka jakin batzuetara mugatzen

dute. Honek, langile berrien hautaketa prozesuaren efizientzia hobetzeaz gain, prozesu hori beti mugatzen baita lan-kategoria berberetara, lan-indarraren morala ere bultzatzen du, bizitza osorako hainbat karrera ahalbidetzen baitu enpresan bertan (Blaug, 1985).

Blaugek (1985) planteatzen du barne lan merkatu finkatua duen enpresa batean langileak, lanpostu bakarrerako kontratatuak izan beharrean, karrera profesional oso bat garatzeko kontratatuak izateko joera dagoela, eta horrek esan nahi du kontratatutakoan eskuraturiko abantailak lan-bizitza osoan zehar mantendu ohi direla. Beraz, esan daiteke langile bat kontratatua izatean bere lan-bizitza osoan zehar izango duen ekoizpen eta soldata ibilbidea erabakiko duen lan-eskailera batean kokatua dela (Selva Sevilla, 2003).

Lan merkatu segmentatuen teoriak bi segmentu nagusi bereizten ditu lan merkatuan: lehen mailakoa eta bigarren mailakoa. Segmentu hauek hainbat aldagairen arabera bereizten dira, hala nola ordainsariak, sustapenerako aukerak, autonomia, lan-segurtasuna, enpresen tamaina, langileen erabakitzeko ahalmena edo sindikazio maila (Calero, 1993).

Lehen mailako merkatua enpresa handiek osatzen dute, produktibitate eta etekin handiak dituztenak. Merkatu honek biltzen dituen enpleguak egonkorrak dira, ondo ordainduak, ardura handiagokoak eta sustapen aukerak dituztenak, enplegatzaileek barne merkatura jotzen dutelako. Modu berean, merkatu honek antolaketa sindikal garrantzitsua edukitzea du bereizgarri. Lehen mailako sektorearen baitan, beste bi segmentu har daitezke kontuan: goi mailakoa, hierarkiaren goialdeko lanpostuekin, eta behe mailakoa.

Bigarren mailako lan merkatuan, ordea, lanpostuak gaizki ordainduak daude, prestakuntza urria eskatzen dute, lan-mugikortasun handia dago, enplegatzaileek neurri handi batean kanpo merkatura jotzen dute eta sindikatuek ez dute paper garrantzitsurik jokatzen. Hortaz, teoria honen arabera, ez dago merkatu bakar bat, giza kapitalaren teoriak dioen bezala, baizik eta hainbat merkatu, euren artean iragazgaitz samarrak.

Eredu honek defendatzen du hezkuntza ez dela kontratazioan eragiten duen aldagai bakarra eta, gainera, bere eragina desberdina dela segmentu bakoitzean. Eicherrek (1988) dioen bezala, lan merkatuaren segmentazioaren teoriek islatzen dute segmentu desberdinetarako sarrera hainbat faktorek erabakitzen dutela, esaterako, enpresa batzuek ekintza askatasuna behar izateak beren kontratazio politikan, eta exijentzia gutxiko eskulana lan-baldintzei dagokienez.

Selva Sevillak (2003) adierazten du lehen mailako segmentuak barne merkatuen funtzionamenduaren ezaugarriak dituela, eta segmentu horretan soldatak eta lanpostuen esleipena barne mailako arau eta prozedurek zuzentzen dituztela. Bestetik, egileak argudiatzen du lehen mailako sektore honetarako sarrera, nagusiki goikora, hezkuntza mailaren araberakoa den heinean, balitekeela harremanik egotea hezkuntza formalaren eta soldaten artean. Gisa berean, azaltzen du bigarren mailako segmentuan ez dagoela sarrerarako hezkuntza-irizpiderik eta, ondorioz, ez duela zertan harremanik egon hezkuntza eta diru-sarreren artean.

Giza kapitalaren teoria garbiak ez bezala, lan eskaintzaren ikuspuntua baino ez duena kontuan hartzen, lan merkatuen

segmentazioari buruzko ikerketek lan eskariaren ikuspuntua hartzen dute kontuan, eta nabarmentzen dute enpresen eta hauen enplegu politiken ezaugarriek, seguruenik, eragin handiagoa dutela langileen ibilbide profesionalean langile horien ezaugarriek baino (Eicher, 1988).

Beste alde batetik, garrantzitsua da aipatzea giza kapitalaren teoria garbiak proposaturiko eskariaren hasierako ereduaren ahulezien analisian oinarrituta, orain arte aurkezturiko teoriez gain, hezkuntzaren eskariaren beste eredu berri batzuk ere garatu direla.

1.2.4 Giza Kapitalaren Teoriaren Hezkuntza Eskari Ereduaren Hedapena

Giza kapitalaren teoria tradizionalaren arabera, hezkuntza inbertsio ondasun bat da. Teoria honek banakoen jokabide arrazionala aipatzen du eta adierazten du hauek giza kapitalean inbertitzen dutela inbertsioak dakarkien kostuaren eta ekarriko dizkien etekinen arabera. Esan bezala, hezkuntzaren eskari eredu honi zuzenduriko kritika desberdinek hasierako ereduaren garapen berriak eragin dituzte. Azpiatal honetan, hainbat egilek azaldutako giza kapitalaren teoriaren zenbait kritika edo ahulezia aurkeztuko ditugu (Calero, 1993; Cañabate Carmona, 1997; Eicher, 1988; Selva Sevilla, 2003), eta kritika horietatik eratorritako hezkuntza eskari eredu batzuk aipatuko ditugu.

Hasierako hezkuntza eskari ereduak aurkezten duen hutsune nagusietako bat da uste duela hezkuntza inbertsio helburu batekin baino ez dela eskatzen. Garrantzitsua da kontuan hartzea hezkuntzaren eskariak baduela kontsumo osagai bat ere. Hots, etorkizuneko etekinak gehitzeko eskatzeaz gain, hezkuntza ikasle bizimoduaren abantaila eta erakargarritasunak gozatzeko helburuaz edo etorkizunean beste zenbait asebetetze izateko ere eska daiteke, esaterako, ondare kulturala aintzat hartzen ikasiz edo lagunak eginez eskuratu ahal direnak.

Zentzu honetan, Lévy-Garbouak (1979) aurkezturiko "hautagarritasun ereduak" hezkuntzaren kontsumo dimentsioa jaso nahi du. Egileak planteatzen duen eskari ereduan, ikasleen erabakiak, esperotako diru-sarrera gehigarriek baldintzatuta egoteaz gain, merkataritzakoak ez diren ikasle bizimoduarekin loturiko ondasunen menpe ere badaude.

Eredu hau Frantzian erabili da bertako goi mailako hezkuntza aztertzeko, eta ikasleek ondorengo hiru ondasun mota ezberdinek ematen dieten erabilgarritasuna maximizatzen saiatuz egiten dituztela beren aukerak adierazten du: unibertsitatetik igarotzeari esker lortzea espero duten etorkizuneko ondasunak, ikasketetan zehar familiaren laguntza ekonomikoari edo ordaindutako lanen bati esker lor ditzaketen merkataritzako ondasunak eta merkataritzakoak ez diren ikasle bizimodutik eratorritako ondasunak.

Beste alde batetik, giza kapitalaren teoriak dioenez, banakoek hezkuntzan inbertitzea erabakitzen dute inbertsio horren etekin-tasen arabera, ikasketak egitearen kostua eta ikasketa horiek egitearen ondoriozko etekinak alderatuz kalkulatuta. Tasa hauen

kalkuluan dagoen desabantaila garrantzitsu bat da ikasten emandako denboraren aukera kostua edo denbora ikasten emateagatik eta ordaindutako jarduera bat egiten ez egoteagatik irabazteari utzi zaion etekinak neurtzeko zailtasuna. Beste zailtasun garrantzitsu bat hezkuntzari esker lorturiko diru-sarrera gehigarriak kalkulatzeko orduan agertzen da, horrek diru-sarrera horien estimazioa bizitza aktiboaren bukaera arte baitakar, eta eguneratze-tasa bat aukeratzea ere bai. Gainera, giza kapitalaren ereduak ez du kontuan hartzen ikasketak ez gainditzeko arriskua, diru-sarrera hauek lortzea baldintzatuko duena.

Mingat eta Eicherrek (1982) proposaturiko "etekinaren eta arriskuaren arteko arbitraje ereduak" arrisku edo ziurgabetasun aldagaia txertatzen du ikasleek diziplina bat aukeratzeko prozesuan. Eredu honen arabera, errendimendu akademiko nahikoa ez izateagatik titulua ez lortzeko arriskuak eragina du banakoen erabakietan. Hau da, ikasleek etekin ekonomiko handieneko titulazioak aukeratzen dituzte, baina bakarrik uste badute titulazio horietan badutela arrakasta izateko aukera dezente.

Eicherrek (1988) adierazten duen moduan, eredu honek planteaturiko huts egiteko arriskua kontuan hartzeak ahalbidetu egiten du goi mailako ikasketen hautaketan dauden jatorri sozialaren araberako desberdintasunak azaltzea. Egilearen iritziz jatorri apaleko ikasleek ikasketa "errazagoak" edo arrakasta lortzeko aukera handiagoa ematen dutela iruditzen zaizkienak aukeratzen dituzte, ikasle hauek garrantzi handiagoa ematen diotelako titulua ez lortzeko arriskuari, huts egitearen ondorioak okerragoak baitira eurentzat.

Giza kapitalaren teoriak proposaturiko hezkuntzaren eskari ereduari zuzenduriko beste kritika bat da ez duela kontuan hartzen ikastetxeek ezaugarri eta ikasleak hautatzeko sistema desberdinak izaten dituztela, banakoen hautaketa baldintza dezaketenak. Hots, ez du kontuan hartzen eskaintza ez dela homogeneoa eta eragina izan dezakeela eskarian.

Hala ere, giza kapitalaren teoriak eskaintza aldagaiari zeharka baino ez heldu arren, Hezkuntzaren Ekonomiaren baitan gai honekin loturiko hainbat ikerketa korronte sortu dira (Eicher, 1988). Egin diren lanak oso desberdinak dira eta gai ugariri heldu diote, esaterako, hezkuntza Estatuaren edo merkatuaren eskuetan uzteko egokitasuna, ikastetxeen politiken eta eskainitako zerbitzuen kalitatearen eragina ikasleek lortutako emaitzetan, efizientzia baliabideen erabileran edo hezkuntzaren kostuak eta finantzaketa.

Ondorio gisa, esan daiteke laurogei eta laurogeita hamarreko hamarkadetatik aurrera Hezkuntzaren Ekonomia finkatu egin dela autonomia nabarmeneko azterketa corpus moduan, eta ikus daiteke ikerketa lan tradizionalez gain, hezkuntza eta soldaten arteko harremana edo hezkuntzak hazkunde ekonomikoari egindako ekarpena bezalako beste gai batzuk ere aztertzen direla.

Pineda Herrerok (2000) azaltzen du pentsamendu neoliberalaren eta ongizateko Estatua zalantzan jartzearen ondorioz aldaketa garrantzitsuak gertatu direla mendebaldeko gizarteetan, hezkuntzara zuzenduriko baliabide publikoen murrizketa, kasu. Egileak planteatzen duen bezala, gastu publikoaren murrizketa efizientzia, errentagarritasun eta produktibitate diskurtso batek lagunduta dago, Hezkuntzaren Ekonomian lan ugariren protagonista

dena. Halaber, adierazten du hezkuntzako erakundeen ebaluazioak eta hezkuntzaren finantzaketak dezenteko garrantzia hartu zutela diziplina honen baitan laurogeita hamarreko hamarkadan.

Labur esanda, Hezkuntzaren Ekonomiaren jarduera eremua azken urteotan nabarmen hedatu dela baiezta daiteke. Pineda Herrerok (2000), diziplina honen ikerketa esparru nagusien sailkapen bat aurkezten du. Sailkapen hori oinarri hartuta, hemen Hezkuntzaren Ekonomiaren baitako lan ugarik ardatz izan dituzten gai garrantzitsuenetako zenbait jasotzen dituen eskema bat aurkezten dugu:

-Hezkuntzaren eskaria.

-Hezkuntza, hazkunde ekonomikoa eta garapena.

-Hezkuntzaren plangintza.

-Hezkuntzaren kostuak eta etekina.

-Hezkuntzaren finantzaketa.

-Efizientzia eta ekitatea hezkuntzan.

-Hezkuntza eta lan merkatua.

-Hezkuntza-prozesuen funtzionamendua eta ebaluazioa.

-Hezkuntzako erakundeen eta ikastetxeen kudeaketa.

Aipaturiko esparru desberdin hauetatik, hezkuntzaren eskaria Hezkuntzaren Ekonomiaren funtsezko ikerketa gai bat da, eta egiazta daiteke ikerlan asko garatu direla esparru honen baitan. Hezkuntzaren eskariari buruzko azterketa askok eta askok goi mailako hezkuntza dute ardatz. Hurrengo azpiatalean, lan hauetako zenbait erakusten ditugu.

1.2.5 Goi Mailako Hezkuntzaren Eskariaren gaineko Ikerketa

Azken hamarkadotan, aurreko azpiatalean aurkezturiko hezkuntza eskari ereduez gain, goi mailako hezkuntzaren eskariarekin loturiko banakoen erabakiak, bai teorikoki, bai enpirikoki, aztertu dituzten ikerlan ugari garatu dira. Egiazta daiteke ikerketa horietako askok unibertsitate mailako hezkuntzaren benetako eskatzaileen edo eskatzaile potentzialen zenbait ezaugarri aztertzen dituztela eta ezaugarri horien eta gizabanakoen goi mailako hezkuntzari buruzko erabakien arteko erlazioak ezartzen saiatzen direla. Jarraiki, azterlan hauetako batzuen ekarpen nagusiak azalduko ditugu.

Lehenik eta behin, merezi du aipatzea Campbell eta Siegelek (1967) garaturiko lan berritzailea; bertan, goi mailako hezkuntzaren eskariaren eboluzioa aztertzen da 1919 eta 1964 urteen artean. Azterketa horren emaitzari erreparatuta, egiazta daiteke unibertsitate mailako eskariaren aldaketak familien errenta erabilgarriaren fluktuazioekin eta matrikularen prezioen aldaketekin lotuta daudela. Bi aldagaiei dagokienez kalkulaturiko eskariaren elastikotasunek islatzen dute familiaren diru-sarrerek eragin positiboa eta matrikula kostuek eragin negatiboa dutela goi mailako hezkuntzaren eskarian.

Espainiako unibertsitate-sistemarekin erlazionatutako ikerketei dagokienez, garrantzitsua da Apodaka, Grao eta Martínez Salazarrek (1986) egindako azterketa; helburu nagusia ikasleen curriculum aurrekarien eta beren unibertsitate mailako hezkuntzaren eskariaren arteko harremana ikertzea da. Ikerketa honetan erabiltzen diren datuak beren ikasketei 1983/1984 eta 1984/1985 ikasturteetan

Euskal Herriko Unibertsitatean ekin zieten ikasleenak dira. Lortutako emaitzen arabera, unibertsitate aurreko etapetako ikasleen errendimendu akademikoak ikasleek hautaturiko ikasketa motetan eragina duela esan daiteke. Errendimendu urriko ikasleek, ohikotasunez letretakoak deritzen ikasketetan matrikulatzeko joera dute, eta errendimendu hobeagoa dutenek, berriz, ikasketa teknikoetarako joera garbia aurkezten dute.

Era berean, nabarmentzekoa da Modregok (1986) egindako lana; bertan, ingurune sozioekonomikoari dagozkion faktoreek goi mailako hezkuntzaren eskarian duten eragina aztertzen du egileak, analisia Bizkaian ardaztuz. Lan honetan, eredu sekuentzial bat estimatzen da, banakoen erabakiak bi fasetan aztertzea ahalbidetzen duena. Lehenengo fasean, goi mailako ikasketak egiteko edo ez egiteko ikasleen erabakia aztertzen da. Bigarrenean, berriz, goi mailako ikasketak egitea erabakiz gero, kontuan hartzen da ziklo luzeko edo motzeko ikasketen arteko hautaketa. Kalkuluak bereizita daude gizonezkoei eta emakumezkoei dagokienez, haien jokabidean egon daitezkeen aldeak erakuste aldera.

Ikerketaren ondorio nagusien artean, egileak azaltzen du familiaren maila sozioekonomikoak eta ikasketak egiten dituzten familiako kideen proportzioak baldintzatu egiten dutela goi mailako ikasketak egiteko erabakia. Unibertsitatean ikasteko probabilitatea areagotu egiten da familiaren maila sozioekonomikoarekin, eta murriztu ikasten ari den familiako kideen ehunekoarekin. Halaber, ondoriozta daiteke emakumeen kasuan aitaren langabezia egoerak eragin negatiboa duela goi mailako ikasketak egiteko probabilitatean. Bestetik, egileak dioen bezala, ez dago lan

merkatuko baldintzak unibertsitate mailako ikasketak egiteko edo ez egiteko erabakiarekin lotuta daudelako ebidentzia enpirikorik.

Ziklo luzeko edo motzeko ikasketen arteko hautaketaren kasuan, ordea, lan merkatuko baldintzek badute eragin esanguratsua. Gisa berean, ikusten da familiaren maila sozioekonomikoa positiboki dagoela lotuta ziklo luzeko ikasketak aukeratzeko probabilitatearekin. Halaber, egiazta daiteke gizonen kasuan aita langabezian egoteak murriztu egiten duela probabilitate hori. Azkenik, ikusten da emakumeen kasuan ziklo luzeko ikasketak egiteko probabilitatea areagotu egiten dela hauek Bilbotik hurbileko eremuetan bizi direnean.

Goi mailako hezkuntzaren eskariari eragiten dioten aldagai sozioekonomikoak Mora Ruizek (1988) ere aztertu ditu. Egile honek, modu orokor batean, goi mailako hezkuntzaren eskaria azaltzeko normalean erabilitako faktore nagusiak deskribatzen ditu. Deskribapen honen arabera, goi mailako hezkuntza eskatzaile gisa banakoen portaeran eragiten duten bost faktore mota bereiz daitezke. Ondorengo eskeman, faktore talde desberdinen inguruko ideia orokor bat eskaintzen da, hala nola euren arteko harremanarena.

GOI MAILAKO HEZKUNTZAREN ESKARIAN ERAGINA DUTEN FAKTOREAK



Iturria: Mora Ruiz (1989)

1) Ikertzaileak, unibertsitate mailako ikasketak egiteko adinean dauden banakoen kopurua goi mailako hezkuntzaren eskarian eragiten duten faktore demografiko nagusienetako bat bezala aurkezten du. Eztabaidaezina da goi mailako ikasketak egiteko adinean dagoen biztanleria faktore erabakigarria izan dela Espainiako unibertsitate mailako eskariaren hedapenean laurogei eta laurogeita hamarreko hamarkadetan. Nabaria denez, eskuraturiko unibertsitate aurreko hezkuntza mailek ere zehazten dute eskaria. Halaber, sexua kontuan hartzeko moduko aldagaia da, izan ere, unibertsitate mailako

hezkuntzaren eskarian zuzeneko eragina izateaz gain, eragina duten beste aldagai batzuen efektua ere baldintza dezake.

2) Lan honetan, halaber, egileak azaltzen du faktore ekonomikoek nabarmen baldintzatzen dituztela unibertsitate mailako eskariarekin loturiko erabakiak. Hainbat aldagai ekonomikok, hezkuntzan egindako gastu publikoak edo ikasleak bere gain hartu beharreko kostuek, kasu, eragina dute goi mailako hezkuntzaren eskarian. Unibertsitateko ikasleak bere gain hartu beharreko kostuen barruan ikasten emandako denboraren aukera kostua dago, era berean beste aldagai batzuen menpe dagoena, esaterako, langabezia edo soldata mailaren menpe. Bestetik, familiaren diru-sarrerak eta laguntza estatalak ere badaude hezkuntza eskatzeko orduan banakoen jokabidean esku hartzen duten faktoreen artean. Modu berean, goi mailako hezkuntzatik esperotako etekinek, ordaindutako lan hobe bat lortzeko itxaropenek, adibidez, baldintzatu egiten dituzte unibertsitate mailako ikasketen eskariarekin loturiko erabakiak.

3) Mora Ruizen arabera, hezkuntzaren eskaria badago faktore familiarren menpe ere, gurasoen ikasketa maila eta lanbidearen edo anai-arreba kopuruaren menpe, kasu. Eragina duten faktore sozialen artean erlijioa, familiarteko hizkuntza, inguruneko hezkuntza maila edo ingurune mota, landa-ingurunea edo hiri-ingurunea, nabarmentzen dira.

4) Halaber, adierazten du badaudela hainbat baldintzatzaile indibidual unibertsitate mailako hezkuntza eskatzaileen portaeran eragiten dutenak. Egileak gaitasun intelektuala, errendimendu akademikoa edo ikaslearen nortasuna azpimarratzen ditu goi mailako hezkuntzaren eskaria azaltzeko funtsezko ezaugarri pertsonal gisa.

5) Azkenik, egileak adierazten du eskaria azaltzeko beste faktore talde garrantzitsu bat eskaintzarekin loturikoak direla. Hau da, zentzuzkoa da pentsatzea hezkuntza erakundeen ezaugarriek, besteak beste, irakaskuntzaren kalitateak, irakasleen ezaugarriek, ospeak, kokapenak, tamainak, leku-eskaintza politikak edo azpiegiturak, eragin nabarmena dutela unibertsitate mailako eskarian, eta bereziki garrantzitsua dela horiek kontuan hartzea unibertsitateen edo ikastetxeen eskari espezifikoa aztertzerako orduan.

Unibertsitate mailako eskarian eragiten duten faktoreez gain, egileak goi mailako hezkuntzaren eskaria aztertzeko erabilitako metodologia nagusien sailkapena ere aurkezten du. Lehenik, adierazten du oro har erabilitako metodoak bi motatakoak izan direla: egiturazkoak eta analitikoak. Lehenengoek ikasleen fluxuak aztertzen dituzte, fluxu horiek eragiten dituzten faktoreak alde batera utzita; bigarrenek, berriz, goi mailako hezkuntzaren eskaria bere gain eragiten duten aldagaien balorazioaren bidez aztertzen dute.

Metodo analitikoen baitan eta erabilitako datuen arabera, egileak goi mailako hezkuntzaren eskariaren hiru azterketa eredu ezartzen ditu: analisi kronologikoko ereduak, denborazko datuen serieak erabiltzen dituztenak, eredu espazialak, lurralde erakunde desberdinetan sortutako informazioarekin lan egiten dutenak, eta unibertsitate mailako hezkuntza eskatzaileen ezaugarri pertsonalen gaineko datuak aztertzen dituzten ereduak.

Eredu kronologikoek, hezkuntzaren eskariaren eboluzioa hainbat faktore sozioekonomikoren denborazko aldaketak kontuan hartuz aztertzen dute, eta eskari horren gaineko aurreikuspenak egitea ahalbidetzen dute. Bestetik, eredu espazialekin, azterturiko entitate geografikoen hainbat ezaugarri sozial edo ekonomikok unibertsitate mailako eskarian duten eragina azter daiteke. Azkenik, eskariaren azterketari, hezkuntza eskatzaileen zenbait ezaugarriri buruzko informazioa erabiltzen duten eta ezaugarri horien eta goi mailako hezkuntzarekin loturiko erabakien arteko harremanak ezartzeko oso baliagarriak diren ereduekin ere hel dakioke.

Lan honetan bertan, Mora Ruizek hiru ikerketaren berrikuspena txertatzen du. Ikerketa horietan Espainiako unibertsitate-sistemaren kasurako goian aipatu ditugun hiru eredu analitiko motak erabiltzen dira. Hau da, Espainiako goi mailako hezkuntzaren eskariaren portaera hobeto ulertzeko asmoz, egileak mota espazialeko analisi bat, mota kronologikoko bat eta ezaugarri pertsonalen beste bat erabiliz lorturiko emaitza nagusiak aurkezten ditu.

i. Azterketa espazialeko ereduak Espainiako berrogeita hamar probintzietako unibertsitate mailako hezkuntzaren eskariaren

eta probintzia horien zenbait ezaugarri sozioekonomikoren arteko harremana aztertzen du. Analisi honetan, eskari totalaz gain, bereizita aztertzen dira eskari femenino eta maskulinoa, hala nola ziklo luzeko eta laburreko ikasketen eskaria, eta bi une desberdinetako datuak erabiltzen dira, 1970ekoak eta 1981ekoak, hain zuzen. Ondorio gisa, esan daiteke goi mailako hezkuntzaren eskaria, funtsean, probintzian bizi diren goi mailako ikasketak jada bukatuta dituzten pertsonen proportzioak, kostu gutxiagori aurre egin behar izatea posible egiten duten hurbileko ikastegi unibertsitarioak egoteak, eta azterturiko eskari motaren arabera garrantzi desberdina duten familiaren errenta, batxilerren tasa edo langabezia tasa bezalako beste zenbait faktore sozioekonomikok baldintzatuta ageri dela.

ii. Analisi kronologikoa Espainiako goi mailako hezkuntzaren eskariaren bilakaera 1961/1962 eta 1982/1983 ikasturteen artean hainbat faktore sozioekonomikorako behatutako aldakuntzen arabera aztertzeko erabiltzen da. Azterketa honetan, ziklo luzeko ikasketen eskaria baino ez da hartzen kontuan, eta eskari hori, azterturiko aldian zehar, erabakitzen duten faktore nagusiak per capita errenta nazionala, tituludunen soldata maila eta langabezia tasa direla ondorioztatzen da.

iii. Bukatzeko, 1987an Unibertsitateen Kontseiluarentzat egindako unibertsitate mailako hezkuntza eskatzaileen

ezaugarri pertsonalei buruzko azterketa bat aipatzen da. Azterlan honetan, ikasketen eta ikastegiaren hautaketari dagokionez ikasleen erabakietan garrantzi handiagoarekin eragiten duten motibazioak ikertzen dira. Ondoko taulan, erabaki horiek azaltzen dituzten hamar faktore nagusiak aurkezten dira, eraginari dagokionez beheranzko ordenan.

Unibertsitate Mailako Ikasketa eta Ikastegien Hautaketaren Faktore Azaltzaileak

I.	BIZITOKIA EZ ALDATZEA
II.	AUKERATUTAKO KARRERAN SARTZEKO ERRAZTASUNA ETA KARRERAREN LABURTASUNA
III.	IRAKASKUNTZAREN KALITATEA ETA ETORKIZUNERAKO AUKERA ONAK
IV.	HAINBAT ARRAZOI
V.	ASKATASUNEZ AUKERATZEKO EZINTASUN AKADEMIKOA
VI.	ARRAZOI EKONOMIKO ETA FUNTZIONALAK
VII.	KONTSERBADURISMOA EDO INERTZIAZKO JOKABIDEA
VIII.	TRADIZIO FAMILIARRA
IX.	ONDOREN BESTE IKASTEGI BATERA ALDATZEKO
X.	ERRAZTASUNA

Unibertsitateen Kontseilua (1987)

Bestetik, merezi du Mora Ruizen (1989) beste ikerketa bat ere aipatzea, beranduago argitaratua; bertan, hainbat lan enpirikoren berrikuspena egiten da. Ikerlan honek hainbat ereduri buruzko ikuspegi orokorra eskaintzen du, goi mailako hezkuntzaren eskariaren faktore erabakigarriak herrialde desberdinetan aztertzen dituztenak. Analizatutako ereduen artean eredu kronologiko, espazial zein ezaugarri pertsonalekin lotutakoak aurki daitezke.

Helburua eredu hauen ezaugarri nagusiak deskribatzea eta ondoriorik garrantzitsuenak aurkeztea da.

Eredu kronologikoei dagokienez, aurretik esan bezala, hauek hezkuntzaren eskariaren jokabidea hainbat faktoreren denboran zeharreko aldaketen aurrean ulertzen laguntzen dute. Mora Ruizek, mota honetako zenbait ereduren berrikuspenaren ondorioz, hainbat aldagai sozioekonomikoren eta goi mailako hezkuntzaren eskariaren artean dagoen harremana azaltzen du. Hurrengo taulan, harreman hauen laburpena aurkezten da.

Eredu Kronologikoetan Erabilitako Aldagai Azaltzaile Nagusien Eragina Hezkuntzaren Eskarian

1. Errentak	Oso positiboa
2. Batxilerren tasak	Oso positiboa
3. Kostuak	Negatiboa
4. Tituludunen soldatak	Positiboa
5. Langabezia	Apur bat positiboa

Iturria: Mora Ruiz (1989)

Aurreko taulan egiazta daitekeen bezala, oro har, badago harreman sendo positiboa batez besteko diru-sarrerak eta goi mailako hezkuntzaren eskaria neurtzeko erabilitako aldagaien artean. Era berean, batxilerren tasak, bigarren mailako hezkuntzaren eskariaren neurri bati egiten dionak erreferentzia, eragin positibo nabarmena dauka unibertsitate mailako hezkuntzaren eskarian. Beste alde batetik, ikus daiteke goi mailako hezkuntzaren eskariaren eta bere kostuen arteko harremana negatiboa dela, nahiz eta ez gehiegi. Alderantziz, espero daitekeen bezala, titulurik gabekoen aurrean tituludunen soldaten maila erlatiboak positiboki eragiten du

eskarian. Azkenik, langabeziak hezkuntzaren eskarian efektu positibo arina aurkezten duela erakusten da.

Goi mailako hezkuntzaren eskaria aztertzeko beste modu bat analisi espazialeko ereduak erabiltzea da. Eredu hauen bidez, zenbait faktore sozioekonomikok unibertsitate mailako eskarian entitate geografiko desberdinetan duten eragina aztertzen da. Mora Ruizek eredu mota hau erabili duten hainbat lanen berrikuspena egiten du, eta hainbat aldagaik eskarian duten eragina aurkeztu. Berrikusitako lanetan lorturiko emaitza garrantzitsuenak ondoko taulan azaltzen dira.

Eredu Espazialetan Erabilitako Aldagai Azaltzaile Nagusien Eragina Hezkuntzaren Eskarian

1. Hezkuntza maila soziala	Oso positiboa
2. Ikastegien hurbiltasuna	Positiboa
3. Kostuak	Negatiboa
4. Errentak	Eragin kontrajarriak

Iturria: Mora Ruiz (1989)

Ikerketa mota hauen analisiak azterturiko lurralde unitateko batez besteko hezkuntza mailaren eta bertako unibertsitate mailako eskariaren artean harreman positibo garrantzitsua dagoela egiaztatzea ahalbidetzen du. Lan hauetan, hurbileko ikastetxeak daudela adierazten duten aldagaiak ere aztertzen dira, eta aldagai hauen eragina eskarian positiboa dela frogatzen da. Kostuen eta goi mailako hezkuntzaren eskariaren arteko harremana, ordea, negatiboa da. Errenta mailari dagokionez, berrikusitako ikerlanetan aldagai honen efektu desberdinak jasotzen dira, azterturiko unibertsitate mailako eskari motaren arabera.

Azkenik, badaude beste eredu mota batzuk unibertsitate mailako hezkuntza eskatzaileen ezaugarriei buruzko datuak erabiltzen dituztenak eta askotan proposatu izan direnak eskaria aztertzeko. Eredu hauek posible egiten dute banakoen hainbat ezaugarri sozial, ekonomiko, familiar eta pertsonalek goi mailako hezkuntzarekin loturiko haien erabakietan duten eragina ikertzea. Hurrengo taulan, eredu mota hauek erabiltzen dituzten hainbat lanen ondorioak aurkezten dira.

Ezaugarri Pertsonalen Azterketa Ereduetan Erabilitako Aldagai Azaltzaile Nagusien Eragina Hezkuntzaren Eskarian

1. Gaitasun intelektuala	Oso positiboa
2. Errendimendu akademiko maila	Oso positiboa
3. Gurasoen hezkuntza maila	Oso positiboa
4. Diru-sarrera familiarrak	Positiboa
5. Gurasoen maila profesionala	Positiboa
6. Matrikula tasak	Negatiboa
7. Ikastegien hurbiltasuna	Positiboa
8. Anai-arreba kopurua	Apur bat negatiboa
9. Emakumea izatea (1980. urteaz geroztiko datuak)	Positiboa
10. Langabezia	Apur bat negatiboa
11. Soldata mailak	Kontraesankorra
12. Ikastegiaren kalitate maila	Positiboa

Iturria: Mora Ruiz (1989)

Aurreko taulan ikusten da gaitasun intelektuala, errendimendu akademikoa edo gurasoen ikasketa maila moduko aldagaiek eragin positibo garrantzitsua dutela hezkuntzaren eskarian. Diru-sarrera familiarrek eta gurasoen maila profesionalak ere eragin positiboa dute, baina txikiagoa. Bestetik, matrikula tasek goi mailako

hezkuntzaren eskarian eragin negatiboa duten bitartean, beste faktore batzuek, ikastegien hurbiltasunak, kasu, eragin positiboa dute. Emakumea izateak ere eragin positiboa du unibertsitate mailako eskarian, laurogeiko hamarkadako datuekin egindako zenbait azterketaren arabera. Alderantziz, anai-arreba kopurua eta langabezia moduko aldagaiek eragin negatibo arina aurkezten dute. Uneko eta esperotako soldata mailei dagokienez, hezkuntzaren eskariaren gaineko eragina desberdina da garaturiko eredu desberdinen arabera. Azkenik, ikusi da ikastegiaren kalitate mailak eragin positiboa duela eskarian, betiere gehiegizko zailtasunik ez dakarkionean banakoari, bere gaitasun intelektuala aintzat hartuta.

Beranduago, Cea D'Ancona eta Mora Ruizek (1992), aurretik azaldutako Lévy-Garbouaren (1979) eta Mingat eta Eicherren (1982) ikerlanak kontuan hartuta, hezkuntzaren eskariaren kontsumo osagaiak zein inbertsioarekin loturikoak aintzat hartzen dituen ikerketa bat aurkezten dute. Eredu teoriko bat formulatzen dute eta, bertan, banakoen erabakiak hainbat faktoreren menpe daude, esaterako, ikasketen kostua, diru-sarrera familiarrak edo soldata maila eta langabezia maila, batxilergotik atera berri diren ikasleena nahiz unibertsitateko tituludunena. Beste alde batetik, ereduak, errendimendu akademikoaz gain, ikasle bakoitzarentzako aukera desberdinen zailtasun maila ere kontuan hartzen du, hala nola banako bakoitzak aukera horiek eskaintzen dituzten uneko eta etorkizuneko abantaila eta desabantailei buruz egiten duen balorazio subjektiboa.

Eredu hori aplikatuta, Cea D'Ancona eta Mora Ruizek hainbat aldagaik unibertsitatera joateko edo ez joateko erabakian, ziklo

luzeko edo motzeko ikasketak hautatzeko erabakian eta ikasketa esparru desberdinak aukeratzeko erabakian duten eragina aztertzen dute. Ondorioen artean, nabarmen daiteke emaitza akademiko onenak dituzten ikasleek ziklo luzeko ikasketak nahiago dituztela. Gainera, ziklo luzeko ikasketak hautatzen dituzten ikasleek uste dute ikasketen ospea garrantzitsua dela, ikasketa horiek eskainitako lan-aukerak urriak izan arren.

Era berean, Mora Ruizek (1996a) burututako beste ikerlan batean Espainiako unibertsitate-sistemaren bilakaera aztertzen da, unibertsitate mailako eskariaren hazkundearen arrazoi eta ondorio nagusiak azalduz, hala nola unibertsitate mailako eskaintzaren hedapen prozesua eta eskari horri erantzuteko garaturiko politika publikoak. Egileak unibertsitateko ikasleen ezaugarri sozioekonomikoen aldaketa eta lan merkatuan dauden graduatuen kopuruaren hazkuntza bezalako zenbait gertaera nabarmentzen ditu.

Unibertsitate mailako hezkuntzaren eskaria aztertzen duen beste ikerketa bat Latiesak (1989) garaturikoa da, 1984/1985 ikasturtean Madrileko Unibertsitate Autonomoan, zuzenbidea, medikuntza, psikologia, zientziak eta letrak karreretan beren ikasketei ekin zieten ikasleen datuak erabilita. Lan honetan, egileak unibertsitate mailako ikasketen hautaketan eragiten duten faktore nagusiak aztertzen ditu. Ondorio bezala esan daiteke ikasleek unibertsitateko karrera bat aukeratzeko orduan dituzten motibazio nagusiak ikasketa horiek eman diezazkiekeen lan-aukerak, ikasketa mota jakin batekiko gustuak eta ikasleak izan dezakeen arrakasta akademikoaren inguruko balorazioa direla. Lan bila egon bitartean

aisialdiaren erabilera edo tradizio familiarra bezalako arrazoiak ere aipatzen dira.

Salas Velascok (1996) egindako azterlanean, berriz, 1993/1994 ikasturtean Granadako Unibertsitateko ekonomia eta enpresa zientzien fakultatean ikasten hasi ziren ikasleek eragindako goi mailako hezkuntzaren eskaria aztertzen da. Egileak ikasle batzuek enpresen administrazioan eta zuzendaritzan lizentziatura aukeratzea eta beste batzuek, berriz, enpresa zientzietako diplomatura aukeratzea determinatzen duten faktoreak aurkezten ditu. Hautaketa horren baldintzatzaile nagusien artean ikaslearen aita profesionala izatea dago, positiboki eragiten duena lizentziatura aukeratzeko probabilitatean. Halaber, banako batek lizentziatura aukeratzeko probabilitatea handitu egiten da familiaren bizilekua Granada hiriburuan kokaturik dagoenean, eta amak goi mailako batxilergo edo unibertsitate ikasketak dituenean.

Jiménez eta Salas Velascoren (2000) ondorengo ikerketa batean ere ikasle batzuek enpresen administrazioan eta zuzendaritzan lizentziatura eta beste batzuek, berriz, enpresa zientzietako diplomatura aukeratzeko erabakia baldintza dezaketen aldagaien analisia burutzen da. Kasu honetan, 1994/1995 ikasturtean Granadako Unibertsitateko ekonomia eta enpresa zientzien fakultatean lehen mailan matrikulaturiko ikasleen datuak erabiltzen dituzte.

Egileek, alde batetik, Mingat eta Eicherrek (1982) planteaturiko eskema kontuan hartuta, honako laburpena aurkezten dute banakoen hezkuntza-aukerak baldintza dezaketen faktoreen inguruan.

HEZKUNTZA-AUKERAK ERABAKITZEN DITUZTEN FAKTOREAK



Iturria: Jiménez eta Salas Velasco (2000)

Beste alde batetik, analisi enpirikoaren emaitzetan oinarrituta, bai familiaren diru-sarrera mailak, bai familiaren hezkuntza mailak, iraupen luzeagoko ikasketak hautatzeko probabilitatean positiboki eragiten dutela azaltzen dute. Aipatu ere aipatzen dute ikasleen errendimendu akademikoak eragin positiboa duela ziklo luzeko ikasketen eskarian.

Duela gutxiagoko lan batean, Martín-Cobos Puebla eta Salas Velascok (2006), ziklo luze edo laburreko ikasketak hautatzeko probabilitatean eragina duten faktoreez gain, unibertsitateko titulazio desberdinak aukeratzeko baldintzatzaileak aztertzen dituzte. Lan enpirikorako datuak postaz bidalitako inkesta baten bidez lortu ziren, 1996/1997 ikasturtean Granada hiriaren hainbat profesionalen elkargotan izena emandako tituludunei zuzendua. Ikasketen iraupenari dagokionez, mantendu egiten dira aurretik lorturiko emaitzak, eta esan daiteke familiaren diru-sarrera eta ikasketa mailek eragin positiboa dutela banakoak lizentziatura

aukeratzeko probabilitatean. Era berean, unibertsitate mailako titulazio baten hautaketaren kasuan, ikusten da etxeko giro kultural eta familiaren errenta maila bezalako aldagaiek eragin esanguratsua dutela karrera desberdinak egiteko probabilitatean. Sexua edo ikasketei ekiteko unea bezalako beste faktore batzuk ere erabakigarriak dira titulazio baten hautaketan.

Ildo beretik, De Pablos Escobar eta Gil Izquierdok (2007) Espainian goi mailako hezkuntzaren eskuraketa baldintzatzen duten aldagaiak aztertzen dituzte, 2004. urterako bizi-baldintzen inkestako datuak erabiliz. Ondorio nagusien artean, nabarmentzen dute unibertsitate mailako eskariaren gaineko gurasoen hezkuntza mailaren eragin positiboa, edo familiako kide langabetuen ehunekoaren eragin negatiboa.

Beranduago, De Pablos Escobar, Gil Izquierdo eta Martínez Torresek (2010) antzeko azterketa bat garatu zuten, 2005. urterako bizi-baldintzen inkestako datuak erabiliz, eta bertan amen hezkuntzaren efektu positiboa eta etxeko langabeen eragin negatiboa nabarmendu zuten.

Era berean, garrantzitsua da Albert Verdú (1998) egileak garaturiko ikerketa aipatzea; bertan, Espainiako goi mailako hezkuntzaren eskariaren bilakaera aztertzen du laurogei eta laurogeita hamarreko hamarkadetan zehar. Ikerlan honetan, izaera desberdineko faktoreek unibertsitate mailako eskarian aldi horretan zehar izandako eragina azaltzen da.

Albert Verdúk (2008) beranduago egindako lan batek, azken hogeita hamar urteotan unibertsitate mailako ikasketen eskariaren eboluzioa aztertzen du, eta immigrazioaren areagotzeak eboluzio

horretan izandako eragina azaltzen du. Biztanleria Aktiboaren Inkestako (BAI) datuak erabiliz, unibertsitate mailako hezkuntzaren eskariak azken urteotan jasandako beherapena erakusten du. Egileak argumentatzen du Espainian biztanleria atzerritar gaztearen gehikuntzak hezkuntza-adierazle batzuen hobetzeko erresistentzia azal dezakeela.

Fernández López, Rodeiro Pazos eta Ruzo Sanmartínek (2003) garaturiko analisia aipatzea ere garrantzitsua da, Galiziako unibertsitate-sistemaren ingurukoa. Egile hauek Galiziako unibertsitateen lehiakortasun gaitasuna aztertzen dute, erakunde bakoitzak eskaintzen dituen titulazio moten arabera. Galiziako unibertsitate-sistemaren titulazio desberdinak eskari eta eskaintza irizpideen arabera multzokatu ondoren, lortutako titulazio multzoen ezaugarri nagusiak deskribatzen dituzte, eta Galiziako unibertsitateen lehiakortasun ahalmena alderatzen dute bakoitzak dituen titulazio motetan oinarrituz. Hala, ondorioztatzen dute Coruñako Unibertsitatea dela lehiakortasun gaitasun handiena duena, Vigoko Unibertsitateak jarraituta, tarteko gaitasuna erakusten duena, eta, azkenik, Santiago de Compostelako Unibertsitateak duela lehiakortasun ahalmen txikiena.

Duela gutxiko lan batean, Flavián eta Lozanok (2007) Espainiako unibertsitate-sisteman azken urteotan gertaturiko hainbat aldaketa aztertzen dituzte. Espainiako unibertsitate publikoen arteko lehiakortasun hazkorra nabarmentzen dute, eta, arrazoi nagusi moduan, ikasleen mugikortasun aukeren gehikuntza, ikasle kopuruaren jaitsiera, unibertsitate publikoen kopuruaren handitzea eta beste hezkuntza-aukera batzuen erakargarritasun

hazkorra aurkezten dituzte. Unibertsitateen merkaturako orientazioa planteatzen dute lehiakortasun biziko egoera honi aurre egiteko modurik egokien bezala.

1.3 Marketin Unibertsitarioa

Aurreko atalean, agerian uzten da hezkuntzaren azterketa ekonomikoak lagundu egiten duela hezkuntza-fenomenoak hobeto ulertzen, eta oso baliagarria izan daitekeela hezkuntza sistemek egoki funtzionatzeko. Halaber, Hezkuntzaren Ekonomiaren esparruan unibertsitate mailako hezkuntzaren eskariaren analisiari buruzko ikuspegi orokorra emate aldera, eskari horren hainbat aspektu aztertzen dituzten lan ugari aurkezten dira.

Modu berean, atal honetan hezkuntza-gai batzuei Marketinaren ikuspegitik heltzearen egokitasuna azaltzen saiatuko gara. Hurrengo paragrafootan erakusten dugu hezkuntzaren esparruan eta, zehazki, kudeaketa unibertsitarioan, diziplina honen aplikazio gero eta zabalduagoak abantaila garrantzitsuak ekar diezazkiekeela hezkuntza erakundeei.

Hezkuntza-gaiak marketin ikuspuntutik aztertzeak ikerketa ugari eragin ditu hainbat herrialdetan, nagusiki anglosaxoietan, Estatu Batuak, Erresuma Batua, Kanada edo Australian, kasu. Lan hauek gai ugari aztertzen dituzte, esaterako, unibertsitate bat aukeratzea baldintzatzen duten faktoreak, ikasleen asebetetzea eta fideltasuna, hezkuntzako erakundeen irudia edo unibertsitateen merkaturako orientazioa.

Goi mailako hezkuntzaren sektoreko gero eta lehiakortasun handiagoa, esparru unibertsitarioan diziplina hau aplikatzeko motibazio nagusietako bat bezala uler daiteke. Hau da, ikus daiteke, gaur egun, herrialde desberdinetako unibertsitateek elkarren artean lehiatu behar dutela ikasle berriak erakartzeko. Ondorioz, unibertsitateek enpresetan bezeroak erakartzeko eta bertan geratzeko eraginkorrak izan diren marketin kontzeptu, teknika eta estrategia desberdinak erantsi dizkiote beren ikastegietako kudeaketari (Ponce Núñez, 2004; Ponce Núñez, 2005).

Nabarmena da, edonola ere, herrialde bakoitzeko hezkuntza-errealitateak eta errealitate sozioekonomikoak oso desberdinak direla, eta herrialde batzuek, tradizionalki, merkatura biziki orientaturiko goi mailako hezkuntza sistemak izan dituztela. Herrialde bakoitzeko finantzaketa sistema desberdinak eta legerian edo inguruneko beste elementu batzuetan aurkezten dituzten diferentziak, herrialde horien unibertsitateen lehiakortasun mailan eta kudeaketa motan eragina dute.

Espainiako unibertsitate-sistemaren kasu zehatzean, goi mailako hezkuntzako erakundeen arteko lehia faktore ezberdinen ondorioz areagotu egin dela esan dezakegu, esaterako, unibertsitate mailako eskaintzaren hedapena azken hamarkadotan, azken urteotako unibertsitate mailako eskariaren jaitsiera edo Barruti Irekia indarrean sartzea, ikasleei unibertsitatea hautatzeko aukera ematen diena non bizi diren kontuan hartu gabe.

1.3.1 Marketina Hezkuntzaren Esparruan Aplikatzeari buruzko Eztabaida

Iraganean marketina nagusiki irabazi asmoko enpresek erabili badute ere, azken urteotan irabazi asmorik gabeko erakunde askoren kudeaketan ere txertatu da. Hau, American Marketing Associationek berriki egindako definizioan islatu da, honela ulertuta marketina: "*Marketina antolaketa funtzio bat da, eta bezeroei balioa sortzeko, komunikatzeko eta emateko, eta, erakundeak eta gainerako interesdunek onura izateko moduan, bezeroekin harremanak kudeatzeko prozesu multzo bat*"[3].

Unibertsitateak hainbat talderi onura ekartzen dioten erakundeak dira, ikasleei, enpresei, erakundeei edo gizarteari oro har, kasu. Beraz, zentzuzkoa da unibertsitate askok, publikok zein pribatuk, marketin teknika eta estrategiek eskainitako abantailak erabiltzea beren misioa eta helburuak betetzeko. Marketinak eskaintzen dituen tresnek lagundu egin diezaiekete unibertsitateei euren kudeaketa hobetzen, ikasle eta irakasle onak erakartzen, finantzaketa baliabideak lortzen, enpresa eta instituzioen laguntza erdiesten edo erakundearen irudia hobetzen (Carmelo, 2007; Kotler eta Fox, 1995; Kotler eta Levy 1969; Ponce Núñez, 2005).

Hala ere, azken urteotan unibertsitateen administrazioan marketinaren aplikazioak eremua irabazi badu ere, eztabaida handia dago horren egokitasunaren inguruan (Barnett, 2010; Chen, 2008;

[3] American Marketing Associationek marketinaren inguruan emandako definizioa: "*Marketing is an organizational function and a set of processes for creating, communicating, and delivering value to customers and for managing customer relationships in ways that benefit the organization and its stakeholders*".

Gabbott eta Sutherland, 1993; Lin, 1997). Oro har, bi jarreraz hitz egin daiteke.

Batetik, hezkuntzako erakundeetan marketina erabiltzea kritikatzen dutenek uste dute irabazi asmorik gabeko erakundeak ez direla merkatura bideratuta egon behar, eta diziplina hau hezkuntzaren esparruan aplikatzeak eragin negatiboa duela. Batzuen iritziz, goi mailako hezkuntzako marketina ezagutzaren "komoditizazioa" bultzatzen duen tresna da (Chen, 2008). Stone eta Thomsonek (1987), zenbait arazo aurkitzen dituzte marketina unibertsitateen kudeaketan erabiltzearekin lotuta, eta adierazten dute zenbait administrazio murrizketek mugatu egiten dutela hezkuntzako erakundeetan benetako marketinerako orientazio baten erabilera.

Marketin ereduak eta tresnak goi mailako hezkuntzako erakundeetan erabiltzea defendatzen dutenek, berriz, argumentatzen dute marketinak lagundu egin diezaiekeela unibertsitateei gero eta ingurune lehiakorragoan bizirauten, hezkuntzaren balioa kolokan jarri edo erakundearen helburu tradizionalei uko egin gabe.

Zentzu honetan, hainbat egilek adierazten dute zenbait faktorek, esaterako, eliteko unibertsitate batetik masetako batera aldatzeak, maila nazionalean eta internazionalean lehiakortasuna areagotzeak edo hobekuntza beharrak, eragin dutela unibertsitateko komunitatearen zati garrantzitsu bat, mendebaldeko gobernuak eta goi mailako hezkuntzan adituak bat etortzea unibertsitate-sistemak **merkatura bideratu** behar direlako ideian, eskari sozialen aurrean erakundeen erantzuteko gaitasuna hobetzeko (Ponce Núñez, 2005; Mora Ruiz, 1998; Neave eta Van Vught, 1991).

Ponce Núñezek (2005) azaltzen du unibertsitateen "marketizatzea" merkatua aztertzean eta unibertsitatearen eskaintza une bakoitzean eskatzen denari egokitzean datzala. Erakundeko kide guztien inplikazioa lortzearen garrantzia ere aipatzen du, merkaturako bideratze egokia lortzeko. Hau da, unibertsitateen kasuan, nahitaezkoa litzateke langile guztiek, irakasleek eta irakasle ez direnek, onartzea eta aplikatzea merkatura bideratzeko kultura hau.

Bestetik, Mora Ruizek (1997) erakusten du goi mailako hezkuntzaren esparru gehienetan merkatu osagaiak txertatu direla. Egileak Espainiako unibertsitate-sistemaren etorkizuna aipatzen du, eta oreka egoera bat iradokitzen du, non Estatuak, gizartearen ordezkari gisa, akademikoek, ekoizpen-prozesuan aditu gisa, eta merkatuak, ikasleen eta enpresen beharrak asetzeko mekanismo gisa, elkarlanean jarduten duten.

Manesek (1997) ere defendatu egiten du marketinaren erabilera hezkuntzaren sektorean eta azaltzen du irakaskuntza etengabe egokitu behar zaiola errealitate aldakorrari, gizartearentzat erabilgarria izan dadin. Egile honen iritziz, marketina ez da gehiago edo garestiago saltzeko modu bat, eta hezkuntzari kontzeptu baliotsuak eman diezazkioke, esaterako, kalitate hobea, zerbitzua erabiltzaileen beharrei egokitzea edo behar horien analisia eta behar horien asebetetzera ahalik eta gehien hurbiltzea.

Kotler eta Levyk (1969) marketinak mota guztietako erakundeak gidatzeko kontzeptu multzo baliotsua eskaintzen duela baieztatzen dute eta irabazi asmorik gabeko erakundeetan diziplina honen aplikazioa proposatzen dute.

Ondoren, Kotler eta Foxek (1995) marketin-mixaren aldagaiak hezkuntzaren esparruan deskribatzen dituzte eta hezkuntza erakundeentzat beren marketin inguruneari buruzko informazio egokia edukitzeak duen garrantzia aipatzen dute. Egileek adierazten dute informazio honen analisiari esker posible dela, besteak beste, pertsona batek erakunde batean eskabide bat aurkeztuko duela hoberen aurreikusten duten aldagaiak identifikatzea, merkatu bat segmentatzeko irizpide egokienak zehaztea edo ikastaro zehatz bat segmentu jakin batentzat erakargarrien bihurtzen duten osagaien konbinazioa ezartzea.

Halaber, Gabbott eta Sutherlandek (1993) adierazten dute marketin teknikek ahalbidetu egiten dutela merkatua sakonki aztertzea, eta unibertsitateei merkatuari buruzko informazio xehea ematen dietela, plangintza estrategikoan erabil daitekeena.

Marketina unibertsitateen kudeaketan erabiltzearen egokitasuna alde batera utzita, egia da ikerketa ugarik aztertzen dutela hainbat marketin tresnen erabilgarritasuna, gaur egun mundu osoko unibertsitateek hezkuntzaren globalizazioaren eta lehiakortasun handiagoaren ondorioz konpondu behar dituzten eskari arazoak hobeto ulertzeko eta horiek konpontzen laguntzeko.

Ikerlan hauetan, marketin kontzeptu ezberdinak eta horien aplikazioa goi mailako hezkuntzaren esparruan aurkezten dira. Zenbait gairen analisiak, esaterako, kontsumitzailearen portaera, zerbitzuaren kalitatea, segmentazioa, posizionamendua edo irudi korporatiboa goi mailako hezkuntzaren testuinguruan, unibertsitateei laguntza garrantzitsua eskaintzen die beren publiko

ezberdinen beharrak eta nahiak modu egokian asetzeko eta baita informazio baliotsua ere izaera ezberdineko kezkei erantzuteko.

Hala ere, garrantzitsua da argitzea marketina unibertsitateari aplikatzea ez dela ikasleak erakartzeko edo beti errealitatearekiko koherentea ez den irudi korporatiboa hobetzeko tresna multzo bat erabiltzea bezain erraza. Ponce Núñezen (2005) arabera, marketina unibertsitatearen esparruan aplikatzeak prozesu baten garapena esan nahi du, asebete nahi diren behar eta nahien azterketarekin hasten den jarduera sorta batek osatua.

Egile honek planteatzen du marketina unibertsitateari aplikatzeak badakarrela, besteak beste, ingurunea, eskaria, hala nola ikasleen, tituludunen, irakasleen, langileen edo tituludunak kontratatzen dituzten enpresen asebetetzea modu sistematikoan aztertzea. Gisa berean, prestakuntza eskaintzaren diseinua, tasen eta beken politika edo barne eta kanpo komunikazio ekintzak aldizkakotasunez berrikustearen garrantzia aipatzen du.

1.3.2 Marketin Unibertsitarioari buruzko Ikerketa

Ondorengo lerrootan Unibertsitate Marketinaren esparruan burututako hainbat ikerketaren emaitza nagusiak aurkeztuko ditugu. Azterlan hauetan, goian aipatutako zenbait gai aurki daitezke. Lehenik eta behin, ikasleen erabakietan eragiten duten aldagaiekin erlazionatutako zenbait azterketa aipatuko ditugu.

1.3.2.1 Goi Mailako Hezkuntzaren Eskariaren Faktore Erabakigarriak

Marketin Unibertsitarioaren funtsezko elementuetako bat ikasleen lehentasunak determinatzen dituzten faktoreen ulermena da (Soutar eta Turner, 2002). Goi mailako hezkuntzaren sektorean lehiakortasuna gero eta gehiago handitzen ari denez, unibertsitateak eskariaren elementu baldintzatzaileak hobeto ulertzen saiatzen dira (Capraro, Patrick eta Wilson, 2004; Kallio, 1995). Hezkuntzako erakunde bat hautatzeko aldagai erabakigarriak hainbat lanetan aztertu dira.

Krampf eta Heinleinek (1981) ikasleen matrikulazio erabakietan eragiten duten aldagaiak aztertzen dituzte eta azaltzen dute ikasle potentzialen profilaren ezagutza handiagoaren bidez ikasle talde desberdinei zuzenduriko mezu zehatzak diseina daitezkeela. Ikerlan honetan ikaslearen gaitasun akademikoa, hezkuntza-zentrora distantzia edo ikasleak lan egin edo bidaiatu bezalako jarduera ez akademikoetan emango duen denbora bezalako faktoreen garrantzia aipatzen da.

Bestetik, Kalliok (1995) graduondoko ikasketak egiteko unibertsitate baten hautaketari eragiten dioten faktore erabakigarri nagusiak aztertzen ditu. Zehazki, Michigango Unibertsitatean matrikulatzeko edo ez matrikulatzeko erabakiarekin loturiko hainbat aldagai aztertzen ditu. Egileak unibertsitate baten hautaketa prozesuaren konplexutasuna nabarmentzen du eta adierazten du berau sei faktore nagusi motak, gutxienez, baldintzatzen dutela: ikaslearen bizitokia, erakundearen eta bere programen ezaugarri akademikoak, lanari dagozkion aspektuak, ezkontide edo

bikotekidearekin loturiko aspektuak, laguntza ekonomikoa eta unibertsitatearen ingurune soziala.

Soutar eta Turnerrek (2002) duela gutxiagoko ikerketa batean, hainbat faktorek Australiako ikasleen lehentasun unibertsitarioen determinazioan duten garrantzia aztertzen dute. Lorturiko emaitzen arabera, unibertsitate bat hautatzeko orduan faktore erabakigarri nagusiak eskainitako ikasketen egokitasuna, ospe akademikoa, lan-aukerak eta irakaskuntzaren kalitatea dira. Autoreek baieztatzen dute unibertsitate batek bere erakundearekiko ikasleen lehentasunak gehitu nahi baditu, aipatutako ezaugarri guztietan edo baten batean nabarmendu behar duela.

Beranduago, Capraro, Patrick eta Wilson (2004) ikasleak erakunde batera hurbil daitezen determinatzen duten aldagaiak identifikatzen saiatu ziren. Zehazki, aztertu zuten unibertsitate baten bizitza sozialak zein eragin duen informazioa eskatu, erakundea bisitatu eta unibertsitate horretan eskaera bat egitea moduko hurbilketa ekintzak burutzeko probabilitatean. Egileek baieztatzen dute bizitza sozial erakargarria hautemateak eragin positiboa duela ikasleen hurbilketa probabilitatean. Era berean, iradokitzen dute bizitza sozialaren erakargarritasuna bezalako faktore bat sustatzeak murriztu egin dezakeela prezioaren garrantzia erabakitzeko faktore gisa.

Halaber, duela gutxi Vrontis, Thrassou eta Melanthiouk (2007) garaturiko ikerlan bat aipatzea ere merezi du; bertan, autoreek goi mailako hezkuntzaren hautaketa eredu garaikide bat planteatzen dute herrialde garatuentzat. Eredu hori eraikitzeko, egileek dagoeneko existitzen diren beste hezkuntza-hautaketa eredu

batzuk erabiltzen dituzte, hala nola kontsumitzailearen portaerari buruzko teoria orokorrak.

Ikerketaren emaitzek tresna bat ematen die goi mailako hezkuntzako erakundeei herrialde garatuetako merkatuetan bezeroaren jokabidean eragiten duten aldagai nagusiak ulertu ahal izateko. Hurrengo eskeman, eroslearen erabakitze prozesu klasikoaz gain, goi mailako hezkuntzaren hautaketaren kasuan prozesu hori baldintzatzen duten faktoreak ikus daitezke.

GOI MAILAKO HEZKUNTZAREN HAUTAKETA EREDU GARAIKIDEA HERRIALDE GARATUENTZAT

ETENGABEKO ALDAKETA ENPRESA-JARDUERAN ETA MAKROINGURUNEAN

HERRIALDE GARATUEN DIFERENTZIA ERABAKIGARRIAK

Banakoaren faktore erabakigarriak: Banakoaren askatasunarekin loturiko jarrera eta balioak, norberaren arrakasten sustapena.
Ingurunearen faktore erabakigarriak: Tradizionalak ez diren segmentuen erakargarritasun handiagoa, eragin familiarretatik adiskideen eta hedabideen eraginera aldaketa, marketin sozialaren eta erantzukizun sozial korporatiboaren garrantzi handiagoa.

FAKTORE INDIBIDUALAK

Bezeroaren ezaugarriak	**Ezaugarri pertsonalak**
Arraza	Errendimendu akademikoa
Egoera sozioekonomikoa	Norberak bere buruaz duen irudia
Gurasoen hezkuntza	Nortasuna eta balioak
Kultura familiarra	Bilaturiko etekinak
Erlijioa	Bizitza estiloa / Testuinguru soziala
Sexua	Hezkuntza-helburuak
	Gaitasun akademikoa

INGURUNEKO FAKTOREAK

Orokorrak: Egitura okupazionala, Baldintza ekonomikoak, Baldintza kulturalak

Politika Publikoak: Laguntzak (kopurua eta hautagarritasuna)

Eraginak/Hedabideak: Gurasoak, Orientatzaileak, Adiskideak, Hedabideak, Unibertsitateko langileak

BEHARRAREN ONARPENA	**INFORMAZIO BILAKETA**	**AUKEREN EBALUAZIOA**	**EROSKETA ETA KONTSUMOA**	**KONTSUMO OSTEKO EBALUAZIOA**
Herrialde garatuak:	Herrialde garatuak:	Herrialde garatuak:	Herrialde garatuak:	Herrialde garatuak:
▪ **"Goi mailako" beharrengatiko motibazioa**	▪ **Konplexuagoa** ▪ **Efizienteagoa** ▪ **Eraginkorragoa**	▪ **Konplexuagoa** ▪ **Efizienteagoa** ▪ **Eraginkorragoa** ▪ **Marken eragin handia**	▪ **Enfasia "hezkuntza-esperientzian"** ▪ **Teknologia bestelako bide gisa**	▪ **Ikasle eta ikasle ohien iritzien ezagutza eta arreta handiagoa**

GOI MAILAKO HEZKUNTZAKO ERAKUNDEAK

Ezaugarriak	**Ekintzak**
Kostua/Finantza-laguntza	Erreklutamendu jarduerak
Tamaina eta Kokapena	Onarpen politikak
Kontrola (publikoa/pribatua)	Emandako laguntzak
Programen eskuragarritasuna	Komunikazioak

BIGARREN HEZKUNTZAKO ZENTROAREN EZAUGARRIAK

Osaera soziala
Kalitatea
Curriculuma
Programak

GLOBALIZAZIOA ETA KULTURA ANIZTASUNA

MOTIBAZIO-PROZESU KONPLEXUAGOEK ERABAKIAK HARTZEKO PROZESU OSOAN EGUNERATZE KUANTITATIBO ZEIN KUALITATIBOAK DAKARTZATE

Iturria: Vrontis, Thrassou eta Melanthiou (2007)

Eredu honek informazio praktikoa eman diezaieke unibertsitateei goi mailako hezkuntzarekin loturiko erabakietan esku hartzen duten aspektuen eta eguneko ikasle eta ikasle potentzialen informazio beharren inguruko ideia bat egiteko. Ereduaren egileek, goi mailako hezkuntzako erakundeentzat kontsumitzailearen portaera eta erlazionaturiko beste kontzeptu batzuk, esaterako, Zerbitzuen Marketina, ulertzea zein garrantzitsua den azpimarratuz bukatzen dute. Modu berean, marketinak erakundearen banako eta prozesu guztiei eragingo dien filosofia eta pentsaera bat izan behar duela adierazten dute.

Espainiako unibertsitate-sistemarentzat egindako ikerketen kasuan, berriki Del Olmo Arriagak (2010b) unibertsitate baten hautaketan eragiten duten faktoreen inguruan burututako lan enpirikoa nabarmen daiteke. Lehenik eta behin, autoreak hezkuntza-hautaketan garrantzitsuak diren zortzi faktore talde aipatzen ditu, ondoko eskema honetan erakusten direnak.

HEZKUNTZA-HAUTAKETAREN FAKTORE ERABAKIGARRIAK

1. Gaitasun eta prestakuntza akademikoa
2. Ikasketa alorrean interesa
3. Eskarmentu familiarra unibertsitate mailako prestakuntzan
4. Produktu instituzionala • Programa akademikoak eta ez akademikoak • Unibertsitatearen ospea • Araudi akademikoa • Onarpen irizpideak • Unibertsitateko ikasleen tipologia • Irakasleak

5. Zerbitzuak eta prozesuak • Eskainitako lekuen eskuragarritasuna • Malgutasuna eta barietatea programa akademikoen eskaintzan • Programa akademikoetarako sarbidea • Instalazioak • Jarduera sozialak eta akademikoez kanpokoak • Ostatu eskuragarritasuna • Practicum programak eta lan poltsa • Ikasketa programen jarraipen baimendua • Ikasleen segurtasun pertsonala
6. Kostuak eta finantza-laguntza
7. Estatus sozioekonomikoa
8. Unibertsitatearen kokapena

Iturria: Del Olmo Arriaga (2010b)

Beste alde batetik, autoreak garatutako analisi enpirikoak posible egiten du unibertsitatearen hautaketari dagokionez faktore ezberdinek duten eragin maila ezagutzea, hala nola eragin handieneko aldagaiak identifikatzea. Hurrengo taulan, lorturiko emaitzen laburpena aurkezten da.

UNIBERTSITATEAREN HAUTAKETA FAKTOREAK

HAUTAKETA FAKTOREAK	Puntuazioa (5 p.ko Likerten eskala)
Hezkuntzaren kalitatea	4.17
Garraio publikoz iristeko erraztasuna	4.02
Ikasketen urteko kostua	3.96
Ikasketa giroa	3.88
Finantzaketa erraztasunak	3.86
Unibertsitatera sartzeko erraztasuna	3.81
Ikasketen orientazio praktikoa	3.79
Adeitasuna unibertsitateko langileen aldetik	3.74
Irakasleengana iristeko ikasleen erraztasuna	3.73
Kalitatea ikasleari emandako aholkularitza eta arretan	3.68
Eskainitako jardueren erakargarritasuna	3.68
Berrikuntza teknologiko maila unibertsitatean	3.66
Instalazioen erakargarritasuna	3.66
Irakasleen eskarmentu profesionala	3.63

Irakasleen gaitasun pedagogikoa	3.58
Liburutegiaren funtzionamendua	3.57
Zerbitzuen funtzionamendua (kafetegia, informatika, …)	3.51
Eskainitako titulazio ofizialen barietatea	3.50
Unibertsitatearen ospea	3.48
Unibertsitatearen eta ohiko etxebizitzaren arteko hurbiltasuna	3.47
Unibertsitatearen nazioarteko oihartzuna	3.44
Lan poltsaren eraginkortasuna	3.42
Eskainitako ikasketa espezializatuen barietatea	3.32
Ikasleen maila akademikoa	3.32
Gaindituen proportzioa ikasturteko	3.30
Eskolak emateko hizkuntza	3.26
Sustapena eta zuzeneko informazioa ikasle potentzialei	3.26
Lehen urtean lan merkatuan sartutako graduatuen proportzioa	3.25
Unibertsitate publiko batera sartzeko zailtasuna	3.25
Irakasleen ospea ikertzaile bezala	3.23
Ikasle kopurua ikasgelako	3.13
Unibertsitate mailako ikasleen gomendioa	3.07
Ohiko etxebizitzatik kanpo bizitzeko aukera	3.03
Irakasle/tutore/orientatzailearen gomendioa	3.03
Hurbileneko unibertsitatean ez egotea nahi den titulazioa	2.99
Familiaren gomendioa	2.96
Kirol eskaintzaren erakargarritasuna	2.95
Unibertsitate pribatu batean sartzeko zailtasuna	2.95
Unibertsitateko ikasle ohien gomendioa	2.91
Unibertsitatearen hedapena hedabideetan	2.86
Prestakuntzaren orientazio humanistiko/integrala	2.85
Lagunen gomendioa	2.84
Unibertsitatearen eta ohikoa ez den etxebizitzaren arteko hurbiltasuna	2.77
Ikasle ohien unibertsitatearekiko lotura maila	2.49
Erabaki familiarra	2.49
Prestakuntzaren orientazio erlijiosoa	1.65

Iturria: Del Olmo Arriaga (2010b)

Ikerketaren ondorioen artean, Del Olmok ikasleek oro har erakunde publikoetara, hurbil daudenetara eta garraio publikoz erraz iristeko modukoetara jotzen dutela nabarmentzen du. Era berean,

marketin eta komunikazio tresnek eskarian duten eragin eskasa ere aipatzen du.

1.3.2.2 Ikasleak Erakartzea, Ikasleen Asebetetzea eta Ikasleen Fideltasuna

Garrantzitsua da jabetzea lehiakortasun maila handiko sektoreetan, goi mailako hezkuntzarenean bezala, bereziki zaila izaten dela bezero berriak erakartzea. Bezero edo ikasle berriak erakartzeak, egungoei eusteak baino inbertsio handiagoa behar du (Kotler eta Armstrong, 2004; Rowley, 2003; Schertzer eta Schertzer, 2004). Ideia honek garrantzi berezia hartzen du goi mailako hezkuntza sistema tradizionalki oso lehiakorrak dituzten herrialdeetan, unibertsitatea uztea erabakitzen duen ikasle kopurua oso altua baita horietan, bai ikasketak bertan behera uzteagatik, bai beste erakunde batera joateagatik.

Egiazta daiteke, aurrekoaren ondorioz, goi mailako hezkuntzaren eremuan argitaraturiko literaturaren zati garrantzitsu baten ardatz nagusia ikasleen atxikipena dela, baita horrekin loturiko beste zenbait kontzeptu ere, esaterako, ikasleen asebetetzea, hauen fideltasuna eta gomendioa, emandako zerbitzuan hautemandako kalitatea edo erakundearen merkaturako orientazioa. Ondorengo paragrafootan, laburki azaltzen dugu ideia hauen garrantzia, eta hainbat lanetan izan duten aplikazioa.

Merkataritzaren esparruan, bezeroaren asebetetzearen arrazoiak eta ondorioak jasotzen saiatzen diren hainbat eredu garatu dira (Bitner, 1990; Dick eta Basu, 1994; Oliver, 1980). Azterketa hauek iradokitzen dute harreman hertsia dagoela asebetetzearen eta

erakunde batekiko jarrera orokorraren artean. Asebetetze horrek, bere aldetik, bezeroaren beranduagoko portaerak determinatuko ditu erakunde horri dagokionez. Bestela esanda, asebetetzeak, bezeroaren fideltasuna lortzeko funtsezko osagaia izateaz gain, bezeroak produktu edo zerbitzuari buruz ondo hitz egitera eta berau gomendatzera ere eramaten ditu.

Hala eta guztiz ere, asebetetzea bezeroei eusteko eta haien fideltasuna lortzeko beharrezko baldintzatzat har badaiteke ere (Stauss eta Neuhaus, 1997), asebetetze horren bizitasunak eta motak paper garrantzitsua jokatzen dute bezeroen fideltasunean eta gomendatzeko erabakian. Stauss eta Neuhausek (1997), bost asebetetze mota bereizten dituen asebetetze kualitatiboko eredu baten garapenaren bidez, azaltzen dute bezero etsitu baten asebetetzearen oinarria ez dela bere itxaropenak betetzea, baizik eta ez litzatekeela errealista izango gehiago espero izatea. Gainera, egiaztatu daiteke bezero hauek aseago dauden beste bezero batzuek baino sarriago pentsatzen dutela hornitzailez aldatzea, eta prestutasun gutxiago erakusten dutela beren hornitzailea gomendatzeko orduan.

Arrazonamendu eta gogoeta hauek goi mailako hezkuntzaren esparruan ere azter daitezke, eta lagundu egin diezaiekete unibertsitateei ikasleen inskripzioarekin eta ikasle horiei eustearekin lotutako arazoak konpontzen. Schertzer eta Schertzerrek (2004) ikasleen premiak aintzat hartzearen garrantzia aztertzen dute, hala nola premia hauek eta erakunde bakoitzaren eskaintzak bat egiteko beharra ikasleen asebetetzea eta bertan gera daitezen lortzeko. Goi mailako hezkuntzako erakundeek beren ahaleginak beren

eskaintzara hobeto egokituriko beharrak dituzten ikasleak erakartzera bideratu behar dituztela planteatzen dute, ikasleen unibertsitate uzte maila altuak murrizte aldera. Eskaintzaren eta ikasleen beharren arteko doikuntza hobeak, ikasleen asebetetze maila hobetu eta bertan gera daitezen bultzatu ez ezik, erakundea lagun eta senideei gomendatzeko joera handiagoa ere eragingo du.

Esan bezala, ikasleei eustea herrialde desberdinetako goi mailako hezkuntzako erakundeak kezkatzen dituen arazo bat da. Rowleyk (2003) Erresuma Batuko goi mailako hezkuntzako erakundeetako ikasleen uztea aztertzen du, eta harreman-marketinaren ikuspegia erabiltzea proposatzen du ikasleen atxikipenaren kudeaketarako.

1.3.2.3 Zerbitzuaren Kalitatea eta Merkaturako Orientazioa

Beste aspektu garrantzitsu bat, bereziki zerbitzuak ematen dituzten erakundeentzat, bezeroak hautemandako zerbitzuaren kalitatea da. Ponce Núñezek (2005) adierazten duenaren arabera, ez da erraza zerbitzuari dagokionez nahi den kalitate maila lortzea, kalitatea kontzeptu konplexua, dimentsio anitzekoa, dinamikoa, subjektiboa eta objektiboki neurtzeko zaila den heinean.

Era berean, hainbat autore bat datoz adierazten dutenean zerbitzu baten kalitatea zehaztea zaila dela, zerbitzuen ezaugarri bereziak direla eta, esaterako, ukiezintasuna, heterogenotasuna eta zerbitzuen ekoizpena eta kontsumoa bereizteko ezintasuna (Kotler eta Armstrong, 2008; Parasuraman, Zeithaml eta Berry, 1985). Erakunde baten zerbitzuaren kalitatea baloratzeko ikuspegi egoki

bat kontsumitzaileak hautemandako kalitatea neurtzea da (Parasuraman, Zeithaml eta Berry, 1988).

Parasuraman, Zeithaml eta Berryk (1988) planteatzen dute zerbitzuari dagokionez hautemandako kalitatea erakunde baten nagusitasun edo bikaintasunaren inguruko iritzi global edo jarrera bat dela[4], eta erakundeak eskaini beharko lukeen zerbitzuari buruzko bezeroaren itxaropenak[5] erakundearen jarduerari buruzko hautemateekin alderatzearen emaitza dela. Beraz, zerbitzuaren hautemandako kalitatea bezero batek erakundearekiko duen jarrera orokorraren antzekotzat jo daiteke (Bitner, 1990; Parasuraman, Zeithaml eta Berry, 1988).

Beste alde batetik, adierazi beharra dago bezeroaren asebetetzea eta zerbitzuaren hautemandako kalitatea hertsiki loturiko kontzeptuak diren arren, alde garrantzitsuak daudela bien artean. Asebetetzea transakzio zehatz batekin dago lotuta, eta zerbitzuari dagokionez hautemandako kalitatea, berriz, erakundearekiko ebaluazio global edo jarrera bat da (Bitner, 1990; Oliver eta Westbrook, 1982; Parasuraman, Zeithaml eta Berry, 1988; Swan, 1983).

Adierazi da asebetetzea hertsiki lotuta dagoela zerbitzuaren hautemandako kalitatearekin edo bezero batek erakunde batekiko

[4] Ikus baita Holbrook eta Corfman, 1985, Olshavsky, 1985 eta Zeithaml, 1988 ere.

[5] Lan honetan, Parasuraman, Zeithaml eta Berryk adierazten dute "itxaropenak" hitza esanahi desberdinarekin erabiltzen dela zerbitzuaren kalitateari buruzko literaturan eta kontsumitzailearen asebetetzearen inguruko literaturan. Zehazki, asebetetzeari buruzko literaturan itxaropenak kontsumitzailearen iragarpentzat jotzen dira, transakzio edo truke batean gerta daitekeenari dagokionez. Zerbitzuaren kalitateari buruzko literaturan, aldiz, itxaropenak dira kontsumitzailearen ustez zerbitzuen hornitzaile batek eskaini beharko lukeena, eskainiko duela uste duena baino.

duen jarrera orokorrarekin. Denboran zehar bezeroari asebetetzea dakarkioten esperientziek zerbitzua kalitatezkoa dela hautematea edo erakundearekiko aldeko jarrera eragiten dute (Bitner, 1990; Dick eta Basu, 1994; Oliver, 1980; Oliver eta Westbrook, 1982; Parasuraman, Zeithaml eta Berry, 1988; Swan, 1983). Ondorengo jokabideak, bezero izan daitezkeen beste batzuei gomendatzea edo bezeroaren fideltasuna, kasu, hautemate edo jarrera honek erabakiko ditu.

Kontsumitzaileek erakunde baten zerbitzuaren kalitateari dagokionez dituzten hautemateak baloratzeko tresna egokia garatzeko asmoz, Parasuraman, Zeithaml eta Berryk (1988) SERVQUAL deritzon eskala bat proposatzen dute, zerbitzuaren kalitatearen hainbat aspektu adierazten dituzten 22 elementuk osatua. Eskala hau erabiltzen da zerbitzuen kategoria baten barruan erakundeei buruzko itxaropen orokorrak neurtzeko zein erakunde zehatz bati buruzko hautemateak neurtzeko, erakunde horren zerbitzuaren kalitatea baloratzeko asmoz.

Erakunde baten merkaturako orientazioa ere gai garrantzitsua da, eta hori neurtzeko hainbat eskala proposatu dira. Erakunde baten merkaturako orientazioaren baitan bezeroen egungo eta etorkizuneko beharrekin lotutako informazioa sortzea, informazio hau sail desberdinetara hedatzea, hala nola informazio horri erantzun egokia ematea daude (Kohli eta Jaworski, 1990; Narver, eta Slater, 1990).

Parasuraman, Berry eta Zeithaml (1983) zerbitzuen enpresa desberdinen merkaturako orientazio maila neurtzen saiatzen dira. Enpresa hauen merkaturako orientazioa adierazten duten 9

elementuri buruzko informazioa jaso eta zerbitzuen kategoria desberdinetako enpresen artean behaturiko aldeak aztertzen dituzte, hala nola ezaugarri desberdinetako enpresen artekoa. Merezi du aipatzea azterturiko enpresen merkatuaren hedapen geografikoak badirudiela faktore erabakigarria dela haien merkaturako orientazio mailari dagokionez. Tokiko bezeroak baino ez dituzten enpresen merkaturako orientazioa nabarmenki txikiagoa da nazioarteko bezeroak dituztenena baino.

Deshpandé eta Farleyk (1998) tresna bat proposatzen dute merkaturako orientazioa neurtzeko, aurretik hainbat egilek garaturiko lana laburbiltzen duena (Deshpandé, Farley eta Webster, 1993; Kohli, Jaworski eta Kumar, 1993; Narver eta Slater, 1990). Azterlan honetan, Deshpandé eta Farleyk merkaturako orientazioa planteatzen dute, bezeroen beharren etengabeko balorazioaren bidez, bezeroak asebetetzera bideraturiko jarduera eta prozesu multzo gisa.

Lehenago esan dugun bezala, goi mailako hezkuntzaren esparruan ere aztertu izan da unibertsitateen merkaturako orientazioa, hala nola beren zerbitzuaren kalitatea (Flavián eta Lozano, 2007; Fuentes Blasco eta Gil Saura, 2006; Voon, 2007). Voonek (2007), aurretik aipaturiko lanetan oinarrituta (Deshpandé eta Farley, 1998; Narver eta Slater, 1990), eskala bat garatzen du Malaysiako goi mailako hezkuntzako erakundeen merkaturako orientazioa neurtzeko. Gainera, ikasleek hautemandako zerbitzuaren kalitatea ere jasotzen du, horretarako Parasuraman, Zeithaml eta Berryren SERVQUAL eskala erabiliz, hala nola ikasleen asebetetzea eta fideltasuna. Lanean egiaztatzen da merkaturako

orientaziorako proposaturiko eskala nabarmenki dagoela erlazionatua zerbitzuaren hautemandako kalitatearekin, asebetetzearekin eta fideltasunarekin.

1.3.2.4 Merkatuen Segmentazioa eta Posizionamendua

Unibertsitate Marketinaren baitan, arreta jaso duen beste esparru bat merkatuen segmentazioa eta posizionamendua da. Merkatuen segmentazioa merkatuak premia, ezaugarri edo portaera espezifikoak dituzten eta produktu edo marketin konbinazio espezifikoak eska ditzaketen kontsumitzaile taldeetan banatzeko prozesua bezala defini daiteke (Kotler eta Armstrong, 2004).

Erakundeek, merkatuko segmentu desberdinak ebaluatu eta zeintzuetara zuzenduko diren erabaki ostean, beren eskaintza diseinatzen dute euren helburu den publikoaren behar eta nahiak asebetetzeko asmoz. Enpresek marketin masiboko edo bereizi gabeko marketineko estrategia bat gara dezakete, non enpresa merkatu osoari eskaintza bakarrarekin zuzentzen zaion. Beste aukera bat da merkatura marketin bereiziko estrategia batekin zuzentzea, hau da, eskaintza desberdin bat diseinatzea enpresaren helburu den publikoa osatzen duten segmentu bakoitzarentzat.

Goi mailako hezkuntzaren esparruan, unibertsitateek marketin bereiziko estrategia bat diseina dezakete ezaugarri diferenteak dituzten ikasle talde ezberdinen beharrak hobeto asetzeko. Zentzu honetan, Carmelok (2007) erakunde pribatuetan edo publikoetan sartzeko hautagaien behar eta nahien desberdintzea adierazten du oinarrizko adibide gisa.

Modu berean, unibertsitateek beste segmentu batzuk aztertzea erabaki dezakete, esaterako, ikasle minusbaliatuena, helduagoena edo atzerritarrena. Arrazoizkoa da pentsatzea ikasle helduagoek, adibidez, lan-betebeharrak izan ditzaketela eta garrantzi handia eman diezaioketela arratsaldeko ordutegia duten eskoletara joateko aukera izateari (Soutar eta Turner, 2002). Ikasleen segmentu desberdinen ezaugarrien etengabeko balorazioak lagundu egin diezaieke goi mailako hezkuntzako erakundeei segmentu horien beharrei egokituriko marketin programak eta estrategiak diseinatzen (Ghosh, Javalgi eta Whipple, 2007).

Biztanleriaren segmentu jakin bati zuzentzea ez da berria unibertsitateentzat, eta esan daiteke hauek inoiz ez dutela garatu marketin masibora hurbiltzen den estrategiarik (Tonks eta Farr, 1995). Nahiz eta marketinean erabiltzen den terminologia duela nahiko gutxi erabili goi mailako hezkuntzaren esparruan, nabarmena da unibertsitateak gainerako biztanleriaren ezaugarrietatik desberdindutako ezaugarri espezifikoak dituen publiko bati zuzendu zaizkiola. Halseyk (1993) goi mailako hezkuntza sistema britainiarraren hedapenari buruz garaturiko lanean, gaztea eta gizonezkoa den ikasle unibertsitarioaren antzinako estereotipoa aipatzen du.

Unibertsitate Marketinaz diharduen literatura berrikusita, egiazta daiteke lan ugarik ikasle talde desberdinen ezaugarri eta beharren analisiari heldu diotela. Unibertsitate bat aukeratzeko orduan, ikasle segmentu desberdinek faktore desberdinak hartzen dituzte kontuan, eta, ondorioz, interesgarria da segmentu hauen

jokabidea bereizirik aztertzea (Soutar eta Turner, 2002). Jarraian, gai honi heldu izan dioten zenbait lan aipatzen ditugu.

Mavondo, Tsarenko eta Gabbottek (2004) baliabide eta gaitasun desberdinek ikasleen asebetetzean duten eragina aztertzen dute, hala nola ikasle horiek beren unibertsitatea ikasle izan daitezkeen beste batzuei gomendatzeko aukera. Tokiko eta atzerriko ikasleen baliabide eta gaitasun beharrak alderatzen dituzte, eta emaitza da ikasle atzerritarren asebetetzea eta gomendioa lortzeko beharrezko baliabideen kopurua tokikoenak lortzeko baino txikiagoa dela.

Bestetik, Fuentes Blasco eta Gil Saurak (2006) ikasleen itxaropenen erabilgarritasuna azpimarratzen dute unibertsitate pribatu espainiarren testuinguruan merkatuaren heterogenotasuna identifikatzeko aldagai gisa. Autoreek azaltzen dute ikasleek alde esanguratsuak aurkezten dituztela hautemandako kalitate globalari dagokionez irakasleen aspektu teknikoei buruzko beren itxaropenen arabera, eta itxaropen horiek ikasleen segmentazio egokia egitea ahalbidetzen dutela.

Berrikiago, Ghosh, Javalgi eta Whipplek (2007) behar desberdinak dituzten bost ikasle segmenturen ezaugarriak azaldu dituzte. Ikerlan honetan, egileek ikasle talde desberdinen behar zehatzak identifikatu eta behar horiekin bat datorren zerbitzu unibertsitarioen esleipen optimoa aztertzen dute.

Gisa berean, garrantzitsua da ere aipatzea garatu diren lan batzuek ikasle atzerritarren segmentuaren ezaugarriak aztertzeari heldu diotela. Kapitulu honetako hurrengo atalean, nazioarteko

ikasleekin loturiko zenbait ikerketaren ondorio nagusiak aurkeztuko ditugu.

Beste alde batetik, enpresek xede dituzten segmentuetan lortu nahi duten posizionamenduaren arabera lantzen dute beren eskaintza. Hau da, beren eskaintza diseinatzen dute lehiakideei dagokienez kontsumitzaileen buruan eduki nahi duten lekua kontuan hartuta.

Halaber, hezkuntzaren esparruan, unibertsitate baten posizionamenduak unibertsitate hori beste erakunde batzuei dagokienez nola hautematen den zehazten du. Unibertsitateek, hautaturiko segmentuak erakartzeko moduari buruz hausnartzen dute, eta, zehazki, beste erakunde batzuei dagokienez bereizteko erari buruz (Kotler eta Fox, 1995).

Mora Ruizek (2004) Espainiako goi mailako hezkuntzako erakundeen bereizketa eza aipatzen du. Egileak dio unibertsitateek beren xede izateko segmenturik egokienak aukeratu behar dituztela euren potentzialtasunak garatzeko, eta potentzialtasun horiek ez dutela nahitaez kalitate ikertzailearekin lotuta egon behar. Azpimarratzen du era horretan ikasleen hautaketa hurbiltasun geografiko hutsak ez bestelako faktore batzuek erabakiko luketela.

Beranduago Mazzarol eta Soutarrek (2008) egindako ikerketak aztertzen du Australiako hezkuntzako erakundeen posizionamendu estrategiek zer nolako eragina duten haien lehiakortasunean nazioarteko merkatuetan. Emaitza nagusi gisa, egileek aipatzen dute estrategia argi eta koherente ezak eragin negatiboa duela erakundearen etekinean.

1.3.2.5 Erakundearen Irudia

Irudiak hainbat definizio jaso baditu ere, irudi korporatiboa pertsonek erakunde bati buruz duten inpresio, uste, ideia eta sentimendu multzoa dela esan daiteke. Traverso Cortés (2002) eta Traverso Cortés eta Román Onsaloren (2007) iritziz irudi korporatiboaren kudeaketa egoki batek abantaila lehiakorrak sortzen laguntzen du.

Unibertsitateen esparruan, hezkuntza-erakundeek interes nabarmena erakusten dute proiektatzen dituzten irudi desberdinak ezagutu eta irudi horiek erakundea fidelki eta modu positiboan islatzen dutela egiaztatzeko (Kotler eta Fox, 1995). Zentzu honetan, Manesek (1997) adierazten du irudi instituzionala prozesu dinamiko baten emaitza dela, eta komeni dela irudi hori aldizka neurtzea proiektatu nahi den irudian aurrerapena edo atzerapena eman den baloratu ahal izateko. Azpiatal honetan, laburki azaltzen dira unibertsitate batzuen irudi korporatiboa aztertzen duten zenbait lan.

Gai honi buruz argitaraturiko analisien artean, Traverso Cortésena (2002) azpimarra daiteke, Sevillako unibertsitatearen barne irudia aztertzen duena. Ikerketa honen helburua unibertsitate honi buruz bertan parte hartzen duten kolektibo desberdinek, ikasleek, irakasleek eta administrazio eta zerbitzuetako langileek, kasu, duten irudia zehaztea da.

Merezi du ere aipatua izatea Araujo, Charterina, Forcada eta Lafuentek (2009) Euskal Herriko Unibertsitatearen irudiari buruz garatutako ikerketa. Azterlan honetan egileek unibertsitatearekin erlazioa duten publiko ezberdinek Arabako campusari buruz duten pertzepzioa ikertzen dute. Zehazki, izena eman duten ikasleek,

egungo ikasleek, ikasle ohiek, Arabako enpresek eta Arabako hiritarrek egindako balorazioak aztertzen dituzte. Besteak beste, erakundearen irudi orokorra positiboa dela ondoriozta daiteke eta unibertsitatea hoberen baloratzen dutenak izena eman duten ikasleak direla eta txarren baloratzen dutenak enpresak direla.

Beste ikerketa nabarmengarri bat Carmelok (2007) garaturikoa da; bertan, Espainiako zenbait unibertsitateren posizionamendua aztertzen da, hala nola unibertsitatea aukeratzeko orduan eskatzaileen unibertsitate idealaren irudia. Egileak unibertsitateetan marketinaren erabilpena tresna estrategiko gisa aztertzen du eta baita nahi den irudi eta posizionamendua lortzeko marketin horren eraginkortasuna ere. Zentzu honetan, autoreak unibertsitateen marketin-mixa aipatzen du eta marketin-mix horren barruko aldagaiak deskribatzen ditu. Beste ondorio batzuen artean, unibertsitate pribatuen irudi hotz, asertibo eta barnerakoia aipatzen du eta, beste aldean, publikoen irudi epelago, irekiago eta integratzaileagoa.

1.4 Goi Mailako Hezkuntzaren Nazioarteko Eskaria

Aurreko atalean azaldu da unibertsitateek ikasle segmentu desberdinen ezaugarriak aztertu ahal dituztela, eta eskaintza segmentu horien beharrei egokitzen saiatu. Azken hamarkadotan mundu osoko unibertsitateetan garrantzi eta arreta berezia bereganatu duen segmentu bat nazioarteko ikasleena da.

Hainbat autore bat datoz nazioarteko unibertsitate ikasleak edukitzearen onurak ekonomikoak zein ez ekonomikoak direla esatean. Nazioarteko hezkuntzaren merkatuan parte hartzeak ekarpen ekonomiko garrantzitsuak eman dizkie goi mailako hezkuntzako erakundeei (Chen, 2008; Fernández López, Piñeiro Chousa, Romero Castro eta Toro Fernández, 2000; Throsby, 1991; Knight, 1999; Throsby, 1998). Baina, abantaila ekonomikoez gain, nazioarteko ikasleek ekarpen handia eragiten diote unibertsitate baten bizitza akademiko eta kulturalari (Kinnell, 1989; Knight, 1999; Throsby, 1991; Throsby, 1998).

Knighten (1999) iritziz, goi mailako hezkuntzaren nazioartekotzea erakunde baten funtzio desberdinei nazioarteko/kulturarteko dimentsio bat txertatzeko prozesua da, eta adierazten du nazioartekotze hori herrialde desberdinetako aniztasun kultural eta etnikoaren onarpen eta errespetu modutzat har daitekeela. Modu berean, nazioarteko dimentsio honen eta goi mailako hezkuntza sistemaren kalitatearen arteko harremana aipatzen du. Halaber, Binsardi eta Ekwulugok (2003) esaten dute ikasle atzerritarrak egoteak, tolerantzia sozial eta politikoa sustatzeaz gain, herritartasun desberdinetako pertsonen arteko elkarrekiko begirunea bultzatzen laguntzen duela.

Knightek (2000) funtsezko hiru arrazoi aurkezten ditu Kanadako erakundeetan nazioarteko ikasleak izateko: ikasle nazionalak eta nazioartekoak integratzea, beste herrialde batzuetan erakundearen ospea eta harremanak areagotzea eta, azkenik, erakundearentzako diru-sarrerak eragitea (Chen, 2006, 5. orr.; Chen, 2008, 4-5 orr.).

Gainera, kasu batzuetan, nazioarteko ikasle talde bat edukitzeak eragin positiboa izan dezake ikasle nazionalek unibertsitate bat aukeratzeko orduan. Linek (1997) analisi enpiriko bat egiten du Holandako ikasleek goi mailako hezkuntzako erakunde bat hautatzerakoan dituzten lehentasunen inguruan, eta ondorioztatzen du nazioarteko ikasleak egotea aukera hori baldintzatzen duten faktore nagusietako bat dela.

Aurretik esan da herrialde bakoitzeko hezkuntza sistemen lehiakortasun maila eta ezaugarriak desberdinak direla. Hau, herrialde desberdinek nazioarteko ikasleak erakartzeko aurkezten duten gaitasunean ere islatzen da. Goi mailako hezkuntzaren herrialde esportatzaile nagusiak Estatu Batuak, munduko nazioarteko ikasleen %20rekin, eta Erresuma Batua, %11,3rekin, dira; ondoren, Alemania (%8,9), Frantzia (%8,5), Australia (%6,3), Kanada (%5,1) eta Japonia (%4,4) daude[6] (OECD, 2008a; Project Atlas, 2008). Hurrengo grafikoan ikusten da mundu osoko nazioarteko ikasleen %1,7k baino ez duela aukeratzen Espainia ikasketak egiteko:

[6] Fernández López eta Romero Castrok (2001) ingelesak komunikazio-hizkuntza gisa duen garrantzia aipatzen dute Estatu Batuek, Erresuma Batuak eta Australiak daukaten nazioarteko ikasleen zati handia azaltzeko.

HIRUGARREN HEZKUNTZAKO IKASLE ATZERRITARREN BANAKETA, XEDE HERRIALDEAREN ARABERA (2006)



Iturria: OECD (2008a)

Estatu Batuetan, Kaliforniako Hegoaldeko Unibertsitatea, New Yorkeko Unibertsitatea eta Columbiako Unibertsitatea daude nazioarteko ikasle kopuru handiena duten 25 erakundeen zerrendako lehenak (Institute of International Education, 2008). Zerrenda honetan, nazioartean itzal handia duten beste unibertsitate batzuk ere badaude, Harvardeko Unibertsitatea, Pennsylvaniako Unibertsitatea, Cornelleko Unibertsitatea edo Stanfordeko Unibertsitatea, besteak beste. Erresuma Batuan, merezi du Oxfordeko Unibertsitatearen kasua aipatzea; bertan, graduko ikasleen %10 baino gehiago eta graduondoko ikasleen %50 baino gehiago Erresuma Batutik kanpokoak dira (Oxfordeko Unibertsitatearen web orrialdea).

Herrialde desberdinetako goi mailako hezkuntzako erakundeak nazioarteko ikasleak erakartzen saiatzen dira, hauek baliabide ekonomiko eta kulturalak ekartzen baitituzte. Bruch eta Bartyren (1998) arabera, Erresuma Batuko erakundeek uste dute ikasle internazionalek, erakundeari hezkuntza- eta kultura-balioa emateaz gain, laguntza ekonomikoa dakartela. Egile hauen arabera, erakunde gehienek ahalegin handiak egiten dituzte nazioarteko ikasleen beharrak asetzeko.

Shanka, Quintal eta Taylorren (2005) iritziz, lehiakortasunari eutsi nahi dioten herrialde eta erakunde anfitrioiek ikasle hauen behar eta itxaropenak ase beharko dituzte, eta xede herrialde edo erakundea aukeratzeko orduan haien erabakian parte hartzen duten faktoreak ezagutu. Hurrengo paragrafootan, faktore hauek eta unibertsitateko ikasle internazionalen beste ezaugarri batzuk aztertzen dituzten lan ugarien arteko zenbait aurkezten dira.

Kinnellek (1989) nazioarteko marketin jardueren garapena aztertzen du Erresuma Batuko goi mailako hezkuntzako erakundeetan, adibide bezala Nottinghameko Unibertsitatea eta Loughborougheko Unibertsitatea hartuta. Nazioarteko ikasleen behar eta itxaropenak aztertzen ditu, hala nola horien gaineko unibertsitateen ulermena eta balorazioa.

Duela gutxiagoko lan batean, Binsardi eta Ekwulugok (2003) euren kezka agertzen dute goi mailako hezkuntzaren nazioarteko merkatuan Erresuma Batuaren lehiakide nagusien hazkundearen inguruan. Ikasle internazionalen hautemateak ikertzen dituzte marketin estrategikoko politikak egiteko informazio baliagarria lortze aldera, politika horiek Erresuma Batura nazioarteko ikasle

gehiago erakartzen lagun dezaten. Lorturiko emaitzek adierazten dute nazioarteko ikasleak erakartzeko modurik onena dela ahalegin osoa matrikularen kostuak murriztera, nazioarteko ikasleentzako beka gehiago ematera eta zerbitzu hobea eskaintzera bideratzea. Beraz, lan honek produktu eta prezio aldagaien garrantzia azpimarratzen du ikasle internazionalak erakartzeko estrategiak lantzean.

Beranduago, Shanka, Quintal eta Taylorrek (2005) nazioarteko ikasleak Australiako goi mailako hezkuntzako erakunde bat aukeratzera daramatzaten arrazoi nagusiak ikertzen dituzte. Lorturiko emaitzen arabera, ikasleek aztertutako unibertsitatea aukeratzen dute beren erabakia faktoreen konbinazio batean oinarrituz, ikasleen jatorrizko herrialdearen arabera desberdina dena.

Singapurreko ikasleek, adibidez, aztertutako unibertsitatea aukeratzen dute beren herrialdearekiko hurbiltasuna dela eta, hala nola hezkuntzaren kalitateagatik; Malaysiako ikasleek, berriz, beren erabakia, funtsean, lekuaren segurtasunean eta hezkuntzaren kalitatean oinarritzen dute. Indonesiako ikasleen arrazoi nagusiak hurbiltasuna eta bertan ikasten lagunak edukitzea dira. Asiako beste herrialde batzuetako ikasleek segurtasunean eta bertan ikasten lagunak izatean oinarritzen dute erabakia. Azkenik, beste herrialde batzuetako ikasleen erabakia, neurri handi batean, segurtasunean eta hezkuntzaren kalitatean oinarritzen da. Beraz, egiaztatu egiten da badaudela aldeak herrialde desberdinetako ikasleen hautaketa irizpideetan.

Berriki, Chenek (2008) Ekialdeko Asiako gradu eta graduondoko nazioarteko ikasleek Kanadako unibertsitateak aukeratzeko erabakian hainbat faktoreren eragina ikertzen du. Lehenik eta behin, atzerrian ikasteko erabakian eragiten duten aldagaiak ikertzen ditu. Ondoren, Kanada aukeratzeko faktoreak. Eta, azkenik, erakunde jakin baten aukera baldintzatzen duten faktore nagusiak. Lan honen emaitzek gradu eta graduondoko nazioarteko ikasleen hautaketa prozesua ulertzen laguntzen dute.

Hurrengo taulan, Ekialdeko Asiako ikasleek Kanadako erakunde zehatz bat aukeratzeko faktore erabakigarriekin loturiko emaitzak baino ez dira jasotzen. Taulak, hiru ikasle talderen erantzunak jasotzen ditu: 1) ikerketa programetan matrikulaturiko graduondoko ikasleak, 2) programa profesionaletan izena emandako graduondoko ikasleak, eta 3) graduko ikasleak.

Erakunde bat Hautatzeko Faktore Erabakigarriak

	Graduondoa		**Gradua**
	Ikerketa	Profesionala	
Nazioartekotzearekin loturiko faktoreak			
Unibertsitatearen kalitatea	4.22	3.84	4.46
Unibertsitatearen ospea	4.19	3.98	4.39
Ikastaroaren kalitatea	4.07	4.13	4.18
Ikastaroaren ospea	4.00	4.15	3.97
Ikastaroko irakasleen ospea	3.91	3.39	3.52
Harreman positiboa irakasle eta ikasleen artean	3.65	3.12	3.19
Nire unibertsitatea dagoen hiria segurua da	3.47	3.30	3.10
Unibertsitate honetan ez dago niganako diskriminaziorik	3.36	3.11	2.66
Aurretiko harremana irakasleekin	3.25	2.91	
Elkarreragin positiboa unibertsitateko langileekin	3.21	3.00	3.05
Unibertsitatearen kokapena	3.15	3.56	3.11
Nire uniber. kokatuta dagoen hiriko aniztasuna	3.15	3.33	2.99
Nire aurretiko egiaztagirien onarpena	3.08	2.65	
Ikastaroaren baldintzak (bizitokia/iraupena)	3.06	3.22	
Nire unibertsitatea kokatuta dagoen hirian geratu eta lan egiteko aukera, graduatu ostean	2.72	3.27	2.98

	Graduondoa		Gradua
	Ikerketa	Profesionala	
Aurretik ikasi dut unibertsitate honetan	2.16	1.50	
Ikasle-truke programak nire jatorrizko herrialdearekin	1.74	1.27	1.66
Marketinarekin loturiko faktoreak			
Laguntza finantzarioa izateko eskuragarritasuna	4.33	3.49	1.66
Unibertsitatearen rankinga	4.01	3.76	4.34
Zein neurritan hobetzen dituen unibertsitateak nire etorkizuneko lanbidea eta lan-aukerak	3.77	3.44	3.96
Arrazoizko matrikula tasak	3.74	4.05	2.42
Ikastaroaren rankinga	3.73	4.21	3.81
Programa eta ikastaroen eskaintza zabalagoa	3.58	3.70	
Zein neurritan merkatura daitekeen nire unibertsitatea	3.29	3.06	
Eskaera prozesuaren azkartasuna	2.80	3.03	2.46
Study Abroad gidatik eskuraturiko informazioa	2.10	1.94	1.82
Unibertsitate honetatik eskuraturiko marketineko informazioa	1.93	2.26	2.42
Bestelako faktoreak			
Nire jatorrizko herrialdeko irakasleen gomendioa	2.96	1.75	1.05
Kanadako nire irakasleen gomendioa	2.96	1.69	
Nire lagunen gomendioa	2.80	2.53	1.99
Nire lagunek unibertsitate honetan ikasi dute, edo ikasten ari dira	2.18	1.88	1.37
Nire familia/ezkontidearen gomendioa	2.02	2.25	2.04
Nire familiako kideek unibertsitate honetan ikasi dute, edo ikasten ari dira	1.48	2.15	0.78

Emaitzak 1-5 erako Likerten eskala batean oinarritzen dira; 1= ez da garrantzitsua eta 5= oso garrantzitsua

Iturria: Chen (2008)

Ikasle internazionalekin loturiko beste kontu garrantzitsu bat da hauek, erakunde anfitrioiarentzat hainbat motatako abantailak sortzeaz gain, herrialdeko ekonomiari ere onurak ekartzen dizkietela. Hainbat autorek onartzen dute goi mailako hezkuntzaren esportazioa funtsezko ekarpena dela herrialde desberdinetako ekonomiarentzat. Egile horien artean Binsardi eta Ekwulugo (2003) daude, Erresuma Batuko Nazio-Produktu Gordinari hezkuntza-industria internazionalak egiten dion ekarpena aitortzen dutenak.

Modu berean, Taylor, Shanka eta Popek (2004) Australiako ekonomian goi mailako hezkuntza internazionalak duen balio nabarmena azaltzen dute, bai hezkuntzaren sektorearentzat, bai turistikoarentzat. Arrazoi nagusi gisa honakoak aipatzen dira: nazioarteko ikasleen egonaldi luzeak, ikasle hauek burutzen duten gastu garrantzitsua eta egiten dituzten aisialdiko bidaiak, hala nola bisita egitera doazen beren senide eta lagunek egindako bidaiak eta gastuak. Zehazki, lan honek nazioarteko ikasleen senide eta lagunek egindako bisiten eragin ekonomikoa eta ezaugarriak aztertzen ditu, eta turismo erakundeen eta hezkuntzako erakundeen arteko lankidetza proposatzen du herrialdera ikasleak erakartzeko.

Shanka, Quintal eta Taylorrek (2005) ondoren egindako ikerketan ere, goi mailako hezkuntza australiarraren mundu mailako eskaria handitzeak Australiako ekonomiaren esportazioengatiko diru-sarreretan izan duen garrantzia aipatzen da.

Estatu Batuetako ekonomiarentzat ere, nazioarteko ikasleen matrikula eta mantentze gastuak ekarpen esanguratsua dira. 2007/2008 ikasturtean zehar, Estatu Batuetako ekonomiari nazioarteko ikasleek eta haien senideek egindako ekarpen estimatua 15,54 bilioi dolarrekoa izan zen (NAFSA: Association of International Educators, 2008). Kopuru honen barruan, ikasle atzerritarren matrikula eta mantentze gastuak daude, hala nola, kasu batzuetan, haien familien mantentze gastuak.

Espainiako nazioarteko ikasleen inguruko literatura mugatuagoa bada ere, Erasmus programetan parte harturiko ikasleekin loturiko zenbait ikerketa aurki daitezke (Pineda Herrero,

Moreno Andrés eta Belvis Pons, 2008; Huerga Castro, Abad González eta Blanco Alonso, 2010).

Romero Castro eta Fernández Lópezek (2002) burututako ikerketak ere merezi du aipatua izatea; bertan, nazioarteko ikasleen fluxuak aztertzen dira goi mailako hezkuntzako erakundeen diru-sarrera iturri gisa. Egileek OECDko herrialdeetako ikasle internazionalen mugimenduak ikertzeaz gain, Espainiako unibertsitate ezberdinen nazioarteko irekiera ere aztertzen dute, Santiago de Compostelako Unibertsitateari arreta berezia eskainiz.

Tesi honetan, munduko beste herrialde batzuetan horrenbesteko arreta jaso duen ikasle atzerritarren segmentuari helduko diogu Espainiako unibertsitateen kasurako. Aurretik aipatu dugunez, beste herrialde batzuekin alderatuta Espainiaren partaidetza goi mailako hezkuntzaren nazioarteko merkatuan eskasa da. Tesi honen garapenaren bidez, Espainiako goi mailako hezkuntzaren eskari internazionalaren ezaugarriak ezagutu nahi ditugu, Espainiako goi mailako hezkuntzako erakundeei beste herrialde batzuetako ikasleak erakartzeko estrategiak diseinatzen laguntzeko.

1.5 Espainiako Unibertsitate-Sistemaren Eboluzioa eta Egungo Egoera Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparruaren baitan

Espainiako unibertsitate-sistemaren egungo egoera, neurri handi batean, unibertsitateen arteko lehiakortasunaren hazkundeak bereizten du (Fernández López, Rodeiro Pazos eta Ruzo Sanmartín, 2003; Flavián eta Lozano, 2007). Espainiako goi mailako hezkuntzako erakundeen egungo egoera ulertzeko garrantzitsua da kontuan hartzea azken hamarkadotan gertaturiko zenbait aldaketa.

Lehenik eta behin, unibertsitate mailako hezkuntzaren eskariari dagokionez, aipatu behar da zenbait hamarkada nabarmen haziz eman ondoren, egungo joera beheranzkoa dela, nagusiki faktore demografikoak direla eta. Azken hiru hamarkadotan, Espainiako goi mailako hezkuntzako ikasleen kopurua hirukoiztu egin da, eta unibertsitateak gutxiengo batentzako hezkuntza-zentroak izatetik gizarte osoari irekitzera igaro dira (Barrutia Guenaga, 2001; Cabrera Calvo-Sotelo, 2006; Unibertsitateen Koordinaziorako Kontseilua, 2007; OECD, 2008b; Reques Velasco, 2006). Teorikoki goi mailako ikasketak egiteko adinean (18 urtetatik 23 urtetara) dagoen biztanleriari dagokionez, unibertsitateetan matrikulaturiko ikasleen proportzioa adierazten duen matrikulazio tasa gordina etengabe hazi da azken hamarkadotan (OECD, 2008b).

Hala ere, azken urteotan matrikulazio kopuruek behera egin dute (Fernández López, Rodeiro Pazos eta Ruzo Sanmartín, 2003; Flavián eta Lozano, 2007; OECD, 2008a; OECD, 2008b; Reques

Velasco, 2006; Estatuko Unibertsitate Idazkaritza eta Unibertsitateen Koordinaziorako Kontseilua, 2008), funtsean goi mailako ikasketak egiteko adinean dagoen biztanleriaren erortzea dela eta, laurogeiko hamarkadan eta laurogeita hamarreko hamarkadako lehen erdian gertaturiko ugalkortasunaren jaitsieraren ondorioz (Reques Velasco, 2006). Beste faktore batzuek ere, lanbide-heziketaren erakargarritasuna areagotu izanak, kasu, eragin dezakete unibertsitateko ikasle kopuruaren jaitsieran (Flavián eta Lozano, 2007; OECD, 2008b).

Etorkizuneko goi mailako hezkuntzaren eskariari dagokionez, etorkizuneko biztanleriaren eboluzioa oinarri hartuta, aurreikuspenak egin daitezke. 2006-2016 aldirako, Espainiako ikasle unibertsitarioen kopuruaren inguruko estimazioak burutu dira, Estatistikako Institutu Nazionalak egindako biztanleriari buruzko proiekzioak erabiliz, eta emaitzek, oro har, unibertsitate mailako hezkuntzaren eskariaren jaitsiera erakusten dute unibertsitate barruti desberdinetan (Reques Velasco, 2006).

Unibertsitate mailako hezkuntzaren eskariaren estimazio hauek kalkulatzeko, datu demografikoak baino ez dira kontuan hartu. Garrantzitsua da adieraztea faktore demografikoek goi mailako hezkuntzaren eskarian duten eragina erabakigarria bada ere, aurreko ataletan esan bezala, beste faktore mota batzuek ere, esaterako ekonomiko edo sozialek, nabarmen baldintza dezaketela eskaria.

Unibertsitateen finantzaketa sistemei dagokienez, hauek zenbait aldaketa izan dituzte azken urteotan. Espainiako sistema unibertsitarioaren deszentralizazio prozesuaren ondoren, eta

Estatuko Administrazio Orokorrak Administrazio Autonomikoei eskumenak transferitu ostean, laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdetik aurrera, unibertsitate-sistema publiko desberdinak funtsean inkrementalistak ziren beren finantzaketa ereduak ordezkatuz joan dira eskariarekin erlazionatutako aldagaietan oinarritzen diren beste eredu batzuekin (Unibertsitateen Koordinaziorako Kontseilua, 2007; OECD, 2008b).

Bestetik, azken hamarkadan zehar unibertsitate mailako hezkuntzan Espainian egindako gastu publikoa nabarmen handitu bada ere, gastu hau BPGri dagokionez %1 inguruan mantendu da (OECD, 2008b; Estatuko Unibertsitate Idazkaritza eta Unibertsitateen Koordinaziorako Kontseilua, 2008). Unibertsitateko ikasle kopurua, ordea, jaitsi egin da, eta horrek, unibertsitate mailako hezkuntzan gastu publikoa handitzearekin batera, hobekuntza ekarri du ikasleko gastua neurtzen duten ratioetan (OECD, 2008a; OECD, 2008b; Estatuko Unibertsitate Idazkaritza eta Unibertsitateen Koordinaziorako Kontseilua, 2008).

Alabaina, azken hamarkadan gertaturiko eskariaren atzeraldiak unibertsitate ugari oso egoera arriskutsuan egotea eragin du, horien finantzaketa neurri handi batean ikasle kopuruaren araberakoa baita (Fernández López, Rodeiro Pazos eta Ruzo Sanmartín, 2003). Batetik, ikasleen matrikulen tasak finantzaketa iturri garrantzitsua dira. Bestetik, nahiz eta 2006an oraindik bost autonomia erkidegok finantzaketa publikoko sistema inkrementalistak eduki (horien artean Euskal Autonomia Erkidegoak, bere lurraldean unibertsitate publiko bakarra duena), beste erkidego batzuek aplikatzen zituzten finantzaketa ereduak goi

mailako hezkuntzaren eskariarekin zuzenean erlazionatutako aldagaietan oinarritzen ziren (Unibertsitateen Koordinaziorako Kontseilua, 2007). Honek, funts publikoak lortzeko helburuz ikasleak erakartzeko unibertsitateen arteko lehiakortasunaren gehikuntza eragin du.

Halaber, eskaintza unibertsitarioaren eremuan aldaketa esanguratsuak egon dira. Azken bi hamarkadotan zehar, Espainiako unibertsitate kopurua bikoiztu egin da, eta, ondorioz, 2008/2009 ikasturtean Espainiako unibertsitate-sistema 50 unibertsitate publikok eta 27 pribatuk osatzen zuten (Estatuko Unibertsitate Idazkaritza eta Unibertsitateen Koordinaziorako Kontseilua, 2008).

Laurogeiko hamarkadan unibertsitate-sistemaren deszentralizazio prozesua hasi zenetik, eta neurri handi batean zerbitzu unibertsitarioen eskariaren hedapenari esker, Espainian eskaintza unibertsitarioaren zabalkuntza eta dibertsifikazio nabarmena gertatu da (Cabrera Calvo-Sotelo, 2006; Unibertsitateen Koordinaziorako Kontseilua, 2007; OECD, 2008b; Reques Velasco, 2006; Estatuko Unibertsitate Idazkaritza eta Unibertsitateen Koordinaziorako Kontseilua, 2008).

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasu zehatzean, unibertsitate publiko bakarra Euskal Herriko Unibertsitatea da, beraz, lurralde honetan lehiakortasuna unibertsitate publiko bat baino gehiago duten beste erkidego batzuetan baino txikiagoa da. Gainera, Espainiako unibertsitateak dimentsio erregional sendoa izateagatik bereizten dira, eta ikasle gehienak ez dira erkidegoz aldatzen beren ikasketak egiteko (Mora Ruiz, 1996a; OECD, 2008b).

Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da Euskal Herriko Unibertsitateak bi unibertsitate pribaturekin lehiatu behar duela (Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea), ondorengo grafikoan ikusten den bezala, eskari unibertsitarioaren aurreikuspenak oso eskasak dituen lurralde batean (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Eusko Jaurlaritza, 2008; Reques Velasco, 2006).

BIZTANLERIA UNIBERTSITARIOAREN ETORKIZUNEKO EBOLUZIOA EUSKADIKO BARRUTIAN



Iturria: Reques Velasco (2006)

Unibertsitateen finantzaketa publikoari dagokionez, nahiz eta funts publikoen zatirik handiena Euskal Herriko Unibertsitateari zuzendu, garrantzitsua da azpimarratzea ekarpen horiek

erabakitzeko irizpideetako bat matrikulaturiko ikasle kopurua dela (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Eusko Jaurlaritza, 2008).

Deskribaturiko aldaketen ondorioz, lehiakortasuna Espainiako goi mailako hezkuntzaren sektorean nabarmen areagotu da (Fernández López, Rodeiro Pazos eta Ruzo Sanmartín, 2003; Flavián eta Lozano, 2007). Eskariaren jaitsieraren, eskariaren menpeko finantzaketa sistemen, hala nola eskaintza unibertsitarioaren etengabeko gehikuntzaren eragin konbinatuak biziagotu egin du Espainiako unibertsitateen arteko lehia. Gaur egun, ikasleen matrikulazioa funtsezko aspektua da Espainiako unibertsitateentzat, gehienen finantzaketa ikasle kopuruaren menpe baitago.

Testuinguru gero eta lehiakorrago honetan, unibertsitate baten ikasle erreal eta potentzialen ezaugarrien ezagutzak asko lagun dezake haren biziraupena ziurtatzen. Komenigarria da ikasleen segmentu desberdinen behar eta nahi espezifikoak bereizirik aztertzea, ikasleen asebetetzea hobetzea eta eskari unibertsitarioa bultzatzea ahalbidetuko duten segmentu bakoitzaren beharrei egokituriko marketin programak diseinatzeko (Ghosh, Javalgi, eta Whipple, 2007).

Lehenago adierazi dugun bezala, tesi honen ardatza nazioarteko ikasleen segmentuaren ezaugarriak ikertzea da. Honek, zenbait unibertsitateri beren eskari eta finantzaketa arazoak murrizten lagundu diezaieke. Azken hamarkadan zehar, hainbat herrialdetako goi mailako hezkuntzako erakundeek marketin ikuspegia hartu eta ikasleen merkatuen segmentazioa edo irudi

instituzionala eta posizionamenduaren moduko kontzeptuak aplikatu dituzte mundu mailako merkatuan ikasle internazionalen alde lehiatzeko (Chen, 2008). Unibertsitateek, gobernuetatik eratorritako diru-sarreren murrizketaren ondorioz, ikasle segmentu honetara jo dute bestelako finantzaketa iturrien bila (Kinnell, 1989; Knight, 1999; Shanka, Quintal eta Taylor, 2005).

Espainiako unibertsitate-sistemaren egungo egoera ulertzeko beste aspektu garrantzitsu bat Boloniako prozesua da. Prozesu hau, 1999an Europako 29 herrialdetako hezkuntza ministroek sinaturiko Boloniako Adierazpena martxan jartzera bideraturiko akordio, ekintza eta ekimenen multzoa da (Schatzman, 2005).

Akordio honen bidez, Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparru (GHEE) bat sortu nahi da 2010. urterako, Europako goi mailako hezkuntza sistemen bateragarritasuna eta konparagarritasuna handiagoa izan dadin (Joint Declaration of the European Ministers of Education, 1999; Muche eta Wächter, 2005; Schatzman, 2005).

Hasieratik, Boloniako prozesuaren motibazio nagusietariko bat, goi mailako hezkuntza sistema europarra mundu mailan sustatzea izan da, bere erakargarritasuna eta lehiakortasuna handituz (Crosier, Purser eta Smidt, 2007; Joint Declaration of the European Ministers of Education, 1999; Muche eta Wächter, 2005). Goi mailako hezkuntzako erakunde batzuek gero eta arreta handiagoa jartzen diete Europar Batasunekoak ez diren herrialdeetako ikasleei, munduko beste eskualde batzuekin lotura akademiko zein ikerketakoak bultzatzeaz gain, finantzaketa iturri independentea eratzen baitute (Crosier, Purser eta Smidt 2007).

Espainiako goi mailako hezkuntzako erakundeak, egun, GHEEari egokitzeko prozesuan daude. Prozesu honen bidez, esan bezala indar eragile nagusia Europako unibertsitateen erakargarritasuna areagotzea duena, Espainiako unibertsitate-sistemaren lehiakortasuna hobetzea espero da. Horrez gain, Espainiako hezkuntza sistemaren konparagarritasun handiagoa lortu nahi da, GHEEko beste sistema batzuei dagokienez, ikasleen mugikortasuna eta hauek Europako lan merkatuan sartzea erraztuko duena (OECD, 2008b).

Halaber, euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateak neurri desberdinak aplikatzen ari dira GHEErako sarrera sustatzeko. Merezi du nabarmentzea Euskadiko hiru erakunde unibertsitarioak, ekimen ugariren garapenaren bidez, egiten ari diren ahalegina GHEEaren sorkuntzak planteaturiko erronkei erantzuteko (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Eusko Jaurlaritza, 2008).

Azkenik, garrantzitsua da ere “Unibertsitate Estrategia 2015”en aurkezpena aipatzea, helburu nagusi Espainiako unibertsitateen modernizazioa duena. Estrategia honek, besteak beste, Espainiako unibertsitate-sistemaren nazioarteko dimentsioaren garrantzia planteatzen du, eta Espainiako unibertsitateen nazioarteko ikusgarritasuna eta oihartzuna handitzea bezalako helburuak aipatzen ditu (Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa, 2008).

1.6 Diziplina Matrizea eta Tesiaren Helburuak

Ikerketa lan honen ikuspegi orokorrak, modu holistikoan adierazita, diziplina matrizearen itxura hartzen du. Matrize honetan ikerlanean oinarri bezala erabilitako teoriak, teoria horiek jasotzen dituzten diziplinak eta baita eztabaidatu beharreko arazoei dagokienez defizit posibleak eta emandako soluzioak ere agertzen dira. Hau guztia goi mailako ikasketen nazioarteko eskariaren esparruan.

DIZIPLINA MATRIZEA

TEORIAK	DIZIPLINAK	AUTOREAK	DEFIZITAK ETA EKARPENAK
▶ Giza Kapitalaren Teoria	HEZKUNTZAREN EKONOMIA	▶ Schultz, Becker, Mincer.	• Espainiako goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskariaren faktore baldintzatzaileak. • Goi mailako hezkuntzaren eskariaren analisian ikuspegi lehiakor baten erabilpena. ➢ Herrialde ikuspuntua Europako testuinguruan. ➢ Unibertsitate ikuspuntua Europako testuinguruan. - Espainiako unibertsitate eskaintzaren nazioarteko orientazioa eta unibertsitateen posizio lehiakorra. - Marketin aldagaien analisia. - Nazioarteko erabiltzailearen portaera eta ezaugarriak.
▶ Iragazkiaren Teoria		▶ Arrow, Stiglitz.	
▶ Barne Lan Merkatuen eta Lan Merkatu Segmentatuen Teoriak		▶ Doeringer, Piore, Blaug.	
▶ Giza Kapitalaren Teoriaren Hezkuntza Eskari Ereduaren Hedapena		▶ Lévy-Garboua, Mingat, Eicher.	
▶ Enpresaren, kudeaketaren eta marketinaren teoriak ▶ Kontsumitzailearen portaerari buruzko teoria orokorrak	ENPRESAREN EKONOMIA ETA MARKETINA	▶ Kotler, Fox, Levy.	
▶ Zerbitzuaren kalitatea eta merkaturako orientazioari buruzko teoriak		▶ Zeithaml, Kohli, Jaworski.	

HIPOTESIAK ⇨ **METODOLOGIA** ⇨ **EMAITZAK** ⇨ **ONDORIOAK**

Iturria: Egileak moldatua

Aurreko taulako elementu multzotik lan hipotesiak ondoriozta daitezke. Hipotesi hauek egiaztatzeko metodologiak beharrezko estimatzen dituen bide analitikoak erabiliko ditugu. Horrez gain, diziplina matrizean barneratutako interpretazio irizpideez baliatuko gara lortutako emaitzak azaltzeko. Era berean, matrize honen edukiak azken ondorioetara eramango gaituen juizio sintetiko bat burutzea posible egiten du.

Planteamendu honetatik abiatuta, tesiaren **HELBURU NAGUSIA Espainiako unibertsitate-hezkuntzaren nazioarteko eskariaren faktore baldintzatzaileak zehazten laguntzea** da. **HELBURU GEHIGARRI** moduan hurrengoak planteatu ditugu:

- Hel_1: GHEEko herrialdeetako goi mailako hezkuntzaren atzerriko eskaria baldintzatzen duten faktoreak zehazten lagundu.
- Hel_2: Espainiako eskaintza unibertsitarioaren nazioarteko orientazioa eta unibertsitate ezberdinen posizio lehiakorra deskribatzen lagundu.
- Hel_3: Unibertsitateen ezaugarri kontrolaezinek unibertsitateen nazioarteko eskarian duten eragina aztertu.
- Hel_4: Unibertsitateek kontrola ditzaketen aldagaiek unibertsitateen eskari internazionalean duten eragina ikertu.
- Hel_5: Goi mailako hezkuntza eskatzearen erabakiari dagokionez Espainian bizi diren atzerritarren portaera zehazten duten faktore indibidualak analizatu.

- Hel_6: Politika eta kudeaketa unibertsitarioaren eragile nagusiei eskariaren nazioartekotzearen esparruan erabakiak hartzen laguntzeko informazioa eta analisia eskaini.
- Hel_7: Unibertsitateen eremuan logika lehiakorraren eta analisi ekonomiko enpresarialaren erabilpena garatu, erakunde unibertsitarioen efikazia eta efizientzia eta beraz gizarteari zerbitzu emateko gaitasuna hobetzeko helburuz.

Azken finean, diziplina matrizean planteatutako hutsunea murrizten joatea ahalbidetzen duten elementuak gehitu nahi ditugu, bai ikuspegi zientifikotik bai politika eta kudeaketa unibertsitarioaren aurrerapenaren ikuspegitik. Eskariaren aldaketa demografiko eta sozial garrantzitsuen eta Ongizate Estatuaren agortzeak ekarritako aurrekontu murrizketen egungo testuinguruan azaldutako planteamendua egokia izan daitekeela pentsatu dugu.

Hau da, Espainiako unibertsitateentzat gero eta lehiakortasun handiagoko ingurune batean, goi mailako hezkuntzaren esportazioa diru-sarrera garrantzitsuak sor ditzakeen eta erakundeen finantzaketan lagun dezakeen jarduera bat dela uste dugu. Arrazoi ekonomikoez gain, kapitulu honen laugarren atalean, goi mailako hezkuntzako erakundeentzat nazioarteko ikasleak izatea interesgarri egiten duten beste zenbait arrazoi ere aipatu ditugu.

Bestalde, GHEEan sartzearen ondorioz, Europa mailan konparagarria den titulazio sistema bat onartzeak Espainiako unibertsitateentzat erakunde lehiakide kopuruaren gehikuntza bat dakarren arren, europar esparru berrira egokitzeak erakundeak

merkatu zabalagoetara hurbiltzea erraztu dezake eta nazioarteko ikasle kopuru handiagoa erakartzeko aukera eman dezake.

Beraz, aurreikustekoa da datorren hamarkadan zehar Espainiako unibertsitateak, Europa eta mundu mailan lehiatu ahal izateko, beren nazioarteko hedadura eta ikasle kanpotarrak erakartzeko gaitasuna hobetzen saiatu beharko direla. (Unibertsitateen Koordinaziorako Kontseilua, 2007; Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa, 2008). Zentzu honetan, garrantzitsua iruditzen zaigu goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskaria eta unibertsitateen ikasle atzerritarrak erakartzeko gaitasuna baldintzatzen duten faktoreak ezagutzea.

Diziplina matrizean planteatutako teoria eta diziplinak garai bakoitzak lehentasunezko bezala ezarritako gaiei erantzuten joan dira. Ikuspuntu eboluzionista batetik, arrazoizkoa dirudi pentsatzea gaur egun hezkuntza sisteman eragina duten gaiei beharrezko egokitzapenekin aurre egin behar zaiela. Testuinguru honetan Enpresaren Ekonomia eta Marketinaren berezko ikuspuntuak barneratu ditugu analisian, Hezkuntzaren Ekonomiaren ikuspegia alde batera utzi gabe.

Ikuskera honetatik abiatuta eta ikerketaren gaia Espainiako goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskaria dela kontuan izanda, tesia hurrengo eran antolatu dugu:

1. Sarrera gisako kapitulu honetan Hezkuntzaren Ekonomiaren eta Marketin Unibertsitarioaren esparruan garatutako teoria eta ikerketa ezberdinen berrikuspena burutu dugu, goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskariaren inguruan

egindako lanei arreta berezia eskainiz. Sarrera honek Espainiako unibertsitate-sistemaren gaur egungo testuingurua ere laburki deskribatzen du eta ikerketaren helburuak aurkezten ditu, hala nola planteatutako lan hipotesiak eta hauek egiaztatzeko jarraitu beharreko metodologia.

2. Bigarren kapituluan unibertsitate mailako ikasketen nazioarteko eskaria aztertuko dugu GHEEko herrialdeen kasurako. Kapitulu honek ikasleen mugikortasunari buruzko analisi bat eskaintzen du Europako goi mailako hezkuntza sistema ezberdinetarako, non eskari internazional globalaren maila eta jatorria ikertzen diren. Horrez gain, GHEEaren barruko mugikortasun fluxuez ere mintzatuko gara. Kapituluaren bukaeran GHEEko herrialdeetan goi mailako hezkuntzaren atzerriko eskaria baldintza dezaketen zenbait faktore aurkeztuko ditugu.

3. Ondoren, hirugarren kapituluan, Espainiako goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskariaren azterketara hurbilduko gara. Alde batetik, Espainiako unibertsitate mailako ikasketen atzerriko eskari totalari buruzko analisi deskriptibo bat barneratuko dugu. Bestetik, bai titulazio unibertsitario ezberdinen bai unibertsitate ezberdinen nazioarteko eskari maila eta eskari horren jatorria ikertuko ditugu.

4. Laugarren kapituluak Espainiako goi mailako ikasketen eskari internazionala baldintzatzen duten faktoreez jardungo du.

Kapitulu honetan unibertsitateen aldagai kontrolaezinek unibertsitateen nazioarteko eskarian duten eragina aztertzeaz gain, erakunde unibertsitarioek kontrola ditzaketen ezaugarriek erakunde horien eskarian duten efektua ere ikertuko dugu.

5. Bosgarren kapituluan Espainian bizi diren gazte atzerritarren goi mailako hezkuntza eskatzeko erabakia baldintzatzen duten ezaugarri indibidualez arituko gara. Hautaketa diskretuko eredu bat estimatuz hainbat faktorek atzerritarren unibertsitate mailako ikasketak burutu edo ez burutzeko erabakian duten eragina aztertuko dugu.

6. Azkenik, tesiari amaiera emateko aurreko kapituluetan lortutako emaitzen analisitik ateratako ondorio nagusiak aurkeztuko ditugu.

Espainian goi mailako hezkuntzarik gehiena unibertsitateek eskaintzen dutenez, tesi honetan goi mailako hezkuntzaz eta unibertsitate mailako hezkuntzaz mintzatuko gara bereizketarik egin gabe. Hala ere, esan beharra dago bigarren kapituluan Europako herrialde ezberdinetako nazioarteko eskariaren inguruan aztertutako datuak herrialde horietako hirugarren mailako hezkuntza guztiari dagozkiola. Hirugarren, laugarren eta bosgarren kapituluetan Espainiako goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskariari buruz ikertutako datuek, ordea, unibertsitate mailako hezkuntzari buruzko informazioa besterik ez dute barneratzen.

Ikerlanak hainbat hasierako **HIPOTESI** ere barneratzen ditu. Hauek guztiak tesiaren eremu teorikoan eta diziplina matrizean oinarritzen dira. Jarraian ikerketa honetan planteatutako hipotesi bai **orokorrak** (HO) bai **espezifikoak** (HE) aurkeztuko ditugu:

- **HO_1: Europako herrialdeetako goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskaria hainbat faktoreren menpe dago.** Hipotesi hau egiaztatzeko irizpidea Europako herrialdeetako eskari internazionalean aztertutako aldagai edo faktore ezberdinen araberako diferentzia esanguratsurik dagoen edo ez begiratzea izango da.
  - → $HE_{1.1}$: Herrialde batek Europan duen kokapen geografikoak bere goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskaria baldintzatzen du.
  - → $HE_{1.2}$: Herrialde batetako hezkuntza politikak herrialde horretako unibertsitate mailako ikasleen mugikortasun fluxuak zehazten ditu.

    A) Herrialde batek hezkuntzan eta hirugarren mailako hezkuntzan burututako inbertsioak herrialde horren nazioarteko ikasle unibertsitarioak erakartzeko gaitasunean eragin positiboa du.

    B) Herrialde batek hezkuntzan eta hirugarren mailako hezkuntzan egindako inbertsioak herrialde horren ikasle unibertsitarioen barrutik kanporako mugikortasun fluxuetan eragin negatiboa du.

→ $HE_{1.3}$: Herrialde batetako ikerketa eta garapen politika herrialde horretako unibertsitate mailako ikasleen mugikortasun fluxuak baldintzatzen dituen faktore bat da.

A) Herrialde batek ikerketa eta garapenean burututako inbertsioak herrialde horren nazioarteko ikasle unibertsitarioak erakartzeko gaitasunean eragin positiboa du.

B) Herrialde batek ikerketa eta garapenean egindako inbertsioak herrialde horren ikasle unibertsitarioen barrutik kanporako mugikortasun fluxuetan eragin negatiboa du.

- **HO_2: Espainiako sistema unibertsitarioaren titulazioen nazioarteko eskaria hainbat faktorek baldintzatzen dute.** Hipotesi hau egiaztatzeko irizpidea titulazio unibertsitarioen eskari internazionalean aztertutako faktoreen araberako diferentzia esanguratsurik dagoen edo ez begiratzea izango da.
  → $HE_{2.1}$: Titulazio unibertsitarioen iraupenak titulazio horien nazioarteko eskaria zehazten du.
  → $HE_{2.2}$: Titulazio unibertsitarioen irakaskuntza adarrak titulazio horien nazioarteko eskaria baldintzatzen du.

- **HO_3: Espainiako unibertsitateen hainbat faktore kontrolaezinek unibertsitate horien goi mailako hezkuntzaren eskari internazionalean eragiten dute.** Hipotesi hau egiaztatzeko irizpidea Espainiako unibertsitateen goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskarian ikertutako

aldagai kontrolaezin ezberdinen araberako diferentzia adierazgarririk dagoen edo ez begiratzea izango da.

→ $HE_{3.1}$: Unibertsitate baten titulartasun publiko edo pribatuak unibertsitate horren goi mailako hezkuntzaren eskari internazionalean eragiten du.

→ $HE_{3.2}$: Unibertsitatea kokaturik dagoen eremu geografikoak unibertsitatearen goi mailako hezkuntzaren eskari internazionala baldintzatzen du.

→ $HE_{3.3}$: Unibertsitateak aurre egin beharreko konkurrentzia mailak unibertsitatearen goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskarian eragiten du. Zehazki, unibertsitateak jasan beharreko lehia mailak eragin positiboa du unibertsitatearen nazioarteko ikasleak erakartzeko gaitasunean.

→ $HE_{3.4}$: Unibertsitatearen antzinatasunak unibertsitatearen goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskaria zehazten du.

→ $HE_{3.5}$: Unibertsitatearen tamainak unibertsitatearen goi mailako hezkuntzaren eskari internazionala baldintzatzen du. Zehazki, unibertsitatearen tamainak eragin positiboa du unibertsitatearen nazioarteko ikasleak erakartzeko gaitasunean.

→ $HE_{3.6}$: Unibertsitateak irakaskuntza adar ezberdinetara duen orientazioak unibertsitatearen goi mailako hezkuntzaren eskari internazionalean eragiten du.

- **HO_4: Espainiako unibertsitateek kontrola ditzaketen hainbat ezaugarrik unibertsitate horien goi mailako**

hezkuntzaren eskari internazionalean eragiten dute. Hipotesi hau egiaztatzeko irizpidea Espainiako unibertsitateen goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskarian kontrola daitezkeen aldagai ezberdinen araberako diferentzia adierazgarririk dagoen edo ez begiratzea izango da.

→ $HE_{4.1}$: Unibertsitatearen irakasleen lan-egonkortasunak unibertsitatearen goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskarian eragiten du. Zehazki, irakasleen lan-egonkortasunak modu positiboan eragiten du unibertsitatearen nazioarteko ikasleak erakartzeko gaitasunean.

→ $HE_{4.2}$: Unibertsitatearen irakasle katedradun edo baliokideen portzentajeak unibertsitatearen goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskaria baldintzatzen du. Zehazki, irakasle katedradun edo baliokideen portzentajeak eragin positiboa du unibertsitatearen nazioarteko ikasleak erakartzeko gaitasunean.

→ $HE_{4.3}$: Unibertsitatearen irakasle bakoitzeko ekoizpen zientifiko kopuruak unibertsitatearen goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskarian eragiten du. Zehazki, irakasle bakoitzeko ekoizpen zientifiko kopuruak eragin positiboa du unibertsitatearen ikasle internazionalak erakartzeko gaitasunean.

→ $HE_{4.4}$: Unibertsitatearen ekoizpen zientifikoaren kalitateak unibertsitatearen goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskaria determinatzen du. Zehazki, ekoizpen zientifikoaren kalitateak, bai orokorrak (normalizatutako inpaktu indizea),

bai arlo zientifiko ezberdinetakoak (dokumentu bakoitzeko batez besteko aipamen kopurua arlo zientifiko ezberdinetan), eragin positiboa du unibertsitatearen ikasle internazionalak erakartzeko gaitasunean.

→ $HE_{4.5}$: Unibertsitatearen ikerketa jarduerak (ikerketa proiektuen kopurua) unibertsitatearen goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskarian eragiten du. Zehazki, ikerketa jarduerak modu positiboan eragiten du unibertsitatearen nazioarteko ikasleak erakartzeko gaitasunean.

→ $HE_{4.6}$: Unibertsitatearen patente kopuruak unibertsitatearen goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskaria baldintzatzen du. Zehazki, patente kopuruak eragin positiboa du unibertsitatearen nazioarteko ikasleak erakartzeko gaitasunean.

→ $HE_{4.7}$: Unibertsitatearen eskaintzaren aniztasunak unibertsitatearen goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskarian eragiten du. Zehazki, eskaintzaren aniztasunak eragin positiboa du unibertsitatearen nazioarteko ikasleak erakartzeko gaitasunean.

→ $HE_{4.8}$: Unibertsitatearen matrikularen prezioak unibertsitatearen goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskarian eragiten du. Zehazki, matrikularen prezioak eragin negatiboa du unibertsitatearen nazioarteko ikasleak erakartzeko gaitasunean.

→ $HE_{4.9}$: Unibertsitateak iragarritako egoitza unibertsitario eta ikastetxe nagusien edukierak unibertsitatearen goi mailako

hezkuntzaren nazioarteko eskaria baldintzatzen du. Zehazki, iragarritako egoitza unibertsitario eta ikastetxe nagusien edukierak positiboki eragiten du unibertsitatearen nazioarteko ikasleak erakartzeko gaitasunean.

- **HO_5: Espainian bizi diren atzerritarren erabakia Espainiako goi mailako hezkuntza eskatu edo ez eskatzeari dagokionez hainbat faktore pertsonalek baldintzatzen dute.** Hipotesi hau egiaztatzeko irizpidea planteatutako goi mailako hezkuntzaren atzerriko eskariaren ereduan aztertutako aldagai pertsonalen koefizientea zerotik nabarmenki ezberdina den begiratzea izango da.
  - → $HE_{5.1}$: Adinak eragin negatiboa du atzerritarren unibertsitate mailako ikasketak burutzeko erabakian.
  - → $HE_{5.2}$: Sexua atzerritarren goi mailako hezkuntza eskatzeko erabakia baldintzatzen duen faktore bat da.
  - → $HE_{5.3}$: Atzerritarrak Espainian bizitzen daraman urte kopuruak eragin positiboa du goi mailako hezkuntza eskatzeko erabakian.

- **HO_6: Espainian bizi diren atzerritarren erabakia Espainiako goi mailako hezkuntza eskatu edo ez eskatzeari dagokionez hainbat familia-faktorek baldintzatzen dute.** Hipotesi hau egiaztatzeko irizpidea planteatutako goi mailako hezkuntzaren atzerriko eskariaren ereduan aztertutako familia-aldagaien koefizientea zerotik nabarmenki ezberdina den begiratzea izango da.

→ $HE_{6.1}$: Etxeko kultura mailak edo gurasoen ikasketa mailak eragin positiboa du atzerritarren unibertsitate mailako ikasketak burutzeko erabakian.

→ $HE_{6.2}$: Etxeko maila ekonomikoak eragin positiboa du atzerritarren unibertsitate mailako hezkuntza eskatzeko erabakian.

→ $HE_{6.3}$: Etxeko kide kopuruak eragin negatiboa du atzerritarren unibertsitate mailako ikasketak burutzeko erabakian.

→ $HE_{6.4}$: Ezkontidearekin edo bikotearekin bizitzeak eragin negatiboa du atzerritarren unibertsitate mailako ikasketak eskatzeko erabakian.

- **HO_7: Espainian bizi diren atzerritarren erabakia Espainiako goi mailako hezkuntza eskatu edo ez eskatzeari dagokionez hainbat lan-faktorek baldintzatzen dute.** Hipotesi hau egiaztatzeko irizpidea planteatutako goi mailako hezkuntzaren atzerriko eskariaren ereduan aztertutako lan-aldagaien koefizientea zerotik nabarmenki ezberdina den begiratzea izango da.

  → $HE_{7.1}$: Aktiboa izateak eragin negatiboa du atzerritarren unibertsitate mailako ikasketak burutzeko erabakian.

  → $HE_{7.2}$: Jarduera egoerari buruzko pertzepzioak atzerritarren goi mailako hezkuntza eskatzeko erabakia baldintzatzen du.

  → $HE_{7.3}$: Enplegua izateko nahiak atzerritarren unibertsitate mailako ikasketak eskatzeko erabakian eragiten du.

→ $HE_{7.4}$: Bilatutako enpleguan nahi den lanaldi motak atzerritarren goi mailako ikasketak burutzeko erabakia determinatzen du.

→ $HE_{7.5}$: Lan esperientziak atzerritarren goi mailako hezkuntza eskatzeko erabakian eragiten du.

→ $HE_{7.6}$: Lanbideak atzerritarren unibertsitate mailako ikasketak eskatzeko erabakia zehazten du.

→ $HE_{7.7}$: Lan establezimenduaren jarduerak atzerritarren goi mailako hezkuntza eskatzeko erabakia baldintzatzen du.

→ $HE_{7.8}$: Enpresaria izateak atzerritarren unibertsitate mailako ikasketak eskatzeko erabakian eragiten du.

- **HO_8: Espainian bizi diren atzerritarren erabakia Espainiako goi mailako hezkuntza eskatu edo ez eskatzeari dagokionez hainbat faktore geografikok baldintzatzen dute.** Hipotesi hau egiaztatzeko irizpidea planteatutako goi mailako hezkuntzaren atzerriko eskariaren ereduan aztertutako aldagai geografikoen koefizientea zerotik nabarmenki ezberdina den begiratzea izango da.

  → $HE_{8.1}$: Etxebizitzak Espainian duen kokapenak atzerritarren goi mailako hezkuntza eskatzeko erabakia baldintzatzen du.

  → $HE_{8.2}$: Atzerritarraren jatorriak unibertsitate mailako hezkuntza eskatzeko erabakia determinatzen du.

Azterlan honetan erabilitako **METODOLOGIARI** dagokionez, lehenik eta behin aztergaiaren egoera deskribatzea ahalbidetu duen goi mailako hezkuntzaren eskariarekin

erlazionatutako hainbat teoria eta ikerketei buruzko esplorazio-analisi bat burutu dugula ikus daiteke.

Analisiaren lehenengo fase honek goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskariaren determinazioan inplikaturik egon daitezkeen faktoreak identifikatzeko balio du. Hau da, ikerketa honen gaiarekin erlazionatutako literaturaren berrikuspenaren bidez, aurretik egindako azterlanak gure hasierako hipotesiak formulatzeko gida bezala erabili ditugu, ondoren, hipotesi horien egiaztatzeek tesiaren helburuak lortzen lagunduko digutelarik. Zentzu honetan, aurreko ataletan aipatutako ikerlanek unibertsitate mailako eskariaren determinatzaileei buruzko informazio garrantzitsua eskaintzen dute eta ikerlan horietan tesi honen hipotesietan planteatutako nazioarteko eskariaren faktore baldintzatzaile ugari antzeman daitezke.

Zehazki, iradokitzaile iruditzen zaigu Unibertsitate Marketinaren eremuan garatutako ikerkuntza; bertan, hainbat marketin kontzeptu, esaterako, ingurunearen analisia edo marketin-mixaren tresnak, hezkuntzaren esparruan erabil daitezkeela planteatzen da. Besteak beste, Vrontis, Thrassou eta Melanthiouk (2007) proposatutako goi mailako hezkuntzaren hautaketa eredua aipatzea garrantzitsua dela uste dugu, non herrialde garatuetako goi mailako hezkuntzaren eskariaren portaera baldintzatzen duten aldagai nagusiak agertzen diren. Modu berean, Kotler eta Fox (1995) edo Carmelo (2007) bezalako autoreek egiten duten hezkuntza edo unibertsitate marketin-mixaren planteamendua eta marketin-mix horren aldagaien deskribapena egokia iruditzen zaigu.

Ikuspuntu honek aurreko hipotesietan barneratutako goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskariaren faktore baldintzatzaileen sailkapena egiteko aukera ematen digu. Ondorengo taulan, beste gauza batzuen artean, tesi honetan aztertutako unibertsitateen nazioarteko eskari faktore bakoitza, gure ustez, zein marketin aldagai motarekin lotu daitekeen agertzen da:

Espainiako Goi Mailako Hezkuntzaren Nazioarteko Eskariaren Faktore Erabakigarriak

TESTUINGURU FAKTOREAK	TITULAZIOAREN FAKTOREAK	ERAKUNDE UNIBERTSITARIOAREN FAKTOREAK			
		MARKETIN-MIXaren ALDAGAIAK		INGURUNE ALDAGAIAK	ANTOLAKETA ALDAGAIAK
		PRODUKTU aldagaia	**PREZIO aldagaia**		
-Herrialdearen kokapen geografikoa Europan -Hezkuntza politika (hezkuntzan inbertsioa, hirugarren mailako hezkuntzan inbertsioa) -I+G politika (I+Gean inbertsioa)	-Titulazioaren iraupena -Titulazioaren irakaskuntza adarra	-Irakasleen lan-egonkort. -Irakasle katedradunen portz. -Irakasle bakoitzeko ekoizpen zientifiko kopurua -Ekoizpen zientif. kalitatea -Ikerketa jarduera -Patente kopurua -Eskaintzaren aniztasuna	-Matrikularen prezioa **KOMUNIKAZIO aldagaia** -Unibertsitateak iragarritako egoitza eta ikastetxe nagusien edukiera **BANAKETA aldagaia** -Unibertsitatearen kokapen geografikoa Espainian	-Unibertsitateak aurre egin beharreko konkurrentzia maila	-Titulartasuna -Antzinatasuna -Tamaina -Unibertsitatearen orientazioa -Irakasleen lan-egonkortasuna -Irakasle katedradunen portzentajea

Espainiako Goi Mailako Hezkuntzaren Hautaketa Prozesua

FAKTORE INDIBIDUALAK

Aldagai pertsonalak
-Adina
-Sexua
-Espainian bizitzen urte kopurua

Familia-aldagaiak
-Etxeko kultura maila
-Etxeko maila ekonomikoa
-Etxeko kide kopurua
-Ezkontidearekin edo bikotearekin bizitzea

Lan-aldagaiak
-Jarduerarekin harremana
-Norberak hautemandako jarduera egoera
-Enplegua izateko nahia
-Bilatutako enpleguan nahi den lanaldi mota
-Lan esperientzia
-Lanbidea
-Lan establezimenduaren jarduera
-Enpresaria izatea

Aldagai geografikoak
-Etxebizitzak Espainian duen kokapena
-Jatorria

Iturria: Egileak moldatua

Behin aldagai aipagarriak identifikatu eta lan hipotesiak planteatu ondoren hipotesi horiek egiaztatzera eta tesiaren helburuak lortzera bideratutako ikerketa enpirikoa garatuko dugu.

Europako herrialdeetako goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskariari dagokionez, lehenik analisi deskriptibo bat aurkeztuko dugu ondoren garatuko dugun analisi esplikatzaileari testuingurua emango diona. Analisi hauek gauzatzeko beharrezko informazioa UNESCOren Estatistika Institutuko Datu Zentrotik lortuko dugu. Ikerketa deskriptiboa kluster eta osagai nagusien analisi tekniken bidez burutuko dugu nagusiki. Ikerketa esplikatzailean, ordea, faktore bakarreko bariantzaren analisi teknikara joko dugu. Teknika honek Europako herrialdeetako nazioarteko eskarian $HE_{1.1}$, $HE_{1.2}$, eta $HE_{1.3}$. hipotesietan planteatutako aldagaien araberako diferentzia esanguratsurik dagoen ikusteko aukera ematen du. Honela, **HO_1** hipotesi orokorrean barneratutako hipotesi espezifikoak egiaztatu nahi ditugu tesiaren Hel_1 helburua lortzeko asmoz. Aipatutako datuen analisirako teknika estatistikoak SPSS programaren (19. bertsioa) bidez aplikatuko ditugu.

Halaber, Espainiako unibertsitate-sistemaren kasuan, lehenik eta behin goi mailako hezkuntza espainiarraren atzerriko eskariaren deskribapen orokor bat burutuko dugu, eskari hori bai bere osotasunean bai titulazio eta unibertsitate ezberdinei dagokionez kontsideratuz. Kasu honetan ere batik bat kluster eta osagai nagusien analisi teknikak erabiliko ditugu eta beharrezko datuak Hezkuntza Ministerioak 2005/2006 ikasturterako argitaratutako Ikasle Unibertsitarioen Estatistikatik aterako ditugu. Analisi

deskriptiboa kasu honetan tesiaren Hel_2 helburuaren lorpenera zuzenduta dago.

Ondoren, analisi esplikatzaile bat garatuko dugu, bai titulazio unibertsitarioen bai Espainiako unibertsitateen nazioarteko eskaria baldintzatzen duten faktoreak identifikatzeko helburuz. Erabiliko dugun informazioa Hezkuntza Ministerioaren 2005/2006 ikasturteko Ikasle Unibertsitarioen Estatistikatik dator ere eta erabiliko dugun teknika faktore bakarreko bariantzaren analisia da. Teknika honen bidez titulazio unibertsitarioen nazioarteko eskarian $HE_{2.1}$ eta $HE_{2.2}$ hipotesietan planteatutako faktoreen araberako diferentzia adierazgarririk dagoen ikus daiteke. Modu berean, teknika honi esker Espainiako unibertsitateen nazioarteko eskarian $HE_{3.1}$, $HE_{3.2}$, $HE_{3.3}$, $HE_{3.4}$, $HE_{3.5}$, $HE_{3.6}$, $HE_{4.1}$, $HE_{4.2}$, $HE_{4.3}$, $HE_{4.4}$, $HE_{4.5}$, $HE_{4.6}$, $HE_{4.7}$, $HE_{4.8}$ eta $HE_{4.9}$ hipotesietan proposatutako aldagaien araberako diferentzia esanguratsurik dagoen ikus daiteke. Era honetan, $\mathbf{HO_2}$, $\mathbf{HO_3}$ eta $\mathbf{HO_4}$ hipotesi orokorretan barneratutako hipotesi espezifikoak egiazta daitezke eta tesiaren Hel_2, Hel_3 eta Hel_4 helburuak lortu.

Beste alde batetik, atzerritarren goi mailako hezkuntza eskatzeko erabakia baldintzatzen duten faktore indibidualak aztertzeko asmoz, lehenik, $HE_{5.1}$, $HE_{5.2}$, $HE_{5.3}$, $HE_{6.1}$, $HE_{6.2}$, $HE_{6.3}$, $HE_{6.4}$, $HE_{7.1}$, $HE_{7.2}$, $HE_{7.3}$, $HE_{7.4}$, $HE_{7.5}$, $HE_{7.6}$, $HE_{7.7}$, $HE_{7.8}$, $HE_{8.1}$ eta $HE_{8.2}$ hipotesietan adierazitako aldagaiei buruzko analisi deskriptibo bat burutuko dugu, goi mailako hezkuntzaren atzerritar eskatzaile eta ez eskatzaileen artean bereiziz. Geroago, hautaketa diskretuko eredu bat estimatuz, analisi esplikatzaile bat garatuko dugu atzerritarren goi mailako hezkuntza eskatzeko erabakia

zehazten duten faktore indibidualak identifikatzeko. Analisi honekin kontsideratutako faktore bakoitzaren koefizientea zerotik nabarmenki ezberdina den ikus daiteke eta $\mathbf{HO_5}$, $\mathbf{HO_6}$, $\mathbf{HO_7}$ eta $\mathbf{HO_8}$ hipotesi orokorretan barneratutako hipotesi espezifikoak egiazta daitezke. Bai analisi deskriptiboa bai analisi esplikatzailea tesiaren Hel_5 helburua lortzera bideratuta daude eta 2007ko bigarren hiruhilekoko Biztanleria Aktiboaren Inkestari dagozkion datuak erabiliz garatuko ditugu. Analisi hauetarako LIMDEP (9.0 bertsioa) programa informatikoa erabiliko dugu.

Azkenik, lortutako emaitza guztien interpretazioaren bidez ondorio nagusiak garatuko ditugu. Emaitzen interpretazioa prozesu analitiko-sintetiko baten bidez burutuko dugu, tesiaren Hel_6 eta Hel_7 helburuak lortzea posible egingo duena.

2.KAPITULUA

GHEEko HERRIALDEETAKO HIRUGARREN MAILAKO IKASKETEN NAZIOARTEKO ESKARIA

2.1 Sarrera

Lehenago ere esan bezala, Boloniako prozesuaren funtsezko helburuetako bat mundu mailan erakargarria den Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparru (GHEE) bat sortzea da. Europako unibertsitateak beren erakargarritasun maila areagotzen saiatzen dira, munduko eskualde ezberdinetako ikasle, irakasle eta ikertzaileentzat. Bigarren kapitulu honetan Europako herrialdeetako ikasle unibertsitario internazionalei buruzko datuak aurkeztuko ditugu, aipatutako zenbait helbururen erdiespen maila ebaluatzeko asmoz.

Eurostatek, Eurostudentek eta Eurydicek burututako eta Europako Batzordeak finantzatutako Boloniako prozesuaren inplementazio txostenak Boloniako prozesuaren egungo egoera deskribatzen du ikuspegi ezberdinak kontuan izanda eta 2010. eta 2011. urteetako datuak erabiliz. Besteak beste, 2012. urteko apirilean argitaratutako txosten honek, mugikortasunaren alorra jorratzen du GHEEaren testuinguruan eta kreditu mugikortasuna eta gradu mugikortasuna bereizten ditu.

Lehenengoa epe laburreko mugikortasun bati dagokio eta bere oinarrizko helburua atzerriko instituzio batean kredituak eskuratzea da jatorrizko instituzioan ikaslearen aribideko ikasketen eremuan. Graduko mugikortasuna, ordea, epe luzeko mugikortasuna da eta bere funtsezko helburua atzerriko herrialdean titulazio oso bat edo ziurtagiri bat lortzea da.

Era berean, aipatutako txostenak ikasleen hiru mugikortasun fluxu mota nagusi bereizten ditu.

- GHEEaren kanpotik barrurako gradu mugikortasun fluxuak.
- GHEEaren barrutik kanporako gradu mugikortasun fluxuak.
- GHEEaren barruko gradu eta kreditu mugikortasun fluxuak.

Kapitulu honen oinarrizko helburua Boloniako prozesuan parte hartzen duten herrialde garrantzitsuenen hirugarren mailako edo goi mailako hezkuntzaren eskari internazionalari buruzko ikuspegi orokor bat eskaintzea da. Eskari unibertsitario mota honek GHEEaren herrialde bakoitzaren **kanpotik** GHEEaren herrialde bakoitzaren **barrurako mugikortasun fluxuak** jasotzen ditu. Beste batzuen artean, Europako goi mailako hezkuntza sistema ezberdinetako nazioarteko eskari maila eta eskari horren jatorria aztertu nahi izan ditugu.

Kontsideratutako herrialdeen nazioarteko eskari mailaren neurketari dagokionez, gure azterketa honetan, herrialde bakoitzaren goi mailako hezkuntza sisteman matrikulatutako nazioarteko ikasle kopurua erabili dugu. Dena den, herrialde ezberdinetako eskaria konparatzeko asmoz, herrialde bakoitzaren ikasle atzerritarren portzentajea, matrikulatuen totalarekiko, ere erabili dugu. Herrialde jakin batek jasotako ikasleria eta herrialde horren ikasle kopuru totalaren arteko erlazioa herrialde horrek nazioarteko ikasleentzat duen erakargarritasun mailaren adierazle egokitzat har daiteke (Eurydice, Eurostat eta Eurostudent, 2012).

Horrez gain, herrialde bakoitzaren eskari internazionalaren jatorria aztertu ahal izateko, sorleku ezberdinetako nazioarteko ikasleen kopuru eta portzentajeaz baliatu gara. Modu honetan,

posiblea da herrialde batek munduko eskualde ezberdinetako ikasle internazionalentzat duen erakargarritasun maila alderatzea.

Kapitulu honen hurrengo atalean atzerrian ikasten dauden GHEEko herrialde ezberdinetako ikasleei buruzko informazioa ere aurkeztu dugu. Informazio honek europar esparruko herrialde ezberdinen **barrutik kanporako mugikortasun fluxuak** islatzen ditu. Zehazkiago, barrutik kanporako higikortasun hau aztertzeko, atzerrirantz mugikortasun tasa deritzona erabili dugu.

Tasa honek herrialde jakin batean atzerrian ikasten dauden ikasleen portzentajea jasotzen du, herrialde horretan matrikulatutako ikasleen totalarekiko. Boloniako prozesuaren inplementazio txostenak (2012) adierazten duenez, portzentaje hau ikasleek nazioarteko esperientzia eskuratu dezaten gauzatutako politika proaktiboen adierazletzat har daiteke, bereziki kreditu mugikortasunaren kasuan. Dena den, aipatutako txostenean, tasa hau, jatorrizko herrialdearen hezkuntza sistemaren gabetasun posibleen adierazlea ere izan daitekeela azaltzen da, bereziki gradu mugikortasunaren kasuan.

Beste alde batetik, esklusiboki GHEEtik datorren nazioarteko eskaria aztertzen duen atal bat ere erantsi diogu kapitulu honi. Atal honetan, lehenik, aukeratutako herrialdeek jasotzen duten europar esparruko eskariari buruz aritu gara. Bigarrenik, aukeratutako herrialde horiek GHEEko herrialde ezberdinetarantz sortzen duten eskariari buruzko ikuspegi orokor bat ere eskaini nahi izan dugu. Analisi mota hau **GHEE**aren **barruko mugikortasun fluxuei** dagokie.

Europar esparruko herri ezberdinetatik datorren eskari internazionala neurtzeko, herrialde bakoitzetik datorren ikasleriaren portzentajea, europar esparrutik datorren ikasleriaren totalarekiko, kalkulatu dugu. Europar esparruko herri ezberdinetarantz sortutako eskaria neurtzeko, ordea, herrialde bakoitzera bidalitako ikasleen portzentajea, europar esparrura bidalitako ikasleen totalarekiko, kalkulatu dugu.

Aztertutako datuen jatorriari dagokionez, gure informazio iturri nagusia Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen (UNESCOren) Estatistika Institutua izan da. UNESCOren Estatistika Institutua, mundu mailako hezkuntza, zientzia, teknologia eta komunikazio estatistikez arduratzen den, Nazio Batuen Erakundeko (NBE) agentzia espezializatua da.

Bigarren kapitulu honetan aurkeztutako analisi osoa UNESCOren Estatistika Institutuko Datu Zentrotik ateratako 2006. urteko goi mailako hezkuntzari buruzko informazioa erabiliz garatu dugu. Datu Zentro honek munduko herrialde ezberdinetako hezkuntzarekin, zientzia eta teknologiarekin, komunikazioarekin, kulturarekin eta alfabetismoarekin erlazionatutako makina bat adierazle jasotzen ditu[78].

[7] Kapitulu honen eranskinean analisian erabilitako aldagaiak agertzen dira. Hauetatik, batzuk, UNESCOren Estatistika Institutuaren Datu Zentroak eskaintzen ditu eta beste batzuk, lehenengoak erabiliz sortuak izan dira.

[8] UNESCOren Estatistika Institutuko Datu Zentroak nazioarteko ikasleei buruz eskaintzen duen informazioa ikasteko asmoz nazio edo lurralde muga bat zeharkatu duten eta orain beren jatorrizko herrialdetik kanpo matrikulaturik dauden ikasleei buruzkoa da. Informazio honek elkartruke programetan parte hartzen duten ikasle internazionalak kanpoan uzten ditu. Arrazoi nagusia, UNESCOren Estatistika Institutuak emandako informazioaren arabera, matrikulatutako ikasleen zenbaketan, bikoiztasuna saihestea da.

Gure ikerketa honetan analizatutako herrialdeei dagokienez, esan beharra dago, Boloniako prozesuan parte hartzen duten herrialde kopuru garrantzitsu baten eskari internazionala etsaminatzen dugula. Mendebaldeko Europako herrialde gehienak aztertzeaz gain[9], Boloniako prozesuan parte hartzen duten eta nazioarteko ikasle kopuru nabarmena duten beste herrialde europar batzuk ere kontsideratu ditugu.

Hauek dira, zehatz-mehatz, goi mailako hezkuntzaren atzerriko eskariaren analisirako aukeratutako Europako herrialdeak: Bulgaria, Errusiar Federakundea, Hungaria, Polonia, Txekiar Errepublika, Errumania, Turkia, Ukraina, Alemania, Austria, Belgika, Danimarka, Espainia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Irlanda, Islandia, Italia, Norvegia, Herbehereak, Portugal, Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batua, Suedia eta Suitza. Hortaz, bestelakorik adierazi ezean, kapitulu honetan GHEEa aipatzerakoan herrialde hauei buruz arituko gara.

Kapituluaren egiturari dagokionez, egokia iruditu zaigu sei atal bereiztea. Sarrera gisako atal honen ondoren, GHEEko hirugarren mailako ikasketen nazioarteko eskariari buruzko deskribapen labur bat aurkeztu dugu. Deskribapen honek goian aipatutako Europako herrialdeetako eskariari buruzko oinarrizko informazioa eskaintzen du eta ikasle internazionalen tasa eta atzerrirantz mugikortasun tasa bezalako adierazleak aurkezten ditu.

[9] Gure analisian Boloniako prozesuan parte hartzen duten Mendebaldeko Europako hurrengo herrialdeak ez ditugu aintzakotzat hartu: Andorra, Liechtenstein, Luxenburgo, Malta eta Vatikano Hiriko Estatua. Arrazoi nagusia analisia burutzeko zenbait datu beharrezkoen erabilgarritasun falta izan da.

Modu berean, herrialde hauetako ikasle internazionalen jatorriaren inguruko datuak ere azaltzen dira.

Ondoren, hirugarren atalean, goi mailako hezkuntza sistema europar ezberdinen arteko diferentziak aztertu ditugu, sistema hauen nazioarteko eskariaren jatorriari dagokionez. Honela, munduko eskualde ezberdinetatik datorren atzerriko ikasleriaren pisuaren arabera Europako herrialdeen sailkapen bat burutu dugu.

Laugarren atalean, berriz, nazioarteko eskari europarraz aritu gara. Atal honetan, GHEEko herrialde ezberdinetatik datorren ikasleriaren portzentajea kontuan izanda, goi mailako hezkuntza sistemen taldekatze bat aurkeztu dugu. Era berean, GHEEko atzerriko herrialde ezberdinetan goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen portzentajean oinarrituz ere hezkuntza sistemen sailkapen bat burutu dugu.

Bosgarren atalean interesgarria iruditu zaigu zenbait aldagaik hirugarren mailako ikasketen nazioarteko eskarian duten eragina ikertzea. Lehenik, europar herrialde ezberdinen kokapen geografikoak nazioarteko eskariaren mailan eta jatorrian nola eragiten duen antzematen saiatu gara. Bigarrenik, zenbait aldagai ekonomikok eskari internazionalean eraginik duten edo ez egiaztatzen saiatu gara. Zehazki, herrialde ezberdinek goi mailako hezkuntzan egindako inbertsio mailak edo herrialdeek ikerketa eta garapenean burutzen duten inbertsio mailak eskari internazionalean duten efektua aztertzen saiatu gara.

Azkenik, kapituluaren bukaeran, analisian lortutako ondorio garrantzitsuenak jasotzen dituen atal bat gaineratu dugu.

2.2 Hirugarren Mailako Ikasketen Eskari Internazionala GHEEan

2.2.1 Ikasleen Mugikortasuna GHEEan

Atal honetan Boloniako prozesuan parte hartzen duten Europako herrialdeen goi mailako hezkuntzaren eskari internazionalari buruzko ideia orokor bat ematen saiatuko gara. Ondorengo grafikoan GHEEko herrialdeen multzorako kalkulatutako ikasle atzerritarren tasa ageri da. Horrez gain, atzerrian estudiatzen dauden ikasleen ehunekoa ere agertzen da, GHEEko herrialde guztien datuak kontuan izanda kalkulatu dena.

Mugikortasuna GHEEan (2006)



Iturria: Egileak moldatua UNESCOren Estatistika Institutuaren Datu Zentroaren informazioa oinarri hartuta.

Ikasle atzerritarren tasa, UNESCOren Estatistika Institutuaren Datu Zentroak, munduko herrialde ezberdinentzat, eskaintzen duen datu bat da. UNESCOk emandako definizioaren arabera, tasa

honek, herrialde jakin batean guztira matrikulaturik dauden ikasleetatik, atzerrikoak diren ikasleen ehunekoa adierazten du. Definizio hau oinarri hartuta GHEEko herrialdeen multzorako ikasle atzerritarren tasa bat kalkulatu dugu. Hau da, tasa honen kalkulurako, GHEEko ikasle internazional guztien eta GHEEko goi mailako hezkuntzan matrikulatutako ikasle guztien arteko erlazioa izan dugu kontuan.

Beste alde batetik, UNESCOk ematen duen definizioaren arabera, atzerrirantz mugikortasun tasak herrialde jakin batean atzerrian ikasten dauden ikasleen portzentajea adierazten du, herrialde horretan matrikulaturik dauden ikasleen totalarekiko. Definizio honetan oinarrituz, GHEEko herrialdeen multzorako guztira atzerrian ikasten dauden ikasleen eta GHEEan guztira goi mailako hezkuntzan matrikulaturik dauden ikasleen arteko erlazioa kalkulatu dugu.

Emaitza gisa, GHEEko herrialdeetan, ikasle atzerritarren tasa (%3,9) atzerrirantz mugikortasun tasaren (%1,66) gainetik dagoela lortu dugu. Zehaztu beharra dago, hala ere, lehenengo kopuruak Europatik kanpo datorren eskari internazionala jasotzeaz gain, Europako herrialdeetatik datorren eskari internazionala ere jasotzen duela. Modu berean, atzerrirantz mugikortasun tasak bai GHEEtik kanporako mugikortasuna eta baita GHEEko beste herrialde batzuetarantz mugikortasuna ere islatzen du.

Datu hauen bidez GHEE osoko ikasleen mugikortasuna modu laburtuan adierazi nahi izan dugun arren, posiblea da ere esparru hori osatzen duten herrialde ezberdinen mugikortasuna banan-banan aztertzea. Horrela, herrialde europar bakoitzeko ikasleen

mugikortasunari buruzko kopuruak etsaminatzen baditugu, berehala ikus dezakegu hauek ez direla inondik inora homogeneoak.

Ondoko taulak, europar esparruko herrialde bakoitzaren ikasle atzerritarren tasa eta atzerrirantz mugikortasun tasa jasotzen ditu 2006. urterako. Lehenengo tasak, goian esan bezala, herrialde bakoitzean dauden ikasle atzerritarren portzentajea adierazten du, goi mailako hezkuntzan matrikulatutako ikasleen totalarekiko. Bigarrenak, herrialde bakoitzean kanpoan ikasten dauden ikasleen ehunekoa islatzen du, herrialde horretan hirugarren mailako hezkuntzan matrikulatutako ikasleen totalarekiko.

Mugikortasuna GHEEko Herrialdeetan (2006)

HERRIALDEA	IKASLE ATZERRITARREN TASA	ATZERRIRANTZ MUGIKORTASUN TASA
Bulgaria	%3,84	**%10,45**
Txekiar Errepublika	%6,33	%2,06
Hungaria	%3,30	%1,63
Polonia	%0,53	**%1,44**
Errumania	%1,03	**%2,65**
Errusiar Federakundea	%0,84	%0,00
Turkia	%0,81	**%1,49**
Ukraina	%0,97	%0,94
Austria	**%15,54**	%3,93
Belgika	%6,30	%2,62
Danimarka	%5,32	%2,25
Finlandia	%3,73	%1,96
Frantzia	**%11,24**	%2,41
Alemania[10]	**%10,74**	%2,84
Grezia	%2,54	**%5,38**
Islandia	%4,55	**%15,46**
Irlanda	%6,85	**%10,70**
Italia	%2,42	%1,66
Herbehereak	%4,66	%1,74

[10] Alemaniaren kasuan ikasle atzerritarren tasa eta atzerrirantz mugikortasun tasa ez daude erabilgarri 2006. urterako. Matrikulatutako ikasleen kopuru totala ere 2006. urterako erabilgarri ez dagoenez, ezin izan ditugu aipatutako tasak kalkulatu. Tasen kalkulurako beharrezkoa den informazioa erabilgarri duen eta 2006. urtetik hurbilen dagoen urtea 2003. urtea da. Beraz, Alemaniarentzat aurkeztutako tasak 2003. urteko datuak erabiliz kalkulatu ditugu.

HERRIALDEA	IKASLE ATZERRITARREN TASA	ATZERRIRANTZ MUGIKORTASUN TASA
Norvegia	%6,66	%5,67
Portugal	%4,65	%2,75
Espainia	%1,02	**%1,31**
Suedia	%5,04	%3,15
Suitza	**%17,89**	%4,86
Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batua	**%14,13**	%0,97
GHEE	**%3,90**	**%1,66**

Iturria: UNESCOren Estatistika Institutuaren Datu Zentroa.

Aurreko taulan agertzen den informazioa behatuz berehala konturatzen gara europar esparruko herrialdeen multzorako lortutakoa ez dela mantentzen herrialde bakoitzaren datuak banan-banan aztertzerakoan. Ikus, esate baterako, Bulgaria, Polonia, Errumania, Turkia, Grezia, Islandia, Irlanda edo Espainiako goi mailako hezkuntza sistemen kasua, non atzerrirantz mugikortasun tasak atzerritik datorren ikasleriaren portzentajea gainditzen duen.

Zalantzarik gabe, azpimarratzekoa da Bulgaria, Irlanda edo Islandia bezalako herrialdeek daukaten atzerrirantz mugikortasun tasa izugarri altua. Sarreran ere esan bezala, atzerrian ikasten dauden banakoen ehuneko altu honek jatorrizko herrialdearen hezkuntza sistemaren hutsune posibleak adierazten egon daiteke.

Ikasle internazionalei dagokienez, goiko taulan agertzen diren datuek analisian barneratutako herrialde gehienen ikasle atzerritarren tasak ez duela %7 gainditzen erakusten dute. Beheko irudian tasa hauen adierazpen grafikoa aurkezten da. Grafikoari so eginez, argi eta garbi geratzen da Suitza, Austria, Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batua, Frantzia edo Alemania bezalako herrialdeek nazioarteko ikasleak erakartzeko duten gaitasuna.



Iturria: Egileak moldatua UNESCOren Estatistika Institutuaren Datu Zentroaren informazioa oinarri hartuta.

2.2.2 Hirugarren Mailako Ikasketen Eskari Internazionalaren Jatorria GHEEan

UNESCOren Estatistika Institutuaren Datu Zentroak ikaslego internazionalaren jatorriari buruz eskaintzen duen informazioa eskualde geografikoetan taldekaturik agertzen da. Hots, herrialde bakoitzerako, eskualde ezberdinetatik datozen ikasle atzerritarrei buruzko informazioa aurkezten da. Guztira zazpi dira kontuan izandako eremu geografikoak: Afrika; Ipar Amerika, Erdialdeko Amerika eta Karibe; Hego Amerika; Asia; Europa; Ozeania; Espezifikatu gabeko eskualde eta herrialdea[11].

[11] Kapitulu honen eranskinean UNESCOren Estatistika Institutuaren Datu Zentroak munduko eskualde bakoitzean barneratzen dituen herrialdeak agertzen dira.

Hurrengo taulak GHEEko herrialde bakoitzerako ikaslego internazionalaren jatorriari buruzko informazioa eskaintzen du. Horrez gain, GHEEko herrialdeen multzorako jatorri ezberdinetako ikasleen portzentajea ere aurkezten du.

Nazioarteko Ikasleriaren Jatorria GHEEko Herrialdeetan (2006)

HERRIALDEA	Afrika	IAmer., EAmer., Karibe	HAmer.	Asia	Europa	Ozeania	Espez. gabeko herr.
Bulgaria	%1,58	%1,23	%0,03	%29,01	%68,12	%0,02	%0,00
Txekiar Errep.	%1,90	%0,98	%0,58	%8,42	%86,55	%0,04	%1,53
Hungaria	%1,83	%2,35	%0,21	%14,73	%80,83	%0,06	%0,00
Polonia	%4,14	%9,12	%0,60	%18,51	%67,29	%0,22	%0,12
Errumania	%11,87	%1,46	%0,27	%20,06	%65,98	%0,07	%0,29
Errusiar Feder.	%0,00	%0,00	%0,00	%40,42	%23,25	%0,00	%36,33
Turkia	%1,84	%0,20	%0,03	%53,40	%29,74	%0,16	%14,62
Ukraina	%4,72	%0,00	%0,00	%58,03	%20,38	%0,00	%16,88
Austria	**%1,46**	**%1,26**	**%0,77**	**%14,25**	**%81,99**	**%0,15**	**%0,12**
Belgika	%2,72	%0,94	%0,66	%5,30	%53,19	%0,05	%37,14
Danimarka	%2,33	%6,75	%1,08	%13,67	%71,50	%2,79	%1,87
Finlandia[12]	%11,47	%3,77	%1,53	%29,27	%52,99	%0,46	%0,52
Frantzia	**%45,19**	**%3,03**	**%2,96**	**%18,50**	**%20,83**	**%0,14**	**%9,35**
Alemania	**%8,72**	**%2,95**	**%2,87**	**%30,95**	**%46,44**	**%0,25**	**%7,81**
Grezia	%4,35	%0,88	%0,19	%63,92	%30,45	%0,22	%0,00
Islandia	%1,40	%10,21	%1,96	%7,13	%78,88	%0,28	%0,14
Irlanda	%5,69	%19,80	%0,35	%34,04	%36,32	%0,54	%3,27
Italia	%9,41	%2,28	%7,50	%13,02	%67,06	%0,16	%0,56
Herbehereak	%3,09	%0,92	%1,82	%14,30	%48,17	%0,14	%31,57
Norvegia	%9,65	%3,69	%1,86	%15,89	%45,47	%0,28	%23,15
Portugal	%63,13	%1,86	%14,44	%1,84	%18,59	%0,13	%0,00
Espainia	%8,99	%36,08	%23,05	%1,87	%30,01	%0,00	%0,00
Suedia	%0,61	%4,06	%0,43	%3,34	%38,73	%1,19	%51,64
Suitza	**%6,64**	**%3,03**	**%3,78**	**%8,66**	**%65,64**	**%0,29**	**%11,96**
BHko eta Ipar Irlandako EB	**%9,38**	**%7,51**	**%0,99**	**%46,06**	**%33,11**	**%0,69**	**%2,27**
GHEE	**%15,03**	**%4,53**	**%2,47**	**%29,31**	**%39,29**	**%0,34**	**%9,42**

Iturria: Egileak moldatua UNESCOren Estatistika Institutuaren Datu Zentroaren informazioa oinarri hartuta.

[12] Finlandiaren kasuan, UNESCOren Estatistika Institutuaren Datu Zentroak ez dauka erabilgarri 2006. urteko jatorri ezberdineko ikasle internazionalen kopuruari buruzko informazioa. Beraz, herrialde honen kasuan, jatorri ezberdineko ikasleen portzentajea 2005. urteko datuak erabiliz kalkulatu dugu.

GHEEko herrialdeen multzorako datuak begiratuz ikasle kanpotar gehienak Europako eta Asiako herrialdeetatik datozela baiezta daiteke. Beste alde batetik, esparru honetako ikasle internazionalen proportzio garrantzitsu batek Afrikako jatorria duela ere ikus daiteke.

Jarraian aurkezten diren grafikoak atzerriko ikasleen jatorriari buruzko informazioa erabiliz sortu ditugu. Bertan, GHEEko herrialdeen multzorako datuak aurkezteaz gain, atzerriko ikasleen portzentaje handieneko herrialdetarako datuak ere eskaintzen ditugu. Grafikoei so eginez, argi eta garbi bereiz daiteke jatorri ezberdineko ikasleen garrantzia.

NAZIOARTEKO ESKARIAREN JATORRIA GHEEan (2006)









Iturria: Egileak moldatua UNESCOren Estatistika Institutuaren Datu Zentroaren informazioa oinarri hartuta.

Lehenengo grafikoak arestian europar esparruko ikasle internazionalen jatorriari buruz esandakoa berresten du. Hau da, GHEEko ikasle kanpotar gehienak, bi herenetik gora, Europako edo Asiako herrialdeetatik datozela ikus daiteke.

Beste alde batetik, Austria eta Suitza bezalako herrialdeetan Europatik datozen ikasle kanpotarren pisua nagusitzen dela baiezta daiteke.

Erresuma Batuko goi mailako hezkuntza sisteman arreta jarriz, ostera, Asiako ikasleak erakartzeko gaitasuna nabarmen dezakegu. Dagokion grafikoan begiratuz argi geratzen da sistema unibertsitario britainiarra erakargarriagoa suertatzen dela Asiatik

datozen ikasleentzat munduko beste eskualde batzuetatik datozen ikasle internazionalentzat baino.

Halaber, Frantziaren kasuan orientazio handiagoa hauteman daiteke Afrikako herrialdeetatik datozen ikasleengana. Hitz gutxitan esateko, Frantzia erakargarriagoa da afrikar jatorriko estudianteentzat aztertutako gainontzeko eremu geografikoetako estudianteentzat baino.

Alemanian, ordea, goi mailako hezkuntzako ikasle kanpotar gehienak Europako eta Asiako herrialdeetatik datoz.

Azkenik, Irlandaren kasuan, Europako eta Asiako ikasleen portzentajeaz gain, merezi du ere aipatua izatea Ipar Amerika, Erdialdeko Amerika eta Karibetik datozen ikasleen garrantzia.

2.3 Hirugarren Mailako Ikasketen Eskari Internazional Globalaren Jatorria GHEEko Herrialdeetan

Atal honetan, gure funtsezko helburua, Europako goi mailako hezkuntza sistema ezberdinen eskari internazionalaren jatorriari buruzko ikuspegi orokor bat eskaintzea izan da. Lehenengo eta behin, GHEEko herrialdeen taldekatze bat aurkeztu dugu, herrialde bakoitzaren eskariaren jatorria oinarri hartuta. Zentzu berean, herrialde hauen posizionamendua aztertu dugu bakoitzaren ikasle internazionalen sorlekua kontuan izanda.

2.3.1 GHEEko Herrialdeen Sailkapena Eskari Internazional Globalaren Jatorriaren arabera

Goian esan bezala tesiaren zati honetan europar herrialdeen sailkapen bat burutuko dugu bakoitzak daukan munduko eskualde ezberdinetako ikasle atzerritarren pisuaren arabera. Taldekatze hau egiteko kluster analisi[13] bat aplikatu dugu eta sailkapen aldagai gisa herrialde bakoitzaren munduko eskualde ezberdinetako ikasleen portzentajeak erabili ditugu.

Kotler eta Foxek (1995) kluster analisia aipatzen dute merkataritza ikerkuntzarako tresna kuantitatibo bezala. Autore hauen esanetan, kluster analisia honela defini daiteke: lekuak edo unibertsitateak bezalako objektuak elkarrekiko baztertzaileak diren eta barruan homogeneoak diren kategoria kopuru jakin batean sailkatzeko balio duen teknika estatistikoa.

Beste era batera esanda, kluster analisiak edo konglomeratuen analisiak, banakoen zenbait aldagai edo ezaugarri kontuan izanda, banako hauek ahalik eta homogeneoenak diren taldetan sailkatzen ditu. Sailkapen hau banakoen arteko antzekotasun maila adierazten duen eta analisiaren aldagai guztiak erabiliz kalkulatzen den neurri batean oinarritzen da. Hainbat antzekotasun neurriren artean aukeratu daitekeen arren, maiz erabiltzen den neurri bat banakoen arteko distantzia euklidear karratua da.

Konglomerazio prozesua banako bezainbat talderekin hasten da eta banako guztiek osatutako talde bakarrarekin bukatzen da. Taldekatze etapa bakoitzean multzoak batuz doaz kalkulatutako

[13] Azterlan honetan agertzen diren Kluster Analisi guztiak SPSS programa (19. bertsioa) erabiliz burutu ditugu.

distantzia edo antzekotasun neurrien arabera, etapa bakoitzean antzekoenak diren edo distantziarik txikiena duten banako edo multzoak elkartzen direlarik. Garrantzitsua da prozesuaren etapa guztiak aztertzea, talde berdinean oso ezberdinak diren banakoak batzen diren begiratzea eta ondoren taldekatze ezberdinak onartzen diren edo ez erabakitzea.

Bi talderen arteko distantzia zehazteko irizpide ezberdinak daude. Distantzia minimoen metodoaren arabera, bi multzoren arteko distantzia multzo horien punturik hurbilenen arteko distantzia da. Distantzia maximoen metodoan, berriz, bi multzoren arteko distantzia multzo horien punturik urrunenen arteko distantzia da. Bestalde, taldeen arteko batez bestekoaren metodoak, bi taldeen arteko distantzia bi talde horien banakoen artean sor daitezkeen bikote guztien arteko distantzien batez bestekoa bezala definitzen du.

Analisi honetan Warden metodoa erabili dugu. Metodo honek kasu bakoitzaren eta bere taldearen batez bestekoaren arteko distantzia euklidear karratua kalkulatzen du eta ondoren talde bakoitzeko osagai guztien distantziak batzen ditu. Etapa bakoitzean taldeen barneko distantzia karratu guztien baturan gehikuntzarik txikiena sortzen duten taldeak elkartzen dira.

Gure helburua, kluster analisi baten bidez, Europako herrialdeak sailkatzea izan da herrialde bakoitzaren eskari internazionalaren jatorria kontuan izanda. Taldeen eraketa goranzko prozedura hierarkiko baten bidez burutu da, antzekotasun neurri bezala distantzia euklidear karratua erabiliz. Jarraian gure

analisiaren konglomerazio prozesu osoa grafikoki adierazten duen dendograma aurkezten da.

Dendograma Warden metodoa erabiliz



Lortutako emaitzak aztertuz ezaugarri ezberdinak dituzten lau herrialde multzo bereiz ditzakegu. Ondorengo taulan talde bakoitza osatzen duten herrialdeak agertzen dira.

	HERRIALDEAK
1. TALDEA	Hungaria, Austria, Txekiar Errepublika, Islandia, Polonia, Danimarka, Errumania, Italia, Suitza, Bulgaria
2. TALDEA	Finlandia, Alemania, Irlanda, Erresuma Batua, Turkia, Ukraina, Grezia, Errusiar Federakundea
3. TALDEA	Herbehereak, Norvegia, Belgika, Suedia
4. TALDEA	Frantzia, Portugal, Espainia

Sailkapena burutu ondoren, herrialde talde ezberdinen arteko diferentzia nagusiak analizatu ditugu. Hau da, lortutako taldeen artean, zenbait aldagaiei dagokienez, diferentzia esanguratsurik dagoen aztertu dugu. Diferentzia hauek identifikatu ahal izateko faktore bakarreko bariantzaren analisia deritzon teknika erabili dugu. Teknika hau batez bestekoen berdintasun hipotesi baten kontrastean oinarritzen da eta menpeko aldagai batek faktore edo aldagai independente baten balioen arabera diferentzia esanguratsuak aurkezten dituen edo ez aztertzeko erabiltzen da.

Atal honetan faktore bakarreko bariantzaren analisi bat baino gehiago aplikatuz zenbait aldagaik kluster ezberdinetan diferentziarik aurkezten duten hautematen saiatuko gara. Beste era batera esanda, bariantzaren analisi bakoitzean menpeko aldagai gisa eskari internazionalarekin erlazionatutako aldagai bat erabiliko dugu eta faktore edo aldagai independente bezala banakoa herrialde talde batekoa edo bestekoa den adierazten duen aldagai bat[14].

Analisi hauen emaitza gisa hurrengo aldagaiek identifikatutako herrialde talde ezberdinetan diferentzia esanguratsurik aurkezten ez dutela antzeman dugu.

- Ikasle internazionalen totala
- Ikasle atzerritarren tasa
- IAmer., EAmer. eta Karibe ikasleak
- IAmer., EAmer. eta Karibe portzent.
- Asia ikasleak
- Europa ikasleak
- Ozeania ikasleak
- Ozeania portzentajea
- Espezif. gabeko esku. ikasleak
- Atzerrirantz mugikortasun tasa

Bestalde, ondorengo aldagaiak herrialde talde ezberdinetan modu esanguratsuan ezberdinak direla ere ikusi ahal izan dugu[15].

[14] Lan honetan, normalean, 0,05eko esangura maila erabili dugu. Hala ere, zenbait aldagairen kasuan 0,10eko esangura maila ere erabili dugu.
[15] Azken aldagaia 0,10eko esangura maila baterako da esanguratsua.

- Afrika ikasleak
- Afrika portzentajea
- Hego Amerika ikasleak
- Hego Amerika portzentajea
- Asia portzentajea
- Europa portzentajea
- Espez. gabeko eskualdea portz.
- Unibertsitate kopurua
- Atzerrian dauden ikasleen tot.

Bariantzaren analisiaren bidez herrialde talde ezberdinen artean, aldagai jakin bati dagokionez, diferentzia esanguratsurik dagoen edo ez aztertzea besterik ez da posiblea. Behin diferentziak existitzen direla egiaztatu denean, aipatutako azken bederatzi aldagaien kasuan bezala, zehatz-mehatz desberdinak diren herrialde taldeak determinatu ahal izateko beharrezkoa da konparaketa anizkoitzeko proba bat burutzea.

Azterlan honetan, konparaketa anizkoitzeko proba ezberdinen artean, Duncanen proba aukeratu dugu. Proba honek talde bakoitzaren batez bestekoak aurkezten dizkigu azpimultzo homogeneoetan sailkaturik. Hurrengo tauletan Duncanen probaren emaitzak agertzen dira aipatutako azken bederatzi aldagaietarako[16].

Afrika ikasleak

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
3	4	755,50	
1	10	1019,70	
2	8	6640,63	
4	3		41588,67
Esang.		,667	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

[16] Tesi honetan agertzen diren faktore bakarreko bariantzaren analisi guztiak eta Duncanen proba guztiak SPSS programa (19. bertsioa) erabiliz burutu ditugu.

Afrika portzentajea

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
3	4	4,0180	
1	10	4,2554	
2	8	5,7706	
4	3		39,1050
Esang.		,782	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Lehenengo bi tauletako datuek adierazten dutenez, Frantziak, Portugalek eta Espainiak osatutako laugarren taldean bai Afrikako ikasle internazionalen kopurua eta baita Afrikako ikasleen ehunekoa ere gainontzeko herrialde taldetan baino nabarmenki handiagoa da. Talde honetan, batez beste, ikasle kanpotarren herena baino gehiago Afrikatik dator.

Hego Amerika ikasleak

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
3	4	252,75	
1	10	573,50	
2	8	1179,38	
4	3		5084,00
Esang.		,422	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Hego Amerika portzentajea

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
2	8	,7435	
3	4	1,1905	
1	10	1,6781	
4	3		13,4844
Esang.		,698	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Halaber, laugarren taldean bai Hego Amerikako ikasle internazionalen kopurua eta baita portzentajea ere gainontzeko

taldetan baino nabarmenki handiagoa dela hauteman daiteke. Batez beste, Frantzia, Portugal eta Espainiako ikasle kanpotarren %13 baino gehiago Hego Amerikatik dator.

Asia portzentajea

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
4	3	7,4021	
3	4	9,7070	
1	10	14,7467	
2	8		44,5116
Esang.		,260	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Aurreko taulan egiazta daitekeen moduan, bigarren taldea gainontzeko taldeetatik bereizten da Asiatik datorren ikaslegoarengana orientazio nabarmenki handiagoa izateagatik. Finlandiak, Alemaniak, Irlandak, Erresuma Batuak, Turkiak, Ukrainak, Greziak eta Errusiar Federakundeak osatutako talde honetan, batez beste, Asiako jatorria duten ikasleen ehunekoa %40tik gora dago.

Europa portzentajea

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)		
		1	2	3
4	3	23,1417		
2	8	34,0843		
3	4		46,3895	
1	10			73,3833
Esang.		,061	1,000	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Europako herrialdeetatik datozen nazioarteko ikasleen pisuari dagokionez, goiko emaitzek agerian jartzen dute ikaslego mota honen nagusitasuna lehenengo taldeko herrialdeetan. Hots, Hungariak, Austriak, Txekiar Errepublikak, Islandiak, Poloniak,

Danimarkak, Errumaniak, Italiak, Suitzak eta Bulgariak osatutako taldean ikaslego internazionalaren bi herenetik gora europar jatorrikoa da.

Zentzu berean, hirugarren herrialde taldea ere merezi du aipatua izatea. Talde honetan europar ikasleen portzentajea lehenengo taldean baino txikiagoa den arren, gainontzeko taldeetan baino nabarmenki handiagoa da. Herbehereek, Norvegiak, Belgikak eta Suediak eratutako hirugarren klusterrean ikasleria atzerritarraren azpimarratzeko moduko %46 europar herrialdeetatik dator.

Espezifikatu gabeko eskualdea portzentajea

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
1	10	1,6589	
4	3	3,1154	
2	8	10,2116	
3	4		35,8757
Esang.		,168	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Goiko taulan nabari geratzen da hirugarren taldeak espezifikatu gabeko eskualde eta herrialdetatik datozen ikasleen portzentaje altua ere baduela.

Unibertsitate kopurua

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
3	4	28,75	
1	10	29,30	
2	8	78,75	78,75
4	3		124,67
Esang.		,173	,186

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Bestalde, lehenago adierazi bezala, herrialde taldeen artean unibertsitate kopuruari dagokionez ere diferentzia esanguratsuak

daudela esan daiteke. Lortutako emaitzak oinarri hartuta laugarren herrialde taldean batez besteko unibertsitate kopurua lehenengo eta hirugarren taldean baino nabarmenki handiagoa dela esan dezakegu.

Atzerrian dauden ikasleen totala

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)
		1
3	4	11474,00
1	10	15374,80
4	3	28863,00
2	8	31996,88
Esang.		,059

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Azkenik, aurreko taulak, herrialde talde ezberdinetarako, atzerrian ikasten dauden ikasleen batez bestekoa aurkezten du. Hirugarren taldea, Herbehereek, Norvegiak, Belgikak eta Suediak osatua, batez beste, atzerrian ikasle kopuru txikiena daukan taldea da.

2.3.2 GHEEko Herrialdeen Posizioa Bakoitzaren Eskari Internazional Globalaren Jatorriaren arabera

Azpiatal honetan Europako herrialde ezberdinen posizioa azaltzen saiatuko gara bakoitzaren eskari internazional globala kontuan izanda. Herrialdeen arteko diferentzien identifikazioa errazteko asmoz osagai nagusien analisi[17] bat aplikatu dugu.

[17] Azterlan honetan agertzen diren osagai nagusien analisi guztiak SPSS programa (19. bertsioa) erabiliz burutu ditugu.

Analisian herrialde bakoitzaren jatorri ezberdineko ikasleen portzentajeak erabili ditugu hasierako aldagai moduan.

Teknika honen bidez hasierako aldagaiak azpian dauden aldagai kopuru txikiago batean laburbiltzea lortzen da, informazio galera minimoarekin. Azpian dauden aldagai artifizial hauek hasierakoen konbinazio linealak dira eta osagai nagusi edo faktore izenaz ezagutzen dira.

Hortaz, ikerketa honetan jatorrizko aldagaiak ahalik eta hoberen laburtzen dituen faktore kopuru murriztu bat lortzen saiatuko gara, honela, ikasle internazionalen jatorriaren analisi eta konparaketa errazagoa izan dadin.

Faktore kopurua zehazteko irizpidea autobalioa bat baino handiagoa daukaten osagaiak aukeratzea izan da. Bestalde, faktoreen interpretazioa sinplifikatzeko Varimax errotazio ortogonal metodoa erabili dugu. Metodo honek faktore bakoitzean saturazio[18] altuko aldagai kopurua minimizatzen du.

Kasu honetan informazio edo bariantza totalaren %85,240 azaltzen duten lau faktore lortu ditugu. Lehenengo faktoreak bariantzaren %25,914 azaltzen du, bigarrenak %21,398, hirugarrenak %20,003 eta azken faktoreak %17,925. Ondoko taulan biratutako osagaien matrizea aurkezten da eta faktoreen eta hasierako aldagaien arteko erlazioa ikus daiteke.

[18] Biratutako osagaien matrizean hasierako aldagai guztien saturazioak edo karga faktorialak agertzen dira. Faktoreak ortogonalak direnean karga hauek aldagai eta faktoreen arteko korrelazioa adierazten dute.

Biratutako osagaien matrizea[a]

	Osagaia			
	1	2	3	4
Afrika portzentajea	,230	-,829	,136	,109
Ipar Amerika, Erdialdeko Amer. eta Karibe portz.	,917	,181	,019	-,152
Hego Amerika portzentajea	,813	-,418	,240	-,037
Asia portzentajea	-,219	,065	-,965	-,063
Europa portzentajea	-,344	,420	,604	-,579
Ozeania portzentajea	,195	,635	,162	,228
Espezifikatu gabeko eskualdea portzentajea	-,234	,138	,048	,910

Ateratze metodoa: Osagai nagusien analisia.
Errotazio metodoa: Varimax.
a. Errotazioa 8 iteraziotan batu da.

1. FAKTOREA: Biratutako osagaien matrizean lehenengo faktorearen eta Ipar Amerika, Erdialdeko Amerika eta Karibetik datozen ikasle atzerritarren portzentajearen arteko erlazio positibo nabarmena hauteman daiteke. Gisa berean, lehenengo faktore honen eta Hego Amerikako ikasleen ehunekoaren artean erlazio positibo aipagarria existitzen dela egiazta daiteke. Hori dela eta, lehenengo faktorean balio handiagoek Amerikako ikasleen portzentaje handiagoa adierazten dute.

2. FAKTOREA: Bigarren faktorean, aldiz, batez ere Afrikako ikasleen portzentajeak du eragina. Aldagai honen eta bigarren faktorearen arteko erlazioa negatiboa denez bigarren osagai hau hazten den neurrian Afrikako ikasleen portzentajea murrizten da. Bestalde, faktore honen eta Ozeaniako ikasleen ehunekoaren artean intentsitate txikiagoko korrelazio positiboa existitzen dela ere ikus dezakegu.

3. FAKTOREA: Halaber, goiko taulako datuak begiratuz hirugarren faktorea batik bat Asiako ikasleen portzentajearekin erlazionaturik dagoela nabari daiteke. Kasu honetan faktore eta aldagaiaren arteko erlazioa negatiboa da eta ondorioz faktore honen

balio handiagoek Asiako ikasleen portzentaje baxuagoa adierazten dute.

4. FAKTOREA: Azkenik, laugarren faktorea espezifikatu gabeko eskualdetatik datozen ikasleen portzentajearekin biziki erlazionaturik dago. Aldagai honen eta laugarren faktorearen arteko korrelazioa positiboa denez osagai honen balio handiagoek espezifikatu gabeko eskualdetako ikasleen portzentaje handiagoa adierazten dute. Beste alde batetik, goiko datuetan faktore honen eta ikasle europarren ehunekoaren artean intentsitate txikiagoko erlazio negatiboa existitzen dela ere ikus dezakegu.

Behin faktore bakoitzak jasotzen duen informazioa azalduta, ondorengo grafikoek GHEEko herrialdeek plano faktorialetan hartzen duten posizioa erakusten dute. Grafiko hauen bidez Europako herrialde ezberdinen eskari internazionalaren jatorriari buruzko ikuspegi orokor bat eskaini nahi izan dugu.



Lehenengo grafiko honetan GHEEko herrialde ezberdinen kokapena azter dezakegu. Herrialdeek grafikoan hartzen duten posizioa lehenengo bi faktoreetan duten puntuazioaren araberakoa da. Beraz, hasierako aldagaien eta faktore hauen arteko erlazioa kontuan izanda herrialde ezberdinek grafikoan duten kokapena interpreta dezakegu.

Ezer baino lehen, garrantzitsua da Espainiak hartzen duen lekuari arreta jartzea. Herrialde honek lehenengo faktorean daukan puntuazio faktorial altuak Espainiako goi mailako hezkuntza sisteman Amerikako ikasleek duten garrantzia adierazten du. Beste hitz batzuekin esanda, espainiar unibertsitateak Amerikako ikasleentzat beste jatorri batzuetako ikasleentzat baino erakargarriagoak suertatzen direla ondoriozta dezakegu.

Guztiz arrazoizkoa da Espainiak Erdialdeko eta Hego Amerikako herrialdeekin dituen harremanen inportantziari egoztea Espainiako sistema unibertsitarioaren berezitasun hau. Berebat, erdialdeko amerikarrek eta hego amerikarrek Espainian hizkuntzarekin erlazionatutako oztoporik ez izateri ere egotzi dakioke ikasle hauen garrantzia Espainiako unibertsitateetan.

Bestalde, Frantziak eta Portugalek grafikoan duten kokapenak ere merezi du aipatua izatea. Posizio honek agerian jartzen du herrialde hauetan Afrikako ikasleek duten garrantzia. Portugalen kasuan, nazioarteko ikasleriaren erdia baino gehiago Afrikako herrialdeetatik dator. Frantzian, orobat, Afrikako ikasleen portzentajeak %45 gainditzen du. Erabat ulergarria da bai Frantziaren eta baita Portugalen iragan kolonialean pentsatzea

Afrikako ikasleek herrialde hauetan duten inportantzia azaltzerako orduan.



Bigarren grafikoan, ostera, GHEEko herrialdeen posizioa hirugarren eta laugarren faktoreetan dituzten puntuazio faktorialen menpe dago. Kasu honetan Grezia, Ukraina, Turkia edo Erresuma Batua bezalako herrialdeek hirugarren faktorean lortzen duten puntuazio baxua nabarmen dezakegu. Herrialde hauen kokapenak aditzera ematen du herrialde hauen goi mailako hezkuntza sistemetan Asiako ikasleek duten aparteko garrantzia.

Gisa berean, Suediaren kokapenak espezifikatu gabeko eskualdetako ikasleen portzentaje altu bat adierazten du. Bukatzeko, Austria, Hungaria eta Txekiar Errepublikak laugarren faktorean duten puntuazio baxua herrialde hauetan europar ikaslegoak duen garrantziarekin lotu daiteke.

2.4 Hirugarren Mailako Ikasketen Eskari Internazional Europarra GHEEko Herrialdeetan

Ikerketaren zati honetan esklusiboki Europatik datorren eskari internazionalaren analisiaz arduratuko gara. Atal honetan nazioarteko eskari europarraz hitz egiterakoan kapitulu osoan kontsideratutako eta sarreran aipatutako GHEEko herrialderen batetik datorren ikasleriaz arituko gara.

Hau da, herrialde batetako goi mailako ikasketen eskari internazional europarra hurrengo herrialdeetatik datozen nazioarteko ikasleek osatzen dute: Bulgaria, Errusiar Federakundea, Hungaria, Polonia, Txekiar Errepublika, Errumania, Turkia, Ukraina, Alemania, Austria, Belgika, Danimarka, Espainia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Irlanda, Islandia, Italia, Norvegia, Herbehereak, Portugal, Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batua, Suedia eta Suitza.

Lehenik eta behin, GHEEko herrialdeek jasotzen duten eskari europar mota aztertuko dugu. Hots, europar esparruko goi mailako hezkuntza sistemak sailkatuko ditugu Europako herrialde bakoitzetik jasotzen duten ikasleriaren garrantziaren arabera. Bigarrenik, GHEEko herrialdeek sortzen duten eskaria ere aztertzen saiatuko gara. Horretarako antzeko taldekatze bat burutuko dugu baina kasu honetan herrialde bakoitzak atzerriko herrialde europar ezberdinetan sortzen duen eskariaren garrantzia kontuan izanda.

2.4.1 GHEEko Herrialdeen Sailkapena Eskari Internazional Europarraren Jatorriaren arabera

Azpiatal honetan antzeko eskari internazional europarra duten herrialde taldeak identifikatzen saiatuko gara. Gorago esan bezala, GHEEko herrialdeen sailkapen bat eskainiko dugu herrialde bakoitzak daukan nazionalitate europar ezberdinetako ikasleen inportantziaren arabera.

Taldekatzea burutzeko kluster analisi bat aplikatu dugu eta sailkapen aldagai moduan herrialde europar ezberdinetako ikasleen portzentajea erabili dugu[19]. Aurreko kluster analisian bezala, hemen ere, taldeen eraketa goranzko prozedura hierarkiko baten bidez burutu da, antzekotasun neurri bezala distantzia euklidear karratua erabiliz eta elkarketa metodo bezala Warden metodoa aukeratuz. Ondoko grafikoak GHEEko herrialdeak bost talde ezberdinetan sailka daitezkeela erakusten du.

[19] Lehenago ere adierazi dugun moduan, Finlandiaren kasuan, UNESCOren Estatistika Institutuaren Datu Zentroak ez dauka erabilgarri 2006. urteko jatorri ezberdineko ikasle internazionalen kopuruari buruzko informazioa. Beraz, herrialde honen kasuan, herrialde europar ezberdinetako ikasleen portzentajea kalkulatzeko 2005. urteko datuak erabili ditugu.



Ondorengo taulan identifikatutako talde bakoitzean barneratutako herrialdeak agertzen dira.

	HERRIALDEAK
1. TALDEA	Bulgaria, Txekiar Errepublika, Hungaria, Polonia, Errumania, Turkia, Finlandia, Frantzia, Alemania, Grezia, Islandia, Italia, Norvegia, Erresuma Batua
2. TALDEA	Errusiar Federakundea
3. TALDEA	Ukraina
4. TALDEA	Austria, Danimarka, Irlanda, Herbehereak, Portugal, Espainia, Suedia, Suitza
5. TALDEA	Belgika

Analisiaren emaitza gisa, Errusia, Ukraina eta Belgika herrialdeak, bakoitza beste guztiengandik bereizitako talde batean sailka daitekeela esan dezakegu. Herrialde hauen eskari

internazionalari buruzko datuak arakatuz, bakoitzak eskari europarraren banaketa bakarra duela eta hemen aztertutako ezein herrialderen eskari europarraren banaketara hurbiltzen ez dela egiazta daiteke.

Errusiaren kasuan, UNESCOren Estatistika Institutuak emandako informazioaren arabera, GHEEtik datorren nazioarteko ikasleriaren %100 Ukrainakoa da. Ildo beretik, Ukrainako goi mailako hezkuntza sisteman eskari europar gehiena, %91,2, Errusiar Federakundetik dator. GHEEtik Ukrainara doan gainontzeko ikasleria, hau da, %8,8 turkiar jatorrikoa da[20].

Belgikan, aldiz, eskari europar gehiena Frantzia eta Herbehereetatik dator. Herrialde honetan atzerriko ikaslego europarraren %76,66 frantsesa da. Berebat, eskari europarraren %15,41 Herbehereetatik dator. Bestalde, Belgikako ikaslego europarraren %1,64 Alemaniakoa da. Aztertutako gainontzeko herrialde europarretatik datorren eskariari dagokionez, ezein kasutan erabat nulua ez den arren ez du Belgikako eskari europar totalaren %1 gainditzen.

Aurrekoaz gain grafikoari so eginez posiblea da GHEEko gainontzeko herrialdeen artean antzeko eskari europarra duten goi mailako hezkuntza sistemak aurkitzea. Goiko taulan adierazi dugunez, kluster analisiak, aipatutako hiru herrialdeen eskari europarra bereizteaz gain, gainontzeko GHEEko herrialdeek osatutako bi talde ere bereizten ditu. Talde bakoitzean eskari

[20] Argitu beharra dago bai Errusiako eta bai Ukrainako goi mailako hezkuntza sistemek GHEEko Armenia, Azerbaijan, Georgia, Estonia edo Moldavia bezalako beste herrialde batzuetatik datozen ikasleak ere badituztela, baina hauek ez ditugula aipatu, lehenago ere esan bezala, herrialde horiek ez ditugulako barneratu eskari internazional europarraren analisian.

europarrari dagokionez parekotasunak dituzten herrialdeak bildurik daude.

Aurreko atalean egin dugun moduan, kasu honetan ere, herrialde talde ezberdinetan nabarmenki diferenteak diren aldagaiak identifikatzeko asmoz, hainbat bariantzaren analisi aplikatu ditugu. Analisi bakoitzean menpeko aldagaia eskari internazionalarekin erlazionatutako aldagai bat izan da eta aldagai independente edo faktorea banakoa herrialde talde batekoa edo bestekoa den adierazten duen aldagaia. Horrez gain, diferentzia adierazgarriak aurkezten dituzten aldagaiak determinatu ondoren, diferentziak horiek nolakoak diren aztertzeko, aldagai esanguratsuen zenbait estatistiko deskribatzailek talde ezberdinetan duten balioa erakutsi dugu.

Garrantzitsua da argitzea, puntu honetan, aurreko atalean ez bezala, ez dugula konparaketa anizkoitzeko probarik egin, aldagai esanguratsuen kasuan, diferentziak herrialde talde batzuei edo besteei egozteko. Proba mota hauek egin ahal izateko baldintza beharrezkoa da faktorearen kategoria guztiek kasu bat baino gehiago izatea. Puntu honetan lortutako herrialdeen sailkapena kontuan izanda, konparaketa anizkoitzeko proba bat aplikatu ahal izateko, proposatutako taldeetatik, hiru analisitik kanpo utzi beharko genituzke kasu edo herrialde bakarra izateagatik. Hortaz, Errusia, Ukraina eta Belgika taldekatzea egiteko kontuan izan ditugun arren, behin kluster ezberdinak lortu ditugunean, 2., 3. eta 5. taldeak analisitik ezabatu ditugu kasu bakarra izateagatik. Hiru talde hauek analisitik kanpo uzten baditugu, bi herrialde talderen arteko diferentziak besterik ez ditugu aztertu beharko eta kasu

horretan nahikoa da aldagai esanguratsuen zenbait estatistiko deskribatzailek talde ezberdinetan hartzen duten balioa konparatzearekin.

Bariantzaren analisien emaitzen artean, hurrengo aldagaiak aztertutako bi herrialde taldeetan ez direla nabarmenki ezberdinak azpimarra daiteke.

- Ikasle atzerritarren tasa
- Turkia portzentajea
- Austria portzentajea
- Belgika portzentajea
- Bulgaria portzentajea
- Txekiar Errepublika portzentajea
- Danimarka portzentajea
- Finlandia portzentajea
- Hungaria portzentajea
- Islandia portzentajea
- Irlanda portzentajea
- Norvegia portzentajea
- Polonia portzentajea
- Portugal portzentajea
- Errumania portzentajea
- Suedia portzentajea
- Suitza portzentajea
- Erresuma Batua portzentajea
- Atzerrirantz mugikortasun tasa

Era berean, ondorengo eskari aldagaiak bi taldeetan nabarmenki ezberdinak direla ere egiazta daiteke[21].

- Frantzia portzentajea
- Alemania portzentajea
- Italia portzentajea
- Errusiar Federakundea portzentajea
- Ukraina portzentajea
- Grezia portzentajea
- Herbehereak portzentajea
- Espainia portzentajea

Behin diferentzia esanguratsuak aurkezten dituzten aldagaiak identifikatuta, diferentzia horiek nolakoak diren ikusteko, aldagai horien estatistiko deskribatzaileek bi herrialde taldeetan hartzen dituzten balioak konpara ditzakegu. Ondoko taulan, aipatutako zortzi aldagai esanguratsuek talde bakoitzean duten batez besteko balioa, desbideratze tipikoa, balio minimoa eta balio maximoa agertzen dira.

[21] Azken hiru aldagaiak 0,10eko esangura maila baterako dira esanguratsuak.

Deskribatzaileak

	TALDEA	N	Batez bestekoa	Desbideratze tipikoa	Minimoa	Maximoa
Frantzia portzentajea	1	14	3,1287	3,32768	,00	11,85
	4	8	13,1638	8,88670	1,67	24,60
	Totala	22	6,7778	7,58895	,00	24,60
Alemania portzentajea	1	14	10,1134	5,88633	,00	19,52
	4	8	27,0195	19,84449	9,89	68,29
	Totala	22	16,2611	14,89986	,00	68,29
Italia portzentajea	1	14	2,8577	2,78487	,00	9,30
	4	8	8,9680	7,45379	1,30	23,22
	Totala	22	5,0796	5,68963	,00	23,22
Errusiar Federakundea portzentajea	1	14	10,2131	8,96331	1,03	31,12
	4	8	1,7378	,74633	,46	2,72
	Totala	22	7,1312	8,20574	,46	31,12
Ukraina portzentajea	1	14	11,0283	12,72158	,47	47,48
	4	8	,8223	,52658	,15	1,62
	Totala	22	7,3170	11,20400	,15	47,48
Grezia portzentajea	1	14	10,3536	12,58302	,00	32,41
	4	8	1,0931	,35092	,57	1,61
	Totala	22	6,9862	10,90165	,00	32,41
Herbehereak portzentajea	1	14	,9573	,93584	,07	2,76
	4	8	2,6551	2,87865	,00	8,01
	Totala	22	1,5747	2,00079	,00	8,01
Espainia portzentajea	1	14	2,6477	2,75148	,11	7,65
	4	8	6,6011	7,41508	,00	22,39
	Totala	22	4,0853	5,17720	,00	22,39

Europako herrialde ezberdinetatik datozen ikasleen batez besteko portzentajeak alderatuz, identifikatutako bi taldeen goi mailako ikasketen eskari europar motari buruzko ideia orokor bat lortu dezakegu.

Hasteko, azpimarratzekoa da Austriak, Danimarkak, Irlandak, Herbehereek, Portugalek, Espainiak, Suediak eta Suitzak eratutako laugarren taldean, batez beste, ikasle frantsesen, alemanen, italiarren, espainolen eta herbeheretarren portzentajea lehenengo taldean baino handiagoa dela.

Modu berean, Bulgariak, Txekiar Errepublikak, Hungariak, Poloniak, Errumaniak, Turkiak, Finlandiak, Frantziak, Alemaniak,

Greziak, Islandiak, Italiak, Norvegiak eta Erresuma Batuak osatutako lehenengo taldean estudiante errusiarrek, ukrainarrek eta grekoek laugarren taldean baino garrantzi handiagoa daukatela hauteman daiteke.

2.4.2 GHEEko Herrialdeen Sailkapena Europako Herrialde Ezberdinetarantz Sortutako Eskariaren arabera

Puntu honetan aukeratutako GHEEko herrialdeen sailkapen bat burutuko dugu bakoitzak GHEEko beste herrialdeetarantz sortzen duen eskariaren arabera. Hots, sailkapena burutzeko, herrialde batetatik kanpo baina europar esparruaren barruan ikasten dauden ikasle guztietatik, atzerriko herrialde europar bakoitzean ikasten dauden ikasleen portzentajea izango dugu kontuan[22].

Kasu honetan ere taldekatzea burutzeko kluster analisi bat aplikatu dugu. Multzoen eraketa goranzko prozedura hierarkiko baten bidez burutu da, antzekotasun neurri bezala distantzia euklidear karratua erabiliz eta elkarketa metodo bezala Warden metodoa hautatuz. Ondorengo grafikoan analisiaren emaitzak aurkezten dira.

[22] Lehenago ere aipatu dugu, Finlandiaren kasuan, jatorri ezberdineko ikasle internazionalen kopurua 2006. urterako ez dagoela erabilgarri UNESCOren Estatistika Institutuaren Datu Zentroan. Beraz, GHEEko herrialde ezberdinetarako, Finlandian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen portzentajea kalkulatzeko 2005. urteko datuak erabili ditugu.



Grafikoak eskaintzen duen informazioa etsaminatuz bi herrialde talde bereiz ditzakegu. Talde bakoitzak, GHEErantz sortutako eskari unibertsitarioari dagokionez, antzekotasunak dituzten herrialdeak biltzen ditu. Ondoko taulak identifikatutako bi taldeen osaera eskaintzen du.

	HERRIALDEAK
1. TALDEA	Bulgaria, Txekiar Errepublika, Hungaria, Polonia, Errumania, Errusiar Federakundea, Turkia, Ukraina, Austria, Erresuma Batua
2. TALDEA	Belgika, Danimarka, Finlandia, Frantzia, Alemania, Grezia, Islandia, Irlanda, Italia, Herbehereak, Norvegia, Portugal, Espainia, Suedia, Suitza,

Bi herrialde talde hauek ezberdintzen dituzten berezitasunak ezagutzeko asmotan hainbat bariantzaren analisi aplikatu ditugu.

Analisi bakoitzean menpeko aldagai bezala eskari aldagai bat erabili dugu eta aldagai independente bezala banakoa talde batekoa edo bestekoa den jasotzen duen aldagai bat. Emaitzek hurrengo aldagaiei dagokienez bi taldeen artean diferentzia esanguratsurik ez dagoela adierazten dute.

- Ikasle atzerritarren tasa
- Bulgariarantz portzentajea
- Hungariarantz portzentajea
- Poloniarantz portzentajea
- Errumaniarantz portzentajea
- Errusiar Federakunderantz portzentajea
- Turkiarantz portzentajea
- Ukrainarantz portzentajea
- Austriarantz portzentajea
- Belgikarantz portzentajea
- Danimarkarantz portzentajea
- Finlandiarantz portzentajea
- Frantziarantz portzentajea
- Islandiarantz portzentajea
- Irlandarantz portzentajea
- Italiarantz portzentajea
- Herbeheretarantz portzentajea
- Norvegiarantz portzentajea
- Portugalerantz portzentajea
- Espainiarantz portzentajea
- Suediarantz portzentajea
- Suitzarantz portzentajea
- Atzerrirantz mugikortasun tasa

Gisa berean, ondorengo aldagaiak bi herrialde taldeetan nabarmenki ezberdinak direla hauteman daiteke[23].

- Alemaniarantz portzentajea
- Greziarantz portzentajea
- Erresuma Baturantz portzent.
- Txekiar Errepublikarantz portz.

Goian azaldutako emaitzek, aztertutako aldagaiei dagokienez, bi herrialde taldeen artean diferentzia adierazgarriak existitzen diren edo ez besterik ez digute erakusten. Diferentzia horiek nolakoak diren aztertu ahal izateko, jarraian aurkezten dugun taulak aldagai esanguratsuen estatistiko deskribatzaile batzuen balioak eskaintzen dizkigu bi herrialde taldeetan.

[23] Azken aldagaia 0,10eko esangura maila baterako da esanguratsua.

Deskribatzaileak

	TALDEA	N	Batez bestekoa	Desbideratze tipikoa	Minimoa	Maximoa
Alemaniarantz portzentajea	1	10	40,3737	13,05109	19,28	58,38
	2	15	11,8207	7,31166	,00	25,49
	Totala	25	23,2419	17,28810	,00	58,38
Greziarantz portzentajea	1	10	,7842	,71093	,08	2,44
	2	15	,1883	,17019	,00	,61
	Totala	25	,4267	,54334	,00	2,44
Erresuma Baturantz portzentajea	1	10	9,2944	6,68130	,00	17,24
	2	15	36,9356	17,95493	18,53	91,47
	Totala	25	25,8791	19,89480	,00	91,47
Txekiar Errepublikarantz portzentajea	1	10	1,2415	1,36331	,00	3,59
	2	15	,4619	,69026	,07	2,33
	Totala	25	,7738	1,06155	,00	3,59

Beraz, lortutako emaitzen arabera, bi herrialde taldeak, batik bat, Alemaniara, Greziara edo Erresuma Batura ikastera doazen ikasleen portzentajeari dagokionez ezberdintzen direla esan dezakegu. Beste hitz batzuekin esanda, GHEEko herrialde atzerritarretan ikasten duten ikasle guztietatik, hezkuntza sistema alemanean, grekoan edo britainiarrean ikastea erabaki duten ikasleen portzentajean oinarritzen dira bi taldeen arteko diferentzia nagusiak.

Ikus, esate baterako, lehenengo taldeko herrialdeak, Alemanian eta Grezian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen portzentaje handiagoa izateagatik bereizten direla. Orobat, bigarren taldeko herrialdeak Erresuma Batuan ikastea erabakitzen duten ikasleen portzentaje nabarmenki handiagoa izateagatik ezberdintzen direla ere hauteman daiteke.

2.5 GHEEko Herrialdeen Hirugarren Mailako Ikasketen Eskari Internazionalaren Faktore Baldintzatzaileak

Makina bat faktorek baldintzatu dezakete herrialde bateko goi mailako ikasketen nazioarteko eskaria. Atal honetan herrialde baten kokapen geografikoak, hirugarren mailako hezkuntzan burututako inbertsioak edo ikerketa eta garapenean burututakoak herrialde horren goi mailako ikasketen eskari internazionala determinatu dezaketela uste izan dugu.

Ondorengo paragrafoetan GHEEko herrialdeetako eskari internazionalaren maila eta jatorria aztertuko ditugu, herrialde horien kokapenaren arabera, hezkuntzan egiten duten gastu publikoaren arabera edo ikerketa eta garapenean egiten duten gastu publikoaren arabera. Analisi honek agerian jartzen du aipatutako aldagaiek Europako herrialdeen eskari internazionala modu adierazgarrian baldintzatzen dutela.

2.5.1 GHEEko Herrialdeen Hirugarren Mailako Ikasketen Eskari Internazionala Kokapen Geografikoaren arabera

Azpiatal honetan GHEEko herrialdeek beren kokapen geografikoaren arabera eskari internazionalean aurkezten dituzten diferentziei buruz arituko gara. Bariantzaren analisi bat baino gehiago aplikatuz Europako Iparraldean, Hegoaldean eta Ekialdean

kokaturik dauden herrialdeen artean nazioarteko eskariari dagokionez diferentzia adierazgarriak existitzen direla egiaztatu ahal izan dugu.

Hurrengo taulan kontsideratutako eremu geografiko bakoitzean barneratutako herrialdeak adierazi ditugu.

	HERRIALDEAK
IPARRALDEA	Austria, Belgika, Danimarka, Finlandia, Alemania, Islandia, Irlanda, Herbehereak, Norvegia, Suedia, Suitza, Erresuma Batua
HEGOALDEA	Frantzia, Grezia, Italia, Portugal, Espainia
EKIALDEA	Bulgaria, Txekiar Errepublika, Hungaria, Polonia, Errumania, Errusiar Federakundea, Turkia, Ukraina

Analisiaren emaitza moduan kokapen geografiko ezberdina daukaten herrialdeek ondorengo aldagaiei dagokienez diferentzia esanguratsurik aurkezten ez dutela baiezta daiteke.

- Ikasle internazionalen totala
- Afrika ikasleak
- IAmer., EAmer. eta Karibe ikasleak
- IAmer., EAmer. eta Karibe portzent.
- Asia ikasleak
- Asia portzentajea
- Europa ikasleak
- Europa portzentajea
- Ozeania ikasleak
- Espez. gabeko eskualdea ikasleak
- Espez. gabeko eskualdea portz.
- Unibertsitate kopurua
- Atzerrirantz mugikortasun tasa
- Atzerrian dauden ikasleen totala

Jarraian aurkezten ditugun eskari aldagaiak, berriz, nabarmenki ezberdinak dira Europako eremu geografiko ezberdinetan kokatutako herrialdeetan[24].

- Ikasle atzerritarren tasa
- Afrika portzentajea
- Hego Amerika ikasleak
- Hego Amerika portzentajea
- Ozeania portzentajea

Ondorengo tauletan Duncanen probaren emaitzak agertzen dira, aipatutako aldagai esanguratsu bakoitzerako. Lehenengo taulan

[24] Azken aldagaia 0,10eko esangura maila baterako da esanguratsua.

ikasle kanpotarren batez besteko portzentajea Europako iparraldeko herrialdeetan ekialdeko herrialdetan baino nabarmenki handiagoa dela ikus daiteke.

Ikasle atzerritarren tasa

Duncan

Europako eremu geografikoa	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
EKIALDEA	8	2,2083	
HEGOALDEA	5	4,3732	4,3732
IPARRALDEA	12		8,4510
Esang.		,314	,065

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Horrez gain, merezi du ere aipatua izatea Afrikako ikasleek Europako hegoaldeko herrialdeetan duten garrantzia. Hegoaldean, batez beste, nazioarteko ikasleria guztiaren laurdena baino gehiago Afrikakoa da. Ondoko taulan ikasle afrikarren batez besteko portzentajea Europako hegoaldeko herrialdeetan ekialdeko eta iparraldeko herrialdeetan baino nabarmenki handiagoa dela egiazta daiteke.

Afrika portzentajea

Duncan

Europako eremu geografikoa	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
EKIALDEA	8	3,4838	
IPARRALDEA	12	5,2635	
HEGOALDEA	5		26,2147
Esang.		,774	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Gauza bera gertatzen da Hego Amerikatik datozen ikasleekin. Ikasle hegoamerikarren batez besteko kopurua eta batez besteko portzentajea nabarmenki handiagoak dira Europako hegoaldean Europako ekialdean eta iparraldean baino. Europako hegoaldeko herrialdeetan, batez beste, nazioarteko ikasleriaren %9 baino gehiago Hego Amerikatik dator.

Hego Amerika ikasleak

Duncan

Europako eremu geografikoa	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
EKIALDEA	8	32,00	
IPARRALDEA	12	1020,25	
HEGOALDEA	5		3786,80
Esang.		,291	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Hego Amerika portzentajea

Duncan

Europako eremu geografikoa	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
EKIALDEA	8	,2162	
IPARRALDEA	12	1,5061	
HEGOALDEA	5		9,6281
Esang.		,544	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Amaitzeko, hurrengo taulako datuek agerian uzten duten bezala, aztertutako herrialdeetan, Ozeaniatik datorren ikasleriaren proportzioa nahiko txikia dela esan daiteke. Hala ere, Europako iparraldean Ozeaniako ikasleen portzentaje hau Europako ekialdean eta hegoaldean baino zertxobait handiagoa dela ikus daiteke.

Ozeania portzentajea

Duncan

Europako eremu geografikoa	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)
		1
EKIALDEA	8	,0701
HEGOALDEA	5	,1298
IPARRALDEA	12	,5931
Esang.		,091

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

2.5.2 GHEEko Herrialdeen Hirugarren Mailako Ikasketen Eskari Internazionala Hezkuntzan Burututako Inbertsioaren arabera

Puntu honetan herrialde batek hezkuntzan egindako inbertsioak bere goi mailako ikasketen nazioarteko eskarian duen efektua antzematen saiatuko gara. Ondorengo paragrafoetan ikus daitekeenez, hezkuntzan burututako inbertsioa neurtzeko, aproposa iruditu zaigu herrialde bakoitzak hezkuntzari eskainitako gastu publikoa erabiltzea herrialde horretako Barne Produktu Gordinaren (BPG) portzentaje bezala adierazita.

Gainera, hirugarren mailako hezkuntzan burututako inbertsio espezifikoak goi mailako ikasketen eskari internazionalean duen eragina aztertzen ere saiatu gara. Kasu honetan, inbertsio maila neurtzeko, herrialde batek goi mailako hezkuntzan ikasle bakoitzeko burututako gastu publikoa erabili dugu, herrialde horretako biztanle bakoitzeko BPGaren portzentaje bezala adierazita.

2.5.2.1 Hezkuntzan Burututako Gastu Publikoa Barne Produktu Gordinaren Portzentaje bezala

Esan bezala, lehenengo eta behin, BPGetik hezkuntzari dedikatutako portzentajeak zein neurritan eragiten duen goi mailako ikasketen eskari internazionalean aztertuko dugu. Horretarako, aldez aurretik, hezkuntzan inbertitutako portzentaje hori altua edo baxua den adierazten duen aldagai bat sortu dugu. Aldagai honekin

europar esparruko herrialdeak hezkuntzari portzentaje altua edo baxua esleitzen dioten herrialde bezala sailkatu ahal izango ditugu.

Hezkuntzan BPGaren %5 baino gutxiago inbertitu duten herrialdeak inbertsio maila baxuko herrialdeak kontsideratu ditugu eta BPGaren %5 baino gehiago inbertitu dutenak, aldiz, inbertsio maila altuko herrialdeak kontsideratu ditugu. Aldagai hau faktore bezala erabilita zenbait bariantzaren analisi aplikatu ditugu eta hezkuntzan inbertsio maila ezberdina duten herrialdeek hurrengo aldagaiei dagokienez diferentzia adierazgarririk aurkezten ez dutela lortu dugu.

- Ikasle internazionalen totala
- Afrika ikasleak
- Afrika portzentajea
- IAmer., EAmer. eta Karibe ikasleak
- IAmer., EAmer. eta Karibe portzent.
- Hego Amerika ikasleak
- Hego Amerika portzentajea
- Asia ikasleak
- Asia portzentajea
- Europa ikasleak
- Europa portzentajea
- Ozeania ikasleak
- Ozeania portzentajea
- Espez. gabeko eskualdea ikasleak
- Espez. gabeko eskualdea portz.
- Unibertsitate kopurua
- Atzerrirantz mugikortasun tasa

Ondoko eskari aldagaiei dagokienez, ordea, hezkuntzan inbertsio maila ezberdina duten herrialdeen artean diferentzia esanguratsuak existitzen direla baiezta dezakegu[25].

- Atzerrian dauden ikasleen totala
- Ikasle atzerritarren tasa

Hezkuntzan inbertsio maila ezberdina duten herrialdeak atzerrian dauden ikasle kopuruari dagokionez eta ikasle atzerritarren tasari dagokionez nabarmenki ezberdinak direla ikusi ondoren, ezberdintasun horiek zehaztasunez aztertu ahal izateko, hurrengo taulan, aipatutako aldagaien estatistiko deskribatzaileak aurkezten

[25] Azken aldagaia 0,10eko esangura maila baterako da esanguratsua.

ditugu inbertsio maila baxuko herrialdeen taldean eta inbertsio maila altuko herrialdeen taldean.

Deskribatzaileak

	Hezkuntzari eskainitako BPGaren portzentajea	N	Batez bestekoa	Desbideratze tipikoa	Minimoa	Maximoa
Atzerrian dauden ikasleen tot.	BAXUA (<%5)	10	31331,90	16890,052	6975	70494
	ALTUA (>%5)	15	15259,27	13082,616	2431	52997
	Totala	25	21688,32	16474,234	2431	70494
Ikasle atzerritarren tasa	BAXUA (<%5)	10	3,6423	3,33636	,81	10,74
	ALTUA (>%5)	15	6,9681	5,25888	,53	17,89
	Totala	25	5,6378	4,80334	,53	17,89

Goiko emaitzen arabera, hezkuntzan inbertsio maila baxuagoa duten herrialdeetan atzerrian dauden ikasleen batez besteko kopurua handiagoa dela baiezta daiteke. Modu berean, hezkuntzan inbertsio maila altuagoa duten herrialdeetan ikasle internazionalen ehunekoa nabarmenki handiagoa dela ere esan daiteke.

2.5.2.2 Goi Mailako Hezkuntzan Ikasle Bakoitzeko Burututako Gastu Publikoa Biztanle Bakoitzeko Barne Produktu Gordinaren Portzentaje bezala

Hirugarren mailako hezkuntzan egindako inbertsioak eskari internazionalean duen eragina analizatzeko asmoz, herrialde ezberdinak goi mailako hezkuntzan burututako inbertsioaren arabera sailkatzen dituen aldagai bat sortu dugu. Aldagai hau definitzeko herrialdeek hirugarren mailako hezkuntzan ikasle bakoitzeko egindako inbertsioa izan dugu kontuan, biztanleko BPGaren portzentaje bezala adierazita.

Herrialde batean ikasleko gastuak biztanleko BPGaren %35 gainditzen duenean herrialde horrek goi mailako hezkuntzan

inbertsio altua egiten duela kontsideratuko dugu. Portzentaje horren azpitik dauden herrialdeek, aitzitik, hirugarren mailako hezkuntzan inbertsio baxua egiten dutela kontsideratuko dugu.

Bariantzaren analisi bat baino gehiago aplikatuz, goi mailako hezkuntzan inbertsio maila ezberdina duten herrialdeak ondoko eskari aldagaiei dagokienez nabarmenki ezberdinak ez direla egiaztatu dugu.

- Ikasle internazionalen totala
- Afrika ikasleak
- Afrika portzentajea
- IAmer., EAmer. eta Karibe ikasleak
- IAmer., EAmer. eta Karibe portzent.
- Hego Amerika ikasleak
- Hego Amerika portzentajea
- Asia ikasleak
- Europa ikasleak
- Ozeania ikasleak
- Ozeania portzentajea
- Espez. gabeko eskualdea ikasleak
- Atzerrirantz mugikortasun tasa

Jarraian aipatzen diren aldagaiei dagokienez, ostera, diferentzia adierazgarriak identifikatu ditugu goi mailako hezkuntzan inbertsio maila ezberdina duten herrialdeen artean[26].

- Ikasle atzerritarren tasa
- Asia portzentajea
- Espezifikatu gabeko eskualdea portz.
- Atzerrian dauden ikasleen totala
- Europa portzentajea
- Unibertsitate kopurua

Behin hirugarren mailako hezkuntzan inbertsio maila ezberdina duten herrialdeen arteko diferentziak identifikatuta, garrantzitsua da diferentzia horiek nolakoak diren deskribatzea. Beheko taulan aldagai esanguratsuen estatistiko deskribatzaileak agertzen dira, bai goi mailako hezkuntzan inbertsio maila altua duten herrialdeentzat eta baita goi mailako hezkuntzan inbertsio maila baxuagoa duten herrialdeentzat ere.

[26] Azken bi aldagaiak 0,10eko esangura maila baterako dira esanguratsuak.

Deskribatzaileak

	Goi mailako hezkuntzako ikasle bakoitzeko gastuaren port. biztanleko BPGarekiko	N	Batez bestekoa	Desbideratze tipikoa	Minimoa	Maximoa
Ikasle atzerritarren tasa	BAXUA (<%35)	16	3,9034	3,89905	,53	14,13
	ALTUA (>%35)	8	8,4687	5,17438	4,66	17,89
	Totala	24	5,4252	4,78500	,53	17,89
Asia portzentajea	BAXUA (<%35)	16	28,1135	19,66915	1,84	63,92
	ALTUA (>%35)	8	10,4786	4,68494	3,34	15,89
	Totala	24	22,2352	18,19625	1,84	63,92
Esp. gabeko eskualdea portzentajea	BAXUA (<%35)	16	5,2711	9,92522	,00	36,33
	ALTUA (>%35)	8	19,8722	19,15538	,12	51,64
	Totala	24	10,1381	15,01183	,00	51,64
Atzerrian dauden ikasleen tot.	BAXUA (<%35)	16	24612,00	13674,731	2431	52997
	ALTUA (>%35)	8	9740,25	2613,804	5160	13304
	Totala	24	19654,75	13240,855	2431	52997
Europa portzentajea	BAXUA (<%35)	16	45,2386	22,65668	18,59	80,83
	ALTUA (>%35)	8	61,4039	17,67388	38,73	86,55
	Totala	24	50,6270	22,14589	18,59	86,55
Unib. kopurua	BAXUA (<%35)	16	64,88	62,757	5	243
	ALTUA (>%35)	8	23,38	11,563	12	46
	Totala	24	51,04	54,850	5	243

Lortutako emaitzen arabera, ikasle bakoitzeko gastuaren portzentajea handiagoa den herrialdeetan batez besteko ikasle internazionalen tasa nabarmenki handiagoa da. Horrez gain, hirugarren mailako hezkuntzan inbertsio maila handiagoa duten herrialdeetan nazioarteko ikasle europarren batez besteko portzentajea ere nabarmenki handiagoa da.

Goi mailako hezkuntzan inbertsio maila txikiagoa duten herrialdeetan, aldiz, azpimarratzeko modukoa da, Asiako ikasleen batez besteko portzentajea handiagoa dela eta orobat atzerrian dauden ikasleen batez besteko kopurua ere handiagoa dela. Modu berean, herrialde hauetan, batez beste, unibertsitate gehiago dagoela ere ikus daiteke.

2.5.3 GHEEko Herrialdeen Hirugarren Mailako Ikasketen Eskari Internazionala Ikerketa eta Garapenean Burututako Inbertsioaren arabera

Kapituluaren zati honetan herrialdeek ikerketa eta garapenean (I+G) egindako inbertsioak herrialde horien goi mailako hezkuntzaren eskari internazionalean duen eragina aztertzeaz arduratuko gara. Kasu honetan I+Gean egindako inbertsio maila neurtzeko herrialde bakoitzak I+Gean egindako barne gastu gordina erabiliko dugu, herrialde horren BPGaren portzentaje bezala adierazita.

I+Gean inbertsio maila ezberdina duten herrialdeen artean eskari internazionalari dagokionez dauden diferentziak aztertzeko, I+Gean inbertsio maila altua eta baxua duten herrialdeak bereizten dituen aldagai bat definitu dugu. Herrialde batean I+Gean egindako gastu gordina BPGaren %1,5 baino handiagoa denean herrialde horrek I+Gean inbertsio altua egiten duela kontsideratu dugu. Beste alde batetik, %1,5 hori baino gutxiago inbertitzen duten herrialdeek I+Gean inbertsio maila baxua dutela kontsideratu dugu. Herrialdeek I+Gean egindako inbertsio maila faktore bezala erabiliz hainbat bariantzaren analisi aplikatu ditugu eta I+Gean inbertsio maila ezberdina egiten duten herrialdeetan hurrengo aldagaiak nabarmenki ezberdinak ez direla lortu dugu.

- Ikasle internazionalen totala
- Afrika ikasleak
- Afrika portzentajea
- IAmer., EAmer.eta Karibe ikasleak
- IAmer., EAmer.eta Karibe portz.
- Hego Amerika ikasleak
- Europa portzentajea
- Ozeania ikasleak
- Espez. gabeko eskualdea ikasleak
- Espez. gabeko eskualdea portzent.
- Unibertsitate kopurua
- Atzerrirantz mugikortasun tasa

- Hego Amerika portzentajea
- Asia ikasleak
- Atzerrian dauden ikasleen totala

Ondorengo eskari aldagaiek, ordea, balio nabarmenki ezberdinak hartzen dituzte I+Gean inbertsio maila ezberdina duten herrialdeetan[27].

- Ikasle atzerritarren tasa
- Asia portzentajea
- Europa ikasleak
- Ozeania portzentajea

Jarraian aurkezten dugun taulak aipatutako aldagai adierazgarrien estatistiko deskribatzaile batzuk eskaintzen ditu, bai I+Gean inbertsio maila altua duten herrialdeen talderako eta baita I+Gean inbertsio maila baxuagoa duten herrialdeen talderako ere.

Deskribatzaileak

	I+Gari eskainitako BPGaren portzentajea	N	Batez bestekoa	Desbideratze tipikoa	Minimoa	Maximoa
Ikasle atzerritarren tasa	BAXUA (<%1,5)	12	2,4005	1,95469	,53	6,85
	ALTUA (>%1,5)	13	8,6260	4,74221	3,73	17,89
	Totala	25	5,6378	4,80334	,53	17,89
Asia portzentajea	BAXUA (<%1,5)	12	29,0717	21,18355	1,84	63,92
	ALTUA (>%1,5)	13	16,5949	12,18168	3,34	46,06
	Totala	25	22,5838	17,89819	1,84	63,92
Europa ikasleak	BAXUA (<%1,5)	12	9425,42	8318,701	3173	32644
	ALTUA (>%1,5)	13	29769,46	35264,735	564	109287
	Totala	25	20004,32	27588,524	564	109287
Ozeania portzentajea	BAXUA (<%1,5)	12	,1311	,15331	,00	,54
	ALTUA (>%1,5)	13	,5195	,75021	,04	2,79
	Totala	25	,3331	,57567	,00	2,79

Lortutako emaitzen arabera, I+Gean inbertsio maila altuagoa duten herrialdeek, batez beste, ikasle internazionalak erakartzeko gaitasun handiagoa dute I+Gean inbertsio maila baxuagoa duten herrialdeek baino. Berebat, Europako ikasleen kopurua eta Ozeaniako ikasleen portzentajea ere nabarmenki handiagoak dira

[27] Azken hiru aldagaiak 0,10eko esangura maila baterako dira esanguratsuak.

I+Gean inbertsio maila handiagoa duten herrialdeetan. Asiako ikasleen ehunekoa, ordea, handiagoa da I+Gean inbertsio maila txikiagoa duten herrialdeetan.

2.6 Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparruko Hirugarren Mailako Ikasketen Nazioarteko Eskariaren Analisiaren Ondorio Nagusiak

Kapitulu honek GHEEko herrialdeetako ikasleen mugikortasun fluxuak ikertzen ditu, GHEEko herrialdeen kanpotik barrurako mugikortasun fluxuei arreta berezia eskainiz. Funtsezko helburua Boloniako prozesuan parte hartzen duten herrialdeen hirugarren mailako hezkuntzaren nazioarteko eskariaren maila eta jatorriari buruzko ikuspegi orokor bat ematea da.

Lehenengo eta behin, azpimarratu beharra dago, GHEEko herrialdeen multzorako kalkulatutako ikasle internazionalen tasa GHEEko herrialdeen multzorako kalkulatutako atzerrirantz mugikortasun tasa baino handiagoa dela. Hala ere, europar esparruko herrialde bakoitzaren informazioa banan-banan aztertzean erlazio hori ez da beti horrela mantentzen.

Hots, Suitza, Austria, Erresuma Batua, Frantzia edo Alemania bezalako herrialdeen kasuan, GHEEko herrialdeen multzorako adierazi den bezala, ikasle internazionalen tasa atzerrirantz mugikortasun tasa baino handiagoa da. Herrialde hauetan nazioarteko ikasleen portzentajea %10aren gainetik dago eta

aztertutako gainontzeko herrialdeetan baino dezente handiagoa da. Hortaz, aipatutako herrialdeek nazioarteko ikasleak erakartzeko gainontzeko herrialdeek baino gaitasun handiagoa dutela ondoriozta dezakegu.

Baina Bulgaria, Irlanda edo Islandia bezalako herrialdeen kasuan, aldiz, atzerrirantz mugikortasun tasa ikasle internazionalen tasa baino handiagoa da. Herrialde hauetan atzerrian ikasten dauden ikasleen ehunekoa %10aren gainetik dago eta aztertutako gainontzeko herrialdeetan baino handiagoa da. Atzerrian ikasten dauden ikasleen ehuneko altu hau aipatutako herrialdeen hezkuntza sistemen gabetasun posibleen adierazle bezala interpreta daiteke.

Eskari internazionalaren jatorriari dagokionez, GHEEko herrialdeen multzorako datuak kontuan izanda, nazioarteko ikasle gehienak Europatik, Asiatik edo Afrikatik datozela esan daiteke.

Horrez gain, maila internazionalean erakargarrienak diren herrialdeen atzerriko eskariaren jatorria banan-banan aztertu dugu eta bai Austrian eta baita Suitzan ere kanpoko ikasle gehienak beste herrialde europar batzuetatik datozela ikusi dugu. Era berean, Alemanian ikasle kanpotar gehienak beste herrialde europar batzuetatik edo Asiatik datozela ondoriozta daiteke.

Goi mailako hezkuntza sistema britainiarraren kasuan, berriz, azpimarratzekoa da Asiako jatorria duen ikasleria internazionalaren nagusitasuna. Guztiz zentzuzkoa da Asiako ikasleek Erresuma Batuan duten garrantzia herrialde honek Asian izan duen iragan kolonialarekin lotzea.

Modu berean, Frantzian, jatorri ezberdineko ikasleen artean, Afrikakoak nagusitzen dira. Kasu honetan ere arrazoizkoa da

herrialde honek Afrikarekin izan dituen erlazio kolonialetan pentsatzea Frantzian ikasle afrikarrek duten garrantzia azaltzeko.

Beste alde batetik, GHEEko herrialde bakoitzaren eskari internazionalaren jatorria kontuan izanda, lau herrialde talde bereizi ditugu. Lortutako talde ezberdinei buruz, Frantziak, Portugalek eta Espainiak eratutako taldean ikasle afrikar eta hegoamerikarrek duten garrantzia azpimarratu daiteke. Argitu beharra dago, dena den, ikasleria hegoamerikarra, batez ere, Espainiako eta Portugaleko hezkuntza sistemetan dela garrantzizkoa.

Berriz ere, guztiz ulergarria da pentsatzea aipatutako hiru herrialdeen iragan kolonialak beren gaur eguneko hirugarren mailako ikasketen nazioarteko eskaria baldintzatzen duela. Besteak beste, kolonizatutako lurraldeetatik datozen ikasleek Frantzian, Portugalen edo Espainian hizkuntzarekin erlazionatutako oztoporik ez izatea herrialde hauen nazioarteko eskaria determinatzen duen faktore garrantzitsua dela pentsa daiteke.

Finlandiak, Alemaniak, Irlandak, Erresuma Batuak, Turkiak, Ukrainak, Greziak eta Errusiar Federakundeak osatutako herrialde taldea, aldiz, Asiako ikasleen batez besteko portzentaje altua izateagatik bereizten da.

Beste bi herrialde taldeetan, nazioarteko ikasle europarren pisua nabarmen daiteke, batik bat, Hungariak, Austriak, Txekiar Errepublikak, Islandiak, Poloniak, Danimarkak, Errumaniak, Italiak, Suitzak eta Bulgariak osatutako herrialde taldean.

GHEEaren barruko ikasleen mugikortasun fluxuei buruz egindako analisitik ere zenbait ondorio garrantzitsu atera ditugu. Lehenik, aztertutako herrialdeen sailkapen bat burutu dugu,

GHEEtik datozen ikasle guztietatik, nazionalitate europar ezberdineko ikasleen garrantzia kontuan izanda.

Sailkapen honen ondorio moduan, azpimarratzekoa da, UNESCOren datuen arabera, Errusian, GHEEtik datozen ikasle atzerritar guztiak ukrainarrak direla eta Ukrainan, GHEEtik datozen ikasle gehienak errusiarrak direla. Bestalde, Belgikan, non frantsesa eta nederlandera hizkuntza ofizialak diren, GHEEko ikasle internazional ia guztiak Frantziatik eta Herbehereetatik datoz.

Gainontzeko herrialde taldeei dagokienez, Austriak, Danimarkak, Irlandak, Herbehereek, Portugalek, Espainiak, Suediak eta Suitzak eratutako taldea ikasle frantsesen, alemanen, italiarren, espainiarren eta herbeheretarren portzentaje altua izateagatik nabarmentzen da. Bulgariak, Txekiar Errepublikak, Hungariak, Poloniak, Errumaniak, Turkiak, Finlandiak, Frantziak, Alemaniak, Greziak, Islandiak, Italiak, Norvegiak eta Erresuma Batuak osatutako taldea, berriz, ikasle errusiarren, ukrainarren eta grekoen batez besteko portzentaje altua izateagatik bereizten da.

Ondoren, analisian kontsideratutako herrialdeen beste sailkapen bat burutu dugu, baina kasu honetan, sailkapen aldagai moduan, GHEEko herrialde bakoitzera bidalitako ikasleen portzentajea kontuan izanik. Sailkapenaren emaitza bezala bi herrialde talde ezberdin lortu ditugu.

Lehenengoa, Bulgariak, Txekiar Errepublikak, Hungariak, Poloniak, Errumaniak, Errusiar Federakundeak, Turkiak, Ukrainak, Austriak eta Erresuma Batuak osatzen dute eta hezkuntza sistema alemanean ikastea erabakitzen duten ikasleen portzentaje altua izateagatik bereizten da. Gainontzeko herrialdeek osatzen duten

taldea, berriz, Erresuma Batuan goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen portzentaje altua izateagatik nabarmentzen da.

Kapituluaren azkenaurreko atalean GHEEko herrialdeetako zenbait ezaugarrik goi mailako ikasketen eskari internazionalean duten eragina ikertu dugu. Lortutako emaitzen arabera, herrialde baten kokapen geografikoak eta hezkuntzan edo I+Gean egindako inbertsioak herrialde horren goi mailako hezkuntzaren eskari internazionala baldintzatzen dutela ondoriozta daiteke.

Kokapen geografikoari dagokionez, Europako iparraldean kokaturik dauden herrialdeek eskari internazionala erakartzeko duten gaitasuna aipatu beharra dago. Iparraldeko herrialdeetan nazioarteko eskari maila Europako ekialdean kokaturik dauden herrialdeetan baino nabarmenki handiagoa da. Gisa berean, ikasle afrikarrek eta hegoamerikarrek Europako hegoaldean duten garrantzia azpimarratu beharra dago.

Herrialde batetako goi mailako ikasketen eskari internazionala, neurri handi batean, hezkuntzari eskainitako gastu publikoaren menpe ere badago. Lortutako emaitzak kontuan izanda, hezkuntzan burututako inbertsioak ikasleria internazionala erakartzeko gaitasunean efektu positiboa duela esan daiteke.

Esklusiboki goi mailako hezkuntzan burututako inbertsioa aztertzean, emaitzak antzekoak dira. Alde batetik, hirugarren mailako hezkuntzan gehien inbertitzen duten herrialdeek ikasle kanpotarrak erakartzeko gainontzeko herrialdeek baino gaitasun nabarmenki handiagoa dute. Beste alde batetik, hirugarren mailako hezkuntzan gastu gehien egiten duten herrialdeetan nazioarteko ikasle europarren garrantzia ere handiagoa da.

Bukatzeko, I+Gean egindako inbertsioak ere GHEEko herrialdeen goi mailako ikasketen eskari internazionalean modu erabakigarrian eragiten duela egiaztatu dugu. Zehazki, I+Gari BPGaren portzentaje handiagoa eskaintzen dioten herrialdeek ikasle kanpotarrak erakartzeko gaitasun nabarmenki handiagoa dutela esan daiteke.

ERANSKINA: UNESCOren Estatistika Institutuaren Datu Zentroa

UNESCOren ESTATISTIKA INSTITUTUAREN DATU ZENTROAK ESKAINTZEN DITUEN ALDAGAIAK

- ***Ikasle atzerritarren tasa***: Herrialde jakin bateko ikasle atzerritarren kopurua, herrialde horretan hirugarren mailako hezkuntzan guztira matrikulaturik dauden ikasleen portzentaje bezala adierazita.
- ***Atzerrirantz mugikortasun tasa***: Herrialde jakin batean atzerrian ikasten dauden ikasleen kopurua, herrialde horretan hirugarren mailako hezkuntzan guztira matrikulaturik dauden ikasleen portzentaje bezala adierazita.

- Ikasle internazionalen kopurua: Ikasteko asmoz nazio edo lurralde muga bat zeharkatu duten eta orain beren jatorrizko herrialdetik kanpo matrikulaturik dauden ikasleak (***Ikasle internazionalen totala***)
- Atzerrian ikasten dauden ikasleen kopurua (***Atzerrian dauden ikasleen totala***)

- Afrikatik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Afrika ikasleak***)
- Ipar Amerikatik, Erdialdeko Amerikatik eta Karibetik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Ipar Amerika, Erdialdeko Amerika eta Karibe ikasleak***)
- Hego Amerikatik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Hego Amerika ikasleak***)
- Asiatik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Asia ikasleak***)
- Europatik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Europa ikasleak***)
- Ozeaniatik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Ozeania ikasleak***)
- Espezifikatu gabeko eskualdeetatik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Espezifikatu gabeko eskualdea ikasleak***)

- Bulgariatik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Bulgaria ikasleak***)
- Txekiar Errepublikatik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Txekiar Errepublika ikasleak***)
- Hungariatik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Hungaria ikasleak***)
- Poloniatik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Polonia ikasleak***)
- Errumaniatik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Errumania ikasleak***)
- Errusiar Federakundetik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Errusiar Federakundea ikasleak***)
- Turkiatik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Turkia ikasleak***)
- Ukrainatik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Ukraina ikasleak***)
- Austriatik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Austria ikasleak***)
- Belgikatik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Belgika ikasleak***)
- Danimarkatik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Danimarka ikasleak***)
- Finlandiatik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Finlandia ikasleak***)

- Frantziatik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Frantzia ikasleak***)
- Alemaniatik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Alemania ikasleak***)
- Greziatik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Grezia ikasleak***)
- Islandiatik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Islandia ikasleak***)
- Irlandatik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Irlanda ikasleak***)
- Italiatik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Italia ikasleak***)
- Herbeheretatik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Herbehereak ikasleak***)
- Norvegiatik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Norvegia ikasleak***)
- Portugaletik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Portugal ikasleak***)
- Espainiatik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Espainia ikasleak***)
- Suediatik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Suedia ikasleak***)
- Suitzatik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Suitza ikasleak***)
- Erresuma Batutik datozen ikasle internazionalen kopurua (***Erresuma Batua ikasleak***)

- Atzerrian ikasten dauden eta Bulgarian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen kopurua (***Bulgariarantz ikasleak***)
- Atzerrian ikasten dauden eta Txekiar Errepublikan goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen kopurua (***Txekiar Errepublikarantz ikasleak***)
- Atzerrian ikasten dauden eta Hungarian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen kopurua (***Hungariarantz ikasleak***)
- Atzerrian ikasten dauden eta Polonian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen kopurua (***Poloniarantz ikasleak***)
- Atzerrian ikasten dauden eta Errumanian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen kopurua (***Errumaniarantz ikasleak***)
- Atzerrian ikasten dauden eta Errusiar Federakundean goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen kopurua (***Errusiar Federakunderantz ikasleak***)
- Atzerrian ikasten dauden eta Turkian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen kopurua (***Turkiarantz ikasleak***)
- Atzerrian ikasten dauden eta Ukrainan goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen kopurua (***Ukrainarantz ikasleak***)
- Atzerrian ikasten dauden eta Austrian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen kopurua (***Austriarantz ikasleak***)
- Atzerrian ikasten dauden eta Belgikan goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen kopurua (***Belgikarantz ikasleak***)
- Atzerrian ikasten dauden eta Danimarkan goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen kopurua (***Danimarkarantz ikasleak***)
- Atzerrian ikasten dauden eta Finlandian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen kopurua (***Finlandiarantz ikasleak***)
- Atzerrian ikasten dauden eta Frantzian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen kopurua (***Frantziarantz ikasleak***)
- Atzerrian ikasten dauden eta Alemanian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen kopurua (***Alemaniarantz ikasleak***)
- Atzerrian ikasten dauden eta Grezian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen kopurua (***Greziarantz ikasleak***)
- Atzerrian ikasten dauden eta Islandian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen kopurua (***Islandiarantz ikasleak***)
- Atzerrian ikasten dauden eta Irlandan goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen kopurua (***Irlandarantz ikasleak***)

- Atzerrian ikasten dauden eta Italian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen kopurua (***Italiarantz ikasleak***)
- Atzerrian ikasten dauden eta Herbeheretan goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen kopurua (***Herbeheretarantz ikasleak***)
- Atzerrian ikasten dauden eta Norvegian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen kopurua (***Norvegiarantz ikasleak***)
- Atzerrian ikasten dauden eta Portugalen goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen kopurua (***Portugalerantz ikasleak***)
- Atzerrian ikasten dauden eta Espainian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen kopurua (***Espainiarantz ikasleak***)
- Atzerrian ikasten dauden eta Suedian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen kopurua (***Suediarantz ikasleak***)
- Atzerrian ikasten dauden eta Suitzan goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen kopurua (***Suitzarantz ikasleak***)
- Atzerrian ikasten dauden eta Erresuma Batuan goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen kopurua (***Erresuma Baturantz ikasleak***)

UNESCOren ESTATISTIKA INSTITUTUAREN DATU ZENTROAK ESKAINTZEN DUEN INFORMAZIOA OINARRI HARTUTA ANALISIRAKO SORTUTAKO ALDAGAIAK

- Afrikako ikasleen portzentajea = (Afrika ikasleak / Ikasle internazionalen totala)*100 (***Afrika portzentajea***)
- Ipar Amerikako, Erdialdeko Amerikako eta Karibeko ikasleen portzentajea = (Ipar Amerika, Erdialdeko Amerika eta Karibe ikasleak / Ikasle internazionalen totala)*100 (***Ipar Amerika, Erdialdeko Amerika eta Karibe portzentajea***)
- Hego Amerikako ikasleen portzentajea = (Hego Amerika ikasleak / Ikasle internazionalen totala)*100 (***Hego Amerika portzentajea***)
- Asiako ikasleen portzentajea = (Asia ikasleak / Ikasle internazionalen totala)*100 (***Asia portzentajea***)
- Europako ikasleen portzentajea = (Europa ikasleak / Ikasle internazionalen totala)*100 (***Europa portzentajea***)
- Ozeaniako ikasleen portzentajea = (Ozeania ikasleak / Ikasle internazionalen totala)*100 (***Ozeania portzentajea***)
- Espezifikatu gabeko eskualdeetako ikasleen portzentajea = (Espezifikatu gabeko eskualdea ikasleak / Ikasle internazionalen totala)*100 (***Espezifikatu gabeko eskualdea portzentajea***)

- Unibertsitate kopurua[28]: Aztertutako herrialde bakoitzaren goi mailako hezkuntza sisteman dagoen unibertsitate kopurua adierazten du (***Unibertsitate kopurua***)

[28] Informazio hau Universiaren web orrialdeko unibertsitateen direktoriotik lortu dugu. (http://www1.universia.net/CatalogaXXI/C10032PPESII1/INDEX.HTML)

- GHEEtik datozen ikasle internazionalen kopurua: Azterlan honetan kontsideratutako GHEEko herrialdeetatik datozen ikasleen kopuru totala adierazten du (***GHEE ikasleak***)

- Bulgariako ikasleen portzentajea = (Bulgaria ikasleak / GHEE ikasleak)*100 (***Bulgaria portzentajea***)
- Txekiar Errepublikako ikasleen portzentajea = (Txekiar Errepublika ikasleak / GHEE ikasleak)*100 (***Txekiar Errepublika portzentajea***)
- Hungariako ikasleen portzentajea = (Hungaria ikasleak / GHEE ikasleak)*100 (***Hungaria portzentajea***)
- Poloniako ikasleen portzentajea = (Polonia ikasleak / GHEE ikasleak)*100 (***Polonia portzentajea***)
- Errumaniako ikasleen portzentajea = (Errumania ikasleak / GHEE ikasleak)*100 (***Errumania portzentajea***)
- Errusiar Federakundeko ikasleen portzentajea = (Errusiar Federakundea ikasleak / GHEE ikasleak)*100 (***Errusiar Federakundea portzentajea***)
- Turkiako ikasleen portzentajea = (Turkia ikasleak / GHEE ikasleak)*100 (***Turkia portzentajea***)
- Ukrainako ikasleen portzentajea = (Ukraina ikasleak / GHEE ikasleak)*100 (***Ukraina portzentajea***)
- Austriako ikasleen portzentajea = (Austria ikasleak / GHEE ikasleak)*100 (***Austria portzentajea***)
- Belgikako ikasleen portzentajea = (Belgika ikasleak / GHEE ikasleak)*100 (***Belgika portzentajea***)
- Danimarkako ikasleen portzentajea = (Danimarka ikasleak / GHEE ikasleak)*100 (***Danimarka portzentajea***)
- Finlandiako ikasleen portzentajea = (Finlandia ikasleak / GHEE ikasleak)*100 (***Finlandia portzentajea***)
- Frantziako ikasleen portzentajea = (Frantzia ikasleak / GHEE ikasleak)*100 (***Frantzia portzentajea***)
- Alemaniako ikasleen portzentajea = (Alemania ikasleak / GHEE ikasleak)*100 (***Alemania portzentajea***)
- Greziako ikasleen portzentajea = (Grezia ikasleak / GHEE ikasleak)*100 (***Grezia portzentajea***)
- Islandiako ikasleen portzentajea = (Islandia ikasleak / GHEE ikasleak)*100 (***Islandia portzentajea***)
- Irlandako ikasleen portzentajea = (Irlanda ikasleak / GHEE ikasleak)*100 (***Irlanda portzentajea***)
- Italiako ikasleen portzentajea = (Italia ikasleak / GHEE ikasleak)*100 (***Italia portzentajea***)
- Herbeheretako ikasleen portzentajea = (Herbehereak ikasleak / GHEE ikasleak)*100 (***Herbehereak portzentajea***)
- Norvegiako ikasleen portzentajea = (Norvegia ikasleak / GHEE ikasleak)*100 (***Norvegia portzentajea***)
- Portugaleko ikasleen portzentajea = (Portugal ikasleak / GHEE ikasleak)*100 (***Portugal portzentajea***)
- Espainiako ikasleen portzentajea = (Espainia ikasleak / GHEE ikasleak)*100 (***Espainia portzentajea***)

- Suediako ikasleen portzentajea = (Suedia ikasleak / GHEE ikasleak)*100 (***Suedia portzentajea***)
- Suitzako ikasleen portzentajea = (Suitza ikasleak / GHEE ikasleak)*100 (***Suitza portzentajea***)
- Erresuma Batuko ikasleen portzentajea = (Erresuma Batua ikasleak / GHEE ikasleak)*100 (***Erresuma Batua portzentajea***)

- GHEEko herrialde atzerritarretan ikasten dauden ikasleen kopurua: GHEEko herrialde atzerritarretan goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen kopuru totala adierazten du. Hau da, beren jatorrizko herrialdetik kanpo eta GHEEko herrialderen batean ikasten dauden ikasleen kopuru totala (***GHEErantz ikasleak***)

- GHEEko herrialde atzerritar batean ikasten dauden eta Bulgarian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen portzentajea = (Bulgariarantz ikasleak / GHEErantz ikasleak)*100 (***Bulgariarantz portzentajea***)
- GHEEko herrialde atzerritar batean ikasten dauden eta Txekiar Errepublikan goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen portzentajea = (Txekiar Errepublikarantz ikasleak / GHEErantz ikasleak)*100 (***Txekiar Errepublikarantz portzentajea***)
- GHEEko herrialde atzerritar batean ikasten dauden eta Hungarian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen portzentajea = (Hungariarantz ikasleak / GHEErantz ikasleak)*100 (***Hungariarantz portzentajea***)
- GHEEko herrialde atzerritar batean ikasten dauden eta Polonian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen portzentajea = (Poloniarantz ikasleak / GHEErantz ikasleak)*100 (***Poloniarantz portzentajea***)
- GHEEko herrialde atzerritar batean ikasten dauden eta Errumanian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen portzentajea = (Errumaniarantz ikasleak / GHEErantz ikasleak)*100 (***Errumaniarantz portzentajea***)
- GHEEko herrialde atzerritar batean ikasten dauden eta Errusiar Federakundean goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen portzentajea = (Errusiar Federakunderantz ikasleak / GHEErantz ikasleak)*100 (***Errusiar Federakunderantz portzentajea***)
- GHEEko herrialde atzerritar batean ikasten dauden eta Turkian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen portzentajea = (Turkiarantz ikasleak / GHEErantz ikasleak)*100 (***Turkiarantz portzentajea***)
- GHEEko herrialde atzerritar batean ikasten dauden eta Ukrainan goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen portzentajea = (Ukrainarantz ikasleak / GHEErantz ikasleak)*100 (***Ukrainarantz portzentajea***)
- GHEEko herrialde atzerritar batean ikasten dauden eta Austrian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen portzentajea = (Austriarantz ikasleak / GHEErantz ikasleak)*100 (***Austriarantz portzentajea***)
- GHEEko herrialde atzerritar batean ikasten dauden eta Belgikan goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen portzentajea = (Belgikarantz ikasleak / GHEErantz ikasleak)*100 (***Belgikarantz portzentajea***)
- GHEEko herrialde atzerritar batean ikasten dauden eta Danimarkan goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen portzentajea = (Danimarkarantz ikasleak / GHEErantz ikasleak)*100 (***Danimarkarantz portzentajea***)

- GHEEko herrialde atzerritar batean ikasten dauden eta Finlandian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen portzentajea = (Finlandiarantz ikasleak / GHEErantz ikasleak)*100 (***Finlandiarantz portzentajea***)
- GHEEko herrialde atzerritar batean ikasten dauden eta Frantzian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen portzentajea = (Frantziarantz ikasleak / GHEErantz ikasleak)*100 (***Frantziarantz portzentajea***)
- GHEEko herrialde atzerritar batean ikasten dauden eta Alemanian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen portzentajea = (Alemaniarantz ikasleak / GHEErantz ikasleak)*100 (***Alemaniarantz portzentajea***)
- GHEEko herrialde atzerritar batean ikasten dauden eta Grezian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen portzentajea = (Greziarantz ikasleak / GHEErantz ikasleak)*100 (***Greziarantz portzentajea***)
- GHEEko herrialde atzerritar batean ikasten dauden eta Islandian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen portzentajea = (Islandiarantz ikasleak / GHEErantz ikasleak)*100 (***Islandiarantz portzentajea***)
- GHEEko herrialde atzerritar batean ikasten dauden eta Irlandan goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen portzentajea = (Irlandarantz ikasleak / GHEErantz ikasleak)*100 (***Irlandarantz portzentajea***)
- GHEEko herrialde atzerritar batean ikasten dauden eta Italian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen portzentajea = (Italiarantz ikasleak / GHEErantz ikasleak)*100 (***Italiarantz portzentajea***)
- GHEEko herrialde atzerritar batean ikasten dauden eta Herbeheretan goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen portzentajea = (Herbeheretarantz ikasleak / GHEErantz ikasleak)*100 (***Herbeheretarantz portzentajea***)
- GHEEko herrialde atzerritar batean ikasten dauden eta Norvegian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen portzentajea = (Norvegiarantz ikasleak / GHEErantz ikasleak)*100 (***Norvegiarantz portzentajea***)
- GHEEko herrialde atzerritar batean ikasten dauden eta Portugalen goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen portzentajea = (Portugalerantz ikasleak / GHEErantz ikasleak)*100 (***Portugalerantz portzentajea***)
- GHEEko herrialde atzerritar batean ikasten dauden eta Espainian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen portzentajea = (Espainiarantz ikasleak / GHEErantz ikasleak)*100 (***Espainiarantz portzentajea***)
- GHEEko herrialde atzerritar batean ikasten dauden eta Suedian goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen portzentajea = (Suediarantz ikasleak / GHEErantz ikasleak)*100 (***Suediarantz portzentajea***)
- GHEEko herrialde atzerritar batean ikasten dauden eta Suitzan goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen portzentajea = (Suitzarantz ikasleak / GHEErantz ikasleak)*100 (***Suitzarantz portzentajea***)
- GHEEko herrialde atzerritar batean ikasten dauden eta Erresuma Batuan goi mailako hezkuntza eskatzen duten ikasleen portzentajea = (Erresuma Baturantz ikasleak / GHEErantz ikasleak)*100 (***Erresuma Baturantz portzentajea***)

- Europan kokapen geografikoa: Herrialde bakoitzaren kokapen geografikoa adierazten du eta hiru kategoria dauzka (***Europako eremu geografikoa***)
  - **IPARRALDEA**: Austria, Belgika, Danimarka, Finlandia, Alemania, Islandia, Irlanda, Herbehereak, Norvegia, Suedia, Suitza, Erresuma Batua
  - **HEGOALDEA**: Frantzia, Grezia, Italia, Portugal, Espainia

  - **EKIALDEA**: Bulgaria, Txekiar Errepublika, Hungaria, Polonia, Errumania, Errusiar Federakundea, Turkia, Ukraina

- Hezkuntzan burututako gastu publikoa BPGaren portzentaje bezala: Herrialdeek BPGetik hezkuntzari eskainitako portzentajea adierazten du eta bi kategoria dauzka (***Hezkuntzari eskainitako BPGaren portzentajea***)
  - **BAXUA**: Hezkuntzari eskainitako BPGaren portzentajea %5 baino txikiagoa duten herrialdeak
  - **ALTUA**: Hezkuntzari eskainitako BPGaren portzentajea %5 baino handiagoa duten herrialdeak

- Goi mailako hezkuntzan ikasle bakoitzeko burututako gastu publikoa, biztanle bakoitzeko BPGaren portzentaje bezala: Herrialdeek goi mailako hezkuntzan ikasle bakoitzeko burututako gastu publikoa islatzen du, biztanle bakoitzeko BPGaren portzentaje bezala adierazita. Bi kategoria dauzka (***Goi mailako hezkuntzako ikasle bakoitzeko gastuaren portzentajea biztanleko BPGarekiko***)
  - **BAXUA**: Ikasleko gastua biztanleko BPGaren %35 baino txikiagoa duten herrialdeak
  - **ALTUA**: Ikasleko gastua biztanleko BPGaren %35 baino handiagoa duten herrialdeak

- I+Gean egindako barne gastu gordina BPGaren portzentaje bezala: Herrialdeek BPGetik I+Gari eskainitako portzentajea adierazten du eta bi kategoria dauzka (***I+Gari eskainitako BPGaren portzentajea)***
  - **BAXUA**: I+Gari eskainitako BPGaren portzentajea %1,5 baino txikiagoa duten herrialdeak
  - **ALTUA**: I+Gari eskainitako BPGaren portzentajea %1,5 baino handiagoa duten herrialdeak

UNESCOren ESTATISTIKA INSTITUTUAREN DATU ZENTROAREN ARABERAKO HERRIALDEEN TALDEKATZEA

AFRIKA

Angola	Malawi
Aljeria	Mali
Benin	Maroko
Botswana	Maurizio
Burkina Faso	Mauritania
Burundi	Mozambike
Cabo Verde	Namibia
Kamerun	Nigerko Errepublika
Komoreak	Nigeria
Kongo	Afrika Erdiko Errepublika
Boli Kosta	Kongoko Errepublika Demokr. (lehen,

AFRIKA

	Zaire)
Txad	Hegoafrikako Errepublika
Djibuti	Ruanda
Egipto	Sao Tome eta Principe
Eritrea	Senegal
Etiopia	Seychelleak
Gabon	Sierra Leona
Gambia	Somalia
Ghana	Sudan
Ginea	Hegoaldeko Sudan
Ekuatore Ginea	Swazilandia
Ginea Bissau	Tanzania
Kenya	Togo
Lesotho	Tunisia
Liberia	Uganda
Libia	Zambia
Madagaskar	Zimbabwe

IPAR AMERIKA, ERDIALDEKO AMERIKA ETA KARIBE

Ipar Amerika

Bermudak	Ameriketako Estatu Batuak
Kanada	

Erdialdeko Amerika eta Karibe

Anguila	Guatemala
Antigua eta Barbuda	Haiti
Aruba	Honduras
Bahamak	Jamaika
Barbados	Mexiko
Belize	Montserrat
Birjina Uharte Britainiarrak	Holandarren Antillak
Kaiman Uharteak	Nikaragua
Costa Rica	Panama
Kuba	Saint Kitts eta Nevis
Dominika	Santa Luzia
Dominikar Errepublika	Saint Vincent eta Grenadinak
El Salvador	Trinidad eta Tobago
Grenada	Turks eta Caicos Uharteak

HEGO AMERIKA

Argentina	Guyana
Bolivia	Paraguai
Brasil	Peru
Kolonbia	Surinam
Txile	Uruguai
Ekuador	Venezuela

ASIA

Afganistan	Kazakhstan
Armenia	Kirgizistan
Azerbaijan	Kuwait
Saudi Arabia	Laosko Herri Errepublika Demokratikoa
Bahrain	Libano
Bangladesh	Malaysia
Brunei	Maldivak
Bhutan	Mongolia
Kanbodia	Myanmar
Koreako Errepublika	Nepal
Koreako Herri Errepublika Demokratikoa	Oman
Txina	Pakistan
Txina, Hong Kong Eskualde Administratibo Berezia	Palestina
Txina, Macau Eskualde Administratibo Berezia	Qatar
Zipre	Singapur
Arabiar Emirerri Batuak	Siriako Arabiar Errepublika
Filipinak	Sri Lanka
Georgia	Thailandia
India	Tajikistan
Indonesia	Ekialdeko Timor
Iran	Turkmenistan
Irak	Turkia
Israel	Uzbekistan
Japonia	Vietnam
Jordania	Yemen

EUROPA

Albania	Letonia
Alemania	Liechtenstein
Andorra	Lituania
Austria	Luxenburgo
Belgika	Mazedonia
Bielorrusia	Malta
Bosnia-Herzegovina	Moldavia
Bulgaria	Monako
Kroazia	Montenegro
Txekiar Errepublika edo Txekia	Norvegia
Danimarka	Herbehereak
Eslovakiar Errepublika edo Eslovakia	Polonia
Eslovenia	Portugal
Espainia	Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batua

EUROPA

Estonia	Errumania
Finlandia	Errusiar Federakundea
Frantzia	San Marino
Gibraltar	Serbia
Grezia	Suedia
Hungaria	Suitza
Irlanda	Ukraina
Islandia	Vatikanoa
Italia	

OZEANIA

Australia	Palau
Cook Uharteak	Papua Ginea Berria
Fiji	Salomon Uharteak
Kiribati	Samoa
Marshall Uharteak	Tokelau
Mikronesia	Tonga
Nauru	Tuvalu
Niue	Vanuatu
Zeelanda Berria	

3.KAPITULUA

ESPAINIAKO UNIBERTSITATE MAILAKO HEZKUNTZAREN NAZIOARTEKO ESKARIARI BURUZKO DESKRIBAPENA

3.1 Sarrera

Kapitulu honetan gure funtsezko helburua Espainiako hezkuntza unibertsitarioaren eskari internazionalaren gaur egungo egoerari buruzko deskribapen orokor bat eskaintzea da[29]. Espainiako unibertsitate guztietako ikasle kanpotarrei buruzko informazioa erabiliz, eskaria ikuspegi ezberdinetatik aztertuko dugu. Lehenik, unibertsitate mailako ikasketen nazioarteko eskari totalari buruzko deskribapen labur bat aurkeztu dugu. Bigarrenik, sistema unibertsitario espainolean eskaintzen diren titulazio ezberdinek sortzen duten nazioarteko eskari espezifikoa analizatu dugu. Azkenik, Espainiako instituzio unibertsitario ezberdinek sortzen duten eskari internazionala ere kontsideratu dugu.

Kapitulua bost ataletan banatu dugu. Hurrengo atalak goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskaria bere osotasunean kontsideratzen du eta eskari honi buruzko deskribapen orokor bat ematen du. Deskribapen honetan Espainiako atzerriko ikasleria totalaren bilakaera aurkezten da eta atzerriko ikasleria horren gaur egungo osaketa erakusten da, bai ikasleen jatorriaren arabera eta baita ikasleek aukeratutako irakaskuntza adarraren arabera. Autonomia erkidego ezberdinetako eskari internazionala ere aurkezten da.

[29] Kapitulu honetan eta hurrengoetan lehen eta bigarren zikloko edo graduko unibertsitate mailako ikasketen eskari internazionalean jarriko dugu arreta. Hortaz, besterik adierazi ezean, beti eskari mota honi buruz arituko gara.

Ondoren, hirugarren eta laugarren atalek ere unibertsitate mailako ikasketen nazioarteko eskaria aztertzen dute baina ikuspegi ezberdinak kontuan izanda. Alde batetik, hirugarren atalak Espainiako titulazio unibertsitarioen eskari internazionalari buruzko ikuspegi orokor bat eskaintzen du. Bestetik, laugarren atalak Espainiako unibertsitate ezberdin bakoitzean matrikulatutako ikasle kanpotarren analisia burutzen du.

Funtsean, Espainiako titulazio eta unibertsitate ezberdinetan ikasle internazionalek duten garrantzia eta ikasle hauen jatorria aztertzen saiatuko gara. Titulazio baten edo unibertsitate baten eskari internazionala, neurri handi batean, bere orientazio internazionalarekin erlazionaturik dagoela kontuan izanda, kapitulu honek eskaintzen duen informazioak sistema unibertsitario espainolaren orientazio internazionalari buruzko ideia orokor bat ematen duela esan daiteke.

Esan bezala, hirugarren atala titulazio unibertsitarioen analisiaz arduratzen da. Bertan irakaskuntza ezberdinen nazioarteko eskari maila kontuan hartuz irakaskuntza horien sailkapen bat burutu dugu. Era berean, titulazio ezberdinen nazioarteko eskariaren jatorria ere aztertu dugu.

Beste alde batetik, laugarren atalak Espainiako unibertsitateen taldekatze bat aurkezten du unibertsitate bakoitzaren nazioarteko eskari maila kontuan hartuz. Lortutako unibertsitate taldeen ezaugarri nagusien analisi bat ere burutzen da. Helburua nazioarteko eskari maila ezberdina duten unibertsitate taldeak bereizten dituzten ezaugarriak identifikatzea da. Horrez gain, laugarren atalean,

unibertsitate bakoitzaren nazioarteko eskariaren jatorria ere analizatzen da.

Kapituluaren azken atalean burututako analisiaren ondorio garrantzitsuenak jaso ditugu.

Eskari unibertsitarioaren neurketari dagokionez, Salas Velascok (2008) dioenez, ikerketa aplikatuan, gehienbat, goi mailako hezkuntzako instituzioetan matrikulatutako ikasle kopurua erabili izan da. Dena den, autore honen esanetan, ohikoa izaten da ere eskaria edo matrikulatu kopurua ratio bat bezala adieraztea.

Kapitulu honetan garatutako ikerketan, goi mailako hezkuntza espainolaren nazioarteko eskaria Espainiako unibertsitateetan ikastea erabakitzen duten ikasle kanpotarren kopuruak determinatzen du. Hala ere, titulazio ezberdinen eskariaren arteko konparaketak burutu ahal izateko, titulazio bakoitzaren ikasle atzerritarren portzentajea ere erabili dugu. Halaber, Espainiako unibertsitate ezberdinen arteko analisi konparatibo bat burutu ahal izateko eta unibertsitateen tamaina oso ezberdina dela kontuan izanda, unibertsitate bakoitzaren ikasle atzerritarren portzentajea ere erabili dugu.

Bestalde, nazioarteko eskari mailaz gain, eskari horren jatorria ere ikertzen saiatu garenez, jatorri ezberdineko ikasle kanpotarren kopuru eta portzentajeak ere erabili ditugu. Beraz, kapitulu honetan nazioarteko eskariari buruz egindako ikerketa, batez ere, aipatutako aldagaien analisian oinarritzen da.

3.2 Espainiako Unibertsitate Mailako Ikasketen Nazioarteko Eskari Totala

3.2.1 Espainiako Unibertsitate Mailako Ikasketen Nazioarteko Eskari Totalaren Bilakaera

Azken urteotan Espainiako unibertsitateetan lehen eta bigarren zikloko ikasketak egiten dituzten atzerriko ikasleen matrikulazioa etengabe hazi da. Ondoko taulak azken hamabost urteetan zehar lehen eta bigarren zikloko matrikulazio kopuruetan gertatutako eboluzioa erakusten du.

ESPAINIAKO UNIBERTSITATE MAILAKO IKASKETEN ESKARIAREN BILAKAERA[30][31]

Ikasturtea	Ikasleen Totala	Ikasle Atzerritarren Totala[32]	Atzerritarren Portzentajea
1994/1995	1.446.472	**10.054**	%0,70
1995/1996	1.508.831	**10.768**	%0,71
1996/1997	1.549.285	**10.469**	%0,68
1997/1998	1.575.193	**11.543**	%0,73
1998/1999	1.584.785	**11.205**	%0,71
1999/2000	1.589.473	**12.451**	%0,78
2000/2001	1.555.750	**14.280**	%0,92
2001/2002	1.525.989	**14.934**	%0,98
2002/2003	1.503.694	**16.275**	%1,08

[30] 2008/2009 ikasturtean gradu unibertsitarioak lehen aldiz irakasten hasten dira, eta beraz, ikasturte horretako datuek graduetan matrikulatutako ikasleak barne hartzen dituzte.

[31] 2006/2007, 2007/2008 eta 2008/2009 ikasturteetako datuak behin behinekoak dira.

[32] Datu hauetan ez daude sarturik Erasmus bezalako mugikortasun programetan parte hartu zuten ikasle atzerritarrak.

Ikasturtea	Ikasleen Totala	Ikasle Atzerritarren Totala[32]	Atzerritarren Portzentajea
2003/2004	1.485.993	**18.141**	%1,22
2004/2005	1.459.717	**20.628**	%1,41
2005/2006	1.443.246	**25.424**	%1,76
2006/2007	1.405.894	**29.636**	%2,11
2007/2008	1.389.394	**32.138**	%2,31
2008/2009	1.377.228	**37.230**	%2,70

Iturria:Hezkuntza Ministerioak emandako datuak (2010).

Aurkeztutako datuek agerian jartzen dute Espainiako unibertsitateetan matrikulatutako ikasle kopuru totalaren joera beherakorra. Aitzitik, ikasle kanpotarrek Espainian sortutako lehen eta bigarren zikloko unibertsitate mailako ikasketen eskaria azken urteotan zehar hirukoiztu dela egiazta daiteke. Ondorengo grafikoetan argi eta garbi geratzen dira joera hauek.

Espainiako Unibertsitate Mailako Ikasketen Eskariaren Bilakaera



Iturria: Egileak moldatua Hezkuntza Ministerioak emandako datuak oinarri hartuta (2010).



Iturria: Egileak moldatua Hezkuntza Ministerioak emandako datuak oinarri hartuta (2010).



Iturria: Egileak moldatua Hezkuntza Ministerioak emandako datuak oinarri hartuta (2010).

Lehengo grafikoak Espainian azken urteotan gertatu den goi mailako ikasketen eskariaren jaitsiera erakusten du. Laurogeita hamarreko hamarkadan zehar Espainiako unibertsitateetan matrikulatutakoen kopurua gora egiten zuen arren, 1999/2000 ikasturte akademikotik aurrera, goi mailako hezkuntzan parte

hartzen duten banakoen kopuruan beherakada jarraitu bat hauteman daiteke.

Jaitsiera honen arrazoi posibleen artean hainbat autorek bat datoz faktore demografikoak azpimarratzean (Flavián eta Lozano, 2007; Reques Velasco, 2006). Azken urteotan, unibertsitate mailako ikasketak burutzeko adina duen populazioaren tamaina murriztu da eta honek goi mailako hezkuntzaren eskariaren beherakada bultzatu egin du.

Flavián eta Lozanoren (2007) iritziz unibertsitate mailako ikasketen eskariaren jaitsiera azaldu dezakeen beste faktore bat tituludunen langabezia maila altuaren ondorioz sortzen den ikasle potentzialen motibazio falta da. Albert Verdúk (2008) goi mailako hezkuntzaren errendimenduaren murrizketa aipatzen du eta unibertsitate mailako tituludunak lan merkatuan sartzea prozesu labur eta arrakastatsu bat izatetik prozesu luze bat izatera pasatu dela azaltzen du.

Lanbide heziketaren erakargarritasunaren eta ikasle kopuruaren gehikuntzak ere unibertsitate mailako ikasketen eskariaren beherakada baldintzatu ahal izan du (Flavián eta Lozano, 2007; Salas Velasco, 2008). Flavián eta Lozanoren (2007) ustez, agintariek aukera honi bultzada garrantzitsua eman diote Espainian prestakuntza eta enpleguaren artean dagoen desoreka murrizten laguntzeko.

Goi mailako ikasketen nazioarteko eskariaren joera, berriz, guztiz kontrakoa da. Hots, goian aurkeztutako grafikoak begiratuz 1999/2000 ikasturte akademikotik aurrera Espainiako

unibertsitateetan matrikulatutako ikasle kanpotarren bai kopurua eta baita ehunekoa ere etengabe handitu direla ikus daiteke.

Espainiako unibertsitateek 2008/2009 ikasturtean 37.230 ikasle atzerritar jaso zituzten, lehen eta bigarren zikloko eta graduko ikasle guztien %2,7 hain zuzen ere. Aurreko ikasturtean zehar ikasle kanpotarren kopurua 32.138koa izan zen. Honek unibertsitate mailako lehen eta bigarren zikloko eta graduko ikasketen nazioarteko eskariaren %15,8ko gehikuntza bat adierazten du 2008/2009 ikasturterako.

Zentzuzkoa da faktore demografikoek eskari internazionalaren gehikuntza nabarmen honetan eragina izan dutela pentsatzea. Hau da, unibertsitate mailako ikasketak burutzeko adina duen populazio atzerritarraren areagotze batek Espainiako goi mailako hezkuntzaren eskarian efektu positiboa izan duela pentsa daiteke. Modu berean, unibertsitateen eta orokorrean sistema unibertsitario espainolaren orientazio internazional handiago batek ikasle kanpotarren goi mailako hezkuntzaren eskaria estimulatu duela pentsa daiteke.

Faktore demografikoei dagokienez, hurrengo taulak Espainiako biztanleria atzerritarraren bilakaerari buruzko datuak aurkezten ditu adin tarte ezberdinetarako. Datu hauei so eginez azken urteotan zehar atzerriko populazio gaztearen gehikuntza garrantzitsu bat gertatu dela nabari daiteke. Arrazoizkoa da unibertsitate mailako ikasketen eskari internazionalaren igoera gehikuntza honekin erlazionatzea.

Atzerriko Populazio Gaztea Espainian

URTEA	ADINA		
	15-19 urte	**20-24 urte**	**25-29 urte**
1998	33.874	39.979	65.885
1999	40.602	46.738	73.755
2000	50.312	63.481	95.809
2001	69.972	129.591	180.163
2002	98.907	207.637	284.891
2003	132.076	283.933	400.712
2004	157.033	317.635	469.686
2005	191.304	375.360	581.577
2006	212.901	399.696	640.199
2007	237.931	427.463	677.436
2008	281.060	504.800	776.706
2009	294.429	521.392	803.430

Iturria:Estatistikako Institutu Nazionala.

3.2.2 Espainiako Unibertsitate Mailako Ikasketen Nazioarteko Eskari Totalaren Gaur Egungo Osaketa Jatorria eta Irakaskuntza Adarraren arabera

JATORRIA

Lehenengo eta behin, nazioarteko ikasleen banaketa aurkeztuko dugu haien sorlekua kontuan izanda. Ikasleria internazionalaren jatorriari buruzko informazioa eskualde geografikoetan taldekaturik agertzen da. Guztira zortzi eskualde kontsideratu ditugu: Europar Batasuna, Europako gainontzeko herrialdeak, Afrikako iparraldea, Afrikako gainontzeko herrialdeak,

Ipar Amerika, Erdialdeko Amerika, Hego Amerika eta azkenik Asia eta Ozeania[33].

Ondorengo grafikoek aipatutako eskualde bakoitzeko ikasleen proportzioa erakusten dute 2007/2008 eta 2008/2009 ikasturteetarako.

Sorlekuaren araberako Lehen eta Bigarren Zikloko Ikasle Kanpotarren Banaketa[34][35]



Iturria: Egileak moldatua Hezkuntza Ministerioak emandako datuak oinarri hartuta (2010).

[33] Kapitulu honen eranskinean Hezkuntza Ministerioak munduko eskualde bakoitzean barneratutako herrialdeak agertzen dira. Orokorrean kapitulu honetan eta hurrengoan 2005/2006 ikasturteko datuak aztertuko ditugu eta eranskinean agertzen den herrialdeen taldekatzea kontsideratuko dugu. Dena den, azpiatal honetan 2007/2008 eta 2008/2009 ikasturteetako datuak erabiliko ditugunez eta Bulgaria eta Errumania 2007. urtean Europar Batasunean sartu zirenez, kasu honetan, herrialde hauek Europar Batasuna eskualdean daudela kontsideratuko dugu.

[34] Behin behineko datuak.

[35] 2008/2009 ikasturteko grafikoak lehen eta bigarren zikloan eta graduan matrikulatutako ikasle kanpotarrei buruzko informazioa barneratzen du.

Bigarren grafikoari begiratuz nabarmen geratzen da 2008/2009 ikasturtean zehar Espainian lehen eta bigarren zikloko ikasketak burutu zituzten ikasle atzerritar gehienak Europar Batasunetik eta Hego Amerikatik zetozela. Zehazki, jatorri horietako ikasle kanpotarren portzentajeak %35,32 eta %31,06 izan ziren hurrenez hurren. Hurbiltasunak eta hizkuntzarekin erlazionatutako oztoporik ez aurkitzeak eskualde hauetako ikasleen portzentaje altua azaldu dezakete.

Gisa berean, 2008/2009 ikasturtean ikasleria atzerritarraren totaletik %12,19 Afrikako iparraldetik datorrela, %8,27 Europako gainontzeko herrialdeetatik datorrela eta %4,04 Asia eta Ozeaniatik datorrela nabari daiteke. Gainontzeko ikasle internazionalak Erdialdeko Amerikakoak, Ipar Amerikakoak eta Afrikako gainontzeko herrialdeetakoak dira.

Bestalde, 2008/2009 eta 2007/2008 ikasturteetako datuak konparatuz, jatorriaren araberako ikasle atzerritarren banaketa gehiegi aldatu ez dela ere ikus daiteke.

IRAKASKUNTZA ADARRA

Irakaskuntza adarrei dagokienez, hurrengo grafikoek aukeratutako adarraren araberako nazioarteko ikasleen banaketa aurkezten dute.

Irakaskuntza Adarraren araberako Lehen eta Bigarren Zikloko Ikasle Kanpotarren Banaketa[363738]



Iturria: Egileak moldatua Hezkuntza Ministerioak emandako datuak oinarri hartuta (2010).

Bigarren grafikoari begiratuta bistakoa da 2008/2009 ikasturtean zehar lehen eta bigarren zikloko eta graduko ikasle kanpotar gehien jaso zituzten adarrak gizarte eta lege zientziak eta ingeniaritza eta arkitektura izan zirela, ikasle atzerritar guztien %48,12ko eta %22,43ko portzentajeekin, hurrenez hurren. Ikasleria atzerritarraren totaletik %13,65 osasun zientzietan matrikulatu zen eta %11,4 artea eta giza zientzietan. Zientziak ikasle kanpotar

[36] Behin behineko datuak.
[37] 2008/2009 ikasturteko grafikoak lehen eta bigarren zikloan eta graduan matrikulatutako ikasle kanpotarrei buruzko informazioa barneratzen du.
[38] Lehen eta bigarren zikloko adarrak graduko adarretara egokitu ditugu.

gutxieneko adarra izan zen, ikasle atzerritar guztien %4,4ko portzentajearekin.

Aukeratutako irakaskuntza adarraren araberako banaketa, ikasle kanpotarrentzat aztertzeaz gain, ikasleen totalerako ere azter daiteke. Jarraian aurkezten den grafikoan irakaskuntza adar bakoitzean matrikulatutako ikasleen portzentajea agertzen da. Portzentaje hauek atzerritarrentzat lortutakoen antzekoak diren arren, kanpotarrek artea eta giza zientziak eta osasun zientziak aukeratzeko joera handiagoa dutela azpimarra daiteke.

Irakaskuntza Adarraren araberako Lehen eta Bigarren Zikloko Ikasleen Banaketa[394041]



Iturria: Egileak moldatua Hezkuntza Ministerioaren 2008/2009 ikasturteko Ikasle Unibertsitarioen Estatistikaren Aurrerapeneko datuak oinarri hartuta.

[39] Behin behineko datuak.
[40] 2008/2009 ikasturteko grafikoak lehen eta bigarren zikloan eta graduan matrikulatutako ikasleei buruzko informazioa barneratzen du.
[41] Lehen eta bigarren zikloko adarrak graduko adarretara egokitu dira.

JATORRIA ETA IRAKASKUNTZA ADARRA

Aurreko azpiataletan ikasle internazionalen jatorria eta ikasle internazionalek aukeratutako irakaskuntza adarra modu independentean aztertu ditugu. Hau da, alde batetik, sorlekuaren araberako ikasle kanpotar guztien banaketa aurkeztu dugu eta beste alde batetik, aukeratutako adarraren araberako ikasle atzerritarren banaketa analizatu dugu.

Azpiatal honetan, ordea, ezaugarri biak batera kontsideratu ditugu. Hots, alde batetik, irakaskuntza adar bakoitzerako jatorri ezberdineko ikasle kopurua aztertu dugu eta beste alde batetik, kontsideratutako eskualde bakoitzetik datozen ikasleentzako irakaskuntza adar gustukoenak etsaminatu ditugu. Ondorengo taulan 2005/2006 ikasturteko nazioarteko ikasleen banaketa ikus daiteke haien jatorria eta aukeratutako irakaskuntza adarra batera kontuan izanda[42].

Lehen eta Bigarren Zikloan Matrikulatutako Ikasle Kanpotarrak Irakaskuntza Adarra eta Jatorriaren arabera

	IRAKASKUNTZA ADARRA					
ESKUALDEA	**Giz. eta zuz. zientziak**	**Ikask. tek.**	**Human.**	**Zientzia esperiment.**	**Osasun zientziak**	**TOTALA**
Europar Batasuna (25)	3.160	1.632	1.525	369	1.004	**7.690**
Europako gain. herrialdeak	1.641	522	486	123	208	**2.980**
Afrikako iparraldea	768	1.344	160	148	1.263	**3.683**
Afrikako gain. herrialdeak	424	239	64	34	146	**907**

[42] Hezkuntza Ministerioaren web orrian informazio hau ez dago erabilgarri ikasturte guztietarako. Ondorioz, hemen 2005/2006 ikasturteko datuak erabili ditugu.

	IRAKASKUNTZA ADARRA					
ESKUALDEA	**Giz. eta zuz. zientziak**	**Ikask. tek.**	**Human.**	**Zientzia esperiment.**	**Osasun zientziak**	**TOTALA**
Ipar Amerika	567	162	247	50	75	**1.101**
Erdialdeko Amerika	424	134	67	26	106	**757**
Hego Amerika	3.755	1.472	639	380	700	**6.946**
Asia eta Ozeania	490	479	124	62	205	**1.360**
TOTALA	**11.229**	**5.984**	**3.312**	**1.192**	**3.707**	**25.424**

Iturria: Egileak moldatua Hezkuntza Ministerioaren 2005/2006 ikasturteko Ikasle Unibertsitarioen Estatistikako datuak oinarri hartuta.

Ondoko grafikoetan, irakaskuntza adar bakoitzerako, sorlekuaren araberako ikasle internazionalen banaketa aurkezten da. Informazio honek adar bakoitzean munduko eskualde ezberdinek duten garrantziari buruzko ideia orokor bat eskaintzen du. Irakaskuntza adar bakoitzerako nazioarteko eskari maila erlatiboa ere aurkezten da atzerritarren ehunekoaren bidez adierazita.

Sorlekuaren araberako Lehen eta Bigarren Zikloko Ikasle Kanpotarren Banaketa





Iturria: Egileak moldatua Hezkuntza Ministerioaren 2005/2006 ikasturteko Ikasle Unibertsitarioen Estatistikako datuak oinarri hartuta.

Lehenenik, humanitateetan eta osasun zientzietan nazioarteko eskari maila erlatiboa gainontzeko adarretan baino nabarmenki handiagoa dela aipatu beharra dago.

Bestalde, lehenengo grafikoak munduko eskualde ezberdinek Espainiako goi mailako ikasketen nazioarteko eskarian duten pisua

adierazten du. Lehengo grafiko horri so eginez bistakoa da lehen eta bigarren zikloko ikasle atzerritarrak gehienbat Europatik, Hego Amerikatik eta Afrikako iparraldetik datozela.

Gainera, gizarte eta zuzenbide zientzien adarrerako, Amerikatik eta Europako gainontzeko herrialdeetatik datozen ikasleen garrantzia areagotzen dela ikus daiteke.

Ikasketa teknikoetan, ostera, Afrikako iparraldeko eta Asia eta Ozeaniako ikasleak dira pisu handiagoa hartzen dutenak.

Era berean, humanitateen adarreko banaketa begiratuz, argi eta garbi ikusten da adar honetan, europarren eta iparramerikarren portzentajea adar guztientzako lortutako europarren eta iparramerikarren portzentajea baino handiagoa dela.

Beste alde batetik, zientzia esperimentaletan, ikasle hegoamerikarren proportzioa atzerritarren totalerako lortutako ikasle hegoamerikarren proportzioa baino handiagoa dela ere hauteman daiteke.

Azkenik, osasun zientzietan, Afrikako iparraldetik datozen ikasleak dira garrantzi gehien hartzen dutenak. Irakaskuntza adar honetan, ikasle atzerritarren herena baino gehiago Afrikako iparraldetik dator. Horrez gain, Afrikako gainontzeko herrialdeetako eta Asia eta Ozeaniako ikasleen portzentajeak atzerritarren totalerako baino zertxobait handiagoak dira.

Beste aukera bat, jatorri bakoitzeko ikasleentzako, aukeratutako irakaskuntza adarraren araberako banaketa ikertzea da. Ondoko grafikoek, munduko eskualde bakoitzerako, adar ezberdinetako ikasleen proportzioari buruzko informazioa

eskaintzen dute. Honela, jatorri ezberdineko ikasleek gogokoen dituzten irakaskuntza adarrak antzeman ditzakegu.

Irakaskuntza Adarraren araberako Lehen eta Bigarren Zikloko Ikasle Kanpotarren Banaketa





Iturria: Egileak moldatua Hezkuntza Ministerioaren 2005/2006 ikasturteko Ikasle Unibertsitarioen Estatistikako datuak oinarri hartuta.

Aurreko grafikoak aztertuz nazioarteko ikasleek normalean gizarte eta zuzenbide zientziak eta ikasketa teknikoak nahiago dituztela ondoriozta dezakegu. Osasun zientziekin, humanitateekin eta zientzia esperimentalekin erlazionatutako ikasketek ikasle atzerritar gutxiago erakartzen dituztela ikus daiteke.

Jatorri bakoitzeko ikasleei arreta ematen badiegu Europar Batasuneko ikasleek humanitateetan atzerritarren osotasunak baino portzentaje handiagoa aurkezten dutela esan dezakegu.

Modu berean, Europako gainontzeko herrialdeetako ikasle atzerritarrek gizarte eta zuzenbide zientziak eta humanitateak aukeratzeko atzerritarren totalak baino joera handiagoa dutela egiazta daiteke.

Afrikako iparraldekoek, ordea, atzerritar guztiekin alderatuz, osasun zientzietan eta ikasketa teknikoetan portzentaje nabarmenki handiagoa aurkezten dutela ikus daiteke.

Afrikako gainontzeko herrialdeetako ikasleen lehentasunak begiratuz, gizarte eta zuzenbide zientzietan, ikasketa teknikoetan eta osasun zientzietan portzentaje zertxobait handiagoa dutela hauteman daiteke.

Bestalde, Amerikako eskualde ezberdinetatik datozen ikasleak gizarte eta zuzenbide zientziak ikasteko atzerritarren osotasunak baino joera handiagoa dutela baiezta dezakegu. Gainera, Ipar Amerikakoek humanitateetan atzerritarren totalak baino portzentaje handiagoa aurkezten dute.

Azkenik, Asia eta Ozeaniako nazioarteko ikasleen kasurako, ikasketa teknikoen garrantzi handiagoa antzeman daiteke. Horrez gain, jatorri honetako ikasleek osasun zientziak aukeratzeko atzerritarren osotasunak baino joera zerbait handiagoa aurkezten dutela ere egiazta daiteke.

3.2.3 Unibertsitate Mailako Ikasketen Nazioarteko Eskaria Autonomia Erkidegoetan

Aproposa iruditu zaigu autonomia erkidego ezberdinetako goi mailako ikasketen nazioarteko eskari mailari buruz ere aipamen txiki bat egitea. Hurrengo grafikoak autonomia erkidego bakoitzarentzat 2007/2008 eta 2008/2009 ikasturteetako ikasle

atzerritarren portzentajeak aurkezten ditu. Oro har, bi ikasturte horietan zehar kopuruak gehiegi aldatu ez direla esan daiteke.

Lehen eta Bigarren Zikloko Ikasle Atzerritarren Portzentajea Aurrez Aurreko Unibertsitateetan[43][44]



Iturria: Egileak moldatua Hezkuntza Ministerioaren 2007/2008 eta 2008/2009 ikasturteetako Ikasle Unibertsitarioen Estatistikaren Aurrerapeneko datuak oinarri hartuta.

[43]Behin behineko datuak.

[44] 2008/2009 ikasturteko grafikoak lehen eta bigarren zikloan eta graduan matrikulatutako ikasleei buruzko informazioa barneratzen du.

Madrilgo Erkidegoa, Katalunia eta Andaluzia, 2008/2009 ikasturtean zehar, aurrez aurreko unibertsitateetan, lehen eta bigarren zikloko eta graduko ikasle kanpotar gehien jaso zituzten lurraldeak izan ziren. Hala ere, erkidego hauek matrikulatutako ikasle unibertsitario gehien dituzten erkidegoak dira ere, eta ondorioz, ikasle atzerritarren portzentaje antzekoa edo handiagoa duten beste erkidego batzuk aurki ditzakegu.

Grafikoan, Madrilgo Erkidegoa eta Katalunia ikasle kanpotarren proportzio handieneko lurraldeen artean daudela ikus daiteke, Andaluzia, ostera, Espainiako batez bestekoaren azpitik kokatzen da.

3.3 Titulazio Unibertsitarioen Nazioarteko Eskaria

Espainiako unibertsitate mailako ikasketen nazioarteko eskaria bere osotasunean etsaminatu ondoren, atal honetan, Espainiako sistema unibertsitarioak eskaintzen dituen lehen eta bigarren zikloko titulazio ezberdinen eskariari buruz sakondu nahiko genuke. Zehazkiago, titulazio unibertsitarioen nazioarteko eskari mailaz eta eskari horren jatorriaz arduratuko gara.

Analisia burutzeko erabili dugun informazioa Hezkuntza Ministerioak 2005/2006 ikasturterako argitaratu zuen Ikasle Unibertsitarioen Estatistikatik atera dugu. Estatistika honek, besteak beste, sistema unibertsitario espainolaren lehen eta bigarren zikloko

titulazioetan matrikulatutako ikasleei buruzko behin betiko datuak jasotzen ditu[45].

Ondoko lerrootan, gure helburua Espainiako titulazio unibertsitarioen eskari internazionalari buruzko ikuspegi orokor bat ematea izango da. Lehenik, titulazioen nazioarteko eskari maila aztertuko dugu, kanpotarren kopuru edo portzentajearen bidez adierazita[46]. Bigarrenik, eskari horren jatorria ikertuko dugu, nazionalitate ezberdineko atzerritarren kopuru edo portzentajearen bidez adierazita[47].

Puntu honen lehenengo azpiatalean titulazioen nazioarteko eskari mailaz arituko gara eta titulazio hauen sailkapen bat eskainiko dugu bakoitzaren ikasle kanpotarren proportzioaren arabera. Bigarren azpiatalean eskari internazionalaren jatorriari buruz mintzatuko gara eta titulazioen taldekatze bat aurkeztuko dugu nazionalitate ezberdineko ikasleen proportzioaren arabera. Horrez gain, lortutako titulazio taldeen arteko diferentzia nagusiak aztertuko ditugu.

Kasu bietan titulazioen sailkapena egiteko erabili dugun teknika goranzko kluster analisi hierarkiko bat izan da. Aurreko

---

[45] Kapitulu honen eranskinean analisian erabilitako aldagaiak agertzen dira. Hauetatik, batzuk, Ikasle Unibertsitarioen Estatistikak eskaintzen ditu eta beste batzuk, lehenengoak erabiliz sortuak izan dira.

[46] Ikasle Unibertsitarioen Estatistikan Erasmus bezalako mugikortasun programetan parte hartzen dutenak ez dira ikasle kontsideratzen. Beraz, programa horietan parte hartu zuten ikasle atzerritarrak ez daude sarturik ikasle kanpotarren kopuru totalean.

[47] 2005/2006 ikasturteko Ikasle Unibertsitarioen Estatistikan ikasle atzerritarren nazionalitateari buruzko informazioa zortzi eskualde geografikotan taldekaturik dago: Europar Batasuna, Europako gainontzeko herrialdeak, Afrikako iparraldea, Afrikako gainontzeko herrialdeak, Ipar Amerika, Erdialdeko Amerika, Hego Amerika eta azkenik Asia eta Ozeania. Eskualde bakoitzean barneratutako herrialdeak kapitulu honen eranskinean agertzen dira.

kapituluan esan dugu Kotler eta Foxek (1995) teknika honek objektu mota ezberdinak sailkatzeko duen erabilgarritasuna azaltzen dutela. Guri ere kluster analisia teknika aproposa iruditu zaigu kasu honetan titulazioak edo unibertsitateak sailkatzeko.

3.3.1 Espainiako Sistema Unibertsitarioaren Titulazioen Sailkapena Nazioarteko Eskari Mailaren arabera

Azpiatal honetan, kluster analisi baten bidez, lehen eta bigarren zikloko titulazioen sailkapen bat proposatuko dugu, titulazio bakoitzaren nazioarteko eskari maila kontuan izanda. Hots, talde ezberdinak mugatuko ditugu titulazio unibertsitario bakoitzaren ikasle internazionalen portzentajean oinarrituz.

Normalean, kluster analisi batean, distantzien kalkuluan parte hartzen duten hainbat aldagai erabiltzen dira. Hala eta guztiz ere, kasu honetan, titulazioen sailkapenean atzerritarren portzentajeak bakarrik eragina izatea nahi dugu, eta hortaz, banakoen arteko distantzien kalkuluan ikasle kanpotarren portzentajea besterik ez dugu kontuan hartuko.

Analisian aldagai bakarrak parte hartzen duenez, titulazioen sailkapena egiteko posible izango litzateke ere titulazio talde bakoitzaren atzerritarren portzentaje minimo edo maximoa adierazten duten ebaketa puntuak modu arbitrarioan ezartzea. Baina kasu horretan ez ginateke titulazio ezberdinen arteko distantzien edo diferentzien tamaina kontuan hartzen egongo ezta lortutako taldeen barruko homogeneotasuna kontsideratzen egongo ere. Hau da, kasu

horretan, posible izango litzateke titulazio baten atzerritarren portzentajea bere taldeko titulazioen portzentajeetatik oso ezberdina izatea eta beste talde batetako titulazioen portzentajeen oso antzekoa izatea.

Beraz, titulazio unibertsitarioen taldekatzea burutzeko kluster analisi bat erabili dugu eta sailkapen aldagai bezala titulazio bakoitzaren ikasle internazionalen portzentajea besterik ez dugu hartu. Teknika honen aplikazioaren bidez titulazio multzo homogeneoak lortu nahi ditugu.

Taldeen eraketarako goranzko prozedura hierarkiko bat hautatu dugu, antzekotasun neurri bezala distantzia euklidear karratua erabiliz eta elkarketa metodo bezala Warden metodoa aukeratuz.

Lortutako emaitzak aztertuz posible da ikasle atzerritarren portzentajearen araberako lau titulazio multzo ezberdin identifikatzea. Talde hauetako bakoitza ondorengo titulazioek osatzen dute.

Nazioarteko Eskari Mailaren araberako Titulazio Taldeak[48]

1. TALDEA	
Ikasle internazionalen batez besteko portzentajea	**%1,01**
Enpresen Administrazioan eta Zuzend. L.	Nekazaritza I.T., Landa Mek. eta E. esp.
Jarduera Fisikoaren eta Kirol Zientzietan L.	Industria Diseinuko I.T.
Ekonomia eta Enpresa Zientzietan L.	Basogintzako I.T.
Ikus-entzunezko Komunikazioan L.	Basogintzako I.T., Baso Ustiapenak esp.
Zuzenbidean L.	Basogintzako I.T., Baso Industriak esp.
Pedagogian L.	Industria I.T.
Kazetaritzan L.	Industria I.T., Elektrizitatea esp.
Psikologian L.	Industria I.T., Industria Elektronika esp.
Nekazaritza I.	Industria I.T., Mekanika esp.
Bide, Ubide eta Portuetako I.	Industria I.T., Industria Kimika esp.

[48] Desagertuko diren titulazioak: Ekonomia eta Enpresa Zientzietan L.;Aeronautika I.T.; Nekazaritza I.T.; Basogintzako I.T.; Industria I.T.; Meatzeen I.T.; Itsasontzi I.T.; Herri Lanen I.T.; Telekomunikazio I.T..

1. TALDEA	
I. Geologoa	Gestioaren Informatikako I.T.
Industria I.	Sistemen Informatikako I.T.
Mendietako I.	Meatzeen I.T.
I. Kimikoa	Meatzeen I.T., Meatzeen Ustiapena esp.
Itsasketa Zibilean L.	Meatzeen I.T., Meatzeen Ins. Elekm. esp.
Filologian L.	Meatzeen I.T., Mineralurgia eta Met. esp.
Filologia Katalanean L.	Meatzeen I.T., Meatze Zun. eta Pros. esp.
Filologia Klasikoan L.	Itsasontzi I.T.
Galiziar Filologian L.	Itsasontzi I.T., Itsas Egiturak esp.
Euskal Filologian L.	Itsasontzi I.T., Propul. eta Itsas. Zer. esp.
Geografian L.	Herri Lanen I.T.
Historian L.	Herri Lanen I.T., Eraikuntza Zibilak esp.
Artearen Historian L.	Herri Lanen I.T., Hidrologia esp.
Biologian L.	Herri Lanen I.T., Gar. eta Hiri Zer. esp.
Bioteknologian L.	Telekomunikazio I.T., Soinu eta iru. esp.
Ingurugiro Zientzietan L.	Telekomunikazio I.T., Telematika esp.
Itsasoko Zientzietan L.	Topografiako I.T.
Fisikan L.	Giza Elikadura eta Dietetikako D.
Geologian L.	Optika eta Optometrian D.
Matematikan L.	Erizaintzan D.
Kimikan L.	Fisioterapian D.
Bibliotekonomia eta Dokumentazioan D.	Logopedian D.
Enpresa Zientzietan D.	Podologian D.
Gizarte hezkuntzan D.	Terapia Okupazionalean D.
Kudeaketa eta Administrazio Publikoan D.	Lan Zientzietan L.
Lan harremanetan D.	Kriminologian L.
Gizarte Langintzako D.	Dokumentazioan L.
Irakaslea, Entzumen eta Lengoaia esp.	Psikopedagogian L.
Irakaslea, Hezkuntza Bereziko esp.	Automatika eta Industria Elektronikako I.
Irakaslea, Hezkuntza Fisikoko esp.	Elektronikako I.
Irakaslea, Haur Hezkuntzako esp.	Geodesia eta Kartografia I.
Irakaslea, Musika Hezkuntzako esp.	Materialen I.
Irakaslea, Lehen Hezkuntzako esp.	Industria Antolakuntzako I.
Irakaslea, Atzerritar Hizkuntzako esp.	Nautika eta Itsas Garraioan L.
Arkitektura Teknikoa	Itsasontzi Irrati-elektronikan L.
Itsasontzi Makinetan D.	Gizarte eta Kultur Antropologian L.
Itsasketa Zibilean D.	Historian eta Musikaren Zientzietan L.
Itsasontzi Irrati-elektronikan D.	Literaturaren Teorian eta Lit. Konpar. L.
Aeronautika I.T.	Biokimikan L.
Nekazaritza I.T.	Elikagaien Zientzia eta Teknologian L.
Nekazaritza I.T., Nek. eta Abeltz. Usti. esp.	Estatistika Zientzia eta Tekniketan L.
Nekazaritza I.T., Hortofrutik. eta Lorez. esp.	Enologian L.
Nekazaritza I.T., Nek. eta Elikagai Ind. esp.	

2. TALDEA	
Ikasle internazionalen batez besteko portzentajea	**%2,96**
Politika eta Administrazio Zientzietan L.	Medikuntzan L.
Ekonomian L.	Odontologian L.
Publizitatean eta Harreman Publikoetan L.	Albaitaritzan L.
Soziologian L.	Turismoan D.
Arkitektura	Itsas Nabigazioan D.
Aeronautika I.	Aeronautika I.T., Aeromotorrak esp.
Informatika I.	Aeronautika I.T., Aireko nabigazio esp.

2. TALDEA	
Meatzeen I.	Aeronautika I.T., Aireontziak esp.
Itsasontzi eta Ozeano I.	Meatzeen I.T., Bal. En., Err. eta Leh. esp.
Telekomunikazio I.	Telekomunikazio I.T., Tel. Sistemak esp.
Arte Ederretan L.	Telekomunikazio I.T., Sistema Elek. esp.
Aleman Filologian L.	Telekomunikazio I.T.
Filologia Hispanikoan L.	Estatistikan D.
Ingeles Filologian L.	Aktuariotza eta Finantza Zientzietan L.
Portuges Filologian L.	Merkatuen Ikerketa eta Tekniketan L.
Filologia Erromanikoan L.	Itsasontzi Makinetan L.
Filosofian L.	Ekialdeko Asiako Ikasketetan L.
Humanitateetan L.	
3. TALDEA	
Ikasle internazionalen batez besteko portzentajea	**%39,01**
Zuzenbidean L. (Plan Hispano-Frantsesa)[49]	
4. TALDEA	
Ikasle internazionalen batez besteko portzentajea	**%7,52**
Arabiar Filologian L.	Farmazian L.
Eslaviar Filologian L.	Aeronautika I.T., Aireportuak esp.
Frantses Filologian L.	Aeronautika I.T., Ekipo eta Mat.
Hebrear Filologian L.	Aeroespaz. esp.
Italiar Filologian L.	Industria I.T., Ehungintza esp.
Itzulpengintza eta Interpretazioan L.	Linguistikan L.

Iturria: Egileak moldatua

Titulazio taldeak ezberdintzen dituzten ezaugarriak determinatzeko asmoz hainbat faktore bakarreko bariantzaren analisi aplikatu ditugu. Bariantzaren analisi hauekin titulazioen zenbait ezaugarrik talde ezberdinetan aurkezten duten aldakortasuna aztertu nahi dugu. Hortaz, titulazioen ezaugarri horiek analisiaren menpeko aldagai bezala erabiliko ditugu eta titulazio bakoitza talde batekoa edo bestekoa den adierazten duen aldagai bat faktore edo aldagai independente bezala.

[49] 1995/1996 ikasturte akademikoan zehar Madrileko Unibertsitate Complutenseko zuzenbide fakultatean, zuzenbidean lizentziatura, plan hispano–frantses bateratua ezarri zen. Lizentziatura honetan zuzenbide frantses eta espainolarekin erlazionatutako ikasketak kondentsatzen dira. Titulazioaren iraupena lau urtetakoa da (lehenengo biak Madrileko Unibertsitate Complutensean eta azken biak Pariseko I Unibertsitatean).

Ikertutako aldagaien artean, titulazioen ikasleen adinarekin eta sexuarekin erlazionatutakoak aurki ditzakegu. Horrez gain, titulazioen jatorri ezberdineko ikasleen portzentaje eta kopuruaren aldakortasuna ere analizatuko dugu. Analisiaren emaitza bezala ondorengo aldagaiei dagokienez titulazio talde ezberdinen artean diferentzia esanguratsurik ez dagoela ikusi dugu.

- Matrikulatuen totala
- Atzerritarren totala
- Gazteak portzentajea
- Helduak portzentajea
- Emakumeen portzentajea
- Europako gain. herr. ikasleak
- Afrikako gain. herr. ikasleak
- Erdialdeko Amerika ikasleak
- Hego Amerika ikasleak
- Europar Batasuna portzent.
- Europako gain. herr. portzentajea
- Afrikako iparraldea portzentajea
- Afrikako gain. herr. portzentajea
- Ipar Amerika portzentajea
- Erdialdeko Amerika portzentajea

Ondoko aldagaiak, berriz, titulazio unibertsitario talde ezberdinetan nabarmenki diferenteak direla egiaztatu dugu[50].

- Atzerritarren portzentajea
- Adin ertaina portzentajea
- Europar Batasuna ikasleak
- Afrikako iparraldea ikasleak
- Ipar Amerika ikasleak
- Hego Amerika portzentajea
- Oso gazteak portzentajea
- Asia eta Ozeania ikasleak
- Asia eta Ozeania portzentajea

Diferentzia adierazgarriak aurkezten dituzten aldagaien kasurako, zehatz-mehatz desberdinak diren titulazio taldeak determinatu ahal izateko beharrezkoa da konparaketa anizkoitzeko proba bat burutzea. Ondoren aurkezten ditugun taulek Duncanen probaren emaitzak erakusten dituzte identifikatutako aldagai esanguratsuetarako[51].

[50] Azken hiru aldagaiak 0,10eko esangura maila baterako dira esanguratsuak.

[51] Aurreko kapituluan adierazi bezala ezinezkoa da proba hauek burutzea faktorearen kategoriaren bat bi kasu baino gutxiago dituenean. Gure analisi honetan hirugarren taldeak kasu bakarra dauka: zuzenbidean lizentziatura (plan hispano-frantsesa) hain zuzen ere. Titulazio honek gainontzeko titulazioak baino

Atzerritarren portzentajea

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)		
		1	2	3
1	105	1,0198		
2	35		2,9623	
4	11			7,5264
Esang.		1,000	1,000	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Aurreko taulako datuak begiratuz argi eta garbi geratzen da, zuzenbidean lizentziatura (plan hispano-frantsesa) alde batera utzita, laugarren talde edo klusterrean dauden hamaika titulazioek gainontzeko taldeetako titulazioek baino kanpotarren portzentaje nabarmenki handiagoa dutela. Era berean, titulazio kopuru gehieneko lehenengo taldeak nazioarteko eskari maila txikiena duela esan dezakegu.

Adin ertaina portzentajea

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
4	11	15,2282	
2	35	17,8574	17,8574
1	105		21,9816
Esang.		,392	,180

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Adin ertaineko ikasleen portzentajeari dagokionez, laugarren taldeak 26 eta 30 urte bitarteko adina duten ikasleen portzentaje txikiena duela esan dezakegu. Lehenengo taldearen adin ertaineko ikasleen portzentajea, ordea, laugarren taldearena baino nabarmenki handiagoa da.

---

atzerritarren portzentaje askoz handiagoa dauka eta taldekatzea burutzeko kontuan izan dugun arren, kluster ezberdinak eratu ondoren, hirugarrena analisitik ezabatu dugu kasu bakarra izateagatik. Beraz, beste hiru titulazio taldeen arteko diferentziak bakarrik aztertu ditugu.

Europar Batasuna ikasleak

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)
		1
1	105	39,16
4	11	50,91
2	35	84,34
Esang.		,108

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Afrikako iparraldea ikasleak

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
1	105	15,34	
2	35	28,74	
4	11		96,82
Esang.		,581	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Ipar Amerika ikasleak

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
4	11	1,91	
1	105	5,96	5,96
2	35		12,97
Esang.		,334	,096

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Beste alde batetik, titulazio talde ezberdinek ikasle atzerritarren kopuru totalari dagokionez diferentzia adierazgarririk aurkezten ez duten arren, goiko tauletan nabarmen geratzen da zenbait jatorrietako ikasleen kopuruari dagokionez titulazio taldeen artean diferentziak existitzen direla.

Zehazki, Afrikako iparraldeko ikasleen batez besteko kopurua laugarren taldean gainontzeko titulazio taldeetan baino nabarmenki handiagoa dela egiazta daiteke. Ipar Amerikako ikasleen batez

besteko kopurua, aldiz, bigarren taldean laugarren taldean baino nabarmenki handiagoa da.

Hego Amerika portzentajea

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05) 1	2
4	11	12,6082	
2	35		22,3123
1	97		26,5119
Esang.		1,000	,308

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Dena den, jatorri ezberdineko atzerritarren portzentajeak aztertuz, titulazio taldeen artean, ikasle hegoamerikarren ehunekoari dagokionez baino ez direla diferentzia esanguratsuak existitzen ikus dezakegu. Kasu honetan, titulazioen laugarren taldeak, hau da, nazioarteko eskari maila altuena duen taldeak, gainontzeko taldeak baino ikasle hegoamerikarren portzentaje nabarmenki txikiagoa du.

Oso gazteak portzentajea

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05) 1
1	105	29,7970
2	35	36,0897
4	11	40,5882
Esang.		,067

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Asia eta Ozeania ikasleak

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05) 1
4	11	5,00
1	105	7,38
2	35	15,14
Esang.		,063

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Asia eta Ozeania portzentajea

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05) 1
1	97	4,7806
2	35	7,5749
4	11	8,1655
Esang.		,119

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Azkenik, goiko taulek 0,10eko esangura maila baterako esanguratsuak diren hiru aldagaientzako Duncanen probaren emaitzak aurkezten dituzte.

Emaitza hauek agerian jartzen dute laugarren taldean 18 eta 21 urte bitarteko adina duten ikasleen portzentajea gainontzeko taldeetan baino handiagoa dela. Modu berean, laugarren taldea Asia eta Ozeaniako ikasle kopuru gutxieneko taldea den arren, jatorri horretako ikasleen portzentajerik handieneko taldea dela ere ikus dezakegu.

3.3.2 Espainiako Sistema Unibertsitarioaren Titulazioen Sailkapena Nazioarteko Eskariaren Jatorriaren arabera

Sistema unibertsitario espainolak eskaintzen dituen titulazioak haien nazioarteko eskariaren jatorriaren arabera ere taldekatu ditzakegu. Azpiatal honetan titulazio bakoitzaren jatorri ezberdineko ikasleen proportzioaren araberako sailkapen bat aurkeztuko dugu.

Hau da, aurreko azpiatalean egin dugun bezala, taldekatzea goranzko kluster analisi hierarkiko bat aplikatuz burutuko dugu, baina oraingoan sailkapen aldagai gisa jatorri ezberdinetako kanpotarren portzentajeak erabiliko ditugu. Antzekotasun neurri bezala distantzia euklidear karratua aukeratu dugu eta elkarketa metodo bezala Warden metodoa.

Emaitzak etsaminatuz hurrengo taulan aurkezten ditugun bi titulazio talde ezberdindu ditzakegu.

Nazioarteko Eskariaren Jatorriaren araberako Titulazio Taldeak[52]

1. TALDEA	
Jatorri ezberdineko nazioarteko ikasleen batez besteko portzentajea	
Europar Batasuna:	%27,5155
Europako gainontzeko herrialdeak:	%8,5091
Afrikako iparraldea:	**%16,5742**
Afrikako gainontzeko herrialdeak:	**%4,6027**
Ipar Amerika:	%3,3970
Erdialdeko Amerika:	**%3,4410**
Hego Amerika:	**%29,0147**
Asia eta Ozeania:	**%6,9470**

Enpresen Administrazioan eta Zuzend. L.	Aeronautika I.T., Ekipo eta Mat. Aeroes. esp.
Politika eta Administrazio Zientzietan L.	Nekazaritza I.T., Nek. eta Abelt. Ustiap. esp.
Ikus-entzunezko Komunikazioan L.	Nekazaritza I.T., Hortofrutik. eta Lorez. esp.
Zuzenbidean L.	Nekazaritza I.T., Nek. eta Elikagai Ind. esp.
Ekonomian L.	Nekazaritza I.T., Landa Mekan. eta E. esp.
Pedagogian L.	Industria Diseinuko I.T.
Kazetaritzan L.	Industria I.T.
Psikologian L.	Industria I.T., Elektrizitatea esp.
Publizitatean eta Harreman Publikoetan L.	Industria I.T., Industria Elektronika esp.
Soziologian L.	Industria I.T., Mekanika esp.
Aeronautika I.	Industria I.T., Industria Kimika esp.
Bide, Ubide eta Portuetako I.	Industria I.T., Ehungintza esp.
I. Geologoa	Gestioaren Informatikako I.T.
Informatika I.	Sistemen Informatikako I.T.
Itsasontzi eta Ozeano I.	Meatzeen I.T., Meatzeen Ustiapena esp.
I. Kimikoa	Meatzeen I.T., Bal. En., Er. eta Leher. esp.
Telekomunikazio I.	Meatzeen I.T., Meatzeen Zun. eta Prosp. esp.
Arte Ederretan L.	Itsasontzi I.T., Itsas Egiturak esp.

[52] Ondoko titulazioak ez dira sailkapenean agertzen atzerriko ikaslerik ez izateagatik: Meatzeen I.T., Meatzeen Instal. Elektromek. esp; Itsasontzi I.T,; Herri Lanen I.T.; Itsasontzi Irrati-elektronikan L.; Itsasketa Zibilean L.; Itsasketa Zibilean D.; Basogintzako I.T.; Nekazaritza I.T..

1. TALDEA	
Arabiar Filologian L.	Itsasontzi I.T., Propul. eta Itsasont. Zerb. esp.
Filologia Klasikoan L.	Herri Lanen I.T., Eraikuntza Zibilak esp.
Hebrear Filologian L.	Herri Lanen I.T., Hidrologia esp.
Filologia Erromanikoan L.	Herri Lanen I.T., Garraio eta Hiri Zerb. esp.
Filosofian L.	Telekomunikazio I.T., Telekom Sist. esp.
Biologian L.	Telekomunikazio I.T., Sistema Elektron. esp.
Ingurugiro Zientzietan L.	Telekomunikazio I.T., Soinu eta irudi esp.
Fisikan L.	Telekomunikazio I.T., Telematika esp.
Geologian L.	Telekomunikazio I.T.
Matematikan L.	Topografiako I.T.
Kimikan L.	Estatistikan D.
Farmazian L.	Giza Elikadura eta Dietetikako D.
Medikuntzan L.	Optika eta Optometrian D.
Odontologian L.	Erizaintzan D.
Bibliotekonomia eta Dokumentazioan D.	Fisioterapian D.
Enpresa Zientzietan D.	Logopedian D.
Gizarte hezkuntzan D.	Podologian D.
Kudeaketa eta Administrazio Publikoan D.	Terapia Okupazionalean D.
Lan harremanetan D.	Lan Zientzietan L.
Gizarte Langintzako D.	Kriminologian L.
Turismoan D.	Psicopedagogian L.
Irakaslea, Entzumen eta Lengoaia esp.	Automatika eta Industria Elektronikako I.
Irakaslea, Hezkuntza Bereziko esp.	Elektronikako I.
Irakaslea, Hezkuntza Fisikoko esp.	Geodesia eta Kartografia I.
Irakaslea, Haur Hezkuntzako esp.	Industria Antolakuntzako I.
Irakaslea, Musika Hezkuntzako esp.	Itsasontzi Makinetan L.
Irakaslea, Lehen Hezkuntzako esp.	Nautika eta Itsas Garraioan L.
Arkitektura Teknikoa	Gizarte eta Kultur Antropologian L.
Itsasontzi Makinetan D.	Ekialdeko Asiako Ikasketetan L.
Itsas Nabigazioan D.	Historian eta Musikaren Zientzietan L.
Aeronautika I.T.	Literaturaren Teorian eta Lit. Konparatz. L.
Aeronautika I.T., Aeromotorrak esp.	Elikagaien Zientzia eta Teknologian L.
Aeronautika I.T., Aireko nabigazio esp.	Estatistika Zientzia eta Tekniketan L.
Aeronautika I.T., Aireontziak esp.	Enologian L.
Aeronautika I.T., Aireportuak esp.	

2. TALDEA	
Jatorri ezberdineko nazioarteko ikasleen batez besteko portzentajea	
Europar Batasuna:	**%60,4697**
Europako gainontzeko herrialdeak:	**%12,1941**
Afrikako iparraldea:	%3,0821
Afrikako gainontzeko herrialdeak:	%1,3549
Ipar Amerika:	**%7,9826**
Erdialdeko Amerika:	%1,1895
Hego Amerika:	%11,4395
Asia eta Ozeania:	%2,2879
Jarduera Fisikoaren eta Kir. Zientzietan L.	Historian L.
Ekonomia eta Enpresa Zientzietan L.	Artearen Historian L.
Zuzenbidean L. (Plan Hispano-Frantsesa)	Humanitateetan L
Arkitektura	Itzulpengintza eta Interpretazioan L.
Nekazaritza I.	Bioteknologian L.
Industria I.	Itsasoko Zientzietan L.

2. TALDEA	
Meatzeen I.	Albaitaritzan L.
Mendietako I.	Irakaslea, Atzerritar Hizkuntzako esp.
Filologian L.	Itsasontzi Irrati-elektronikan D.
Aleman Filologian L.	Basogintzako I.T., Baso Ustiapenak esp.
Filologia Katalanean L.	Basogintzako I.T., Baso Industriak esp.
Eslaviar Filologian L.	Meatzeen I.T.
Frantses Filologian L.	Meatzeen I.T., Mineralurgia eta Metalur. esp.
Galiziar Filologian L.	Aktuariotza eta Finantza Zientzietan L.
Filologia Hispanikoan L.	Dokumentazioan L.
Ingeles Filologian L.	Merkatuen Ikerketa eta Tekniketan L.
Italiar Filologian L.	Materialen I.
Portuges Filologian L.	Linguistikan L.
Euskal Filologian L.	Biokimikan L.
Geografian L.	

Iturria: Egileak moldatua

Taula honek, lortutako titulazio talde bakoitzerako, jatorri ezberdineko ikasleen batez besteko portzentajea erakusten du. Portzentaje horien arabera, lehenengo taldeko titulazioetan Afrikako, Erdialdeko Amerikako, Hego Amerikako eta Asia eta Ozeaniako ikasleek bigarren taldeko titulazioetan baino pisu handiagoa dute. Europatik eta Ipar Amerikatik datozen ikasleak, alderantziz, bigarren taldeko titulazioetan lehenengo taldeko titulazioetan baino garrantzi handiagoa hartzen dute.

Talde bakoitzak jasotzen dituen titulazioak etsaminatuz, hemen lortutako emaitzak aurreko atalean atzerriko eskari totalerako lortutakoekin bat datozela ondoriozta dezakegu. Nazioarteko eskari totalaren kasurako humanitateen adarrean ikasle europar eta iparramerikarrek duten garrantzia azpimarratu dugu. Kasu honetan bigarren taldeko titulazioetan ikasle europar eta iparramerikarrek aparteko inportantzia dutela adierazi dugu eta goiko taulan ikus daitekeen moduan bigarren taldeko titulazioen kopuru handi bat humanitateen adarrekoa da.

Azpiatal honetan ere, lortutako titulazio taldeak ezberdintzen dituzten ezaugarriak identifikatzeko asmoz, zenbait bariantzaren analisi burutu ditugu. Bariantzaren analisi bakoitzean aztertu nahi dugun ezaugarria menpeko aldagai moduan erabiliko dugu eta banakoa titulazio talde batekoa edo bestekoa den adierazten duen aldagai bat faktore edo aldagai independente moduan. Analisiaren emaitzek agerian jartzen dute hurrengo aldagaiek bi titulazio taldeen artean diferentzia adierazgarririk aurkezten ez dutela.

- Atzerritarren totala
- Gazteak portzentajea
- Adin ertaina portzentajea
- Europar Batasuna ikasleak
- Europako gain. herr. ikasleak
- Afrikako iparraldea ikasleak
- Ipar Amerika ikasleak
- Erdialdeko Amerika ikasleak
- Asia eta Ozeania ikasleak

Modu berean, analisiaren emaitzak begiratuz, ondoko aldagaiek aztertutako bi titulazio taldeetan balio nabarmenki ezberdinak hartzen dituztela hauteman daiteke[53].

- Atzerritarren portzentajea
- Oso gazteak portzentajea
- Emakumeen portzentajea
- Hego Amerika ikasleak
- Europar Batasuna portzent.
- Europako gain. herr. portzentajea
- Afrikako iparraldea portzentajea
- Afrikako gain. herr. portzentajea
- Ipar Amerika portzentajea
- Erdialdeko Amerika portzentajea
- Hego Amerika portzentajea
- Asia eta Ozeania portzentajea
- Matrikulatuen totala
- Helduak portzentajea
- Afrikako gain. herr. ikasleak

Kasu honetan aldagai independenteak edo faktoreak bi balio posible besterik ez ditu hartzen, lehenengo taldekoa izatea edo bigarren taldekoa izatea. Hortaz, behin diferentzia adierazgarriak aurkezten dituzten aldagaiak identifikatuta, diferentzia horiek nolakoak diren ikusteko, aldagai esanguratsuek bi titulazio taldeetan hartzen dituzten balioak konpara ditzakegu. Ondorengo taulan, titulazio talde bakoitzerako, aldagai ezberdinen batez bestekoa,

[53] Azken hiru aldagaiak 0,10eko esangura maila baterako dira esanguratsuak.

desbideratze tipikoa, balio minimoa eta balio maximoa agertzen dira.

Deskribatzaileak

	TALDEA	N	Batez bestekoa	Desbideratze tipikoa	Minimoa	Maximoa
Atzerritarren portzentajea	1	105	1,8700	1,51006	,29	8,49
	2	39	3,4926	6,45959	,19	39,01
	Totala	144	2,3094	3,64281	,19	39,01
Oso gazteak portzentajea	1	105	35,4697	18,66600	,00	76,62
	2	39	27,5554	19,25689	,00	79,90
	Totala	144	33,3262	19,08910	,00	79,90
Emakumeen portzentajea	1	105	47,6377	23,01979	10,50	92,84
	2	39	56,7438	18,43458	15,94	82,22
	Totala	144	50,1040	22,18525	10,50	92,84
Hego Amerika ikasleak	1	105	58,39	112,780	0	715
	2	39	20,90	34,547	0	140
	Totala	144	48,24	99,233	0	715
Europar Batasuna portzentajea	1	105	27,5155	11,18693	,00	50,00
	2	39	60,4697	24,39576	,00	100,00
	Totala	144	36,4406	21,56689	,00	100,00
Europako gainontzeko herrialdeak portzentajea	1	105	8,5091	6,25283	,00	33,33
	2	39	12,1941	14,61621	,00	70,00
	Totala	144	9,5072	9,37577	,00	70,00
Afrikako iparraldea portzentajea	1	105	16,5742	17,68077	,00	80,77
	2	39	3,0821	5,35638	,00	21,43
	Totala	144	12,9201	16,46746	,00	80,77
Afrikako gainontzeko herrialdeak portzentajea	1	105	4,6027	8,12601	,00	58,62
	2	39	1,3549	2,07392	,00	10,71
	Totala	144	3,7231	7,15989	,00	58,62
Ipar Amerika portzentajea	1	105	3,3970	3,83327	,00	17,67
	2	39	7,9826	17,49727	,00	100,00
	Totala	144	4,6390	9,80937	,00	100,00
Erdialdeko Amerika portzentajea	1	105	3,4410	5,96819	,00	50,00
	2	39	1,1895	1,53686	,00	6,12
	Totala	144	2,8312	5,24792	,00	50,00
Hego Amerika portzentajea	1	105	29,0147	13,10160	,00	60,00
	2	39	11,4395	9,32202	,00	28,62
	Totala	144	24,2547	14,46916	,00	60,00
Asia eta Ozeania portzentajea	1	105	6,9470	7,66073	,00	40,00
	2	39	2,2879	2,85335	,00	9,52
	Totala	144	5,6851	7,01152	,00	40,00
Matrikulatuen totala	1	105	11551,59	17997,360	83	111062
	2	39	5782,13	8443,046	57	34311
	Totala	144	9989,03	16159,506	57	111062

Helduak portzentajea	1	105	13,4582	11,62566	1,30	60,62
	2	39	17,7497	15,49925	,55	88,43
	Totala	144	14,6205	12,87612	,55	88,43
Afrikako gainontzeko herrialdeak ikasleak	1	105	7,64	17,283	0	99
	2	39	2,69	4,618	0	16
	Totala	144	6,30	15,092	0	99

Bi titulazio taldeetako estatistiko deskribatzaileak alderatuz bigarren taldeko nazioarteko eskari maila lehenengo taldekoa baino handiagoa dela ikus dezakegu. Bigarren taldeko titulazioen kopuru garrantzitsu bat humanitateen adarrekoa dela kontuan izanda, hemen lortutako emaitzek aurreko atalean nazioarteko eskari totalerako lortutakoak gogora ekartzen dizkigute. Zehazkiago, aurreko atalean antzeko zerbait lortu dugula esan dezakegu, humanitateetan eta osasun zientzietan kanpotarren portzentajea gainontzeko adarretan baino handiagoa dela antzeman dugunean.

Beste alde batetik, ikasleen adinarekin eta sexuarekin erlazionatutako aldagaiei dagokienez, lehenengo titulazio taldean 18 eta 21 urte bitarteko ikasleen portzentajea bigarren taldean baino nabarmenki handiagoa dela hauteman dezakegu. Emakumezkoen portzentajea, aitzitik, handiagoa da bigarren taldean.

Ikasle kanpotarren jatorriari dagokionez, lortutako emaitzek agerian jartzen dute lehenengo titulazio taldean ikasle hegoamerikarren batez besteko kopurua bigarren taldean baino nabarmenki handiagoa dela. Gauza bera gertatzen da Afrikako, Erdialdeko Amerikako, Hego Amerikako eta Asia eta Ozeaniako ikasleen batez besteko portzentajearekin. Bigarren taldean, berriz, Europako eta Ipar Amerikako ikasleen ehuneko handiago bat, eta beraz, jatorri horietako ikasleengana orientazio handiago bat azpimarratu beharra dago.

Azkenik, 0,10eko esangura maila baterako esanguratsuak diren aldagaien inguruan, bai matrikulatuen batez besteko kopurua eta baita Afrikako gainontzeko herrialdeetako ikasleen batez besteko kopurua ere lehenengo taldean bigarrenean baino handiagoak direla baiezta dezakegu. Helduen batez besteko portzentajea, alderantziz, bigarren titulazio taldean da handiagoa.

3.4 Erakunde Unibertsitarioen Nazioarteko Eskaria

Atal honetan Espainiako unibertsitateen goi mailako hezkuntzaren eskari internazionalaz mintzatuko gara. Unibertsitate ezberdinen nazioarteko eskari mailari buruzko deskribapen orokor bat aurkezteaz gain, eskari horren jatorriari buruz ere arituko gara.

Aurreko atalean bezala, analisirako erabili ditugun datuak Hezkuntza Ministerioak 2005/2006 ikasturterako argitaratutako Ikasle Unibertsitarioen Estatistikatik datoz. Estatistika honetan Espainiako unibertsitate publiko eta pribatuetako prestakuntza maila ezberdinetako ikasleei buruzko behin betiko datuak agertzen dira. Hala ere, ikerlan honetan lehen eta bigarren zikloan matrikulatutako ikasleei buruzko informazioa besterik ez dugu erabili. Beraz, atal honetan, unibertsitateen goi mailako hezkuntzaren eskariari buruz hitz egiterakoan lehen eta bigarren zikloko ikasketa unibertsitarioen eskariaz bakarrik arituko gara[54].

[54] Kapitulu honen eranskinean analisian erabilitako aldagaiak aurkezten dira. Hauetatik, batzuk, Ikasle Unibertsitarioen Estatistikak eskaintzen ditu eta beste batzuk, lehenengoak erabiliz sortuak izan dira.

Bestalde, gaur egun Espainiako sistema unibertsitarioa osatzen duten 50 unibertsitate publiko eta 27 pribatuetatik, ikerketa honetan, 48 unibertsitate publiko eta 23 pribatu izango ditugu kontuan. Izan ere, 2005/2006 ikasturtean zehar, Andaluziako Nazioarteko Unibertsitateak, Menéndez Pelayo Nazioarteko Unibertsitateak, Madrileko Urruneko Unibertsitateak, Fernando III.a Unibertsitateak, Errioxako Nazioarteko Unibertsitateak eta Valentziako Nazioarteko Unibertsitateak ez zuten lehen eta bigarren zikloko irakaskuntzarik eman.

Puntu honen lehenengo azpiatalean Espainiako unibertsitateen atzerriko eskari maila aztertuko dugu. Bertan, instituzio unibertsitario bakoitzaren ikasle kanpotarren portzentajearen araberako taldekatze bat aurkeztuko dugu. Horrez gain, lortutako unibertsitate taldeen arteko ezberdintasun nagusiak azalduko ditugu.

Bigarren azpiatalean unibertsitate bakoitzeko ikasle internazionalen jatorriaz arituko gara. Interesgarria iruditu zaigu unibertsitate ezberdinen nazioarteko eskari mota konparatzea, horretarako, unibertsitate bakoitzaren ikasle atzerritarren jatorria behatuz. Hortaz, unibertsitateek leku ezberdinetatik datozen ikasleengana duten orientazioari buruz ideia orokor bat emateko asmoz, unibertsitate bakoitzean jatorri ezberdinetako atzerritarren portzentajea aztertu dugu.

3.4.1 Espainiako Unibertsitateen Sailkapena Nazioarteko Eskari Mailaren arabera

Arestian esan bezala, azpiatal honetan, Espainiako unibertsitateen sailkapen bat burutuko dugu unibertsitate bakoitzean nazioarteko ikasleriak duen garrantziaren arabera. Ondoren, lortutako unibertsitate taldeak ezberdintzen dituzten ezaugarriak identifikatzen saiatuko gara.

Unibertsitateen taldekatzea egiteko kluster analisi bat aplikatu dugu eta sailkapen aldagai moduan unibertsitate bakoitzaren atzerritarren portzentajea besterik ez dugu erabili. Helburua unibertsitate azpimultzo homogeneoak lortzea da.

Lehenago ere adierazi dugunez, kluster analisi bat aplikatzerakoan, normalean, distantzien kalkuluan parte hartzen duten hainbat sailkapen aldagai erabiltzen dira. Hala ere, kasu honetan, atzerritarren portzentajeak bakarrik baldintzatutako unibertsitateen sailkapen bat lortu nahi dugunez, banakoen edo unibertsitateen arteko distantzien kalkuluan kanpotarren proportzioa besterik ez dugu kontuan izango.

Aurreko atalean bezala, taldeen eraketan goranzko prozedura hierarkiko bat erabili dugu. Antzekotasun neurri bezala distantzia euklidear karratua aukeratu dugu eta elkarketa metodo bezala Warden metodoa. Sailkapen analisiaren emaitzen arabera hurrengo taulan aurkezten diren bost unibertsitate talde bereiz ditzakegu.

Nazioarteko Eskari Mailaren araberako Unibertsitate Taldeak

1. TALDEA	
Ikasle internazionalen batez besteko portzentajea	**%0,6744**
Coruñako U.	Cartagenako U. Politeknikoa

1. TALDEA	
San Jorge U.	Jaéneko U.
Burgoseko U.	Salamancako U. Pontifikala
San Antonio U. Katolikoa	Zaragozako U.
Gaztela-Mantxako U.	Valladolideko U.
Euskal Herriko U.	Huelvako U.
Urruneko Hezkuntzako U. Nazionala (UNED)	Cardenal Herrera CEU U.
Deustuko U.	Kantabriako U.
Oviedoko U.	Santiago de Compostelako U.
Pablo de Olavide U.	Rovira i Virgili U.
Avilako Santa Teresa de Jesús U. Katolikoa	Extremadurako U.
Mondragon U.	Errioxako U.
Miguel de Cervantes Europar U.	S.E.K. U.
Murtziako U.	
2. TALDEA	
Ikasle internazionalen batez besteko portzentajea	**%2,2524**
Madrileko U. Autonomoa	Salamancako U.
Pompeu Fabra U.	Kordobako U.
Nafarroako U.	La Lagunako U.
Kanaria Handiko las Palmasko U.	Valentziako Estudi General U.
Balear Uharteetako U.	Alcalako U.
Castellóko Jaume I.a U.	Elcheko Miguel Hernández U.
Comillaseko U. Pontifikala	Ramón Llull U.
Gironako U.	Madrileko Carlos III.a U.
Kataluniako U. Politeknikoa	
3. TALDEA	
Ikasle internazionalen batez besteko portzentajea	**%3,037**
Alacanteko U.	Granadako U.
Málagako U.	Francisco de Vitoria U.
Bartzelonako U. Autonomoa	Errege Juan Carlos U.
Bartzelonako U.	Kataluniako Nazioarteko U.
Madrileko U. Complutensea	Madrileko U. Politeknikoa
4. TALDEA	
Ikasle internazionalen batez besteko portzentajea	**%1,515**
Camilo José Cela U.	Sevillako U.
San Pablo CEU U.	Valentziako S. Vicente Mártir U. Kat.
Valentziako U. Politeknikoa	Alfontso X.a Jakituna U.
Vigoko U.	Almeríako U.
Lleidako U.	Cádizeko U.
Madrileko Europar U.	Abat Oliba CEU U.
Nafarroako U. Publikoa	Antonio de Nebrija U.
Viceko U.	Kataluniako U. Irekia
5. TALDEA	
Ikasle internazionalen batez besteko portzentajea	**%7,03**
Leóneko U.	

Iturria: Egileak moldatua

Sailkapena burutu ondoren, lortutako unibertsitate taldeek zenbait aldagaiei dagokienez aurkezten dituzten ezberdintasunak identifikatzen saiatu gara. Diferentzia horiek esanguratsuak diren edo ez determinatzeko asmoz faktore bakarreko bariantzaren analisi bat baino gehiago burutu dugu.

Bariantzaren analisi hauetan unibertsitateen ezaugarri ezberdinak menpeko aldagai bezala erabili ditugu eta unibertsitate bakoitza talde batekoa edo bestekoa den adierazten duen aldagai bat faktore edo aldagai independente bezala. Honela, unibertsitateen ezaugarri ezberdinek talde ezberdinetan aurkezten duten aldakortasuna etsaminatu daiteke.

Horrez gain, esanguratsuak diren aldagaien kasuan, zehatz-mehatz diferenteak diren unibertsitate taldeak identifikatu ahal izateko, konparaketa anizkoitzeko proba bat burutu dugu. Aurreko atalean bezala, honetan ere, Duncanen proba erabili dugu[55].

Beste gauza batzuen artean, matrikulatutako ikasleen kopuru totala unibertsitate talde ezberdinetan nabarmenki diferentea den aztertu dugu. Horretarako bariantzaren analisi bat burutu dugu matrikulatutako ikasleen kopuru totala menpeko aldagai bezala erabiliz eta unibertsitate bakoitza talde batekoa edo bestekoa den adierazten duen aldagaia faktore bezala erabiliz. Lortutako emaitzen arabera, nazioarteko eskari maila ezberdina duten unibertsitate

[55] Lehenago ere adierazi dugun bezala, ezinezkoa da proba hauek burutzea faktorearen kategoriaren bat bi kasu baino gutxiago dituenean. Burututako unibertsitateen sailkapenean bosgarren taldeak kasu bakarra dauka: Leóneko Unibertsitatea hain zuzen ere. Unibertsitate honek gainontzeko unibertsitateak baino kanpotarren portzentaje nabarmenki handiagoa dauka eta taldekatzea burutzeko kontuan izan dugun arren, kluster ezberdinak eratu ondoren, bosgarrena analisitik ezabatu dugu kasu bakarra izateagatik. Beraz, beste lau unibertsitate taldeen arteko diferentziak bakarrik aztertu ditugu.

taldeen artean ez dago diferentzia adierazgarririk matrikulatutako ikasleen kopuruari dagokionez.

Gainontzeko aldagaientzat analisi berdina burutu ondoren hurrengo aldagaiek unibertsitate talde ezberdinetan diferentzia esanguratsurik aurkezten ez dutela baiezta dezakegu.

- Matrikulatuen totala
- Giz. eta zuz. zientziak ikasleak
- Ikasketa teknikoak ikasleak
- Humanitateak ikasleak
- Giz. eta zuz. zientziak portzentajea
- Ikasketa teknikoak portzentajea
- Humanitateak portzentajea
- Zientzia esperimentalak portzent.
- Osasun zientziak portzent.
- Emakumeen portzentajea
- Adin ertaina ikasleak
- Helduak ikasleak
- Oso gazteak portzentajea
- Gazteak portzentajea
- Adin ertaina portzentajea
- Helduak portzentajea
- Europako gain. herr. portzentajea
- Afrikako iparraldea portzentajea
- Afrikako gain. herr. portzentajea
- Ipar Amerika portzentajea
- Erdialdeko Amerika portzentajea
- Hego Amerika portzentajea
- Asia eta Ozeania portzentajea
- Afrikako gain. herr. portzent. T.

Beste alde batetik, jarraian agertzen diren aldagaiak nazioarteko eskari maila ezberdina duten unibertsitate taldeetan nabarmenki ezberdinak direla ere ondoriozta dezakegu[56].

- Zientzia esperimentalak ikasleak
- Osasun zientziak ikasleak
- Oso gazteak ikasleak
- Gazteak ikasleak
- Atzerritarren totala
- Atzerritarren portzentajea
- Europar Batasuna ikasleak
- Europako gain. herr. ikasleak
- Afrikako iparraldea ikasleak
- Afrikako gain. herr. ikasleak
- Ipar Amerika ikasleak
- Erdialdeko Amerika ikasleak
- Hego Amerika ikasleak
- Asia eta Ozeania ikasleak
- Europar Batasuna portzentajea T.
- Europako gain. herr. portzen. T.
- Afrikako iparraldea portzent. T.
- Ipar Amerika portzentajea T.
- Erdialdeko Amerika portz. T.
- Hego Amerika portzentajea T.
- Asia eta Ozeania portz. T.
- Emakume ikasleak
- Europar Batasuna portzentajea

Ondorengo taulek aipatutako aldagai esanguratsuetarako konparaketa anizkoitzeko proben emaitzak aurkezten dituzte. Proba

[56] Azken bi aldagaiak 0,10eko esangura maila baterako dira esanguratsuak.

hauen bidez antzemandako diferentziak unibertsitate talde batzuei edo besteei egotzi ahal dizkiegu.

Lehenik, Duncanen probaren emaitzak agertzen dira zientzia esperimentaletan matrikulatutako ikasleen kopurua adierazten duen aldagaiaren kasurako. Emaitza hauetan zientzia esperimentaletan matrikulatutako batez besteko ikasle kopuruaren araberako unibertsitate taldeen azpimultzo homogeneoak hauteman daitezke.

Zientzia esperimentalak ikasleak

Duncan

		Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
Taldea	N	1	2
4	16	685,19	
1	27	1159,89	
2	17	1549,18	
3	10		3085,90
Esang.		,204	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Taulako emaitzek agerian jartzen dute hirugarren klusterrean, hau da, nazioarteko eskari maila handieneko klusterrean, zientzia esperimentaletan matrikulatutako batez besteko ikasleen kopurua gainontzeko klusterretan baino nabarmenki handiagoa dela. Gainontzeko unibertsitate taldeen artean ez dago diferentzia adierazgarririk aldagai honi dagokionez.

Bestalde, arestian ikusi dugun bezala, osasun zientzietan matrikulatutako ikasle kopuruari dagokionez ere diferentziak hauteman daitezke unibertsitate talde ezberdinen artean.

Osasun zientziak ikasleak

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
4	16	1251,44	
1	26	1342,12	
2	17	1686,88	
3	10		3243,60
Esang.		,548	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Kasu honetan, zientzia esperimentaletako batez besteko ikasle kopuruarekin gertatzen den bezala, osasun zientzietan matrikulatutako batez besteko ikasle kopurua ere hirugarren taldean gainontzeko taldeetan baino nabarmenki handiagoa dela ikus dezakegu.

Ikasleriaren adinarekin erlazionatutako aldagaiei dagokienez, identifikatutako unibertsitate taldeak 18 eta 21 urte bitarteko ikasle kopuruagatik eta 22 eta 25 urte bitarteko ikasle kopuruagatik bereizten direla baiezta dezakegu.

Oso gazteak ikasleak

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
4	16	5232,06	
1	27	6220,07	
2	17	8451,41	
3	10		15046,60
Esang.		,191	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Gazteak ikasleak

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
4	16	4740,94	
1	27	5477,33	
2	17	6415,24	
3	10		11988,40
Esang.		,425	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Goiko emaitzei so eginez argi geratzen da bai ikasle oso gazteen batez besteko kopurua eta baita ikasle gazteen batez besteko kopurua ere hirugarren klusterrean gainontzeko unibertsitate taldeetan baino nabarmenki handiagoa dela.

Ondorengo taulek nazioarteko eskari mailari dagokionez unibertsitate taldeen artean dauden diferentziak erakusten dituzte. Alde batetik, ikasle atzerritarren kopuruarekin erlazionatutako diferentziak aurkezten dira eta beste alde batetik, ikasle atzerritarren portzentajearekin erlazionatutakoak.

Atzerritarren totala

Duncan

		Azpimultzoa (alfa = 0.05)		
Taldea	N	1	2	3
1	27	127,30		
4	16	223,00	223,00	
2	17		424,29	
3	10			1025,50
Esang.		,408	,085	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Atzerritarren portzentajea

Duncan

		Azpimultzoa (alfa = 0.05)			
Taldea	N	1	2	3	4
1	27	,6744			
4	16		1,5150		
2	17			2,2524	
3	10				3,0370
Esang.		1,000	1,000	1,000	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Ikasle kanpotarren kopuru totalari dagokionez, Duncanen probaren emaitzak begiratuz, hirugarren taldeak gainontzeko taldeek baino atzerritarren batez besteko kopuru total handiagoa aurkezten duela esan daiteke. Bigarren eta lehenengo klusterraren artean ere diferentzia adierazgarriak hauteman daitezke. Zehazki,

bigarren klusterrean ikasle kanpotarren kopurua lehenengo klusterrean baino handiagoa da.

Batez besteko ikasle atzerritarren portzentajea, jakina, nabarmenki ezberdina da unibertsitate talde guztietan, goiko taulako datuek adierazten duten moduan.

Lehenago aipatu legez, unibertsitate taldeen artean jatorria ezberdineko ikasle internazionalen kopuruari dagokionez ere diferentzia esanguratsuak existitzen dira. Ondoko taulan Europar Batasuneko ikasle kopuruarekin erlazionatutako diferentziak eskaintzen ditugu.

Europar Batasuna ikasleak

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)		
		1	2	3
1	27	33,22		
4	16	73,94	73,94	
2	17		119,76	
3	10			296,20
Esang.		,269	,214	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Duncanen probaren emaitzetan oinarrituz hirugarren taldea Europar Batasunetik datorren ikasle kopuru handiena duen taldea dela esan dezakegu. Gainera, bigarren eta lehenengo taldeen artean ere diferentziak daudela ikus daiteke, bigarren taldeak Europar Batasuneko ikasle kopuru handiagoa duelarik.

Era berean, Europako gainontzeko herrialdeetako, Afrikako iparraldeko, Afrikako gainontzeko herrialdeetako, Ipar Amerikako, Erdialdeko Amerikako, Hego Amerikako eta Asia eta Ozeaniako ikasle kopuruarekin erlazionatutako diferentzia adierazgarriak ere existitzen dira unibertsitate taldeen artean. Jarraian diferentzia horiek azaltzen dituzten taulak agertzen dira.

Europako gainontzeko herrialdeak ikasleak

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)		
		1	2	3
1	27	13,56		
4	16	28,12	28,12	
2	17		56,53	
3	10			108,80
Esang.		,429	,126	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Afrikako iparraldea ikasleak

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
1	27	12,22	
2	17	38,82	
4	16	53,50	
3	10		183,50
Esang.		,440	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Afrikako gainontzeko herrialdeak ikasleak

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
4	16	3,88	
1	27	10,26	
2	17	16,88	16,88
3	10		26,10
Esang.		,054	,147

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Ipar Amerika ikasleak

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)		
		1	2	3
1	27	5,04		
4	16	10,25	10,25	
2	17		18,76	
3	10			37,30
Esang.		,404	,175	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Erdialdeko Amerika ikasleak

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)		
		1	2	3
4	16	4,19		
1	27	4,22		
2	17		16,88	
3	10			28,00
Esang.		,994	1,000	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Hego Amerika ikasleak

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
1	27	40,67	
4	16	42,75	
2	17	127,35	
3	10		293,60
Esang.		,056	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Asia eta Ozeania ikasleak

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)		
		1	2	3
4	16	6,38		
1	27	8,11		
2	17		29,29	
3	10			52,00
Esang.		,866	1,000	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Orokorrean, aztertutako jatorri ezberdinetako atzerritar kopurua hirugarren taldean gainontzeko unibertsitate taldeetan baino handiagoa dela hauteman daiteke. Horrez gain, jatorri ezberdinetako ikasle kopurua lehenengo edo laugarren taldean gainontzeko taldeetan baino txikiagoa dela ere esan daiteke.

Modu berean, jatorri ezberdineko ikasleen portzentajea ikasleen totalarekiko adierazten duten aldagaiei dagokienez ere diferentzia esanguratsuak antzeman daitezke unibertsitate taldeen artean. Ondorengo tauletan diferentzia horiek aurkezten ditugu.

Europar Batasuna portzentajea Totalarekiko

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)		
		1	2	3
1	27	,1974		
2	17		,6400	
4	16		,6762	
3	10			,9330
Esang.		1,000	,726	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Europako gainontzeko herrialdeak portzentajea Totalarekiko

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
1	27	,0693	
4	16	,1463	
2	17		,3247
3	10		,3350
Esang.		,195	,861

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Afrikako iparraldea portzentajea Totalarekiko

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
1	27	,0785	
4	16	,1569	
2	17	,1994	,1994
3	10		,4070
Esang.		,291	,056

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Ipar Amerika portzentajea Totalarekiko

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
1	27	,0289	
4	16	,0931	,0931
2	17	,1159	,1159
3	10		,1630
Esang.		,072	,149

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Erdialdeko Amerika portzentajea Totalarekiko

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
1	27	,0174	
4	16	,0306	
3	10		,0910
2	17		,1047
Esang.		,597	,584

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Hego Amerika portzentajea Totalarekiko

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)		
		1	2	3
1	27	,1915		
4	16	,3200		
2	17		,6559	
3	10			,8750
Esang.		,123	1,000	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Asia eta Ozeania portzentajea Totalarekiko

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
1	27	,0337	
4	16	,0531	
2	17		,1318
3	10		,1490
Esang.		,473	,524

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Aurreko tauletan jatorri ezberdineko ikasleen portzentajea ikasleen totalarekiko adierazten duten aldagai gehienek hirugarren taldean gainontzeko taldeetan baino balio handiagoak hartzen dituztela eta lehenengo taldean gainontzeko taldeetan baino balio txikiagoak hartzen dituztela egiazta daiteke.

Jarraian 0,10eko esangura maila baterako esanguratsuak diren aldagaientzako emaitzak agertzen dira.

Ondoko taulan unibertsitate talde ezberdinetan matrikulatutako emakumeen batez besteko kopuruari buruzko informazioa ikus daiteke.

Emakume ikasleak

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
4	16	7451,69	
2	17	10134,00	
1	27	10634,52	
3	10		19763,90
Esang.		,496	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Taulako datuak begiratuz matrikulatutako emakumeen batez besteko kopurua hirugarren unibertsitate taldean gainontzeko taldeetan baino handiagoa dela nabari daiteke.

Europar Batasuneko ikasleen ehunekoari dagokionez ere taldeen arteko diferentziak adierazgarriak dira. Ondoko taulako datuek diferentzia horiek adierazten dituzte.

Europar Batasuna portzentajea

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
2	17	28,4082	
3	10	30,1200	30,1200
1	27	31,0552	31,0552
4	16		45,1669
Esang.		,735	,054

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Zehazki, goiko taulan, laugarren taldean Europar Batasuneko ikasleen proportzioa bigarren taldean baino nabarmenki handiagoa dela ikus daiteke.

Azkenik, Duncanen probaren emaitzak aurkezten ditugu adierazgarriak ez diren aldagai batzuentzako. Aldagai hauen kasuan faktore bakarreko bariantzaren analisiak ez du unibertsitate taldeen arteko diferentzia esanguratsurik islatzen. Hala ere, Duncanen proba aplikatuz hurrengo tauletan erakusten ditugun zenbait ezberdintasun hauteman daitezke.

Matrikulatuen totala

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
4	16	14838,06	
2	17	18747,59	18747,59
1	27	19562,22	19562,22
3	10		34542,60
Esang.		,579	,063

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Gizarte eta zuzenbide zientziak ikasleak

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
4	16	6695,56	
2	17	8706,76	8706,76
1	27	10357,15	10357,15
3	10		17294,30
Esang.		,485	,101

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Zientzia esperimentalak portzentajea

Duncan

Taldea	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
4	16	3,7569	
1	27	5,6656	5,6656
3	10		7,1630
2	17		7,2753
Esang.		,229	,340

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Burututako probek eskainitako informazio guztia erabiliz unibertsitate talde ezberdinen deskribapen bat burutu daiteke. Hurrengo eskemak unibertsitate taldeen ezaugarri aipagarrienak jasotzen ditu.

NAZIOARTEKO ESKARI MAILA EZBERDINEKO UNIBERTSITATE TALDEEN EZAUGARRI NAGUSIAK

Hirugarren Unibertsitate Taldea

- Lehenik, hirugarren taldea, hau da, nazioarteko eskari mailarik altuena duen unibertsitate taldea zientzia esperimentaletan eta osasun zientzietan batez besteko ikasle kopururik handiena duen taldea dela esan beharra dago. Gisa berean, matrikulatutako emakume kopurua, ikasle oso gazteen kopurua eta ikasle gazteen

kopurua handiagoa da hirugarren klusterrean gainontzeko klusterretan baino[57].

- Beste alde batetik, hirugarren taldeak gainontzeko taldeek baino ikasle kanpotarren kopuru total eta portzentaje handiagoa izateaz gain Europar Batasuneko, Europako gainontzeko herrialdeetako, Afrikako iparraldeko, Ipar Amerikako, Erdialdeko Amerikako, Hego Amerikako eta Asia eta Ozeaniako ikasle kopuru handiagoa ere aurkezten du. Era berean, laugarren eta lehenengo klusterrak baino Afrikako gainontzeko herrialdeetako ikasle kopuru nabarmenki handiagoa duela ere ikus daiteke.
- Gainera, Europar Batasuneko eta Hego Amerikako ikasleen ehunekoa matrikulatutako ikasleen totalarekiko hirugarren taldean gainontzeko taldeetan baino nabarmenki handiagoa dela egiaztatu dugu. Horrez gain, egindako analisiaren arabera, Europako gainontzeko herrialdeetako, Afrikako iparraldeko eta Asia eta Ozeaniako ikasleen portzentajeak totalarekiko balio nabarmenki handiagoak hartzen ditu hirugarren taldean lehenengo eta laugarren taldeetan baino. Azkenik, Ipar Amerikako ikasleen portzentajea totalarekiko hirugarren taldean lehenengo taldean baino nabarmenki handiagoa dela ere esan daiteke.

Bigarren Unibertsitate Taldea

- Bigarren klusterrean kanpotarren kopurua lehenengo klusterrean baino nabarmenki handiagoa eta hirugarren klusterrean baino

[57] Arrazoizkoa da pentsatzea aipatutako ezaugarriek hirugarren taldeko unibertsitateetako batez besteko ikasle kopuru handiagoa besterik ez dutela islatzen. Hala eta guztiz ere, talde honetako ezaugarri azpimarragarri moduan barneratu ditugu bariantzaren analisiaren emaitzen arabera aldagai hauek esanguratsuak direlako eta matrikulatuen kopuru totala berriz ez.

nabarmenki txikiagoa dela ikusi dugu. Bestalde, atzerritarren ehunekoa hirugarren taldean baino nabarmenki txikiagoa eta gainontzeko taldeetan baino nabarmenki handiagoa da.

- Halaber, bigarren taldean Erdialdeko Amerikako eta Asia eta Ozeaniako ikasleen kopurua hirugarren taldean baino txikiagoa eta gainontzeko taldeetan baino handiagoa dela hauteman daiteke. Europar Batasuneko, Europako gainontzeko herrialdeetako eta Ipar Amerikako ikasleen kopuruarekin erlazionatutako aldagaiek bigarren klusterrean lehenengoan baino balio nabarmenki handiagoak aurkezten dituzte eta hirugarrenean baino balio nabarmenki txikiagoak.
- Aipagarria da ere bigarren unibertsitate taldean Europar Batasuneko ikasleen portzentajea laugarren taldean baino nabarmenki txikiagoa dela. Bigarren taldearen eta gainontzeko taldeen artean, ez dago diferentzia adierazgarririk aldagai honi dagokionez.
- Erdialdeko Amerikako ikasleen portzentajea totalarekiko, berriz, nabarmenki handiagoa da bigarren taldean lehenengoan eta laugarrenean baino. Era berean, Hego Amerikako ikasleen portzentajea totalarekiko nabarmenki handiagoa da bigarren taldean lehenengoan eta laugarrenean baino.

Laugarren Unibertsitate Taldea

- Laugarren unibertsitate taldean zientzia esperimentaletan eta osasun zientzietan matrikulatutako ikasle kopurua hirugarren taldean baino nabarmenki txikiagoa dela antzeman dugu. Dena den, laugarren taldearen eta gainontzeko taldeen artean aldagai hauei

dagokienez diferentzia esanguratsurik ez dagoela ere ikus daiteke. Gauza bera gertatzen da emakume kopuruarekin, ikasle oso gazteen kopuruarekin eta ikasle gazteen kopuruarekin, hots, aldagai hauek balio nabarmenki txikiagoak hartzen dituzte laugarren taldean hirugarrenean baino, baina ez dute diferentzia adierazgarririk aurkezten laugarren taldearen eta gainontzeko taldeen artean.

- Modu berean, Afrikako gainontzeko herrialdeetako ikasle kopurua laugarren klusterrean hirugarren klusterrean baino txikiagoa den arren, ez dago diferentzia esanguratsurik aldagai honi dagokionez laugarren klusterraren eta gainontzeko klusterren artean. Erdialdeko Amerikako eta Asia eta Ozeaniako ikasle kopuruaren kasuan laugarren taldeak bigarren eta hirugarren taldeek baino balio txikiagoak aurkezten ditu eta ez ditu balio nabarmenki ezberdinak hartzen lehenengo taldearekin konparatuz.
- Beste alde batetik, laugarren taldean atzerritarren portzentajea lehenengo taldean baino handiagoa eta gainontzeko taldeetan baino txikiagoa da.
- Hala ere, Europar Batasuneko ikasleen ehunekoa bigarren taldean baino nabarmenki handiagoa da. Laugarren taldearen eta gainontzeko taldeen artean, berriz, ez dago diferentzia nabarmenik Europar Batasunetik datozen ikasleen ehunekoari dagokionez.
- Horrez gain, Europar Batasuneko ikasleen portzentajea totalarekiko laugarren taldean lehenengo taldean baino handiagoa eta hirugarren taldean baino txikiagoa dela ikus daiteke. Hala ere, aldagai honi dagokionez ez dago diferentzia adierazgarririk laugarren eta bigarren taldeen artean.

Lehenengo Unibertsitate Taldea

- Lortutako emaitzen arabera lehenengo unibertsitate taldeak gainontzeko taldeek baino kanpotarren portzentaje baxuagoa izateaz gain hirugarren eta bigarren taldeak baino kanpotar kopuru nabarmenki baxuagoa ere aurkezten du.
- Gauza bera gertatzen da Europar Batasuneko, Europako gainontzeko herrialdeetako, Ipar Amerikako, Erdialdeko Amerikako eta Asia eta Ozeaniako ikasleen kopuruarekin. Aldagai hauen kasuan lehenengo taldeak hartzen dituen balioak hirugarren eta bigarren taldeek hartzen dituzten balioak baino nabarmenki txikiagoak dira. Afrikako iparraldeko eta Hego Amerikako ikasleen kopurua ere nabarmenki baxuagoa da lehenengo klusterrean hirugarrenean baino.
- Azkenik, Europar Batasuneko ikasleen ehunekoa totalarekiko lehenengo taldean gainontzeko taldeetan baino txikiagoa dela egiaztatu dugu. Horrez gain, Europako gainontzeko herrialdeetako, Erdialdeko Amerikako, Hego Amerikako eta Asia eta Ozeaniako ikasleen portzentajea totalarekiko ere nabarmenki txikiagoa da lehenengo klusterrean bigarren eta hirugarren klusterretan baino. Gisa berean, Afrikako iparraldeko eta Ipar Amerikako ikasleen portzentajea totalarekiko nabarmenki txikiagoa da lehenengo taldean hirugarren taldean baino.

Bosgarren Unibertsitate Taldea

- Unibertsitate talde honetako elementu bakarra Leóneko Unibertsitatea da eta lehenago adierazi dugunez elementu hau ezin izan dugu kontuan hartu konparaketa anizkoitzeko probetan.

Hortaz, unibertsitate honen izaerari buruz ideia orokor bat emateko asmoz ondorengo taulan aztertutako aldagaiek Leóneko Unibertsitatean hartzen dituzten balioak adierazi ditugu.

BOSGARREN TALDEA: Leóneko Unibertsitatea

- Matrikulatuen totala: 13522
- Giz. eta zuz. zientziak ikasleak: 5.961
- Ikasketa teknikoak ikasleak: 3.441
- Humanitateak ikasleak: 1.022
- Zientzia esperimentalak ikasleak: 1.469
- Osasun zientziak ikasleak: 1.629
- Giz. eta zuz. zientziak portz.: %44,08
- Ikasketa teknikoak portz.: %25,45
- Humanitateak portzentajea: %7,56
- Zientzia esperimentalak portz.: %10,86
- Osasun zientziak portzentajea: %12,05
- Oso gazteak ikasleak: 5.624
- Gazteak ikasleak: 4.969
- Adin ertaina ikasleak: 2.014
- Helduak ikasleak: 915
- Oso gazteak portzentajea: %41,59
- Gazteak portzentajea: %36,75
- Adin ertaina portzent.: %14,89
- Helduak portzentajea: %6,77
- Emakume ikasleak: 7.913
- Emakumeen portz.: %58,52
- Atzerritarren totala: 951
- Atzerritarren portzent.: %7,03
- Europar Batasuna ikasleak: 612
- Europ. gain. herr. ikasleak: 115
- Afrikako iparraldea ikasleak: 2
- Afrik. gain. herr. ikasleak: 20
- Ipar Amerika ikasleak: 109
- Erdialdeko Amerika ikasleak: 9
- Hego Amerika ikasleak: 63
- Asia eta Ozeania ikasleak: 21
- Europar Batasuna port.: %64,35
- Europako gain. herr. portzent.: %12,09
- Afrikako iparraldea portzent.: %0,21
- Afrikako gain. herr. portzent.: %2,10
- Ipar Amerika portzent.: %11,46
- Erdialdeko Amerika portzent.: %0,95
- Hego Amerika portzentajea: %6,62
- Asia eta Ozeania portzentajea: %2,21
- Europar Batasuna portzent. T.: %4,53
- Europako gain. herr. portz. T.: %0,85
- Afrikako iparraldea portz. T.: %0,01
- Afrikako gain. herr. portz. T.: %0,15
- Ipar Amerika portzentajea T.: %0,81
- Erdialdeko Amerika portz. T.: %0,07
- Hego Amerika portzentajea T.: %0,47
- Asia eta Ozeania portz. T.: %0,16

3.4.2 Espainiako Unibertsitateen Nazioarteko Eskariaren Jatorria

Azpiatal honetan Espainiako unibertsitateen ikasle internazionalen jatorria izango dugu aztergai. Hau da, unibertsitate ezberdinen nazioarteko eskari mota ikertzen saiatuko gara. Analisia

banan-banan burutuko dugu aurreko azpiatalean identifikatutako eta nazioarteko eskari maila ezberdina duten unibertsitate talde bakoitzean.

Helburua, unibertsitate ezberdinetan, ikasle atzerritarren artean, nagusitzen diren jatorriak aztertu eta konparatzea da. Hortaz, unibertsitateen posizioa aztertuko dugu bakoitzak duen jatorri ezberdineko ikasleen portzentajea kontuan izanda.

Honekin loturik merezi du aipatua izatea Sternberg eta Davisek (1978) Yale Unibertsitateari eta bere lehiakideei buruz egindako posizionamendu ikerketa. Bertan, egileek analisi faktorial baten bidez unibertsitate ezberdinei buruzko pertzepzioak konparatzen dituzte.

Gure azterlan honetan ere osagai nagusien analisia erabiliko dugu unibertsitate ezberdinen nazioarteko ikasleen jatorria modu erraz batean konparatu ahal izateko. Kasu guztietan, aldagai original bezala, unibertsitate bakoitzaren jatorri ezberdineko ikasleen portzentajea adierazten duten zortzi aldagai erabiliko ditugu.

Aurreko kapituluan azaldu dugun moduan teknika honek jatorrizko aldagaiak faktore kopuru txikiago batean laburbiltzen ditu informazio galera minimoarekin. Lortutako faktoreak erabiliz unibertsitateen ikasle internazionalen jatorriaren analisi eta konparaketa errazago bat egin ahal izango dugu.

Datozen paragrafoetan unibertsitate talde bakoitzean burututako osagai nagusien analisiaren emaitzak aurkeztuko ditugu. Analisi guztietan faktore kopurua determinatzeko erabili dugun irizpidea autobalioa bat baino handiagoa daukaten osagaiak

aukeratzea izan da. Gainera, emaitzen interpretazioa sinplifikatzeko Varimax errotazio ortogonal metodoa erabili dugu.

Nazioarteko Eskari Maila Altua (hirugarren taldea)[58]

Atzerritarren portzentajea (+)(+)	Asia eta Ozeania ikasleak (+)(+)
Zientzia esperimentalak ikasleak (+)(+)	Europar Batasuna portzentajea T. (+)(+)
Osasun zientziak ikasleak (+)(+)	Europako gain. herr. portzen. T. (+)(+)
Oso gazteak ikasleak (+)(+)	Afrikako iparraldea portzent. T. (+)(+)
Gazteak ikasleak (+)(+)	Ipar Amerika portzentajea T. (+)(+)
Atzerritarren totala (+)(+)	Erdialdeko Amerika portzent. T. (+)
Europar Batasuna ikasleak (+)(+)	Hego Amerika portzentajea T. (+)(+)
Europako gain. herr. ikasleak (+)(+)	Asia eta Ozeania portzentajea T. (+)(+)
Afrikako iparraldea ikasleak (+)(+)	Emakume ikasleak (+)(+)
Afrikako gain. herr. ikasleak (+)(+)	Europar Batasuna portzentajea (-)
Ipar Amerika ikasleak (+)(+)	Matrikulatuen totala (+)(+)
Erdialdeko Amerika ikasleak (+)(+)	Giz. eta zuz. zientziak ikasleak (+)(+)
Hego Amerika ikasleak (+)(+)	Zientzia esperimentalak portzent. (+)

Lehenengo eta behin, nazioarteko eskari mailarik altueneko unibertsitateentzako burututako osagai nagusien analisiaren emaitzak aurkeztuko ditugu. Esan bezala, erabilitako aldagaiak jatorri ezberdineko ikasleen portzentajearekin erlazionatutakoak dira. Analisi honen bidez nazioarteko eskari maila altuko unibertsitate ezberdinek jasotzen duten ikasleria atzerritar mota konparatu nahi dugu.

Lortutako emaitzen arabera hasierako zortzi aldagaiek ematen duten informazioa hiru osagai edo faktoreren bidez laburbildu daiteke. Beraz, informazio edo bariantza totalaren %81,576 azaltzen

[58] Unibertsitate talde bakoitzaren ezaugarri nagusiak koadro batean laburturik agertzen dira. Zeinu positibo edo negatiboek aldagaiek talde bakoitzean hartzen dituzten balioekin lotura daukate. Bi zeinu positibok unibertsitate talde horrek aldagai horretan batez besteko baliorik handiena hartzen duen taldea dela adierazten dute. Zeinu positibo bakarrak talde hori aldagai jakin bati dagokionez batez besteko baliorik handiena duen bigarren taldea dela adierazten du. Unibertsitate talde batek aldagai bati dagokionez gainontzeko taldeek baino balio txikiagoak aurkezten dituela adierazteko, ordea, bi zeinu negatibo agertzen dira aldagaiaren ondoan. Azkenik, unibertsitate taldea baliorik txikiena duen bigarren taldea dela adierazteko zeinu negatibo bakarra agertzen da aldagaiaren ondoan.

duten hiru faktore atera ditugu. Lehenengoak bariantza totalaren %29,586 azaltzen du, bigarrenak bariantzaren %26,161 jasotzen du eta hirugarrenak bariantzaren %25,829 esplikatzen du.

Azpiko plano faktorialetan unibertsitateek duten kokapena begiratuz erakunde bakoitzaren nazioarteko eskari motari buruzko ideia bat egin dezakegu. Unibertsitateek grafiko horietan duten posizioa interpretatu ahal izateko faktoreen esanahia ezagutu beharra dago. Ondorengo taulan faktoreen esanahia zehazteko balio duen biratutako osagaien matrizea agertzen da.

Biratutako osagaien matrizea[a]

	Osagaia		
	1	2	3
Europar Batasuna portzentajea	-,059	,342	,799
Europako gain. herr. portzentajea	,310	,857	-,302
Afrikako iparraldea portzentajea	-,852	-,292	-,335
Afrikako gain. herr. portzentajea	,607	-,095	,496
Ipar Amerika portzentajea	,515	-,647	-,147
Erdialdeko Amerika portzentajea	,175	,816	,169
Hego Amerika portzentajea	,929	,154	-,208
Asia eta Ozeania portzentajea	,119	-,195	,941

Ateratze metodoa: Osagai nagusien analisia.
Errotazio metodoa: Varimax.
a. Errotazioa 5 iteraziotan batu da.

1. FAKTOREA: Biratutako osagaien matrizean lehenengo faktorea **Hego Amerikako** atzerritarren portzentajearekin eta **Afrikako iparraldeko** atzerritarren portzentajearekin oso erlazionaturik dagoela ikus daiteke. Lehenengo aldagaiaren kasuan korrelazioa **positiboa** da eta bigarren aldagaiaren kasuan erlazioa **negatiboa** da. Hortaz, osagai hau hazten den heinean Hego Amerikako ikasleen proportzioa handitzen da eta Afrikako iparraldeko ikasleen proportzioa txikitzen da. Faktore honek Afrikako gainontzeko herrialdeetako ikasleen ehunekoarekin ere

korrelazio positiboa duela nabari daiteke, kasu honetan, erlazioa indar txikiagokoa den arren.

2. FAKTOREA: Bigarren faktorean **Europako gainontzeko herrialdeetako** atzerritarren portzentajeak eta **Erdialdeko Amerikako** atzerritarren portzentajeak dute eragina, batik bat. Aldagai hauen eta bigarren faktorearen arteko korrelazioa **positiboa** da, eta beraz, faktore honen balio handiagoak aldagai hauen balio handiagoekin erlaziona ditzakegu. Halaber, faktore honen eta Ipar Amerikako atzerritarren portzentajearen artean intentsitate txikiagoko korrelazio negatiboa existitzen dela ere hauteman dezakegu.

3. FAKTOREA: Azkenik, hirugarren faktoreak batez ere **Asia eta Ozeaniako** ikasleen portzentajea eta **Europar Batasuneko** ikasleen portzentajea aldagaiak azaltzen dituela egiazta daiteke. Aldagai hauen eta hirugarren faktorearen arteko korrelazioa **positiboa** da, ondorioz, faktore honen balio handiagoek aipatutako jatorrietako ikasleen portzentaje handiagoa adierazten dute.

Ondoko grafikoan nazioarteko eskari maila altuko unibertsitate ezberdinek betetzen duten lekua ikus daiteke. Unibertsitateen kokapena unibertsitateek lehenengo bi faktoreetan duten puntuazio faktorialaren menpe dago. Lehenengo bi faktore hauek jasotzen dituzten ezaugarriak kontuan izanda unibertsitate hauen nazioarteko eskariaren jatorriari buruzko deskribapen orokor bat burutu dezakegu.



Hasteko, merezi du aipatua izatea Granadako eta Malagako unibertsitateek aurreko planoan betetzen duten posizioa. Unibertsitate hauek nazioarteko eskari maila altua duten gainontzeko unibertsitateek baino Afrikako iparraldeko ikasleen proportzio handiagoa eta Hego Amerikako ikasleen proportzio txikiagoa izateagatik nabarmentzen dira.

Kapitulu honen bigarren atalean adierazi dugunez Afrikako iparraldetik datozen ikasle gehienek ikasketa teknikoekin edo osasun zientziekin erlazionatutako ikasketak burutzen dituzte. Arrazoizkoa da pentsatzea joera honek Espainiako unibertsitateek adar hauetan duten garapen handiagoari eta Espainia eta Afrikako iparraldeko herrialdeen arteko hurbiltasun geografikoari erantzuten diola.

Granadako eta Malagako unibertsitateen kasuan arreta jarriz, lehenengoan Afrikako iparraldeko ikasle gehienak osasun zientzietan[59] kontzentratzen direla eta bigarrenean, berriz, ikasketa teknikoetan biltzen direla egiazta daiteke. Unibertsitate hauen eta Afrikako iparraldeko herrialdeen arteko gertutasunak beren eskari internazionalaren jatorria baldintzatzen duela pentsa dezakegu. Gainera, Granadako unibertsitatearen kasuan, osasun zientzietara orientaturik egoteak ikasle hauek erakarri ditzake[60].

Grafikoaren kontrako aldean Errege Juan Carlos unibertsitatea aurki dezakegu. Unibertsitate honen kokapenak talde honetako gainontzeko unibertsitateek baino Hego Amerikako ikasleen ehuneko handiagoa duela eta Afrikako iparraldeko ikasleen ehuneko baxua duela adierazten du. Gisa berean, Francisco de Vitoria unibertsitateak grafikoan duen posizioak unibertsitate honek Hego Amerikako ikasleen portzentaje altua duela eta Afrikako iparraldeko ikaslerik ez duela islatzen du.

Unibertsitate hauetan Hego Amerikatik datozen ikasle gehienak gizarte eta zuzenbide zientziekin erlazionatutako ikasketetan daude matrikulaturik. Dagoeneko, kapitulu honen hasieran, aipatu dugu Espainian ikasten dauden Hego Amerikako ikasleek adar hau aukeratzeko joera dutela. Zentzuzkoa da pentsatzea eskualde bien arteko erlazio ekonomikoen aparteko

[59] Zehazki, 2005/2006 ikasturtean zehar, Granadako unibertsitatean Afrikako iparraldetik zetorren ikasleriaren erdia baino gehiago farmaziako lizentziaturan matrikulaturik zegoen.

[60] Granadako unibertsitatean osasun zientzietan matrikulatutako ikasleen portzentajea Espainiako unibertsitateen totalerako lortutako portzentajea baino handiagoa da. Honek osasun zientziek Granadako unibertsitatean duten garrantzia adierazten du. Gauza bera gertatzen da humanitateetako eta zientzia esperimentaletako ikasleen portzentajearekin.

garrantziak Espainian ikasten dauden Hego Amerikako ikasleen erdiak baino gehiagok gizarte eta zuzenbide zientziak hautatzearekin zerikusia izan dezakeela. Errege Juan Carlos eta Francisco de Vitoria unibertsitateen kasuan, unibertsitate hauek gizarte eta zuzenbide zientzietara duten orientazioak Hego Amerikako ikasleen portzentaje altuagoa azal dezake[61].

Beste alde batetik, Kataluniako Nazioarteko unibertsitateak nazioarteko eskari maila altuko beste unibertsitateek baino Europako gainontzeko herrialdeetako eta Erdialdeko Amerikako ikasleen portzentaje handiagoa duela eta Ipar Amerikako ikaslerik ez duela egiazta daiteke.

Kataluniako Nazioarteko unibertsitateak 2005/2006 ikasturtean zehar matrikulatutako ikasleei buruz emandako datuen arabera, Europako gainontzeko herrialdeetatik datozen ikasle gehienen jatorrizko herrialdea Andorra da. Ondorioz, unibertsitate honen eta aldameneko herrialdearen arteko hurbiltasunak eta Andorrako ikasleek Katalunian hizkuntzarekin erlazionatutako oztoporik ez izateak Kataluniako Nazioarteko unibertsitatearen ikasle andorratarren portzentaje altuan, eta beraz, unibertsitate honen Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleen portzentaje altuan eragina izan dutela pentsa dezakegu.

Francisco de Vitoria unibertsitateak, ordea, Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleen proportzio baxua aurkezten du

[61] Errege Juan Carlos unibertsitatearen kasuan gizarte eta zuzenbide zientziek berebiziko garrantzia dute. Unibertsitate honetan gizarte eta zuzenbide zientzietan matrikulatutakoen portzentajea Espainiako unibertsitateen totalerako lortutako portzentajea baino askoz handiagoa da. Francisco de Vitoria unibertsitatea gizarte eta zuzenbide zientzietara orientaturik egoteaz gain osasun zientzietara ere orientaturik dagoela esan dezakegu.

eta ez du Erdialdeko Amerikako ikaslerik. Horrez gain, unibertsitate honek bere taldeko Ipar Amerikako ikasleen ehunekorik handiena duela ere egiazta daiteke. Unibertsitate honen eta 1941. urtean Mexikon fundatutako Legión de Cristo izeneko kongregazioaren arteko loturak unibertsitate honen ikasle iparramerikarren proportzio altua azal dezake.

Jarraian agertzen den grafikoan ere nazioarteko eskari maila altuko unibertsitateak agertzen dira. Unibertsitate hauek grafikoan duten posizioa lehenengo eta hirugarren faktorean duten puntuazio faktorialaren menpe dago. Beharrezkoa da faktore horiek jasotzen dituzten ezaugarriak kontuan hartzea unibertsitate bakoitzak grafikoan duen kokapena interpretatu ahal izateko.



Kasu honetan garrantzitsua da Madrileko Unibertsitate Politeknikoak hartzen duen lekuari arreta jartzea. Unibertsitate

honek hirugarren faktorean duen puntuazioak agerian jartzen du nazioarteko eskari maila altuko gainontzeko unibertsitateak baino Europar Batasuneko eta Asia eta Ozeaniako ikasleen portzentaje handiagoa duela.

Nazioarteko Eskari Maila Ertaina (bigarren taldea)

Atzerritarren portzentajea (+)	Asia eta Ozeania ikasleak (+)
Zientzia esperimentalak ikasleak (+)	Europar Batasuna portzentajea T. (-)
Osasun zientziak ikasleak (+)	Europako gain. herr. portzen. T. (+)
Oso gazteak ikasleak (+)	Afrikako iparraldea portzent. T. (+)
Gazteak ikasleak (+)	Ipar Amerika portzentajea T. (+)
Atzerritarren totala (+)	Erdialdeko Amerika portzent. T. (+)(+)
Europar Batasuna ikasleak (+)	Hego Amerika portzentajea T. (+)
Europako gain. herr. ikasleak (+)	Asia eta Ozeania portzentajea T. (+)
Afrikako iparraldea ikasleak (-)	Emakume ikasleak (-)
Afrikako gain. herr. ikasleak (+)	Europar Batasuna portzentajea (-)(-)
Ipar Amerika ikasleak (+)	Matrikulatuen totala (-)
Erdialdeko Amerika ikasleak (+)	Giz. eta zuz. zientziak ikasleak (-)
Hego Amerika ikasleak (+)	Zientzia esperimentalak portzent. (+)(+)

Nazioarteko eskari maila ertaina duten unibertsitateen kasuan ere osagai nagusien analisi bat aplikatu dugu erakunde bakoitzaren ikasle atzerritarren jatorria aztertzeko. Hirugarren taldearentzat egindako analisian bezala, hemen ere, bat baino autobalio handiagoa duten faktoreak atera ditugu eta Varimax errotazio ortogonal metodoa erabili dugu.

Lortutako emaitzetan ikusten da hasierako aldagaiak lau faktoretan laburbildu daitezkeela. Faktore hauek datuen aldakortasun totalaren %81,586 azaltzen dute. Zehazkiago, lehenengo faktoreak aldakortasun horren %21,586 azaltzen du, bigarren faktoreak %21,306, hirugarren faktoreak %21,012 eta laugarren faktoreak %17,683. Ondorengo taulak faktore hauen esanahia interpretatzeko beharrezkoa den informazioa eskaintzen du.

Biratutako osagaien matrizea[a]

	Osagaia			
	1	2	3	4
Europar Batasuna portzentajea	-,787	,001	-,303	,333
Europako gain. herr. portzentajea	,038	-,090	-,074	-,972
Afrikako iparraldea portzentajea	-,073	-,845	-,169	,273
Afrikako gain. herr. portzentajea	-,014	,009	,901	,221
Ipar Amerika portzentajea	-,402	,720	-,078	,218
Erdialdeko Amerika portzentajea	,191	,677	-,006	,358
Hego Amerika portzentajea	,918	,015	,004	,186
Asia eta Ozeania portzentajea	,244	,077	,858	-,160

Ateratze metodoa: Osagai nagusien analisia.
Errotazio metodoa: Varimax.
a. Errotazioa 6 iteraziotan batu da.

1. FAKTOREA: Lehenengo faktorearen eta **Hego Amerikako** ikasleen portzentajearen artean korrelazio **positibo** altua dagoela hauteman daiteke. Beste alde batetik, faktore honen eta **Europar Batasuneko** ikasleen portzentajearen artean korrelazio **negatibo** handia dagoela ere ikus daiteke.

2. FAKTOREA: Bigarren faktorea batik bat **Afrikako iparraldeko** ikasleen portzentajearekin eta **Ipar Amerikako** ikasleen portzentajearekin loturik agertzen da. Lehenengo aldagaiaren kasuan erlazioa **negatiboa** da eta bigarrenaren kasuan **positiboa**. Faktore honen eta Erdialdeko Amerikako ikasleen portzentajearen arteko indar txikiagoko erlazio positiboa ere aipa daiteke.

3. FAKTOREA: Hirugarren faktoreak batez ere **Afrikako gainontzeko herrialdeetako** ikasleen portzentajea eta **Asia eta Ozeaniako** ikasleen portzentajea aldagaiak azaltzen ditu. Aldagai hauen eta hirugarren faktorearen arteko korrelazioa **positiboa** da, eta beraz, faktore honen balio handiagoak aldagai hauen balio handiagoekin lotu daitezke.

4. FAKTOREA: Laugarren faktorea **Europako gainontzeko herrialdeetako** ikasleen portzentajearekin biziki erlazionaturik aurkitzen da. Aldagai honen eta laugarren faktorearen arteko korrelazioa **negatiboa** da, hortaz, faktore honen balio handiagoek Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleen portzentaje txikiagoa adierazten dute.

Ondoko grafikoak nazioarteko eskari maila ertaina duten unibertsitate ezberdinek lehengo bi faktoreetan duten puntuazio faktoriala erakusten du. Faktore horiek jasotzen dituzten aldagaiak kontuan hartuz unibertsitate bakoitzaren eskari internazionalaren jatorriari buruzko ideia orokor bat egin dezakegu.



Kordobako Unibertsitateak grafikoan betetzen duen lekuak agerian jartzen du unibertsitate hau, nazioarteko eskari maila ertaina duten unibertsitateen artean, Europar Batasuneko ikasleen

portzentajerik handiena eta Hego Amerikako ikasleen portzentajerik txikiena duena dela. Unibertsitate honetako Europar Batasuneko ikasleak irakaskuntza adar ezberdinetan banaturik agertzen diren arren, gehienek humanitateen adarreko ikasketak burutzen dituzte[62].

Aurretik adierazi dugu, Espainian ikasten dauden Europar Batasuneko ikasleek humanitateak ikasteko ikasle atzerritarren totalak baino joera handiagoa aurkezten dutela. Kordobako hiriak bezala, Espainiako beste zenbait hirik duten aberastasun kultural, artistiko edo historikoa, hala nola Espainia eta Europar Batasuneko herrialdeen arteko hurbiltasun geografikoa joera hori azal dezaketen faktoreak dira.

Beste alde batetik, Madrileko Carlos III.a Unibertsitateak grafikoan duen kokapenak aditzera ematen du unibertsitate honek Hego Amerikako ikasleen proportzio altua aurkezten duela eta talde honetako gainontzeko unibertsitateek baino Europar Batasuneko ikasleen portzentaje txikiagoa duela.

La Lagunako Unibertsitateak ere lehenengo faktorean puntuazio altua duela egiazta daiteke. Honek agerian uzten du La Lagunako Unibertsitatea eta Carlos III.a Unibertsitatea, nazioarteko eskari maila ertaina duten unibertsitateen artean, Hego Amerikako ikasleen portzentajerik handiena dutenak direla.

Erakunde bien kasuan, ikasle hegoamerikarrak gizarte eta zuzenbide zientzien adarreko ikasketetan kontzentratzen dira, batik bat. Horrez gain, bai Carlos III.a Unibertsitateak, bai La Lagunako Unibertsitateak irakaskuntza adar horretara orientazio nabarmena

[62] Zehazki, unibertsitate honek eskaintzen dituen titulazio ezberdinetatik Europar Batasuneko ikasleen artean arrakastarik handiena duena humanitateetan lizentziatura da.

aurkezten dutela esan daiteke[63]. Orientazio honek, ikasle hegoamerikarrek gizarte eta zuzenbide zientziak ikasteko duten joera orokorrarekin batera, unibertsitate hauen Hego Amerikako ikasleen proportzio altua azaltzen lagun dezake.

Bigarren faktoreari dagokionez, Nafarroako Unibertsitateak eta Comillaseko Unibertsitate Pontifikalak grafikoan betetzen duten posizioa aipatu beharra dago. Erakunde hauek bigarren faktorean duten puntuazio altuak talde honetako gainontzeko unibertsitateek baino Ipar Amerikako ikasleen proportzio handiagoa eta unibertsitate gehienek baino Afrikako Iparraldeko ikasleen portzentaje txikiagoa dutela adierazten du. Gainera, Nafarroako unibertsitateak nazioarteko eskari maila ertaina duten gainontzeko unibertsitateek baino Erdialdeko Amerikako ikasleen proportzio handiagoa aurkezten du.

Alde batetik, Nafarroako unibertsitatearen kasuan, osasun zientzietara, zientzia esperimentaletara eta ikasketa teknikoetara orientaturiko unibertsitatea izan arren[64], ikasle iparramerikarrak, batez ere, gizarte eta zuzenbide zientzietan eta humanitateetan biltzen dira. Halaber, erakunde honetan Erdialdeko Amerikako

[63] Bai Carlos III.a Unibertsitatean, bai La Lagunako Unibertsitatean, gizarte eta zuzenbide zientzietan matrikulatutakoen portzentajea Espainiako unibertsitateen totalerako lortutako portzentajea baino handiagoa da, eta beraz, irakaskuntza adar honek unibertsitate hauetan pisu garrantzitsua duela esan dezakegu. Carlos III.a Unibertsitatearen kasuan gauza bera gertatzen da ikasketa teknikoen adarrarekin eta La Lagunako Unibertsitatearen kasuan humanitateen eta osasun zientzien adarrekin.

[64] Nafarroako unibertsitatean osasun zientzietako ikasleen portzentajea Espainiako unibertsitateen totalerako lortutako portzentajearen bikoitza baino handiagoa da. Unibertsitate honetan zientzia esperimentaletan eta ikasketa teknikoetan matrikulatutako ikasleen portzentajea ere Espainiako unibertsitateen totalerako lortutako portzentajea baino handiagoa da.

ikasleen bi herenek baino gehiagok gizarte eta zuzenbide zientziak ikasten dituzte.

Bestetik, Comillaseko Unibertsitate Pontifikalean ere ikasle iparramerikar gehienak gizarte eta zuzenbide zientzietan edo humanitateetan matrikulaturik daudela egiazta daiteke. Bigarren atalean jadanik aipatu dugu Ipar Amerikako ikasleek irakaskuntza adar hauek aukeratzeko duten joera orokorra. Horrez gain, Comillaseko Unibertsitate Pontifikaleko ikasleen matrikulazio datuek erakunde hau gizarte eta zuzenbide zientzietara orientaturik dagoela adierazten dute[65]. Arrazoizkoa da pentsatzea orientazio horrek unibertsitate honen ikasle iparramerikarren proportzio altuan eragina izan duela.

Elcheko Miguel Hernández Unibertsitatea, ordea, grafikoaren kontrako muturrean aurkitzen da, bigarren faktorean talde honetako gainontzeko unibertsitateek baino puntuazio baxuagoarekin. Erakunde honek nazioarteko eskari maila ertaineko gainontzeko unibertsitateek baino Afrikako iparraldeko ikasleen ehuneko handiagoa aurkezten du, baina ez du ikasle iparramerikarrik eta Erdialdeko Amerikako ikasleen proportzio baxua du.

Lehenago ere adierazi dugu Afrikako iparraldeko ikasleek ikasketa teknikoetan eta osasun zientzietan matrikulatzeko joera dutela. Elcheko Miguel Hernández Unibertsitatearen kasuan, Afrikako iparraldetik datozen ikasle ia guztiek irakaskuntza adar horietako ikasketak burutzen dituzte. Hortaz, zentzuzkoa da pentsatzea unibertsitate honek kontinente afrikarrarekiko duen

[65] Unibertsitate honetan gizarte eta zuzenbide zientzietan matrikulatutakoen portzentajea Espainiako unibertsitateen totalerako lortutako portzentajea baino handiagoa da.

hurbiltasun geografikoaz gain, osasun zientzietara eta ikasketa teknikoetara duen orientazioak[66] Afrikako iparraldeko ikasleen pisu nabarmena baldintzatu duela.

Jarraian talde honetako unibertsitateek hirugarren eta laugarren faktoreetan dituzten puntuazio faktorialak jasotzen dituen grafikoa aurkezten dugu. Faktore hauen eta aldagai originalen arteko erlazioa kontuan izanda erakunde unibertsitarioek grafikoan duten posizioa interpreta daiteke.



Kasu honetan garrantzitsua da azpimarratzea Kataluniako Unibertsitate Politeknikoak eta Kanaria Handiko las Palmasko Unibertsitateak hirugarren faktorean duten puntuazioa. Erakunde

[66] Nafarroako unibertsitatean bezala, Elcheko Miguel Hernández Unibertsitatean osasun zientzietako ikasleen portzentajea Espainiako unibertsitateen totalerako lortutako portzentajearen bikoitza baino handiagoa da. Ikasketa teknikoetan eta zientzia esperimentaletan matrikulatutako ikasleen portzentajea ere Espainiako unibertsitateen totalerako lortutako portzentajea baino handiagoa da.

hauek Asia eta Ozeaniako ikasleen ehuneko altua izateaz gain, talde honetako unibertsitateen artean, Afrikako gainontzeko herrialdeetako ikasleen portzentajerik altuena dutenak dira. Kataluniako Unibertsitate Politeknikoaren kasuan Asia eta Ozeaniako ikasleen portzentajea nazioarteko eskari maila ertaina duten gainontzeko unibertsitateetan baino handiagoa da.

Beste alde batetik, Balear Uharteetako Unibertsitateak hirugarren faktorean duen puntuazio baxuak agerian jartzen du erakunde honek talde honetako gainontzeko unibertsitateek baino Afrikako gainontzeko herrialdeetako ikasleen proportzio baxuagoa duela eta Asia eta Ozeaniako ikasleen portzentaje baxua duela.

Laugarren faktoreari dagokionez, Ramón Llull Unibertsitatea puntuaziorik txikiena daukana da. Honek erakunde hau, nazioarteko eskari maila ertaina duten unibertsitateen artean, Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleen ehunekorik handiena duena dela islatzen du. Ramón Llull Unibertsitateak emandako informazioaren arabera, erakunde honetan Europako gainontzeko herrialdeetako ikasle gehienak Andorrakoak izan daitezke.

Elcheko Miguel Hernández Unibertsitateak eta Kanaria Handiko las Palmasko Unibertsitateak laugarren faktorean aurkezten duten puntuazio altuak, ostera, erakunde hauen Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleen proportzio baxua adierazten du.

Nazioarteko Eskari Maila Baxua (laugarren taldea)

Atzerritarren portzentajea (-)	Asia eta Ozeania ikasleak (-)(-)
Zientzia esperimentalak ikasleak (-)(-)	Europar Batasuna portzentajea T. (+)
Osasun zientziak ikasleak (-)(-)	Europako gain. herr. portzen. T. (-)
Oso gazteak ikasleak (-)(-)	Afrikako iparraldea portzent. T. (-)
Gazteak ikasleak (-)(-)	Ipar Amerika portzentajea T. (-)
Atzerritarren totala (-)	Erdialdeko Amerika portzent. T. (-)

Europar Batasuna ikasleak (-)	Hego Amerika portzentajea T. (-)
Europako gain. herr. ikasleak (-)	Asia eta Ozeania portzentajea T. (-)
Afrikako iparraldea ikasleak (+)	Emakume ikasleak (-)(-)
Afrikako gain. herr. ikasleak (-)(-)	Europar Batasuna portzentajea (+)(+)
Ipar Amerika ikasleak (-)	Matrikulatuen totala (-)(-)
Erdialdeko Amerika ikasleak (-)(-)	Giz. eta zuz. zientziak ikasleak (-)(-)
Hego Amerika ikasleak (-)	Zientzia esperimentalak portzent. (-)(-)

Nazioarteko eskari maila baxua duten unibertsitateen taldean ere erakunde bakoitzaren orientazio internazional mota aztertzeko osagai nagusien analisi bat aplikatu dugu. Aurreko analisietan bezala autobalioa bat baino handiagoa duten faktoreak aukeratu ditugu eta Varimax errotazio ortogonal metodoa erabili dugu. Hurrengo paragrafoetan burututako analisiaren emaitza nagusiak aurkezten dira.

Lortutako lau faktoreek bariantza totalaren %82,158 azaltzen dute. Lehenengo faktoreak bariantza horren %32,634 azaltzen du, bigarren faktoreak %17,421, hirugarren faktoreak %17,339 eta laugarren faktoreak %14,764. Ondoko taulan faktore bakoitzak jasotzen dituen ezaugarriak zehazteko balio duten karga faktorialak agertzen dira.

Biratutako osagaien matrizea[a]

	Osagaia			
	1	2	3	4
Europar Batasuna portzentajea	-,591	-,657	-,250	-,388
Europako gain. herr. portzentajea	,005	-,049	-,067	,972
Afrikako iparraldea portzentajea	-,089	,963	-,181	-,133
Afrikako gain. herr. portzentajea	,857	-,098	-,216	,000
Ipar Amerika portzentajea	-,010	-,088	,911	,025
Erdialdeko Amerika portzentajea	,424	-,027	,485	-,166
Hego Amerika portzentajea	,852	,094	,162	,148
Asia eta Ozeania portzentajea	,784	,063	,385	-,132

Ateratze metodoa: Osagai nagusien analisia.
Errotazio metodoa: Varimax.
a. Errotazioa 5 iteraziotan batu da.

1. FAKTOREA: Aurreko taulan lehenengo faktoreak **Afrikako gainontzeko herrialdeetako** ikasleen portzentajea, **Hego**

Amerikako ikasleen portzentajea eta **Asia eta Ozeaniako** ikasleen portzentajea aldagaiak ordezkatzen dituela egiazta dezakegu. Aldagai hauen eta lehenengo faktorearen arteko erlazioa **positiboa** da.

2. FAKTOREA: Halaber, bigarren faktorearen eta **Afrikako iparraldeko** ikasleen proportzioaren arteko korrelazio **positibo** altua hauteman daiteke. Faktore honek, nahiz eta indar txikiagoarekin, Europar Batasuneko atzerritarren portzentajea ere azaltzen du, kasu honetan faktorearen eta aldagaiaren arteko korrelazioa negatiboa delarik.

3. FAKTOREA: Hirugarren faktorea **Ipar Amerikako** ikasleen proportzioarekin biziki erlazionaturik agertzen da eta neurri apalagoan Erdialdeko Amerikako ikasleen portzentajearekin. Bi aldagaien kasuan erlazioa **positiboa** da.

4. FAKTOREA: Laugarren faktoreak **Europako gainontzeko herrialdeetako** ikasleen portzentajearekin erlazio **positibo** sendoa aurkezten du.

Jarraian nazioarteko eskari maila baxuko unibertsitateek lehenengo bi faktoreetan duten puntuazioaren arabera grafikoan betetzen duten lekua ikus daiteke. Beraz, faktore hauen esanahia eta erakunde bakoitzaren kokapena kontuan izanda talde honetako unibertsitateen eskari internazionalaren jatorriari buruzko deskribapen orokor bat egin dezakegu.



Esate baterako, Nafarroako Unibertsitate Publikoak lehenengo faktorean duen puntuazio altuak aditzera ematen du erakunde honek Afrikako gainontzeko herrialdeetako ikasleen portzentaje altua aurkezten duela, hala nola talde honetako gainontzeko unibertsitateek baino Hego Amerikako ikasleen portzentaje handiagoa eta talde honetako unibertsitate gehienek baino Asia eta Ozeaniako ikasleen portzentaje handiagoa.

Irakaskuntza adarraren araberako ikasleen banaketan oinarrituz, Nafarroako Unibertsitate Publikoa ikasketa teknikoetara orientaturik dagoela esan dezakegu. Hala ere, ikasleen proportzio garrantzitsu batek gizarte eta zuzenbide zientziak ikasten dituela ere egiazta daiteke[67]. Beste alde batetik, esan beharra dago erakunde

[67] Unibertsitate honek ez du humanitateetako ezta zientzia esperimentaletako ikasketarik eskaintzen eta osasun zientzietan dauden ikasleen %4,9 izan ezik, gainontzeko ikasleak ia proportzio berdinean banatzen dira ikasketa teknikoetan eta gizarte eta zuzenbide zientzietan. Honek esan nahi du Nafarroako

honetan Asia eta Ozeaniako ikasleen herenak ikasketa teknikoak burutzen dituela eta gainontzeko Asia eta Ozeaniako ikasleek gizarte eta zuzenbide zientziak ikasten dituztela. Ikasketa teknikoek unibertsitate honetan duten garrantzia Asia eta Ozeaniako ikasleen proportzio altuarekin loturik egon daiteke. Horrez gain, Afrikako gainontzeko herrialdeetako ikasle guztiak eta Hego Amerikako ikasleen hiru laurdenetik gora gizarte eta zuzenbide zientzietan kontzentratzen direla ere aipatu beharra dago.

Grafikoaren aurkako muturrean azpimarratzekoa da Viceko Unibertsitateak eta Abat Oliba CEU Unibertsitateak betetzen duten posizioa. Erakunde hauek Europar Batasuneko ikasle internazionalak besterik ez dituzte, hortaz, ez dute Afrikako gainontzeko herrialdeetako, Hego Amerikako edo Asia eta Ozeaniako ikaslerik.

Bigarren faktoreari dagokionez, Sevillako Unibertsitatearen puntuazio altuak agerian jartzen du erakunde hau, nazioarteko eskari maila baxua duten unibertsitateen artean, Afrikako iparraldeko ikasleen proportziorik handiena eta Europar Batasuneko ikasleen portzentajerik txikiena duena dela. Zehazki, unibertsitate honetan ikasle internazionalen %60 baino gehiago Afrikako iparraldetik datoz.

Sevillako Unibertsitatean guztira matrikulatutako ikasleak kontuan izanda, unibertsitate hau ikasketa teknikoetara eta osasun

Unibertsitate Publikoan ikasketa teknikoetako ikasleen portzentajea Espainiako unibertsitateen totalerako lortutako portzentajea baino dezente handiagoa dela eta gizarte eta zuzenbide zientzietako ikasleen portzentajea Espainiako unibertsitateen totalerako lortutako portzentajea gainditzen ez duen arren, portzentaje horretatik nahiko hurbil dagoela.

zientzietara orientaturik dagoela baiezta dezakegu[68]. Bestalde, unibertsitate honetako Afrikako iparraldeko ikasleen %80 irakaskuntza adar horietan biltzen dira. Gorago aipatu dugunez, Espainian ikasten dauden Afrikako iparraldeko ikasleek ikasketa teknikoak eta osasun zientziak aukeratzeko joera dute. Beraz, Espainiako beste unibertsitate batzuetarako ere adierazi dugun bezala, Sevillako Unibertsitatearen kasuan, irakaskuntza adar hauek duten pisua eta erakunde honek Afrikako iparraldearekiko duen gertutasun geografikoa jatorri honetako ikasleen portzentaje altuarekin loturik egon daitezke.

Beste muturrean Viceko Unibertsitatea eta Abat Oliba CEU Unibertsitatea daude, non ikasle atzerritar guztiak Europar Batasunekoak diren.

Abat Oliba CEU Unibertsitateak gizarte eta zuzenbide zientzien adarreko ikasketak besterik ez ditu eskaintzen, eta beraz, erakunde honetako ikasle europar guztiak irakaskuntza adar horretan matrikulaturik daude. Edonola ere, zentzuzkoa da pentsatzea Abat Oliba CEU Unibertsitateak 2005/2006 ikasturtean zuen gaztetasuna[69] loturik egon daitekeela erakunde honek geografikoki hurbil dauden herrialdeetako ikasle internazionalak bakarrik izatearekin, zehazki, Europar Batasuneko ikasleak bakarrik izatearekin.

---

[68] Sevillako Unibertsitatean ikasketa teknikoetan eta osasun zientzietan matrikulatutako ikasleen portzentajea Espainiako unibertsitateen totalerako lortutako portzentajea baino handiagoa da. Gauza bera gertatzen da humanitateetan matrikulatutako ikasleen portzentajearekin.

[69] Kataluniako legebiltzarrak Abat Oliba CEU Unibertsitatea 2003. urtean onartu zuen unibertsitate bezala.

Viceko Unibertsitateak, berriz, irakaskuntza adar ezberdinetako ikasketak eskaintzen ditu, baina gizarte eta zuzenbide zientzietara, zientzia esperimentaletara eta osasun zientzietara orientazio handiagoa aurkezten duela esan daiteke[70]. Erakunde honetako ikasle europarrei dagokienez, hauek irakaskuntza adar ezberdinetan banaturik dauden arren, gehienak gizarte eta zuzenbide zientzietan edo humanitateetan matrikulaturik daudela egiazta daiteke.

Ondoko grafikoak nazioarteko eskari maila baxuko unibertsitateek hirugarren eta laugarren faktoreetan duten puntuazioa erakusten du. Faktore horien esanahia aintzakotzat hartuz talde honetako unibertsitateen nazioarteko eskariaren jatorriari buruzko deskribapena osa dezakegu.



[70] Viceko Unibertsitatean irakaskuntza adar horietan matrikulatutako ikasleen portzentajea Espainiako unibertsitateen totalerako lortutako portzentajea baino handiagoa da.

Grafikoaren alde batean Madrileko Europar Unibertsitateak hirugarren faktorean duen puntuazio altua nabarmen dezakegu. Honen arrazoia Madrileko Europar Unibertsitatea ikasle iparramerikarren proportziorik handiena duen Espainiako unibertsitatea dela da.

Bestalde, Camilo José Cela Unibertsitateak, Abat Oliba CEU Unibertsitateak, Viceko Unibertsitateak, Almeríako Unibertsitateak edo Lleidako Unibertsitateak hirugarren faktore honetan duten puntuazio baxua ere azpimarra dezakegu. Unibertsitate hauetatik batek ere ez du ikasle iparramerikarren portzentaje alturik aurkezten eta Erdialdeko Amerikako ikasleak dituen bakarra Almeríako Unibertsitatea da, talde honetako gainontzeko unibertsitateek baino Erdialdeko Amerikako ikasleen proportzio baxuagoa duena.

Garrantzitsua da ere Kataluniako Unibertsitate Irekiak betetzen duen lekua aintzat hartzea. Unibertsitate hau, Espainiako unibertsitate guztien artean, Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleen ehunekorik handiena duena da.

Abat Oliba CEU Unibertsitateak, Viceko Unibertsitateak eta Valentziako San Vicente Mártir Unibertsitate Katolikoak, ostera, talde honetako gainontzeko unibertsitateek baino puntuazio baxuagoa dute laugarren faktorean. Gorago esan dugun bezala, lehenengo biek ez dute Europako gainontzeko herrialdeetako ikaslerik eta Valentziako San Vicente Mártir Unibertsitate Katolikoa, talde honetako unibertsitateen artean, Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleen proportziorik baxuena aurkezten duena da.

Nazioarteko Eskari Maila Oso Baxua (lehenengo taldea)

Atzerritarren portzentajea (-)(-)	Asia eta Ozeania ikasleak (-)
Zientzia esperimentalak ikasleak (-)	Europar Batasuna portzentajea T. (-)(-)
Osasun zientziak ikasleak (-)	Europako gain. herr. portzen. T. (-)(-)
Oso gazteak ikasleak (-)	Afrikako iparraldea portzent. T (-)(-)
Gazteak ikasleak (-)	Ipar Amerika portzentajea T. (-)(-)
Atzerritarren totala (-)(-)	Erdialdeko Amerika portzent. T. (-)(-)
Europar Batasuna ikasleak (-)(-)	Hego Amerika portzentajea T. (-)(-)
Europako gain. herr. ikasleak (-)(-)	Asia eta Ozeania portzentajea T. (-)(-)
Afrikako iparraldea ikasleak (-)(-)	Emakume ikasleak (+)
Afrikako gain. herr. ikasleak (-)	Europar Batasuna portzentajea (+)
Ipar Amerika ikasleak (-)(-)	Matrikulatuen totala (+)
Erdialdeko Amerika ikasleak (-)	Giz. eta zuz. zientziak ikasleak (+)
Hego Amerika ikasleak (-)(-)	Zientzia esperimentalak portzent. (-)

Gainontzeko unibertsitate taldeen kasuan bezala, nazioarteko eskari maila oso baxua duten unibertsitateen kasuan ere, eskari internazionalaren jatorria aztertzeko osagai nagusien analisi bat aplikatu dugu. Lehenago egin dugun moduan autobalioa bat baino handiagoa duten faktoreak aukeratu ditugu eta Varimax errotazio ortogonal metodoa erabili dugu.

Emaitza gisa lau faktore lortu ditugu, bariantzaren %77,459 azaltzen dutenak. Lehenengo faktoreak bariantza totalaren %22,863 azaltzen du, bigarrenak %21,770, hirugarren faktoreak %17,621 eta laugarren faktoreak %15,206. Ondorengo taulako datuetan oinarrituz faktore bakoitzaren esanahia zehaztu dezakegu.

Biratutako osagaien matrizea[a]

	Osagaia			
	1	2	3	4
Europar Batasuna portzentajea	-,060	-,350	-,785	-,356
Europako gain. herr. portzentajea	-,028	-,010	-,025	,915
Afrikako iparraldea portzentajea	-,085	-,241	,846	-,280
Afrikako gain. herr. portzentajea	,811	-,076	,061	,275
Ipar Amerika portzentajea	,124	,799	-,117	-,130
Erdialdeko Amerika portzentajea	-,261	,814	,113	,137
Hego Amerika portzentajea	-,666	,495	,218	,172
Asia eta Ozeania portzentajea	,795	,084	-,012	-,181

Ateratze metodoa: Osagai nagusien analisia.
Errotazio metodoa: Varimax.
a. Errotazioa 6 iteraziotan batu da.

1. FAKTOREA: Lehenengo faktorea **Afrikako gainontzeko herrialdeetako** ikasleen portzentajearekin eta **Asia eta Ozeaniako** ikasleen proportzioarekin biziki erlazionaturik agertzen da. Aldagai hauen eta lehenengo faktorearen arteko korrelazioa **positiboa** da. Era berean, faktore honen eta Hego Amerikako ikasleen portzentajearen artean indar txikiagoko korrelazio negatibo bat dagoela ere egiazta daiteke.

2. FAKTOREA: Bigarren faktoreak batez ere **Ipar Amerikako** ikasleen portzentajea eta **Erdialdeko Amerikako** ikasleen portzentajea aldagaiak azaltzen ditu. Bigarren faktorearen eta aipatutako aldagaien arteko erlazioa **positiboa** da.

3. FAKTOREA: Hirugarren faktorearen eta **Afrikako iparraldeko** ikasleen proportzioaren artean korrelazio **positibo** sendo bat dagoela ere ikus daiteke. Horrez gain, hirugarren faktoreak **Europar Batasuneko** ikasleen portzentajearekin erlazio **negatibo** garrantzitsu bat aurkezten du.

4. FAKTOREA: Azkenik, laugarren faktoreak batik bat **Europako gainontzeko herrialdeetako** ikasleen portzentajea aldagaia ordezkatzen duela esan daiteke. Kasu honetan faktorearen eta aldagaiaren arteko erlazioa **positiboa** da.

Hurrengo grafikoan nazioarteko eskari maila oso baxua duten unibertsitateek lehenengo bi faktoreetan duten puntuazioa agertzen da. Erakunde bakoitzaren kokapena behatuz eta faktoreen esanahia kontuan hartuz, unibertsitate hauen nazioarteko eskariaren jatorriari buruzko alderdirik aipagarrienak azalduko ditugu.



Hasteko, Extremadurako Unibertsitateak lehenengo faktorean duen puntuazio altua azpimarratu beharra dago. Honek agerian uzten du Extremadurako Unibertsitatea, Espainiako unibertsitate guztien artean, Afrikako gainontzeko herrialdeetako eta Asia eta Ozeaniako ikasleen proportziorik handiena duena dela, hala nola erakunde honek Hego Amerikako ikasleen ehuneko baxua duela.

Extremadurako Unibertsitatean matrikulaturik dauden Afrikako gainontzeko herrialdeetako ikasle ia guztiek eta Asia eta Ozeaniako ikasleen erdiak baino gehiagok osasun zientziak ikasten dituzte[71]. Bigarren atalean jadanik esan dugu Afrikako gainontzeko herrialdeetako eta Asia eta Ozeaniako ikasleek osasun zientziak

[71] Zehazki, 2005/2006 ikasturtean zehar, Extremadurako unibertsitatean Afrikako gainontzeko herrialdeetatik zetorren ikasleriaren erdia baino gehiago medikuntzan matrikulaturik zegoen.

aukeratzeko joera arin bat aurkezten dutela. Beste alde batetik, irakaskuntza adar ezberdinetan matrikulatutako ikasleen proportzioa kontuan izanda, Extremadurako Unibertsitatea osasun zientzietara orientaturik dagoela baiezta dezakegu[72]. Orientazio hau Afrikako gainontzeko herrialdeetako eta Asia eta Ozeaniako ikasleen portzentaje altuarekin loturik egon daiteke.

Grafikoaren kontrako aldean, guztiz ezberdinak diren ezaugarriekin, Errioxako Unibertsitatea, S.E.K. Unibertsitatea eta San Antonio Unibertsitate Katolikoa aurkitzen dira. Erakunde hauetan ez dago Asia eta Ozeaniako ikaslerik eta azken bien kasuan Afrikako gainontzeko herrialdeetako ikaslerik ere ez.

Errioxako unibertsitateak, Afrikako gainontzeko herrialdeetako ikasleen ehuneko nahiko baxua izateaz gain, Espainiako gainontzeko unibertsitateek baino Hego Amerikako ikasleen portzentaje handiagoa aurkezten du. Bestalde, San Antonio Unibertsitate Katolikoaren kasuan ikasle hegoamerikarren proportzioa dezente altua da eta S.E.K. Unibertsitatearen kasuan nazioarteko eskari maila oso baxuko unibertsitate gehienetan baino altuagoa.

Bigarren faktoreari dagokionez, ezinbestekoa da Deustuko Unibertsitateak eta Salamancako Unibertsitate Pontifikalak duten puntuazio altuari arreta jartzea. Erakunde hauek nazioarteko eskari maila oso baxuko gainontzeko unibertsitateek baino Ipar

[72] Extremadurako Unibertsitatean osasun zientzietan matrikulatutako ikasleen portzentajea Espainiako unibertsitateen totalerako lortutako portzentajea baino handiagoa da. Era berean, zientzia esperimentaletan eta ikasketa teknikoetan matrikulatutako ikasleen portzentajea ere Espainiako unibertsitateen totalerako lortutako portzentajea baino handiagoa da.

Amerikako ikasleen ehuneko altuagoa aurkezten dute, hala nola Erdialdeko Amerikako ikasleen proportzio altua.

Unibertsitate hauetako ikasle iparramerikarrak, batik bat, gizarte eta zuzenbide zientzietan biltzen dira. Beste alde batetik, ikasle guztien matrikulazio datuak kontuan izanda, erakunde hauek gizarte eta zuzenbide zientzietara orientaturik daudela esan daiteke[73]. Beraz, gorago Comillaseko Unibertsitate Pontifikalaren kasurako ere azaldu dugun moduan, irakaskuntza adar honetara orientaturik egotea ikasle iparramerikarren portzentaje altuarekin erlazionaturik egon daiteke.

Deustuko Unibertsitatean, Erdialdeko Amerikako ikasleen portzentajea ere nazioarteko eskari maila oso baxuko gainontzeko unibertsitateetan baino handiagoa da. Ipar Amerikako ikasleek bezala erakunde honetako Erdialdeko Amerikako ikasle gehienek gizarte eta zuzenbide zientziak ikasten dituzte. Deustuko Unibertsitateak irakaskuntza adar honetara duen orientazioak Erdialdeko Amerikako ikasleen proportzio altuan ere eragina izan duela pentsa daiteke.

Grafikoaren aurkako muturrean, bigarren faktorean puntuazio baxua duten San Jorge Unibertsitatea, Rovira i Virgili Unibertsitatea eta Avilako Santa Teresa de Jesús Unibertsitate Katolikoa daude. Erakunde hauek ez daukate Ipar Amerikako ikaslerik ezta Erdialdeko Amerikako ikaslerik ere.

[73] Unibertsitate hauetan gizarte eta zuzenbide zientzietan matrikulatutako ikasleen portzentajea Espainiako unibertsitateen totalerako lortutako portzentajea baino handiagoa da. Gauza bera gertatzen da ikasketa teknikoetan matrikulatutako ikasleen portzentajearekin eta Deustuko Unibertsitatearen kasuan humanitateetan matrikulatutako ikasleen portzentajearekin.

Jarraian, talde honetako unibertsitateek hirugarren eta laugarren faktoreetan duten puntuazioa grafikoki aurkezten da. Grafikoa aztertuz eta hirugarren eta laugarren faktoreek jasotzen dituzten aldagaiak kontuan izanda unibertsitate hauen nazioarteko eskariaren jatorriari buruzko azalpena osa daiteke.



Alde batetik, Jaéneko Unibertsitateak hirugarren faktorean puntuaziorik altuena duen erakundea dela hauteman daiteke. Honek, agerian jartzen du unibertsitate honek, Europar Batasuneko ikasle internazionalen proportzio oso baxua izateaz gain, Espainiako gainontzeko unibertsitateek baino Afrikako iparraldeko ikasleen portzentaje handiagoa duela. Zehazkiago, Jaéneko Unibertsitateko ikasle internazional guztien %70 inguru Afrikako iparraldetik datoz eta hauetatik gehienek ikasketa teknikoak burutzen dituzte.

Bestetik, San Jorge Unibertsitateak betetzen duen lekua erakunde honetako ikasle internazionalen %100 Europar Batasunekoak direla islatzen du. Modu berean, Mondragon Unibertsitateak eta San Antonio Unibertsitate Katolikoak hirugarren faktorean puntuazio baxua aurkezten dutela ere ikus daiteke. Honen arrazoi nagusia unibertsitate hauek nazioarteko eskari maila oso baxuko unibertsitate gehienek baino Europar Batasuneko ikasleen proportzio handiagoa dutela eta Afrikako iparraldeko ikaslerik ez dutela da.

Halaber, Avilako Santa Teresa de Jesús Unibertsitate Katolikoak laugarren faktorean duen puntuazio altuak arreta erakartzen du. Honek aditzera ematen du erakunde hau, nazioarteko eskari maila oso baxuko unibertsitateen artean, Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleen portzentajerik altuena duena dela. Kontrako muturrean Mondragon Unibertsitatea aurkitzen da Europako gainontzeko herrialdeetako ikaslerik ez duena.

Azkenik, aipatu beharra dago Leóneko Unibertsitatea analisitik kanpo geratu dela Espainiako gainontzeko unibertsitateek baino nazioarteko eskari maila handiagoa izateagatik. Hala ere, erakunde honen orientazio internazional motari buruzko ideia orokor bat egiteko, bere nazioarteko ikasleen jatorria kapitulu honen bigarren atalean aurkeztutako Espainiako unibertsitate guztietako nazioarteko ikasleen jatorriarekin konpara daiteke.

Honela, Leóneko Unibertsitateak Europar Batasuneko eta Ipar Amerikako ikasleengana orientazio nabarmena aurkezten duela egiazta daiteke. Zehazki, erakunde honetan, Europar Batasuneko ikasleen portzentajea %64,35 da eta Ipar Amerikako ikasleen

portzentajea %11,46. Portzentaje hauek Espainiako unibertsitate guztietarako lortutako portzentajeen oso gainetik daude.

Bestalde, Leóneko Unibertsitatean Europar Batasunetik eta Ipar Amerikatik datozen ikasle gehienek gizarte eta zuzenbide zientziak edo humanitateak ikasten dituzte[74]. Bigarren atalean esan dugun bezala, Espainian ikasten dauden Europar Batasuneko eta Ipar Amerikako ikasle internazionalek humanitateak aukeratzeko atzerritarren totalak baino joera handiagoa daukate. Joera hau León bezalako hiri espainiar batzuen aberastasun kultural eta artistikoarekin lotu daiteke. Horrez gain, Espainian ikasten dauden ikasle iparramerikarren erdiak baino gehiagok gizarte eta zuzenbide zientziak ikasten dituzte. Espainia eta Ipar Amerikaren arteko erlazio ekonomikoek ikasle hauen lehentasunak azal ditzakete.

3.5 Espainiako Unibertsitate Mailako Hezkuntzaren Nazioarteko Eskariari buruzko Deskribapenaren Ondorio Nagusiak

Kapitulu honen oinarrizko helburua Espainiako goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskariaren ezaugarri aipagarrienak modu orokorrean azaltzea izan da. Aurkeztutako deskribapenak nagusiki

[74] Zehazki, unibertsitate honetako Europar Batasuneko ikasleen artean onarpen handieneko titulazioak enpresen administrazioan eta zuzendaritzan lizentziatura, filologia hispanikoan lizentziatura, merkatuen ikerketa eta tekniketan lizentziatura eta enpresa zientzietan diplomatura dira. Ipar Amerikako ikasleei dagokienez, gehienak enpresen administrazioan eta zuzendaritzan, filologia hispanikoan, historian edo merkatuen ikerketa eta tekniketan matrikulaturik daude.

nazioarteko eskari mailan eta eskari horren jatorrian jarri du arreta. Gainera, deskribapen hau ikuspegi ezberdinetatik planteatu da, hots, Espainiako eskari internazional osoa aztertzeaz gain, titulazioen eta unibertsitateen eskaria ere ikertu da.

Aipatutako alderdirik garrantzitsuenetako bat Espainiako unibertsitate mailako ikasketen nazioarteko eskariaren joera hazkorra da. Goi mailako ikasketak burutzeko adina duen populazio atzerritarraren areagotzea eta unibertsitateek nazioarteko ikasleengana duten orientazio handiagoa joera horrekin erlazionatu daitezkeen faktoreak dira.

Eskari horren jatorriari dagokionez, Espainian unibertsitate mailako ikasle internazional gehienak hegoamerikarrak edo Europar Batasunekoak direla baiezta daiteke. Hego Amerikako ikasleen kasuan hizkuntzarekin erlazionatutako oztoporik ez aurkitzeak eta Europar Batasuneko ikasleen kasuan hurbiltasun geografikoak jatorri hauetako ikasleen garrantzia azal dezakete.

Datuak irakaskuntza adar bakoitzerako banan-banan aztertuz ere, adar gehienetan Europar Batasuneko eta Hego Amerikako ikasleak nagusitzen direla hauteman daiteke. Dena den, osasun zientzien kasuan ikasle gehienak Afrikako iparraldetik datozela nabarmendu beharra dago.

Ikasle internazionalek aukeratutako ikasketei dagokienez, hauek batez ere gizarte eta zuzenbide zientzien eta ikasketa teknikoen alde egiten dutela ikus daiteke. Oro har, esan daiteke irakaskuntza adarraren araberako ikasle atzerritarren banaketa eta Espainiako ikasle guztien banaketa oso antzekoak direla.

Hala eta guztiz ere, jatorri bakoitzeko ikasleen datuak banan-banan kontuan izanda irakaskuntza adarraren araberako banaketa dezente aldatzen da. Besteak beste, Afrikako iparraldeko ikasleek, lehenik, ikasketa teknikoak eta, bigarrenik, osasun zientziak nahiago dituztela azpimarratu beharra dago. Iparramerikarren artean, ordea, pisurik handieneko irakaskuntza adarra gizarte eta zuzenbide zientzien adarra da eta ondoren humanitateen adarra.

Beste alde batetik, Espainiako unibertsitate-sistemak eskaintzen dituen titulazio ezberdinen nazioarteko eskari espezifikoa ere aztertu dugu. Horretarako, lehenengo eta behin, titulazio ezberdinak sailkatu ditugu bakoitzak duen nazioarteko eskari mailaren arabera. Ondoren, titulazio hauen beste sailkapen bat burutu dugu bakoitzaren eskari internazionalaren jatorria kontuan izanda. Sailkapen bien kasuan lortutako titulazio taldeak bereizten dituzten ezaugarri nagusiak identifikatzen saiatu gara.

Nazioarteko eskari mailaren araberako sailkapenari dagokionez, lau titulazio talde bereizi ditugu. Atzerriko eskari mailarik handiena duten titulazioen taldean nagusiki humanitateen adarreko ikasketak daudela ikus daiteke. Talde honek gainontzeko titulazio taldeek baino ikasle oso gazteen batez besteko portzentaje handiagoa aurkezten du eta adin ertaineko ikasleen batez besteko portzentaje txikiagoa.

Ikasleen jatorriarekin erlazionatutako aldagaiei dagokienez, nazioarteko eskari mailarik altuena duen titulazio taldea gainontzeko taldeek baino ikasle hegoamerikarren proportzio baxuagoa izateagatik eta Asia eta Ozeaniako ikasleen portzentaje altuagoa izateagatik nabarmentzen dela esan daiteke.

Beste alde batetik, eskari internazionalaren jatorriaren arabera bi titulazio talde nagusi bereiz daitezke. Lehenengo taldea Afrikatik, Erdialdeko Amerikatik, Hego Amerikatik eta Asia eta Ozeaniatik datozen ikasleen pisuagatik desberdintzen da. Bigarren taldea, non titulazio gehienak humanitateen adarrekoak diren, berriz, Europatik eta Ipar Amerikatik datozen ikasleen ehuneko altuagatik bereizten da.

Horrez gain, bigarren taldean nazioarteko eskari maila, emakumeen proportzioa eta ikasle helduen portzentajea lehenengo taldean baino handiagoa dela hauteman daiteke. Alderantziz, ikasle oso gazteen proportzioa eta matrikulatutako batez besteko ikasleen kopurua txikiagoa da.

Azkenik, goi mailako ikasketen eskari internazionalaren analisia unibertsitateen ikuspegitik ere burutu dugu. Lehenik, nazioarteko eskari mailaren araberako unibertsitateen sailkapen bat aurkeztu dugu eta lortutako taldeen arteko ezberdintasunak aztertu ditugu. Ondoren, unibertsitate talde bakoitzean, erakunde ezberdinen atzerriko eskariaren jatorria ere ikertu dugu.

Sailkapenaren emaitza gisa nazioarteko eskari maila ezberdineko bost unibertsitate talde lortu ditugu. Hau da, Espainiako unibertsitateen multzoa bost taldetan zatitu dugu erakunde bakoitzaren ikasle atzerritarren portzentajearen arabera.

Ondoren, lortutako unibertsitate taldeen ezaugarriak konparatu ditugu. Ikerlan honetan burututako analisi konparatibo motak aztertutako taldeek behintzat bi kasu izan ditzaten eskatzen duenez, atzerritarren portzentajerik altueneko taldea analisitik baztertu dugu, Leóneko Unibertsitateak bakarrik osatzen duelako. Gainontzeko

unibertsitate taldeei dagokienez, identifikatutako diferentzia gehienak erakundean matrikulatutako ezaugarri ezberdinetako ikasleen kopuruarekin erlazionatuta daudela esan daiteke. Ondorioz, arrazoizkoa da aurkitutako diferentziak talde ezberdinetako unibertsitateen tamaina ezberdinari egoztea.

Esaterako, hirugarren unibertsitate taldea, nazioarteko eskari mailarik altuena duena, batez besteko ikasleen kopururik handiena duena da eta egindako analisiaren arabera zientzia esperimentaletan eta osasun zientzietan matrikulatutako ikasleen kopurua handiagoa da talde honetan gainontzeko unibertsitate taldeetan baino. Era berean, ikasle oso gazteen, ikasle gazteen, emakumezkoen, atzerritarren eta aztertutako jatorri ezberdinetako ikasleen kopurua handiagoa da hirugarren unibertsitate taldean.

Jatorri ezberdinetako ikasleen portzentajea neurtzen duten aldagaiei dagokienez, Europar Batasuneko ikasleen proportzioan taldeen arteko diferentzia adierazgarriak daudela aurkitu dugu. Bigarren unibertsitate taldea nazioarteko eskari mailarik altuena duen bigarren taldea da eta garatutako analisiaren arabera Europar Batasuneko ikasle atzerritarren proportziorik baxuena duena dela baiezta dezakegu. Alderantziz, laugarren unibertsitate taldea nazioarteko eskari mailarik baxuena duen bigarren taldea da eta Europar Batasuneko ikasleen portzentajerik altuena duena.

Kapituluaren azken zatian Espainiako unibertsitateetako ikasle internazionalen jatorria aztertzean jarri dugu arreta. Analisia nazioarteko eskari maila ezberdineko unibertsitate talde bakoitzean burutu dugu, erakundeen jatorri ezberdinetako ikasleen portzentajea kontuan izanda. Hurrengo taulak azterketa honen emaitza

aipagarrienak laburtzen ditu eta zenbait unibertsitatetan jatorri jakin batzuetako ikasleek duten garrantzia erakusten du.

Unibertsitateen Orientazioa Jatorri Ezberdineko Ikasleengana

NAZIOARTEKO ESKARI MAILA ALTUA (3. TALDEA)	
Unibertsitatea	**Orientazioa**
Granadako U.	Afrikako iparraldea
Málagako U.	Afrikako iparraldea
Errege Juan Carlos U.	Hego Amerika
Kataluniako Nazioarteko U.	Europako gain. herr. eta Erdialdeko Amerika
Francisco de Vitoria U.	Ipar Amerika
Madrileko U. Politeknikoa	Europar Batasuna eta Asia eta Ozeania
NAZIOARTEKO ESKARI MAILA ERTAINA (2. TALDEA)	
Unibertsitatea	**Orientazioa**
Kordobako U.	Europar Batasuna
Madrileko Carlos III.a U.	Hego Amerika
La Lagunako U.	Hego Amerika
Comillaseko U. Pontifikala	Ipar Amerika
Nafarroako U.	Ipar Amerika eta Erdialdeko Amerika
Elcheko Miguel Hernández U.	Afrikako iparraldea
Kataluniako U. Politeknikoa	Afrikako gain. herr. eta Asia eta Ozeania
Kanaria Handiko las Palmasko U.	Afrikako gainontzeko herrialdeak
Ramón Llull U.	Europako gainontzeko herrialdeak
NAZIOARTEKO ESKARI MAILA BAXUA (4. TALDEA)	
Unibertsitatea	**Orientazioa**
Nafarroako U. Publikoa	Hego Amerika eta Asia eta Ozeania
Sevillako U.	Afrikako iparraldea
Viceko U.	Europar Batasuna
Abat Oliba CEU U.	Europar Batasuna
Madrileko Europar U.	Ipar Amerika
Kataluniako U. Irekia	Europako gainontzeko herrialdeak
NAZIOARTEKO ESKARI MAILA OSO BAXUA (1. TALDEA)	
Unibertsitatea	**Orientazioa**
Extremadurako U.	Afrikako gain. herr. eta Asia eta Ozeania
Errioxako U.	Hego Amerika
Salamancako U. Pontifikala	Ipar Amerika
Deustuko U.	Ipar Amerika eta Erdialdeko Amerika
Jaéneko U.	Afrikako iparraldea
San Jorge U.	Europar Batasuna
Mondragon U.	Europar Batasuna
Avilako S. Teresa de Jesús U. Kat.	Europako gain. herrialdeak
NAZIOARTEKO ESKARI MAILA OSO ALTUA (5. TALDEA)	
Unibertsitatea	**Orientazioa**
Leóneko U.	Europar Batasuna eta Ipar Amerika

Iturria: Egileak moldatua

Hasteko, nazioarteko eskari mailarik altueneko unibertsitateen artean, Granada eta Málagako unibertsitateek Afrikako iparraldeko ikasleengana duten orientazioa eta Errege Juan Carlos Unibertsitateak ikasle hegoamerikarrengana duen orientazioa azpimarra daitezke.

Lehenengo bi erakundeen kasuan zentzuzkoa da pentsatzea beren kokapen geografikoak beren ikasle atzerritarren jatorria baldintzatu duela. Arrazoizkoa da ere pentsatzea Granadako Unibertsitatea osasun zientzietara orientaturik egoteak Afrikako iparraldeko ikasleak erakarri dituela.

Errege Juan Carlos Unibertsitatearen kasuan, gizarte eta zuzenbide zientzietara orientaturik egoteak eta Hego Amerikako ikasleek irakaskuntza adar hori aukeratzeko duten joerak ikasle hegoamerikarrek erakunde honetan duten garrantzia azal dezakete.

Nazioarteko eskari mailarik handieneko taldean Kataluniako Nazioarteko Unibertsitateak Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleei eta Erdialdeko Amerikako ikasleei emandako arreta ere nabarmen dezakegu. Unibertsitate honetan ikasten duten Europako gainontzeko herrialdeetako ikasle gehienak Andorrakoak dira. Katalana Andorran hizkuntza ofiziala izatea eta herrialde honen eta Kataluniaren arteko gertutasuna unibertsitate katalan batzuen Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleen proportzio altuarekin erlaziona daitezkeen faktoreak dira.

Azkenik, nazioarteko eskari mailarik altueneko unibertsitateen artean, ikasle iparramerikarrek Francisco de Vitoria Unibertsitatean eta Europar Batasuneko eta Asia eta Ozeaniako ikasleek Madrileko Unibertsitate Politeknikoan duten garrantzia aipatu beharra dago.

Francisco de Vitoria Unibertsitatearen eta Mexikon sortutako Legión de Cristo kongregazioaren arteko loturak unibertsitate honek Ipar Amerikako ikasleengana duen orientazioa azal dezake.

Nazioarteko eskari maila ertaineko unibertsitate taldearen barruan Kordobako Unibertsitatea Europar Batasuneko ikasleen proportziorik handiena duena dela esan beharra dago eta Madrileko Carlos III.a Unibertsitatea eta La Lagunako Unibertsitatea Hego Amerikako ikasleen portzentajerik handienekoak direla.

Kordobako Unibertsitatearen kasuan Europar Batasuneko ikasle gehienek humanitateetako ikasketak burutzen dituzte eta Kordobako hiriaren aberastasun kulturalak ikasle hauek erakarri dituela pentsa daiteke.

Madrileko Carlos III.a Unibertsitatearen eta La Lagunako Unibertsitatearen kasuan, ikasle hegoamerikarrak batez ere gizarte eta zuzenbide zientzietan biltzen dira. Erakunde hauetako irakaskuntza adar ezberdinetako ikasleen portzentajea kontuan izanda bidezkoa da esatea unibertsitate hauek gizarte eta zuzenbide zientzietara orientaturik daudela. Honek Espainiarekin ekonomikoki erlazionaturik dauden herrialdeetako ikasleak erakar ditzake.

Nazioarteko eskari maila ertaineko unibertsitateen artean, gizarte eta zuzenbide zientzietara orientaturik dagoen Comillaseko Unibertsitate Pontifikalak duen ikasle iparramerikarren proportzio altua ere azpimarra dezakegu. Gisa berean, garrantzitsua da Nafarroako Unibertsitatean Ipar Amerikako eta Erdialdeko Amerikako ikasleek duten pisua nabarmentzea.

Beste alde batetik, aipatu beharra dago Elcheko Miguel Hernández Unibertsitatean Afrikako iparraldeko ikasleek duten

garrantzia. Erakunde hau ikasketa teknikoetara eta osasun zientzietara orientaturik egotea eta Afrikako iparraldetik hurbil egotea Afrikako iparraldeko ikasleen proportzio altuan eragina izan duten faktoreak direla pentsa daiteke.

Atzerriko eskari maila ertaineko unibertsitateen analisiarekin bukatzeko, esan dezakegu Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa Asia eta Ozeaniako eta Afrikako gainontzeko herrialdeetako ikasleengana duen orientazioagatik bereizten dela, Kanaria Handiko las Palmasko Unibertsitatea Afrikako gainontzeko herrialdeetako ikasleei emandako arretagatik eta Ramón Llull Unibertsitatea Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleengana orientaturik egoteagatik. Kataluniako Nazioarteko Unibertsitatearen kasurako esan dugun bezala, Ramón Llull Unibertsitatea Andorratik gertu egotea erakunde honen Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleen proportzio altuarekin loturik egon daiteke.

Nazioarteko eskari maila baxuko unibertsitateen taldean merezi du nabarmendua izatea Nafarroako Unibertsitate Publikoaren orientazioa Hego Amerikako eta Asia eta Ozeaniako ikasleengana. Unibertsitate hau ikasketa teknikoetara orientaturik egotea Asia eta Ozeaniako ikasleen proportzio altua azaltzeko faktore bezala aipa daiteke.

Horrez gain, talde honetan Afrikako iparraldeko ikasleengana orientatuen dagoen unibertsitatea Sevillakoa da eta Europar Batasuneko ikasleengana orientatuen daudenak Viceko eta Abat Oliba CEU unibertsitateak, non nazioarteko ikasle guztiak Europar Batasunekoak diren. Sevillako Unibertsitatearen kasuan, Espainiako beste zenbait unibertsitateen kasurako esan dugun bezala, Afrikako

iparraldetik hurbil egoteak eta ikasketa teknikoek eta osasun zientziek duten garrantziak Afrikako iparraldeko ikasleen portzentaje altuan eragina izan dutela pentsa daiteke.

Madrileko Europar Unibertsitateak ikasle iparramerikarrei eta Kataluniako Unibertsitate Irekiak Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleei emandako arreta ere azpimarratzekoa da. Kataluniako Unibertsitate Irekiaren kasuan, beste zenbait unibertsitate katalanen kasurako adierazi dugun bezala, Andorratik gertu egotea Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleen proportzio altuarekin erlazionaturik egon daiteke.

Atzerriko eskari mailarik baxueneko unibertsitateei dagokienez, Extremadurako Unibertsitatea Afrikako gainontzeko herrialdeetako eta Asia eta Ozeaniako ikasleen proportziorik handiena duen Espainiako unibertsitatea dela esan dezakegu. Erakunde hau osasun zientzietara orientaturik egotea Afrikako gainontzeko herrialdeetako eta Asia eta Ozeaniako ikasleen portzentaje altuarekin loturik egon daiteke.

Era berean, Errioxako Unibertsitatea Hego Amerikako ikasleen portzentajerik handieneko Espainiako unibertsitatea dela ikusi dugu, Salamancako Unibertsitate Pontifikala, nazioarteko eskari maila baxueneko unibertsitateen artean, Ipar Amerikako ikasleengana orientatuen dagoena dela eta Deustuko Unibertsitatea, Ipar Amerikako ikasleei arreta garrantzitsua emateaz gain, talde honetako unibertsitateen artean, Erdialdeko Amerikako ikasleen proportziorik handiena duena dela. Azken bi erakundeen kasuan gizarte eta zuzenbide zientzietara orientaturik egoteak ikasle iparramerikarren proportzio altuan eragina izan duela pentsa

daiteke. Deustuko Unibertsitatearen kasuan gizarte eta zuzenbide zientzietara orientaturik egotea Erdialdeko Amerikako ikasleen portzentaje altuarekin ere erlaziona daiteke.

Bestalde, Jaéneko Unibertsitatea Afrikako iparraldeko ikasleen ehunekorik handiena duen Espainiako unibertsitatea izateagatik nabarmentzen da, San Jorge Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea, atzerriko eskari mailarik baxueneko unibertsitateen artean, Europar Batasuneko ikasleen proportziorik handiena izateagatik eta Avilako Santa Teresa de Jesús Unibertsitate Katolikoa, talde honetako unibertsitateen artean, Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleen portzentajerik handiena izateagatik. Jaéneko Unibertsitatearen kasuan, Espainiako beste unibertsitate batzuen kasuan bezala, Afrikako iparraldetik hurbil egoteak eta ikasketa teknikoetara orientaturik egoteak Afrikako iparraldeko ikasleen proportzio altuan eragin dutela ondoriozta daiteke.

Amaitzeko, aipatu beharra dago Leóneko Unibertsitateak Espainiako gainontzeko unibertsitateek baino nazioarteko ikasleen proportzio handiagoa duela. Horrez gain, erakunde honetan Europar Batasuneko eta Ipar Amerikako ikasleen portzentajea Espainiako unibertsitate guztietarako lortutako portzentajea baino dezente handiagoa da. Leóneko hiriaren aberastasun artistikoa ikasle hauen proportzio altuarekin erlazionaturik dagoela pentsa daiteke.

Goi mailako hezkuntzaren eskari internazionalari buruz egindako deskribapen orokor honek agerian jartzen du Espainiako unibertsitateak nabarmenki diferenteak direla haien nazioarteko eskariaren ezaugarriei dagokienez. Hala eta guztiz ere, zenbait

erakundek antzekotasunak aurkezten dituzte, eta honek arrazoizko egiten du erakunde batzuek jatorri berdineko ikasleak erakartzeagatik lehiatzen dutela pentsatzea. Nolanahi ere unibertsitate bakoitza inguratzen duen errealitatea oso ezberdina da, eta beraz, erakunde bakoitzaren nazioarteko eskaria determinatzen duten faktore anitz egon daitezke.

Ondorioz, aurkeztutako analisiak unibertsitate bakoitzaren eskari internazionalaren ezaugarriak eta unibertsitateen arteko gertutasuna modu orokorrean baloratzeko bidea ematen duen arren, erakunde bakoitzaren nazioartekotzearekin erlazionatutako gomendio espezifikoak edo politika zehatzak adierazteko kasu konkretu bakoitzaren ikerketa sakona burutu beharko litzateke.

ERANSKINA: Hezkuntza Ministerioaren Ikasle Unibertsitarioen Estatistika

HEZKUNTZA MINISTERIOAREN 2005/2006 IKASTURTEKO IKASLE UNIBERTSITARIOEN ESTATISTIKAK ESKAINTZEN DITUEN ALDAGAIAK

Titulazio Unibertsitarioen Nazioarteko Eskaria

- Atzerritarren kopuru totala titulazioan (***Atzerritarren totala***).
- Matrikulatuen kopuru totala titulazioan (***Matrikulatuen totala***).

- Europar Batasuneko (25) atzerritarren kopurua titulazioan (***Europar Batasuna ikasleak***).
- Europako gainontzeko herrialdeetako atzerritarren kopurua titulazioan (***Europako gainontzeko herrialdeak ikasleak***).
- Afrikako iparraldeko atzerritarren kopurua titulazioan (***Afrikako iparraldea ikasleak***).
- Afrikako gainontzeko herrialdeetako atzerritarren kopurua titulazioan (***Afrikako gainontzeko herrialdeak ikasleak***).
- Ipar Amerikako atzerritarren kopurua titulazioan (***Ipar Amerika ikasleak***).
- Erdialdeko Amerikako atzerritarren kopurua titulazioan (***Erdialdeko Amerika ikasleak***).
- Hego Amerikako atzerritarren kopurua titulazioan (***Hego Amerika ikasleak***).
- Asia eta Ozeaniako atzerritarren kopurua titulazioan (***Asia eta Ozeania ikasleak***).

Erakunde Unibertsitarioen Nazioarteko Eskaria

- Atzerritarren kopuru totala erakundean (***Atzerritarren totala***).
- Matrikulatuen kopuru totala erakundean (***Matrikulatuen totala***).

- Gizarte eta zuzenbide zientzietan matrikulatuen kopurua erakundean (***Gizarte eta zuzenbide zientziak ikasleak***).
- Ikasketa teknikoetan matrikulatuen kopurua erakundean (***Ikasketa teknikoak ikasleak***).
- Humanitateetan matrikulatuen kopurua erakundean (***Humanitateak ikasleak***).
- Zientzia esperimentaletan matrikulatuen kopurua erakundean (***Zientzia esperimentalak ikasleak***).
- Osasun zientzietan matrikulatuen kopurua erakundean (***Osasun zientziak ikasleak***).

- Matrikulatutako emakumeen kopurua erakundean (***Emakume ikasleak***).

- 18 eta 21 urte bitarteko matrikulatuen kopurua erakundean (***Oso gazteak ikasleak***).
- 22 eta 25 urte bitarteko matrikulatuen kopurua erakundean (***Gazteak ikasleak***).
- 26 eta 30 urte bitarteko matrikulatuen kopurua erakundean (***Adin ertaina ikasleak***).
- 30 urte baino gehiagoko matrikulatuen kopurua erakundean (***Helduak ikasleak***).

- Europar Batasuneko (25) atzerritarren kopurua erakundean (***Europar Batasuna ikasleak***).
- Europako gainontzeko herrialdeetako atzerritarren kopurua erakundean (***Europako gainontzeko herrialdeak ikasleak***).
- Afrikako iparraldeko atzerritarren kopurua erakundean (***Afrikako iparraldea ikasleak***).
- Afrikako gainontzeko herrialdeetako atzerritarren kopurua erakundean (***Afrikako gainontzeko herrialdeak ikasleak***).
- Ipar Amerikako atzerritarren kopurua erakundean (***Ipar Amerika ikasleak***).
- Erdialdeko Amerikako atzerritarren kopurua erakundean (***Erdialdeko Amerika ikasleak***).
- Hego Amerikako atzerritarren kopurua erakundean (***Hego Amerika ikasleak***).
- Asia eta Ozeaniako atzerritarren kopurua erakundean (***Asia eta Ozeania ikasleak***).

HEZKUNTZA MINISTERIOAREN 2005/2006 IKASTURTEKO IKASLE UNIBERTSITARIOEN ESTATISTIKAK ESKAINTZEN DUEN INFORMAZIOA OINARRI HARTUTA ANALISIRAKO SORTUTAKO ALDAGAIAK

Titulazio Unibertsitarioen Nazioarteko Eskaria

- Atzerritarren portzentajea titulazioan = (Atzerritarren totala/ Matrikulatuen totala)*100 (***Atzerritarren portzentajea***).

- Europar Batasuneko ikasleen portzentajea titulazioan = (Europar Batasuna ikasleak / Atzerritarren totala)*100 (***Europar Batasuna portzentajea***).
- Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleen portzentajea titulazioan = (Europako gainontzeko herrialdeak ikasleak / Atzerritarren totala)*100 (***Europako gainontzeko herrialdeak portzentajea***).
- Afrikako iparraldeko ikasleen portzentajea titulazioan = (Afrikako iparraldea ikasleak / Atzerritarren totala)*100 (***Afrikako iparraldea portzentajea***).
- Afrikako gainontzeko herrialdeetako ikasleen portzentajea titulazioan = (Afrikako gainontzeko herrialdeak ikasleak / Atzerritarren totala)*100 (***Afrikako gainontzeko herrialdeak portzentajea***).

- Ipar Amerikako ikasleen portzentajea titulazioan = (Ipar Amerika ikasleak / Atzerritarren totala)*100 (***Ipar Amerika portzentajea***).
- Erdialdeko Amerikako ikasleen portzentajea titulazioan = (Erdialdeko Amerika ikasleak / Atzerritarren totala)*100 (***Erdialdeko Amerika portzentajea***).
- Hego Amerikako ikasleen portzentajea titulazioan = (Hego Amerika ikasleak / Atzerritarren totala)*100 (***Hego Amerika portzentajea***).
- Asia eta Ozeaniako ikasleen portzentajea titulazioan = (Asia eta Ozeania ikasleak / Atzerritarren totala)*100 (***Asia eta Ozeania portzentajea***).

- Emakumeen portzentajea titulazioan = (Matrikulatutako emakumeen kopurua titulazioan / Matrikulatuen totala)*100 (***Emakumeen portzentajea***).

- Oso gazteen portzentajea titulazioan = (18 eta 21 urte bitarteko matrikulatuen kopurua titulazioan / Matrikulatuen totala)*100 (***Oso gazteak portzentajea***).
- Gazteen portzentajea titulazioan = (22 eta 25 urte bitarteko matrikulatuen kopurua titulazioan / Matrikulatuen totala)*100 (***Gazteak portzentajea***).
- Adin ertainekoen portzentajea titulazioan = (26 eta 30 urte bitarteko matrikulatuen kopurua titulazioan / Matrikulatuen totala)*100 (***Adin ertaina portzentajea***).
- Helduen portzentajea titulazioan = (30 urte baino gehiagoko matrikulatuen kopurua titulazioan / Matrikulatuen totala)*100 (***Helduak portzentajea***).

- Titulazio taldea:Titulazio bakoitza zein kluster edo taldekoa den adierazten du (***Taldea***).

Erakunde Unibertsitarioen Nazioarteko Eskaria

- Atzerritarren portzentajea erakundean = (Atzerritarren totala/ matrikulatuen totala)*100 (***Atzerritarren portzentajea***).

- Gizarte eta zuzenbide zientzietan matrikulatuen portzentajea erakundean = (Gizarte eta zuzenbide zientziak ikasleak / Matrikulatuen totala)*100 (***Gizarte eta zuzenbide zientziak portzentajea***).
- Ikasketa teknikoetan matrikulatuen portzentajea erakundean = (Ikasketa tek. ikasleak / Matrikulatuen totala)*100 (***Ikasketa teknikoak portzentajea***).
- Humanitateetan matrikulatuen portzentajea erakundean = (Humanitateak ikasleak / Matrikulatuen totala)*100 (***Humanitateak portzentajea***).
- Zientzia esperimentaletan matrikulatuen portzentajea erakundean = (Zient. esp. ikasleak / Matrikulatuen totala)*100 (***Zientzia esperimentalak portzentajea***).
- Osasun zientzietan matrikulatuen portzentajea erakundean = (Osasun zientziak ikasleak / Matrikulatuen totala)*100 (***Osasun zientziak portzentajea***).

- Emakumeen portzentajea erakundean = (Emakume ikasleak / Matrikulatuen totala)*100 (***Emakumeen portzentajea***).

- Oso gazteen portzentajea erakundean = (Oso gazteak ikasleak / Matrikulatuen totala)*100 (***Oso gazteak portzentajea***).
- Gazteen portzentajea erakundean = (Gazteak ikasleak / Matrikulatuen totala)*100 (***Gazteak portzentajea***).

- Adin ertainekoen portzentajea erakundean = (Adin ertaina ikasleak / Matrikulatuen totala)*100 (***Adin ertaina portzentajea***).
- Helduen portzentajea erakundean = (Helduak ikasleak / Matrikulatuen totala)*100 (***Helduak portzentajea***).

- Europar Batasuneko ikasleen portzentajea erakundean = (Europar Batasuna ikasleak / Atzerritarren totala)*100 (***Europar Batasuna portzentajea***).
- Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleen portzentajea erakundean = (Europako gainontzeko herrialdeak ikasleak / Atzerritarren totala)*100 (***Europako gainontzeko herrialdeak portzentajea***).
- Afrikako iparraldeko ikasleen portzentajea erakundean = (Afrikako iparraldea ikasleak / Atzerritarren totala)*100 (***Afrikako iparraldea portzentajea***).
- Afrikako gainontzeko herrialdeetako ikasleen portzentajea erakundean = (Afrikako gainontzeko herrialdeak ikasleak / Atzerritarren totala)*100 (***Afrikako gainontzeko herrialdeak portzentajea***).
- Ipar Amerikako ikasleen portzentajea erakundean = (Ipar Amerika ikasleak / Atzerritarren totala)*100 (***Ipar Amerika portzentajea***).
- Erdialdeko Amerikako ikasleen portzentajea erakundean = (Erdialdeko Amer. ikasleak / Atzerritarren totala)*100 (***Erdialdeko Amerika portzentajea***).
- Hego Amerikako ikasleen portzentajea erakundean = (Hego Amerika ikasleak / Atzerritarren totala)*100 (***Hego Amerika portzentajea***).
- Asia eta Ozeaniako ikasleen portzentajea erakundean = (Asia eta Ozeania ikasleak / Atzerritarren totala)*100 (***Asia eta Ozeania portzentajea***).

- Europar Batasuneko ikasleen portzentajea erakundean Totalarekiko= (Europar Bat. ikasleak / Matrikulatuen totala)*100 (***Europar Batasuna portzentajea T.***).
- Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleen portzentajea erakundean Totalarekiko = (Europako gainontzeko herrialdeak ikasleak / Matrikulatuen totala)*100 (***Europako gainontzeko herrialdeak portzentajea T.***).
- Afrikako iparraldeko ikasleen portzentajea erakundean Totalarekiko = (Afri. ip. ikasleak / Matrikulatuen totala)*100 (***Afrikako iparraldea portzentajea T.***).
- Afrikako gainontzeko herrialdeetako ikasleen portzentajea erakundean Totalarekiko = (Afrikako gainontzeko herrialdeak ikasleak / Matrikulatuen totala)*100 (***Afrikako gainontzeko herrialdeak portzentajea T.***).
- Ipar Amerikako ikasleen portzentajea erakundean Totalarekiko = (Ipar Amerika ikasleak / Matrikulatuen totala)*100 (***Ipar Amerika portzentajea T.***).
- Erdialdeko Amerikako ikasleen portzentajea erakundean Totalarekiko = (Erdialdeko Amerika ikasleak / Matrikulatuen totala)*100 (***Erdialdeko Amerika portzentajea T.***).
- Hego Amerikako ikasleen portzentajea erakundean Totalarekiko = (Hego Amerika ikasleak / Matrikulatuen totala)*100 (***Hego Amerika portzentajea T.***).
- Asia eta Ozeaniako ikasleen portzentajea erakundean Totalarekiko = (Asia eta Ozean. ikasleak / Matrikulatuen totala)*100 (***Asia eta Ozeania portzentajea T.***).

- Unibertsitate taldea:Unibertsitate bakoitza zein kluster edo taldekoa den adierazten du (***Taldea***).

HEZKUNTZA MINISTERIOAREN 2005/2006 IKASTURTEKO IKASLE UNIBERTSITARIOEN ESTATISTIKAREN ARABERAKO HERRIALDEEN TALDEKATZEA

EUROPAR BATASUNA (25)

Alemania	Irlanda
Austria	Italia
Belgika	Letonia
Zipre	Lituania
Danimarka	Luxenburgo
Eslovakiar Errepublika edo Eslovakia	Malta
Eslovenia	Herbehereak
Estonia	Polonia
Finlandia	Portugal
Frantzia	Erresuma Batua
Grezia	Txekiar Errepublika edo Txekia
Hungaria	Suedia

EUROPAKO GAINONTZEKO HERRIALDEAK

Albania	Moldavia
Andorra	Monako
Armenia	Norvegia
Azerbaijan	Errumania
Bielorrusia	Errusia
Bosnia-Herzegovina	San Marino
Bulgaria	Suitza
Kroazia	Turkia
Georgia	Ukraina
Islandia	Vatikanoa
Liechtenstein	Serbia
Mazedonia	Montenegro

AFRIKAKO IPARRALDEA

Aljeria	Mauritania
Egipto	Mendebaldeko Sahara
Libia	Tunisia
Maroko	

AFRIKAKO GAINONTZEKO HERRIALDEAK

Angola	Malawi
Benin	Mali
Botswana	Maurizio
Burkina Faso	Mozambike
Burundi	Namibia
Cabo Verde	Nigerko Errepublika
Kamerun	Nigeria
Komoreak	Afrika Erdiko Errepublika

AFRIKAKO GAINONTZEKO HERRIALDEAK

Kongo	Kongoko Errep. Dem. (lehen Zaire)
Boli Kosta	Hegoafrikako Errepublika
Txad	Ruanda
Djibuti	Sao Tome eta Principe
Eritrea	Senegal
Etiopia	Seychelleak
Gabon	Sierra Leona
Gambia	Somalia
Ghana	Sudan
Ginea	Swazilandia
Ekuatore Ginea	Tanzania
Ginea Bissau	Togo
Kenya	Uganda
Lesotho	Zambia
Liberia	Zimbabwe
Madagaskar	

IPAR AMERIKA

Ameriketako Estatu Batuak	Mexiko
Kanada	

ERDIALDEKO AMERIKA

Antigua eta Barbuda	Haiti
Holandarren Antillak	Honduras
Bahamak	Jamaika
Barbados	Nikaragua
Belize	Panama
Costa Rica	Puerto Rico
Kuba	Dominikar Errepublika
Dominika	Saint Kitts eta Nevis
El Salvador	Saint Vincent eta Grenadinak
Grenada	Santa Luzia
Guatemala	Trinidad eta Tobago

HEGO AMERIKA

Argentina	Guyana
Bolivia	Paraguai
Brasil	Peru
Kolonbia	Surinam
Txile	Uruguai
Ekuador	Venezuela

ASIA ETA OZEANIA

Afganistan	Pakistan
Saudi Arabia	Palestina
Bahrain	Qatar

ASIA ETA OZEANIA

Bangladesh
Bhutan
Brunei
Ipar Korea
Hego Korea
Txina
Arabiar Emirerri Batuak
Filipinak
India
Indonesia
Iran
Irak
Israel
Japonia
Jordania
Kanbodia
Kazakhstan,
Kirgizistan
Kuwait
Laos
Libano
Malaysia
Maldivak
Mongolia
Myanmar
Nepal
Oman
Singapur
Siria
Sri Lanka
Tailandia
Taiwan
Tajikistan
Turkmenistan
Uzbekistan
Vietnam
Yemen

Australia
Fiji
Kiribati
Marshall Uharteak
Mikronesia
Nauru
Zeelanda Berria
Palau
Papua Ginea Berria
Salomon Uharteak
Mendebaldeko Samoa
Ekialdeko Timor
Tonga
Tuvalu
Vanuatu

4.KAPITULUA

ESPAINIAKO GOI MAILAKO HEZKUNTZAREN NAZIOARTEKO ESKARIAREN FAKTORE ERABAKIGARRIAK

4.1 Sarrera

Honako kapituluaren helburu nagusia Espainiako unibertsitate mailako hezkuntzaren eskarian eragina duten faktoreak identifikatzea da. Aurreko kapituluan bezalaxe, titulazioen nazioarteko eskaria zein unibertsitate erakundeen nazioarteko eskaria aztertuko ditugu.

Bosgarren kapituluan egingo dugun analisian ez bezala, kasu honetan ez dugu aztertuko atzerritarren ezaugarri indibidualek Espainian goi mailako hezkuntza eskatzeko ala ez eskatzeko erabakian duten eragina. Kapitulu honetan asmoa nazioarteko eskariaren maila edota eskari horren jatorria zehazten dituzten unibertsitate edo titulazioen ezaugarriak hautematea da.

Lehenik, jarraian datorren atalean, titulazio unibertsitario ezberdinen iraupenaren eragina aztertuko dugu, baita titulazio bakoitzaren irakaskuntza adarraren efektua euren nazioarteko eskari mailan eta eskari horren jatorrian.

Ondoren, hirugarren atalean, Espainiako unibertsitateen atzerriko eskari maila eta eskari horren jatorria hainbat faktoreren arabera aztertuko ditugu. Bestela esanda, goi mailako hezkuntzako erakundeen bereizgarri diren hainbat aldagaik erakunde horien nazioarteko eskarian duten eragina ikertuko dugu.

Azken batean, gure helburua ezaugarri ezberdinetako unibertsitateen nazioarteko eskarian ezberdintasunak antzematea da eta, ahal bada, eskari internazionalaren eta aztertutako ezaugarrien

arteko harremanak ezartzea. Horretarako, Espainiako unibertsitate ezberdinen izaera determina dezaketen hainbat aldagai hartu ditugu kontuan, hala nola titulartasun publikoa edo pribatua, kokatuta dauden eremu geografikoa, tamaina, irakasleen lan-egonkortasuna edo matrikulazio kostua, besteak beste.

Aldagai horiek bi multzo handitan sailkatu ditugu: kontrola daitezkeen aldagaiak eta aldagai kontrola ezinak. Kontrola daitezkeenak unibertsitateak molda ditzakeen horiek dira, matrikulazioaren kostua, kasu, eta kontrola ezinak, berriz, ezin direnak erraz aldatu, esaterako, unibertsitatea kokatuta dagoen eremu geografikoa.

Eskariarekin lotutako aldagaiei dagokienez, kapitulu honetan eginiko ikerketak aurreko kapituluan erabilitako eskari aldagai berberen azterketan du oinarria. Hau da, atzerriko eskariaren maila titulazio edo unibertsitate ezberdinetan dagoen nazioarteko ikasleen kopuruak edo ehunekoak ezartzen du. Era berean, eskari horren jatorria islatzeko, titulazio edo unibertsitateetan dauden jatorri ezberdinetako ikasle kopuru edo ehunekoak erabiltzen dira.

Bestalde, aipatu beharra dago honako kapituluan, aurrekoan bezalaxe, bai titulazioen analisirako bai unibertsitateen azterketarako, Hezkuntza Ministerioaren 2005/2006 ikasturteko Ikasle Unibertsitarioen Estatistikan jasotako lehen eta bigarren zikloko ikasleen behin betiko datuak erabili ditugula.

Azkenik, metodologiari dagokionez, esan beharra dago aldagai ezberdinek goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskarian duten eragina aztertzeko hainbat faktore bakarreko bariantzaren

analisi aplikatu ditugula[75]. Aurretik adierazi dugun bezala, bariantzaren analisiak batez bestekoen berdintasun kontraste bat burutzea dakar eta menpeko aldagai baten balioetan faktore edo aldagai independente baten kategorien arabera diferentzia adierazgarriak antzemateko balio du.

Titulazioen kasuan gure helburua, alde batetik, ziklo luzeko, ziklo laburreko eta bigarren zikloko titulazioen artean nazioarteko eskariarekin loturiko aldagaiei dagokienez diferentzia esanguratsuak dauden antzematea izan da. Bestalde, titulazioen irakaskuntza adarraren arabera eskari internazionalarekin erlazionatutako diferentziarik dagoen ere aztertu dugu.

Goi mailako hezkuntzako erakundeen kasuan, unibertsitateen artean nazioarteko eskariari dagokionez dauden diferentziak analizatu ditugu, unibertsitate horiek aztertutako faktoreen kategoria batekoak ala bestekoak diren kontuan hartuta. Beste hainbat alderdiren artean, erakundeen eskari internazionala aztertu dugu erakunde horiek publikoak ala pribatuak diren kontuan izanda edo eremu geografiko ezberdinetan kokatuta daudela kontuan izanda.

[75] Oro har, kontuan hartu den esangura maila 0,05en parekoa izan da, aldagai batzuen kasuan 0,10en pareko esangura maila kontuan hartu bada ere.

4.2 Ikasketen Iraupenaren eta Irakaskuntza Adarraren Eragina Espainiako Titulazio Unibertsitarioen Nazioarteko Eskarian

Atal honetan, Espainiako sistema unibertsitarioaren lehen eta bigarren zikloko titulazioen 2005/2006 ikasturteko eskari internazionalari buruz arituko gara. Eskari hori titulazio ezberdinen iraupenaren arabera eta titulazioen irakaskuntza adarraren arabera analizatuko dugu[76].

Lehen azpiatalean, titulazio unibertsitario ezberdinen artean nazioarteko eskariari dagokionez dauden diferentziak aztertuko ditugu, titulazio horiek ziklo labur, ziklo luze edo bigarren ziklokoak soilik diren kontuan hartuta. Ondoren, bigarren azpiatalean, titulazioen nazioarteko eskari aldagaiek irakaskuntza adar ezberdinetan hartzen dituzten balioak nabarmenki diferenteak diren behatuko dugu. Goian adierazi bezala, erabilitako metodologia hainbat faktore bakarreko bariantzaren analisi aplikatzean datza. Ondoko paragrafoetan lortutako emaitzak aurkeztuko ditugu.

4.2.1 Ikasketen Iraupena

Ziklo labur edo ziklo luzeko unibertsitate ikasketak aukeratzeko erabakian ikasleengan eragina duten faktoreen analisia

[76] Analisi honetan erabilitako aldagaiak kapituluaren eranskinean jasotzen dira.

egiten duten hainbat ikerlan aurki daitezke (Martín-Cobos Puebla eta Salas Velasco, 2006; Cea D'Ancona eta Mora Ruiz, 1992). Azpiatal honetan, ordea, ikasketen iraupena titulazio ezberdinen nazioarteko eskariaren maila edota eskari horren jatorria determinatzen dituen aldagaitzat jo daitekeen behatuko dugu.

Hau da, helburua titulazioen atzerriko eskariaren maila eta jatorrian dauden diferentziak aztertzea da, titulazioa ziklo labur, ziklo luze edo bigarren ziklokoa baino ez den kontuan hartuta. Faktore bakarreko bariantzaren analisi bat baino gehiago aplikatuz, titulazio mota ezberdinen artean alde esanguratsuak antzeman daitezke, eskariarekin lotutako honako aldagaiei dagokienez.

- Matrikulatuen totala
- Atzerritarren totala
- Atzerritarren portzentajea
- Europar Batasuna ikasleak
- Europako gain. herr. ikasleak
- Ipar Amerika ikasleak
- Erdialdeko Amerika ikasleak
- Hego Amerika ikasleak
- Asia eta Ozeania ikasleak
- Europar Batasuna portzentajea
- Afrikako iparraldea portzentajea
- Afrikako gain. herr. portzentajea
- Hego Amerika portzentajea

Aitzitik, ez dago diferentzia adierazgarririk ziklo luzeko, ziklo laburreko edo bigarren zikloko titulazioen artean, honako nazioarteko eskari aldagaiei dagokienez.

- Afrikako iparraldea ikasleak
- Afrikako gain. herr. ikasleak
- Europako gain. herr. portzent.
- Ipar Amerika portzentajea
- Erdialdeko Amerika portzent.
- Asia eta Ozeania portzentajea

Bariantzaren analisiaren emaitzek, iraupen ezberdineko titulazioen artean aztertutako eskari aldagaiei dagokienez alde nabarmenak dauden ala ez besterik ez dute adierazten. Aurreko kapituluetan bezala, diferentzia adierazgarriak aurkezten dituzten aldagaien kasuan, beharrezkoa da konparaketa anizkoitzeko proba bat egitea, diferenteak diren titulazio multzoen berri zehatza

izateko. Beraz, egindako analisia osatzeko, goian aipatutako aldagai adierazgarrietarako Duncanen probaren emaitzak gehitu ditugu.

Ondoko taulotan ziklo luzeko, ziklo laburreko eta soilik bigarren ziklokoak diren titulazioen arteko diferentziak aurkezten dira nazioarteko eskari aldagai esanguratsuei dagokienez. Bestalde, matrikulatutako ikasleen kopuru totalarekin erlazionatutako diferentziak ere erakusten dira, diferentzia horiek adierazgarriak direla ikusi baita. Azken aldagai horrek titulazioen nazioarteko eskaria islatzen ez badu ere, gainerako aldagaietarako lortutako emaitzak interpretatzen lagun dezake.

Lehenik eta behin, matrikulatuen batez besteko kopuru totala ziklo luzeko titulazioetan bigarren ziklokoetan baino nabarmenki handiagoa dela ikus daiteke. Halaber, erakusten denez, atzerritarren batez besteko kopuru totala nabarmenki handiagoa da ziklo luzeko titulazioetan bigarren zikloko eta ziklo laburrekoetan baino.

Matrikulatuen totala

Duncan

IKASKETEN IRAUPENA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Soilik bigarren zikloa	23	2806,30	
Ziklo laburra	69	8250,99	8250,99
Ziklo luzea	60		13489,72
Esang.		,118	,133

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Atzerritarren totala

Duncan

IKASKETEN IRAUPENA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Soilik bigarren zikloa	23	25,57	
Ziklo laburra	69	111,17	
Ziklo luzea	60		286,08
Esang.		,207	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Bi aldagaion kasuan, arrazoizkoa da emaitzak titulazio mota ezberdinen iraupenari egoztea. Hala ere, diferentzia horiek bigarren aldagaiaren kasuan indar handiagoa dutela baiezta dezakegu, atzerritarren kopurua ez ezik, atzerritarren ehunekoa ere nabarmenki handiagoa delako ziklo luzeko titulazioetan ziklo laburrekoetan eta bigarren ziklokoetan baino.

Atzerritarren portzentajea

Duncan

IKASKETEN IRAUPENA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Soilik bigarren zikloa	23	1,5030	
Ziklo laburra	69	1,5559	
Ziklo luzea	60		3,1772
Esang.		,946	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Emaitzak antzekoak dira jatorri ezberdineko atzerritarren kopuruetan. Ondoko taulotan ikus daitekeenez, eta espero daitekeenez, Europar Batasunetik, Europako gainontzeko herrialdeetatik, Ipar Amerikatik, Erdialdeko Amerikatik eta Asia eta Ozeaniatik datozen ikasleen kopurua nabarmenki handiagoa da ziklo luzeko titulazioetan ziklo laburreko eta bigarren ziklokoetan baino. Hego Amerikako ikasleen kopuruari dagokionez, diferentzia adierazgarriak ziklo luzeko eta bigarren zikloko titulazioen artean baino ez daudela ikus dezakegu.

Europar Batasuna ikasleak

Duncan

IKASKETEN IRAUPENA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Soilik bigarren zikloa	23	10,91	
Ziklo laburra	69	27,55	
Ziklo luzea	60		92,30
Esang.		,381	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Europako gainontzeko herrialdeak ikasleak

Duncan

IKASKETEN IRAUPENA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Soilik bigarren zikloa	23	2,57	
Ziklo laburra	69	12,97	
Ziklo luzea	60		33,77
Esang.		,293	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Ipar Amerika ikasleak

Duncan

IKASKETEN IRAUPENA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Soilik bigarren zikloa	23	1,96	
Ziklo laburra	69	3,16	
Ziklo luzea	60		13,97
Esang.		,691	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Erdialdeko Amerika ikasleak

Duncan

IKASKETEN IRAUPENA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Soilik bigarren zikloa	23	,70	
Ziklo laburra	69	3,19	
Ziklo luzea	60		8,68
Esang.		,355	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Hego Amerika ikasleak

Duncan

IKASKETEN IRAUPENA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Soilik bigarren zikloa	23	4,43	
Ziklo laburra	69	34,59	34,59
Ziklo luzea	60		74,28
Esang.		,154	,062

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Asia eta Ozeania ikasleak

Duncan

IKASKETEN IRAUPENA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Soilik bigarren zikloa	23	1,04	
Ziklo laburra	69	6,77	
Ziklo luzea	60		14,48
Esang.		,136	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Jatorri ezberdinetako ikasleek ikasle internazionalen totalarekiko duten garrantziari dagokionez, hainbat ezberdintasun antzeman ditugu titulazioen iraupenaren arabera. Ondoko taulan ikus daiteke Europar Batasuneko nazioarteko ikasleen garrantzia nabarmenki handiagoa dela bigarren zikloko eta ziklo luzeko titulazioetan, ziklo laburrekoetan baino. Bigarren zikloko eta ziklo luzeko titulazioetan Europar Batasuneko atzerritarren batez besteko proportzioa, hurrenez hurren, %37,8286 eta %44,3114koa da, eta ziklo laburreko titulazioetan Europar Batasuneko atzerritarren batez besteko portzentajea %28,5849koa da.

Europar Batasuna portzentajea

Duncan

IKASKETEN IRAUPENA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Ziklo laburra	63	28,5849	
Soilik bigarren zikloa	22		37,8286
Ziklo luzea	59		44,3114
Esang.		1,000	,167

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Bestalde, Afrikako iparraldeko eta Afrikako gainontzeko herrialdeetako ikasle internazionalek ziklo luzeko titulazioetan bigarren ziklokoetan eta ziklo laburrekoetan baino pisu txikiagoa dute. Zehazki, ziklo luzeko titulazioetan Afrikako iparraldeko ikasleen batez besteko proportzioa %8,2959koa da, eta bigarren

ziklokoetan baino nabarmenki baxuagoa. Era berean, ziklo luzeko titulazioetan Afrikako gainontzeko herrialdeetako atzerritarren batez besteko portzentajea %2,0027koa da, eta ziklo laburrekoetan baino nabarmenki baxuagoa.

Afrikako iparraldea portzentajea

Duncan

IKASKETEN IRAUPENA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Ziklo luzea	59	8,2959	
Ziklo laburra	63	15,3338	15,3338
Soilik bigarren zikloa	22		18,4091
Esang.		,057	,404

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Afrikako gainontzeko herrialdeak portzentajea

Duncan

IKASKETEN IRAUPENA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Ziklo luzea	59	2,0027	
Soilik bigarren zikloa	22	3,0550	3,0550
Ziklo laburra	63		5,5675
Esang.		,512	,119

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Azkenik, ondoko taulan ikus daitekeenez, Hego Amerikako ikasleek ziklo laburreko titulazioetan gainontzeko titulazio taldetan baino pisu handiagoa dute eta, aldiz, bigarren zikloko titulazioetan gainontzeko titulazio taldetan baino garrantzi txikiagoa. Ziklo laburreko titulazioetan %28,0992koa da Hego Amerikako ikasle atzerritarren batez besteko proportzioa. Jatorri berekoen batez besteko ehunekoa bigarren zikloko titulazioetan %19,2koa da, eta ziklo laburrekoetan baino nabarmenki baxuagoa.

Hego Amerika portzentajea

Duncan

IKASKETEN IRAUPENA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Soilik bigarren zikloa	22	19,2000	
Ziklo luzea	59	22,0344	22,0344
Ziklo laburra	63		28,0992
Esang.		,381	,062

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Bukatzeko, garrantzitsua da adieraztea ikasketen iraupenak titulazioen atzerriko eskarian duen eragina eskari hori unibertsitate publiko eta pribatuentzako bereizita kontsideratuz ere aztertu dugula. Ez ditugu hemen barneratu analisi horren emaitzak, bai unibertsitate publikoen kasuan bai pribatuen kasuan lortutako emaitzak unibertsitate guztietarako lortutakoen oso antzekoak izan direlako.

4.2.2 Irakaskuntza Adarra

Honako azpiatalean, titulazioen eskari internazionala aztertuko dugu, titulazio horien irakaskuntza adarraren arabera. Kasu honetan, nazioarteko eskariaren mailan eta jatorrian dauden diferentziak ikertzen ditugu, titulazioa gizarte eta zuzenbide zientzietan, ikasketa teknikoetan, humanitateetan, zientzia esperimentaletan edo osasun zientzietan sartuta dagoen kontuan hartuta. Analisiaren emaitza gisa, ondoko eskari aldagaiek adar ezberdinetan balio nabarmenki diferenteak hartzen dituztela esan dezakegu[77].

[77] Azken aldagaia 0,10eko esangura maila baterako da esanguratsua.

- Matrikulatuen totala
- Atzerritarren totala
- Europar Batasuna ikasleak
- Europako gain. herr. ikasleak
- Afrikako iparraldea ikasleak
- Afrikako gain. herr. ikasleak
- Ipar Amerika ikasleak
- Erdialdeko Amerika ikasleak
- Hego Amerika ikasleak
- Asia eta Ozeania ikasleak
- Europar Batasuna portzentajea
- Europako gain. herr. portzent.
- Afrikako iparraldea portzentajea
- Hego Amerika portzentajea
- Asia eta Ozeania portzentajea
- Afrikako gain. herr. portzentajea

Ondoko nazioarteko eskari aldagaiei dagokienez, aldiz, adar ezberdinetako titulazioen artean alde esanguratsurik ez dagoela ikus daiteke.

- Atzerritarren portzentajea
- Ipar Amerika portzentajea
- Erdialdeko Amerika portzentajea

Hurrengo taulek irakaskuntza adar ezberdinetako titulazioen artean nazioarteko eskariari dagokionez dauden diferentziak erakusten dizkigute. Matrikulatuen kopuru totalean ere irakaskuntza adarraren araberako diferentzia adierazgarriak hauteman ditugu, eta beraz, jarraian, diferentzia horiek ere aurkezten ditugu nazioarteko eskariarekin erlazionatutako aldagaietarako lortutako emaitzak hobeto ulertzeko.

Lehenik eta behin, ikasle matrikulatuen eta ikasle atzerritarren batez besteko kopuru handiena duten titulazioak gizarte eta zuzenbide zientzietakoak eta osasun zientzietakoak direla esan daiteke. Dena den, atzerritarren batez besteko ehunekoa ez da nabarmenki ezberdina irakaskuntza adarraren arabera.

Matrikulatuen totala

Duncan

IRAKASKUNTZA ADARRA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Humanitateak	27	4906,00	
Ikasketa teknikoak	68	5566,01	
Zientzia esperimentalak	15	6729,60	
Osasun zientziak	9	13073,33	13073,33
Gizarte eta zuzenbide zientziak	33		21627,00
Esang.		,116	,071

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Atzerritarren totala

Duncan

IRAKASKUNTZA ADARRA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Zientzia esperimentalak	15	79,47	
Ikasketa teknikoak	68	88,00	
Humanitateak	27	122,67	
Gizarte eta zuzenbide zientziak	33		340,27
Osasun zientziak	9		411,89
Esang.		,676	,458

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Jatorri ezberdinetako atzerritarren kopuruaren emaitzei begira, joera bera ikus dezakegu. Hau da, aztertutako jatorri ezberdinetako atzerritarren batez besteko kopurua, oro har, handiagoa da gizarte eta zuzenbide zientzietako eta osasun zientzietako titulazioetan. Zehazki, nabarmentzekoa da Afrikako iparraldeko atzerritarren garrantzia osasun zientzietako titulazioetan. Bertan jatorri horretako ikasleen batez besteko kopurua gainontzeko adarretako titulazioetan baino nabarmenki handiagoa da.

Europar Batasuna ikasleak

Duncan

IRAKASKUNTZA ADARRA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Ikasketa teknikoak	68	24,00	
Zientzia esperimentalak	15	24,60	
Humanitateak	27	56,48	56,48
Gizarte eta zuzenbide zientziak	33		95,76
Osasun zientziak	9		111,56
Esang.		,275	,062

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Europako gainontzeko herrialdeak ikasleak

Duncan

IRAKASKUNTZA ADARRA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Ikasketa teknikoak	68	7,68	
Zientzia esperimentalak	15	8,20	
Humanitateak	27	18,00	
Osasun zientziak	9	23,11	23,11
Gizarte eta zuzenbide zientziak	33		49,73
Esang.		,317	,057

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Afrikako iparraldea ikasleak

Duncan

IRAKASKUNTZA ADARRA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Humanitateak	27	5,93	
Zientzia esperimentalak	15	9,87	
Ikasketa teknikoak	68	19,76	
Gizarte eta zuzenbide zientziak	33	23,27	
Osasun zientziak	9		140,33
Esang.		,548	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Afrikako gainontzeko herrialdeak ikasleak

Duncan

IRAKASKUNTZA ADARRA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Zientzia esperimentalak	15	2,27	
Humanitateak	27	2,37	
Ikasketa teknikoak	68	3,51	
Gizarte eta zuzenbide zientziak	33		12,85
Osasun zientziak	9		16,22
Esang.		,799	,460

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Ipar Amerika ikasleak

Duncan

IRAKASKUNTZA ADARRA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Ikasketa teknikoak	68	2,38	
Zientzia esperimentalak	15	3,33	
Osasun zientziak	9	8,33	8,33
Humanitateak	27	9,15	9,15
Gizarte eta zuzenbide zientziak	33		17,18
Esang.		,158	,054

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Erdialdeko Amerika ikasleak

Duncan

IRAKASKUNTZA ADARRA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Zientzia esperimentalak	15	1,73	
Ikasketa teknikoak	68	1,97	
Humanitateak	27	2,48	
Osasun zientziak	9		11,78
Gizarte eta zuzenbide zientziak	33		12,85
Esang.		,852	,775

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Hego Amerika ikasleak

Duncan

IRAKASKUNTZA ADARRA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Ikasketa teknikoak	68	21,65	
Humanitateak	27	23,67	
Zientzia esperimentalak	15	25,33	
Osasun zientziak	9	77,78	77,78
Gizarte eta zuzenbide zientziak	33		113,79
Esang.		,081	,219

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Asia eta Ozeania ikasleak

Duncan

IRAKASKUNTZA ADARRA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Zientzia esperimentalak	15	4,13	
Humanitateak	27	4,59	
Ikasketa teknikoak	68	7,04	
Gizarte eta zuzenbide zientziak	33	14,85	14,85
Osasun zientziak	9		22,78
Esang.		,079	,154

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Irakaskuntza adar ezberdinetako titulazioetan jatorri ezberdinetako ikasleek duten pisua ere aztertu dugu. Ondorengo taulotan humanitateetako titulazioetan Europar Batasunetik eta Europako gainontzeko herrialdeetatik datozen ikasleen garrantzia azpimarra daiteke. Humanitateetako titulazioetan, batez beste, ikasle atzerritarren erdia baino gehiago Europar Batasunetik datoz eta, egiazta daitekeenez, ikasle hauen pisua gainerako adarretako titulazioetan baino nabarmenki handiagoa da. Bestalde, Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleen batez besteko proportzioa humanitateetako titulazioetan %13,3026koa da eta osasun zientzietako titulazioetan baino nabarmenki handiagoa.

Europar Batasuna portzentajea

Duncan

IRAKASKUNTZA ADARRA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Ikasketa teknikoak	60	29,7562	
Osasun zientziak	9	30,9411	
Zientzia esperimentalak	15	34,6500	
Gizarte eta zuzenbide zientziak	33	37,1109	
Humanitateak	27		53,3037
Esang.		,308	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Europako gainontzeko herrialdeak portzentajea

Duncan

IRAKASKUNTZA ADARRA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Osasun zientziak	9	6,4067	
Ikasketa teknikoak	60	6,9872	6,9872
Zientzia esperimentalak	15	8,8287	8,8287
Gizarte eta zuzenbide zientziak	33	12,1376	12,1376
Humanitateak	27		13,3026
Esang.		,077	,050

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Afrikako iparraldeko ikasleei dagokienez, ondoko taulan ikus daitekeenez, osasun zientzietako, ikasketa teknikoetako eta zientzia

esperimentaletako titulazioetan pisu nabarmenki handiagoa dute humanitateetako eta gizarte eta zuzenbide zientzietako titulazioetan baino. Ikasle hauek osasun zientzietako titulazioetan dute garrantzi gehien, non Afrikako iparraldeko ikasleen batez besteko proportzioa %23,0533koa den, eta garrantzi gutxien, berriz, humanitateetako titulazioetan, %3,7048ko batez besteko ehunekoarekin.

Afrikako iparraldea portzentajea

Duncan

IRAKASKUNTZA ADARRA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Humanitateak	27	3,7048	
Gizarte eta zuzenbide zientziak	33	6,0712	
Zientzia esperimentalak	15		16,4807
Ikasketa teknikoak	60		18,4237
Osasun zientziak	9		23,0533
Esang.		,631	,210

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Hurrengo taulan irakaskuntza adar ezberdinetako titulazioetan Hego Amerikako ikasleen batez besteko proportzioa aurkezten da, eta, egiazta daitekeenez, gizarte eta zuzenbide zientzietako titulazioetan, batez beste, ikasle atzerritarren ia herena jatorri horretakoa da. Halaber, Hego Amerikako ikasleen batez besteko pisua gizarte eta zuzenbide zientzietako, zientzia esperimentaletako eta osasun zientzietako titulazioetan humanitateetako titulazioetan baino nabarmenki handiagoa dela ikus daiteke.

Hego Amerika portzentajea

Duncan

IRAKASKUNTZA ADARRA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Humanitateak	27	16,0681	
Ikasketa teknikoak	60	24,0418	24,0418
Osasun zientziak	9		25,9622
Zientzia esperimentalak	15		27,9573
Gizarte eta zuzenbide zientziak	33		29,1912
Esang.		,080	,306

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Azkenik, adar ezberdinetako titulazioetan Asia eta Ozeaniako eta Afrikako gainontzeko herrialdeetako ikasleen batez besteko ehunekoa erakusten da[78]. Ondorengo taulotan ikusten denez, bi jatorriotako ikasleen batez besteko proportzioa handiagoa da ikasketa teknikoetako titulazioetan gainontzeko adarretako titulazioetan baino. Asia eta Ozeaniako ikasleek gizarte eta zuzenbide zientzietako titulazioetan dute batez besteko pisu gutxien eta Afrikako gainontzeko herrialdeetako ikasleek, aldiz, humanitateetako titulazioetan.

Asia eta Ozeania portzentajea

Duncan

IRAKASKUNTZA ADARRA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)
		1
Gizarte eta zuzenbide zientziak	33	3,3039
Zientzia esperimentalak	15	4,2587
Humanitateak	27	4,5137
Osasun zientziak	9	6,0089
Ikasketa teknikoak	60	7,8300
Esang.		,069

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

[78] Bariantzaren analisiaren bitartez aldagai hauek esanguratsuak direla ondorioztatu dugunez, aldagai hauen Duncanen probaren emaitzak aurkeztu ditugu, emaitza horiek irakaskuntza adar ezberdinen arteko alde esanguratsurik adierazten ez badute ere.

Afrikako gainontzeko herrialdeak portzentajea

Duncan

IRAKASKUNTZA ADARRA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05) 1
Humanitateak	27	1,4015
Gizarte eta zuzenbide zientziak	33	2,7179
Zientzia esperimentalak	15	2,7480
Osasun zientziak	9	3,0700
Ikasketa teknikoak	60	5,6623
Esang.		,099

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Kasu honetan ere unibertsitate publiko eta pribatuetarako analisia aparte burutu dugu. Hau da, alde batetik, irakaskuntza adarrak unibertsitate publikoetako titulazioen eskari internazionalean duen eragina aztertu dugu eta, beste alde batetik, eragin hori bera unibertsitate pribatuetan ikertu dugu. Emaitzak, oro har, unibertsitateen totalerako lortutakoen oso antzekoak dira eta, beraz, ez dira testu honetan sartu.

4.3 Espainiako Unibertsitateen Nazioarteko Eskariaren Faktore Baldintzatzaileak

Atal honetan, Espainiako unibertsitateen eskari internazionalaren eta beste zenbait aldagairen arteko harremana aztertzeko helburuz, hainbat faktore bakarreko bariantzaren analisi aplikatu zaizkio Espainiako unibertsitate publiko zein pribatuen kolektibo osoari. Ikertutako faktoreen artean erakundearen titulartasuna, tamaina edota unibertsitateek irakaskuntza adar ezberdinetara duten orientazioa aipa daitezke. Helburu nagusia Espainiako goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskarian

unibertsitateen ezaugarri ezberdinen araberako diferentzia esanguratsuak aurkitzea da.

Sarreran aipatu bezala, analisia egiteko 2005/2006 ikasturtean zehar lehen eta bigarren zikloan matrikulatutako ikasleen behin betiko datuak erabili ditugu, Hezkuntza Ministerioaren Ikasle Unibertsitarioen Estatistikatik ateratakoak. Zehazki, atzerritarren kopuru eta portzentajeari dagokienez, ezaugarri ezberdinetako unibertsitateen artean diferentziarik dagoen aztertu dugu. Era berean, ezaugarri ezberdinetako unibertsitateen artean, jatorri ezberdinetako ikasleen kopuru eta proportzioari dagokienez, diferentziarik dagoen ikusten saiatu gara.

Aurreko atalean bezalaxe, erabilitako metodologia hainbat faktore bakarreko bariantzaren analisi aplikatzean datza. Analisi horietako bakoitzean, menpeko aldagaia nazioarteko eskariarekin erlazionatutako aldagai bat da eta aldagai independentea edo faktorea unibertsitateen ezaugarriren bat islatzen duen aldagai bat, hala nola titulartasun publiko edo pribatua edo matrikulazioaren kostua.

Unibertsitate ezberdinen berezitasunak biltzen dituzten aldagai edo faktore horiek bi multzo handitan sailkatu ditugu: kontrola daitezkeenak eta kontrola ezinak. Alde batetik, kontrola daitezkeen aldagaiak unibertsitateak berak erraztasun handi samarrez alda ditzakeenak dira. Bestalde, aldagai kontrola ezinak, hasiera batean, unibertsitateak zailtasun handiagoz alda ditzakeenak dira. Ondoko

taulan aurkezten da erabilitako aldagai independente ezberdinen eskema[79].

Unibertsitateen Nazioarteko Eskaria Baldintza dezaketen Faktoreak

KONTROLA EZINAK
TITULARTASUN PUBLIKOA EDO PRIBATUA KOKAPENA KONKURRENTZIA MAILA ANTZINATASUNA TAMAINA IRAKASKUNTZA ADAR EZBERDINETARA ORIENTAZIOA • Gizarte eta zuzenbide zientzietara orientazioa • Ikasketa teknikoetara orientazioa • Humanitateetara orientazioa • Zientzia esperimentaletara orientazioa • Osasun zientzietara orientazioa
KONTROLA DAITEZKEENAK
IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN EZAUGARRIAK • Lanean egonkortasuna duten irakasleen portzentajea • Irakasle katedradun edo baliokideen portzentajea ARGITALPEN ZIENTIFIKOAK • Ekoizpen zientifiko kopurua irakasle bakoitzeko • Ekoizpen zientifikoaren kalitate erlatiboa -Biokimika, genetika eta biologia molekularrean kalitatea -Medikuntzan kalitatea -Kimikan kalitatea -Fisika eta astronomian kalitatea -Ingeniaritzan kalitatea -Ekonomia, ekonometria eta finantzatan kalitatea IKERKETA JARDUERA PATENTEAK ESKAINTZAREN ANIZTASUNA MATRIKULAREN PREZIOA UNIBERTSITATEETAN IRAGARRITAKO EGOITZA UNIBERTSITARIO ETA IKASTETXE NAGUSIEN EDUKIERA

Iturria: Egileak moldatua

Laburbilduz, honako atal honetan, izaera ezberdineko unibertsitateen artean nazioarteko eskariari dagokionez dauden

[79] Analisi honetan erabilitako aldagaiei buruzko xehetasunak kapituluaren eranskinean azaltzen dira.

diferentziak ikertuko ditugu. Helburu nagusia aztertutako ezaugarrien eta unibertsitateen eskari internazionalaren arteko harremana zehaztea da. Ondoko paragrafootan faktore ezberdinentzako lortutako emaitza nagusiak aurkeztuko ditugu.

4.3.1 Faktore Kontrola Ezinek Unibertsitateen Nazioarteko Eskarian duten Eragina

4.3.1.1 Titulartasun Publikoa edo Pribatua

Lehenik eta behin, Espainiako unibertsitateen titulartasunak unibertsitate horien nazioarteko eskaria zein neurritan baldintzatzen duen aztertu dugu. Hau da, unibertsitate publiko eta pribatuen artean nazioarteko eskari mailari dagokionez, eta baita eskari horren jatorriari dagokionez ere, dauden diferentziak antzematen saiatuko gara.

Helburua, kasu honetan, erakundeen titulartasunaren eta erakunde horien eskari internazionalaren arteko harremana aztertzea da. Horretarako, hainbat faktore bakarreko bariantzaren analisi burutu ditugu. Analisi horietan menpeko aldagaia atzerriko eskariarekin erlazionatutako aldagairen bat da eta aldagai independentea edo faktorea erakundearen titulartasuna. Unibertsitate publiko eta pribatuen artean matrikulatutako ikasle kopuru totalari dagokionez alde adierazgarririk dagoen ere ikertu dugu. Emaitza gisa, titulartasun ezberdineko unibertsitateen artean

ondoren zerrendatzen diren eskari aldagaiei dagokienez diferentzia esanguratsuak daudela baiezta dezakegu[80].

- Matrikulatuen totala
- Atzerritarren totala
- Europar Batasuna ikasleak
- Europako gain. herr. ikasleak
- Afrikako iparraldea ikasleak
- Afrikako gain. herr. ikasleak
- Erdialdeko Amerika ikasleak
- Hego Amerika ikasleak
- Asia eta Ozeania ikasleak
- Europar Batasuna portzentajea
- Afrikako iparraldea portzentajea
- Ipar Amerika portzentajea
- Hego Amerika portzentajea
- Afrikako iparraldea portzentajea T.
- Hego Amerika portzentajea T.
- Ipar Amerika ikasleak
- Afrikako gain. herr. portzentajea T.
- Asia eta Ozeania portzentajea T.

Ondorengo aldagaiei dagokienez, ostera, unibertsitate publiko zein pribatuek balio berdintsuak hartzen dituztela esan daiteke.

- Atzerritarren portzentajea
- Europako gain. herr. portzent.
- Afrikako gain. herr. portzent.
- Erdialdeko Amerika portzentajea
- Asia eta Ozeania portzentajea
- Europar Batasuna portzentajea T.
- Europako gain. herr. portzent. T.
- Ipar Amerika portzentajea T.
- Erdialdeko Amerika portzent. T.

Jarraian datorren taulak goian aipatutako aldagai adierazgarrien batez besteko balioak biltzen ditu bai unibertsitate publiko bai pribatuetarako. Kopuru horiek titulartasun ezberdineko unibertsitateen artean nazioarteko eskariari dagokionez dauden diferentziak islatzen dituzte.

Deskribatzaileak

	TITULARTASUN PUBLIKOA EDO PRIBATUA	N	Batez bestekoa	Desbideratze tipikoa	Minimoa	Maximoa
Matrikulatuen totala	Publikoa	48	27195,50	23712,717	6501	147262
	Pribatua	23	5994,00	7422,277	181	36321
	Totala	71	20327,41	22241,923	181	147262
Atzerritarren totala	Publikoa	48	486,98	474,233	44	2263
	Pribatua	23	89,09	124,153	0	563
	Totala	71	358,08	437,052	0	2263
Europar Batasuna ikasleak	Publikoa	48	145,38	162,017	2	716
	Pribatua	23	30,96	34,223	0	148
	Totala	71	108,31	144,571	0	716

[80] Azken hiru aldagaiak 0,10eko esangura maila baterako dira esanguratsuak.

Europako gain. herr. ikasleak	Publikoa	48	53,19	59,589	0	293
	Pribatua	23	18,57	54,078	0	246
	Totala	71	41,97	59,746	0	293
Afrikako iparraldea ikasleak	Publikoa	48	75,85	172,811	1	1037
	Pribatua	23	1,83	2,995	0	10
	Totala	71	51,87	145,847	0	1037
Afrikako gain. herr. ikasleak	Publikoa	48	17,83	20,512	0	93
	Pribatua	23	2,22	2,860	0	10
	Totala	71	12,77	18,418	0	93
Erdialdeko Amerika ikasleak	Publikoa	48	13,52	16,638	0	92
	Pribatua	23	4,70	9,975	0	47
	Totala	71	10,66	15,311	0	92
Hego Amerika ikasleak	Publikoa	48	135,23	161,674	0	879
	Pribatua	23	19,78	25,826	0	110
	Totala	71	97,83	143,946	0	879
Asia eta Ozeania ikasleak	Publikoa	48	26,88	36,612	0	166
	Pribatua	23	3,04	3,867	0	14
	Totala	71	19,15	32,107	0	166
Europar Batasuna portzentajea	Publikoa	48	**28,5196**	14,58315	2,08	70,36
	Pribatua	23	**45,2483**	27,38730	,00	100,00
	Totala	71	33,9387	20,99261	,00	100,00
Afrikako iparraldea portzentajea	Publikoa	48	**13,9108**	17,06818	,15	69,44
	Pribatua	23	**1,9396**	3,95806	,00	18,18
	Totala	71	10,0328	15,24337	,00	69,44
Ipar Amerika portzentajea	Publikoa	48	**3,7563**	3,05647	,00	13,19
	Pribatua	23	**7,5126**	9,40185	,00	30,40
	Totala	71	4,9731	6,09820	,00	30,40
Hego Amerika portzentajea	Publikoa	48	**28,9981**	14,69571	,00	62,50
	Pribatua	23	**19,7330**	14,53188	,00	50,00
	Totala	71	25,9968	15,18032	,00	62,50
Afrikako iparraldea portzentajea T.	Publikoa	48	**,2404**	,35405	,00	1,86
	Pribatua	23	**,0243**	,03918	,00	,15
	Totala	71	,1704	,30825	,00	1,86
Hego Amerika portzentajea T.	Publikoa	48	**,4919**	,35043	,00	1,46
	Pribatua	23	**,3065**	,28069	,00	1,02
	Totala	71	,4318	,33889	,00	1,46
Ipar Amerika ikasleak	Publikoa	48	19,10	26,158	0	132
	Pribatua	23	8,00	11,008	0	38
	Totala	71	15,51	22,910	0	132
Afrikako gain. herrialdeak portzentajea T.	Publikoa	48	,0742	,08389	,00	,39
	Pribatua	23	,0417	,04774	,00	,16
	Totala	71	,0637	,07533	,00	,39
Asia eta Ozeania portzentajea T.	Publikoa	48	,0929	,09800	,00	,47
	Pribatua	23	,0517	,05297	,00	,16
	Totala	71	,0796	,08779	,00	,47

Atzerriko ikasleen ehunekoari dagokionez, unibertsitate publikoen eta pribatuen artean alde esanguratsurik ez badago ere, lortutako emaitzei begiratuta, atzerriko ikasleen kopuru totalari dagokionez diferentzia adierazgarriak daudela baiezta daiteke, zehazki, unibertsitate publikoak dira atzerriko ikasle gehien bereganatzen dituztenak. Era berean, jatorri ezberdinetako batez besteko ikasle kopuru handiagoa antzematen da unibertsitate publikoetan pribatuetan baino. Beste alde batetik, emaitzen arabera, matrikulatuen kopuru totala ere nabarmenki handiagoa da unibertsitate publikoetan pribatuetan baino.

Bestela esanda, unibertsitate publikoetan atzerriko ikasle kopurua pribatuetan baino handiagoa bada ere, matrikulatuen kopuru totala ere hala dela ikus daiteke, eta beraz nazioarteko ikasleen proportzioa ez da nabarmenki diferentea titulartasun ezberdineko unibertsitateetan. Hortaz, unibertsitateen tamaina kontuan izanda, erakunde publiko zein pribatuek atzerriko ikasleei erantzuteko egindako ahalegin erlatiboa oso antzekoa dela ondoriozta daiteke.

Bestalde, Europar Batasuneko ikasle internazionalen proportzioari dagokionez, erakunde publiko eta pribatuen artean dagoen aldea aipatu beharra dago. Ikus daitekeenez, diferentzia adierazgarria da eta unibertsitate pribatuak dira Europar Batasuneko ikasleen portzentaje handiena dutenak.

Modu berean, unibertsitate publiko eta pribatuen artean beste jatorri batzuetako ikasle internazionalen proportzioari dagokionez ere diferentzia nabarmenak daudela egiazta daiteke. Aurkezten diren emaitzek adierazten dutenaren arabera, unibertsitate pribatuek

Europar Batasuneko ikasleen portzentaje handiagoa izateaz gain, unibertsitate publikoek baino Ipar Amerikako ikasleen proportzio handiagoa ere badute. Bestalde, unibertsitate publikoek Afrikako iparraldeko eta Hego Amerikako ikasleen ehuneko handiagoa dute unibertsitate pribatuek baino.

Emaitza horiek titulartasun ezberdineko unibertsitateek zenbait jatorritako ikasleei erantzuteko egiten duten ahalegin erlatiboa ezberdina dela adierazten dute. Hau da, unibertsitate publikoek eta unibertsitate pribatuek ikasle internazional guztiei erantzuteko esfortzua jatorri ezberdinetako ikasleen artean modu ezberdinean banatzen dutela esan daiteke. Horren arrazoia izan daiteke unibertsitate publikoek eta pribatuek nazioarteko orientazioa ulertzeko modu ezberdina dutela.

Taularen azkeneko lerroetan erakusten diren aldagaiek jatorri ezberdinetako atzerritarren proportzioa adierazten dute matrikulatuen totalari dagokionez. Hasiera batean pentsa daiteke unibertsitate publikoetan matrikulatuen kopurua handiagoa denez aldagai hauek balio txikiagoak izan ditzaketela. Hala ere, kontuan hartu behar da jatorri ezberdinetako atzerritarren kopurua ere handiagoa dela unibertsitate publikoetan. Lehen ere aipatu dugu ez dagoela alde nabarmenik unibertsitate publiko eta pribatuen artean atzerritarren proportzioari dagokionez. Aldagai hauen analisiaren bitartez jatorri ezberdinetako atzerritarren kasuan emaitza hori mantentzen ote den egiaztatu nahi izan dugu.

Lortutako emaitzei erreparatuta ikus daiteke Afrikako iparraldeko eta Hego Amerikako ikasleen proportzioa, matrikulatuen totalarekiko, handiagoa dela unibertsitate publikoetan

pribatuetan baino. Baieztapen berbera egin daiteke, 0,10eko esangura maila kontuan izanda, Afrikako gainontzeko herrialdeetako eta Asia eta Ozeaniako ikasleen proportzioari buruz.

Beraz, ikasle atzerritarren portzentaje totalari dagokionez titulartasun ezberdineko unibertsitateen artean diferentzia adierazgarririk ez dagoen arren, erakunde publikoetan zenbait jatorritako ikasleei erantzuteko egiten den ahalegin erlatiboa, ikasleen totalerako egiten den ahaleginarekiko, erakunde pribatuetan baino handiagoa da.

4.3.1.2 Kokapena

Unibertsitatea kokatuta dagoen inguru geografikoak ere bere eskari internazionala baldintza dezakeela kontsideratu dugu. Hiri garrantzitsu batean kokatuta egoteak edo atzerriko eskualde jakin batzuetatik hurbil egoteak erakundeen nazioarteko eskariaren maila zein eskari horren jatorria zehatz dezake.

Turcottek (1995) garatutako ikerketan, Estatu Batuetako goi mailako hezkuntzako erakunde pribatu kristauen eskaria aztertzen da. Bertan, hainbat bariantzaren analisi aplikatzen dira aldagai independente bezala erakundea kokatuta dagoen eremu geografikoa edo eskualdea erabiliz. Erakunde jakin bat hautatzeko garaian ikasleek zenbait alderdiri ematen dioten garrantzia ikertzen du egileak. Horrez gain, aztertutako Estatu Batuetako eskualde ezberdinen artean alderdi horiei emandako garrantziari dagokionez dauden ezberdintasunak antzematen saiatzen da.

Honako azpiatalean ere hainbat bariantzaren analisi burutu ditugu eta erakundea kokatuta dagoen eskualdea edo eremu

geografikoa erabili dugu aldagai independente gisa. Hala ere, kasu honetan, eskualde ezberdinetan kokaturik dauden unibertsitateen artean nazioarteko eskariaren maila edo jatorriari dagokionez dauden diferentziak antzematean datza analisia.

Goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskarian erakundeen posizio geografikoak duen eragina ikertzeko helburuz, kokapena aldagaia definitu dugu eta Espainiako unibertsitateak sei eremutan taldekatu ditugu[81]. Aldagai honen kasuan Urruneko Hezkuntzako Unibertsitate Nazionala eta Kataluniako Unibertsitate Irekia analisitik baztertu ditugu bertaratu gabeko unibertsitateak izateagatik. Lehenaren egoitza nagusia Madrilen eta bigarrenarena Katalunian badaude ere, biek dituzte Espainian eta munduko hainbat herrialdetan zehar sakabanatutako zentro eta egoitzak.

Gorago adierazi bezala, azpiatal honetan bariantzaren analisi bat baino gehiago aplikatu dugu kokapen geografikoa aldagai independente bezala erabiliz. Honela, unibertsitateen nazioarteko eskaria aztertu nahi dugu unibertsitate horien kokapenaren arabera. Helburua lurralde ezberdinetan kokatuta dauden erakundeen atzerriko eskarian dauden diferentziak antzematea da.

Lortutako emaitzak aurkeztu aurretik garrantzitsua da nabarmentzea aurreko atalean erabilitako faktoreak bi kategoria besterik ez zituela (publikoa; pribatua) eta oraingoan kokapena aldagaiak sei kategoria dituela (Iparraldeko eremua eta Aragoi; Gaztela eta Leon eta Extremadura; Katalunia; Madrilgo Erkidegoa;

[81] Kapituluaren eranskinean aipatzen dira kontsideratutako eremu geografiko bakoitzaren barruan dauden lurralde desberdinak.

Levante, Gaztela-Mantxa, Balear Uharteak eta Kanariak; Andaluzia).

Horrek esan nahi du nazioarteko eskari aldagairen bat esanguratsua denean, hau da, batez bestekoen berdintasun hipotesia baztertzen dugunean, kokapena faktorearen kategoria batzuei ala besteei diferentziak egotzi ahal izateko, beharrezkoa izango dela analisia konparaketa anizkoitzeko proba batekin osatzea.

Lehendabizi, faktore bakarreko bariantzaren analisiak aplikatuz, honako nazioarteko eskari aldagaiak kokapen ezberdina duten unibertsitateetan nabarmenki ezberdinak direla ikus daiteke[82].

- Atzerritarren portzentajea
- Afrikako iparraldea ikasleak
- Europako gain. herr. portzent.
- Afrikako iparraldea portzentajea
- Ipar Amerika portzentajea
- Erdialdeko Amerika portzent.
- Europako gain. herr. portzent. T.
- Afrikako iparraldea portzentajea T.
- Ipar Amerika portzentajea T.
- Hego Amerika portzentajea T.
- Asia eta Ozeania portzentajea T.
- Afrikako gain. herr. portzentajea
- Hego Amerika portzentajea
- Afrikako gain. herr. portzentajea T.

Aitzitik, eskariarekin loturiko ondoko aldagaiak ez dira nabarmenki diferenteak kokapen geografiko ezberdina duten unibertsitateetan.

- Matrikulatuen totala
- Atzerritarren totala
- Europar Batasuna ikasleak
- Europako gain. herr. ikasleak
- Afrikako gain. herr. ikasleak
- Ipar Amerika ikasleak
- Erdialdeko Amerika ikasleak
- Hego Amerika ikasleak
- Asia eta Ozeania ikasleak
- Europar Batasuna portzentajea
- Asia eta Ozeania portzentajea
- Europar Batasuna portzentajea T.
- Erdialdeko Amerika portzent. T.

Hurrengo taulotan, Duncanen probaren emaitzen bitartez, kokapen ezberdina duten unibertsitateen arteko diferentziak erakusten dira esanguratsuak diren nazioarteko eskari aldagaiei dagokienez. Taula hauetan, eskari aldagaien batez bestekoak

[82] Azken hiru aldagaiak 0,10eko esangura maila baterako dira esanguratsuak.

aurkezten dira kokapen ezberdina duten unibertsitate taldeetarako eta batez besteko horiek nabarmenki ezberdinak diren ala ez ikus daiteke.

Lehenengo taulan Espainiako unibertsitateen nazioarteko eskari maila agertzen da lurraldeka. Nabarmentzekoa da Katalunian eta Madrilen kokatutako unibertsitateek, hots, Espainiako hiririk garrantzitsuenak dituzten eremuetan kokatutako unibertsitateek, gainontzeko eremu geografikoetan kokatutakoek baino atzerritarren batez besteko proportzio handiagoa dutela. Garrantzitsua da azpimarratzea, halaber, Iparraldeko eta Aragoiko unibertsitateen batez besteko nazioarteko eskari maila gainontzeko lurraldeetako unibertsitateetakoa baino txikiagoa dela.

Atzerritarren portzentajea

Duncan

KOKAPENA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05) 1	2
Iparraldeko eremua eta Aragoi	13	,8977	
Gaztela eta Leon eta Extremadura	9	1,5200	1,5200
Andaluzia	9	1,5944	1,5944
Levan., Gazt.-Mantxa, Bal. U. eta Kan.	14	1,6650	1,6650
Katalunia	11		2,1473
Madrilgo Erkidegoa	13		2,2731
Esang.		,114	,130

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Goian aipatu dugun bezala, matrikulatutako ikasleen kopurua ez da nabarmenki diferentea definitutako lurralde ezberdinetan; hala ere, hurrengo taulan ikus daiteke Andaluziako unibertsitateek Afrikako iparraldeko ikasleen batez besteko kopuru nabarmenki handiagoa aurkezten dutela gainontzeko lurraldeetako unibertsitateek baino.

Afrikako iparraldea ikasleak

Duncan

KOKAPENA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Iparraldeko eremua eta Aragoi	13	6,46	
Gaztela eta Leon eta Extremadura	9	9,11	
Katalunia	11	17,27	
Madrilgo Erkidegoa	13	20,92	
Levan., Gazt.-Mantxa, Bal. U. eta Kan.	14	54,57	
Andaluzia	9		251,78
Esang.		,444	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Halaber, lurralde ezberdinetako unibertsitateen artean zenbait jatorritako ikasleen portzentajeari dagokionez diferentziak aurkitu ditugu. Lehenik eta behin, Kataluniako unibertsitateetan Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleen garrantzia nabarmen dezakegu. Hurrengo taulan egiazta daiteke jatorri horretako atzerritarren ehunekoa nabarmenki handiagoa dela Katalunian gainontzeko lurraldeetan baino.

Europako gainontzeko herrialdeak portzentajea

Duncan

KOKAPENA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Andaluzia	9	5,7500	
Iparraldeko eremua eta Aragoi	13	9,3538	
Madrilgo Erkidegoa	13	9,5092	
Levan., Gazt.-Mantxa, Bal. U. eta Kan.	14	9,7329	
Gaztela eta Leon eta Extremadura	9	10,7900	
Katalunia	11		18,2155
Esang.		,227	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Aurreko kapituluan Kataluniako hainbat unibertsitate Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleen proportzio handiagatik nabarmentzen direla adierazi dugu. Andorrarekiko hurbiltasunak eta Andorran katalana hizkuntza ofizial izateak unibertsitate katalanen Andorrako eta Europako gainontzeko

herrialdeetako ikasleen portzentaje handia azal dezaketela ere aipatu dugu.

Beste alde batetik, nabarmentzekoa da ere Afrikako iparraldeko atzerritarrek Andaluziako unibertsitateetan duten pisua. Hurrengo taulan ikus daiteke Afrikako iparraldeko ikasleen proportzioa nabarmenki handiagoa dela Andaluziako unibertsitateetan gainontzeko eremuetako unibertsitateetan baino. Ikasle hauen portzentajea Levanten, Gaztela-Mantxan, Balear Uharteetan eta Kanarietan gainontzeko lurraldeetan baino nabarmenki handiagoa da ere, baina Andaluzian baino txikiagoa.

Afrikako iparraldea portzentajea

Duncan

KOKAPENA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)		
		1	2	3
Iparraldeko eremua eta Aragoi	13	3,1923		
Gaztela eta Leon eta Extremadura	9	3,9356		
Katalunia	11	4,2164		
Madrilgo Erkidegoa	13	4,2300		
Levan., Gazt.-Mantxa, Bal. U. eta Kan.	14		14,7457	
Andaluzia	9			35,9267
Esang.		,846	1,000	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Aurreko kapituluan jadanik aipatu dugu Afrikako iparraldeko ikasleek Andaluzian eta Levanten kokatutako zenbait unibertsitatetan duten garrantzia. Lurralde horien eta Afrikako kontinentearen arteko gertutasuna Afrikako iparraldeko ikasleen proportzio handia azal dezakeen faktoreetariko bat dela ere esan dugu.

Arrazoizkoa dirudi Andorra eta Kataluniaren arteko hurbiltasun geografikoa erabiltzea unibertsitate katalanetan Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleek duten garrantzia

justifikatzeko balizko argudio gisa. Era berean, zentzuzkoa da Afrika eta Andaluziaren arteko gertutasuna Afrikako iparraldeko ikasleek Andaluziako unibertsitateetan duten garrantzia justifikatzeko erabiltzea. Shanka, Quintal eta Taylorrek (2005) garatutako lanean, ikasle internazionalen jatorrizko herrialdearen eta unibertsitatea kokatuta dagoen hiriaren arteko hurbiltasuna aipatzen da ikasketak egiteko lekua hautatzeko arrazoi nagusietako bat bezala.

Bestalde, ondorengo tauletan ikus daiteke kontuan hartzeko modukoa dela ere Afrikako gainontzeko herrialdeetako ikasleek Gaztela eta Leon eta Extremadurako unibertsitateetan duten garrantzia edota Ipar Amerikako atzerritarrek Madrileko unibertsitateetan dutena.

Afrikako gainontzeko herrialdeak portzentajea

Duncan

KOKAPENA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05) 1	2
Katalunia	11	2,5636	
Iparraldeko eremua eta Aragoi	13	3,0723	
Levan., Gazt.-Mantxa, Bal. U. eta Kan.	14	3,1264	
Madrilgo Erkidegoa	13	4,3123	
Andaluzia	9	6,1367	6,1367
Gaztela eta Leon eta Extremadura	9		12,5300
Esang.		,372	,072

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Ipar Amerika portzentajea

Duncan

KOKAPENA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05) 1	2
Levan., Gazt.-Mantxa, Bal. U. eta Kan.	14	1,5764	
Katalunia	11	2,4527	
Andaluzia	9	3,3700	
Gaztela eta Leon eta Extremadura	9	5,5889	
Iparraldeko eremua eta Aragoi	13	5,8869	
Madrilgo Erkidegoa	13		10,8085
Esang.		,102	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Iparraldeko eremuko eta Aragoiko unibertsitateak, aldiz, Erdialdeko Amerikako ikasleek haietan duten garrantziagatik nabarmentzen dira. Horrez gain, Iparraldeko eremuko eta Aragoiko unibertsitateek, Madrilekoekin eta Levante, Gaztela-Mantxa, Balear Uharteak eta Kanarietakoekin batera, Andaluziakoek baino Hego Amerikako ikasleen proportzio nabarmenki handiagoa daukate.

Erdialdeko Amerika portzentajea

Duncan

KOKAPENA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05) 1	2
Andaluzia	9	,9111	
Gaztela eta Leon eta Extremadura	9	1,4733	
Katalunia	11	2,1618	
Levan., Gazt.-Mantxa, Bal. U. eta Kan.	14	3,2471	3,2471
Madrilgo Erkidegoa	13	3,6562	3,6562
Iparraldeko eremua eta Aragoi	13		5,2754
Esang.		,071	,159

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Hego Amerika portzentajea

Duncan

KOKAPENA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05) 1	2
Andaluzia	9	14,8511	
Katalunia	11	20,3000	20,3000
Gaztela eta Leon eta Extremadura	9	23,9789	23,9789
Iparraldeko eremua eta Aragoi	13		28,7185
Madrilgo Erkidegoa	13		30,9192
Levan., Gazt.-Mantxa, Bal. U. eta Kan.	14		31,2457
Esang.		,171	,122

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Azkenik, gainontzeko aldagai esanguratsuetarako emaitzak biltzen dituzten taulak aurkeztuko ditugu. Aldagai horiek zenbait jatorritako ikasleen pisua, matrikulatuen totalarekiko, islatzen dute. Emaitza hauen interpretazioaren bitartez, jadanik aipatu ditugun ondorioen antzekoak lor daitezke.

Europako gainontzeko herrialdeak portzentajea T.

Duncan

KOKAPENA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Iparraldeko eremua eta Aragoi	13	,0800	
Andaluzia	9	,0889	
Gaztela eta Leon eta Extremadura	9	,1622	
Levan., Gazt.-Mantxa, Bal. U. eta Kan.	14	,1900	
Madrilgo Erkidegoa	13	,2192	
Katalunia	11		,4000
Esang.		,116	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Afrikako iparraldea portzentajea T.

Duncan

KOKAPENA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Iparraldeko eremua eta Aragoi	13	,0254	
Gaztela eta Leon eta Extremadura	9	,0456	
Katalunia	11	,0809	
Madrilgo Erkidegoa	13	,0908	
Levan., Gazt.-Mantxa, Bal. U. eta Kan.	14	,2471	
Andaluzia	9		,6444
Esang.		,064	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Afrikako gainontzeko herrialdeak portzentajea T.

Duncan

KOKAPENA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Iparraldeko eremua eta Aragoi	13	,0262	
Katalunia	11	,0482	,0482
Levan., Gazt.-Mantxa, Bal. U. eta Kan.	14	,0550	,0550
Andaluzia	9	,0622	,0622
Madrilgo Erkidegoa	13		,1000
Gaztela eta Leon eta Extremadura	9		,1078
Esang.		,297	,091

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Ipar Amerika portzentajea T.

Duncan

KOKAPENA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Levan., Gazt.-Mantxa, Bal. U. eta Kan.	14	,0250	
Andaluzia	9	,0522	
Katalunia	11	,0600	
Iparraldeko eremua eta Aragoi	13	,0638	
Gaztela eta Leon eta Extremadura	9	,1367	,1367
Madrilgo Erkidegoa	13		,2369
Esang.		,110	,108

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Hego Amerika portzentajea T.

Duncan

KOKAPENA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)		
		1	2	3
Andaluzia	9	,2044		
Iparraldeko eremua eta Aragoi	13	,2623	,2623	
Gaztela eta Leon eta Extremadura	9	,3000	,3000	
Levan., Gazt.-Mantxa, Bal. U. eta Kan.	14		,5050	,5050
Katalunia	11		,5218	,5218
Madrilgo Erkidegoa	13			,7254
Esang.		,484	,066	,106

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Asia eta Ozeania portzentajea T.

Duncan

KOKAPENA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Iparraldeko eremua eta Aragoi	13	,0492	
Gaztela eta Leon eta Extremadura	9	,0522	
Andaluzia	9	,0522	
Levan., Gazt.-Mantxa, Bal. U. eta Kan.	14	,0686	,0686
Katalunia	11	,1091	,1091
Madrilgo Erkidegoa	13		,1431
Esang.		,140	,051

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

4.3.1.3 Konkurrentzia Maila

Tesi honen lehenengo kapituluan, unibertsitate mailako hezkuntza-sektorean azken hamarkadotan gertatutako konkurrentzia

mailaren areagotzea aipatu dugu, hala nola areagotze horrek goi mailako hezkuntzaren eskariaren analisiarekiko interes gero eta handiagoa eragin duela. Lehenengo kapituluan aipatutako ikerlanek agerian jartzen dute unibertsitateek gero eta ardura handiagoa dutela euren eskariarekin erlazionatutako hainbat alderdirekiko eta ikasleen segmentu potentzial berrien analisiarekiko. Azaldu dugu, halaber, unibertsitateen aldetik arreta berezia jaso duen segmentuetako bat nazioarteko ikasleena izan dela.

Azpiatal honetan, lehenik eta behin, Espainiako lurralde ezberdinetan, goi mailako hezkuntza-sektorearen konkurrentzia maila neurtu dugu. Ondoren, unibertsitateen arteko lehia maila handiagoak nazioarteko ikasleen segmentuarekiko arreta maila handiagorik eragiten duen egiaztatzen saiatu gara. Konkurrentzia maila horrek unibertsitateetako ikasle internazionalen jatorrian duen eragina ere ikertu dugu.

Hezkuntzaren sektoreko konkurrentzia mailaren eta hezkuntza-emaitzen arteko harremana aztertzen duten zenbait lan aurki daitezke. Bradley, Johnes eta Millingtonek (2001) Ingalaterrako bigarren hezkuntzako zentroetako efizientzia neurtzen dute eta efizientzia horretan erabakigarriak diren faktoreak analizatzen dituzte. Emaitza bezala egileek lehia maila handiagoaren eraginpean dauden zentroak efizienteagoak direla adierazten dute. Kasu honetan, konkurrentzia maila islatzeko, autoreek hurbil dauden zentro lehiakideen kopurua erabiltzen dute.

Belfield eta Levinek (2002) zenbait ikerketen berrikuspenaren bidez, lehia maila handiagoak emaitza akademikoak edo

hezkuntzaren kalitatea bezalako hainbat hezkuntza-aldagaitan duen eragina aztertzen dute.

Bestalde, San Segundo Gómez de Cadiñanosek (1995) hainbat herrialdetako derrigorrezko irakaskuntzaren finantzaketari buruzko ikerketa batean konkurrentziaren sarrera aipatzen du hezkuntzaren kalitatea hobetzeko tresna gisa eta finantzaketa eta hautaketa sistema ezberdinek efizientzia hobetu dezaketen merkatu elementuak sartzen dituztela azaltzen du.

Aipatzekoa da ere Rahona Lópezek (2005) garatutako azterlana; bertan, XX. mendeko bigarren erdian Espainian gertatu zen ikasle unibertsitarioen gehikuntza azal dezaketen faktoreak ikertzen ditu autoreak. Lan honetan, Espainiako goi mailako hezkuntzaren eskariaren hazkundea azaltzen lagun dezakeen faktore instituzionaletako bat bezala, unibertsitate berrien sorrera eta hauen sakabanatze geografikoa Espainiako lurraldean zehar aipatzen da.

Goian esan dugun bezala, lan honetan lehia mailak Espainiako unibertsitateen nazioarteko eskariaren mailan eta eskari horren jatorrian duen eragina aztertuko dugu. Konkurrentzia mailaren neurketari dagokionez, adierazle ezberdinak erabil daitezke. Salas Velascok (2008) azaltzen du hezkuntza-sektorean lehia maila islatzeko, oro har, ondoko neurriak erabiltzen direla: publikoak ez diren eskoletan matrikulatutako ikasleen tasa, eskualde jakin bateko eskola pribatuen proportzioa edota Herfindahl indizea.

Kasu honetan, helburua autonomia erkidego ezberdinetan unibertsitateen arteko konkurrentzia maila neurtzea da. Beraz, autonomia erkidego bakoitzeko unibertsitate pribatuetan matrikulatutako ikasleen ehunekoa erabil dezakegu edo erkidego

bakoitzeko unibertsitate pribatuen proportzioa. Beste aukera bat autonomia erkidego bakoitzerako kalkulatutako Herfindahl indizea erabiltzea da. Indize hau hurrengo formularen bidez kalkulatzen da.

$$HI = \sum_{i=1}^{J} \left(\frac{n_i}{N}\right)^2$$

J = Autonomia erkidegoko unibertsitate kopurua.

n_i = i unibertsitatean matrikulatutako ikasleen kopurua.

N = Autonomia erkidegoko unibertsitateetan matrikulatutako ikasleen kopuru totala.

1etik hurbil dagoen Herfindahl indize batek merkatuan kontzentrazio altua dagoela edo konkurrentzia maila apala dagoela islatzen du. Aitzitik, 0tik hurbil dagoen indize batek merkatuan lehia maila handiagoa dagoela adierazten du.

Ondoko taulan, Espainiako unibertsitate ezberdinetan matrikulatutako ikasleen kopuruari buruzko datuak eta autonomia erkidego bakoitzaren konkurrentzia mailari buruzko informazioa eskaintzen dugu. Konkurrentzia maila hori islatzeko goian aipatutako neurri ezberdinak kalkulatu ditugu unibertsitate ezberdinetako matrikulazio kopuruak oinarri hartuta.

Unibertsitate Mailako Hezkuntza-Sektoreko Konkurrentzia Maila Autonomia Erkidego Bakoitzean

AUTONOMIA ERKIDEGOA	Unib. pribatuetan matrikulatutakoen portz.	Unib. pribatuen portz.	Herfindahl indizea
Kantabria	**%0**	**%0**	**1**
Kantabriako U.	11.063 ikasle		
Nafarroako Foru Erkidegoa	**%54,43**	**%50,00**	**0,5039**
Nafarroako U. Publikoa	7.425 ikasle	Nafarroako U.	8.869 ik.
Galizia	**%0**	**%0**	**0,3387**
Coruñako U.	22.086 ik.	Vigoko U.	23.283 ik.
Santiago de Comp. U.	29.364 ik.		
Errioxa	**%0**	**%0**	**1**
Errioxako U.	6.574 ik.		
Euskal Autonomia Erkidegoa	**%20,31**	**%66,67**	**0,6597**
Euskal Herriko U.	47.553 ik.	Mondragon U.	3.379 ik.
Deustuko U.	8.740 ik.		
Asturiasko Printzerria	**%0**	**%0**	**1**
Oviedoko U.	29.887 ik.		
Aragoi	**%0,53**	**%50,00**	**0,9893**
Zaragozako U.	33.777 ik.	San Jorge U.	181 ik.
Gaztela eta Leon	**%10,73**	**%50,00**	**0,2438**
Burgoseko U.	8.318 ik.	Avilako S. T. de Jesús U. K.	672 ik.
Leóneko U.	13.522 ik.	Miguel de Cerv. Europar U.	1.264 ik.
Salamancako U.	26.970 ik.	Salamancako U. Pontifikala	6.101 ik.
Valladolideko U.	28.149 ik.	S.E.K. U.	1.215 ik.
Extremadura	**%0**	**%0**	**1**
Extremadurako U.	24.094 ik.		
Katalunia	**%10,78**	**%36,36**	**0,1747**
Bartzelonako U. Auton.	36.009 ik.	Rovira i Virgili U.	11.605 ik.
Bartzelonako U.	53.711 ik.	Abat Oliba CEU U.	837 ik.
Gironako U.	11.840 ik.	Kataluniako Nazioarteko U.	2.381 ik.
Lleidako U.	8.050 ik.	Ramón Llul U.	12.059 ik.
Kataluniako U. Politekniko	31.598 ik.	Viceko U.	4.322 ik.
Pompeu Fabra U.	9.433 ik.		
Madrilgo Erkidegoa	**%15,01**	**%53,85**	**0,1792**
Alcalako U.	18.070 ik.	Antonio de Nebrija U.	1.368 ik.
Madrileko U. Autonomoa	30.819 ik.	Camilo José Cela U.	1.232 ik.
Madrileko Carlos III.a U.	16.661 ik.	Madrileko Europar U.	7.112 ik.
Madrileko U. Complutense	80.761 ik.	Francisco de Vitoria U.	1.562 ik.
Madrileko U. Politeknikoa	37.262 ik.	Comillaseko U. Pontifikala	7.253 ik.
Errege Juan Carlos U.	17.370 ik.	San Pablo CEU U.	7.831 ik.
Alfontso X.a Jakituna U.	9.126 ik.		
Valentziako Erkidegoa	**%7,83**	**%28,57**	**0,2164**
Alacanteko U.	26.230 ik.	Valentziako Estudi Gen. U.	45.523 ik.
Castellóko Jaume I.a U.	12.653 ik.	Cardenal Herrera CEU U.	6.481 ik.
Elcheko Miguel Hernán. U.	10.873 ik.	Valentziako S. V. M. U. Kat	4.539 ik.
Valentziako U. Politeknikoa	34.526 ik.		

AUTONOMIA ERKIDEGOA	Unib. pribatuetan matrikulatutakoen portz.		Unib. pribatuen portz.	Herfindahl indizea
Murtziako Eskualdea	**%12,91**		**%33,33**	**0,5398**
Murtziako U.	27.358 ik.	San Antonio U. Katolikoa		5.017 ik.
Cartagenako U. Politeknik.	6.501 ik.			
Gaztela-Mantxa	**%0**		**%0**	**1**
Gaztela-Mantxako U.	27.754 ik.			
Balear Uharteak	**%0**		**%0**	**1**
Balear Uharteetako U.	12.642 ik.			
Kanariak	**%0**		**%0**	**0,5007**
La Lagunako U.	23.506 ik.	Kan. Hand. las Palmasko U.		21.712 ik.
Andaluzia	**%0**		**%0**	**0,1673**
Almeríako U.	11.556 ik.	Jaéneko U.		14.309 ik.
Cádizeko U.	20.097 ik.	Málagako U.		34.360 ik.
Kordobako U.	18.228 ik.	Pablo de Olavide U.		9.069 ik.
Granadako U.	55.780 ik.	Sevillako U.		59.784 ik.
Huelvako U.	10.407 ik.			

Iturria: Egileak moldatua

Aurreko taulan ikus daiteke autonomia erkidegoen lehia maila aztertzeko ez direla kontuan hartu Urruneko Hezkuntzako Unibertsitate Nazionalarekin eta Kataluniako Unibertsitate Irekiarekin lotutako datuak. Unibertsitateen kokapena analizatzeko garaian egin dugun bezala, kasu honetan, lehia maila aztertzeko, bi unibertsitate hauek analisitik kanpo utzi ditugu bertaratu gabeko unibertsitateak izateagatik.

Taulan konkurrentzia mailaren adierazle ezberdinak aurkezten baditugu ere, konkurrentzia horrek unibertsitateen nazioarteko eskarian duen eragina ebaluatzeko garaian, Herfindahl indizea baino ez dugu kontuan hartu. Unibertsitate pribatuetako ikasleen proportzioa edo unibertsitate pribatuen portzentajea bezalako neurriek irakaskuntza publikoaren eta pribatuaren arteko harremana besterik ez dute islatzen. Herfindahl indizeak, aldiz, erakunde ezberdinetan ikasleen banaketari buruzko informazioa biltzen du.

Aurreko azpiataletan egin dugun bezala, azpiatal honetan ere hainbat bariantzaren analisi aplikatu ditugu. Menpeko aldagai gisa eskari aldagai ezberdinak erabili ditugu eta aldagai independente edo faktore gisa konkurrentzia maila izeneko aldagaia, lurralde ezberdinetan kokaturiko unibertsitateek aurre egin beharreko lehia maila islatzen duena. Lehia hori altua, ertaina edo baxua izan daiteke, unibertsitate bakoitza kokatzen den autonomia erkidegorako kalkulatutako Herfindahl indizearen arabera.

Hortaz, bariantzaren analisi ezberdinak aplikatuz, unibertsitateek jasan beharreko konkurrentzia mailaren arabera eskari internazionalean diferentzia adierazgarririk dagoen aztertu dugu. Emaitzei so eginez hurrengo nazioarteko eskari aldagaiak konkurrentzia maila ezberdineko unibertsitateetan nabarmenki ezberdinak direla ondoriozta dezakegu[83].

- Atzerritarren portzentajea
- Erdialdeko Amerika portzent.
- Europako gain. herr. portzent. T.
- Europar Batasuna portzentajea T.
- Erdialdeko Amerika portzent. T.

Hala ere, jarraian erakusten diren aztertutako gainontzeko aldagaiek lehia maila ezberdineko unibertsitateetan diferentzia adierazgarririk aurkezten ez dutela egiaztatu ahal izan dugu.

- Matrikulatuen totala
- Atzerritarren totala
- Europar Batasuna ikasleak
- Europako gain. herr. ikasleak
- Afrikako iparraldea ikasleak
- Afrikako gain. herr. ikasleak
- Ipar Amerika ikasleak
- Erdialdeko Amerika ikasleak
- Hego Amerika ikasleak
- Asia eta Ozeania ikasleak
- Europar Batasuna portzentajea
- Europako gain. herr. portzent.
- Afrikako iparraldea portzentajea
- Afrikako gain. herr. portzentajea
- Ipar Amerika portzentajea
- Hego Amerika portzentajea
- Asia eta Ozeania portzentajea
- Afrikako iparraldea portzentajea T.
- Afrikako gain. herr. portzentajea T.
- Ipar Amerika portzentajea T.
- Hego Amerika portzentajea T.
- Asia eta Ozeania portzentajea T.

[83] Azken bi aldagaiak 0,10eko esangura maila baterako dira esanguratsuak.

Hurrengo taulotan, Duncanen probaren emaitzak aurkezten ditugu identifikatutako aldagai esanguratsuetarako.

Lehenengo taulan ikus daiteke nazioarteko eskari maila nabarmenki handiagoa dela konkurrentzia maila handiagoko lurraldeetan kokaturik dauden unibertsitateetan. Aitzitik, ikasle internazionalen proportzioa txikiagoa da konkurrentzia maila baxuko autonomia erkidegoetan kokaturik dauden unibertsitateetan.

Atzerritarren portzentajea

Duncan

KONKURRENTZIA MAILA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	8	,9188	
Ertaina	10	1,2220	1,2220
Altua	51		1,8943
Esang.		,479	,119

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Jatorri ezberdinetako atzerritarren ehunekoari dagokionez, ondorengo taulan ikus daiteke lehia maila ertaineko eskualdeetan kokatutako unibertsitateek lehia maila altuko lurraldeetan kokatutako unibertsitateek baino Erdialdeko Amerikako ikasleen proportzio nabarmenki handiagoa dutela.

Erdialdeko Amerika portzentajea

Duncan

KONKURRENTZIA MAILA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Altua	51	2,3416	
Baxua	8	3,5688	3,5688
Ertaina	10		5,8840
Esang.		,342	,075

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Azkenik, hurrengo tauletako datuek agerian jartzen dute Europako eskualde ezberdinetako ikasleen proportzioa, matrikulatuen totalarekiko, konkurrentzia maila altuko

unibertsitateetan gainontzeko unibertsitateetan baino handiagoa dela. Horrez gain, Erdialdeko Amerikako ikasleen portzentajea, matrikulatuen totalarekiko, konkurrentzia maila ertaineko unibertsitateetan gainontzeko unibertsitateetan baino handiagoa dela ere ikus daiteke.

Europako gainontzeko herrialdeak portzentajea T.

Duncan

KONKURRENTZIA MAILA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)
		1
Ertaina	10	,0760
Baxua	8	,1087
Altua	51	,2271
Esang.		,080

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Europar Batasuna portzentajea T.

Duncan

KONKURRENTZIA MAILA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)
		1
Baxua	8	,2638
Ertaina	10	,3520
Altua	51	,6810
Esang.		,113

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Erdialdeko Amerika portzentajea T.

Duncan

KONKURRENTZIA MAILA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	8	,0350	
Altua	51	,0463	,0463
Ertaina	10		,1020
Esang.		,717	,077

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

4.3.1.4 Antzinatasuna

Unibertsitateen eskari internazionalean eragina izan dezakeen eta hemen aztertu dugun beste ezaugarrietako bat erakundearen

antzinatasuna da. Hots, unibertsitatearen sorrera datak bere atzerriko eskari mailan edota eskari horren jatorrian eraginik duen ikertu nahi izan dugu. Horretarako, erakundeak euren sorrera unearen arabera sailkatu ditugu (historikoak, zaharrak, berriak eta egungoak) eta unibertsitate talde ezberdinen nazioarteko eskaria konparatu dugu.

Aurretik egin den bezalaxe, azpiatal honetan ere hainbat faktore bakarreko bariantzaren analisi egin ditugu menpeko aldagai gisa eskari aldagai ezberdinak erabiliz. Kasu honetan, aldagai independentea edo faktorea unibertsitatearen antzinatasuna da. Analisi horien emaitzak ikusita, ondorengo aldagaiek antzinatasun ezberdinetako unibertsitateetan diferentzia adierazgarriak aurkezten dituztela ondoriozta daiteke [84].

- Matrikulatuen totala
- Atzerritarren totala
- Europar Batasuna ikasleak
- Afrikako iparraldea ikasleak
- Afrikako gain. herr. ikasleak
- Ipar Amerika ikasleak
- Erdialdeko Amerika ikasleak
- Hego Amerika ikasleak
- Asia eta Ozeania ikasleak
- Europar Batasuna portzentajea
- Asia eta Ozeania portzentajea T.
- Europako gain. herr. ikasleak

Ondoko nazioarteko eskari aldagaiek, aldiz, ez dute diferentzia esanguratsurik aurkezten unibertsitate historiko, zahar, berri eta egungoetan.

- Atzerritarren portzentajea
- Europako gain. herr. portzent.
- Afrikako iparraldea portzentajea
- Afrikako gain. herr. portzentajea
- Ipar Amerika portzentajea
- Erdialdeko Amerika portzent.
- Hego Amerika portzentajea
- Asia eta Ozeania portzentajea
- Afrikako iparraldea portzentajea T.
- Afrikako gain. herr. portzentajea T.
- Ipar Amerika portzentajea T.
- Erdialdeko Amerika portzent. T.
- Hego Amerika portzentajea T.
- Europar Batasuna portzentajea T.
- Europako gain. herr. portzent. T.

Aldagai esanguratsuak identifikatu ondoren, garrantzitsua da kontuan hartzea antzinatasuna aldagaiak lau kategoria dituela. Hau

[84] Azken aldagaia 0,10eko esangura maila baterako da esanguratsua.

da, sorrera unearen arabera, unibertsitateak lau multzotan sailkatu ditugu. Honek esan nahi du antzemandako diferentziak kategoria batzuei ala besteei egotzi ahal izateko beharrezkoa dela konparaketa anizkoitzeko probaren bat egitea, ondoko tauletan aurkezten direnak bezalakoak.

Matrikulatuen totala

Duncan

ANTZINATASUNA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Egungoa	20	6084,80	
Berria	24	14301,79	
Zaharra	13		35980,31
Historikoa	14		36468,79
Esang.		,204	,939

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Aurreko taulan Duncanen probaren emaitzak erakusten dira matrikulatuen kopuru totalerako. Emaitza hauek unibertsitate zahar eta historikoen batez besteko tamaina unibertsitate berri eta egungoena baino nabarmenki handiagoa dela adierazten dute. Ondorioz, hurrengo taulan egiazta daitekeenez, ikasle internazionalen batez besteko kopurua ere nabarmenki handiagoa da unibertsitate zahar eta historikoetan unibertsitate berri eta egungoetan baino.

Atzerritarren totala

Duncan

ANTZINATASUNA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Egungoa	20	100,15	
Berria	24	262,00	
Zaharra	13		556,08
Historikoa	14		707,43
Esang.		,221	,253

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Emaitzak oso antzekoak dira aztertutako jatorri ezberdinetako ikasle atzerritarren kopuruarekin erlazionatutako aldagaietarako. Ikus daitekeenez, jatorri ezberdinetako nazioarteko ikasleen kopurua handiagoa da unibertsitate zahar eta historikoetan unibertsitate berri eta egungoetan baino.

Europar Batasuna ikasleak

Duncan

ANTZINATASUNA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Egungoa	20	30,80	
Berria	24	93,38	93,38
Historikoa	14		174,64
Zaharra	13		183,69
Esang.		,182	,069

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Afrikako iparraldea ikasleak

Duncan

ANTZINATASUNA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Egungoa	20	7,30	
Berria	24	25,75	
Zaharra	13	66,15	66,15
Historikoa	14		147,07
Esang.		,256	,099

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Afrikako gainontzeko herrialdeak ikasleak

Duncan

ANTZINATASUNA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)		
		1	2	3
Egungoa	20	3,50		
Berria	24	10,00	10,00	
Historikoa	14		18,57	18,57
Zaharra	13			25,92
Esang.		,271	,148	,213

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Ipar Amerika ikasleak

Duncan

ANTZINATASUNA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Egungoa	20	5,55	
Berria	24	11,79	11,79
Zaharra	13		25,00
Historikoa	14		27,29
Esang.		,408	,053

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Erdialdeko Amerika ikasleak

Duncan

ANTZINATASUNA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)		
		1	2	3
Egungoa	20	2,95		
Berria	24	7,33	7,33	
Zaharra	13		16,31	16,31
Historikoa	14			22,14
Esang.		,361	,064	,225

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Hego Amerika ikasleak

Duncan

ANTZINATASUNA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)		
		1	2	3
Egungoa	20	28,70		
Berria	24	64,63	64,63	
Zaharra	13		143,38	143,38
Historikoa	14			211,21
Esang.		,426	,083	,135

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Asia eta Ozeania ikasleak

Duncan

ANTZINATASUNA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Egungoa	20	3,30	
Berria	24	10,75	
Historikoa	14		33,79
Zaharra	13		43,31
Esang.		,455	,340

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Europako gainontzeko herrialdeak ikasleak

Duncan

ANTZINATASUNA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Egungoa	20	18,05	
Berria	24	38,38	38,38
Zaharra	13	52,31	52,31
Historikoa	14		72,71
Esang.		,110	,109

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Bestalde, nabarmentzekoa da ere Europar Batasuneko ikasleen garrantzia ezberdina dela unibertsitatearen antzinatasunaren arabera. Ondoko taulan ikus daiteke Europar Batasuneko ikasleen ehunekoa nabarmenki handiagoa dela 1994. urteaz geroztik sortutako erakundeetan gainontzeko erakundeetan baino.

Europar Batasuna portzentajea

Duncan

ANTZINATASUNA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Historikoa	14	25,7114	
Berria	24	30,6263	
Zaharra	13	30,8985	
Egungoa	20		45,6490
Esang.		,485	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Aipatu dugu, halaber, Asia eta Ozeaniako ikasleen proportzioa matrikulatuen totalarekiko ezberdina dela unibertsitatearen antzinatasunaren arabera. Ondorengo taulan erakusten da portzentaje hori handiagoa dela unibertsitate zaharretan.

Asia eta Ozeania portzentajea T.

Duncan

ANTZINATASUNA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Egungoa	20	,0495	
Berria	24	,0738	
Historikoa	14	,0800	,0800
Zaharra	13		,1362
Esang.		,332	,059

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

4.3.1.5 Tamaina

Espainiako unibertsitateen nazioarteko eskariaren aldakortasuna unibertsitateen tamainaren arabera ere aztertu dugu. Tamaina ezberdinetako unibertsitateen artean eskari internazionalari dagokionez dauden aldeak azaltzen saiatuko gara. Analisi hau egin ahal izateko unibertsitateak lau multzotan sailkatu ditugu matrikulatu kopuruaren arabera: txikiak, ertainak, handiak eta oso handiak.

Aurreko azpiataletan bezala, honetan ere hainbat faktore bakarreko bariantzaren analisi aplikatu ditugu. Analisi hauetan menpeko aldagai bezala nazioarteko eskari aldagai ezberdinak erabili ditugu eta aldagai independente edo faktore bezala, berriz, unibertsitateen tamaina. Emaitzek agerian uzten dute badirela diferentzia esanguratsuak tamaina ezberdinetako unibertsitateen artean ondoko nazioarteko eskari aldagaiei dagokienez[85].

- Atzerritarren totala
- Europar Batasuna ikasleak
- Europako gain. herr. ikasleak
- Afrikako iparraldea ikasleak
- Afrikako gain. herr. ikasleak
- Ipar Amerika ikasleak
- Erdialdeko Amerika ikasleak
- Hego Amerika ikasleak
- Asia eta Ozeania ikasleak
- Europako gain. herr. portzent.
- Afrikako iparraldea portzentajea
- Europako gain. herr. portzent. T.
- Afrikako iparraldea portzentajea T.
- Atzerritarren portzentajea
- Afrikako gain. herr. portzentajea T.

Bestalde, unibertsitate txiki, ertain, handi eta oso handien artean ez dago diferentzia adierazgarririk honako nazioarteko eskari aldagaiei dagokienez.

- Europar Batasuna portzentajea
- Afrikako gain. herr. portzent.
- Ipar Amerika portzentajea
- Erdialdeko Amerika portzentajea
- Europar Batasuna portzentajea T.
- Ipar Amerika portzentajea T.
- Erdialdeko Amerika portzent. T.
- Hego Amerika portzentajea T.

[85] Azken bi aldagaiak 0,10eko esangura maila baterako dira esanguratsuak.

- Hego Amerika portzentajea
- Asia eta Ozeania portzentajea T.
- Asia eta Ozeania portzentajea

Jarraian, identifikatutako aldagai esanguratsuetarako Duncanen probaren emaitzak aurkezten ditugu. Bertan ikus daiteke nolakoak diren antzemandako ezberdintasunak.

Atzerritarren totala

Duncan

TAMAINA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)		
		1	2	3
Txikia	28	67,93		
Ertaina	15		305,87	
Handia	21		512,76	
Oso handia	7			1166,57
Esang.		1,000	,073	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Aurreko taulan aurkezten diren emaitzen arabera, ikasle kopuru handiena duten unibertsitateek, arrazoizkoa den bezala, atzerriko ikasle gehien jasotzen dituztenak dira. Dena den, alde horiek ez dira adierazgarriak unibertsitate ertain eta handien artean. Jarraian erakusten ditugun tauletan jatorri ezberdinetako atzerritar kopurua islatzen duten aldagaietarako emaitzak oso antzekoak direla ikus daiteke.

Europar Batasuna ikasleak

Duncan

TAMAINA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)		
		1	2	3
Txikia	28	24,39		
Ertaina	15	104,47	104,47	
Handia	21		164,67	
Oso handia	7			283,14
Esang.		,089	,199	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Europako gainontzeko herrialdeak ikasleak

Duncan

TAMAINA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)		
		1	2	3
Txikia	28	6,18		
Ertaina	15		48,20	
Handia	21		59,10	
Oso handia	7			120,43
Esang.		1,000	,567	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Afrikako iparraldea ikasleak

Duncan

TAMAINA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Txikia	28	3,11	
Ertaina	15	32,07	
Handia	21	56,57	
Oso handia	7		275,29
Esang.		,302	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Afrikako gainontzeko herrialdeak ikasleak

Duncan

TAMAINA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)		
		1	2	3
Txikia	28	1,96		
Ertaina	15	12,60	12,60	
Handia	21		22,38	22,38
Oso handia	7			27,57
Esang.		,086	,113	,398

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Ipar Amerika ikasleak

Duncan

TAMAINA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Txikia	28	6,54	
Ertaina	15	17,13	
Handia	21	17,52	
Oso handia	7		41,86
Esang.		,202	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Erdialdeko Amerika ikasleak

Duncan

TAMAINA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)		
		1	2	3
Txikia	28	3,82		
Ertaina	15	7,40	7,40	
Handia	21		14,14	
Oso handia	7			34,57
Esang.		,462	,168	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Hego Amerika ikasleak

Duncan

TAMAINA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)		
		1	2	3
Txikia	28	19,00		
Ertaina	15	72,33	72,33	
Handia	21		143,71	
Oso handia	7			330,14
Esang.		,219	,101	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Asia eta Ozeania ikasleak

Duncan

TAMAINA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Txikia	28	2,93	
Ertaina	15	11,67	
Handia	21		34,67
Oso handia	7		53,57
Esang.		,409	,077

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Beste alde batetik, ondorengo taulan Europako gainontzeko herrialdeetako atzerritarren batez besteko proportzioak aurkezten ditugu tamaina ezberdinetako unibertsitateetarako. Emaitzei erreparatuta, baiezta daiteke unibertsitate ertainak direla Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleen proportziorik handiena dutenak eta unibertsitate txikiak, berriz, jatorri honetako ikasleen ehunekorik txikiena dutenak. Aldagai hau erakunde ertainetan erakunde txikietan baino nabarmenki handiagoa den arren, ez dago alde

nabarmenik unibertsitate ertain, handi eta oso handien artean aldagai honi dagokionez. Era berean, Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleen ehunekoa ez da nabarmenki ezberdina unibertsitate txiki, handi eta oso handietan.

Europako gainontzeko herrialdeak portzentajea

Duncan

TAMAINA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Txikia	28	8,0957	
Oso handia	7	9,5757	9,5757
Handia	21	11,3433	11,3433
Ertaina	15		16,7440
Esang.		,400	,063

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Halaber, hurrengo taulan tamaina ezberdineko erakundeen artean Afrikako iparraldeko ikasleen portzentajeari dagokionez diferentzia adierazgarriak daudela ikus daiteke. Zehazki, unibertsitate oso handiek unibertsitate txiki eta handiek baino Afrikako iparraldeko ikasleen proportzio nabarmenki handiagoa aurkezten dutela esan daiteke.

Afrikako iparraldea portzentajea

Duncan

TAMAINA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Txikia	28	4,4289	
Handia	21	10,0457	
Ertaina	15	14,2300	14,2300
Oso handia	7		23,4157
Esang.		,097	,100

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Europako gainontzeko herrialdeetako eta Afrikako iparraldeko ikasleen portzentajea, matrikulatutako ikasleen kopuru totalarekiko, ere aldagai esanguratsuak dira. Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleen ehunekoa ikasle matrikulatuen kopuru

totalarekiko nabarmenki handiagoa da unibertsitate ertainetan unibertsitate txiki, handi eta oso handietan baino. Afrikako iparraldeko ikasleen proportzioa matrikulatuen kopuru totalarekiko, ordea, nabarmenki handiagoa da erakunde oso handietan erakunde txiki, ertain eta handietan baino.

Europako gainontzeko herrialdeak portzentajea T.

Duncan

TAMAINA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05) 1	2
Txikia	28	,1161	
Handia	21	,1890	
Oso handia	7	,1943	
Ertaina	15		,3567
Esang.		,331	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Afrikako iparraldea portzentajea T.

Duncan

TAMAINA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05) 1	2
Txikia	28	,0461	
Handia	21	,1890	
Ertaina	15	,2300	
Oso handia	7		,4843
Esang.		,116	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Azkenik, atzerritarren portzentajea eta Afrikako gainontzeko herrialdeetako ikasleen portzentajea matrikulatuen totalarekiko aldagaietan lortutako diferentziak aurkeztuko ditugu. Aurretik aipatu bezala, aldagai hauek 0,10eko esangura maila baterako dira adierazgarriak.

Ondoko taulotan atzerritarren proportzioa unibertsitate oso handietan unibertsitate txikietan baino nabarmenki handiagoa dela egiazta daiteke. Halaber, Duncanen probaren emaitzen arabera, Afrikako gainontzeko herrialdeetako ikasleen ehunekoa

matrikulatuen totalarekiko tamaina ezberdinetako unibertsitateetan nabarmenki ezberdina ez dela antzeman daiteke.

Atzerritarren portzentajea

Duncan

TAMAINA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05) 1	2
Txikia	28	1,2829	
Ertaina	21	1,7248	1,7248
Handia	7	1,8886	1,8886
Oso handia	15		2,1853
Esang.		,164	,290

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Afrikako gainontzeko herrialdeak portzentajea T.

Duncan

TAMAINA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05) 1
Txikia	28	,0407
Oso handia	7	,0429
Handia	21	,0795
Ertaina	15	,0940
Esang.		,087

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

4.3.1.6 Irakaskuntza Adar Ezberdinetara Orientazioa

Azpiatal honetan, unibertsitateen eskari internazionalaren eta unibertsitateetan irakaskuntza adar zehatz batek duen garrantziaren arteko harremana aztertuko dugu. Aurreko atalean ikusi dugun bezala ikasketa ofizialak bost irakaskuntza adar edo ezagutza arlotan sailkatzen dira: gizarte eta zuzenbide zientziak, ikasketa teknikoak, humanitateak, zientzia esperimentalak eta osasun zientziak.

GIZARTE ETA ZUZENBIDE ZIENTZIETARA ORIENTAZIOA

Lehenik, gizarte eta zuzenbide zientziek pisu handia duten unibertsitateen eta irakaskuntza adar horrek hainbesteko garrantzirik ez duen unibertsitateen arteko diferentziak ikertu ditugu. Horretarako, erakunde bakoitzean gizarte eta zuzenbide zientzietan matrikulatutako ikasleen portzentajea Espainiako unibertsitate guztietarako lortutako portzentajea baino handiagoa edo txikiagoa den adierazten duen aldagai bat definitu dugu[86].

Bariantzaren analisiaren emaitzen arabera, ez dago diferentzia adierazgarririk eskari internazionalari dagokionez gizarte eta zuzenbide zientzietara orientaturik dauden eta irakaskuntza adar horretara orientaturik ez dauden erakundeen artean. Hala ere, 0,10eko esangura maila baterako, Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleen kopurua eta jatorri horretako ikasleen portzentajea matrikulatuen totalarekiko gizarte eta zuzenbide zientzietara orientazioa duten unibertsitateetan nabarmenki handiagoa dela esan dezakegu. Hurrengo taulan ikus daitezke diferentzia horiek.

Deskribatzaileak

	GIZ. ETA ZUZ. ZIENTZIETARA ORIENTAZIOA	N	Batez bestekoa	Desbideratze tipikoa	Minimoa	Maximoa
Europako gain. herrialdeak ikasleak	Bai	36	53,50	73,386	0	293
	Ez	35	30,11	38,984	0	157
	Totala	71	41,97	59,746	0	293
Europako gain. herrialdeak portzentajea T.	Bai	36	,2372	,23144	,00	,87
	Ez	35	,1540	,18323	,00	,85
	Totala	71	,1962	,21176	,00	,87

[86] Aldagai honen definizio zehatza eta gainontzeko irakaskuntza adarrei dagozkien aldagaien definizio zehatza kapituluaren eranskinean agertzen da.

IKASKETA TEKNIKOETARA ORIENTAZIOA

Ondoren, unibertsitateek ikasketa teknikoei ematen dieten garrantziaren arabera nazioarteko eskarian diferentziarik dagoen aztertu dugu. Irakaskuntza adar honek duen pisuaren arabera unibertsitate ezberdinak multzokatzeko asmoz, ikasketa teknikoetara orientazioa aldagaia sortu dugu.

Kasu honetan, ikasketa teknikoei garrantzi ezberdina ematen dieten erakundeen artean nazioarteko eskariari dagokionez diferentzia adierazgarriak antzeman ditugu. Ondoko taulan, aldagai esanguratsuak aurkezten dira eta ikasketa teknikoei garrantzi ezberdina ematen dieten unibertsitateen artean aurkitutako aldeak[87].

Deskribatzaileak

	IKASKETA TEKNIKOETARA ORIENTAZIOA	N	Batez bestekoa	Desbideratze tipikoa	Minimoa	Maximoa
Atzerritarren totala	Bai	36	240,03	274,278	0	1353
	Ez	35	479,51	534,685	1	2263
	Totala	71	358,08	437,052	0	2263
Atzerritarren portzentajea	Bai	36	1,3214	,79581	,00	3,63
	Ez	35	2,0163	1,25151	,41	7,03
	Totala	71	1,6639	1,09537	,00	7,03
Europar Batasuna ikasleak	Bai	36	71,11	125,139	0	716
	Ez	35	146,57	154,721	1	612
	Totala	71	108,31	144,571	0	716
Europako gain. herrialdeak ikasleak	Bai	36	26,44	32,777	0	115
	Ez	35	57,94	75,666	0	293
	Totala	71	41,97	59,746	0	293
Ipar Amerika ikasleak	Bai	36	9,97	11,415	0	41
	Ez	35	21,20	29,676	0	132
	Totala	71	15,51	22,910	0	132
Hego Amerika ikasleak	Bai	36	59,14	63,891	0	265
	Ez	35	137,63	187,728	0	879
	Totala	71	97,83	143,946	0	879
Europar Batasuna portzentajea	Bai	36	28,8267	17,40160	,00	77,78
	Ez	35	39,1969	23,22603	4,17	100,00
	Totala	71	33,9387	20,99261	,00	100,00
Afrikako gain. herrialdeak portzentajea	Bai	36	7,0697	11,28138	,00	52,25
	Ez	35	2,5166	2,19548	,00	8,70
	Totala	71	4,8252	8,43989	,00	52,25

[87] Azken aldagaia 0,10eko esangura maila baterako da esanguratsua.

Asia eta Ozeania portzentajea	Bai	36	6,1222	6,16857	,00	24,16
	Ez	35	3,4323	2,45809	,00	8,70
	Totala	71	4,7962	4,87799	,00	24,16
Europar Batasuna portzentajea T.	Bai	36	,4022	,39188	,00	1,92
	Ez	35	,7546	,74463	,03	4,53
	Totala	71	,5759	,61447	,00	4,53
Hego Amerika portzentajea T.	Bai	36	,3344	,24203	,00	,99
	Ez	35	,5320	,39468	,00	1,46
	Totala	71	,4318	,33889	,00	1,46
Erdialdeko Amerika ikasleak	Bai	36	7,58	11,254	0	47
	Ez	35	13,83	18,218	0	92
	Totala	71	10,66	15,311	0	92

Alde batetik, lortutako emaitzak aztertu ondoren, ikasketa teknikoek garrantzi berezia duten unibertsitateetan ikasle atzerritarren kopurua eta ikasle atzerritarren ehunekoa irakaskuntza adar horrek garrantzi gutxiago daukan unibertsitateetan baino nabarmenki txikiagoa dela egiazta daiteke.

Baieztapen hori bere horretan mantentzen da Europar Batasuneko, Europako gainontzeko herrialdeetako, Ipar Amerikako, Hego Amerikako eta Erdialdeko Amerikako ikasle atzerritarren kopururako. Aitzitik, ikasketa teknikoei garrantzi ezberdina ematen dieten erakundeen artean ez dago diferentzia adierazgarririk matrikulatuen kopuru totalari dagokionez.

Bestalde, nabarmentzekoak dira ere jatorri ezberdinetako ikasleen proportzioari dagozkion diferentziak. Esate baterako, Europar Batasuneko ikasle atzerritarren ehunekoan diferentzia esanguratsuak daude ikasketa teknikoetara bideratutako eta irakaskuntza adar horretara bideratuta ez dauden unibertsitateen artean. Azken hauek dira ikasle internazionalen artean Europar Batasuneko ikasleen ehuneko handiena dutenak. Hala ere, Afrikako gainontzeko herrialdeetako eta Asia eta Ozeaniako ikasleen

proportzioa nabarmenki handiagoa da ikasketa teknikoetara orientatutako erakundeetan.

Beraz, ikasketa teknikoei garrantzi ezberdina ematen dieten unibertsitateek ahalegin erlatibo ezberdina egiten dute zenbait jatorritako ikasleei erantzuteko. Hots, ikasketa teknikoei pisu ezberdina ematen dieten erakundeek ikasle internazional guztiei erantzuteko ahalegina jatorri ezberdinetako ikasleen artean modu diferentean banatzen dute.

Azkenik, jatorri batzuetako ikasleen portzentajea matrikulatuen totalarekiko islatzen duten zenbait aldagai ere esanguratsuak direla ikusi dugu. Atzerriko ikasleen portzentaje totalerako esan bezala, Europar Batasuneko eta Hego Amerikako atzerritarren proportzioa matrikulatuen totalarekiko nabarmenki txikiagoa da ikasketa teknikoetara bideratutako unibertsitateetan.

Ondorio moduan, beraz, esan daiteke ikasle atzerritarrei eta, bereziki, Europar Batasuneko eta Hego Amerikako ikasleei erantzuteko egiten den ahalegin erlatiboa, ikasleen totalerako egiten den ahaleginarekiko, nabarmenki txikiagoa dela ikasketa teknikoetara orientatutako unibertsitateetan.

HUMANITATEETARA ORIENTAZIOA

Azpiatal honetan, humanitateetara orientatuta dauden eta irakaskuntza adar horretara bideratuta ez dauden unibertsitateen artean eskari internazionalari dagokionez dauden diferentziak aurkeztuko ditugu. Hurrengo taulak identifikatutako aldagai

esanguratsuak erakusten ditu eta baita humanitateei garrantzi ezberdina ematen dieten erakundeen arteko diferentziak ere.[88].

Deskribatzaileak

	HUMANITATEETARA ORIENTAZIOA	N	Batez bestekoa	Desbideratze tipikoa	Minimoa	Maximoa
Matrikulatuen totala	Bai	18	40661,06	32732,944	6574	147262
	Ez	53	13421,64	11132,820	181	47553
	Totala	71	20327,41	22241,923	181	147262
Atzerritarren totala	Bai	18	728,06	604,809	35	2263
	Ez	53	232,43	272,169	0	1353
	Totala	71	358,08	437,052	0	2263
Europar Batasuna ikasleak	Bai	18	193,28	148,038	2	558
	Ez	53	79,45	132,753	0	716
	Totala	71	108,31	144,571	0	716
Europako gain. herr. ikasleak	Bai	18	90,61	90,129	5	293
	Ez	53	25,45	32,441	0	115
	Totala	71	41,97	59,746	0	293
Afrikako iparraldea ikasleak	Bai	18	123,00	254,242	0	1037
	Ez	53	27,72	71,810	0	465
	Totala	71	51,87	145,847	0	1037
Ipar Amerika ikasleak	Bai	18	27,06	30,920	1	132
	Ez	53	11,58	18,226	0	109
	Totala	71	15,51	22,910	0	132
Erdialdeko Amerika ikasleak	Bai	18	21,67	21,820	3	92
	Ez	53	6,92	10,186	0	47
	Totala	71	10,66	15,311	0	92
Hego Amerika ikasleak	Bai	18	222,83	224,672	7	879
	Ez	53	55,38	64,378	0	265
	Totala	71	97,83	143,946	0	879
Hego Amerika portzentajea	Bai	18	32,5322	13,52707	7,01	62,50
	Ez	53	23,7772	15,18496	,00	55,56
	Totala	71	25,9968	15,18032	,00	62,50
Hego Amerika portz. T.	Bai	18	,5756	,37872	,08	1,22
	Ez	53	,3830	,31326	,00	1,46
	Totala	71	,4318	,33889	,00	1,46
Asia eta Ozeania ikasleak	Bai	18	31,72	33,031	0	136
	Ez	53	14,89	30,948	0	166
	Totala	71	19,15	32,107	0	166
Europar Batasuna portzentajea	Bai	18	26,8611	8,65379	4,17	47,95
	Ez	53	36,3425	23,35647	,00	100,00
	Totala	71	33,9387	20,99261	,00	100,00

Taulako emaitzek adierazten dutenez, atzerritarren kopuru totala nabarmenki handiagoa da humanitateek pisu garrantzitsua

[88] Azken bi aldagaiak 0,10eko esangura maila baterako dira esanguratsuak.

duten unibertsitateen kasuan. Hala ere, atzerritarren proportzioari dagokionez ez da alde esanguratsurik antzeman humanitateei garrantzi maila ezberdina ematen dioten unibertsitateen artean. Bestalde, humanitateetara bideratutako unibertsitateetan ikasle matrikulatuen kopuru totala humanitateei garrantzi gutxiago ematen dioten unibertsitateetan baino nabarmenki handiagoa dela ere ikus dezakegu.

Hitz gutxitan esateko, humanitateetara bideratutako erakundeetan atzerritarren kopurua nabarmenki handiagoa izan arren, matrikulatuen kopuru totala ere halakoa da, eta beraz, atzerritarren portzentajeari dagokionez ez dago diferentzia adierazgarririk. Hortaz, humanitateei garrantzi ezberdina ematen dioten unibertsitateetan ikasle internazionalei erantzuteko egindako ahalegin erlatiboa oso antzekoa dela esan daiteke.

Atzerritarren kopuruarekin gertatzen den bezala, aztertutako jatorri ezberdinetako ikasle kopurua ere, Afrikako gainontzeko herrialdeetako ikasle kopurua izan ezik, nabarmenki handiagoa da humanitateetara orientatutako erakundeetan irakaskuntza adar horretara orientatuta ez dauden erakundeetan baino.

Jatorri ezberdinetako ikasleen ehunekoari dagokionez, humanitateetara orientatuta dauden unibertsitateek Hego Amerikako ikasleen proportzio handiagoa dutela ikus daiteke. Aitzitik, 0,10eko esangura maila kontuan izanda, humanitateetara orientatuta dauden unibertsitateek Europar Batasuneko ikasleen proportzio nabarmenki txikiagoa dutela esan dezakegu.

Halaber, humanitateetara bideratutako unibertsitateetan Hego Amerikako ikasleen proportzioa matrikulatuen totalarekiko

nabarmenki handiagoa dela ikusi ahal izan dugu. Beraz, ondoriozta daiteke humanitateetara orientaturik dauden erakundeetan Hego Amerikako ikasleei erantzuteko egiten den ahalegin erlatiboa, bai atzerritarren totalerako egindako ahaleginarekiko, bai ikasleen totalerako egindako ahaleginarekiko, nabarmenki handiagoa dela.

Emaitza hauek ez dira bateraezinak Hego Amerikako eta Europar Batasuneko ikasleek humanitateen adarrean duten garrantziari buruz orain arte aurkeztutakoarekin. Aurreko kapituluan, alde batetik, irakaskuntza adar honetan Europar Batasuneko ikasleen pisua gainontzeko adarretan baino handiagoa dela ikusi dugu. Bestalde, humanitateetan Hego Amerikako ikasleen ehunekoa adar gehienetan baino txikiagoa dela ere erakutsi dugu.

Era berean, aurreko atalean aipatu dugu Europar Batasuneko ikasleen batez besteko proportzioa humanitateetako titulazioetan beste adarretako titulazioetan baino nabarmenki handiagoa dela. Ikus daiteke, halaber, Hego Amerikako ikasleen batez besteko pisua humanitateetako titulazioetan gainontzeko adarretako titulazioetan baino txikiagoa dela.

Bi kasuotan irakaskuntza adar ezberdinetako eskari internazionala konparatu dugu. Azpiatal honetan, ordea, unibertsitateen nazioarteko eskari totalean dauden diferentziak aztertu ditugu unibertsitate horietan humanitateek duten pisuaren arabera. Horregatik, kasu honetan, unibertsitate bakoitzaren nazioarteko eskari totalaren ezaugarriek baldintzatzen dute lortutako emaitza eta ez soilik humanitateen adarreko nazioarteko eskariaren ezaugarriek.

ZIENTZIA ESPERIMENTALETARA ORIENTAZIOA

Zientzia esperimentaletara bideratutako eta adar horretara bideratuta ez dauden unibertsitateen artean ere hainbat ezberdintasun antzeman ditugu eskari internazionalari dagokionez. Ondorengo taulan aurkezten dira zientzia esperimentalei garrantzi maila ezberdina ematen dioten unibertsitateen arteko diferentzia esanguratsuak[89].

Deskribatzaileak

	ZIENTZIA ESPERIMENTALETARA ORIENTAZIOA	N	Batez bestekoa	Desbideratze tipikoa	Minimoa	Maximoa
Atzerritarren totala	Bai	27	542,04	559,998	3	2263
	Ez	44	245,20	295,044	0	1353
	Totala	71	358,08	437,052	0	2263
Europar Batasuna ikasleak	Bai	27	169,48	168,712	1	612
	Ez	44	70,77	114,117	0	716
	Totala	71	108,31	144,571	0	716
Europako gain. herr. ikasleak	Bai	27	63,22	74,229	0	293
	Ez	44	28,93	44,964	0	246
	Totala	71	41,97	59,746	0	293
Ipar Amerika ikasleak	Bai	27	25,93	32,194	0	132
	Ez	44	9,11	10,853	0	41
	Totala	71	15,51	22,910	0	132
Erdialdeko Amerika ikasleak	Bai	27	15,85	20,529	0	92
	Ez	44	7,48	9,976	0	43
	Totala	71	10,66	15,311	0	92
Hego Amerika ikasleak	Bai	27	145,56	204,570	0	879
	Ez	44	68,55	78,224	0	265
	Totala	71	97,83	143,946	0	879
Matrikulatuen totala	Bai	27	26392,41	18078,711	672	80761
	Ez	44	16605,70	23883,809	181	147262
	Totala	71	20327,41	22241,923	181	147262

Hasteko, kanpotarren kopuru totala eta zenbait jatorritako kanpotarren kopurua zientzia esperimentaletara orientatuta dauden unibertsitateetan adar horretara orientatuta ez dauden unibertsitateetan baino nabarmenki handiagoa dela ikus daiteke. Bestalde, zientzia esperimentaletara orientazioa duten erakundeetan

[89] Azken aldagaia 0,10eko esangura maila baterako da esanguratsua.

matrikulatuen kopuru totala ere nabarmenki handiagoa dela egiazta daiteke.

Analisi honetan oinarrituz, zientzia esperimentaletara bideratutako erakundeetan atzerritarren kopurua nabarmenki handiagoa bada ere, matrikulatuen kopuru totala ere halakoa dela kontsidera daiteke eta ikasle atzerritarren proportzioan alde esanguratsurik antzeman ez denez, zientzia esperimentalek garrantzi ezberdina duten unibertsitateetan ikasle internazionalei erantzuteko egiten den ahalegin erlatiboa oso antzekoa dela ondoriozta daiteke.

OSASUN ZIENTZIETARA ORIENTAZIOA

Modu berean, osasun zientzietara bideratutako unibertsitateen eta arlo horretara bideratuta ez dauden unibertsitateen artean nazioarteko eskariari dagokionez dauden diferentziak ikertu ditugu. Hurrengo taulan antzemandako aldagai esanguratsuak eta osasun zientziei garrantzi ezberdina ematen dioten unibertsitateen arteko diferentziak aurkezten ditugu[90].

Deskribatzaileak

	OSASUN ZIENTZIETARA ORIENTAZIOA	N	Batez bestekoa	Desbideratze tipikoa	Minimoa	Maximoa
Ipar Amerika ikasleak	Bai	33	22,67	29,980	0	132
	Ez	38	9,29	11,413	0	41
	Totala	71	15,51	22,910	0	132
Ipar Amerika portzent. T.	Bai	33	,1370	,20692	,00	,83
	Ez	38	,0568	,08054	,00	,43
	Totala	71	,0941	,15691	,00	,83
Atzerritarren totala	Bai	33	455,30	540,843	26	2263
	Ez	38	273,66	304,379	0	1353
	Totala	71	358,08	437,052	0	2263
Atzerritarren portzentajea	Bai	33	1,9194	1,23478	,52	7,03
	Ez	38	1,4421	,91792	,00	3,63
	Totala	71	1,6639	1,09537	,00	7,03

[90] Lehen bi aldagaiak izan ezik gainontzeko aldagaiak 0,10eko esangura maila baterako dira esanguratsuak.

Erdialdeko Amerika ikasleak	Bai	33	14,12	19,514	0	92
	Ez	38	7,66	9,707	0	43
	Totala	71	10,66	15,311	0	92
Ipar Amerika portzentajea	Bai	33	6,3773	7,43800	,00	30,40
	Ez	38	3,7537	4,38433	,00	21,68
	Totala	71	4,9731	6,09820	,00	30,40
Europar Batasuna portzent. T.	Bai	33	,7170	,76627	,11	4,53
	Ez	38	,4534	,41635	,00	1,92
	Totala	71	,5759	,61447	,00	4,53

Aurkeztutako emaitzetan ikus daiteke Ipar Amerikako ikasleen kopurua eta Ipar Amerikako ikasleen proportzioa, matrikulatuen totalarekiko, nabarmenki handiagoa dela osasun zientzietara orientazioa duten erakundeetan. Informazio honen arabera, baiezta daiteke osasun zientzietara orientaturik dauden unibertsitateetan Ipar Amerikako ikasleei erantzuteko egindako ahalegin erlatiboa, ikasleen totalerako egindako ahaleginarekiko, nabarmenki handiagoa dela.

Aipatzekoa da, halaber, 0,10eko esangura maila baterako ikasle internazionalen kopurua eta ehunekoa nabarmenki handiagoa dela osasun zientzietara orientatuta dauden unibertsitateetan. Bestalde, osasun zientziek pisu ezberdina duten erakundeetan ikasle matrikulatuen kopuru totalari dagokionez diferentzia adierazgarririk ez dagoela egiaztatu dugu. Hortaz, emaitza hauen arabera, osasun zientzietara orientatuta dauden unibertsitateetan nazioarteko ikasleei erantzuteko ahalegin erlatiboa, ikasleen totalerako egindako ahaleginarekiko, osasun zientzietara orientatuta ez dauden unibertsitateetan baino handiagoa dela baiezta daiteke.

Azkenik, aurreko taulan ikus dezakegu osasun zientzietara orientazioa duten unibertsitateetan Erdialdeko Amerikako ikasleen kopurua, Ipar Amerikako ikasleen portzentajea eta Europar

Batasuneko ikasleen proportzioa, matrikulatuen totalarekiko, adar horretara bideratuta ez dauden unibertsitateetan baino handiagoa dela. Horrek esan nahi du Ipar Amerikako ikasleei erantzuteko egiten den ahalegin erlatiboa, nazioarteko ikasleentzat egindako ahalegin osoarekiko, eta Europar Batasuneko ikasleei erantzuteko egiten den ahalegin erlatiboa, ikasle guztientzat egindako ahaleginarekiko, handiagoa dela osasun zientzietara orientaturik dauden erakundeetan.

Emaitza hauek bateragarriak dira aurreko kapituluan osasun zientzietako eskari internazionalari buruz aurkeztutakoarekin; bertan Ipar Amerikako ikasleen pisua osasun zientzietan gainontzeko adarretan baino txikiagoa dela adierazi dugu. Gorago azaldu dugun bezala, kasu honetan, emaitzak unibertsitateen nazioarteko eskari totalari buruzkoak dira. Hau da, aurreko kapituluan irakaskuntza adar ezberdinetako eskari internazionalaren jatorria aztertu dugu eta, oraingoan, unibertsitateen nazioarteko eskari totala analizatu dugu, unibertsitate horietan osasun zientziek duten garrantziaren arabera.

4.3.2 Kontrola daitezkeen Faktoreek Unibertsitateen Nazioarteko Eskarian duten Eragina

4.3.2.1 Irakasle eta Ikertzaileen Ezaugarriak

Unibertsitateetan lan egiten duten irakasle eta ikertzaileen egoerak unibertsitate horien eskari internazionalean eraginik duen

ere aztertu dugu. Lehenik eta behin, irakasleen lan-egonkortasunak unibertsitateen atzerriko eskarian efekturik duen ikertu dugu. Era berean, irakasle katedradunen edo lan-kategoria baliokidekoen proportzioak unibertsitateen nazioarteko eskarian zer nolako eragina duen analizatu dugu.

Irakasle eta ikertzaileen ezaugarriei buruzko datuak Hezkuntza Ministerioak argitaratutako 2005/2006 ikasturteko Unibertsitateetako Langileen Oinarrizko Estatistikatik atera ditugu. Estatistika honek unibertsitateetan irakaskuntzara eta ikerkuntzara bideratutako giza baliabideei buruzko informazioa jasotzen du.

a) Lanean Egonkortasuna duten Irakasleen Portzentajea

Lehendabizi lan-egonkortasuna duten irakasleen proportzioak unibertsitateen nazioarteko eskarian zer nolako eragina duen aztertuko dugu. Lan-egonkortasuna duten irakasleen taldean unibertsitateko irakasleen kidegoetan daudenak eta kontratu mugagabea dutenak barneratu ditugu.

Garrantzitsua da kontuan hartzea unibertsitate publikoetan irakasle eta ikertzaileen langileria unibertsitateko irakasleen kidegoetako funtzionarioek eta langile kontratatuek osatzen dutela. Beraz, unibertsitate publikoen kasuan, lan-egonkortasuna duten irakasleen ehunekoa kalkulatzeko, unibertsitateko irakasleen kidegoetako irakasleak eta kontratu mugagabea duten irakasleak hartu ditugu kontuan. Unibertsitate pribatuen kasuan, aldiz, lan-egonkortasuna duten irakasleen proportzioak kontratu mugagabea duten irakasleen pisua islatzen du.

Hortaz, gure asmoa lan-egoera egonkorra duten irakasleen portzentajeak unibertsitateen nazioarteko eskari aldagaietan eraginik ba ote duen jakitea da. Horretarako, erakunde ezberdinetan aipatutako ehunekoa baxua, ertaina edo altua den islatzen duen aldagai bat sortu dugu[91].

Bariantzaren analisi bat baino gehiago aplikatuz, unibertsitateko irakasleen kidegoetan dauden edo kontratu mugagabea duten irakasleen proportzio ezberdina duten unibertsitateen artean, jarraian aurkezten diren eskari aldagaiei dagokienez, diferentzia esanguratsurik ez dagoela ondoriozta daiteke.

- Matrikulatuen totala
- Atzerritarren totala
- Atzerritarren portzentajea
- Europar Batasuna ikasleak
- Europako gain. herr. ikasleak
- Afrikako iparraldea ikasleak
- Afrikako gain. herr. ikasleak
- Ipar Amerika ikasleak
- Erdialdeko Amerika ikasleak
- Hego Amerika ikasleak
- Asia eta Ozeania ikasleak
- Europar Batasuna portzentajea
- Europako gain. herr. portzent.
- Afrikako iparraldea portzentajea
- Afrikako gain. herr. portzentajea
- Ipar Amerika portzentajea
- Erdialdeko Amerika portzent.
- Hego Amerika portzentajea
- Asia eta Ozeania portzentajea
- Europar Batasuna portzentajea T.
- Europako gain. herr. portzent. T.
- Afrikako iparraldea portzentajea T.
- Afrikako gain. herr. portzentajea T.
- Ipar Amerika portzentajea T.
- Erdialdeko Amerika portzent. T.
- Hego Amerika portzentajea T.
- Asia eta Ozeania portzentajea T.

Ondorioz, irakasleen egonkortasunak ikerketa honetan barneratutako nazioarteko eskari aldagaiak baldintzatzen ez dituela baiezta daiteke. Egindako analisiak irakasle egonkorren maila ezberdina duten unibertsitateak, nazioarteko eskariari dagokionez, nahiko antzekoak direla islatzen du.

[91] Ramon LLull unibertsitate pribatuan 2005/2006 ikasturtean zehar kontratu mota ezberdineko irakasle kopuruaren inguruko datuak ez daude erabilgarri. Horregatik, unibertsitate honetako kontratu mugagabeko irakasleen portzentajea kalkulatzeko 2006/2007 ikasturteko datuak erabili ditugu.

b) Irakasle Katedradun edo Baliokideen Portzentajea

Azpiatal honetan irakasle katedradunen edota lan-kategoria baliokidea dutenen ehunekoak unibertsitateen nazioarteko eskaria baldintzatzen ote duen ikusi nahi dugu. Ehuneko hori kalkulatzeko garaian, beharrezkoa da kontuan hartzea unibertsitate publikoetako, unibertsitate pribatuetako eta Elizaren unibertsitate pribatuetako irakasleen arteko ezberdintasunak.

Unibertsitate publikoen kasuan, irakasle katedradun edo lan-kategoria baliokideko irakasle moduan, unibertsitateko irakasleen kidegoetako unibertsitate katedradunak hartu ditugu. Unibertsitate pribatuen kasuan, aldiz, irakasle zuzendariak hartu ditugu kontuan. Azkenik, Elizaren unibertsitate pribatuetan, irakasle katedradun edo lan-kategoria baliokideko irakasleen taldearen barruan ohiko irakasleak edo katedradunak sartu ditugu.

Irakasle katedradunen edo baliokideen proportzioak unibertsitateen eskarian eraginik duen aztertze aldera, hainbat bariantzaren analisi aplikatu ditugu. Analisi hauetan, menpeko aldagai gisa, eskari aldagai ezberdinak erabili ditugu eta aldagai independente gisa, berriz, unibertsitateetan katedradunen proportzioa baxua, ertaina edo altua den islatzen duen aldagai bat[92].

[92] Unibertsitate pribatu zenbaiten kasuan 2005/2006 ikasturtean zehar lan-kategoria ezberdineko irakasle kopuruari buruzko informazioa ez dago erabilgarri eta, beraz, irakasle katedradun edo baliokideen ehunekoa kalkulatzeko 2007/2008 ikasturteko datuak erabili ditugu. Zehazki, ondoko erakunde pribatuen kasuan 2007/2008 ikasturteko datuak hartu ditugu kontuan: Alfontso X.a Jakituna Unibertsitatea, Kataluniako Unibertsitate Irekia, Ramón Llull Unibertsitatea, S.E.K. Unibertsitatea eta Viceko Unibertsitatea. Bestalde, esan beharra dago S.E.K. Unibertsitatea IE Unibertsitatea deitzera igaro zela 2007/2008 ikasturtean eta, ondorioz, S.E.K. Unibertsitateko irakasle katedradun edo baliokideen ehunekoa kalkulatzeko erabili ditugun datuak 2007/2008 ikasturtean zehar IE unibertsitateari dagozkion datuak direla.

Emaitzek aditzera ematen dute irakasle katedradun edo baliokideen ehuneko ezberdina duten unibertsitateetan ondoko eskari aldagaiek balio nabarmenki ezberdinak dituztela[93].

- Matrikulatuen totala
- Atzerritarren totala
- Atzerritarren portzentajea
- Europar Batasuna ikasleak
- Europako gain. herr. ikasleak
- Afrikako iparraldea ikasleak
- Ipar Amerika ikasleak
- Erdialdeko Amerika ikasleak
- Hego Amerika ikasleak
- Asia eta Ozeania ikasleak
- Europar Batasuna portzentajea
- Afrikako iparraldea portzentajea
- Afrikako gain. herr. ikasleak
- Europar Batasuna portzentajea T.
- Afrikako iparraldea portzentajea T.
- Asia eta Ozeania portzentajea T.

Aitzitik, hurrengo aldagaiek ez dute diferentzia esanguratsurik aurkezten irakasle katedradun edo baliokideen maila ezberdina duten unibertsitateetan.

- Europako gain. herr. portzent.
- Afrikako gain. herr. portzentajea
- Ipar Amerika portzentajea
- Erdialdeko Amerika portzent.
- Hego Amerika portzentajea
- Asia eta Ozeania portzentajea
- Europako gain. herr. portzent. T.
- Afrikako gain. herr. portzent. T.
- Ipar Amerika portzentajea T.
- Erdialdeko Amerika portzent. T.
- Hego Amerika portzentajea T.

Jarraian aurkezten diren taulotan, aipatutako aldagai esanguratsuetarako Duncanen probaren emaitzak agertzen dira.

Lehenengo bi tauletan ikus daiteke bai ikasleen kopuru totala bai ikasle atzerritarren kopurua irakasle katedradun edo baliokideen proportzio altuagoko erakundeetan nabarmenki handiagoak direla.

Matrikulatuen totala

Duncan

IRAKASLE KATEDRADUN EDO BALIOKIDEEN PORTZENTAJEA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	21	6985,52	
Ertaina	21	15995,10	
Altua	29		33125,97
Esang.		,120	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

[93] Azken lau aldagaiak 0,10eko esangura maila baterako dira esanguratsuak.

Atzerritarren totala

Duncan

IRAKASLE KATEDRADUN EDO BALIOKIDEEN PORTZENTAJEA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	21	109,52	
Ertaina	21	226,95	
Altua	29		633,03
Esang.		,290	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Bestalde, garrantzitsua da azpimarratzea ikasle internazionalen pisua ere nabarmenki handiagoa dela irakasle katedradun edo baliokideen proportzio altuagoa duten unibertsitateetan. Hots, nazioarteko eskari mailaren eta irakasle katedradun edo baliokideen mailaren artean harreman positiboa dagoela baiezta daiteke.

Atzerritarren portzentajea

Duncan

IRAKASLE KATEDRADUN EDO BALIOKIDEEN PORTZENTAJEA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	21	1,2705	
Ertaina	21	1,4652	
Altua	29		2,0928
Esang.		,529	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Adierazi dugun bezala, matrikulatuen kopuru totala nabarmenki handiagoa da irakasle katedradun edo baliokideen ehuneko handiagoko unibertsitateetan. Behean agertzen diren tauletan, jatorri ezberdinetako ikasleen kopuruarekin lotutako aldagaietarako joera bera ikus daiteke.

Europar Batasuna ikasleak

Duncan

IRAKASLE KATEDRADUN EDO BALIOKIDEEN PORTZENTAJEA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	21	34,67	
Ertaina	21	61,14	
Altua	29		195,79
Esang.		,478	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Europako gainontzeko herrialdeak ikasleak

Duncan

IRAKASLE KATEDRADUN EDO BALIOKIDEEN PORTZENTAJEA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	21	22,00	
Ertaina	21	28,33	
Altua	29		66,31
Esang.		,706	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Afrikako iparraldea ikasleak

Duncan

IRAKASLE KATEDRADUN EDO BALIOKIDEEN PORTZENTAJEA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	21	3,24	
Ertaina	21	30,33	30,33
Altua	29		102,69
Esang.		,516	,086

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Ipar Amerika ikasleak

Duncan

IRAKASLE KATEDRADUN EDO BALIOKIDEEN PORTZENTAJEA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	21	7,00	
Ertaina	21	7,95	
Altua	29		27,14
Esang.		,878	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Erdialdeko Amerika ikasleak

Duncan

IRAKASLE KATEDRADUN EDO BALIOKIDEEN PORTZENTAJEA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	21	3,81	
Ertaina	21	7,48	
Altua	29		17,93
Esang.		,382	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Hego Amerika ikasleak

Duncan

IRAKASLE KATEDRADUN EDO BALIOKIDEEN PORTZENTAJEA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	21	29,29	
Ertaina	21	64,71	
Altua	29		171,45
Esang.		,362	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Asia eta Ozeania ikasleak

Duncan

IRAKASLE KATEDRADUN EDO BALIOKIDEEN PORTZENTAJEA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	21	3,95	
Ertaina	21	13,29	
Altua	29		34,41
Esang.		,288	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Jatorri ezberdinetako ikasleen pisuari dagokionez, nabarmentzekoa da Europar Batasuneko ikasleen proportzioa irakasle katedradun edo baliokideen portzentaje baxua duten unibertsitateetan gainontzeko unibertsitateetan baino handiagoa dela. Afrikako iparraldeko ikasleen proportzioa, aldiz, irakasle katedradun edo baliokideen portzentaje baxuko unibertsitateetan gainontzeko unibertsitateetan baino baxuagoa da.

Europar Batasuna portzentajea

Duncan

IRAKASLE KATEDRADUN EDO BALIOKIDEEN PORTZENTAJEA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Ertaina	21	24,7671	
Altua	29	33,8507	33,8507
Baxua	21		43,2319
Esang.		,128	,116

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Afrikako iparraldea portzentajea

Duncan

IRAKASLE KATEDRADUN EDO BALIOKIDEEN PORTZENTAJEA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	21	3,2205	
Altua	29	11,4055	11,4055
Ertaina	21		14,9495
Esang.		,063	,416

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Azkenik, ondoko taulek aurretik aipatutakoa islatzen dute. Alde batetik, ikus daiteke Afrikako gainontzeko herrialdeetatik datozen atzerritarren kopurua positiboki lotuta dagoela irakasle katedradun edo baliokideen ehunekoarekin. Era berean, jatorri ezberdinetako ikasleen portzentajea, matrikulatuen totalarekiko, irakasle katedradun edo baliokideen ehuneko altuagoko erakundeetan handiagoa dela antzeman daiteke.

Afrikako gainontzeko herrialdeak ikasleak

Duncan

IRAKASLE KATEDRADUN EDO BALIOKIDEEN PORTZENTAJEA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	21	5,57	
Ertaina	21	13,71	13,71
Altua	29		17,31
Esang.		,129	,499

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Europar Batasuna portzentajea T.

Duncan

IRAKASLE KATEDRADUN EDO BALIOKIDEEN PORTZENTAJEA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	21	,3805	
Ertaina	21	,5133	,5133
Altua	29		,7628
Esang.		,455	,162

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Afrikako iparraldea portzentajea T.

Duncan

IRAKASLE KATEDRADUN EDO BALIOKIDEEN PORTZENTAJEA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	21	,0367	
Ertaina	21	,2095	,2095
Altua	29		,2390
Esang.		,054	,739

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Asia eta Ozeania portzentajea T.

Duncan

IRAKASLE KATEDRADUN EDO BALIOKIDEEN PORTZENTAJEA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	21	,0500	
Ertaina	21	,0733	,0733
Altua	29		,1055
Esang.		,358	,207

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

4.3.2.2 Argitalpen Zientifikoak

Unibertsitateen nazioarteko eskarian eragina izan dezakeen beste ezaugarrietako bat unibertsitate horietan burutzen den ikerketaren emaitzak dira. Azpiatal honetan, Espainiako goi mailako hezkuntzako erakundeen ekoizpen zientifikoaren eta atzerriko eskariaren arteko harremana aztertzen saiatuko gara.

Harreman hori aztertzerakoan ekoizpen zientifikoaren bolumena eta kalitatea izango ditugu kontuan. Hots, alde batetik, unibertsitateen irakasle bakoitzeko argitalpen kopuruak eskari internazionalean eraginik duen ikertuko dugu eta, beste alde batetik, argitalpenen kalitatearen eta atzerriko eskariaren artean erlaziorik dagoen analizatuko dugu. Aurrerago zehaztuko dugunez, kalitatea neurtzeko argitaratutako lanen inpaktua edo aipamen maila islatzen duten adierazleak erabiliko ditugu.

Espainiako unibertsitateen argitalpen zientifikoekin erlazionatutako datu guztiak Fundación Conocimiento y Desarrollo (2010) fundazioak egindako Informe Conocimiento y Desarrollo 2009 txostenetik atera ditugu. Txosten honen helburua unibertsitateek Espainiako gizartean eta ekonomian duten garrantzia islatzea da eta teknologiaren transferentziaren eta giza kapitalaren prestakuntzaren bitartez ezagutzaren ekonomian betetzen duten papera azaltzea.

Txostenaren seigarren kapituluan, Corera Álvarez, Chinchilla Rodríguez, Moya Anegón eta Sanz Menéndezek (2010) 2003-2007 epealdian zehar Espainiako goi mailako hezkuntzako erakundeek izandako ikerketa emaitza nagusiak aurkezten dituzte. Emaitza horiek islatzeko, egileek unibertsitateen argitalpen zientifikoen bolumen totala zein argitalpen horien inpaktu eta aipuak erakusten dituzte.

Lan honetan, Informe Conocimiento y Desarrollo 2009 txostenean bildutako datuak oinarri hartuta erakundeen ekoizpen zientifikoaren bolumena eta ekoizpen horren kalitatea adierazten duten bi aldagai sortu ditugu. Aldagai hauen bitartez, Espainiako unibertsitateak irakasle bakoitzeko ekoizpen zientifiko kopuruaren arabera eta ekoizpen zientifiko horren kalitatearen arabera sailkatu ditugu. Honela, irakasleko argitalpen kopuru ezberdina duten eta argitalpenen kalitate ezberdina duten unibertsitateen artean nazioarteko eskariari dagokionez diferentziarik dagoen ikertzen saiatuko gara.

a) Ekoizpen Zientifiko Kopurua Irakasle Bakoitzeko

Lehenik eta behin, unibertsitateetako irakasle bakoitzeko argitalpen zientifikoen batez besteko kopuruak atzerriko eskarian duen eragina aztertu dugu. Analisi hori egiteko erakundeen irakasle bakoitzeko argitalpen kopuruak Espainiako unibertsitate guztietarako kalkulatutako batez bestekoa gainditzen duen ala ez adierazten duen aldagai bat sortu dugu.

Adierazi dugun bezala, Informe Conocimiento y Desarrollo 2009 txostenak unibertsitateen ekoizpen zientifikoaren bolumen totalari buruzko datuak biltzen ditu. Txosten horretan erakunde baten ekoizpen zientifikoaren bolumena kuantifikatzeko erakunde horrek 2003-2007 epealdian argitaratutako dokumentu kopurua hartu da kontuan. Bestalde, 2005/2006 ikasturterako Hezkuntza Ministerioak argitaratutako Unibertsitateetako Langileen Oinarrizko Estatistikak unibertsitate bakoitzeko irakasle kopuru totalari buruzko datuak jasotzen ditu.

Aipatutako informazioan oinarrituta, unibertsitate ezberdinen irakasle bakoitzeko ekoizpen zientifikoaren bolumena kalkulatu dugu. Datu horiek erabiliz Espainiako unibertsitateen irakasleko argitalpenen batez bestekoa kalkulatu dugu eta erakunde bakoitzaren irakasleko argitalpen kopuruak batez besteko hori gainditzen duen ala ez adierazten duen aldagai bat sortu dugu.

Ondoren, hainbat bariantzaren analisi aplikatuz irakasle bakoitzeko ekoizpen zientifikoaren bolumen ezberdina duten unibertsitateen artean, nazioarteko eskari aldagaiei dagokienez, diferentzia adierazgarririk ba ote den antzematen saiatu gara. Emaitza bezala irakasleko argitalpen zientifiko kopuru ezberdina

duten unibertsitateek ondorengo eskari aldagaiei dagokienez balio nabarmenki ezberdinak aurkezten dituztela aurkitu dugu[94].

- Matrikulatuen totala
- Atzerritarren totala
- Atzerritarren portzentajea
- Europar Batasuna ikasleak
- Europako gain. herr. ikasleak
- Afrikako iparraldea ikasleak
- Erdialdeko Amerika ikasleak
- Hego Amerika ikasleak
- Asia eta Ozeania ikasleak
- Europar Batasuna portzentajea
- Afrikako iparraldea portzentajea
- Europako gain. herr. portzent. T.
- Afrikako iparraldea portzentajea T.
- Hego Amerika portzentajea T.
- Asia eta Ozeania portzentajea T.
- Ipar Amerika ikasleak
- Europako gain. herr. portzent.

Aitzitik, hurrengo nazioarteko eskari aldagaiei dagokienez, irakasleko argitalpen zientifiko kopuru ezberdina duten unibertsitateen artean diferentzia esanguratsurik ez dagoela egiaztatu dugu.

- Afrikako gain. herr. ikasleak
- Afrikako gain. herr. portzentajea
- Ipar Amerika portzentajea
- Erdialdeko Amerika portzent.
- Hego Amerika portzentajea
- Asia eta Ozeania portzentajea
- Europar Batasuna portzentajea T.
- Afrikako gain. herr. portzentajea T.
- Ipar Amerika portzentajea T.
- Erdialdeko Amerika portzent. T.

Jarraian aurkezten dugun taulan aipatutako aldagai esanguratsuak agertzen dira eta baita irakasleko ekoizpen zientifiko kopuru ezberdina duten unibertsitateen artean aurkitutako diferentziak ere.

Deskribatzaileak

	EKOIZPEN ZIENTIFIKO KOPURUA IRAKASLE BAKOITZEKO	N	Batez bestekoa	Desbideratze tipikoa	Minimoa	Maximoa
Matrikulatuen totala	B. bestekoaren azpitik	37	15133,24	24974,800	181	147262
	B. bestekoaren gainetik	34	25979,88	17485,929	6501	80761
	Totala	71	20327,41	22241,923	181	147262
Atzerritarren totala	B. bestekoaren azpitik	37	178,19	226,275	0	951
	B. bestekoaren gainetik	34	553,85	523,026	69	2263
	Totala	71	358,08	437,052	0	2263

[94] Azken bi aldagaiak 0,10eko esangura maila baterako dira esanguratsuak.

Atzerritarren portzentajea	B. bestekoaren azpitik	37	1,3962	1,27437	,00	7,03
	B. bestekoaren gainetik	34	1,9553	,77824	,48	3,63
	Totala	71	1,6639	1,09537	,00	7,03
Europar Batasuna ikasleak	B. bestekoaren azpitik	37	63,16	106,777	0	612
	B. bestekoaren gainetik	34	157,44	164,696	3	716
	Totala	71	108,31	144,571	0	716
Europako gain. herr. ikasleak	B. bestekoaren azpitik	37	21,32	46,434	0	246
	B. bestekoaren gainetik	34	64,44	64,973	3	293
	Totala	71	41,97	59,746	0	293
Afrikako iparraldea ikasleak	B. bestekoaren azpitik	37	9,65	19,622	0	98
	B. bestekoaren gainetik	34	97,82	201,313	1	1037
	Totala	71	51,87	145,847	0	1037
Erdialdeko Amerika ikasleak	B. bestekoaren azpitik	37	6,08	9,096	0	43
	B. bestekoaren gainetik	34	15,65	18,917	0	92
	Totala	71	10,66	15,311	0	92
Hego Amerika ikasleak	B. bestekoaren azpitik	37	48,76	70,047	0	254
	B. bestekoaren gainetik	34	151,24	181,551	0	879
	Totala	71	97,83	143,946	0	879
Asia eta Ozeania ikasleak	B. bestekoaren azpitik	37	7,81	11,587	0	43
	B. bestekoaren gainetik	34	31,50	41,700	0	166
	Totala	71	19,15	32,107	0	166
Europar Batasuna portzentajea	B. bestekoaren azpitik	37	39,2670	24,31580	,00	100,00
	B. bestekoaren gainetik	34	28,1403	14,94370	2,08	70,36
	Totala	71	33,9387	20,99261	,00	100,00
Afrikako iparraldea portzentajea	B. bestekoaren azpitik	37	4,5938	6,94345	,00	33,79
	B. bestekoaren gainetik	34	15,9518	19,26205	,15	69,44
	Totala	71	10,0328	15,24337	,00	69,44
Europako gain. herr. portz. T.	B. bestekoaren azpitik	37	,1451	,22973	,00	,87
	B. bestekoaren gainetik	34	,2518	,17733	,03	,77
	Totala	71	,1962	,21176	,00	,87
Afrikako iparraldea portz. T.	B. bestekoaren azpitik	37	,0546	,09335	,00	,49
	B. bestekoaren gainetik	34	,2965	,40079	,00	1,86
	Totala	71	,1704	,30825	,00	1,86
Hego Amerika portz. T.	B. bestekoaren azpitik	37	,3341	,32352	,00	1,46
	B. bestekoaren gainetik	34	,5382	,32718	,00	1,22
	Totala	71	,4318	,33889	,00	1,46
Asia eta Ozeania portz. T.	B. bestekoaren azpitik	37	,0549	,05839	,00	,19
	B. bestekoaren gainetik	34	,1065	,10583	,00	,47
	Totala	71	,0796	,08779	,00	,47
Ipar Amerika ikasleak	B. bestekoaren azpitik	37	10,92	19,541	0	109
	B. bestekoaren gainetik	34	20,50	25,447	0	132
	Totala	71	15,51	22,910	0	132
Europako gain. herr. portzentajea	B. bestekoaren azpitik	37	9,1192	10,73355	,00	43,69
	B. bestekoaren gainetik	34	13,1079	8,23514	3,18	37,16
	Totala	71	11,0293	9,75954	,00	43,69

Lehenik eta behin, irakasleko ekoizpen zientifikoaren bolumena batez bestekoaren gainetik duten unibertsitateetan ikasle matrikulatuen kopurua eta ikasle atzerritarren kopurua gainontzeko

unibertsitateetan baino handiagoa dela ikus daiteke. Era berean, irakasleko argitalpen kopuru handiagoko erakundeetan aztertutako jatorri gehienetako ikasleen kopurua nabarmenki handiagoa dela antzeman daiteke.

Beste alde batetik, nazioarteko ikasleen proportzioa ere nabarmenki handiagoa da irakasleko argitalpen zientifiko kopuru handiagoa duten erakundeetan.

Jatorri ezberdinetako ikasleen pisuari dagokionez, Europar Batasunetik datozen ikasleen proportzioaren eta unibertsitateen irakasleko argitalpen zientifiko mailaren artean harreman negatiboa dagoela esan dezakegu. Afrikako iparraldeko eta Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleen ehunekoaren kasuan, berriz, harreman hori positiboa da.

Azkenik, zenbait jatorritako atzerritarren ehunekoa, matrikulatuen totalarekiko, adierazten duten aldagai batzuk ere esanguratsuak direla hauteman dugu. Taulan, aldagai hauen eta irakasleko ekoizpen zientifiko kopuruaren arteko harremana positiboa dela ikus daiteke.

b) Ekoizpen Zientifikoaren Kalitate Erlatiboa

Goian adierazi dugun bezala, Espainiako unibertsitateen argitalpen zientifikoen kalitateak unibertsitate horien nazioarteko eskarian nolako eragina duen ere aztertzen saiatuko gara. Unibertsitate baten ikerketaren kalitatea neurtzeko moduetako bat bere argitalpenen inpaktua edo eragina kontuan hartzea da.

Corera Álvarez, Chinchilla Rodríguez, Moya Anegón eta Sanz Menéndezek (2010) Informe Conocimiento y Desarrollo 2009

txostenean Espainiako goi mailako hezkuntzako erakunde ezberdinetarako inpaktu indize normalizatu bat aurkezten dute. Indize hau unibertsitateen ekoizpen zientifikoaren kalitatea islatzen saiatzen da eta inpaktu edo eragin normalizatua "munduko batez bestekoan" duten erakundeek 1en pareko indizea dute. Horrek esan nahi du erakunde horretan burututako lanak bere kategoriaren batez besteko inpaktu mailan dauden aldizkarietan argitaratu direla.

Lan honetan, unibertsitateen eskariaren eta ekoizpen zientifikoaren kalitatearen arteko harremana aztertzeko helburuz, aipatutako indizean oinarritutako aldagai bat sortu dugu. Aldagai honen bitartez, 1etik gorako indizea duten eta 1etik beherako indizea duten unibertsitateak bereiz ditzakegu.

Ondoren, hainbat bariantzaren analisi aplikatu ditugu inpaktu handiagoko argitalpenak dituzten eta eragin txikiagoko argitalpenak dituzten unibertsitateen artean eskariari dagokionez diferentziarik dagoen egiaztatzeko.

Analisi horien emaitza gisa esan daiteke, ikasle hegoamerikarren ehunekoa, matrikulatuen totalarekiko, islatzen duen aldagaiak besterik ez dituela diferentzia adierazgarriak aurkezten inpaktu ezberdineko lanak dituzten unibertsitateen artean. Hurrengo taulan egiazta daiteke eragin handieneko argitalpenak dituzten unibertsitateetan Hego Amerikako ikasleen ehunekoa, matrikulatuen totalarekiko, handiagoa dela.

Deskribatzaileak

	ARGITALPENEN INPAKTUA	N	Batez bestekoa	Desbideratze tipikoa	Minimoa	Maximoa
Hego Amerika portzentajea T.	Baxua	29	,3486	,27097	,00	1,04
	Altua	40	,5138	,36307	,00	1,46
	Totala	69	,4443	,33553	,00	1,46

Beraz, esan daiteke unibertsitate baten argitalpen zientifikoen inpaktuak ez duela gehiegi baldintzatzen bere eskari internazionala.

Hala ere, erakundeen atzerriko eskaria zientzia alor ezberdinetako ikerketaren kalitatearen arabera analizatzen badugu, eskarian zenbait ezberdintasun aurki daitezke. Ondoko paragrafootan, arlo zientifiko bakoitzeko ikerketan kalitate ezberdina duten erakundeen artean eskariari dagokionez dauden diferentziak laburki aurkeztuko ditugu.

Ekoizpen zientifikoaren kalitatea biokimika, genetika eta biologia molekularrean

Arlo zientifiko ezberdinetan erakundeek burutzen duten ikerketaren batez besteko kalitatea islatzeko helburuz, Informe Conocimiento y Desarrollo 2009 txostenean arlo eta unibertsitate ezberdinetarako agertzen den dokumentu bakoitzeko aipuen batez bestekoa hartu dugu kontuan. Txosten honetan, Corera Álvarez, Chinchilla Rodríguez, Moya Anegón eta Sanz Menéndezek (2010) unibertsitate eta arlo ezberdinetarako dokumentu bakoitzeko aipuen batez bestekoa kalkulatzen dute 2003-2007 epealdiko urte bakoitzeko batez bestekoak kontuan izanda.

Biokimika, genetika eta biologia molekularra arloan dokumentu bakoitzeko aipuen batez bestekoa kontsideratuz, arlo horretan kalitate baxu, ertain eta altuko ekoizpen zientifikoa duten unibertsitateen artean bereizketa egiten duen aldagai bat sortu dugu. Aldagai hori erabiliz bariantzaren analisi bat baino gehiago aplikatu dugu eta biokimika, genetika eta biologia molekularra arloan kalitate ezberdina duten unibertsitateen artean Europar Batasuneko

ikasleen proportzioari dagokionez baino ez dagoela diferentzia esanguratsurik lortu dugu[95]. Ondorengo taulan nabari daitekeenez, arlo honetan ikerketaren kalitatea zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da Europar Batasuneko ikasleen ehunekoa.

Europar Batasuna portzentajea

Duncan

BIOKIMIKA, GENETIKA ETA BIOLOGIA MOLEKULARREAN KALITATEA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	12	24,3575	
Ertaina	9	25,3211	25,3211
Altua	7		38,1114
Esang.		,879	,051

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Ekoizpen zientifikoaren kalitatea medikuntzan

Halaber, analisia medikuntza arloko ikerketaren kalitatea edo dokumentu bakoitzeko aipu kopurua kontuan hartuta ere egin dugu. Kasu honetan, medikuntzan kalitate ezberdina duten unibertsitateen artean jatorri ezberdinetako ikasleen pisuari eta matrikulatuen kopuru totalari dagokienez diferentziak daudela hauteman dugu. Behean aurkitutako aldagai esanguratsuak eta aldagai horietarako Duncanen probaren emaitzak aurkezten ditugu[96].

- Europar Batasuna portzentajea
- Erdialdeko Amerika portzent.
- Erdialdeko Amerika portzent. T.
- Matrikulatuen totala
- Afrikako gain. herr. portzentajea T.

[95] Aldagai hau 0,10eko esangura maila baterako da esanguratsua.
[96] Azken bi aldagaiak 0,10eko esangura maila baterako dira esanguratsuak.

Europar Batasuna portzentajea

Duncan

MEDIKUNTZAN KALITATEA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Ertaina	7	21,9400	
Baxua	4	22,7050	
Altua	12		34,2017
Esang.		,887	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Erdialdeko Amerika portzentajea

Duncan

MEDIKUNTZAN KALITATEA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Altua	12	2,2517	
Ertaina	7	3,4357	
Baxua	4		8,7750
Esang.		,584	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Erdialdeko Amerika portzentajea T.

Duncan

MEDIKUNTZAN KALITATEA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Ertaina	7	,0429	
Altua	12	,0467	
Baxua	4		,1950
Esang.		,943	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Aurreko tauletan egiazta daitekeenez, medikuntza arloko ikerketan kalitate altua duten unibertsitateetan Europar Batasuneko ikasle internazionalen pisua gainontzeko unibertsitateetan baino nabarmenki handiagoa da. Medikuntza arloko ikerketan kalitate baxua duten erakundeetan, ordea, Erdialdeko Amerikako ikasleen ehunekoa, bai ikasle atzerritarren totalarekiko bai matrikulatuen totalarekiko, nabarmenki handiagoa da.

Matrikulatuen totala

Duncan

MEDIKUNTZAN KALITATEA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05) 1	2
Baxua	4	19648,50	
Altua	12	28615,17	28615,17
Ertaina	7		44210,86
Esang.		,358	,117

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Afrikako gainontzeko herrialdeak portzentajea T.

Duncan

MEDIKUNTZAN KALITATEA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05) 1	2
Ertaina	7	,0371	
Altua	12	,0508	,0508
Baxua	4		,0825
Esang.		,424	,074

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Era berean, medikuntza arloko ikerketan kalitatea baxua denean, ikasle matrikulatuen kopuru totala txikiagoa dela eta Afrikako gainontzeko herrialdeetatik etorritako ikasleen ehunekoa, matrikulatuen totalarekiko, handiagoa dela baiezta daiteke.

Ekoizpen zientifikoaren kalitatea kimikan

Bestalde, kimika arloko ikerketan kalitate maila ezberdina duten unibertsitateek nazioarteko eskarian diferentziak aurkezten dituztela esan daiteke. Jarraian kimika arloko ikerketan kalitate ezberdina duten erakundeetan balio nabarmenki ezberdinak hartzen dituzten aldagaiak eta aldagai horietarako Duncanen probaren emaitzak agertzen dira[97].

- Atzerritarren portzentajea
- Europako gain. herr. portzent.
- Europako gain. herr. portzent. T.
- Erdialdeko Amerika portzent. T.
- Hego Amerika portzentajea T.
- Europar Batasuna ikasleak

[97] Azken aldagaia 0,10eko esangura maila baterako da esanguratsua.

Atzerritarren portzentajea

Duncan

KIMIKAN KALITATEA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	11	1,2264	
Ertaina	12	1,7567	1,7567
Altua	10		2,1790
Esang.		,121	,213

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Aurreko taulako datuek, nazioarteko eskari mailaren eta kimika arloko ikerketaren kalitate mailaren artean erlazio positiboa dagoela adierazten dute. Hots, kimika arloan kalitatea altua denean, nazioarteko ikasleen ehunekoa kalitate hori baxua denean baino nabarmenki handiagoa dela ikus daiteke.

Europako gainontzeko herrialdeak portzentajea

Duncan

KIMIKAN KALITATEA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Ertaina	12	9,4275	
Baxua	11	9,8673	
Altua	10		17,4320
Esang.		,891	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Europako gainontzeko herrialdeak portzentajea T.

Duncan

KIMIKAN KALITATEA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	11	,1300	
Ertaina	12	,1592	
Altua	10		,3640
Esang.		,664	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Egiaztatu dugu, halaber, kimika arloan kalitate altua duten erakundeetan Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleen proportzioa kalitate hori ertaina edo baxua den erakundeetan baino nabarmenki handiagoa dela. Gauza bera gertatzen da Europako

gainontzeko herrialdeetako ikasleen proportzioa, matrikulatuen totalarekiko, aztertzean.

Erdialdeko Amerika portzentajea T.

Duncan

KIMIKAN KALITATEA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	11	,0282	
Ertaina	12	,0375	
Altua	10		,0690
Esang.		,519	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Hego Amerika portzentajea T.

Duncan

KIMIKAN KALITATEA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	11	,2918	
Ertaina	12	,4625	,4625
Altua	10		,6980
Esang.		,219	,094

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Europar Batasuna ikasleak

Duncan

KIMIKAN KALITATEA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	11	75,55	
Altua	10	165,70	165,70
Ertaina	12		196,50
Esang.		,102	,569

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Azken taula hauetan antzeman daitekeenez, kimika arloan kalitatea zenbat eta altuagoa izan, orduan eta handiagoa da Erdialdeko Amerikako ikasleen proportzioa, matrikulatuen totalarekiko, eta orduan eta handiagoa da Hego Amerikako ikasleen proportzioa, matrikulatuen totalarekiko. Beste alde batetik, kimikan kalitatea baxua denean, Europar Batasuneko ikasleen kopurua txikiagoa dela ikus daiteke.

Azkenik, unibertsitateen nazioarteko eskaria aztertu dugu unibertsitate horiek fisika eta astronomian, ingeniaritzan eta ekonomia, ekonometria eta finantzatan burutzen duten ikerketaren kalitatearen arabera. Emaitzak ikusita, aipatutako arloetan kalitate ezberdina duten erakundeen artean eskariari dagokionez diferentzia gehiegirik ez dagoela esan daiteke.

4.3.2.3 Ikerketa Jarduera

Azpiatal honetan, Espainiako unibertsitateen ikerketa jardueraren eta eskari internazionalaren arteko erlazioa aztertuko dugu. Hau da, kasu honetan, helburua unibertsitateen ikerketa proiektuen kopuruak unibertsitate horien eskarian duen eragina neurtzea da. Erakunde bakoitzaren ikerketa proiektuei buruzko informazioa Eroski Fundazioak (2010) Eroski Consumer aldizkariaren edizio digitalean argitaratutako Unibertsitateen Gidatik lortu dugu.

Lehenik eta behin, ikerketa proiektu kopuru ezberdina duten unibertsitateak bereizteko aldagaia sortu dugu. Ondoren, bariantzaren analisi bat baino gehiago aplikatuz, ikerketa jarduera maila ezberdina duten unibertsitateen artean nazioarteko eskariari dagokionez diferentziak daudela ondorioztatu ahal izan dugu. Jarraian, ikerketa proiektu kopuru ezberdina duten unibertsitateetan diferentzia esanguratsuak aurkezten dituzten eskari aldagaiak zerrendatzen ditugu[98].

[98] Azken hiru aldagaiak 0,10eko esangura maila baterako dira esanguratsuak.

- Matrikulatuen totala
- Atzerritarren totala
- Atzerritarren portzentajea
- Europar Batasuna ikasleak
- Europako gain. herr. ikasleak
- Afrikako gain. herr. ikasleak
- Ipar Amerika ikasleak
- Erdialdeko Amerika ikasleak
- Hego Amerika ikasleak
- Asia eta Ozeania ikasleak
- Europar Batasuna portzentajea
- Asia eta Ozeania portzentajea
- Afrikako iparraldea portzent. T.
- Erdialdeko Amerika portzent. T.
- Hego Amerika portzentajea T.
- Asia eta Ozeania portzentajea T.
- Afrikako iparraldea ikasleak
- Hego Amerika portzentajea
- Europako gain. herr. portzent. T.

Bestalde, ikerketa jarduera maila ezberdina duten erakundeek ondoko aldagaiei dagokienez antzeko balioak hartzen dituztela baiezta daiteke.

- Europako gain. herr. portzent.
- Afrikako iparraldea portzentajea
- Afrikako gain. herr. portzentajea
- Ipar Amerika portzentajea
- Erdialdeko Amerika portzent
- Europar Batasuna portzentajea T
- Afrikako gain. herr. portzentajea T.
- Ipar Amerika portzentajea T.

Ondoren aurkezten dugun taulan ikerketa jarduera maila ezberdina duten erakundeen artean eskariari dagokionez dauden diferentziak agertzen dira. Ikerketa proiektu kopuru altua duten unibertsitateetan matrikulatuen totala eta nazioarteko ikasleen kopuru totala handiagoa dela ikus daiteke. Gauza bera gertatzen da aztertutako jatorri ezberdinetako atzerritarren kopuruarekin, hau da, ikerketa jarduera maila altua duten unibertsitateek jatorri ezberdinetako ikasleen kopuru handiagoa dute[99].

Deskribatzaileak

	IKERKETA JARDUERA MAILA	N	Batez bestekoa	Desbideratze tipikoa	Minimoa	Maximoa
Matrikulatuen totala	BAXUA	21	6413,24	5963,554	181	22086
	ALTUA	38	27462,74	26243,215	3379	147262
	Totala	59	19970,54	23557,076	181	147262

[99] Jatorri ezberdinetako ikasleen batez besteko balioak ez ditugu erantsi, matrikulatuen totalak eta nazioarteko ikasleen totalak duten joera bera aurkezten baitute.

Atzerritarren totala	BAXUA	21	76,10	96,536	0	413
	ALTUA	38	507,39	506,499	9	2263
	Totala	59	353,88	458,528	0	2263
Atzerritarren portzentajea	BAXUA	21	1,1495	,71561	,00	3,07
	ALTUA	38	1,8908	1,22810	,27	7,03
	Totala	59	1,6269	1,12555	,00	7,03
Europar Batasuna portzentajea	BAXUA	21	42,3848	29,07530	,00	100,00
	ALTUA	38	30,1050	16,17899	2,08	77,78
	Totala	59	34,4758	22,21839	,00	100,00
Asia eta Ozeania portzentajea	BAXUA	21	2,4524	2,99306	,00	9,09
	ALTUA	38	5,8958	4,89692	,00	22,22
	Totala	59	4,6702	4,59909	,00	22,22
Afrikako iparraldea portzentajea T.	BAXUA	21	,0633	,10253	,00	,38
	ALTUA	38	,2245	,35015	,00	1,86
	Totala	59	,1671	,29647	,00	1,86
Erdialdeko Amerika portzentajea T.	BAXUA	21	,0219	,02482	,00	,08
	ALTUA	38	,0653	,09087	,00	,53
	Totala	59	,0498	,07693	,00	,53
Hego Amerika portzentajea T.	BAXUA	21	,2400	,24868	,00	1,02
	ALTUA	38	,5139	,34782	,00	1,46
	Totala	59	,4164	,34059	,00	1,46
Asia eta Ozeania portzentajea T.	BAXUA	21	,0352	,04567	,00	,15
	ALTUA	38	,1013	,10288	,00	,47
	Totala	59	,0778	,09214	,00	,47
Hego Amerika portzentajea	BAXUA	21	20,8386	19,46271	,00	62,50
	ALTUA	38	28,5000	13,02494	,00	55,56
	Totala	59	25,7731	15,89126	,00	62,50
Europako gain. herrialdeak portzentajea T.	BAXUA	21	,1152	,18689	,00	,87
	ALTUA	38	,2147	,20312	,00	,85
	Totala	59	,1793	,20167	,00	,87

Beste alde batetik, ikasle internazionalen pisuari dagokionez, ikerketa jarduera maila altua duten unibertsitateetan ikasle atzerritarren ehunekoa ikerketa jarduera maila baxua duten unibertsitateetan baino nabarmenki handiagoa dela ikus daiteke.

Jatorri ezberdinetako ikasleen proportzioari dagokionez esan daiteke ikerketa jarduera maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta txikiagoa dela Europar Batasunetik etorritako ikasleen ehunekoa eta orduan eta handiagoa dela Asia eta Ozeaniatik eta Hego Amerikatik datozen ikasleen portzentajea.

Halaber, ikerketa proiektu kopuruaren eta Afrikako iparraldeko ikasleen ehunekoa, matrikulatuen totalarekiko, adierazten duen aldagaiaren artean harreman positiboa dagoela hauteman dugu. Gauza bera gertatzen da erdialdeko amerikarren ehunekoa totalarekiko, hegoamerikarren portzentajea totalarekiko, Asia eta Ozeaniako ikasleen portzentajea totalarekiko eta Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleen portzentajea totalarekiko adierazten duten aldagaiekin. Hots, ikerketa jarduera maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da ere aldagai hauen balioa.

4.3.2.4 Patenteak

Azterlan honetan, unibertsitateen nazioarteko eskaria unibertsitate horien patente kopuruaren arabera ere ikertu dugu. Erakunde ezberdinen patenteei buruzko datuak Eroski Fundazioaren (2010) Unibertsitateen Gidatik lortu ditugu. Hainbat bariantzaren analisi aplikatuz, patente kopuru ezberdina duten unibertsitateen artean ondoko eskari aldagaiei dagokienez diferentziak daudela baiezta daiteke.

- Matrikulatuen totala
- Atzerritarren totala
- Europar Batasuna ikasleak
- Europako gain. herr. ikasleak
- Afrikako iparraldea ikasleak
- Ipar Amerika ikasleak
- Erdialdeko Amerika ikasleak
- Hego Amerika ikasleak
- Asia eta Ozeania ikasleak
- Afrikako iparraldea portzentajea T.

Bestalde, hurrengo nazioarteko eskari aldagaiek ez dute diferentzia esanguratsurik aurkezten patente kopuru ezberdina duten unibertsitateetan.

- Atzerritarren portzentajea
- Afrikako gain. herr. ikasleak
- Europar Batasuna portzentajea
- Asia eta Ozeania portzentajea
- Europar Batasuna portzentajea T.
- Europako gain. herr. portzent. T.

- Europako gain. herr. portzent.
- Afrikako iparraldea portzentajea
- Afrikako gain. herr. portzentajea
- Ipar Amerika portzentajea
- Erdialdeko Amerika portzent.
- Hego Amerika portzentajea
- Afrikako gain. herr. portzentajea T
- Ipar Amerika portzentajea T.
- Erdialdeko Amerika portzent. T.
- Hego Amerika portzentajea T.
- Asia eta Ozeania portzentajea T.

Ondoko taulan, patente kopuru handiagoa eta txikiagoa duten unibertsitateen artean eskariari dagokionez dauden ezberdintasunak hauteman daitezke. Oro har, diferentzia gehienak patente kopuru altua duten erakundeen tamaina handiagoari egotz dakizkioke.

Deskribatzaileak

	PATENTE KOPURUA	N	Batez bestekoa	Desbideratze tipikoa	Minimoa	Maximoa
Matrikulatuen totala	Baxua	27	18163,22	27290,407	672	147262
	Altua	20	34099,50	18466,889	7425	80761
	Totala	47	24944,62	25004,918	672	147262
Atzerritarren totala	Baxua	27	247,74	305,769	3	1353
	Altua	20	704,45	568,586	91	2263
	Totala	47	442,09	488,339	3	2263
Europar Batasuna ikasleak	Baxua	27	91,93	170,740	1	716
	Altua	20	187,15	142,366	22	558
	Totala	47	132,45	164,662	1	716
Europako gain. herrialdeak ikasleak	Baxua	27	30,30	34,502	1	115
	Altua	20	77,30	75,480	4	293
	Totala	47	50,30	59,815	1	293
Afrikako iparraldea ikasleak	Baxua	27	16,93	24,113	0	100
	Altua	20	146,40	252,621	1	1037
	Totala	47	72,02	175,713	0	1037
Ipar Amerika ikasleak	Baxua	27	10,81	21,911	0	109
	Altua	20	27,70	28,773	1	132
	Totala	47	18,00	26,163	0	132
Erdialdeko Amerika ikasleak	Baxua	27	6,78	8,201	0	31
	Altua	20	18,25	20,890	2	92
	Totala	47	11,66	15,847	0	92
Hego Amerika ikasleak	Baxua	27	66,00	77,766	0	265
	Altua	20	192,00	212,558	27	879
	Totala	47	119,62	161,385	0	879
Asia eta Ozeania ikasleak	Baxua	27	14,00	31,832	0	166
	Altua	20	37,25	41,287	0	148
	Totala	47	23,89	37,574	0	166
Afrikako iparraldea portzentajea T.	Baxua	27	,1326	,19178	,00	,70
	Altua	20	,3450	,48786	,00	1,86
	Totala	47	,2230	,36106	,00	1,86

Taulan ikus daiteke patente kopuru altua duten unibertsitateetan ikasleen kopuru totala eta ikasle atzerritarren kopuru totala patente kopuru txikia duten unibertsitateetan baino nabarmenki handiagoa dela. Gauza bera gertatzen da jatorri ezberdinetako atzerritarren kopuruarekin. Azkenik, patente kopuru altua duten erakundeetan Afrikako iparraldeko ikasleen ehunekoa, matrikulatuen totalarekiko, nabarmenki handiagoa dela ere antzeman daiteke.

4.3.2.5 Eskaintzaren Aniztasuna

Azpiatal honetan, unibertsitateen eskaintzaren aniztasunak unibertsitate horien eskari internazionala baldintzatzen duen egiaztatzen saiatu gara. Hau da, kasu honetan eskaintza mota ezberdina duten erakundeen artean nazioarteko eskariari dagokionez diferentzia adierazgarririk dagoen ikustea izan da gure helburua.

Unibertsitateen eskaintzaren aniztasuna zehazte aldera, unibertsitate horiek adar ezberdinetan eskainitako titulazio kopurua kontuan hartzen duen aldagai bat sortu dugu. Hau da, Espainiako unibertsitateak irakaskuntza adar ezberdinetan eskainitako titulazio kopuruaren arabera sailkatu ditugu. Taldekatze hori kluster analisi bat aplikatuz eta sailkapen aldagai gisa adar bakoitzeko titulazio kopurua erabiliz burutu dugu[100]. Taldeen osaketa goranzko prozedura hierarkiko baten bidez egin dugu, antzekotasun neurri bezala distantzia euklidear karratua erabiliz eta elkarketa metodo

[100] Gómez Sancho eta Mancebón Torrubiak (2008) antzeko taldekatze bat egiten dute eta unibertsitateak talde homogeneotan sailkatzearen garrantzia azaltzen dute unibertsitate horiek burutzen duten jarduera ebaluatzeko orduan.

bezala Warden metodoa aukeratuz. Ondoko taulan lortutako unibertsitate taldeak aurkezten dira.

Eskaintzaren Aniztasunaren araberako Unibertsitate Taldeak

ESKAINTZAN ANIZTASUN GUTXIENEKO TALDEA		
Irakaskuntza adar ezberdinetako batez besteko titulazio kopurua		
Gizarte eta zuzenbide zientziak: 12,24 Ikasketa teknikoak: 11,22 Humanitateak: 3,05 Zientzia esperimentalak: 2,33 Osasun zientziak: 2,07		TOTALA: 30,91
Coruñako U.	Málagako U.	Valentziako S. V. M. U. Kat.
Alcalako U.	Elcheko M. Hernán. U.	San Antonio U. Katolikoa
Alacanteko U.	Pablo de Olavide U.	Deustuko U.
Almeríako U.	Cartagenako U. Politek.	Madrileko Europar U.
Burgoseko U.	Kataluniako U. Politek.	Miguel de Cerv. Europar U.
Cádizeko U.	Madrileko U. Politek.	Francisco de Vitoria U.
Kantabriako U.	Valentziako U. Politek.	Kataluniako Nazioarteko U.
Madrileko C. III.a U.	Pompeu Fabra U.	Mondragon U.
Gaztela-Mantxako U.	Nafarroako U. Publikoa	Nafarroako U.
Kordobako U.	Errege Juan Carlos U.	Kataluniako U. Irekia
Gironako U.	Rovira i Virgili U.	Comillaseko U. Pontifikala
Huelvako U.	Urr. Hezk. U. Naz. (UNED)	Salamancako U. Pontifikala
Bal. Uharteetako U.	Vigoko U.	Ramón Llull U.
Jaéneko U.	Abat Oliba CEU U.	San Jorge U.
Castellóko Jau. I.a U.	Alfontso X.a Jakituna U.	San Pablo CEU U.
Errioxako U.	Antonio de Nebrija U.	S.E.K. U.
K. H. las Palmasko U.	Camilo José Cela U.	Viceko U.
Leóneko U.	Cardenal Herrera CEU U.	
Lleidako U.	Avilako S. T. de Jesús U. K.	
ESKAINTZAN ANIZTASUN GEHIENEKO TALDEA		
Irakaskuntza adar ezberdinetako batez besteko titulazio kopurua		
Gizarte eta zuzenbide zientziak: 23,00 Ikasketa teknikoak: 15,06 Humanitateak: 14,13 Zientzia esperimentalak: 8,69 Osasun zientziak: 5,69		TOTALA: 66,56
Bartzelonako U. Auton.	La Lagunako U.	Sevillako U.
Madrileko U. Auton.	Murtziako U.	Valentziako Estudi General U.
Bartzelonako U.	Oviedoko U.	Valladolideko U.
Madrileko U. Complut.	Euskal Herriko U.	Zaragozako U.
Extremadurako U.	Salamancako U.	
Granadako U.	Santiago de Compost. U.	

Iturria: Egileak moldatua

Aurreko taulan ikus daitekeen bezala, eskaintzaren aniztasunaren arabera bi unibertsitate talde bereiz daitezke. Lehenengo taldeko erakundeek, adar ezberdinetan batez besteko titulazio kopuru txikiagoa eskaintzen dute bigarren taldekoek baino. Hau da, bigarren taldea osatzen duten hamasei unibertsitateek irakaskuntza adar guztietan gainontzeko unibertsitateek baino batez besteko titulazio kopuru handiagoa daukatela baiezta daiteke.

Erakundeak euren eskaintzaren aniztasunaren arabera bereizi ondoren, erakunde horien atzerriko eskaria ikertu dugu. Zehazki, bariantzaren analisi bat baino gehiago aplikatuz, unibertsitateen nazioarteko eskarian diferentziak identifikatzen saiatu gara unibertsitate horien eskaintza motaren arabera. Emaitza gisa, goian aurkeztutako bi unibertsitate taldeen artean ondoko eskari aldagaiei dagokienez alde adierazgarriak daudela esan daiteke[101].

- Matrikulatuen totala
- Atzerritarren totala
- Europar Batasuna ikasleak
- Europako gain. herr. ikasleak
- Afrikako iparraldea ikasleak
- Afrikako gain. herr. ikasleak
- Ipar Amerika ikasleak
- Erdialdeko Amerika ikasleak
- Hego Amerika ikasleak
- Asia eta Ozeania ikasleak
- Europar Batasuna portzentajea

Ondorengo aldagaiei dagokienez, ordea, ez dugu alde esanguratsurik topatu eskaintzan aniztasun garrantzitsua duten unibertsitateen eta eskaintzan aniztasun txikiagoa duten unibertsitateen artean.

- Atzerritarren portzentajea
- Europako gain. herr. portzent.
- Afrikako iparraldea portzentajea
- Afrikako gain. herr. portzentajea
- Ipar Amerika portzentajea
- Erdialdeko Amerika portzent.
- Europar Batasuna portzentajea T.
- Europako gain. herr. portzent. T.
- Afrikako iparraldea portzent. T.
- Afrikako gain. herr. portzent. T.
- Ipar Amerika portzentajea T.
- Hego Amerika portzentajea T.

[101] Azken aldagaia 0,10eko esangura maila baterako da esanguratsua.

- Hego Amerika portzentajea
- Asia eta Ozeania portzentajea
- Erdialdeko Amerika portzent. T.
- Asia eta Ozeania portzentajea T.

Hurrengo taulan goian aipatutako aldagai esanguratsuen batez besteko balioak aurkezten dira eskaintzan aniztasun handia duten erakundeetarako eta eskaintzan aniztasun txikia dutenetarako. Datu hauek agerian uzten dute nolakoak diren eskaintzan aniztasun maila ezberdina duten unibertsitateen artean eskariari dagokionez dauden diferentziak.

Deskribatzaileak

	ESKAINTZAREN ANIZTASUNA	N	Batez bestekoa	Desbideratze tipikoa	Minimoa	Maximoa
Matrikulatuen totala	Txikia	55	14730,93	20665,411	181	147262
	Handia	16	39565,31	16173,715	23506	80761
	Totala	71	20327,41	22241,923	181	147262
Atzerritarren totala	Txikia	55	244,84	284,173	0	1353
	Handia	16	747,38	626,108	142	2263
	Totala	71	358,08	437,052	0	2263
Europar Batasuna ikasleak	Txikia	55	84,62	133,071	0	716
	Handia	16	189,75	157,025	25	558
	Totala	71	108,31	144,571	0	716
Europako gain. herrialdeak ikasleak	Txikia	55	30,58	45,160	0	246
	Handia	16	81,13	84,882	0	293
	Totala	71	41,97	59,746	0	293
Afrikako iparraldea ikasleak	Txikia	55	27,93	70,985	0	465
	Handia	16	134,19	267,950	2	1037
	Totala	71	51,87	145,847	0	1037
Afrikako gain. herrialdeak ikasleak	Txikia	55	9,25	14,994	0	70
	Handia	16	24,88	23,919	2	93
	Totala	71	12,77	18,418	0	93
Ipar Amerika ikasleak	Txikia	55	11,58	18,020	0	109
	Handia	16	29,00	32,089	5	132
	Totala	71	15,51	22,910	0	132
Erdialdeko Amerika ikasleak	Txikia	55	7,04	10,127	0	47
	Handia	16	23,13	22,603	0	92
	Totala	71	10,66	15,311	0	92
Hego Amerika ikasleak	Txikia	55	60,02	70,858	0	265
	Handia	16	227,81	235,277	5	879
	Totala	71	97,83	143,946	0	879
Asia eta Ozeania ikasleak	Txikia	55	13,82	30,031	0	166
	Handia	16	37,50	33,176	8	136
	Totala	71	19,15	32,107	0	166
Europar Batasuna portzentajea	Txikia	55	36,4393	22,86483	,00	100,00
	Handia	16	25,3431	8,52830	13,94	47,95
	Totala	71	33,9387	20,99261	,00	100,00

Lortutako emaitzek hautemandako diferentzia ia bakarrak atzerritarren kopuru totalarekin eta jatorri ezberdinetako atzerritarren kopuruarekin lotutakoak direla adierazten dute. Atzerritarren kopuru totala eta jatorri ezberdinetako atzerritarren kopurua eskaintzan aniztasun handiagoa duten unibertsitateetan nabarmenki handiagoa dela egiazta daiteke. Modu berean, aniztasun handiagoko erakundeetan ikasleen kopuru totala ere nabarmenki handiagoa dela ikus daiteke. Bestalde, 0,10eko esangura maila kontuan hartuta, eskaintzan aniztasun txikiagoa duten unibertsitateetan Europar Batasuneko ikasleen proportzioa nabarmenki handiagoa dela baiezta daiteke.

Beraz, eskaintzaren aniztasunak unibertsitateen nazioarteko eskaria ez duela gehiegi baldintzatzen esan dezakegu, antzemandako diferentzia gehienak titulazio kopuru handiagoa eskaintzen duten unibertsitateen tamaina handiagoari egotz baitakizkioke.

4.3.2.6 Matrikularen Prezioa

Matrikularen prezioa ere Espainiako goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskariaren faktore erabakigarria izan daiteke. Azpiatal honetan, unibertsitateen matrikularen prezioaren eta unibertsitate horien nazioarteko eskariaren arteko erlazioa ikertu dugu. Analisi hori egiteko, unibertsitate ezberdinetako lehen ikasturteko matrikularen batez besteko prezioari buruzko informazioa erabili dugu, Eroski Fundazioaren (2010) Unibertsitateen Gidan jasota dagoena.

Salas Velascok (2008) matrikularen prezioa goi mailako hezkuntzaren eskariaren funtzioa mugatzen duen balizko faktore bezala aurkezten du. Autore honek azaltzen du, maila internazionalean garatutako ikerketaren arabera, goi mailako hezkuntzaren eskaria, funtsean, errentaren menpe, hezkuntzaren prezioaren menpe eta unibertsitatera joateko aukera kostuen menpe dagoela.

Ikerketa honetan, matrikularen prezio baxua eta altua duten unibertsitateen arteko bereizketa egiten duen aldagai bat sortu dugu. Ondoren, bariantzaren analisi bat baino gehiago aplikatuz, prezio ezberdinak dituzten unibertsitateen nazioarteko eskaria konparatu dugu. Emaitza bezala, prezio baxua eta altua duten unibertsitateen artean, ondoko eskari aldagaiei dagokienez, diferentzia adierazgarriak daudela esan daiteke.

- Matrikulatuen totala
- Atzerritarren totala
- Europar Batasuna ikasleak
- Afrikako iparraldea ikasleak
- Afrikako gain. herr. ikasleak
- Europar Batasuna portzentajea
- Afrikako iparraldea portzentajea
- Ipar Amerika portzentajea
- Afrikako iparraldea portzentajea T.

Aitzitik, segidan zerrendatzen diren nazioarteko eskari aldagaiei dagokienez ez da diferentzia garrantzitsurik antzeman prezio ezberdina duten unibertsitateen artean.

- Atzerritarren portzentajea
- Europako gain. herr. ikasleak
- Ipar Amerika ikasleak
- Erdialdeko Amerika ikasleak
- Hego Amerika ikasleak
- Asia eta Ozeania ikasleak
- Europako gain. herr. portzent.
- Afrikako gain. herr. portzentajea
- Erdialdeko Amerika portzent.
- Hego Amerika portzentajea
- Asia eta Ozeania portzentajea
- Europar Batasuna portzentajea T.
- Europako gain. herr. portzent. T.
- Afrikako gain. herr. portzentajea T.
- Ipar Amerika portzentajea T.
- Erdialdeko Amerika portzent. T.
- Hego Amerika portzentajea T.
- Asia eta Ozeania portzentajea T.

Jarraian agertzen den taulan prezio ezberdina duten unibertsitateen artean eskariari dagokionez dauden diferentziak aurkezten ditugu. Zehazki, aipatutako aldagai esanguratsu bakoitzaren batez bestekoa erakusten dugu bai prezio baxuko erakundeen talderako bai prezio altuko erakundeen talderako.

Deskribatzaileak

	MATRIKULAREN PREZIOA	N	Batez bestekoa	Desbideratze tipikoa	Minimoa	Maximoa
Matrikulatuen totala	Baxua	37	28210,65	26019,870	6501	147262
	Altua	26	9566,50	12293,233	672	53711
	Totala	63	20516,24	23230,668	672	147262
Atzerritarren totala	Baxua	37	489,76	484,928	44	2263
	Altua	26	204,81	361,048	3	1558
	Totala	63	372,16	457,277	3	2263
Europar Batasuna ikasleak	Baxua	37	150,19	171,904	2	716
	Altua	26	61,54	96,594	1	404
	Totala	63	113,60	151,184	1	716
Afrikako iparraldea ikasleak	Baxua	37	90,54	194,571	1	1037
	Altua	26	7,65	18,157	0	81
	Totala	63	56,33	154,295	0	1037
Afrikako gain. herrialdeak ikasleak	Baxua	37	17,92	21,186	0	93
	Altua	26	5,85	11,818	0	56
	Totala	63	12,94	18,784	0	93
Europar Batasuna portzentajea	Baxua	37	28,9754	15,76344	2,08	70,36
	Altua	26	41,7904	22,89836	20,14	100,00
	Totala	63	34,2641	19,90361	2,08	100,00
Afrikako iparraldea portzentajea	Baxua	37	16,2757	18,74554	,15	69,44
	Altua	26	2,6915	4,32731	,00	18,18
	Totala	63	10,6695	16,03227	,00	69,44
Ipar Amerika portzentajea	Baxua	37	4,0111	3,23156	,00	13,19
	Altua	26	7,2004	8,82685	,00	30,40
	Totala	63	5,3273	6,32341	,00	30,40
Afrikako iparraldea portzentajea T.	Baxua	37	,2786	,39357	,00	1,86
	Altua	26	,0454	,06947	,00	,30
	Totala	63	,1824	,32448	,00	1,86

Beste hainbat alderdiren artean, nabarmentzekoa da ikasleen kopuru totala eta ikasle atzerritarren kopurua nabarmenki txikiagoa dela unibertsitate garestienetan. Era berean, taulako emaitzek islatzen dute jatorri ezberdinetako ikasleen kopurua prezio altuagoa duten unibertsitateetan txikiagoa dela.

Jatorri ezberdinetako ikasleen pisuari dagokionez, aipatu beharrekoa da Europar Batasunetik datozen ikasleen ehunekoa nabarmenki handiagoa dela unibertsitate garestiagoetan. Modu berean, matrikularen batez besteko prezioa handiagoa den unibertsitateetan ikasle iparramerikarren ehunekoa ere handiagoa dela ikus daiteke. Aitzitik, Afrikako iparraldeko ikasleen pisua nabarmenki txikiagoa da unibertsitate garestiagoetan.

4.3.2.7 Unibertsitateetan Iragarritako Egoitza Unibertsitario eta Ikastetxe Nagusien Edukiera

Azkenik, nazioarteko eskariaren eta unibertsitate ezberdinen web orrialdeetan azaldutako egoitza unibertsitario eta ikastetxe nagusietako leku erabilgarrien kopuruaren arteko harremana ikertu dugu. Unibertsitateek euren web orrialdeetan ostatuari buruz argitaratzen duten informazioa aztertu ondoren, aldagai bat sortu dugu unibertsitateak orrialde horietan agertzen diren egoitza unibertsitario eta ikastetxe nagusiek eskainitako leku kopuruaren arabera sailkatzeko. Aldagai hau erabiliz, web orrialdean agertzen diren egoitzen eta ikastetxe nagusien edukiera baxua, ertaina eta altua duten unibertsitateak bereiz daitezke.

Beste azpiatal batzuetan egin dugun bezalaxe, kasu honetan ere hainbat bariantzaren analisi aplikatu ditugu nazioarteko eskariaren eta unibertsitateek euren web orrialdeetan argitaratzen dituzten egoitza eta ikastetxe nagusietako leku kopuruaren arteko harremana aztertzeko. Emaitzek islatzen dutenaren arabera ostatu mota horretan leku kopuru ezberdina eskaintzen duten unibertsitateen artean nazioarteko eskariari dagokionez diferentzia

adierazgarriak daudela baiezta daiteke. Ondorengo taulan, ezberdintasun esanguratsuak aurkezten dituzten eskari aldagaiak agertzen dira.

- Matrikulatuen totala
- Atzerritarren totala
- Atzerritarren portzentajea
- Europar Batasuna ikasleak
- Europako gain. herr. ikasleak
- Afrikako gain. herr. ikasleak
- Ipar Amerika ikasleak
- Erdialdeko Amerika ikasleak
- Hego Amerika ikasleak
- Asia eta Ozeania ikasleak
- Europako gain. herr. portzent. T.
- Hego Amerika portzentajea T.
- Asia eta Ozeania portzentajea T.

Aitzitik, ez dago diferentzia esanguratsurik, ondoko nazioarteko eskari aldagaiei dagokienez, web orrialdeetan iragartzen diren egoitza eta ikastetxe nagusietan leku kopuru ezberdina duten unibertsitateen artean.

- Afrikako iparraldea ikasleak
- Europar Batasuna portzentajea
- Europako gain. herr. portzent.
- Afrikako iparraldea portzentajea
- Afrikako gain. herr. portzentajea
- Ipar Amerika portzentajea
- Erdialdeko Amerika portzent.
- Hego Amerika portzentajea
- Asia eta Ozeania portzentajea
- Europar Batasuna portzentajea T.
- Afrikako iparraldea portzentajea T.
- Afrikako gain. herr. portzentajea T.
- Ipar Amerika portzentajea T.
- Erdialdeko Amerika portzent. T.

Hurrengo tauletan, antzemandako aldagai esanguratsuetarako Duncanen probaren emaitzak aurkezten dira. Taulotan web orrialdeetan agertzen diren egoitza eta ikastetxe nagusietan edukiera ezberdina duten unibertsitateen artean eskariari dagokionez dauden diferentziak nolakoak diren ikus daiteke.

Lehenengo taulek agerian jartzen dute unibertsitateen web orrialdeetan iragarritako egoitza eta ikastetxe nagusietako leku kopuru totala zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa dela matrikulatuen kopuru totala eta nazioarteko ikasleen kopurua.

Matrikulatuen totala

Duncan

EGOITZA ETA IKASTETXE NAGUSIEN EDUKIERA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	27	10612,30	
Ertaina	31		22386,97
Altua	11		25375,91
Esang.		1,000	,550

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Atzerritarren totala

Duncan

EGOITZA ETA IKASTETXE NAGUSIEN EDUKIERA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	27	167,44	
Ertaina	31	385,29	
Altua	11		708,82
Esang.		,106	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Bestalde, ondorengo taulan egiazta daiteke ikasle kopurua ez ezik, nazioarteko ikasleen proportzioa ere nabarmenki handiagoa dela iragarritako egoitza eta ikastetxe nagusietako edukiera handiagoa duten unibertsitateetan.

Atzerritarren portzentajea

Duncan

EGOITZA ETA IKASTETXE NAGUSIEN EDUKIERA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	27	1,4030	
Ertaina	31	1,6371	
Altua	11		2,5045
Esang.		,497	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Jarraian erakusten diren emaitzek, aurretik aipatutakoarekin koherentzia gordetzen dute. Hau da, erakunde unibertsitarioek argitaratutako egoitza eta ikastetxe nagusietako leku kopuruaren eta jatorri ezberdinetako ikasle kopuruaren artean erlazio positiboa dagoela islatzen dute.

Europar Batasuna ikasleak

Duncan

EGOITZA ETA IKASTETXE NAGUSIEN EDUKIERA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	27	60,00	
Ertaina	31	106,68	
Altua	11		221,27
Esang.		,304	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Europako gainontzeko herrialdeak ikasleak

Duncan

EGOITZA ETA IKASTETXE NAGUSIEN EDUKIERA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	27	17,52	
Ertaina	31	37,94	
Altua	11		93,91
Esang.		,211	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Afrikako gainontzeko herrialdeak ikasleak

Duncan

EGOITZA ETA IKASTETXE NAGUSIEN EDUKIERA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	27	7,41	
Ertaina	31	13,16	13,16
Altua	11		23,64
Esang.		,332	,080

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Ipar Amerika ikasleak

Duncan

EGOITZA ETA IKASTETXE NAGUSIEN EDUKIERA S	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	27	8,44	
Ertaina	31	14,74	
Altua	11		34,45
Esang.		,380	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Erdialdeko Amerika ikasleak

Duncan

EGOITZA ETA IKASTETXE NAGUSIEN EDUKIERA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	27	5,11	
Ertaina	31	10,84	
Altua	11		22,45
Esang.		,231	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Hego Amerika ikasleak

Duncan

EGOITZA ETA IKASTETXE NAGUSIEN EDUKIERA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	27	42,74	
Ertaina	31	91,19	
Altua	11		237,36
Esang.		,262	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Asia eta Ozeania ikasleak

Duncan

EGOITZA ETA IKASTETXE NAGUSIEN EDUKIERA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	27	5,93	
Ertaina	31	18,71	
Altua	11		52,36
Esang.		,180	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Bukatzeko, ondoko taulek agerian jartzen dute, atzerriko ikasleen proportzioarekin gertatzen den bezalaxe, unibertsitateek iragarritako egoitza eta ikastetxe nagusien edukiera zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa dela jatorri batzuetako ikasleen proportzioa, matrikulatuen totalarekiko.

Europako gainontzeko herrialdeak portzentajea T.

Duncan

EGOITZA ETA IKASTETXE NAGUSIEN EDUKIERA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	27	,1593	
Ertaina	31	,1639	
Altua	11		,3482
Esang.		,943	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Hego Amerika portzentajea T.

Duncan

EGOITZA ETA IKASTETXE NAGUSIEN EDUKIERA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	27	,3581	
Ertaina	31	,4123	
Altua	11		,7036
Esang.		,612	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

Asia eta Ozeania portzentajea T.

Duncan

EGOITZA ETA IKASTETXE NAGUSIEN EDUKIERA	N	Azpimultzoa (alfa = 0.05)	
		1	2
Baxua	27	,0481	
Ertaina	31	,0806	
Altua	11		,1636
Esang.		,222	1,000

Azpimultzo homogeneoetako taldeen batez bestekoak aurkezten dira.

4.4 Espainiako Goi Mailako Hezkuntzaren Nazioarteko Eskariaren Faktore Erabakigarriei buruzko Ondorio Nagusiak

Kapitulu honetan, faktore ezberdinek Espainiako goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskarian duten eragina aztertu dugu. Lehenik eta behin, titulazioen ezaugarri zehatz batzuek euren

atzerriko eskarian duten eragina ikertu dugu. Modu berean, unibertsitateen zenbait berezitasunen eta eskari internazionalaren arteko harremana analizatu dugu. Atal honen helburua analisi horien ondorio nagusiak laburki azaltzea da.

Espainiako titulazioen nazioarteko eskariari dagokionez, nabarmentzekoa da eskari hori ikasketen iraupenaren araberakoa dela neurri handi batean. Alde batetik, baiezta daiteke ikasle atzerritarren pisua nabarmenki handiagoa dela ziklo luzeko titulazioetan ziklo laburrekoetan edo bigarren ziklokoetan baino. Bestalde, ikusi denez, Europar Batasuneko ikasleen ehunekoa handiagoa da ziklo luzeko eta bigarren zikloko titulazioetan ziklo laburrekoetan baino. Afrikako iparraldeko eta Afrikako gainontzeko herrialdeetako ikasleen proportzioa, aldiz, nabarmenki txikiagoa da ziklo luzeko ikasketetan. Gainera, Hego Amerikako ikasleen pisua ziklo laburreko titulazioetan handiagoa dela ere antzeman dugu.

Titulazioen irakaskuntza adarrak ere, neurri handi batean, titulazio horien atzerriko eskaria baldintzatzen du. Ikasle internazionalen pisuari dagokionez adar ezberdinetako titulazioen artean diferentzia esanguratsurik ez badago ere, zenbait jatorritako ikasleen proportzioari dagokionez irakaskuntza adar ezberdinetako titulazioen artean diferentzia adierazgarriak aurkitu ditugu. Azpimarratzekoak dira Europar Batasuneko eta Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleen garrantzia humanitateetako titulazioetan, Afrikako iparraldeko ikasleen proportzioa osasun zientzia, ikasketa tekniko eta zientzia esperimentaletako titulazioetan edo Hego Amerikako ikasleen pisua gizarte eta

zuzenbide zientzia, zientzia esperimental eta osasun zientzietako titulazioetan.

Espainiako unibertsitateen nazioarteko eskariari dagokionez, analisia bi zatitan banatu dugu, aztertutako faktore motaren arabera. Lehendabizi, unibertsitateek erraz moldatu ezin dituzten hainbat ezaugarriren eta atzerriko eskariaren arteko erlazioa analizatu dugu. Ondoren, unibertsitateek kontrola ditzaketen hainbat aldagairen eta atzerriko eskariaren arteko erlazioa ikertu dugu.

Aldagai kontrola ezin ezberdinen artean, lehenik eta behin, unibertsitateen titulartasuna aztertu dugu. Hau da, gure asmoa unibertsitate publiko eta pribatuen artean, eskari internazionalari dagokionez, diferentziarik ba ote dagoen egiaztatzea izan da. Emaitzei erreparatuta, unibertsitate publikoek atzerritar kopuru handiagoa jasotzen dutela esan daiteke. Hala ere, horrek ez du esan nahi unibertsitate publikoek pribatuek baino orientazio internazional handiagoa dutenik, oro har, publikoen tamaina pribatuena baino handiagoa izaten baita eta atzerritarren proportzioa antzekoa baita unibertsitate publiko eta pribatuetan.

Dena den, nazioarteko eskariaren jatorria ezberdina da unibertsitate publiko eta pribatuetan. Beste hitz batzuetan esateko, unibertsitateek, euren titulartasunaren arabera, nazionalitate ezberdinetako ikasleekiko orientazioa aurkezten dute. Pribatuetan, Europar Batasuneko eta Ipar Amerikako ikasleen proportzioa publikoetan baino handiagoa da, eta publikoetan, ordea, Afrikako iparraldeko eta Hego Amerikako ikasleen proportzioa pribatuetan baino handiagoa da.

Hortaz, unibertsitate pribatuek, nazioarteko eskaria asetzera bideratutako ahalegin osotik, publikoek baino proportzio handiagoa eskaintzen diete oro har Espainiako ekonomia baino garatuagoa duten herrialdeetatik eta Espainiako unibertsitate-sistemak baino ospe internazional handiagoa duten sistemetatik datozen ikasleei. Ikasle hauei erantzuteak haien herrialdeetako enpresa eta unibertsitateekin harremanak sortzen lagun dezake, eta hori, aldi berean, Espainiako ikasleak erakartzeari begira unibertsitateen lehiarako abantaila bihur daiteke. Bestalde, unibertsitate publikoek oro har gutxiago garatutako eta Espainiak tradizionalki harreman garrantzitsua izan duen herrialdeetako ikasleekiko orientazio handiagoa aurkezten dute.

Unibertsitateek erraz molda ezin ditzaketen ezaugarrien artean, erakundearen kokapen geografikoa ere hartu dugu kontuan. Egindako azterketaren emaitza nagusi gisa, aipatu beharra dago Bartzelona edo Madril bezalako hiri garrantzitsuetatik hurbil kokaturik dauden unibertsitateetan ikasle internazionalen proportzioa handiagoa dela.

Horrez gain, garrantzitsua da azpimarratzea atzerriko zenbait eskualdetatik hurbil kokatuta egoteak nabarmenki baldintzatzen duela Espainiako unibertsitate batzuen nazioarteko eskariaren jatorria. Aztertutako datuek aditzera ematen dute Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleen proportzioa Katalunian kokatutako unibertsitateetan gainontzeko unibertsitateetan baino nabarmenki handiagoa dela. Andorraren eta Kataluniaren arteko hurbiltasun geografikoa aipatu dugu Europako gainontzeko

herrialdeetako ikasleek unibertsitate katalanetan duten garrantzia azaltzeko.

Nabarmentzekoa da, halaber, Afrikako iparraldeko ikasleek duten garrantzia batez ere Andaluziako unibertsitateetan baina baita Levante, Gaztela-Mantxa, Balear Uharteak eta Kanarietan kokatutako unibertsitateetan ere. Kasu honetan, Espainiako lurralde horien eta Afrikako kontinentearen arteko hurbiltasunak azal dezake Afrikako iparraldeko ikasleen ehuneko altua.

Bestalde, kontuan hartzekoak dira ere Afrikako gainontzeko herrialdeetako ikasleen portzentajea Gaztela eta Leon eta Extremadurako unibertsitateetan, Ipar Amerikako ikasleen proportzioa Madrileko unibertsitateetan edo Erdialdeko Amerikako ikasleen pisua Iparraldeko eremuko eta Aragoiko unibertsitateetan. Era berean, azpimarratzekoa da Hego Amerikako ikasleen garrantzia Levante, Gaztela-Mantxa, Balear Uharteak eta Kanarietako unibertsitateetan, Madrilekoetan eta Iparraldeko eremuko eta Aragoikoetan.

Ondoren, unibertsitateek aurre egin beharreko konkurrentzia mailaren eragina ere ikertu dugu. Aldagai honi dagokionez, esan daiteke goi mailako hezkuntza-sektorean konkurrentzia maila handiagoa duten lurraldeetan kokaturik dauden unibertsitateetan ikasle atzerritarren ehunekoa handiagoa dela.

Aldagai kontrola ezinen artean kontuan hartutako beste aldagai bat unibertsitate ezberdinen antzinatasuna da. Sorrera urtearen arabera unibertsitateen artean eskariari dagokionez dauden ezberdintasunak ikertzean, ikusi dugu, oro har, unibertsitatea zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta handiagoa dela ikasleen kopuru

totala, atzerriko ikasleen kopuru totala eta jatorri ezberdinetako ikasleen kopurua. Nabarmentzekoa da, halaber, egungo unibertsitateetan, hots, 1994. urteaz geroztik sortutakoetan, Europar Batasuneko ikasleen pisua nabarmenki handiagoa dela gainontzeko unibertsitateetan baino.

Espainiako unibertsitateen eskari internazionala unibertsitate horien tamainaren arabera ere aztertu dugu eta, espero daitekeen bezala, erakundea zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da atzerritarren kopuru totala eta jatorri ezberdinetako atzerritarren kopurua.

Horrez gain, unibertsitateen tamainaren eta ikasle internazionalen proportzioaren artean erlazio positiboa dagoela esan daiteke. Bestalde, unibertsitate ertainak Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleen ehunekorik handiena dutenak direla eta unibertsitate oso handiak Afrikako iparraldeko ikasleen proportziorik handiena dutenak direla egiaztatu ahal izan dugu.

Unibertsitateek irakaskuntza adar ezberdinetara duten orientazioa dela eta, ikasketa teknikoetara bideratutako eta jakintza arlo horretara bideratu gabeko unibertsitateen artean eskari internazionalari dagokionez diferentzia adierazgarriak daudela antzeman dugu. Zehazki, lehenetan, ikasle internazionalen proportzioa eta Europar Batasuneko ikasle atzerritarren pisua bigarrenetan baino nabarmenki txikiagoa dela ikusi dugu. Dena den, adierazi beharra dago ere irakaskuntza adar honetara orientatutako unibertsitateek Afrikako gainontzeko herrialdeetako eta Asia eta Ozeaniako ikasleen ehuneko nabarmenki handiagoa dutela. Horrek agerian uzten du ikasketa teknikoetara bideratutako erakundeek,

nazioarteko ikasle kopuru eta proportzio txikiagoa izateaz gain, oro har Espainia baino gutxiago garatutako herrialdeetako ikasleekiko orientazio handiagoa dutela.

Humanitateetara orientatutako unibertsitateek, ordea, ez dute irakaskuntza adar horretara orientatu gabekoek baino atzerritarren proportzio nabarmenki ezberdinik. Hala ere, humanitateetara bideratutako erakundeek Hego Amerikako ikasleekiko orientazio handiagoa dutela baiezta daiteke.

Beste alde batetik, osasun zientzietara orientatutako unibertsitateetan, Ipar Amerikako ikasleen kopurua eta jatorri horretako ikasleen proportzioa, matrikulatuen totalarekiko, irakaskuntza adar horrek garrantzi txikiagoa duen unibertsitateetan baino nabarmenki handiagoa da.

Adierazi dugun bezala, kapitulu honetan unibertsitateek kontrola ditzaketen hainbat aldagairen eta unibertsitateen nazioarteko eskariaren arteko harremana ere aztertu dugu.

Kontrola daitezkeen faktoreen artean, lehendabizi, irakasleen egonkortasuna hartu dugu kontuan. Lortutako emaitzak behatuz, irakasle egonkorren mailak ikerlan honetan aztertutako nazioarteko eskari aldagaiak baldintzatzen ez dituela ondoriozta dezakegu.

Hala ere, unibertsitateen eskari internazionala, neurri handi batean, irakasle katedradunen proportzioren menpe dagoela baiezta daiteke. Azpimarratu beharrekoa da matrikulatuen kopuru totala, ikasle atzerritarren kopurua eta jatorri ezberdinetako ikasleen kopurua nabarmenki handiagoak direla irakasle katedradun edo baliokideen proportzio handiagoko erakundeetan.

Horrez gain, nazioarteko ikasleen ehunekoa ere nabarmenki handiagoa da katedradunen proportzio handiagoa duten unibertsitateetan. Era berean, irakasle katedradunen proportzio baxuko erakundeetan Europar Batasuneko ikasleen ehunekoa gainontzeko unibertsitateetan baino handiagoa dela egiaztatu dugu eta Afrikako iparraldeko ikasleen ehunekoa, ordea, txikiagoa.

Unibertsitateen eskari internazionala nabarmenki baldintzatzen duen beste faktoreetako bat irakasle bakoitzeko ekoizpen zientifikoaren bolumena da. Aztertutako informazioaren arabera, irakasleko argitalpen zientifiko kopuruaren eta matrikulatuen kopuru totala, atzerritarren kopuru totala edo jatorri ezberdinetako atzerritarren kopurua bezalako aldagaien artean harreman positiboa dagoela baiezta daiteke. Modu berean, egiaztatu dugu irakasleko ekoizpen zientifikoa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa dela unibertsitateetako ikasle internazionalen ehunekoa.

Afrikako iparraldeko eta Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleen proportzioa ere nabarmenki handiagoa da irakasleko argitalpen kopurua Espainiako unibertsitateen batez bestekoa baino handiagoa duten erakundeetan. Aitzitik, Europar Batasuneko ikasleen proportzioa txikiagoa da irakasleko ekoizpen zientifikoaren bolumena handiagoa duten unibertsitateetan.

Beraz, esan daiteke erakunde ezberdinetako irakasleko argitalpen kopuruak, neurri handi batean, erakunde horien nazioarteko eskaria zehazten duela. Ez da gauza bera gertatzen, ordea, unibertsitateen ekoizpen zientifikoaren kalitatea aztertzean. Aldagai honen kasuan, inpaktu txikiko argitalpenak dituzten

erakundeen eta inpaktu handiko argitalpenak dituzten erakundeen artean eskariari dagokionez ia ez da ezberdintasunik antzematen.

Dena den, kalitate hori zientzia arloen arabera analizatzean, zenbait diferentzia adierazgarri aurkitu dugu unibertsitateen artean. Hots, arlo batzuetako ikerketan kalitate ezberdina duten unibertsitateen artean nazioarteko eskariari dagokionez diferentziak daudela egiaztatu ahal izan dugu.

Esaterako, nabarmentzekoa da harreman positiboa dagoela biokimika, genetika eta biologia molekular arloko ekoizpen zientifikoaren kalitatearen eta Europar Batasuneko ikasleen proportzioaren artean.

Berebat, medikuntza arloan kalitate handia duten unibertsitateetan Europar Batasuneko ikasleen ehunekoa handiagoa dela azpimarra dezakegu. Medikuntza arloan kalitate baxua duten unibertsitateetan, berriz, Erdialdeko Amerikako ikasleen pisua altuagoa dela ikusi dugu.

Kontuan hartzekoa da ere kimika arloan kalitate handiagoa duten unibertsitateetan ikasle internazionalen proportzioa gainontzeko unibertsitateetan baino handiagoa dela. Halaber, kimika arloan kalitate altua duten erakundeetan Europako gainontzeko herrialdeetako ikasleen ehunekoa handiagoa dela egiaztatu ahal izan dugu.

Aurreko ataletan aurkeztutako emaitzek unibertsitateen ikerketa jarduera mailak ere unibertsitate horien eskaria modu nabarmenean mugatzen duela islatzen dute. Alde batetik, zenbat eta handiagoa izan unibertsitate baten ikerketa proiektuen kopurua, orduan eta handiagoa da matrikulatuen kopuru totala, atzerritarren

kopurua eta jatorri ezberdinetako ikasleen kopurua. Bestalde, proiektu gehiago duten erakundeek ikasle internazionalen ehuneko handiagoa dutela ere ikusi dugu.

Baiezta daiteke, halaber, unibertsitateen ikerketa jarduera mailaren eta Asia eta Ozeaniatik datozen eta Hego Amerikatik datozen ikasleen ehunekoaren artean harreman positiboa dagoela. Aitzitik, ikerketa proiektuen kopuruaren eta Europar Batasuneko ikasleen ehunekoaren arteko harremana negatiboa da.

Unibertsitate ezberdinen patenteen kopuruaren araberako eskariaren analisiari dagokionez, patente kopuru ezberdina duten unibertsitateen arteko diferentzia gehienak ikasle kopuruarekin erlazionaturik daudela ikusi dugu. Hots, patente gehien dituzten erakundeetan matrikulatuen kopuru totala, ikasle atzerritarren kopurua eta jatorri ezberdinetako ikasleen kopurua handiagoak dira.

Beste alde batetik, unibertsitateen eskaintzaren aniztasunak unibertsitate horien nazioarteko eskarian nolako eragina duen ere analizatu dugu. Egindako analisiak eskaintzaren aniztasunean maila ezberdina duten unibertsitateen arteko ezberdintasun adierazgarri ia bakarrak ikasle kopuruarekin lotutakoak direla islatzen du. Bai matrikulatuen kopuru totala bai atzerritarren kopurua edo jatorri ezberdinetako ikasleen kopurua handiagoak dira eskaintzaren aniztasun maila handiagoa duten erakundeetan. Antzeman dugu, berebat, eskaintzaren aniztasun handiagoa duten unibertsitateetan Europar Batasuneko ikasleen pisua txikiagoa dela.

Matrikula unibertsitarioaren prezioari dagokionez, baiezta dezakegu matrikularen prezioa zenbat eta altuagoa izan, orduan eta txikiagoak direla matrikulatuen kopuru totala, atzerritarren kopurua

eta jatorri ezberdinetako ikasleen kopurua. Bestalde, Europar Batasuneko eta Ipar Amerikako ikasleen ehunekoa nabarmenki handiagoa da unibertsitate garestiagoetan. Afrikako iparraldeko ikasleen ehunekoa, berriz, txikiagoa da matrikularen batez besteko prezioa altuagoa duten unibertsitateetan.

Amaitzeko, unibertsitateetan iragarritako egoitza unibertsitario eta ikastetxe nagusietako leku kopuruak eskari internazionalean eraginik duen ere ikertu dugu. Emaitza gisa esan dezakegu bai matrikulatuen kopuru totala bai ikasle internazionalen kopurua eta ehunekoa nabarmenki handiagoak direla iragarritako egoitza eta ikastetxe nagusietako edukiera handiagoa duten unibertsitateetan.

ERANSKINA: Nazioarteko Eskaria Baldintza dezaketen Faktoreak

Titulazio Unibertsitarioen Nazioarteko Eskaria

IKASKETEN IRAUPENA

- Titulazioen iraupena: Titulazioak ziklo luze, ziklo labur edo soilik bigarren ziklokoak diren adierazten du (***Ikasketen iraupena***).

IRAKASKUNTZA ADARRA

- Titulazioen irakaskuntza adarra: Titulazio bakoitza zein irakaskuntza adarrari dagokion adierazten du. Guztira bost irakaskuntza adar posible daude: gizarte eta zuzenbide zientziak, ikasketa teknikoak, humanitateak, zientzia esperimentalak eta osasun zientziak (***Irakaskuntza adarra***).

Erakunde Unibertsitarioen Nazioarteko Eskaria

TITULARTASUN PUBLIKOA EDO PRIBATUA

- Erakundearen titulartasun publikoa edo pribatua: Unibertsitatea publikoa edo pribatua den adierazten du (***Titulartasun publikoa edo pribatua***).

KOKAPENA

- Erakundearen kokapena: Unibertsitatea non kokatuta dagoen adierazten du eta sei kategoria dauzka (***Kokapena***).
  - **Iparraldeko eremua eta Aragoi**
    - → Kantabria (Kantabriako U.)
    - → Nafarroako Foru Erkidegoa (Nafarroako U. Publikoa, Nafarroako U.)
    - → Galizia (Coruñako U., Santiago de Compostelako U., Vigoko U.)
    - → Errioxa (Errioxako U.)
    - → Euskal Autonomia Erkidegoa (Euskal Herriko U., Deustuko U., Mondragon U.)
    - → Asturiasko Printzerria (Oviedoko U.)
    - → Aragoi (Zaragozako U., San Jorge U.)
  - **Gaztela eta Leon eta Extremadura**
    - → Gaztela eta Leon (Burgoseko U., Leóneko U., Salamancako U., Valladolideko U., Avilako Santa Teresa de Jesús U. Katolikoa, Miguel de Cervantes Europar U., Salamancako U. Pontifikala, S.E.K. U.)
    - → Extremadura (Extremadurako U.)
  - **Katalunia**
    - → Katalunia (Bartzelonako U. Autonomoa, Bartzelonako U., Gironako U., Lleidako U., Kataluniako U. Politeknikoa, Pompeu Fabra U., Rovira i Virgili U., Abat Oliba CEU U., Kataluniako Nazioarteko U., Ramón Llul U., Viceko U)
  - **Madrilgo Erkidegoa**
    - → Madrilgo Erkidegoa (Alcalako U., Madrileko U. Autonomoa, Madrileko Carlos III.a U., Madrileko U. Complutensea, Madrileko U. Politeknikoa, Errege Juan Carlos U., Alfontso X.a Jakituna U., Antonio de Nebrija U., Camilo José Cela U., Madrileko Europar U., Francisco de Vitoria U., Comillaseko U. Pontifikala, San Pablo CEU U.)

- **Levante, Gaztela-Mantxa, Balear Uharteak eta Kanariak**
  → Valentziako Erkidegoa (Alacanteko U., Castellóko Jaume I.a U., Elcheko Miguel Hernández U., Valentziako U. Politeknikoa, Valentziako Estudi General U., Cardenal Herrera CEU U., Valentziako San Vicente Mártir U. Katolikoa)
  → Murtziako Eskualdea (Murtziako U., Cartagenako U. Politeknikoa, San Antonio U. Katolikoa)
  → Gaztela-Mantxa (Gaztela-Mantxako U.)
  → Balear Uharteak (Balear Uharteetako U.)
  → Kanariak (La Lagunako U., Kanaria Handiko las Palmasko U.)
- **Andaluzia**
  → Andaluzia (Almeríako U., Cádizeko U., Kordobako U., Granadako U., Huelvako U., Jaéneko U., Málagako U., Pablo de Olavide U., Sevillako U.)

KONKURRENTZIA MAILA

• Erakundearen inguruneko konkurrentzia maila: Unibertsitatea kokaturik dagoen autonomia erkidegoko konkurrentzia maila adierazten du. Konkurrentzia maila hori baxua, ertaina edo altua izan daiteke autonomia erkidego bakoitzarentzat kalkulatutako Herfindahl indizearen arabera (***Konkurrentzia maila***).

- **Baxua**: Herfindahl indizea 0,9 eta 1 artean
- **Ertaina**: Herfindahl indizea 0,5 eta 0,9 artean
- **Altua**: Herfindahl indizea 0 eta 0,5 artean

ANTZINATASUNA

• Erakundearen antzinatasuna: Unibertsitatearen antzinatasuna islatzen du eta erakundearen sorrera urtearen araberako lau kategoria dauzka (***Antzinatasuna***).

- **Historikoa**: 1931. urtea baino lehenago sortutako unibertsitateak
- **Zaharra**: 1931. eta 1975. urteen artean sortutako unibertsitateak
- **Berria**: 1976. eta 1994. urteen artean sortutako unibertsitateak
- **Egungoa**: 1994. urtearen ondoren sortutako unibertsitateak

TAMAINA

• Erakundearen tamaina: Unibertsitatearen tamaina islatzen du eta matrikulatutako ikasle kopuruaren araberako lau kategoria dauzka (***Tamaina***).

- **Txikia**: 10000 ikasle edo gutxiago
- **Ertaina**: 10001 ikasletik 20000 ikaslera
- **Handia**: 20001 ikasletik 40000 ikaslera
- **Oso handia**: 40000 ikasle baino gehiago

IRAKASKUNTZA ADAR EZBERDINETARA ORIENTAZIOA

• Gizarte eta zuzenbide zientzietara orientazioa: Aldagai honek unibertsitate bakoitzaren gizarte eta zuzenbide zientzietako ikasleen portzentajea Espainiako unibertsitateen totalerako lortutako portzentajea baino handiagoa edo txikiagoa den adierazten du eta bi kategoria dauzka (**Gizarte eta zuzenbide zientzietara orientazioa**).

- **Bai**: Kategoria honetan dauden unibertsitateen gizarte eta zuzenbide zientzietako ikasleen portzentajea Espainiako unibertsitateen totalerako lortutako portzentajea baino handiagoa da (**%49,45**).
  - Gizarte eta zuzenbide zientzietako ikasleen portzentajea Espainiako unibertsitateetan = (Espainiako unibertsitateetan gizarte eta zuzenbide zientzietan matrikulatutako ikasleen totala / Espainiako unibertsitateetan matrikulatutako ikasleen totala) * 100 = {[75123 (unibertsitate pribatuak) + 638568(unibertsitate

publikoak)] / [137862 (unibertsitate pribatuak) + 1305384 (unibertsitate publikoak)]} * 100 = (713691 / 1443246) * 100 = 49,45.

- **Ez**: Kategoria honetan dauden unibertsitateen gizarte eta zuzenbide zientzietako ikasleen portzentajeak ez du gainditzen Espainiako unibertsitateen totalerako lortutako portzentajea (%49,45).

• Ikasketa teknikoetara orientazioa: Aldagai honek unibertsitate bakoitzaren ikasketa teknikoetako ikasleen portzentajea Espainiako unibertsitateen totalerako lortutako portzentajea baino handiagoa edo txikiagoa den adierazten du eta bi kategoria dauzka (**Ikasketa teknikoetara orientazioa**).

- **Bai**: Kategoria honetan dauden unibertsitateen ikasketa teknikoetako ikasleen portzentajea Espainiako unibertsitateen totalerako lortutako portzentajea baino handiagoa da (**%26,22**).
  - Ikasketa teknikoetako ikasleen portzentajea Espainiako unibertsitateetan = (Espainiako unibertsitateetan ikasketa teknikoetan matrikulatutako ikasleen totala / Espainiako unibertsitateetan matrikulatutako ikasleen totala) * 100 = {[34178 (unibertsitate pribatuak) + 344311 (unibertsitate publikoak)] / 1443246} * 100 = (378489 / 1443246) * 100 = 26,22.
- **Ez**: Kategoria honetan dauden unibertsitateen ikasketa teknikoetako ikasleen portzentajeak ez du gainditzen Espainiako unibertsitateen totalerako lortutako portzentajea (%26,22).

• Humanitateetara orientazioa: Aldagai honek unibertsitate bakoitzaren humanitateetako ikasleen portzentajea Espainiako unibertsitateen totalerako lortutako portzentajea baino handiagoa edo txikiagoa den adierazten du eta bi kategoria dauzka (**Humanitateetara orientazioa**).

- **Bai**: Kategoria honetan dauden unibertsitateen humanitateetako ikasleen portzentajea Espainiako unibertsitateen totalerako lortutako portzentajea baino handiagoa da (**%9,178**).
  - Humanitateetako ikasleen portzentajea Espainiako unibertsitateetan = (Espainiako unibertsitateetan humanitateetan matrikulatutako ikasleen totala / Espainiako unibertsitateetan matrikulatutako ikasleen totala) * 100 = {[6755 (unibertsitate pribatuak) + 125707 (unibertsitate publikoak)] / 1443246}*100 = (132462 / 1443246) * 100 = 9,178.
- **Ez**: Kategoria honetan dauden unibertsitateen humanitateetako ikasleen portzentajeak ez du gainditzen Espainiako unibertsitateen totalerako lortutako portzentajea (%9,178).

• Zientzia esperimentaletara orientazioa: Aldagai honek unibertsitate bakoitzaren zientzia esperimentaletako ikasleen portzentajea Espainiako unibertsitateen totalerako lortutako portzentajea baino handiagoa edo txikiagoa den adierazten du eta bi kategoria dauzka (**Zientzia esperimentaletara orientazioa**).

- **Bai**: Kategoria honetan dauden unibertsitateen zientzia esperimentaletako ikasleen portzentajea Espainiako unibertsitateen totalerako lortutako portzentajea baino handiagoa da (**%6,99**).
  - Zientzia esperimentaletako ikasleen portzentajea Espainiako unibertsitateetan = (Espainiako unibertsitateetan zientzia esperimentaletan matrikulatutako ikasleen totala / Espainiako unibertsitateetan matrikulatutako ikasleen totala) * 100 = {[3706 (unibertsitate pribatuak) + 97238 (unibertsitate publikoak)] / 1443246} * 100 = (100944 / 1443246) * 100 = 6,99.
- **Ez**: Kategoria honetan dauden unibertsitateen zientzia esperimentaletako ikasleen portzentajeak ez du gainditzen Espainiako unibertsitateen totalerako lortutako portzentajea (%6,99).

• Osasun zientzietara orientazioa: Aldagai honek unibertsitate bakoitzaren osasun zientzietako ikasleen portzentajea Espainiako unibertsitateen totalerako lortutako portzentajea baino handiagoa edo txikiagoa den adierazten du eta bi kategoria dauzka (**Osasun zientzietara orientazioa**).

- **Bai**: Kategoria honetan dauden unibertsitateen osasun zientzietako ikasleen portzentajea Espainiako unibertsitateen totalerako lortutako portzentajea baino handiagoa da (**%8,15**).
  - Osasun zientzietako ikasleen portzentajea Espainiako unibertsitateetan = (Espainiako unibertsitateetan osasun zientzietan matrikulatutako ikasleen totala / Espainiako unibertsitateetan matrikulatutako ikasleen totala) * 100 = {[18100 (unibertsitate pribatuak) + 99560 (unibertsitate publikoak)] / 1443246} * 100 = (117660 / 1443246) * 100 = 8,15.
- **Ez**: Kategoria honetan dauden unibertsitateen osasun zientzietako ikasleen portzentajeak ez du gainditzen Espainiako unibertsitateen totalerako lortutako portzentajea (%8,15).

LANEAN EGONKORTASUNA DUTEN IRAKASLEEN PORTZENTAJEA

• Unibertsitateko irakasleen kidegoen barnean dauden edo kontratu mugagabea duten irakasleen portzentajea erakundean: Aldagai honek unibertsitate bakoitzean unibertsitateko irakasleen kidegoetan dauden edo kontratu mugagabea duten irakasleen pisua adierazten du. Hau da, erakunde bakoitzean lan-egonkortasuna duten irakasleen garrantzia islatzen du. (***Lan-egonkortasuna duten irakasleen portzentajea***).

- **Baxua**: Lan-egonkortasuna duten irakasleen portzentajea %50 baino txikiagoa
- **Ertaina**: Lan-egonkortasuna duten irakasleen portzentajea %50 eta %70 artean
- **Altua**: Lan-egonkortasuna duten irakasleen portzentajea %70 baino handiagoa

UNIBERTSITATEKO IRAKASLE KATEDRADUN EDO BALIOKIDEEN PORTZENTAJEA

• Unibertsitateko irakasle katedradunen, irakasle zuzendarien edo betiko irakasle edo irakasle katedradunen portzentajea erakundean: Aldagai honek unibertsitate bakoitzaren unibertsitateko irakasle katedradunen, irakasle zuzendarien edo betiko irakasle edo irakasle katedradunen pisua islatzen du (***Irakasle katedradun edo baliokideen portzentajea***).

- **Baxua**: Unibertsitateko irakasle katedradun edo baliokideen portzentajea %5 edo txikiagoa
- **Ertaina**: Unibertsitateko irakasle katedradun edo baliokideen portzentajea %5 baino handiagoa eta %8 edo txikiagoa
- **Altua**: Unibertsitateko irakasle katedradun edo baliokideen portzentajea %8 baino handiagoa

EKOIZPEN ZIENTIFIKO KOPURUA IRAKASLE BAKOITZEKO

• Ekoizpen zientifiko kopurua irakasle bakoitzeko erakundean: Aldagai honek irakasle bakoitzeko ekoizpen zientifiko maila islatzen du unibertsitate ezberdinetan. Lehenik, unibertsitate bakoitzean 2003. urtearen eta 2007. urtearen artean burututako argitalpen zientifikoen kopuru totala eta irakasleen kopuru totala kontuan izanda irakasle bakoitzeko argitalpen kopurua kalkulatu dugu

erakunde ezberdinetan. Datu hauek erabiliz Espainiako unibertsitateetan irakasle bakoitzeko batez besteko argitalpen kopurua 1,29 dela lortu dugu. Hemen definitutako aldagaiak irakasle bakoitzeko ekoizpen zientifiko kopurua batez besteko horren gainetik eta azpitik duten unibertsitateak desberdintzen ditu (***Ekoizpen zientifiko kopurua irakasle bakoitzeko***).

- **Batez bestekoaren azpitik**: Irakasleko argitalpen kopurua 1,29 edo txikiagoa
- **Batez bestekoaren gainetik**: Irakasleko argitalpen kopurua 1,29 baino handiagoa

EKOIZPEN ZIENTIFIKOAREN KALITATE ERLATIBOA

- Erakundearen argitalpen zientifikoen inpaktua: Aldagai honek unibertsitate bakoitzaren normalizatutako inpaktu indizea 1 baino txikiagoa edo handiagoa den adierazten du (***Argitalpenen inpaktua***).
  - **Baxua**: Normalizatutako inpaktu indizea 1 edo txikiagoa
  - **Altua**: Normalizatutako inpaktu indizea 1 baino handiagoa

IKERKUNTZAREN KALITATEA ALOR ZIENTIFIKO EZBERDINETAN

- Biokimika, genetika eta biologia molekular alorreko ikerkuntzaren batez besteko kalitatea erakundean: Aldagai honek unibertsitate ezberdinetan biokimika, genetika eta biologia molekular alorrean dokumentu bakoitzeko batez besteko aipamen kopurua islatzen du (***Biokimika, genetika eta biologia molekularrean kalitatea***).
  - **Baxua**: Biokimika, genetika eta biologia molekular alorrean dokumentu bakoitzeko batez besteko aipamen kopurua 14 baino txikiagoa
  - **Ertaina**: Biokimika, genetika eta biologia molekular alorrean dokumentu bakoitzeko batez besteko aipamen kopurua 14 eta 17 artean
  - **Altua**: Biokimika, genetika eta biologia molekular alorrean dokumentu bakoitzeko batez besteko aipamen kopurua 17 baino handiagoa
- Medikuntza alorreko ikerkuntzaren batez besteko kalitatea erakundean: Aldagai honek unibertsitate ezberdinetan medikuntza alorrean dokumentu bakoitzeko batez besteko aipamen kopurua islatzen du (***Medikuntzan kalitatea***).
  - **Baxua**: Medikuntza alorrean dokumentu bakoitzeko batez besteko aipamen kopurua 7 baino txikiagoa
  - **Ertaina**: Medikuntza alorrean dokumentu bakoitzeko batez besteko aipamen kopurua 7 eta 9 artean
  - **Altua**: Medikuntza alorrean dokumentu bakoitzeko batez besteko aipamen kopurua 9 baino handiagoa
- Kimika alorreko ikerkuntzaren batez besteko kalitatea erakundean: Aldagai honek unibertsitate ezberdinetan kimika alorrean dokumentu bakoitzeko batez besteko aipamen kopurua islatzen du (***Kimikan kalitatea***).
  - **Baxua**: Kimika alorrean dokumentu bakoitzeko batez besteko aipamen kopurua 11 baino txikiagoa
  - **Ertaina**: Kimika alorrean dokumentu bakoitzeko batez besteko aipamen kopurua 11 eta 13 artean
  - **Altua**: Kimika alorrean dokumentu bakoitzeko batez besteko aipamen kopurua 13 baino handiagoa
- Fisika eta astronomia alorreko ikerkuntzaren batez besteko kalitatea erakundean: Aldagai honek unibertsitate ezberdinetan fisika eta astronomia

alorrean dokumentu bakoitzeko batez besteko aipamen kopurua islatzen du (***Fisika eta astronomian kalitatea***).

- **Baxua**: Fisika eta astronomia alorrean dokumentu bakoitzeko batez besteko aipamen kopurua 6,5 baino txikiagoa
- **Ertaina**: Fisika eta astronomia alorrean dokumentu bakoitzeko batez besteko aipamen kopurua 6,5 eta 8 artean
- **Altua**: Fisika eta astronomia alorrean dokumentu bakoitzeko batez besteko aipamen kopurua 8 baino handiagoa

• Ingeniaritza alorreko ikerkuntzaren batez besteko kalitatea erakundean: Aldagai honek unibertsitate ezberdinetan ingeniaritza alorrean dokumentu bakoitzeko batez besteko aipamen kopurua islatzen du (***Ingeniaritzan kalitatea***).

- **Baxua**: Ingeniaritza alorrean dokumentu bakoitzeko batez besteko aipamen kopurua 5 baino txikiagoa
- **Ertaina**: Ingeniaritza alorrean dokumentu bakoitzeko batez besteko aipamen kopurua 5 eta 7 artean
- **Altua**: Ingeniaritza alorrean dokumentu bakoitzeko batez besteko aipamen kopurua 7 baino handiagoa

• Ekonomia, ekonometria eta finantza alorreko ikerkuntzaren batez besteko kalitatea erakundean: Aldagai honek unibertsitate ezberdinetan ekonomia, ekonometria eta finantza alorrean dokumentu bakoitzeko batez besteko aipamen kopurua islatzen du (***Ekonomia, ekonometria eta finantzatan kalitatea***).

- **Baxua**: Ekonomia, ekonometria eta finantza alorrean dokumentu bakoitzeko batez besteko aipamen kopurua 2,5 baino txikiagoa
- **Ertaina**: Ekonomia, ekonometria eta finantza alorrean dokumentu bakoitzeko batez besteko aipamen kopurua 2,5 eta 3,5 artean
- **Altua**: Ekonomia, ekonometria eta finantza alorrean dokumentu bakoitzeko batez besteko aipamen kopurua 3,5 baino handiagoa

IKERKETA JARDUERA MAILA

• Erakundearen ikerketa jarduera maila: Aldagai honek unibertsitate bakoitzaren ikerketa proiektu kopurua islatzen du (***Ikerketa jarduera maila***).

- **Baxua**: Ikerketa proiektu kopurua 100 edo txikiagoa
- **Altua**: Ikerketa proiektu kopurua 100 baino handiagoa

PATENTE KOPURUA

• Erakundearen patente kopurua: Aldagai honek unibertsitate bakoitzaren patente kopurua baxua edo altua den adierazten du (***Patente kopurua***).

- **Baxua**: Patente kopurua 25 edo txikiagoa
- **Altua**: Patente kopurua 25 baino handiagoa

ESKAINTZAREN ANIZTASUNA

• Erakundearen eskaintzaren aniztasuna: Unibertsitatearen eskaintzaren aniztasuna islatzen du eta handiagoa edo txikiagoa izan daiteke unibertsitate bakoitzak adar ezberdinetan eskaintzen duen titulazio kopuruaren arabera (***Eskaintzaren aniztasuna***).

- **Txikia**: Irakaskuntza adar ezberdinetan titulazio kopuru txikia duten unibertsitateak
- **Handia**: Irakaskuntza adar ezberdinetan titulazio kopuru handia duten unibertsitateak

MATRIKULAREN PREZIOA

• Matrikularen prezioa erakundean: Aldagai honek unibertsitate ezberdinetan ikasketen lehenengo urteko matrikularen batez besteko prezioa baxua edo altua den islatzen du (***Matrikularen prezioa***).

- **Baxua**: Lehenengo urteko matrikularen batez besteko prezioa 1000 euro edo txikiagoa
- **Altua**: Lehenengo urteko matrikularen batez besteko prezioa 1000 euro baino handiagoa

UNIBERTSITATEETAN IRAGARRITAKO EGOITZA UNIBERTSITARIO ETA IKASTETXE NAGUSIEN EDUKIERA

• Unibertsitatearen web orrialdean iragarritako egoitza unibertsitario eta ikastetxe nagusien edukiera: Aldagai hau unibertsitate bakoitzaren web orrialdean iragarrita agertzen diren egoitza unibertsitario eta ikastetxe nagusien leku kopuruaren araberakoa da (***Egoitza eta ikastetxe nagusien edukiera***).

- **Baxua**: Web orrialdean iragarritako egoitza unibertsitario eta ikastetxe nagusien leku kopurua 750 baino txikiagoa
- **Ertaina**: Web orrialdean iragarritako egoitza unibertsitario eta ikastetxe nagusien leku kopurua 750 eta 3500 artean
- **Altua**: Web orrialdean iragarritako egoitza unibertsitario eta ikastetxe nagusien leku kopurua 3500 baino handiagoa

5.KAPITULUA

ATZERRITARREN UNIBERTSITATE MAILAKO IKASKETAK BURUTZEKO ERABAKIA BALDINTZATZEN DUTEN FAKTOREAK

5.1 Sarrera

Lehenengo kapituluan aipatu den moduan, bai Hezkuntzaren Ekonomiaren esparruan eta baita Marketin Unibertsitarioaren arloan ere, posiblea da goi mailako hezkuntzaren eskariaren faktore baldintzatzaileak aztertzen dituzten hainbat lan aurkitzea. Ikerketa hauetako asko zenbait aldagaik gazteen unibertsitate mailako ikasketak burutzeko erabakian duten eragina aztertzeaz arduratzen dira.

Espainian garatutako ikerlanen artean, Modrego (1986), Apodaka, Grao eta Martínez Salazar (1986), Mora Ruiz (1988), Cea D'Ancona eta Mora Ruiz (1992), Latiesa (1989), Salas Velasco (1996), Albert Verdú (1998b) edo Del Olmo Arriagak (2010a) burututakoak nabarmen daitezke, besteak beste. Autore hauek bat datoz zenbait aldagai pertsonal, sozioekonomiko edo akademikok hezkuntza unibertsitarioaren eskarian duten eragina aztertzean.

Kapitulu honetan ere izaera ezberdineko faktoreek goi mailako ikasketen eskarian duten garrantzia aztertzen saiatuko gara. Hala ere, zehaztu beharra dago lan honetan garatutako analisiak Espainian bizi diren atzerritarrek sortutako eskarian jartzen duela arreta.

Hau da, atzerriko populazioaren hainbat ezaugarri pertsonal eta sozioekonomikok unibertsitate ikasketak burutu edo ez burutzeko erabakian duten eragina aztertuko dugu. Analisi hau

garatzeko Biztanleria Aktiboaren Inkestaren[102] datuak erabili ditugu eta probit bitar eredu bat aukeratu dugu.

Albert Verdúk (1998a, 1998b, 1998c, 2000, 2008) adierazitakoaren arabera, goi mailako ikasketen eskaria eta bere bilakaera aztertzerako orduan, Biztanleria Aktiboaren Inkesta, seguruenik, informazio iturri aproposenetako bat da eta abantaila garrantzitsuak eskaintzen ditu beste iturri estatistiko batzuen aldean.

Datu base honek elkarrizketaren aurreko lau asteetan egindako ikasketei buruzko informazioa eta baita gizabanakoen beste ezaugarri pertsonal, akademiko, ekonomiko eta geografikoei buruzko datuak ere eskaintzen ditu. Ondorioz, hemen aurkezten dugun ikerlanean ere datu base hau egokitzat hartu dugu goi mailako ikasketen nazioarteko eskaria aztertzeko.

Bestalde, unibertsitate mailako ikasketen eskaria aztertzen duten hainbat lanetan, hautaketa diskretuko ereduak erabili direla ikus daiteke (Albert Verdú, 1998a; Albert Verdú, 1998b; Albert Verdú, 1998c; Albert Verdú, 2000; Bishop, 1977; Cea D'Ancona eta Mora Ruiz, 1992; De Pablos Escobar, Gil Izquierdo eta Martínez Torres, 2010; Fuller, Manski eta Wise, 1982; Hagy eta Ordovensky Staniec, 2002; Houle eta Ouellet, 1982; Hoy, Christofides eta Cirello, 2001; Kalmijn, 1994; Khon, Manski eta Mundel, 1974; Marcenaro Gutiérrez eta Navarro Gómez, 2001; Martín-Cobos Puebla eta Salas Velasco, 2006; Modrego, 1988;

[102] Biztanleria Aktiboaren Inkesta, gazteleraz, Encuesta de Población Activa, hiru hilabeteko aldizkakotasuna duen eta 1964. urtetik Estatistikako Institutu Nazionalak, gazteleraz, Instituto Nacional de Estadística, burutzen duen ikerketa jarraitua da. Inkesta honen funtsezko helburua lan indarrari buruzko datuak (landunak, langabetuak) eta baita lan merkatutik kanpo dagoen populazioari buruzko informazioa ere (ez aktiboak) jasotzea da.

Montgomery, 2002; Ordovensky Staniec, 1995; Radner eta Miller, 1970; Rahona López, 2006; Spiess eta Wrohlich, 2010; Willis eta Rosen, 1979). Goian adierazi den moduan, ikerketa honetan, probit bitar eredu bat aukeratu dugu banako baten unibertsitate mailako hezkuntza eskatzeko probabilitatea ezaugarri ezberdinen arabera analizatzeko helburuz.

Kapitulu honek, sarrera honetaz gain, beste lau atal dauzka. Hurrengo atalean, analisia burutzeko aukeratutako laginaren ezaugarriak azalduko ditugu eta eredua estimatzeko erabilitako aldagaiak aurkeztuko ditugu. Besteak beste, aukeratutako datuen egokitasuna eta ereduan barneratutako faktoreek goi mailako ikasketen eskaria azaltzerakoan duten garrantzia aipatzen dira.

Hirugarren atalean, probit bitar eredu bat proposatu dugu, atzerritarren goi mailako ikasketen eskaria hainbat aldagairen arabera aztertzeko. Ereduaren ezaugarri nagusiak erakusteaz gain, aldagai independenteen efektu marjinalen esanahia azalduko dugu eta doikuntzaren egokitasuna neurtzeko modu ezberdinak aurkeztuko ditugu.

Eredua estimatu ondoren, laugarren atalean, lortutako emaitzak aztertuko ditugu. Funtsezko helburua atzerritarren unibertsitate mailako ikasketak Espainian burutzeko erabakian faktore ezberdinek duten eragina ebaluatzea da.

Ondorio nagusiak jasotzen dituen atal batek emango dio bukaera kapituluari.

5.2 Datuak eta Aldagaien Deskribapena

5.2.1 Lagina

Ikerlan honetan goi mailako hezkuntzaren eskaria aztertzeko erabili ditugun datuak Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutako Biztanleria Aktiboaren Inkestatik lortu ditugu. Sarreran adierazi dugun bezala, datu base honek eskaintzen dituen abantailen artean, elkarrizketaren aurreko lau asteetan egindako ikasketei buruzko informazioa jasotzeaz gain, banakoen beste ezaugarri pertsonal, akademiko, ekonomiko eta geografikoekin erlazionatutako aldagaiak ere biltzen dituela azpimarratu beharra dago.

Beraz, Biztanleria Aktiboaren Inkesta unibertsitate mailako ikasketen eskaria aztertzeko informazio iturri egokitzat hartu dugu. Zehazki, 2007ko bigarren hiruhilekoko Biztanleria Aktiboaren Inkestari dagozkion datuak analizatu ditugu. Erabilitako fitxategiak lehen etxebizitza[103] espainiar lurraldean kokaturik daukaten 164375 banakori buruzko informazioa barneratzen du. Estimazioak burutzeko helburuz 417 behaketa dituen azpilagin bat bereizi dugu.

Aipatutako azpilagina atzerriko nazionalitatea duten, goi mailako edo maila ertaineko ikasketak dituzten, 16 eta 29 urte arteko adina duten eta lanaldi osoan lan egiten ez duten pertsonek osatzen dute.

[103] Lehen etxebizitza, urte osoan zehar edo urteko egunik gehienetan zehar, ohiko egoitza edo egoitza iraunkor bezala erabiltzen dena da.

Laginean ez dugu espainiar nazionalitatedun banakorik barneratu, analisi honen helburua atzerriko biztanleriak sortutako eskari unibertsitarioa aztertzea baita.

Lanaldi osoan lan egiten duten gizabanakoak ere ez ditugu kontuan hartu, pertsona hauen unibertsitate mailako ikasketak eskatzeko erabakia, ikerketa honetan aztertutako faktoreek baino, beste aldagai batzuek baldintzatzen dutela pentsatu baitugu. Orokorrean, banako hauen erabakia, neurri handi batean, ikasketei eskaintzeko denbora gutxiago izateagatik mugaturik dagoela esan daiteke.

Horrez gain, goi mailako ikasketak burutzeko erabakia normalean 18-29 urteko adin tartean hartzen dela kontsideratu dugu. Behe muga zehazteko unibertsitate mailako irakaskuntzara sarbidea baimentzen duten derrigorrezko ikasketak bukatzeko adin teorikoa 18 urte ingurukoa dela kontuan izan dugu. Hala ere, erabilitako datu basean jasotzen den adina aldagaiak betetako urteak bost urteko taldetan besterik adierazten ez dituenez, adin tartea zabaldu dugu eta 16-29 urteko adin tartean dauden gizabanakoak aukeratu ditugu.

Azkenik, laginean unibertsitate mailako hezkuntza eskatzeko aukera daukaten pertsonak soilik aintzat hartzeko asmoz, maila ertaineko edo goi mailako ikasketak bukaturik dauzkaten banakoak bakarrik hautatu ditugu[104].

[104] Maila ertaineko edo goi mailako ikasketen kategoriaren barruan hurrengo ikasketak barneratu ditugu:

- Batxilergoko irakaskuntza.
- Erdi-mailako lanbide heziketa espezifikoa, arte plastikoen eta diseinuaren irakaskuntza eta kirol irakaskuntza.
- Erdi-mailako musika eta dantza irakaskuntza.
- Bigarren mailako ikasketen bigarren etapako tituluren bat behar duten prestakuntza eta lan merkatuan sartzeko programak.

5.2.2 Aldagaiak

Lehenengo kapituluan giza kapitalaren eredua aipatu dugu. Eredu honen arabera, gizabanakoek hezkuntza maila jakin bat eskuratzea erabakitzen dute hezkuntza horrek beren bizitza osoan zehar sortuko dizkien kostu eta mozkinak kontuan hartuz. Honekin batera, atariko kapituluan, beste faktore sozioekonomiko, pertsonal edo geografikoek unibertsitate mailako hezkuntza eskuratzeko erabakia modu erabakigarri batean baldintzatu dezaketela erakusten duten zenbait azterlan enpirikoren aipamena ere egin dugu.

Hurrengo paragrafoetan, pertsona batek hezkuntza unibertsitarioa eskatzen duen edo ez adierazten duen aldagaia definitzeaz gain, ikerlan honetan goi mailako ikasketen eskariaren baldintzatzaile posible moduan erabilitako aldagaiak aurkezten ditugu. Aldagai azaltzaile hauek lau talde nagusitan sailkatu ditugu: aldagai pertsonalak, familia-aldagaiak, lan-aldagaiak eta aldagai geografikoak.

- Goi-mailako lanbide heziketa espezifikoa eta baliokideak, arte plastikoen eta diseinuaren irakaskuntza eta kirol irakaskuntza.
- Graduondokoak ez diren unibertsitateen berezko tituluak (2 urte edo gehiago).
- Goi-mailako lanbide heziketako titulua behar duten programak (300 ordu edo 6 hilabete baino gehiago).
- Lehen zikloko unibertsitate mailako irakaskuntza eta baliokideak edo lizentziatura bateko 3 ikasturte edo kreditu baliokideak gainditu dituzten pertsonak.
- Lehen eta bigarren zikloko unibertsitate mailako irakaskuntza, bigarren ziklokoa soilik eta baliokideak.
- Lanbide espezializaziorako programa ofizialak.
- Doktorego unibertsitarioa.

5.2.2.1 Goi Mailako Ikasketen Eskaria

Lehenengo eta behin, estimatuko den ereduaren menpeko aldagaia, hau da, **goi mailako ikasketen eskaria,** zehaztu beharra dago. Gizabanakoen unibertsitate mailako ikasketak eskuratu edo ez eskuratzeko erabakiak mugatzen du goi mailako ikasketen eskaria.

Ildo honetan, Biztanleria Aktiboaren Inkestak elkarrizketaren aurreko lau asteetan zehar banakoek egindako ikasketa arautu mailari buruzko informazioa eskaintzen du. Beraz, azterlan honetan pertsona batek goi mailako hezkuntza eskatu duela kontsideratzen da, unibertsitate mailako ikasketak burutzen ari dela adierazten duenean[105].

Unibertsitate mailako hezkuntza eskatu edo ez eskatzeko ebazpena kontuan izanda banakoak elkarrekiko baztertzaileak diren bi taldetan sailka daitezke: goi mailako hezkuntza eskatzen dutenak eta goi mailako hezkuntzarik eskatzen ez dutenak. Ondorengo taulan estimazioa burutzeko erabilitako gizabanakoen lagina banaturik agertzen da aukeratutako alternatibaren arabera.

GOI MAILAKO IKASKETEN ESKARIA LAGINEAN

Aukera	Totala laginean	Ehunekoa
Goi mailako hezkuntza eskatzen du	51	%12,23
Ez du goi mailako hezkuntzarik eskatzen	366	%87,77

[105] Unibertsitate mailako ikasketen kategoriaren barruan hurrengo ikasketak barneratu ditugu:

- Lehen zikloko unibertsitate mailako irakaskuntza eta baliokideak.
- Lehen eta bigarren zikloko unibertsitate mailako irakaskuntza, bigarren ziklokoa soilik eta baliokideak.
- Hirugarren zikloko unibertsitate mailako irakaskuntza.

Aurreko taula behatuz, analisirako erabili den maila ertaineko ikasketak dituzten gazte atzerritarren lagin osotik %12,23k bakarrik aukeratzen duela unibertsitate mailako ikasketak burutzea egiazta daiteke. Hurrengo irudian informazio honen adierazpen grafikoa dago ikusgai.

GOI MAILAKO IKASKETEN ESKARIA LAGINEAN



Hurrengo ataletan gazte atzerritarren goi mailako hezkuntza eskatzeko erabakia baldintzatzen duten faktoreak identifikatzen saiatuko gara. Horretarako, unibertsitate mailako ikasketak burutzeko erabakia azal dezaketen zenbait aldagai aztertu ditugu. Aukeratutako aldagaiek lau kategoria nagusitan taldekatu daitezkeen gizabanakoen ezaugarri ezberdinak islatzen dituzte: ezaugarri pertsonalak, familia-ezaugarriak, lan-ezaugarriak eta ezaugarri geografikoak.

5.2.2.2 Ezaugarri Pertsonalak

Ezaugarri pertsonalen multzoari dagokionez, ikerketa honetan **adina**, **sexua** eta **gizabanakoak Espainian bizitzen daraman urte kopurua** aldagaiak kontsideratu ditugu. Aurrerago aldagai hauek unibertsitate mailako hezkuntza eskuratzerakoan faktore erabakigarriak diren analizatzen ahaleginduko gara.

Lehenik, adin handiagoa izateak goi mailako ikasketak eskatzeko erabakian eragin determinatzailerik duen aztertuko dugu. Zentzuzkoa dirudi urte gehiagoko banakoek ikasten erabilitako denboraren aukera kostuei garrantzi handiagoa ematea. Bestela esanda, arrazoizkoa da adin handiagoko pertsonek ikasten jardutea erabakitzen dutenean dirua irabazteari uko egiten egoteaz kontzienteago izatea.

Honekin lotuta eta Fernández López ek, Neira Gómezek eta Ruzo Sanmartínek (2002) adierazten dutenez, adin handiagoko ikasleek badakite estudiatzen igarotzen duten urte gehigarri bakoitzeko lan merkatuan parte hartzeko urte bat gutxiago daukatela eta intentsitate handiagoz hautematen dituzte ikasten jarraitzearen aukera kostuak. Hortaz, ikerketa honetan adinak goi mailako hezkuntzaren eskarian eragin negatiborik duen egiaztatzen saiatuko gara.

Era berean, kapitulu honetan gizonezkoa edo emakumezkoa izateak unibertsitate mailako ikasketen eskarian duen eragina ere aztertuko dugu. Hainbat egile bat datoz goi mailako hezkuntzan emakumeen proportzioak azken urteetan izan duen joera hazkorra azpimarratzean (Albert Verdú, 2000; Mora Ruiz, 1996a; Rahona López, 2006).

Mora Ruizek (1996a) aurkeztutako azken hamarkadetako datuei so eginez Espainiako unibertsitateetan emakume kopurua nabarmenki handitu dela ondoriozta daiteke. Datu hauen arabera, laurogeigarren hamarkadaren bukaerarako, goi mailako hezkuntzan, emakumezkoen portzentajeak gizonezkoena gainditzen zuen.

Espainiako hezkuntza sisteman emakumeek duten parte hartzeari buruzko duela gutxiagoko datuek ere emakume unibertsitarioen portzentajea altua dela eta gizon unibertsitarioen portzentajearen gainetik egoten jarraitzen duela erakusten dute. 2011/2012 ikasturtean zehar lehen eta bigarren zikloko eta graduko unibertsitate mailako ikasketetan matrikulatutako emakumeen portzentajea %54,2ra heldu zen[106].

Halaber, Europako beste zenbait herrialdetako goi mailako hezkuntza sistemetan ere emakumeen parte hartzean gehikuntzak nabari daitezke. Jarraian aurkezten den taulan, azken hamarkadan zehar hirugarren mailako hezkuntzan matrikulatutako emakumeen portzentajearen bilakaerari buruzko datuak agertzen dira, Europako herrialde ezberdinetarako. Ondoren, Espainiako datuak erabiliz egindako grafikoa ere aurkezten da.

Hirugarren Mailako Hezkuntzan Matrikulatutako Emakumeen Portzentajearen Bilakaera Europako Herrialdeetan

HERRIALDEA	URTEA							
	2002	**2003**	**2004**	**2005**	**2006**	**2007**	**2008**	**2009**
ANDORRA	49,81	48,69	48,64	50,88	53,12	...	57,52	...
AUSTRIA	52,69	52,99	53,33	53,66	53,82	53,69	53,29	53,24
BELGIKA	53,09	53,35	53,81	54,42	54,71	54,95	55,03	54,80
ZIPRE	54,83	49,50	47,92	52,01	50,86	50,11	49,03	46,83
DANIMARKA	57,44	57,92	57,86	57,43	57,36	57,57	58,00	58,24
FINLANDIA	54,09	53,49	53,39	53,55	53,89	54,02	54,22	54,01
FRANTZIA	54,80	55,03	55,04	55,22	55,30	55,30	55,21	55,23
ALEMANIA	...	...	...	...	...	...	...	...
GREZIA	51,25	50,95	51,71	51,11	50,89	50,40	...	...

[106]Hezkuntza Ministerioak Ikasle Unibertsitarioen Estatistikaren Aurrerapenean (2011/2012 ikasturtea) argitaratutako informazioa.

HERRIALDEA	URTEA							
	2002	**2003**	**2004**	**2005**	**2006**	**2007**	**2008**	**2009**
ISLANDIA	63,21	63,66	64,52	64,91	64,35	64,14	64,43	64,28
IRLANDA	55,12	55,72	55,20	54,94	55,14	55,18	54,22	53,93
ITALIA	56,25	56,25	56,21	56,57	56,95	57,24	57,43	...
LIECHTENSTEIN	...	27,05	26,69	28,84	30,35	31,80	33,00	31,70
LUXENBURGO	52,82	53,30	...	...	51,60	...	...	...
MALTA	56,91	56,98	55,89	56,34	...	57,44	57,90	...
HERBEHEREAK	50,70	51,01	50,89	50,99	51,13	51,45	51,65	51,83
NORVEGIA	59,65	59,74	59,58	59,58	59,75	60,25	60,83	61,07
PORTUGAL	57,01	56,60	56,07	55,67	55,21	53,97	53,52	53,35
ESPAINIA	**53,15**	**53,14**	**53,82**	**53,73**	**53,86**	**54,03**	**54,03**	**54,11**
SUEDIA	59,47	59,59	59,55	59,60	59,58	59,92	60,29	60,14
SUITZA	43,27	44,23	44,94	46,04	46,95	47,58	49,27	49,66
BH eta IIko ERRESUMA BATUA	55,24	55,90	57,04	57,20	57,32	57,24	57,22	56,97

Iturria: Egileak moldatua, UNESCOren Estatistika Institutuaren Datu Zentroaren informazioa oinarri hartuta[107].

Hirugarren Mailako Hezkuntzan Matrikulatutako Emakumeen Portzentajearen Bilakaera Espainian



Iturria: Egileak moldatua, UNESCOren Estatistika Institutuaren Datu Zentroaren informazioa oinarri hartuta.

[107] UNESCOren Estatistika Institutuaren Datu Zentroak argitaratutako informazioan Alemaniako datuak eta Europako beste herrialde batzuetako zenbait urtetako datuak erabilgarri ez daudela ikus daiteke.

Goian erakutsitako datuak koherenteak dira Espainiako goi mailako hezkuntzaren eskariari buruzko hainbat ikerlanen emaitzekin. Ikerlan horietan, besteak beste, emakumeen artean unibertsitate mailako hezkuntza eskatzeko probabilitatea handiagoa dela adierazten da (Albert Verdú, 1998a; Albert Verdú, 1998b; Albert Verdú, 1998c; Albert Verdú, 2000; De Pablos Escobar, Gil Izquierdo eta Martínez Torres, 2010; González López-Valcárcel eta Dávila Quintana, 1998; Rahona López, 2006).

Albert Verdúk (2000) eta Rahona Lópezek (2006) emakumeen parte hartzea lan merkatuan aipatzen dute kolektibo honen goi mailako ikasketak burutzeko motibazio gisa. Autore hauen ustez emakumeek ikasketa unibertsitarioak eskatzen dituzte lan merkatuan ahalik eta baldintzarik hoberenetan parte hartu eta lehiatu ahal izateko helburuz.

Honen harira, ikerketa honetan ere lagineko banako bakoitza emakumezkoa edo gizonezkoa den adierazten duen aldagai bat barneratu dugu. Era honetan, atzerriko biztanleriak Espainiako biztanleriarentzat azaldutako joera berdina aurkezten duen eta emakume izateak goi mailako hezkuntzaren eskarian eragin positiborik duen egiaztatu nahi dugu.

Gizabanakoen aldagai pertsonalen artean, aipatutakoez gain, banakoak Espainian bizitzen daraman urte kopurua ere kontsideratuko dugu lan honetan. Zehatzago esanda, faktore honek unibertsitate mailako ikasketak burutzeko erabakian duen efektua aztertuko dugu eta Espainian bizitzen denbora gehiago daramaten atzerritarrek goi mailako hezkuntza eskatzeko probabilitate handiagoa duten egiaztatzen saiatuko gara.

5.2.2.3 Familia-ezaugarriak

Familia-ezaugarrien kategoriak banakoaren ingurune sozioekonomikoarekin erlazionatutako zenbait aldagai barne hartzen ditu, hala nola, **gurasoen hezkuntza maila**, **gurasoen lanbidea**, **kide kopurua familian** edo banakoa **ezkontidearekin edo bikotearekin bizi den edo ez** adierazten duen aldagaia.

Kontsultatutako hezkuntzaren eskariari buruzko hainbat ikerketek agerian jartzen dutenez ikaslea hazi den ingurune soziala erabakigarria da unibertsitate mailako irakaskuntza eskuratzeko ebazpenean. Kalmijnek (1994) garatutako ikerlanean gurasoekin erlazionatutako zenbait aldagai edo jarduerek seme-alaben hezkuntzan duten garrantzia azaltzen da.

Autore honek, lehenik eta behin, seme-alabei kalitate altuko hezkuntza emateko gurasoen baliabide ekonomikoek duten garrantzia azpimarratzen du. Modu berean, gurasoen baliabide kulturalen transmisioa seme-alaben ikasketetarako funtsezkoa dela aipatzen du. Azkenik, egile honen iritziz, gurasoek beren seme-alaben hezkuntzan eragiten dute, helburu profesionalen eta itxaropen sozioekonomikoen eraketa eta txertaketaren bidez. Eskuartean dugun ikerketa honetan ere Kalmijnek aipatutako zenbait aldagaik goi mailako ikasketen atzerriko eskarian duten efektua erakusten saiatuko gara.

Nabarmendu beharra dago, dena den, historikoki aitarekin lotutako aldagaiek amarekin lotutako aldagaiek baino garrantzi handiagoa izan dutela familien estatus sozioekonomikoaren determinazioan eta, hortaz, aitaren hezkuntza eta aitaren lanbidea maiz aldagai azaltzaile moduan erabili diren arren, amaren antzeko

ezaugarriek arreta gutxiago jaso dute (Ordovensky Staniec; 1995). Hala ere, lan honetan, esan bezala, bai aitaren ezaugarriak adierazten dituzten aldagaiak, bai amarekin lotutakoak izango ditugu kontuan.

Unibertsitate mailako ikasketen eskariari buruzko literaturaren barnean askotan aipatzen da gurasoen hezkuntza mailak eskarian duen eragina. Orokorrean, goi mailako hezkuntzaren eskaria eta gurasoen ikasketa mailaren arteko erlazioa positiboa dela ikus daiteke. (Albert Verdú, 1998b; Albert Verdú, 1998c; Albert Verdú, 2000; De Pablos Escobar eta Gil Izquierdo, 2007; De Pablos Escobar, Gil Izquierdo eta Martínez Torres, 2010; Houle eta Ouellet, 1982; Jiménez eta Salas Velasco, 2000; Kalmijn, 1994; Khon, Manski eta Mundel, 1974; Marcenaro Gutiérrez eta Navarro Gómez, 2001; Martín-Cobos Puebla eta Salas Velasco, 2006; Mora Ruiz, 1996b; Rahona López, 2006; Salas Velasco, 1996; Spiess eta Wrohlich, 2010). Zentzuzkoa da pentsatzea ikasketa maila altuko gurasoak dituzten ikasleak haiek ere hezkuntza maila altua eskuratzeko familia-giro lagungarri batean hazten direla[108].

Ikerlan hauetako batzuetan, ikasketa unibertsitarioen eskaria, batez ere, amaren prestakuntza mailak baldintzatzen duela baieztatzen da (Albert Verdú, 1998b; Albert Verdú, 1998c; Albert Verdú, 2000; De Pablos Escobar eta Gil Izquierdo, 2007). Honekin lotuta, Rahona Lópezek (2006) amen ikasketa mailak alaben hezkuntzan eragin handiagoa duela eta aiten ikasketa mailak semeen hezkuntzan eragin handiagoa duela azaltzen du.

[108] Manski, Sandefur, McLanahan eta Powersen (1992) arabera bigarren mailako hezkuntzan graduatzeko probabilitatea nabarmenki handitzen da gurasoen ikasketa mailarekin.

Hala eta guztiz ere, aitaren ikasketen garrantzia azpimarratzen duten azterlanak aurkitzea ere posible da. Houlek eta Ouelletek (1982) aitaren prestakuntza maila Quebeceko goi mailako hezkuntzaren eskaria azaltzeko faktore sozioekonomikorik garrantzitsuena dela adierazten dute, amaren prestakuntza mailaren gainetik.

Modu berean, Illinoiseko estatuko datuak erabiliz, Khonek, Manskik eta Mundelek (1974) garatutako azterlanean aitaren ikasketen eragina amaren ikasketen eragina baino handiagoa dirudiela esaten da. Hala ere, azterlan honetan, analisi bera burutzen da baina Ipar Carolinako estatuko datuak erabiliz eta kasu horretan amaren hezkuntzaren eragina aitaren hezkuntzaren eragina baino garrantzitsuagoa dirudiela esaten da.

Kalmijnek (1994) burututako ikerketak ere merezi du aipatua izatea, izan ere autore honek zuzenean konparatzen ditu, seme-alaben goi mailako ikasketen eskarian aitaren hezkuntza mailak duen efektua eta seme-alaben goi mailako ikasketen eskari horretan amaren hezkuntza mailak sortzen duen efektua. Zentzu horretan, egilearen aburuz, bai aitak eta bai amak diru-sarrerak ekartzen dituzten familietan, amaren hezkuntzaren efektua aitaren hezkuntzaren efektua baino txikiagoa da. Haatik, diferentzia hau ez da esanguratsua eta ezin da baztertu efektu biak berdinak direla adierazten duen hipotesia. Bestalde, familiako sostengatzaile nagusia aita denean, amaren hezkuntza mailak aitaren hezkuntza mailak baino eragin handiagoa du, kasu honetan, diferentzia estatistikoki esanguratsua delarik.

Honen guztiaren harira, kapitulu honetan garatutako analisian, gurasoen ikasketa mailak familiaren kultura maila adierazten duela kontsideratu dugu eta atzerriko biztanleriak sortutako hezkuntza unibertsitarioaren eskarian duen eragina ikertu dugu. Alde batetik, aitak goi mailako ikasketarik egin duen edo ez adierazten duen aldagai dikotomiko baten efektua aztertu dugu eta, bestetik, amak goi mailako ikasketarik burutu duen edo ez adierazten duen beste aldagai dikotomiko baten efektua[109].

Etxeko kultura mailaz gain, ikasketa unibertsitarioen eskaria era erabakigarri batean determinatu dezakeen beste familia-ezaugarri bat familiaren maila ekonomikoa da. Goi mailako hezkuntzaren eskariari buruzko lan enpiriko ugarik etxeko egoera ekonomikoak eskarian duen eragina aztertzen dute (Albert Verdú, 1998b; Albert Verdú, 1998c; Albert Verdú, 2000; Bishop, 1977; De la Rica eta San Martín, 1999; De Pablos Escobar eta Gil Izquierdo, 2007; De Pablos Escobar, Gil Izquierdo eta Martínez Torres, 2010; Fernández López, Neira Gómez eta Ruzo Sanmartín, 2002; Houle eta Ouellet, 1982; Jiménez eta Salas Velasco, 2000; Kalmijn, 1994; Marcenaro Gutiérrez eta Navarro Gómez, 2001; Martín-Cobos

[109] Aitaren edo amaren hezkuntza maila adierazten duten aldagaiei dagokienez, goi mailako ikasketen kategoriaren barruan hurrengo ikasketak barneratu ditugu:

- Goi-mailako lanbide heziketa espezifikoa eta baliokideak, arte plastikoen eta diseinuaren irakaskuntza eta kirol irakaskuntza.
- Graduondokoak ez diren unibertsitateen berezko tituluak (2 urte edo gehiago).
- Goi-mailako lanbide heziketako titulua behar duten programak (300 ordu edo 6 hilabete baino gehiago).
- Lehen zikloko unibertsitate mailako irakaskuntza eta baliokideak edo lizentziatura bateko 3 ikasturte edo kreditu baliokideak gainditu dituzten pertsonak.
- Lehen eta bigarren zikloko unibertsitate mailako irakaskuntza, bigarren ziklokoa soilik eta baliokideak.
- Lanbide espezializaziorako programa ofizialak.
- Doktorego unibertsitarioa.

Puebla eta Salas Velasco, 2006; Modrego, 1988; Mora Ruiz, 1996b; Rahona López, 2006; Salas Velasco,1996; Spiess eta Wrohlich, 2010; Willis eta Rosen, 1979).

Eskari unibertsitarioaz diharduen ikerkuntza miatuz familiaren maila ekonomikoa neurtzeko orduan aukera ezberdinak daudela ikus daiteke. Etxeko egoera ekonomikoa adierazteko sarritan erabiltzen den aldagaietako bat familiaren diru-sarrera maila da. Gisa berean, hainbat lanetan, familiaren diru-sarrerei buruzko daturik ezean, gurasoen lanbidea erabili da etxeko maila ekonomikoa islatzeko.

Orokorrean, familiaren ongizate ekonomiko handiago batek unibertsitate mailako hezkuntzaren eskarian eragin positiboa duela ondoriozta daiteke. Zehazki, zenbait autoreen ustez aitaren lanbidea zuzendari izateak goi mailako ikasketen eskarian positiboki eragiten du (Albert Verdú, 1998c; Albert Verdú, 2000; Martín-Cobos Puebla eta Salas Velasco, 2006; Mora Ruiz, 1996b; Rahona López, 2006).

Ikerketa honetan etxeko egoera ekonomikoak atzerritarren goi mailako ikasketen eskarian duen efektua izango dugu aztergai. Erabili dugun datu baseak gizabanakoen diru-sarrerei buruzko informaziorik eskaintzen ez duenez, familiaren egoera ekonomikoa islatzeko, gurasoen lanbidearekin erlazionatutako bi aldagai hartu ditugu kontuan.

Lehenengoak aitaren lanbide nagusia zuzendari, teknikari eta profesionalen kategoriaren barruan sar daitekeen edo ez adierazten du eta bigarrenak, berriz, ama zuzendaria, teknikaria edo

profesionala den edo ez[110]. Aldagai hauek etxeko diru-sarreren zenbatekoa eta egonkortasun maila agerian jartzeko baliagarri izan daitezkeela kontsideratu dugu.

Familiaren maila kultural eta maila ekonomikoaren efektua aztertzeaz gain, etxebizitzan bizi den pertsona kopuruak goi mailako hezkuntzaren eskarian eraginik duen ere aztertu dugu. Mora Ruizek (1996b) garatutako ikerlanean etxeko kide kopuruaren artean eta derrigorrezko ikasketen ondoko hezkuntza eskatzeko probabilitatearen artean erlazio negatiboa dagoela adierazten da. Era berean, Albaladejo Pinak eta Lafuente Lechugak (2001) burututako ikerketaren arabera etxeko kide kopurua zenbat eta handiagoa izan derrigorrezko ikasketen ondoko hezkuntza eskatzeko probabilitatea txikiagoa da.

Familiaren tamainari dagokionez ere, beste zenbait ikerketek anai-arreba kopuruak hezkuntza unibertsitarioaren eskarian duen eragina aztertu dute (De Pablos Escobar eta Gil Izquierdo, 2007; De Pablos Escobar, Gil Izquierdo eta Martínez Torres, 2010; Houle eta Ouellet, 1982; Kalmijn, 1994; Rahona López, 2006; Spiess eta Wrohlich, 2010; Willis eta Rosen, 1979). Oro har, ikerketa hauen emaitzen arabera, anai-arreba kopuruak efektu negatiboa du goi mailako hezkuntza eskatzeko probabilitatean.

Egile batzuen esanetan, 16 urte baino gutxiagoko anai-arrebekin bizitzeak familiak zama ekonomiko handiago bati aurre egin behar izatea dakar eta honek banakoek ikasketa

[110] Zuzendari, teknikari eta profesionalen kategoriaren barruan hurrengo lanbideak sartu ditugu:
- Enpresen eta administrazio publikoen zuzendaritza.
- Teknikari eta profesional zientifiko eta intelektualak.
- Laguntzako teknikari eta profesionalak.

unibertsitarioak lortzea zailtzen du (De Pablos Escobar eta Gil Izquierdo, 2007; De Pablos Escobar, Gil Izquierdo eta Martínez Torres, 2010; Rahona López, 2006). Hala eta guztiz ere, Marcenaro Gutiérrezek eta Navarro Gómezek (2001) diotenez, anai-arreba nagusiek etxeko zenbait erantzukizun ekonomiko onar ditzakete, horrela, anai-arreba gazteagoek ikasten jarraitzea erraztuz.

Aurrerago aurkezten den goi mailako hezkuntzaren eskariaren eredua estimatzean, familiaren tamaina eta atzerritarren ikasketa unibertsitarioen eskariaren arteko erlazioa aztertzeko asmoz, etxean bizi den pertsona kopurua adierazten duen aldagai kuantitatibo bat kontsideratu dugu.

Kontuan izandako azken familia-aldagaiak gizabanakoa ezkontidearekin edo bikotearekin bizi den edo ez adierazten du. Marcenaro Gutiérrez eta Navarro Gómezen (2001) iritziz, zentzuzkoa da ezkondua egon edo bikotearekin bizitzearen eta goi mailako hezkuntzaren eskariaren artean erlazio negatibo bat itxarotea. Izan ere, pertsona ezkonduek lan merkatuan sartzeko premia handiagoa izan dezakete, etxeko mantenutik eratorritako zama ekonomikoei aurre egin ahal izateko.

Aurreko baieztapena kontuan izanda ezkontidearekin edo bikotearekin bizi ez diren pertsonak ekonomikoki gurasoen menpe daudela uler daiteke. Hau, jakina, beti horrela ez den arren, guztiz arrazoizkoa da, normalean eskari unibertsitarioa aztertzeko aukeratzen den adin tartean, bikotearekin bizi ez diren banako asko gurasoen menpe bizi direla pentsatzea.

Edozein modutan ere, garrantzitsua da azpimarratzea lan honetan aukeratutako laginaren kasuan aurreko argudioak zentzua

galtzen duela. Lehenago esan bezala, lanaldi osoan lan egiten duten pertsonak analisitik kanpo utzi ditugu, ikasketei eskaintzeko denbora gutxiago izateagatik, hain zuzen ere. Egia da, edonola ere, bikotearekin bizi direnak beste familia-zama batzuk izan ditzaketela ikasketa unibertsitarioen eskaria zailtzen dutenak.

Atzerriko biztanleriaren kasuan, ezkontidearekin edo bikotearekin bizitzearen eta goi mailako hezkuntzaren eskariaren artean erlazio esanguratsurik dagoen egiaztatzeko asmoz, banakoa bikotearekin bizi den edo ez adierazten duen aldagai dikotomiko bat erantsi diogu gure ereduari.

5.2.2.4 Lan-ezaugarriak

Lan-ezaugarriei dagokienez, banakoaren lan-egoerarekin erlazionatutako hainbat aldagai izan ditugu kontuan. Zehazkiago, ondoko hauek jasotzen saiatu gara: **jarduerarekin harremana**, **norberak hautemandako jarduera egoera**, **enplegua izateko nahia**, **bilatzen duen enpleguan lanaldi mota**, **lan esperientzia**, **lanbidea**, **lan egiten duen establezimenduaren jarduera** eta **egoera profesionala**.

Aipatutako aldagaiak deskribatu aurretik, esan beharra dago kontsultatutako ikerketa enpiriko ugarik lan merkatuaren egoerarekin erlazionatutako aldagaiak barneratzen dituztela analisian (Albert Verdú, 1998c; Albert Verdú, 2000; De Pablos Escobar eta Gil Izquierdo, 2007; De Pablos Escobar, Gil Izquierdo eta Martínez Torres 2010; Marcenaro Gutiérrez eta Navarro Gómez, 2001; Modrego, 1988).

Normalean, lan merkatuaren egoera adierazteko zenbait langabezia tasa erabiltzen dira eta hauek goi mailako hezkuntzaren eskarian duten eragina aztertzen da. Esate baterako, Albert Verdúk (2000), alde batetik, ikasten jarraitzearen aukera kostua islatzeko, bigarren mailako hezkuntza duten banakoen langabezia tasa neurtzen du eskualde ezberdinetan. Beste alde batetik, hezkuntza unibertsitarioa eskatzen dutenen enplegu itxaropenak neurtzeko asmoz, goi mailako hezkuntza bukatu duten banakoen langabezia tasa jasotzen du eskualde ezberdinetarako.

Eskuartean dugun ikerketan, azaldu beharreko aldagaia atzerriko biztanleriak sortutako ikasketa unibertsitarioen eskaria da. Ondorioz, lan merkatuaren egoerak eskarian duen eragina aztertzeko, autonomia erkidego ezberdinetan, bigarren mailako ikasketak dituzten atzerritarren langabezia tasak eta goi mailako ikasketak dituzten atzerritarren langabezia tasak erabil zitezkeen.

Alabaina, Estatistikako Institutu Nazionalak ez ditu atzerriko populazioaren langabezia tasak bereizketa maila horrekin argitaratzen. Estatistikako Institutu Nazionalak autonomia erkidego ezberdinetarako argitaratzen dituen atzerritarren langabezia tasa orokorrak erabiliz, banako bakoitza atzerritarren langabezia tasa altua, ertaina edo baxua duen eskualde batean bizi den adierazten duten aldagai ezberdinak defini daitezke. Zenbait saiakera burutu ondoren, ez ditugu aldagai mota hauek ereduan barneratu, esanguratsuak ez izateaz gain ez baitute ereduaren aurreikuspen gaitasuna hobetzen.

Esandakoaz aparte, garrantzitsua da kontuan izatea, herrialde batek eskualdeen arteko lan mugikortasun maila altua duenean,

eskualdeen langabezia tasak ez direla egokiak enplegu itxaropenak eta hezkuntza eskatzearen aukera kostuak hurbiltzeko (Albert Verdú, 2000).

Espainian, eskualdeen arteko mugikortasun horrek atzerriko biztanleriaren kasuan espainiar populazioaren kasuan baino eragozpen gutxiago sortzen dituela pentsa daiteke. Beste era batera esanda, baliteke pentsatzea atzerritarrak eskualde batetik bestera lan arrazoiengatik mugitzea erlatiboki errazagoa dela.

Hau guztia dela eta, ereduaren estimazioan, ez ditugu eskualde ezberdinetako lan merkatuaren egoera erakusten duten langabezia tasa bezalako aldagaiak erabili. Zehatzago esanda, ikerketa honetan garatutako analisian, banakoen lan-ezaugarri indibidualei dagozkien aldagaiak bakarrik izan ditugu kontuan.

Hasteko, banakoek jarduerarekin duten harremana adierazten duen aldagai bat erabili dugu. Aldagai honen bidez atzerritarren unibertsitate mailako ikasketen eskaria aztertuko dugu gizabanakoa aktiboen kategorian edo ez aktiboen kategorian sailka daitekeen kontuan izanik[111].

Horrez gain, inkestatuak bere jarduera egoerari buruz duen pertzepzioak goi mailako hezkuntzaren eskarian eragiten duen ere analizatu dugu. Informatzaileek hautematen duten jarduera egoera

[111] Aktiboen kategorian ondoko egoera hauek barneratu ditugu:
- Azpienplegatutako landunak ordu urritasunagatik.
- Gainontzeko landunak.
- Lehen enpleguaren bila dabiltzan langabetuak.
- Aurretik lan egin duten langabetuak.

Ez aktiboen kategorian ondoko egoera hauek barneratu ditugu:
- 1 motako ez aktiboak (gogogabetuak).
- 2 motako ez aktiboak (gogogabetuekin batera aktibo potentzialen taldea osatzen dute).
- 3 motako ez aktiboak (gainontzeko ez aktiboak).

islatzeko bi aldagai dikotomiko sortu ditugu. Lehenengoak inkestatuak lanean dagoen edo ez hautematen duen adierazten du eta besteak banakoak enplegua bilatzen dagoen edo ez ulertzen duen adierazten du.

Beste alde batetik, enplegua izateko nahiak ere unibertsitate mailako ikasketen eskarian efektu esanguratsurik duen edo ez egiaztatzen saiatu gara. Horretarako, banakoak enplegurik izan nahiko lukeen edo ez agerian jartzen duen aldagai dikotomiko bat izan dugu kontuan.

Berebat, elkarrizketatuak bilatzen duen enpleguan izan nahi duen lanaldi mota erakusten duen aldagai bat ere erantsi diogu ereduari. Konkretuki, banakoak bilatutako lanaldi mota partziala den edo ez islatzen duen aldagai bat eratu dugu[112] eta honek ikasketen eskarian duen eragina aztertu dugu.

Lan esperientziak goi mailako hezkuntzaren eskarian duen efektua analizatzeko, ordea, bi aldagai erabili ditugu. Lehenak, inkestaren aurreko urtearen momenturen batean lan egin zuten pertsonak lanik egin ez zutenengandik bereizten ditu eta bigarrenak, enplegurik gabeko pertsonentzat, aurretik lan egin duten edo ez erakusten du.

Banakoaren lanbidearekin erlazionatutako hiru aldagai dikotomiko ere gehitu dizkiogu estimatutako ereduari. Lehenengoak, zuzendari, teknikari eta profesionalen kategoriaren barruan sailka daitezkeen pertsonak bereizten ditu, bigarrenak, langile administrariak desberdintzen ditu eta lanbidearekin lotutako

[112] Lanaldi partziala bilatzen dutenen kategorian, lanaldi osoko enplegua onartuko luketen pertsonak ere barneratu ditugu.

azken aldagaiak, berriz, langile kualifikatu eta ez kualifikatuen kategoriaren barruan sar daitezkeen banakoak identifikatzen ditu[113].

Gainera, pertsonak lan egiten duen establezimenduaren jarduera eta pertsonaren egoera profesionala aditzera ematen duten zenbait aldagai ere barneratu ditugu. Establezimenduaren jarduerari dagokionez, alde batetik, jarduera garraioa den edo ez islatzen duen aldagai bat sortu dugu. Bestetik, jarduera administrazio publikoa, hezkuntza eta osasun jarduerak deritzon kategorian klasifika daitekeen edo ez adierazten duen aldagai bat ere eratu dugu. Bukatzeko, egoera profesionalari dagokionez, banakoa enpresaria den edo ez erakusten duen aldagai dikotomiko bat gehitu diogu analisiari [114].

[113] Aipatutako kategoria bakoitzean barneratutako lanbideak hurrengoak dira:
ZUZENDARIAK, TEKNIKARIAK eta PROFESIONALAK
- Enpresen eta administrazio publikoen zuzendaritza.
- Teknikari eta profesional zientifiko eta intelektualak.
- Laguntzako teknikari eta profesionalak.

ADMINISTRARIAK
- Langile administrariak.

LANGILE KUALIFIKATU eta EZ KUALIFIKATUAK
- Sukaldaritza zerbitzuetako, zerbitzu pertsonaletako eta babes zerbitzuetako langileak eta dendetako saltzaileak.
- Nekazaritza eta arrantzako langile kualifikatuak.
- Artisauak eta manufaktura industrietako, eraikuntzako eta meatzaritzako langile kualifikatuak, instalazio eta makineria operadoreak izan ezik.
- Instalazio eta makineria operadoreak eta muntatzaileak.
- Langile ez kualifikatuak.
- Indar armatuak.

[114] Banakoa enpresaritzat hartu dugu ondoko edozein egoera profesionaletan:
- Soldatapekoak dituen enpresaria.
- Langile independentea edo soldatapekorik gabeko enpresaria.
- Kooperatiba bateko kidea.
- Familiaren enpresa edo negozioan laguntzen du.

5.2.2.5 Ezaugarri Geografikoak

Aurreko aldagai guztiei ezaugarri geografikoekin erlazionatutako zenbait aldagai ere gehitu dizkiegu. Lehenik eta behin, banakoa bizi den **etxebizitzaren kokapena** izan dugu kontuan. Bigarrenik, atzerritarren **jatorriak** unibertsitate mailako hezkuntzaren eskarian eraginik duen ere ikertu dugu.

Beraz, alde batetik, banakoaren etxebizitza Espainiako lurraldearen iparraldean edo hegoaldean kokaturik dagoen agerian jartzen duen aldagai bat definitu dugu[115]. Eta beste alde batetik, banakoen jatorrizko herrialdea munduko zein eskualdetan kokaturik dagoen islatzen duten hainbat aldagai dikotomiko ere definitu ditugu[116].

Laginaren analisi deskriptiboan gizabanakoen jatorriarekin erlazionatutako aldagai guztiak azaldu ditugun arren, ereduaren estimazioan Europako eta Hego Amerikako herrialdeetatik datozen atzerritarrak identifikatzen dituzten aldagaiak soilik sartu ditugu. Banakoaren jatorrizko herrialdearekin lotutako gainontzeko aldagaiak ez ditugu ereduan barneratu. Izan ere, hainbat saiakera

[115] Hurrengo autonomia erkidegoak Espainiako lurraldearen hegoaldean daudela kontsideratu dugu:
- Andaluzia
- Balear Uharteak
- Kanariak
- Gaztela-Mantxa
- Valentziako Erkidegoa
- Extremadura
- Madrilgo Erkidegoa
- Murtziako Eskualdea
- Ceuta
- Melilla

[116] Kapitulu honen eranskinean munduko eskualde bakoitzean barneratutako herrialdeak agertzen dira.

burutuz, hauek barneratzean ereduaren beste aldagai garrantzitsu batzuek esanguratsu izateari uzten diotela edo ereduaren aurreikuspen gaitasuna hobetzen ez dela ikus baitaiteke.

Laburbilduz, atzerritarren goi mailako hezkuntza eskatzeko erabakia determinatu dezaketen faktoreak identifikatzeko asmoz, ereduaren estimazioan izaera ezberdineko zenbait aldagai independente erabili ditugu. Hurrengo taulan ereduari erantsitako aldagai guztien eskema aurkezten da.

Espainiako Goi Mailako Hezkuntzaren Atzerriko Eskariaren Ereduan Erabilitako Aldagaiak

	Aldagaia	Aldagai mota	Kategoriak	Deskripzioa
MENPEKO ALDAGAIA				
	GOI MAILAKO HEZKUNTZAREN ESKARIA	Dikotomikoa	1: GH eskatzen du 0: Ez du GHrik eskatzen	Goi mailako hezkuntzaren eskaria
ALDAGAI INDEPENDENTEAK				
Aldagai pertsonalak	ADINA	Numerikoa		Banakoaren adina betetako bost urteko taldetan adierazita
	SEXUA	Dikotomikoa	1: Gizonezkoa 0: Emakumezkoa	Banakoaren sexua
	URTE KOPURUA ESPAINIAN	Numerikoa		Banakoak Espainian bizitzen daraman urte kopurua
Familia-aldagaiak	AITAK GOI MAILAKO IKASKETAK	Dikotomikoa	1: Aitak goi mailako ikasketak ditu 0: Aitak ez du goi mailako ikasketarik	Aitak goi mailako hezkuntzarik duen adierazten du
	AMAK GOI MAILAKO IKASKETAK	Dikotomikoa	1: Amak goi mailako ikasketak ditu 0: Amak ez du goi mailako ikasketarik	Amak goi mailako hezkuntzarik duen adierazten du
	AITA ZUZENDARIA	Dikotomikoa	1: Aita zuzendaria, teknikaria edo profesionala da 0: Aita ez da zuz., tek. edo prof.	Aitaren lanbide nagusia zuzendaria, teknikaria edo profesionala den adierazten du

	Aldagaia	Aldagai mota	Kategoriak	Deskripzioa
	AMA ZUZENDARIA	Dikotomikoa	1: Ama zuzendaria, teknikaria edo profesionala da 0: Ama ez da zuz., teknik. edo prof.	Amaren lanbide nagusia zuzendaria, teknikaria edo profesionala den adierazten du
	FAMILIAREN TAMAINA	Numerikoa		Etxean bizi den pertsona kopurua
	BIKOTEA	Dikotomikoa	1: Ezkontidea edo bikotea etxebizitzan bizi da 0: Ez du ezkontide edo bikoterik edo ez da etxebizitzan bizi	Banakoa ezkontide edo bikotearekin bizi den adierazten du
Lan-aldagaiak	JARDUERA	Dikotomikoa	1: Aktiboa 0: Ez aktiboa	Banakoak jarduerarekin duen harremana adierazten du
	NORBERAK HAUTEMANDAKO JARDUERA LANEAN	Dikotomikoa	1: Lanean dagoela hautematen du 0: Ez du lanean dagoenik hautematen	Banakoak lanean dagoen hautematen duen adierazten du
	NORBERAK HAUTEMANDAKO JARDUERA ENPLEGUA BILATZEN	Dikotomikoa	1: Enplegua bilatzen dagoela hautematen du 0: Ez du enplegua bilatzen dagoenik hautematen	Banakoak enplegua bilatzen dagoen hautematen duen adierazten du
	NAHIA	Dikotomikoa	1: Enplegua izan nahiko luke 0: Ez luke enplegurik izan nahiko	Banakoak enplegurik izan nahiko lukeen adierazten du
	LANALDI PARTZIALA BILATZEN DU	Dikotomikoa	1: Lanaldi partzialeko enplegua bilatzen du 0: Ez du lanaldi partzialeko enplegurik bilatzen	Banakoak bilatzen duen enpleguaren lanaldi mota partziala den adierazten du
	IAZ LAN EGIN ZUEN	Dikotomikoa	1: Iaz lan egin zuen 0: Iaz ez zuen lanik egin	Banakoak inkestaren aurreko urtearen momenturen batean lan egin zuen adierazten du
	AURRETIK ENPLEGUA	Dikotomikoa	1: Aurretik lan egin du 0: Ez du aurretik lanik egin	Banakoak aurretik lan egin duen adierazten du (orain ez du lanik egiten)
	ZUZENDARIA	Dikotomikoa	1: Lanbidea zuzendaria, teknikaria edo profesionala da 0: Lanbidea ez da zuz., tek. edo prof.	Banakoaren lanbide nagusia zuzendaria, teknikaria edo profesionala den adierazten du

	Aldagaia	Aldagai mota	Kategoriak	Deskripzioa
	ADMINISTRARIA	Dikotomikoa	1: Lanbidea administraria da 0: Lanbidea ez da administraria	Banakoaren lanbide nagusia langile administraria den adierazten du
	BESTE LANGILE MOTA BATZUK	Dikotomikoa	1: Lanbidea langile kualifikatua edo ez kualifikatua da 0: Lanbidea ez da langile kualifikatua ezta ez kualif. ere	Banakoaren lanbide nagusia langile kualifikatua edo ez kualifikatua den adierazten du
	GARRAIOA	Dikotomikoa	1: Establezimenduaren jarduera garraioa da 0: Establezimenduaren jarduera ez da garraioa	Banakoak lan egiten duen establez. jard. garraioa den adierazten du
	ADMINISTRAZIO PUBLIKOA	Dikotomikoa	1: Establezimenduaren jarduera administrazio publikoa da 0: Establezimenduaren jarduera ez da administrazio publikoa	Banakoak lan egiten duen establez. jarduera admin. publikoa, hezkuntza eta osasun jarduerak deritzon kategorian dagoen adierazten du
	ENPRESARIA	Dikotomikoa	1: Egoera profesionala enpresaria da 0: Egoera profesionala ez da enpresaria	Banakoaren egoera profesionala enpresaria den adierazten du
Aldagai geografikoak	HEGOALDEA	Dikotomikoa	1: Etxebizitza Espainiaren hegoaldean dago 0: Etxebizitza ez dago Espainiaren hegoaldean	Etxebizitza Espainiako lurraldearen hegoaldean kokaturik dagoen adierazten du
	EUROPA	Dikotomikoa	1: Europako herrialderen bateko nazionalitatea du 0: Europakoa ez den herrialderen bateko nazionalitatea du	Banakoak Europako herrialderen bateko nazionalitaterik duen adierazten du
	HEGO AMERIKA	Dikotomikoa	1: Hego Amerikako herrialderen bateko nazionalitatea du 0: Hego Amerikakoa ez den herrialderen bateko nazionalitatea du	Banakoak Hego Amerikako herrialderen bateko nazionalitaterik duen adierazten du

Iturria: Egileak moldatua

5.2.3 Analisi Deskriptiboa

Azkenik, eskaria eta aipatutako faktoreen arteko erlazioa aztertzeko erabilitako ereduaren ezaugarri nagusiak azaldu aurretik, laginaren analisi deskriptiboa aurkeztuko dugu. Atal honen funtsezko helburua aukeratutako laginaren oinarrizko ezaugarriak deskribatzea da.

Jarraian agertzen diren tauletan, aldagai azaltzaileen deskribapen labur bat erakusten da. Aldagai bitarren kasuan maiztasun banaketa eskaintzen da unibertsitate mailako hezkuntza eskatzen duten eta eskatzen ez duten pertsonen artean desberdinduz. Aldagai numerikoetarako, berriz, batez bestekoa eta sakabanatzea aurkezten dira kasu honetan ere goi mailako hezkuntzaren eskatzaile eta ez eskatzaileen artean desberdinduz.

Maiztasun Banaketak (%)

Aldagaia	Kategoria	Totala	GH eskatzen dute	Ez dute GHrik eskatzen
SEXUA	Gizonezkoa	%25,659	%27,451	%25,410
	Emakumezkoa	%74,341	%72,549	%74,590
AITAK GOI MAILAKO IKASKETAK	Aitak goi mailako ikasketak	%3,118	%19,608	%0,820
	Aitak ez goi mailako ikasketarik	%96,882	%80,392	%99,180
AMAK GOI MAILAKO IKASKETAK	Amak gm. ikasketak	%5,036	%19,608	%3,005
	Amak ez gm. ikasketarik	%94,964	%80,392	%96,995
AITA ZUZENDARIA	Aita zuzendaria	%2,398	%17,647	%0,273
	Aita ez zuzendaria	%97,602	%82,353	%99,727
AMA ZUZENDARIA	Ama zuzendaria	%1,918	%9,804	%0,820
	Ama ez zuzendaria	%98,082	%90,196	%99,180
BIKOTEA	Bikotea etxebizitzan bizi	%52,518	%9,804	%58,470
	Bikotea ez etxebizitz. bizi	%47,482	%90,196	%41,530
JARDUERA	Aktiboa	%55,156	%35,294	%57,923
	Ez aktiboa	%44,844	%64,706	%42,077
HAUTEMATEA LANEAN	Lanean dagoela h. du	%33,094	%25,490	%34,153
	Ez du lanean dagoenik h.	%66,906	%74,510	%65,847

Aldagaia	Kategoria	Totala	GH eskatzen dute	Ez dute GHrik eskatzen
HAUTEMATEA ENPLEGUA BILATZEN	Enplegua bilatzen dagoela hautematen du	%33,573	%13,725	%36,339
	Ez du enplegua bilatzen dagoenik hautematen	%66,427	%86,275	%63,661
NAHIA	Enpleg. izan nahiko luke	%15,348	%5,882	%16,667
	Ez luke enp. izan nahiko	%84,652	%94,118	%83,333
LANALDI PARTZIALA BILATZEN DU	Lanaldi partzialeko enplegua bilatzen du	%6,715	%9,804	%6,284
	Ez du lanaldi partzialeko enplegurik bilatzen	%93,285	%90,196	%93,716
IAZ LAN EGIN ZUEN	Iaz lan egin zuen	%60,671	%60,784	%60,656
	Iaz ez zuen lanik egin	%39,329	%39,216	%39,344
AURRETIK ENPLEGUA	Aurretik lan egin du	%44,844	%39,216	%45,628
	Ez du aurretik lanik egin	%55,156	%60,784	%54,372
ZUZENDARIA	Zuzendaria	%3,837	%11,765	%2,732
	Ez zuzendaria	%96,163	%88,235	%97,268
ADMINISTRARIA	Administraria	%1,439	%5,882	%0,820
	Ez administraria	%98,561	%94,118	%99,180
BESTE LANGILE MOTA BATZUK	Langile kualifikatua edo ez kualifikatua	%26,139	%7,843	%28,689
	Ez langile kualifikatua edo ez kualifikatua	%73,861	%92,157	%71,311
GARRAIOA	Jarduera garraioa	%0,480	%1,961	%0,273
	Jarduera ez garraioa	%99,520	%98,039	%99,727
ADMINISTRAZIO PUBLIKOA	Jarduera admin. publikoa	%2,398	%5,882	%1,913
	Jarduera ez adm. pub.	%97,602	%94,118	%98,087
ENPRESARIA	Enpresaria	%1,679	%1,961	%1,639
	Ez enpresaria	%98,321	%98,039	%98,361
HEGOALDEA	Etxebizitza hegoaldean	%56,355	%64,706	%55,191
	Etxebizitza ez hegoaldean	%43,645	%35,294	%44,809
EUROPA	Europako herrialderen bateko nazionalitatea	%33,813	%35,294	%33,607
	Europakoa ez den herr. bateko nazionalitatea	%66,187	%64,706	%66,393
HEGO AMERIKA	Hego Amerikako herr. bateko nazionalitatea	%45,564	%39,216	%46,448
	Hego Amerikakoa ez den herr. bateko nazional.	%54,436	%60,784	%53,552

Estatistiko Deskribatzaileak

Aldagaia	TOTALA		GH eskatzen dute		Ez dute GHrik eskatzen	
	Batez bestekoa	Desbideratze estandarra	Batez bestekoa	Desb. est.	Batez bestekoa	Desb. est.
Adina	22,1343	3,16626	20,1569	3,18354	22,4098	3,06841
Urte Kopurua Espainian	3,50839	3,39974	6,45098	5,13153	3,09836	2,86139

Aldagaia	TOTALA		GH eskatzen dute		Ez dute GHrik eskatzen	
	Batez bestekoa	**Desbideratze estandarra**	**Batez bestekoa**	**Desb. est.**	**Batez bestekoa**	**Desb. est.**
Falimiaren Tamaina	3,71463	1,55743	3,62745	1,63659	3,72678	1,54802

Aurreko tauletan agertzen diren datuei erreparatuz gero, goi mailako hezkuntza eskatzen duten banakoak eta goi mailako hezkuntzarik eskatzen ez duten banakoak nahiko ezberdinak direla ikus daiteke. Taulek eskaintzen duten informazio deskriptiboa begiratu besterik ez dago unibertsitate mailako hezkuntza eskatzen duten pertsona atzerritarren artean nabarmentzen diren ezaugarri nagusiei buruzko ideia bat egiteko.

Hurrengo eskemaren bidez goi mailako hezkuntza eskatzen duten atzerritarrei buruzko informaziorik aipagarriena laburtzen saiatu gara. Horrez gain, goi mailako hezkuntzaren eskatzaile eta ez eskatzaileen ezaugarriak eta laginaren osotasunarenak grafikoki konparatu ditugu.

GOI MAILAKO HEZKUNTZA ESKATZEN DUTEN ATZERRRITARREN EZAUGARRI NAGUSIAK

- Unibertsitate mailako hezkuntza eskatzen duten atzerritarren artean goi mailako ikasketak dituen aita daukatenen portzentajea %19,608koa da. Unibertsitate mailako hezkuntzarik eskatzen ez duten atzerritarren artean, ordea, %0,82k bakarrik dauka goi mailako ikasketadun aita.

Aitak Goi Mailako Ikasketak



▪ Unibertsitate mailako ikasleen artean amak goi mailako ikasketak burutu dituen familia batekoak direnen proportzioa ere %19,608koa da. Kasu honetan ez eskatzaileekiko ezberdintasuna zertxobait txikiagoa da, izan ere, hauetatik, goi mailako ikasketak dituen ama daukatenen portzentajea %3,005ekoa baita.

Amak Goi Mailako Ikasketak



▪ Aita zuzendaria duten banakoen garrantzia handiagoa da hezkuntza unibertsitarioa eskatzen dutenen artean hezkuntza unibertsitariorik eskatzen ez dutenen artean baino. Lehenengoen

kasuan aita zuzendaria duten pertsonen portzentajea %17,647koa den bitartean, bigarrenen kasuan %0,273k bakarrik du aita zuzendaria.

Aita Zuzendaria



- Gauza bera gertatzen da ama zuzendaria duten pertsonen portzentajearekin. Egia da, hala ere, aldagai honen kasuan eskatzaile eta ez eskatzaileen arteko diferentzia txikiagoa dela. Ikasle unibertsitarioen artean ama zuzendaria dutenen portzentajea %9,804koa da. Ikasketa unibertsitariorik eskatzen ez dutenen artean, aldiz, ama zuzendaria dutenen portzentajea %0,82koa da.

Ama Zuzendaria



▪ Beste alde batetik, beheko grafikoan agertzen diren datuei erreparatuta, unibertsitate mailako ikasle atzerritarren gehiengoa (%90,196) ez dela bikotearekin bizi ikus daiteke. Unibertsitarioak ez direnen artean, aldiz, kontrakoa gertatzen da, alegia gehiengoa (%58,47) bikotearekin bizi da.

Bikotea Etxebizitzan



▪ Jarduerari dagokionez, unibertsitate mailako hezkuntza eskatzen dutenen taldean gehienak (%64,706) ez aktiboak dira. Goi mailako ikasketarik eskatzen ez dutenen artean, ordea, ez aktiboen portzentajea %42,077koa da.

Jarduera



▪ Zuzendari, teknikari edo profesional diren banakoen pisua handiagoa da goi mailako hezkuntza eskatzen dutenen artean (%11,765) goi mailako hezkuntzarik eskatzen ez dutenen artean baino (%2,732). Gauza bera gertatzen da langile administrariekin, hau da, ikasketa unibertsitarioen eskatzaileen artean administrarien portzentajea %5,882koa den bitartean, ez eskatzaileen artean administrarien portzentajea %0,82koa besterik ez da.

Zuzendaria



Administraria



▪ Ikasle unibertsitarioen batez besteko adina (20,1569 urte) unibertsitarioak ez direnen batez besteko adina (22,4098 urte) baino

zertxobait txikiagoa da. Espainian daramaten batez besteko urte kopurua, aldiz, handiagoa da goi mailako hezkuntza eskatzen duten atzerritarrentzat (6,45098 urte) goi mailako hezkuntzarik eskatzen ez duten atzerritarrentzat (3,09836 urte) baino.

Adina eta Urte Kopurua Espainian



LAGINEKO BANAKOEN JATORRIZKO ESKUALDEA

Laginaren analisi deskriptiboarekin bukatzeko, banakoen jatorriaren araberako banaketa aurkeztuko dugu ondorengo taula eta grafikoetan. Banaketa hau lagineko banako bakoitzaren jatorrizko herrialdea munduko zein eskualdetan kokaturik dagoen kontuan izanda burutu dugu. Ikus daitekeenez goi mailako ikasketen eskatzaile eta ez eskatzaileentzat lortutako emaitzak erakusteaz gain, lagina bere osotasunean kontsideratuz lortutako emaitzak ere agertzen dira.

Jatorrizko Eskualdearen araberako Banaketa[117]

ESKUALDEA	Totala		GH eskatzen dute		Ez dute GHrik eskatzen	
	Atzerritarrak	Portzent.	Atzer.	Portzent.	Atzer.	Portzent.
Europa	141	%33,813	18	%35,294	123	%33,607
Hego A.	190	%45,564	20	%39,216	170	%46,448
Erdialdeko A.	25	%5,995	5	%9,804	20	%5,464
Afrika	50	%11,990	5	%9,804	45	%12,295
Asia eta Oze.	11	%2,638	3	%5,882	8	%2,186
TOTALA	417		51		366	

JATORRIZKO ESKUALDEAREN ARABERAKO BANAKETA

Lagineko Banako Guztiak



Goi Mailako Hezkuntza Eskatzen duten Banakoak



[117] Taulan ez da Ipar Amerikari buruzko informaziorik agertzen laginean ez baitago eskualde horretako jatorria duen banakorik.

Goi Mailako Hezkuntzarik Eskatzen Ez Duten Banakoak



5.3 Goi Mailako Hezkuntzaren Atzerriko Eskariaren Eredu Teorikoa

Hautaketa diskretuko edo erantzun kualitatiboko ereduetan menpeko aldagaiak balio diskretuak hartzen ditu (Amemiya, 1985; Maddala, 1986). Unibertsitate mailako ikasketen eskariarekin erlazionatutako erabakiak aztertzeko ohikoa izaten da mota honetako ereduak erabiltzea. Besteak beste, Albert Verdúk (2000), Cea D'Anconak eta Mora Ruizek (1992), De Pablos Escobarrek, Gil Izquierdok eta Martínez Torresek (2010), Martín-Cobos Pueblak eta Salas Velascok (2006) edo Modregok (1988) burututakoak nabarmen daitezke.

Beckerren (1989) eskutik datorkigun azterlanak goi mailako ikasketen eskaria analizatzeko erabili diren hainbat metodo azaltzen dizkigu. Egileak Estatu Batuetan ikasketa unibertsitarioen eskaria aztertzeko garatu diren hautaketa diskretuko zenbait ikerketen emaitza nagusiak aurkezten ditu. Mora Ruizek (1989), berebat,

hautaketa diskretuko ereduak erabiltzen dituzten lan enpiriko ezberdinei buruzko berrikusketa nahiko osatua eskaintzen digu.

Eredu hauek banakoen ikasketa unibertsitarioak eskuratu edo ez eskuratzearen hautaketa diskretua jasotzen dute eta pertsona batek goi mailako hezkuntza eskatzeko probabilitatea faktore ezberdinen arabera estimatzeko bidea ematen dute. Modu honetan, ikasketa unibertsitarioak eskatzeko erabakia baldintzatzen duten ezaugarriak (batez ere sozioekonomikoak) antzeman daitezke.

Kapitulu honetan garatu dugun ikerketan ere, atzerritarren Espainiako hezkuntza unibertsitarioa eskatu edo ez eskatzeko erabaki bitarra aztertzeko asmoz, hautaketa diskretuko eredu bat erabili dugu. Eredu honen bitartez goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskaria azaldu nahi dugu, atzerritarrekin, beren familiekin eta beren ingurune sozioekonomikoarekin erlazionatutako hainbat aldagai garrantzitsu kontuan izanda. Analisiaren funtsezko helburua goi mailako hezkuntzaren atzerriko eskariaren faktore baldintzatzaileak aurkitzea da.

Aurreko atalean aipatu diren aldagai ezberdinek atzerritarren unibertsitate mailako ikasketak burutzeko erabakian duten eragina etsaminatzeko helburuz probit bitar eredu bat proposatu dugu. Jarraian eredu honen oinarrizko ezaugarriak azaltzen dira.

Ezer baino lehen, banako baten hezkuntza unibertsitarioa eskatu edo ez eskatzeko nahia adierazten duen D_i^* aldagai ezkutua definituko dugu:

$$D_i^* = X_i'\beta + \varepsilon_i$$

X_i ereduan barneratutako aldagai exogenoen bektorea da.

D_i^* aldagaia ez da behagarria, behatzen dena, D_i, aldagai bitar bat da, lagineko atzerritarrek unibertsitate mailako hezkuntza eskatzen duten edo ez adierazten duena, eta hurrengo eran definitzen dena:

$$D_i = \begin{cases} 1 & D_i^* > 0 \quad bada \\ 0 & kontrako \ kasuan \end{cases}$$

Horrela, D_i menpeko aldagaiak 1 balioa hartzen du banakoak goi mailako hezkuntza eskatzen badu eta 0 kontrako kasuan.

Hurrengo eran ere idatz daiteke:

$$D_i = 1(D_i^* > 0) = 1(X_i'\beta + \varepsilon_i > 0)$$

ε_i osagaiak banaketa normal bat jarraitzen baldin badu aurreko ereduari probit bitar izena ematen zaio, eta hurrengoa lortzen da:

$$\Pr(D_i = 1 \mid X_i) = \Pr(D_i^* > 0) = \Pr(X_i'\beta + \varepsilon_i > 0) = \Pr(\varepsilon_i > -X_i'\beta)$$

banaketa normala simetrikoa denez,

$$\Pr(D_i = 1 \mid X_i) = \Pr(\varepsilon_i < X_i'\beta) = \Phi(X_i'\beta)$$

Utilitate aleatorioaren ereduak D_i aldagaiaren interpretazio alternatibo bat eskaintzen du. Ikuspegi honen arabera pertsona bakoitzak unibertsitate mailako ikasketak eskatu edo ez eskatzea hautatzen du aukera bakoitzak ematen dion utilitatea konparatuz.

Demagun u_1^* eta u_0^* aukera bakoitzaren utilitateak direla (goi mailako hezkuntza eskatzearena eta goi mailako hezkuntzarik ez eskatzearena hurrenez hurren) eta hauek ezaugarri behagarrien (X_i) eta ez behagarrien (ε_1 eta ε_0) menpe daudela:

$u_1^* = u_1(X_i) + \varepsilon_1$

$u_0^* = u_0(X_i) + \varepsilon_0$

X_i: aldagai exogenoen bektorea

Banako bakoitzak goi mailako hezkuntza eskatu edo ez eskatzea hautatzen du aukera bakoitzak ematen dion utilitatearen arabera. Beraz, goi mailako hezkuntzaren eskaria (D_i) behatutako aldagaia hurrengo eran defini daiteke:

$$D_i = \begin{cases} 1 & u_1^* > u_0^* \quad bada \\ 0 & k.k. \end{cases}$$

Utilitate aleatorioko eredu lineal bat proposatzen badugu,

$u_1(X_i) = X_i'\beta_1 \qquad u_0(X_i) = X_i'\beta_0$

eta ε_1 eta ε_0 akatsek banaketa normal bat jarraitzen baldin badute, hurrengoa lortzen da:

$$\Pr(D_i = 1 \mid X_i) = \Pr(u_1^* > u_0^*) = \Pr(X_i'\beta_1 + \varepsilon_1 - X_i'\beta_0 - \varepsilon_0 > 0) =$$
$$= \Pr[X_i'(\beta_1 - \beta_0) + \varepsilon_1 - \varepsilon_0 > 0] = \Pr(X_i'\beta + \varepsilon > 0) = \Phi(X_i'\beta)$$

Behin pertsona baten goi mailako hezkuntza eskatzeko probabilitatea definiturik eta lagineko datuak erabiliz, egiantz funtzioa eraiki daiteke eta hau maximizatuz inplikatutako parametroak estima daitezke.

5.3.1 Esangura Indibiduala

Egiantz handieneko metodoaren bidez lortutako estimatzaileek banaketa asintotikoki normal bat jarraitzen dute. Ondorioz, hurrengoa idatz daiteke:

$$\hat{\beta}_j \sim N\left(\beta_j, \text{var}\left(\hat{\beta}_j\right)\right)$$

Aldagai independente batek, bere kabuz, menpeko aldagaiaren portaera azaltzen duen aztertzeko aldebiko kontraste bat erabil daiteke, hipotesi huts eta hipotesi alternatiboa ondoko era honetan planteatuz:

$$H_0 : \beta_j = 0$$

$$H_a : \beta_j \neq 0$$

Aldagai baten esangura indibidualari buruzko kontrastea burutzeko erabiltzen den estatistikoa

$$Z = \frac{\hat{\beta}_j}{\sigma_{\hat{\beta}_j}}$$

da, hipotesi hutsa egia baldin bada, banaketa asintotikoki $N(0,1)$ bat jarraitzen duena.

Jarraian, α ko esangura maila batekin, kontrastea burutzeko erabiltzen den erabaki araua aurkezten da[118]:

[118] Hemen aurkezten den analisian, mota honetako kontrasteak burutzeko, normalean, 0,05eko esangura maila erabili dugu. Hala ere, zenbait aldagairen kasuan 0,10eko esangura maila ere erabili dugu.

- $P\left(\left|\frac{\hat{\beta}_j}{\sigma_{\hat{\beta}_j}}\right| > z\right) < \alpha$ bada, orduan aldagaia esanguratsua ez dela adierazten duen hipotesi hutsa baztertzen dugu.
- $P\left(\left|\frac{\hat{\beta}_j}{\sigma_{\hat{\beta}_j}}\right| > z\right) > \alpha$ bada, orduan ez dugu hipotesi hutsa baztertzen.

5.3.2 Efektu Marjinalak

Behin proposatutako eredua estimatu eta aldagai independenteen esangura aztertu ondoren, efektu marjinalak ere kalkulatzen dira. Efektu hauek kontsideratutako faktore azaltzaileen aldaketek unibertsitate mailako ikasketak eskatzeko probabilitatean duten eragina neurtzen dute.

Lan honetan ikasketen eskaria aztertzeko aurkeztu dugun probit bitarraren kasuan, x_{si} aldagai azaltzaile baten efektu marjinalak x_{si} aldagai horren aldaketa batek D_i ren itxarondako balioan sortutako aldaketa adierazten du. D_i ren itxarondako balioa kalkulatuz ondokoa lortzen da:

$$E(D_i \mid X_i) = 0\Pr(D_i = 0 \mid X_i) + 1\Pr(D_i = 1 \mid X_i) = 0[1 - \Phi(X_i'\beta)] + 1[\Phi(X_i'\beta)] =$$

$$= \Phi(X_i'\beta) = \Pr(D_i = 1 \mid X_i)$$

x_{si} aldagai baten efektu marjinala honako hau litzateke:

$$\frac{\partial E(D_i \mid X_i)}{\partial x_{si}} = \frac{\partial \Phi(X_i'\beta)}{\partial (X_i'\beta)} \frac{\partial X_i'\beta}{\partial x_{si}} = \phi(X_i'\beta)\beta_s$$

$\phi(t)$ dentsitate funtzio normal estandarra delarik.

Goiko adierazpenari so eginez, probit ereduan efektu marjinalak konstanteak ez direla ikus daiteke. Beste era batera esanda, probit ereduan, eredu linealean ez bezala, non efektu marjinalak ereduaren parametroak diren, efektuak ezberdinak dira aldagai independenteen balio ezberdinetarako. Hortaz, efektu hauek aldagai azaltzaileen maila jakin baterako kalkulatu beharko dira. Lan honetan, behaketa guztiak erabiliz lortzen den aldagai azaltzaileen batez besteko baliorako kalkulatu ditugu.

Laburtuz, x_{si} aldagai exogenoaren efektu marjinala banako bakoitzarentzat ezberdina denez, efektu hori lagineko batez besteko banakoarentzat ebaluatuko dugu, hots, gainontzeko aldagai exogenoei beren batez besteko balioa esleituz.

Nolanahi ere, efektu marjinalak ereduaren parametroen berdinak ez diren arren, lortutako espresioan bien zeinua berdina dela ikus daiteke. Ondorioz, aldagai azaltzaile baten efektuaren zeinua bere koefizientearen zeinuaren bidez interpreta daiteke.

Aldagai azaltzaile bitarren kasuan efektu marjinala lortzeko hurrengoa kalkulatzen da:

$$\Pr\left[D_i = 1 \mid \overline{X}_i, d = 1\right] - \Pr\left[D_i = 1 \mid \overline{X}_i, d = 0\right]$$

$\overline{X}_i$ gainontzeko aldagai azaltzaileen batez bestekoekin osatutako bektorea delarik.

5.3.3 Ereduaren Doikuntza Egokitasuna

Hautaketa diskretuko ereduetan, doikuntzaren egokitasuna neurtzeko metodoa nahiko gai eztabaidagarria da, R^2 mugatze koefizientea bezalako proba tradizionalak ez baitira baliagarriak. Erregresio linealean erabiltzen den R^2ren homologo zuzenik ez dagoen arren, hainbat autorek hautaketa bitarreko ereduentzat McFaddenen pseudo R^2a aipatzen dute. (Alamilla López eta Arauco Camargo, 2009; Cook, Kerr eta Moore, 2002; Greene, 2000; Greene, 2007; Hensher eta Johnson, 1981; McFadden, 1974a; McFadden, 1974b Medina Moral, 2003). Estatistiko hau, "egiantzen zatiketa indizea" izenaz ere ezagutzen dena, McFaddenek proposatu zuen 1974. urtean eta honela definitzen da:

$$\text{McFaddenen } R^2\text{a}=\left[1-\frac{LogL(\beta)}{LogL(\beta_0)}\right]$$

$L(\beta)$ eredu osorako kalkulatutako egiantz funtzioaren balioa delarik, hau da, aldagai azaltzaile guztiak kontuan izanda kalkulatutako balioa eta $L(\beta_0)$ murriztutako eredurako egiantz funtzioaren balioa delarik, hots, aldagai azaltzaileen koefizienteak zero direla suposatuz, eta hortaz, ereduan termino konstantea baino ez barneratuz kalkulatutako balioa.

Lortutako ratioak 0 eta 1 arteko balioak hartzen ditu. Balioak 0tik hurbil egoteak $L(\beta)$ eta $L(\beta_0)$ oso antzekoak direla esan nahi du eta ereduan barneratutako aldagaiak ez direla oso esanguratsuak. Hau da, kasu horretan ereduaren gaitasun azaltzailea txikia izango

da. Ereduaren gaitasun azaltzailea zenbat eta handiagoa izan, berriz, kalkulatutako ratioa 1 baliotik hurbilago egongo da (Medina Moral, 2003).

Dena den, kontuan hartzekoa da, Greeneek (2007) dioen moduan, neurri hau ez dela azaldutako bariantzaren proportzio bat. Egile honen aburuz, McFaddenen pseudo R^2ak doikuntza neurri gisa ezaugarri bereziak ditu eta posiblea da zerotik hurbil dauden balioak lortzea nahiko aurreikuspen gaitasun ona daukaten ereduetan. Zentzu honetan, hainbat autore bat datoz 0.2ren gainetik dagoen McFaddenen R^2ren balio bat ereduaren doikuntza egoki baten adierazletzat har daitekeela esatean (Cook, Kerr eta Moore, 2002; Hensher eta Johnson, 1981; McFadden, 1979).

Beste aukera bat ereduaren doikuntza egokitasuna neurtzeko, chi karratuaren estatistikoa erabiliz, ereduaren koefiziente guztiak (konstantea izan ezik) nuluak direla adierazten duen hipotesi hutsa kontrastatzea da. Estatistikoa honela definiturik geratuko litzateke:

$$\chi^2 = 2\left[LogL(\beta) - LogL(\beta_0)\right]$$

Estatistiko honek k-1 askatasun graduko chi karratu banaketa bat jarraitzen du, non k aldagai independente kopuru totala den, konstantea barne. Lortutako estatistikoaren balioa dagokion balio teorikoa baino handiagoa denean hipotesi hutsa baztertzen da eta eredua, bere osotasunean kontsideratuz, esanguratsua dela baiezta daiteke.

Beste alde batetik, lan honetan analisia egiteko erabili dugun programak ereduak menpeko aldagaia zuzenki aurreikusteko duen

gaitasunari buruzko deskripzio bat eskaintzen digu. Deskripzio honen bidez ereduaren aurreikuspen arrakasta aztertu ahal izango dugu. Aurreikuspen araua honela idatz daiteke:

$y_i = 1$ aurreikusi, $\Pr(y_i = 1|\mathbf{X}_i) > 0.5$ bada eta 0 kontrako kasuan

Programak, ereduaren aurreikuspen arrakasta islatzeko, asmatze kopurua eta asmatze portzentajea jasotzen dituen taula bat eskaintzen du. Hau da, taula honek benetan 1 balioa hartzen duten eta 1 bezala aurreikusten diren lagineko behaketa kopurua eta portzentajea eta orobat, 0 balioa hartu eta 0 bezala aurreikusten diren lagineko behaketa kopurua eta portzentajea erakusten ditu.

Gainera, informazio honek emaitzetan agertzen diren beste zenbait indize edo portzentaje marjinal kalkulatzeko bidea ematen du. Ondorengo taulan indize horietako batzuk aurkezten dira:

Doikuntza Egokitasuna Neurtzeko Indizeak

INDIZEA	DEFINIZIOA
Asmatze tasa	Aurreikuspen zuzenen eta aurreikuspen guztien arteko zatidura
Akats tasa	Aurreikuspen okerren eta aurreikuspen guztien arteko zatidura
Espezifikotasuna	0 balio zuzenen maiztasunaren eta behatutako 0 balio guztien arteko proportzioa
Sentikortasuna	1 balio zuzenen eta behatutako 1 balio guztien arteko arrazoia
Zero faltsuen tasa	0 balio okerren maiztasunaren eta behatutako 0 balio guztien arteko proportzioa
Bat faltsuen tasa	1 balio okerren eta behatutako 1 balio guztien arteko arrazoia

Iturria: Medina Moral (2003)

Datozen lerroetan aldagai exogenoen koefizienteak eta efektu marjinalak aurkezteaz gain, ereduaren doikuntza egokitasun neurri ezberdinak aipatuko ditugu. Esan beharra dago, dena den, Gujaratik

(2004) azaldutakoaren arabera, erregresio bitarreko ereduetan doikuntza egokitasunak bigarren mailako garrantzia duela eta interesgarria dena koefizienteen zeinu eta esangura estatistikoa dela.

5.4 Estimazioaren Emaitzak eta Eztabaida

Atal honetan arestian deskribatutako probit bitar eredurako lortutako estimazioak aurkeztuko ditugu[119]. Lehenago azaldu dugun moduan, funtsezko helburua aldagai ezberdinek atzerritarren unibertsitate mailako hezkuntza eskuratzeko erabakian duten eragina aztertzea da. Azpiko tauletan eskaintzen dugun informazioarekin goi mailako hezkuntzaren atzerriko eskaria determinatzen duten faktoreak azter daitezke.

Alde batetik, lehenengo taulan, eskariaren ekuazioaren koefizienteekin batera, ereduaren doikuntza egokitasun neurri batzuk agertzen dira. Beste alde batetik, bigarren taulan, ereduari erantsitako aldagai exogeno bakoitzaren efektu marjinalak aurkezten dira. Azkenik, ereduaren aurreikuspen arrakasta jasotzen duten zenbait taula ere eskaintzen dira.

[119] Ereduaren estimazioa LIMDEP programaren 9.0 bertsioa erabiliz burutu dugu.

GOI MAILAKO HEZKUNTZAREN ATZERRIKO ESKARIAREN EKUAZIOA

PROBIT BITAR EREDUA
Egiantz Handieneko Estimazioak
Menpeko aldagaia: GOI MAILAKO IKASKETEN ESKARIA
Behaketa kopurua: 417
Burututako iterazioak: 8
Log egiantz funtzioa: -76,72339
Parametro kopurua: 26
Log murriztutako egiantz funtzioa: -154,9100
McFaddenen pseudo R karratua: 0,504723
Chi karratua: 156,3733
Askatasun graduak: 25
Prob[Chi karratua>balioa]: 0,0000000

Aldagaia	Koefizientea	Akats estand.	b/Ak.est.	P[|Z|>z]	Xen b. bestekoa
Konstantea	0,71549475	0,93036516	0,769	0,4419	
Adina	-0,02998980	0,04128393	-0,726	0,4676	22,13429
Sexua	-0,26945974	0,27730858	-0,972	0,3312	0,256594
Urte kop. Espainian	0,06603419	0,02976748	2,218	0,0265	3,508393
Aitak gm. ikasketak	1,49657955	0,66654605	2,245	0,0248	0,031175
Amak gm. ikasketak	-0,44935284	0,58563159	-0,767	0,4429	0,050359
Aita zuzendaria	1,40866624	0,79241023	1,778	0,0755	0,023980
Ama zuzendaria	0,52672792	0,74249970	0,709	0,4781	0,019184
Familiaren tamaina	-0,15270994	0,08357659	-1,827	0,0677	3,714628
Bikotea	-1,66306203	0,34957254	-4,757	0,0000	0,525179
Jarduera	-1,44611786	0,54675114	-2,645	0,0082	0,551558
Norberak hautem. jarduera lanean	-1,60891398	1,15787640	-1,390	0,1647	0,330935
Norberak hautem. jard. enp. bilatzen	-0,34064148	0,45365961	-0,751	0,4527	0,335731
Nahia	-1,16654754	0,44902951	-2,598	0,0094	0,153477
Lanaldi partziala bilatzen du	1,09511104	0,46352095	2,363	0,0181	0,067146
Iaz lan egin zuen	0,83000301	0,50429187	1,646	0,0998	0,606714
Aurretik enplegua	-0,22182586	0,53791938	-0,412	0,6801	0,448441
Zuzendaria	2,81798656	1,43514882	1,964	0,0496	0,038369
Administraria	3,46943889	1,46600154	2,367	0,0180	0,014388
Beste langile mota batzuk	0,98516189	1,30864027	0,753	0,45160	0,261390
Garraioa	1,30326836	2,89508572	0,450	0,6526	0,004796
Admin. publikoa	0,29088801	0,66494157	0,437	0,6618	0,023980
Enpresaria	-0,62258955	1,07393967	-0,580	0,5621	0,016786
Hegoaldea	0,18831883	0,26824583	0,702	0,4827	0,563549
Europa	-0,41658210	0,34186946	-1,219	0,2230	0,338129
Hego Amerika	-0,18031106	0,31449770	-0,573	0,5664	0,455635

EFEKTU MARJINALAK

E[y] = F[*]ren deribatu partzialak ezaugarrien bektorearekiko, X aldagaien batez bestekoetan. Batez besteko hauek kalkulatzeko behaketa guztiak erabili dira.

Aldagaia	Koefiz.	Akats est.	b/Ak.est.	P[|Z|>z]	Elastikot.
Konstantea	0,01931302	0,01228504	1,572	0,1159	
Adina	-0,00160973	0,00232463	-0,692	0,4886	-1,577066
Sexua	-0,01278113	0,01303077	-0,981	0,3267	-0,145160
Urte kopurua Espainian	0,00354445	0,00208403	1,701	0,0890	0,550411
Aitak gm. ikasketak	0,26992910	0,22672286	1,191	0,2338	0,372466
Amak gm. ikasketak	-0,01627849	0,01471206	-1,106	0,2685	-0,036285
Aita zuzendaria	0,24414972	0,26379578	0,926	0,3547	0,259149
Ama zuzendaria	0,04654402	0,09894972	0,470	0,6381	0,039522
Familiaren tam.	-0,00819686	0,00486876	-1,684	0,0923	-1,347700
Bikotea	-0,12672553	0,03589577	-3,530	0,0004	-2,945796
Jarduera	-0,11003527	0,06135308	-1,793	0,0729	-2,686298
Norberak hautem. jarduera lanean	-0,06967921	0,05605513	-1,243	0,2139	-1,020649
Norberak haut. jar. enplegua bilatzen	-0,01657518	0,02038030	-0,813	0,4160	-0,246309
Nahia	-0,03269184	0,01406009	-2,325	0,0201	-0,222082
Lanaldi partziala bilatzen du	0,14428548	0,10406342	1,387	0,1656	0,428820
Iaz lan egin zuen	0,04072394	0,02524182	1,613	0,1067	1,093615
Aurretik enplegua	-0,01170919	0,02776373	-0,422	0,6732	-0,232414
Zuzendaria	0,74281376	0,42526863	1,747	0,0807	1,261520
Administraria	0,90165553	0,20857157	4,323	0,0000	0,574230
Beste langile mota batzuk	0,08920909	0,18172271	0,491	0,6235	1,032119
Garraioa	0,21786411	0,89901689	0,242	0,8085	0,046249
Admin. publikoa	0,02058525	0,06017998	0,342	0,7323	0,021849
Enpresaria	-0,01869908	0,01669108	-1,120	0,2626	-0,013893
Hegoaldea	0,00991267	0,01410531	0,703	0,4822	0,247259
Europa	-0,01995296	0,01563609	-1,276	0,2019	-0,298621
Hego Amerika	-0,00956349	0,01675210	-0,571	0,5681	-0,192869

EREDUAREN AURREIKUSPENAK

Hautaketa Bitarreko Ereduaren aurreikuspenak. Lagin osoarekiko portzentajeak.

Benetako balioa	**Aurreikusitako balioa**		**Benetako totala**
	0	**1**	
0	357 (%85,6)	9 (%2,2)	366 (%87,8)
1	23 (%5,5)	28 (%6,7)	51 (%12,2)
Totala	380 (%91,1)	37 (%8,9)	417 (%100,0)

Aurreikuspen arrakasta	
Sentikortasuna: Zuzenki aurreikusitako 1 balioen eta behatutako 1 balio guztien arteko arrazoia	%54,902
Espezifikotasuna: Zuzenki aurreikusitako 0 balioen eta behatutako 0 balio guztien arteko arrazoia	%97,541
Zuzenki aurreikusitako baten portzentajea: Zuzenki aurreikusitako 1 balioen eta 1 bezala aurreikusitako balio guztien arteko arrazoia	%75,676
Zuzenki aurreikusitako zeroen portzentajea: Zuzenki aurreikusitako 0 balioen eta 0 bezala aurreikusitako balio guztien arteko arrazoia	%93,947
Aurreikuspen zuzenak edo asmatze tasa: Aurreikuspen zuzenen eta aurreikuspen guztien arteko arrazoia	**%92,326**
Aurreikuspen akatsa	
Bat okerren portzentajea behatutako zeroen totalarekiko: 1 bezala oker aurreikusitako balioen eta behatutako 0 balio guztien arteko arrazoia	%2,459
Zero okerren portzentajea behatutako bat balioen totalarekiko: 0 bezala oker aurreikusitako balioen eta behatutako 1 balio guztien arteko arrazoia	%45,098
Bat okerren portzentajea aurreikusitako bat balioen totalarekiko: 1 bezala oker aurreikusitako balioen eta 1 bezala aurreikusitako balio guztien arteko arrazoia	%24,324
Zero okerren portzentajea aurreikusitako zeroen totalarekiko: 0 bezala oker aurreikusitako balioen eta 0 bezala aurreikusitako balio guztien arteko arrazoia	%6,053
Aurreikuspen okerrak edo akats tasa: Aurreikuspen okerren eta aurreikuspen guztien arteko arrazoia	**%7,674**

Emaitzen lehenengo taulak aurkezten duen informazioari erreparatuz gero, bai eredua, bere osotasunean kontsideratuz, eta baita ereduaren aldagai independente dezente ere esanguratsuak direla ikus daiteke.

Ereduaren doikuntza egokitasun adierazleei dagokienez, McFaddenen pseudo R karratuak oso onargarria den 0,504723ko balioa aurkezten du. Bestalde, chi karratuaren estatistikoa erabili da ereduaren esangura globala kontrastatzeko. Lortutako balioaren arabera ereduaren koefiziente guztiak (konstantea izan ezik) nuluak direla esaten duen hipotesi hutsa bazter daiteke eta, beraz, eredua ontzat har daiteke. Era berean, aurreikuspen arrakastari buruzko taulak begiratuz ereduaren aurreikuspen gaitasun altuaz ohar gaitezke.

Aztertutako aldagai exogenoen garrantziari dagokionez, aipatu bezala, lehengo taulan ereduari gehitu dizkiogun aldagaietatik asko esanguratsuak direla ikus daiteke. Ondorengo paragrafoetan kontsideratutako ezaugarri talde ezberdinetarako lortutako emaitzarik adierazgarrienak azalduko ditugu.

Aldagai Pertsonalak

Hasteko, ezaugarri pertsonalen multzoan arreta jarriz, banakoak Espainian daraman urte kopurua izan ezik, beste aldagai pertsonalek atzerritarren eskari unibertsitarioan eragin esanguratsurik ez dutela egiazta daiteke. Lortutako emaitzen arabera, adina eta sexua aldagaien koefizienteen zeinua esperotakoa den arren, aldagai hauen eragina ez da estatistikoki esanguratsua.

- Bigarren atalean aldagai pertsonalek ikasketen eskarian duten efektuaz diharduten hainbat ikerketa aipatu ditugu. Besteak beste, Fernández López, Neira Gómez eta Ruzo Sanmartínen (2002) ikerlanaz aritu gara. Lehenago ere adierazi dugunez,

autore hauek adinaren garrantzia azpimarratzen dute ikastearen aukera kostuak determinatzen dituen aldagai bezala. Hau da, adina zenbat eta handiagoa izan, ikasten jarraitzearen aukera kostuak intentsitate handiagoz hautematen dira. Gainera, egile hauen iritziz adinak graduondoko ikasketen kasuan bigarren zikloko ikasketen kasuan baino gehiago areagotzen du aukera kostuei buruzko pertzepzioa.

Aipatutako autoreek hautaketa diskretuko bi eredu estimatzen dituzte. Lehenengo ereduak enpresa zientzien diplomaturako ikasleen goi mailako ikasketak luzatzeko erabakia aztertzen du. Zehazkiago, enpresen administrazioan eta zuzendaritzan lizentziatura eskatzeko erabakian eragina duten faktoreak etsaminatzen ditu. Bigarrenak, enpresen administrazioan eta zuzendaritzan lizentziaturako ikasleen graduondoko ikasketak burutu edo ez burutzeko erabakian eragiten duten aldagaiak analizatzen ditu. Ikerketaren emaitzen arabera adinaren efektu negatiboa graduondoko ikasketen kasuan besterik ez da esanguratsua.

Gure analisian ere, adinak unibertsitate mailako ikasketen eskarian duen eragina aztertu nahi izan dugu. Unibertsitate mailako ikasketen kategorian lehen eta bigarren zikloko irakaskuntzaz gain, hirugarren zikloko irakaskuntza ere barneratu dugu. Goian aurkeztu ditugun emaitzetan ikus daitekeen moduan, adinak goi mailako ikasketen atzerriko eskarian duen efektua negatiboa da. Hala eta guztiz ere, Fernández López,

Neira Gómez eta Ruzo Sanmartínen (2002) ikerketan lizentziaturaren eskariaren kasurako gertatzen den moduan, efektua ez da esanguratsua.

- Sexua aldagaiari dagokionez, lehenago ere esan dugunez, emakumezko izateak Espainiako goi mailako hezkuntzaren eskarian duen eragin positiboa jasotzen duten zenbait azterlan aurki daitezke (Albert Verdú, 1998a; Albert Verdú, 1998b; Albert Verdú, 1998c; Albert Verdú, 2000; De Pablos Escobar, Gil Izquierdo eta Martínez Torres, 2010; González López-Valcárcel eta Dávila Quintana, 1998; Rahona López, 2006).

  Gure ikerketa honetan atzerriko biztanleriari buruzko datuak erabiliz garatutako analisian, ordea, ez ditugu sexuaren araberako diferentzia esanguratsurik antzeman unibertsitate mailako ikasketak burutzeko probabilitatean. Hots, gazte atzerritarren kasurako emakume izateak goi mailako ikasketak eskatzeko probabilitatean positiboki eragiten duen arren, eragin hau ez da esanguratsua.

  Albert Verdúk (2000), unibertsitate mailako hezkuntzan gertatu den emakumeen proportzioaren gehikuntza justifikatzeko, emakumezkoek lan merkatuan lehiatzeko gizonezkoek baino prestakuntza maila altuagoa behar dutela azaltzen du. Gure analisiaren emaitzen arabera, aldiz, atzerriko populazioaren kasurako ez dirudi emakumezkoen artean unibertsitatera joateko behar handiagorik dagoenik gizonezkoen artean baino.

- Adina eta sexua aldagaiak ez bezala, banakoak Espainian daraman urte kopurua modu esanguratsuan eragiten du goi mailako ikasketak burutzeko erabakian. Zehazki, goiko tauletako emaitzei erreparatuz gero, Espainian denbora gehiago daramaten kanpotarrek goi mailako hezkuntza eskatzeko probabilitate handiagoa dutela baiezta daiteke.

  Ondorio hau arrazoizkoa dirudi Espainian denbora gehiago eramateak atzerritarrei Espainiako gizartea eta instituzioak hobeto ezagutzeko aukera ematen diela kontuan izanda. Herrialdea hobeto ezagutzea lagungarri izan daiteke atzerrian ikastea zailtzen duten oztopo mentalak gainditzeko.

Familia-aldagaiak

Beste alde batetik, aurkeztutako emaitzetan, familia-aldagai gehienek atzerritarren unibertsitate mailako ikasketen eskaria azaltzeko garrantzi adierazgarria dutela ikus daiteke.

- Familiaren maila kulturalaren eraginari dagokionez, aitak goi mailako hezkuntza izateak atzerriko eskari unibertsitarioan efektu positibo eta esanguratsua duela nabarmen daiteke. Amaren prestakuntza mailaren kasuan, ordea, lortutako efektuak itxarondakoaren aurkako zeinua duen arren, efektu esanguratsua ez dela ikus daiteke.

Emaitza hauek ez datoz bat Espainiako eskariari buruzko beste zenbait ikerlanetan lortutako ondorioekin (Albert Verdú, 1998b; Albert Verdú, 1998c; Albert Verdú, 2000; De Pablos Escobar eta Gil Izquierdo, 2007). Lehenago ere aipatu ditugun azterlan hauetan amaren hezkuntza mailak ikasketen eskarian sortzen duen eragina aitaren hezkuntza mailak sortzen duena baino handiagoa dela ondorioztatzen da.

Alabaina, gure azterketa honetan bezala, aitaren prestakuntza mailak seme-alaben hezkuntzan duen eragina amaren prestakuntza mailak duena baino handigoa dela ondorioztatzen duten beste ikerketa batzuk ere aipatu izan ditugu (Houle eta Ouellet, 1982; Khon, Manski eta Mundel, 1974).

Aurrekoari lotuta aipamen berezia merezi du Kalmijnek (1994) burututako lanak. Lehenago adierazi dugun bezala, autore honen ustez guraso biek lan egiten duten familietan aitaren hezkuntzaren efektua amarena baino handiagoa izan arren, diferentzia hau ez da esanguratsua. Sostengatzaile nagusia aita den familietan, aldiz, amaren hezkuntza mailak aitarenak baino eragin handiagoa du, kasu honetan, diferentzia esanguratsua delarik.

Egile honek sakontasunez aztertzen du amaren ikasketen eragina. Bere iritziz, amen prestakuntza mailak berebiziko garrantzia du seme-alaben hezkuntzari dagokionez, normalean haiek izaten baitira seme-alabekin denbora gehien igarotzen dutenak. Beraz,

emakumeen rol tradizionala kontuan izanda, amaren baliabide kulturalek aitaren baliabideek baino eragin handiagoa izan beharko luketela pentsa daiteke. Dena den, autoreak dioenez, amaren sozializazio funtzio honek, batez ere, hezkuntzaren lehenengo etapetan hartzen du inportantzia berezia.

Beste alde batetik, egileak emakumeek gizartean duten paperaren aldaketaren inguruko hausnarketa ere burutzen du. Bere esanetan, emakumea lan merkatuan sartu izanak seme-alabekin denbora gutxiago igaro ahal izatea eta beren hezkuntzan eragin gutxiago izatea ekar dezake.

Aurrekoaren kontra, hala ere, autoreak esaten du lan egiten duten emakumeek beren seme-alabekin harreman gutxiago dutela adierazten duen ebidentzia handirik ez dagoela eta horrela izango balitz ere, hau intentsitate handiagoko sozializazio batekin konpentsaturik egon daitekeela. Gainera, egilearen iritziz, arrazoizkoa da pentsatzea ama hauek, beren esperientzia dela eta, kontzienteagoak direla hezkuntzaren balioaz eta beren seme-alabekin duten harremana eraginkorragoa dela. Era berean, egile honek azaltzen duenez, emakumezko eta gizonezkoen rolekiko gero eta berdintasun handiagoko jarrera batek emakumeek beren seme-alaben helburu eta itxaropenetan eragin handiagoa izatea ekar dezake, bereziki beren alaben helburu eta itxaropenetan.

Esandako guztia kontuan izanda, aitaren ikasketen eta amaren ikasketen efektuen intentsitateari dagokionez, adostasunik ez

dagoela ondoriozta daiteke. Gure lanean ikertutako Espainiako populazio atzerritarraren kasuan, aitaren prestakuntza mailak seme-alaben eskari unibertsitarioan eragin positibo eta esanguratsua duen bitartean, badirudi amaren prestakuntza mailak ez duela modu esanguratsuan eragiten.

Emaitza hauek arreta merezi duten interpretazio ezberdinak izan ditzaketen arren, baliteke pentsatzea aztertutako kolektiboko banakoen familiak, oro har, ez tradizionalak direla eta amak etxetik kanpo lan egiten duela. Hortaz, hipotesi hau kontuan izanda, aztertutako pertsonen familietan, amen eta seme-alaben arteko elkarreragina txikiagoa dela eta horrek amen ikasketen eragin txikiagoa dakarrela pentsa daiteke.

Baina, kontuan izan, beste alde batetik, amak lan merkatuan parte hartzen duenean, estatus sozioekonomiko jakin bat lortzeko jarraitu beharreko eredu bezala funtzio garrantzitsua izan dezakeela eta ondorioz, kasu horretan, bere prestakuntza maila erabakigarria izan beharko litzatekeela seme-alaben hezkuntzan.

Azken hau ez da gertatzen hemen aztertutako kolektiboaren kasuan. Aurretik adierazi den ama zuzendarien portzentaje baxuari begiratuta, pertsona hauen amek beren ikasketa mailarekin bat datozen lanpostuak ez dituztela ondoriozta liteke, eta hortaz, ama hauen prestakuntza mailak ez duela eragin esanguratsurik seme-alaben helburu profesionalen eraketan ezta goi mailako ikasketak eskatzeko erabakian ere.

- Beste alde batetik, goian aurkeztutako emaitzetan familiaren maila ekonomikoak atzerritarren unibertsitate mailako hezkuntzaren eskarian positiboki eragiten duela egiazta daiteke. Dena den, kasu honetan ere, gurasoen hezkuntza maila aztertzean gertatzen den bezala, aitaren lanbideak besterik ez du modu esanguratsuan eragiten.

  Aita zuzendaria, teknikaria edo profesionala izateak eragin positibo eta esanguratsua du atzerritarren goi mailako ikasketen eskarian. Ama zuzendaria, teknikaria edo profesionala izateak, ostera, ez du eragin esanguratsurik ikasketen eskarian. Arrazoizkoa da pentsatzea aitaren lanbidea dela batez ere etxeko maila ekonomikoa determinatzen duena eta, ondorioz, seme-alaben ikasketetan efekturik handiena duena.

  Aitaren lanbidearekin erlazionatutako emaitza hau bat dator, Espainiako eskari unibertsitarioaren kasurako, beste zenbait ikerketetan lortutako emaitzekin (Albert Verdú, 1998c; Albert Verdú, 2000; Martín-Cobos Puebla eta Salas Velasco, 2006; Rahona López, 2006). Ikerlan hauetan ere aita zuzendaria izateak eskari unibertsitarioan eragin positiboa duela adierazten da.

- Familiaren tamainari dagokionez, etxebizitzan bizi den pertsona kopuruak ikasketa unibertsitarioen eskarian modu esanguratsuan eragiten duela nabarmen daiteke. Atzerriko biztanleriaren kasuan, etxean kide kopurua zenbat eta handiagoa izan, goi

mailako ikasketak burutzeko probabilitatea txikiagoa dela ikus daiteke.

Emaitza honek bat egiten du Espainiako biztanleriaren kasurako ikerketa enpiriko ezberdinek lortutakoarekin. Bai atzerritarren kasuan, bai Espainiako biztanleriaren kasuan, etxean kide kopuru handiagoak, normalean, familiaren zama ekonomiko handiagoa dakar, eta horrek banakoen goi mailako hezkuntzaren eskaria oztopatu dezake.

- Berebat, ezkontide edo bikotearekin bizitzeak eskarian eragin negatibo eta esanguratsua duela nabari daiteke. Marcenaro Gutiérrez eta Navarro Gómezen (2001) iritziz, zentzuzkoa da erlazio negatibo hori itxarotea, izan ere, bikotearekin bizi diren pertsonek goi mailako hezkuntza eskatzea zailtzen duten familia-zamak izan baititzakete.

Lan-aldagaiak

Lan-ezaugarriei dagokienez, goian aurkeztu ditugun emaitzetan banakoaren lan-egoerarekin erlazionatutako aldagai batzuk esanguratsuak direla ikus daiteke.

- Lehenik, tauletako informazioari so eginez jardueraren eragin negatiboaz ohar gaitezke. Hau da, banakoa aktiboa izateak unibertsitate mailako hezkuntza eskatzeko probabilitatea murrizten du. Modu berean, gizabanakoak enplegua izan nahiko

lukeela erantzun izanak erlazio negatibo eta esanguratsua du goi mailako hezkuntzaren eskariarekin.

- Lanaldi partzialeko enplegua bilatzen egoteak eta elkarrizketaren aurreko urtean lan egin izanak, aitzitik, erlazio positibo eta esanguratsua aurkezten dute goi mailako ikasketen eskariarekin. Hots, bai lanaldi partzialeko enplegua bilatzen egoteak, bai inkestaren aurreko urtean lan egin izanak unibertsitate mailako hezkuntza burutzeko probabilitatea areagotzen dute.

- Aurrekoaz gain, analisi enpirikoak lanbidearekin erlazionatutako aldagai batzuk esanguratsuak direla islatzen du. Koefizienteen taulan eskaini dugun informazioari begiratuta, nabarmen geratzen da zuzendari, teknikari eta profesionalek eta orobat, langile administrariek ikasketa unibertsitarioak eskatzeko probabilitate handiagoa dutela.

Aldagai Geografikoak

- Azkenik, lortutako estimazioetan oinarrituz, etxebizitzaren kokapenarekin eta jatorriarekin erlazionatutako aldagaiek atzerritarren goi mailako hezkuntzaren eskarian eragin esanguratsurik ez dutela ondoriozta daiteke. Hau da, hemen aztertutako aldagai geografikoek atzerritarren ikasketa unibertsitarioak burutzeko erabakia ez dutela modu esanguratsuan baldintzatzen baiezta dezakegu.

EFEKTU MARJINALAK

Goian aurkeztutako emaitzen bigarren taulak efektu marjinalak jasotzen ditu. Efektu hauen zeinua aztertu ditugun koefizienteen zeinua bezalakoa den arren, taula honek efektuen intentsitateari buruzko informazio gehigarria eskaintzen digu.

– Besteak beste, atzerritarrak Espainian daraman urte kopuruaren gehikuntza unitario batek unibertsitate mailako ikasketak eskatzeko probabilitatean 0,00354445eko gehikuntza bat dakarrela ikus daiteke.

– Halaber, aitak goi mailako ikasketak dituela eta aita zuzendaria dela adierazten duten aldagaiek eskarian duten efektu positiboaren intentsitatea oso antzekoa dela nabari daiteke, lehen aldagaiaren kasuan eragina zertxobait handiagoa den arren. Efektu marjinalen taulako datuak aztertuz, argi geratzen da ikasketa unibertsitarioak eskatzeko probabilitatea 0,26992910 unitate handiagoa dela atzerritarrak goi mailako ikasketak dituen aita daukanean. Kanpotarrak aita zuzendaria daukan kasurako efektuaren zeinua berdina da baina efektu horren intentsitatea zertxobait txikiagoa da.

  Beste alde batetik, arestian esan bezala, familiaren tamainak eta ezkontide edo bikotearekin bizitzeak eskarian eragin negatiboa dutela egiazta daiteke. Lehenengo aldagaiaren efektuari so eginez, familiaren tamainaren gehikuntza unitario batek ikasketa unibertsitarioak eskatzeko probabilitatea 0,00819686 unitatetan

murrizten duela uler daiteke. Modu berean, unibertsitate mailako ikasketak eskatzeko probabilitatea 0,12672553 unitate txikiagoa da gizabanakoa bere bikotearekin bizi denean.

– Lan-ezaugarriei dagokienez, aurkeztutako emaitzek aditzera ematen dutenez, atzerritarra aktiboa denean edo enplegua izan nahiko lukeela adierazten duenean ikasketa unibertsitarioak eskatzeko probabilitatea txikiagoa da. Egia da, hala ere, enplegua izateko nahia adierazten duen aldagaiaren kasuan efektu negatiboaren intentsitatea dezente txikiagoa dela.

  Gainontzeko aldagai esanguratsuek eskarian eragin positiboa dute. Nolanahi ere, aldagai bakoitzaren kasuan efektu positibo horren intentsitatea ezberdina da. Esate baterako, bai lanaldi partzialeko enplegua bilatzen egoteak, bai inkestaren aurreko urtean lan egin izanak goi mailako ikasketak eskatzeko probabilitatea handitzen duten arren, eragin positibo hori dezente biziagoa da lehenengo aldagaiaren kasuan.

  Lanbide nagusiarekin erlazionatutako aldagaien kasuan ere, bai zuzendari, teknikari edo profesionala izateak, bai administrari izateak atzerritarren unibertsitate mailako ikasketen eskarian eragin positiboa dutela egiazta daiteke. Baina, horrez gain, aldagai hauen kasuan efektu positibo hori gainontzeko aldagaien kasuan baino handiagoa dela azpimarratu beharra dago.

5.5 Atzerritarren Unibertsitate Mailako Ikasketak Burutzeko Erabakia Baldintzatzen duten Faktoreei buruzko Ondorio Nagusiak

Bosgarren kapitulu honetan gazte atzerritarren unibertsitate mailako ikasketak burutzeko erabakia determinatzen duten faktoreei buruz sakondu nahi izan dugu. Horretarako probit bitar eredu bat estimatu dugu hainbat ezaugarri pertsonal, familia-ezaugarri, lan-ezaugarri eta ezaugarri geografikok kanpotarren erabakian duten eragina aztertuz.

Garatutako lan enpirikoak agerian jartzen duenez, atzerriko biztanleriaren goi mailako ikasketak eskatzeko erabakia, batez ere, familia-faktoreek eta lan-faktoreek baldintzatzen dute. Hala eta guztiz ere, atzerritarrak Espainian daraman urte kopuruak ere modu esanguratsu eta positiboan eragiten du erabaki horretan.

Familia-aldagaiei dagokienez, nabarmendu beharra dago goi mailako ikasketen atzerriko eskaria, neurri handi batean, gizabanako bakoitzaren aitaren hezkuntza maila eta lanbidearen menpe dagoela. Gure azterketa honetan, bai aitak goi mailako hezkuntza izateak eta baita aitaren lanbidea zuzendari izateak ere ikasketa unibertsitarioen eskaria probableagoa egiten dutela egiaztatu ahal izan dugu. Amaren hezkuntza mailak eta lanbideak, ostera, ez dute modu esanguratsuan eragiten atzerritarren goi mailako ikasketen eskarian.

Adierazi beharra dago, dena den, analisi honetan gurasoen hezkuntza mailaren inguruan lortutako emaitzak eta beste ikerketa batzuetan lortutakoak zeharo ezberdinak direla. Zehazki, Espainiako

goi mailako hezkuntzaren eskariari buruz garatutako ikerlan ezberdinek amaren ikasketen eragina aitaren ikasketen eragina baino handiagoa dela baieztatzen dute.

Familiaren tamainak eta ezkontide edo bikotearekin bizitzeak atzerritarren unibertsitate mailako ikasketen eskarian eragin negatibo eta esanguratsua dutela ere azpimarratu beharra dago. Edozelan ere, aldagai hauen efektua aitaren maila kultural eta ekonomikoarekin erlazionatutako aldagaien efektua baino intentsitate txikiagokoa da.

Ikasleen familia-inguruneaz gain, gizabanakoen lan-ezaugarriak ere ikasketa unibertsitarioak eskuratzeko erabakian faktore determinatzaileak direla antzeman daiteke. Lortutako estimazioetan oinarrituz, goi mailako hezkuntzaren atzerriko eskaria, neurri handi batean, gizabanakoaren lanbidearen menpe dagoela baiezta dezakegu. Zehatzago esanda, zuzendari, teknikari edo profesionala izateak eta berebat, langile administraria izateak modu esanguratsuan areagotzen dute unibertsitate mailako ikasketak burutzeko probabilitatea.

Gisa berean, baina neurri apalagoan, banakoaren jarduerak, enplegua izateko nahiak, lanaldi partzialeko enplegua bilatzen egoteak edo inkestaren aurreko urtean lan egin izanak ere atzerriko eskaria determinatzen dutela nabari daiteke. Lehenengo bi aldagaien efektua negatiboa den bitartean, beste bi lan-aldagaiek ikasketak eskatzeko probabilitatea handitzen dute. Intentsitateari dagokionez, aktiboa izateak edo lanaldi partzialeko enplegua bilatzen egoteak eskarian duten eragina aipatutako beste bi aldagaiek duten eragina baino handiagoa dela baiezta genezake.

Hitz gutxitan esanda, atzerriko biztanleriaren kasuan, faktore sozioekonomikoek eskari unibertsitarioa modu erabakigarrian baldintzatzen dutela ondoriozta dezakegu. Bosgarren kapitulu honetan aurkeztu ditugun emaitzak kontuan hartuz begi-bistakoa da maila sozioekonomiko baxuenetako kanpotar gazteek eragozpen handiagoak aurkitzen dituztela unibertsitaterako sarbidean. Halaber, sarrera hesi nabarmenenak etxeko hezkuntza maila eta maila ekonomikoarekin erlazionatutakoak direla baiezta dezakegu.

Esandakoaren harira, badirudi komenigarria izango litzatekeela administrazio publikoek goi mailako hezkuntzaren atzerriko eskaria determinatzen duten alderdi ezberdinak kontuan izatea eta kanpotarren egoera ekonomikoa edozein izanda ere hauen unibertsitaterako sarbidea laguntzen duten politikak ezartzea.

Beste neurri batzuen artean, administrazioak unibertsitate mailako irakaskuntzara zuzendutako beken kopuru eta zenbatekoa areagotu ditzake eta halaber mailegu unibertsitarioen sistema bat ezar dezake kanpoko gazte batzuen baliabide falta leuntzeko.

Bestalde, desberdintasun kulturalak murrizteko, interesgarria izango litzateke ere hezkuntza unibertsitarioa baino lehenagoko etapetan dauden atzerritarrei zuzendutako motibazio politikak diseinatzea, goi mailako hezkuntzak eskaintzen dituen onura eta abantailak azalduz.

Amaitzeko, garrantzitsua da azpimarratzea, atzerriko eskari unibertsitarioaren faktore baldintzatzaileen analisia, aukeren berdintasuna bultzatzen duten politikak diseinatzeko erabilgarria izateaz gain, hezkuntza kudeatzaileek eskaria estimulatzeko

estrategiak garatzerakoan erabil dezaketen balio handiko informazio iturria ere izan daitekeela.

ERANSKINA: Estatistikako Institutu Nazionalaren Biztanleria Aktiboaren Inkesta

ESTATISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALAREN BIZTANLERIA AKTIBOAREN INKESTAREN ARABERAKO HERRIALDEEN TALDEKATZEA

EUROPA

Europar Batasuna-15

Alemania	Irlanda
Austria	Italia
Belgika	Luxenburgo
Danimarka	Herbehereak
Finlandia	Portugal
Frantzia	Erresuma Batua
Grezia	Suedia

Europar Batasuna-25 (ez Europar Batasuna-15)

Zipre	Lituania
Eslovenia	Malta
Estonia	Polonia
Hungaria	Txekiar Errepublika edo Txekia
Letonia	Eslovakiar Errepublika edo Eslovakia

Europako gainontzeko herrialdeak

Albania	Monako
Andorra	Norvegia
Armenia	Errumania
Azerbaijan	Errusia
Bielorrusia	San Marino
Bosnia-Herzegovina	Egoitza Santua
Bulgaria	Suitza
Kroazia	Turkia
Georgia	Ukraina
Islandia	Kosovo
Liechtenstein	Montenegro
Mazedonia	Serbia
Moldavia	Gibraltar

HEGO AMERIKA

Argentina	Paraguai
Bolivia	Peru
Brasil	Uruguai

HEGO AMERIKA

Txile	Venezuela
Kolonbia	Hego Amerikako beste herrialde eta menpeko lurraldeak
Ekuador	

ERDIALDEKO AMERIKA ETA KARIBE

Costa Rica	Mexiko
Kuba	Nikaragua
El Salvador	Panama
Guatemala	Puerto Rico
Haiti	Dominikar Errepublika
Honduras	Erdialdeko Amerika eta Karibeko beste herrialde eta menpeko lurraldeak

IPAR AMERIKA

Kanada	Ipar Amerikako menpeko lurraldeak (Bermuda, Groenlandia, Saint Pierre eta Mikelune)
Ameriketako Estatu Batuak	

ASIA ETA OZEANIA

Ekialdeko Asia (Ekialde Urruna)

Txina, Hong Kong eta Macau barne	Japonia
Ipar Korea	Mongolia
Hego Korea	Taiwan

Mendebaldeko Asia (Ekialde Hurbila)

Saudi Arabia	Siria
Irak	Palestina
Israel	Ekialde Hurbileko beste herr. eta menpeko lur.
Jordania	Siria
Libano	

Hego eta Hego-mendebaldeko Asia

Bangladesh	Thailandia
Kanbodia	Vietnam
Filipinak	Kazakhstan
India	Kirgizistan
Indonesia	Tajikistan
Iran	Turkmenistan
Laos	Uzbekistan
Pakistan	Hego eta Hego-mendebaldeko Asiako beste herrialde eta menpeko lurraldeak
Sri Lanka	

Ozeania

Australia	Ozeaniako beste herrialde eta menpeko lurraldeak
Zeelanda Berria	

AFRIKA

Aljeria	Etiopia
Cabo Verde	Angola
Egipto	Kongoko Errepublika Demokratikoa
Gambia	Kamerun
Ekuatore Ginea	Ghana
Libia	Ginea
Maroko	Ginea Bissau
Senegal	Mali
Hegoafrika	Mauritania
Sudan	Nigeria
Mendebaldeko Sahara	Afrikako beste herrialde batzuk
Tunisia	

6.KAPITULUA

ONDORIO NAGUSIAK

ONDORIO NAGUSIAK

1.- "Europako eremu-efektua", kokapen geografikoa aldagaiaren bidez neurtua, goi mailako hezkuntzaren atzerriko eskari mailan eta eskari horren jatorrian nabarmenki eragiten du. Ildo honetan, iparraldeko eremua, beste zenbait esparru ekonomiko eta sozialetan bezala, gainontzeko eremuak baino erakargarriago suertatzen da nazioarteko eskariaren osotasunarentzat.

2.- Herrialde batetako hezkuntza politika adierazgarria da goi mailako hezkuntzako ikasleen fluxuen konfigurazioa azaltzerakoan. Hezkuntza politikak, herrialde bakoitzean hezkuntzan eta hirugarren mailako hezkuntzan burututako inbertsio mailaren bidez adierazia, eskaintza unibertsitarioaren erakargarritasun mailan eragiten du. Hezkuntzan eta goi mailako hezkuntzan gehien inbertitzen duten herrialdeak erakargarrienak dira nazioarteko ikasleentzat. Hezkuntzan burututako inbertsioak ikasle nazional potentzialen irteera hesi moduan ere joka dezake. Honek hezkuntza politika, ikuspegi lehiakor batetik ikusita, faktore proaktibo bihurtzen du.

3.- Herrialde batetako I+G politika, I+Gean burututako inbertsio mailaren bidez neurtua, modu esanguratsuan eragiten du goi

mailako hezkuntzaren nazioarteko eskarian. I+Gean burututako inbertsio mailaren eta eskari internazionalaren arteko erlazioa positiboa da. Arrazoizkoa da pentsatzea nazioarteko eskariak positiboki baloratzen duela I+Garen eta goi mailako hezkuntzaren arteko erlazioa, eta ondorioz, esparru horretan, aurrekontuari dagokionez, burututako esfortzu handiago edo txikiagoaren seinaleek eskarian portaera paraleloa sortzen dutela.

4.- Aipatutako hiru osagaiak, eremu geografikoa, hezkuntza politika eta I+G politika, "herrialde efektuaren" faktore espezifikotzat har daitezke goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskariaren arloan.

5.- Azterlan honen helburuak kontuan izanda, nazioarteko eskari maila irizpide baliagarria da Espainiako unibertsitateak sailkatzeko. Ez bakarrik ikerketa zientifikoaren ikuspuntutik, baita ikuspegi estrategiko eta kudeaketa ikuspegitik ere, bai unibertsitate bakoitzarentzat, bai erabakitzaile publikoentzat.

Sailkapen horretan unibertsitate bakoitzak duen posizioa begiratzeak erakunde bakoitzak, goi mailako hezkuntzaren esparruan, gaur egun duen nazioarteko lehiakortasun maila objektiboki ezagutzeko aukera ematen du. Gaur egungo globalizazio eta beherakada demografikoko testuinguruan, unibertsitateen nazioarteko eskari maila lehiakortasun aldagai garrantzitsua da. Espainiako unibertsitateen GHEEra atxikitzeak

aurreko baieztapenaren eragina areagotzen du. Zentzu berean jokatzen du aurrekontu publikoen murrizketarako joera sozioekonomiko gero eta handiagoak.

Horrez gain, "nazioarteko eskari maila" kontzeptuaren izaera sintetikoa dela eta, kontzeptu honen araberako sailkapenak unibertsitate bakoitzaren kanpo-arrakastaren intentsitatea erakusten du eta arrakasta horren izaera eta zergatiak modu arrazoituan ikertzeko aukera ematen du.

6.- Zenbait unibertsitate jatorri zehatz batetako ikasleekin lotu daitezke. Zentzu honetan, unibertsitate batzuk jatorri jakin batetako ikasleetan espezializaturik daudela esan dezakegu. Informazio hau aurreko ondorioa garatzeko erabilgarria den arren, ezin dugu baieztatu espezializazio hori unibertsitateen aukera estrategiko baten ondorio denik, ustekabeko espezializazioa izan baitaiteke.

7.- Unibertsitateen zenbait ezaugarri kontrolaezinek unibertsitate horien nazioarteko eskaria nabarmenki baldintzatzen dute. Faktore kontrolaezin ezberdinen garrantzia modu ezberdinean nabarmentzen da eta modu ezberdinean eragiten du unibertsitate mailako hezkuntzaren atzerriko eskarian. Zehazki, unibertsitateen ezaugarri kontrolaezinei buruz, ondokoa baiezta dezakegu:

a) Unibertsitate baten titulartasun publiko edo pribatua unibertsitate horren nazioarteko eskaria azaltzeko faktore esanguratsua da. Aldagai honek ez du zehazten eskari internazionalaren intentsitatea, eta hortaz, ez da ikasle kanpotarrak erakartzeko egindako esfortzu erlatibo ezberdinen adierazle. Hala ere, faktore hau erakundeen orientazio ezberdinak azaltzeko adierazgarria da. Honela, unibertsitate pribatuak bereziki erakargarriak dira Europako eta Ipar Amerikako ikasleentzat. Baliteke ikasle hauek erosketa ahalmen handienekoekin bat egitea, eta ondorioz, unibertsitate pribatuek ikasle hauek erakartzera zuzendutako estrategia bat izatea. Europako ikasleei dagokienez, baliteke ere hauen garrantzia Espainiako unibertsitate pribatuak orokorrean GHEEra lehenago egokitu izanarekin loturik egotea.

b) Erakundearen kokapena Espainian oso aldagai adierazgarria da nazioarteko eskari maila eta eskari horren jatorria azaltzeko. Aldagai honen sendotasuna Espainiako eskualde-aniztasunarekin loturik egon daiteke, eta hortaz, zenbait hirigunek eskaintzen dituzten izaera orokorreko abantailekin ere erlazionaturik egon daiteke. Honela, egitura kosmopolitek erakargarritasun natural bat sortzen dute, ez bakarrik ikusgarriago diren neurrian, baita ikasle atzerritarren egonaldia aberasten eta errazten duten eskaintza kulturalekin, garraio eskaintzekin, eskaintza sozioekonomikoekin eta

orokorrean bizitza kalitatearekin lotutako lurralde eta hiri abantailak eskaintzen dituztelako ere.

c) Unibertsitateek hurbileko ingurunean (autonomia erkidegoan) jasan beharreko konkurrentzia maila nazioarteko eskariarekin positiboki erlazionatutako faktorea da. Baliteke testuinguru horretan erakundeek ikasle internazionalak erakartzeko pizgarri gehiago izatea, joera demografikoak, aukeratzeko joerak eta eskaintzaren pluraltasunak eragindako eskari defizita konpentsatzeko bide moduan. Beste alde batetik, baina zentzu berean, baliteke ere unibertsitateak sentikorragoak izatea tokiko konkurrentziarekiko nazioarteko baldintzek irudikatutako egoerarekiko baino. Hots, indar handiagoz erantzuten diote tokiko egoerari nazioarteko egoerari baino. Azken hau ez dute abagune bat bezala ikusten, baizik eta "bezero" gatibu tradizionala gatibu izateari uzten dionean kontuan hartu beharreko irtenbide posible bat bezala.

d) Antzinatasunarekin lotutako aldagaiari dagokionez, unibertsitateen sorrera urtea ez da adierazgarria goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskari maila azaltzeko. Hala ere, erakundearen antzinatasunak eskari horren jatorria baldintzatzen du. Zehazkiago, 1994. urteaz geroztik sortutako unibertsitateek Europar Batasuneko nazioarteko ikasleak modu berezian erakartzen dituztela antzeman daiteke. Unibertsitate hauetatik gehienak titulartasun pribatua dute eta zentzuzkoa da pentsatzea azken hauek, beren bokazio

estrategikoa dela eta, GHEEra izan duten egokitze azkarrak Europako ikasleekiko orientazio handiagoa sortu ahal izan duela.

e) Unibertsitatearen tamainak nabarmenki baldintzatzen du goi mailako hezkuntzaren eskari internazionala. Dimentsioa enpresa-portaera askoren atzean dagoen aldagai klasikoa da ekonomian. Kasu honetan erakundearen tamainak bere erakargarritasun mailan duen eragin positiboak ikusgaitasunak nazioarteko lehiakortasunean duen garrantzia eta ikusgaitasun hau neurri batean tamainarekin erlazionaturik dagoela berresten du. Gainera, nazioartekotzea, behintzat osagarria, eraginkorra izateko dimentsio minimo bat eskatzen duela iradokitzen du. Arrazoizkoa da pentsatzea dimentsio handiak nazioarteko ikasleen sartzea errazten duela, bai eskala-ekonomiengatik, bai ikasleak integratzeko sortzen diren sinergiengatik.

f) Unibertsitateek ikasketa teknikoetara duten orientazioa eraginkorra da goi mailako hezkuntzaren atzerriko eskari maila azaltzeko. Zehazki, ikasketa teknikoen adarrera orientaturik dauden erakundeek nazioarteko ikasleak erakartzeko gainontzeko erakundeek baino gaitasun txikiagoa aurkezten dute.

Halaber komeni da kontuan izatea Espainiako unibertsitate mailako titulazioen nazioarteko eskaria ikasketen iraupenarekiko eta ikasketa horien irakaskuntza adarrarekiko sentikorra dela.

8.- Modu berean, unibertsitateek kontrola ditzaketen zenbait aldagaik goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskaria nabarmenki baldintzatzen dutela ere egiaztatu ahal izan dugu. Kontrola daitezkeen aldagaien esparruan, ondokoa azpimarra dezakegu:

a) Unibertsitatearen irakasleen kategoriak eragin positiboa du nazioarteko eskari mailan. Horrek eskari internazionala irakaskuntza eskaintzaren "heldutasunarekiko" sentikorra dela adieraz dezake, heldutasun hori katedradunen proportzioaren bidez neurtuta datorrelarik. Baliteke ere aldagai hau erakundearen sendotasuna islatzen egotea, bai soilki ikuspuntu akademikotik, bai ikuspegi estrategiko eta antolaketa-ikuspegitik ere. Hots, katedradunen portzentaje garrantzitsu bat edukitzeko gai den unibertsitatea, hauek sortzeko edo beste testuinguru batzuetatik erakartzeko gaitasuna du, eta honek katedradunak erakarri edo/eta sortzeko estrategia bat duela adierazten du. Antolaketa-ikuspegi batetik, estatus altuagoko giza baliabideei beharrezko euskarria eskaintzeko ahalmena duela eta promozio bideak ezartzeko eta lan indar horren lan-aplikaziorako gaitasuna duela ere ondoriozta daiteke.

Beste alde batetik, irakasleen egonkortasuna nazioarteko eskaria azaltzeko esanguratsua ez izateak aurreko arrazoiketaren alde egiten du.

b) Irakasle bakoitzeko ekoizpen zientifikoaren bolumenak ere, katedradunen proportzioak bezala, unibertsitateen erakargarritasun maila handitzen du. Ikerkuntza zientifikoaren kalitateak nazioarteko ikasleak erakartzeko gaitasunean eraginik ez duela kontuan izanda, badirudi ekoizpen zientifikoaren bolumenak ikusgaitasun global bat sortzen duela, dagokion unibertsitatearen "markaren" onerako jokatzen duena.

c) Era berean, jarduera zientifikoak, ikerketa proiektu kopuruaren bidez neurtua, nazioarteko eskari handiago baten alde jokatzen du. Proiektu kopurua unibertsitateak ingurune instituzionalarekin harremanak izateko duen bizitasuna adierazten egon daiteke, proiektu gehienak lehiaketa-prozeduren bidez lortzen baitira. Gainera, aldagai hau katedradun kopuruarekin eta argitalpen zientifikoen kopuruarekin lotu daiteke. Alde batetik, katedradunek sarritan proiektu lehiakorrak zuzentzen dituzte, eta beste alde batetik, argitalpen zientifikoak proiektu horien produktu espezifikoetako bat izaten ohi dira.

d) Eskaintzaren esparru klasikoari dagokionez, prezioa jatorri jakin batzuetako ikasleen garrantzia azaltzeko besterik ez dela adierazgarria esan dezakegu. Zentzuzkoa da pentsatzea

errenta maila baxuagoko nazioarteko eskualdeetatik datozen ikasleen eskarian prezioak eragin negatiboa duela eta errenta altuagoko nazioarteko eskualdeetako ikasleentzat, ordea, prezio altu bat erakargarria izan daitekeela.

e) Unibertsitateen eskaintzaren aniztasuna ez da esanguratsua goi mailako hezkuntzaren eskari internazionala zehazterakoan.

f) Unibertsitateek iragarritako egoitza unibertsitario eta ikastetxe nagusien edukiera, aitzitik, nabarmenki baldintzatzen du nazioarteko eskari maila. Hau da, eskari internazionala finkapen eta kokapen erraztasunekiko sentikorra da, alderdi ulergarria, aztertutako populazioa zein den kontuan izanda.

9.- Gizabanakoen portaeraren ikuspuntu batetik, Espainiako atzerriko biztanleen zenbait ezaugarrik biztanle horiek Espainian burutzen duten goi mailako hezkuntzaren eskarian nabarmenki eragiten dutela baiezta dezakegu. Zehazki, ikertutako aldagai indibidual ezberdinei dagokienez, ondokoa azpimarra dezakegu:

a) Goi mailako hezkuntza eskatzeko erabakia zehazterakoan adina eta sexua aldagai garrantzitsuak ez diren arren, atzerritarrek Espainian bizitzen daramaten urte kopurua aldagai adierazgarria da. Beharbada, goi mailako hezkuntzaren esparruan genero diferentzien gainditzea unibertsalagoa den zerbait da, eta beraz, sexua ez da aldagai

baliagarria gizabanakoen portaera bereizteko. Gauza bera gertatzen da adinarekin, goi mailako hezkuntza, giza kapitalaren gehikuntzarako prestakuntza-ondasun baten ezaugarrietatik haratago, kasu askotan, ondasun kultural bat baita. Bestalde, Espainian bizitzen igarotako urte kopuruak erakunde unibertsitarioaren "in situ" ezagutza efektu bat sortzen du eta honek gizabanakoa unibertsitatean murgiltzea errazten du.

b) Familia-ezaugarriek gizabanakoen portaera zehazten dute goi mailako hezkuntza eskatzeko erabakiari dagokionez. Honela, aitaren ikasketa mailak eskarian eragin positiboa sortzen du. Beharbada, deigarriena amaren ikasketen eragin eza da. Portaera honen arrazoiak zeintzuk diren jakitea zaila den arren, badirudi, lortutako emaitzen arabera, atzerriko biztanleriarentzat ikasketen arloan mobilizatzeko familia-erreferentzia aita dela.

Esparru ekonomikoan gauza bera gertatzen da. Baiezta dezakegu faktore ekonomikoa, gurasoen lanbidearen bidez neurtua, aitaren kasuan bakarrik dela esanguratsua eta ez amaren kasuan. Honela, aita zuzendaria izateak modu positiboan eragiten du unibertsitate mailako hezkuntza eskatzeko erabakian.

Familiaren kide kopuruak, berriz, unibertsitate mailako ikasketen arloan mobilizatzeko joeraren kontra jokatzen du. Zentzuzkoa dirudi pentsatzea etxeko kide kopuru handiago

batek mobilizatu nahi duen banakoaren eskura dauden baliabide kuantitatibo eta kualitatibo unitarioak murrizten dituela.

Bestalde, ezkontidearekin edo bikotearekin bizitzeak ere eragina du Espainiako nazioarteko biztanleriaren goi mailako hezkuntza eskatzeko erabakian. Zentzu honetan, beren bikotearekin bizi diren pertsonek unibertsitatera joateko joera txikiagoa aurkezten dute. Baliteke bikotearekin bizi diren banakoek unibertsitateko zereginetan aritzeko askatasun maila txikiago bat hautematea, bai onartutako erantzukizun afektiboengatik, bai erantzukizun afektibo hauetatik eratorritako lan erantzukizunengatik.

c) Lan arloarekin erlazionatutako aldagaien multzotik gizabanakoaren lanbidea nabarmendu beharra dago daukan eraginagatik. Zentzu honetan, zuzendaritza-izaera edo izaera administratiboa duten lanbideak goi mailako ikasketak eskatzeko probabilitatearekin positiboki erlazionaturik daude. Jokabide hau metatutako giza kapitala eta lanaren izaerak baldintzatutako itxaropenak islatzen egon daiteke.

Beste alde batetik, azpimarratzekoa da ere lan-jarduerak unibertsitate mailako ikasketak eskatzeko portaeran duen eragin negatiboa. Modu orokor eta agregatu batean esan dezakegu lanak berez eragin baino goi mailako ikasketak burutzeko jarrera subjektibo bat ez izateak eragiten duela.

Hala ere, lanaldi partzialeko enplegua bilatzen daudenak eta inkestaren aurreko urtean lan egin zutenak goi mailako ikasketak egiteko joera handiagoa agertzen dutela baiezta dezakegu. Honek garapen profesional eta pertsonalerako itxaropenek bultzatutako lanbide-eskari bat dagoela islatzen du.

Ez pertsonek lan egiten duten establezimenduaren jarduera, ezta banakoa enpresaria izatea ere, ez dira garrantzitsuak goi mailako hezkuntza eskatzeko erabakia azaltzerako orduan.

d) Bestalde, ez etxebizitzaren kokapenak, ezta atzerriko biztanleriaren jatorriak ere, ez dute inolako portaera esanguratsurik zehazten. Aldagai hauen nabarmentasun ezaren atzean aztertutako kolektiboaren aniztasuna eta zabaltasuna egon daitezke. Aldagai biek erabat desberdindutako eremu geografikoak bereizten dituzten arren, eremu horietako bakoitza nahikoa handia da portaera indibidual ezberdinak jasotzeko.

Taula eta Grafikoen Aurkibidea

TAULEN AURKIBIDEA

TAULAK	ITURRIAK	Orr.
1. KAPITULUA: Goi Mailako Hezkuntzaren Eskariaren Analisirako Eremu Teorikoa eta Ikerketaren Helburua		
Goi mailako hezkuntzaren eskarian eragina duten faktoreak	Mora Ruiz (1989)	35
Unibertsitate mailako ikasketa eta ikastegien hautaketaren faktore azaltzaileak	Unibertsitateen Kontseilua (1987)	40
Eredu kronologikoetan erabilitako aldagai azaltzaile nagusien eragina hezkuntzaren eskarian	Mora Ruiz (1989)	41
Eredu espazialetan erabilitako aldagai azaltzaile nagusien eragina hezkuntzaren eskarian	Mora Ruiz (1989)	42
Ezaugarri pertsonalen azterketa ereduetan erabilitako aldagai azaltzaile nagusien eragina hezkuntzaren eskarian	Mora Ruiz (1989)	43
Hezkuntza-aukerak erabakitzen dituzten faktoreak	Jiménez eta Salas Velasco (2000)	47
Goi mailako hezkuntzaren hautaketa eredu garaikidea herrialde garatuentzat	Vrontis, Thrassou eta Melanthiou (2007)	60
Hezkuntza-hautaketaren faktore erabakigarriak	Del Olmo Arriaga (2010b)	61
Unibertsitatearen hautaketa faktoreak	Del Olmo Arriaga (2010b)	62
Erakunde bat hautatzeko faktore erabakigarriak	Chen (2008)	81
Diziplina matrizea	Egileak moldatua	94
Espainiako goi mailako hezkuntzaren nazioarteko eskariaren faktore erabakigarriak	Egileak moldatua	110
2. KAPITULUA: GHEEko Herrialdeetako Hirugarren Mailako Ikasketen Nazioarteko Eskaria		
Mugikortasuna GHEEko herrialdeetan (2006)	UNESCO	125
Nazioarteko ikasleriaren jatorria GHEEko herrialdeetan (2006)	Egileak moldatua (UNESCO)	128
3. KAPITULUA: Espainiako Unibertsitate Mailako Hezkuntzaren Nazioarteko Eskariari buruzko Deskribapena		
Espainiako unibertsitate mailako ikasketen eskariaren bilakaera	Hezkuntza Ministerioa	190
Atzerriko populazio gaztea Espainian	Estatistikako Instit. Nazionala	195
Lehen eta bigarren zikloan matrikulatutako ikasle kanpotarrak irakaskuntza adarra eta jatorriaren arabera	Egileak moldatua (Hezk. Minist.)	200
Nazioarteko eskari mailaren araberako titulazio taldeak	Egileak moldatua	211
Nazioarteko eskariaren jatorriaren araberako titulazio taldeak	Egileak moldatua	219
Nazioarteko eskari mailaren araberako unibertsitate taldeak	Egileak moldatua	227
Unibertsitateen orientazioa jatorri ezberdineko ikasleengana	Egileak moldatua	282

TAULAK	ITURRIAK	Orr.
4. KAPITULUA: Espainiako Goi Mailako Hezkuntzaren Nazioarteko Eskariaren Faktore Erabakigarriak		
Unibertsitateen nazioarteko eskaria baldintza dezaketen faktoreak	Egileak moldatua	319
Unibertsitate mailako hezkuntza-sektoreko konkurrentzia maila autonomia erkidego bakoitzean	Egileak moldatua	338
Eskaintzaren aniztasunaren araberako unibertsitate taldeak	Egileak moldatua	393
5. KAPITULUA: Atzerritarren Unibertsitate Mailako Ikasketak Burutzeko Erabakia Baldintzatzen duten Faktoreak		
Hirugarren mailako hezkuntzan matrikulatutako emakumeen portzentajearen bilakaera Europako herrialdeetan	Egileak moldatua (UNESCO)	434
Espainiako goi mailako hezkuntzaren atzerriko eskariaren ereduan erabilitako aldagaiak	Egileak moldatua	450
Doikuntza egokitasuna neurtzeko indizeak	Medina Moral (2003)	471

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

GRAFIKOAK	ITURRIAK	Orr.
1. KAPITULUA: Goi Mailako Hezkuntzaren Eskariaren Analisirako Eremu Teorikoa eta Ikerketaren Helburua		
Hirugarren hezkuntzako ikasle atzerritarren banaketa, xede herrialdearen arabera (2006).	OECD (2008a)	78
Biztanleria unibertsitarioaren etorkizuneko eboluzioa Euskadiko barrutian.	Reques Velasco (2006)	89
2. KAPITULUA: GHEEko Herrialdeetako Hirugarren Mailako Ikasketen Nazioarteko Eskaria		
Mugikortasuna GHEEan (2006)	Egileak moldatua (UNESCO)	123
Mugikortasuna GHEEko Herrialdeetan (2006)	Egileak moldatua (UNESCO)	127
Nazioarteko eskariaren jatorria GHEEan (2006)	Egileak moldatua (UNESCO)	129
3. KAPITULUA: Espainiako Unibertsitate Mailako Hezkuntzaren Nazioarteko Eskariari buruzko Deskribapena		
Espainiako unibertsitate mailako ikasketen eskariaren bilakaera	Egileak moldatua (Hezk. Minist.)	191
Espainiako unibertsitate mailako ikasketen nazioarteko eskariaren bilakaera	Egileak moldatua (Hezk. Minist.)	192
Espainiako unibertsitate mailako ikasketen nazioarteko eskariaren bilakaera (%)	Egileak moldatua (Hezk. Minist.)	192
Sorlekuaren araberako lehen eta bigarren zikloko ikasle kanpotarren banaketa	Egileak moldatua (Hezk. Minist.)	196
Irakaskuntza adarraren araberako lehen eta bigarren zikloko ikasle kanpotarren banaketa	Egileak moldatua (Hezk. Minist.)	198
Irakaskuntza adarraren araberako lehen eta bigarren zikloko ikasleen banaketa	Egileak moldatua (Hezk. Minist.)	199
Sorlekuaren araberako lehen eta bigarren zikloko ikasle kanpotarren banaketa	Egileak moldatua (Hezk. Minist.)	201
Irakaskuntza adarraren araberako lehen eta bigarren zikloko ikasle kanpotarren banaketa	Egileak moldatua (Hezk. Minist.)	204
Lehen eta bigarren zikloko ikasle atzerritarren portzentajea aurrez aurreko unibertsitateetan	Egileak moldatua (Hezk. Minist.)	207
5. KAPITULUA: Atzerritarren Unibertsitate Mailako Ikasketak Burutzeko Erabakia Baldintzatzen duten Faktoreak		
Hirugarren mailako hezkuntzan matrikulatutako emakumeen portzentajearen bilakaera Espainian	Egileak moldatua (UNESCO)	435

BIBLIOGRAFIA

BIBLIOGRAFIA

Alamilla López N.E. eta Arauco Camargo, S. (2009): "Microeconometría: Modelos de respuesta binaria", *Hitos de Ciencias Económico Administrativas*, 42. zbk., 83-88 orr..

Albaladejo Pina, I. P. eta Lafuente Lechuga, M. (2001): "Características familiares de los jóvenes que cursan estudios postobligatorios en la región de Murcia", *Estudios de Economía Aplicada*, 17. liburukia, 69-83 orr..

Albert Verdú, C. (1998a): *La Demanda de Educación Superior en España: 1977-1994*, Ministerio de Educación y Cultura, Centro de Investigación y Documentación Educativa.

Albert Verdú, C. (1998b): "La evolución de la demanda de enseñanza superior en España", *Hacienda Pública Española*, ale berezia 1998, 119-138 orr..

Albert Verdú, C. (1998c): "Higher education demand in Spain: the influence of labour market signals and family background", *Working Paper WP-EC*, 98-17, Instituto Valenciano de Investigaciones Económicas.

Albert Verdú, C. (2000): "Higher education demand in Spain: The influence of labour market signals and family background", *Higher Education*, 40. lbkia., 2. zbk., 147-162 orr..

Albert Verdú, C. (2008): "El impacto de la inmigración en la evolución de la demanda de estudios universitarios", in Neira Gómez, I., Porto Serantes, N., Lamelas Castellanos, N., Filgueira Vizoso, A., Vaquero García, A., Fernández López, S., Vázquez Rozas, E. eta Vieira Pacheco, E. (koord.), *Investigaciones de*

Economía de la Educación, Asociación de Economía de la Educación, 3. zbk., 491-498 orr..

Amemiya, T. (1985): *Advanced Econometrics*, Basil Blackwell.

Apodaka, P., Grao, J. eta Martínez Salazar, J. (1986): "Variables curriculares que influyen en la demanda de enseñanza superior", in Latiesa, M. (konp.), *Demanda de educación superior y rendimiento académico en la universidad*, CIDE, 63-79 orr..

Araujo, A., Charterina, J., Forcada, F.J. eta Lafuente, A. (2009): "Arabako campusaren irudia", in Araujo, A., Forcada, F.J. eta Lafuente, A. (koord.), *Euskal Herriko Unibertsitatearen eragin ekonomikoa eta irudia Araban*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 51-66 orr..

Arrow, K.J. (1973): "Higher Education as a Filter", *Journal of Public Economics*, 2. lbkia., 3. zbk., 193-216 orr..

Balcão Reis, A. (2006): "Public funding of higher education: Who gains, who loses, which distortions does it imply?", 25th Arne Ryde Symposium 2006, The Economics of Higher Education and the Education of Economists, Lund (Sweden) November 2006, The Arne Ryde Foundation.

Barnett, R. (2010): "The marketised university: defending the indefensible", in Molesworth, M., Scullion, R. eta Nixon, E. (ed.), *The Marketisation of Higher Education and the Student as Consumer*, Routledge, 39-51 orr..

Barrutia Guenaga, J. (2001): "Algunas condiciones necesarias para la gestión y organización en la universidad", *Cuadernos de Gestión*, 1. lbkia., 1. zbk., 105-114 orr..

Becker, G. S. (1962): "Investment in Human Capital: A Theoretical Analysis", *The Journal of Political Economy*, 70. lbkia., 5. zbk., 9-49 orr..

Becker, G.S. (1964): *Human Capital: A Theoretical and Empirical Analysis, with Special Reference to Education*, Columbia University Press. (Gaztelaniazko itzulpena: El capital humano, Alianza Universidad Textos, Alianza Editorial, 1983)

Becker, W.E. (1989): "The Demand for Higher Education", in Hoenack, S.A. eta Collins, E.L. (ed.), *The Economics of American Universities*, Albany, State University of New York Press, 155-188 orr..

Becker, G. S. (1993): "Conocimiento, capital humano y mercados de trabajo en el mundo moderno", in Oroval Planas, E. (ed.), *Economía de la Educación*, Ariel Educación, 99-107 orr..

Belfield, C. R. eta Levin, H. M. (2002): "The Effects of Competition Between Schools on Educational Outcomes: A Review for the United States", *Review of Educational Research*, 72. lbkia., 2. zbk., 279-341 orr..

Binsardi, A. eta Ekwulugo, F. (2003): "International marketing of British education: research on the students' perception and the UK market penetration", *Marketing Intelligence and Planning*, 21. lbkia., 5. zbk., 318-327 orr..

Bishop, J. (1977): "The Effect of Public Policies on the Demand for Higher Education", *The Journal of Human Resources*, 12. lbkia., 3. zbk., 285-307 orr..

Bitner, M.J. (1990): "Evaluating Service Encounters: The Effects of Physical Surroundings and Employee Responses", *Journal of Marketing*, 54. lbkia., 2. zbk., 69-82 orr..

Blaug, M. (1970): *An introduction to the economics of education*, Penguin Books.

Blaug, M. (1976): "The Empirical Status of Human Capital Theory: A Slightly Jaundiced Survey", *Journal of Economic Literature*, 14. lbkia., 3. zbk., 827-855 orr..

Blaug, M. (1985): "Where are we now in the economics of education?", *Economics of Education Review*, 4. lbkia., 1. zbk., 17-28 orr..

Blaug, M. (1987): *The Economics of Education and the Education of an Economist*, New York University Press.

Bowman, M.J. (1986): "On Economics", in Hannaway, J. eta Lockheed, M.E. (ed.), *The Contributions of the Social Sciences to Educational Policy and Practice: 1965-1985*, McCutchan, 199-216 orr..

Bradley, S., Johnes, G. eta Millington, J. (2001): "The effect of competition on the efficiency of secondary schools in England" *European Journal of Operational Research*, 135. lbkia., 545-568 orr..

Bruch, T. eta Barty, A. (1998): "Internationalizing British Higher Education: Students and Institutions", in Scott, P. (ed.), *The globalization of higher education*, Society for Research into Higher Education and Open University Press, 18-31 orr..

Cabrera Calvo-Sotelo, M. (2006): "De la Universidad española a las universidades españolas", in Reques Velasco P.

(zuz.), *Atlas digital de la España universitaria*, Universidad de Cantabria, Banco Santander, 7-10 orr..

Calero, J. (1993): *Efectos del gasto público educativo: el sistema de becas universitarias*, Universidad de Barcelona.

Calero, J. (1996): *Financiación de la Educación Superior en España: sus implicaciones en el terreno de la equidad*, Fundación BBV.

Campbell, R. eta Siegel, B.N. (1967): "The demand for higher education in The United States, 1919-1964", *The American Economic Review*, 57. lbkia., 3. zbk., 482-494 orr..

Cañabate Carmona, A. (1997): "La demanda de educación superior en el sistema público catalán. Un modelo estructural de previsión de la demanda universitaria pública presencial en Cataluña". Doktorego tesia, Universitat Politècnica de Catalunya.

Capraro, A.J., Patrick, M.L. eta Wilson, M. (2004): "Attracting College Candidates: The Impact of Perceived Social Life", *Journal of Marketing for Higher Education*, 14. lbkia., 1. zbk., 93-106 orr..

Carmelo, M. (2007): "Marketing Universitario: Conceptos y Herramientas de Marketing Aplicadas a la Educación Superior en España". Doktorego tesia, Universidad Autónoma de Madrid.

Carnoy, M. eta Levin, H.M. (1985): *Schooling and Work in the Democratic State*, Stanford University Press.

Carnoy, M., Miller, L.C. eta Luschei, T.F. (2005): *Economía de la Educación*, Editorial UOC.

Cea D'Ancona, F. eta Mora Ruiz, J.G. (1992): "Análisis socioeconómico de la elección de estudios superiores", *Estadística Española*, 34. lbkia., 129. zbk., 61-92 orr..

Chen, L.H. (2006): "Internationalizing Canadian Graduate Education: East Asian International Students' Perspectives", Internationalizing Canada's Universities Conference, Toronto March 2006, York University.

Chen, L.H. (2008): "Internationalization or International Marketing? Two Frameworks for Understanding International Students' Choice of Canadian Universities", *Journal of Marketing for Higher Education*, 18. lbkia., 1. zbk., 1-33 orr..

Cook, A.J., Kerr, G.N. eta Moore, K. (2002): "Attitudes and intentions towards purchasing GM food", *Journal of economic psychology*, 23. lbkia., 5. zbk., 557-572 orr..

Corera Álvarez, E., Chinchilla Rodríguez, Z., Moya Anegón, F. eta Sanz Menéndez, L. (2010): "Producción científica e impacto: Ránking general y por áreas de las instituciones universitarias españolas", in *Informe Conocimiento y Desarrollo 2009*, Fundación Conocimiento y Desarrollo, 254-262 orr..

Crosier, D., Purser, L. eta Smidt, H. (2007): "Trends V: Universities Shaping the European Higher Education Area", European University Association.

De la Rica, S. eta San Martín, M. (1999): "Estudios de postgrado y perspectivas salariales: una aplicación de la teoría del capital humano", *Ekonomiaz*, 43. zbk., 38-57 orr..

De Pablos Escobar, L. eta Gil Izquierdo, M. (2007): "Análisis de los condicionantes socioeconómicos del acceso a la educación superior", *Presupuesto y gasto público*, 48. zbk., 37-57 orr..

De Pablos Escobar, L., Gil Izquierdo, M. eta Martínez Torres (2010): "Los determinantes socioeconómicos de la demanda de educación superior en España y la movilidad educativa intergeneracional", *Hacienda Pública Española*, 193. zbk., 75-108 orr..

Del Olmo Arriaga, J.L. (2010a): *La elección de universidad: Factores de decisión y canales de información*, CEU Ediciones.

Del Olmo Arriaga, J.L. (2010b): "Los factores de elección de Universidad", in Roig Cotanda, J.M. eta Vila Lladosa, L.E. (koord.), *Investigaciones de Economía de la Educación*, Fundación Universidad-Empresa de Valencia, 4. zbk., 149-157 orr..

Deshpandé, R. eta Farley, J.U. (1998): "Measuring Market Orientation: Generalization and Synthesis", *Journal of Market Focused Management*, 2. lbkia., 3. zbk., 213-232 orr..

Deshpandé, R., Farley, J.U. eta Webster F.E. (1993): "Corporate Culture, Customer Orientation, and Innovativeness in Japanese Firms: A Quadrad Analysis", *Journal of Marketing*, 57. lbkia., 1. zbk., 23-37 orr..

Díaz Malledo, J. eta Moreno Becerra, J.L. (1988): "Financiación de la Educación Postobligatoria: los préstamos a los estudiantes", *Ekonomiaz*, 12. zbk., 175-186 orr..

Dick, A.S. eta Basu, K. (1994): "Customer loyalty: Toward an Integrated Conceptual Framework", *Journal of the Academy of Marketing Science*, 22. lbkia., 2. zbk., 99-113 orr..

Doeringer, P.B. eta Piore, M.J. (1985): *Mercados Internos de Trabajo y Análisis Laboral*, Ministerio de Trabajo y Seguridad Social.

Eicher, J.C. (1988): "Treinta años de Economía de la Educación", *Ekonomiaz*, 12. zbk., 11-40 orr..

Eroski Fundazioa (2010): "Guía de Universidades", Eroski Consumer Aldizkaria. (http://universidades.consumer.es/)

Estatuko Unibertsitate Idazkaritza eta Unibertsitateen Koordinaziorako Kontseilua (2008): "Datos Básicos del Sistema Universitario Español. Curso 2008/2009".

Eurydice, Eurostat eta Eurostudent (2012): "The European Higher Education Area in 2012: Bologna Process Implementation Report". Education, Audiovisual and Culture Executive Agency (EACEA P9 Eurydice). (http://eacea.ec.europa.eu/education/eurydice/documents/thematic_reports/138EN.pdf)

Fernández López, S. (2004): "Vínculos entre financiación y Organización Universitaria: Análisis Comparado de la Universidad Española", *Archivos Analíticos de Políticas Educativas*, 12. lbkia., 63. zbk., 1-26 orr..

Fernández López, S. eta Romero Castro, N. (2001): "Esquemas de apoyo financiero a la movilidad internacional de estudiantes. Presencia en la Universidad de Santiago de Compostela", II Congreso de Economía Galega, Santiago 2001eko azaroa.

Fernández López, S., Neira Gómez, I. eta Ruzo Sanmartín, E. (2002): "La demanda de educación superior por parte de los

estudiantes gallegos: análisis económico, financiero y comercial a través de un modelo logit binomial", in López Iglesias, E. eta Ares Fernández, J.J. (ed.), *Novos escenarios para a economía galega: Actas do II Congreso de Economía de Galicia*, Univesidade de Santiago de Compostela, 1153-1168 orr..

Fernández López, S., Rodeiro Pazos, D. eta Ruzo Sanmartín, E. (2003): "Capacidad Competitiva de la Oferta de las Universidades Gallegas", in San Segundo, M.J. eta Zorrilla, R. (ed.), *Actas de las XII Jornadas de la AEDE*, Universidad Carlos III de Madrid, 73-86 orr..

Fernández López, S., Piñeiro Chousa, J, Romero Castro, N. eta Toro Fernández, M. (2000): "Aspectos financieros de la internacionalización de la educación universitaria: caso de la Universidad de Santiago de Compostela", IX Congreso AEDE, Jaén 2000ko iraila, Asociación de Economía de la Educación.

Flavián, C. eta Lozano, J. (2007): "Market Orientation of Spanish Public Universities: A Suitable Response to the Growing Competition", *Journal of Marketing for Higher Education*, 17. lbkia., 1. zbk., 91-116 orr..

Fuentes Blasco, M. eta Gil Saura, I. (2006): "Segmenting University Students on the Basis of Their Expectations", *Journal of Marketing for Higher Education*, 16. lbkia., 1. zbk., 25-45 orr..

Fuller, W.C., Manski, C.F. eta Wise, D.A. (1982): "New Evidence on the Economic Determinants of Postsecondary Schooling Choices", *The Journal of Human Resources*, 17. lbkia., 4. zbk., 477-498 orr..

Fundación Conocimiento y Desarrollo (2010): "Informe Conocimiento y Desarrollo 2009". (http://www.fundacioncyd.org/wps/portal/)

Gabbott, M. eta Sutherland, E. (1993): "Marketing Information Systems in Universities", *Marketing Intelligence & Planning*, 11. lbkia., 7. zbk., 19-28 orr..

Ghosh, A.K., Javalgi, R. eta Whipple, T.W. (2007): "Service Strategies for Higher Educational Institutions Based on Student Segmentation", *Journal of Marketing for Higher Education*, 17. lbkia., 2. zbk., 238-255 orr..

Gómez Sancho, J. M. eta Mancebón Torrubia, M. J. (2008): "Una propuesta de clasificación de las universidades públicas españolas en grupos comparables en los estudios de evaluación institucional", *Revista Asturiana de Economía*, 41. zbk., 85-108 orr..

González López-Valcárcel, B. eta Dávila Quintana, D. (1998): "Economic and Cultural Impediments to University Education in Spain", *Economics of Education Review*, 17. lbkia., 1. zbk., 93-103 orr..

Grao, J. eta Ipiña, A. (1996): "Apuntes históricos de la relación entre economía y educación", in Grao, J. eta Ipiña, A. (ed.), *Economía de la Educación: Temas de Estudio e Investigación*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 11-27 orr..

Greene, W. H. (2007): *LIMDEP, Version 9.0, Reference Guide and Econometric Modeling Guide and NLOGIT, Version 4.0, Reference Guide*, Econometric Software, Inc..

Greene, W. H. (2000): *Análisis econométrico*, Prentice Hall.

Gujarati, D. N. (2004): *Econometría*, McGraw Hill.

Hagemeister, M. (2002): "Costes potenciales ante el déficit de señalización en la Licenciatura de Ciencias Económicas para la Empresa", *Cuadernos de Gestión*, 2. lbkia., 1. zbk., 93-108 orr..

Hagy, A. P. eta Ordovensky Staniec, J. F. (2002): "Immigrant status, race, and institutional choice in higher education", *Economics of Education Review*, 21. lbkia., 4. zbk., 381-392 orr..

Halsey, A.H. (1993): "Opening Wide the Doors of Higher Education", *Education Economics*, 1. lbkia., 1. zbk., 85-91 orr..

Hanushek, E.A. (1979): "Conceptual and Empirical Issues in the Estimation of Educational Production Functions", *The Journal of Human Resources*, 14. lbkia., 3. zbk., 351-388 orr..

Hanushek, E.A. (1986): "The Economics of Schooling: Production and Efficiency in Public Schools", *Journal of Economic Literature*, 24. lbkia., 3. zbk., 1141-1177 orr..

Hensher, D.A. eta Johnson L.W. (1981): *Applied discrete-choice modelling*, John Wiley and Sons, Inc..

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Eusko Jaurlaritza (2008): "2007-2010eko Unibertsitate Plana: Euskal Unibertsitate-Sistemarako Plana". Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. (http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2518/es/)

Holbrook, M.B. eta Corfman, K.P. (1985): "Quality and Value in the Consumption Experience: Phaedrus Rides Again", in Jacoby, J. eta Olson, J. (ed.), *Perceived Quality*, Lexington Books, 31-57 orr..

Houle, R. eta Ouellet, L. (1982): "L'influence des facteurs socio-économiques sur la demande privée d'enseignement

universitaire", *The Canadian Journal of Economics / Revue Canadienne d'Economique*, 15. lbkia., 4. zbk., 693-705 orr..

Hoy, M., Christofides, L. N. eta Cirello, J. (2001): "Family income and postsecondary education in Canada", *The Canadian Journal of Higher Education*, 31. lbkia., 1. zbk., 177-208 orr..

Huerga Castro, C., Abad González, J. eta Blanco Alonso P. (2010): "Análisis y valoración del Programa Erasmus en los estudios económico-empresariales. La experiencia de la Universidad de León", in Roig Cotanda, J.M. eta Vila Lladosa, L.E. (koord.), *Investigaciones de Economía de la Educación*, Fundación Universidad-Empresa de Valencia, 4.zbk., 181-191 orr..

Institute of International Education (2008): "Open doors 2008: Report on International Educational Exchange".

Jiménez, J.D. eta Salas Velasco, M. (2000): "Modeling educational choices. A binomial logit model applied to the Demand for Higher Education", *Higher Education*, 40. lbkia., 3. zbk., 293-311 orr..

Joint Declaration of the European Ministers of Education (1999): "The Bologna Declaration".

Kalmijn M. (1994): "Mother's Occupational Status and Children's Schooling", *American Sociological Review*, 59. lbkia., 2. zbk., 257-275 orr..

Kallio, R.E. (1995): "Factors Influencing the College Choice Decisions of Graduate Students", *Research in Higher Education*, 36. lbkia., 1. zbk., 109-124 orr..

Khon, M. G., Manski, C. F. eta Mundel, D. S. (1974): *An Empirical Investigation of Factors Which Influence College-Going Behavior: Prepared for the National Science Foundation*, Rand.

Kinnell, M. (1989): "International Marketing in UK Higher Education: Some Issues in Relation to Marketing Educational Programmes to Overseas Students", *European Journal of Marketing*, 23. lbkia., 5. zbk., 7-21 orr..

Knight, J. (1999): "Internationalisation of Higher Education", in de Wit, H. eta Knight, J. (ed.), *Quality and Internationalisation in Higher Education*, Organisation for Economic Cooperation and Development, 13-28 orr..

Knight, J. (2000): "Progress & Promise: The AUCC Report on Internationalization at Canadian Universities", Association of Universities and Colleges of Canada.

Kotler, P. eta Armstrong, G. (2004): *Marketing*, Pearson-Prentice Hall.

Kotler, P. eta Armstrong, G. (2008): *Principios de Marketing*, Pearson-Prentice Hall.

Kotler, P. eta Fox, K.F.A. (1995): *Strategic Marketing for Educational Institutions*, Pearson-Prentice Hall.

Kotler, P. eta S.J. Levy (1969): "Broadening The Concept Of Marketing", *Journal of Marketing*, 33. lbkia., 1. zbk., 10-15 orr..

Kohli, A.K. eta Jaworski, B.J. (1990): "Market Orientation: The Construct, Research Propositions, and Managerial Implications", *Journal of Marketing*, 54. lbkia., 2. zbk., 1-18 orr..

Kohli, A.K., Jaworski, B.J. eta Kumar, A. (1993): "MARKOR: A Measure of Market Orientation", *Journal of Marketing Research*, 30. lbkia., 4. zbk., 467-477 orr..

Krampf, R.F. eta Heinlein, A.C. (1981): "Developing Marketing Strategies and Tactics in Higher Education Through Target Market Research", *Decision Sciences*, 12. lbkia., 2. zbk., 175-192 orr..

Lévy-Garboua, L. (1979): "Marché du Travail et Marché de l'Enseignement Supérieur", in Eicher, J.C. eta Lévy-Garboua, L., *Economique de l'Education*, Económica, 178-210 orr..

Lin, L. (1997): "What are student education and educational related needs?", *Marketing and Research Today*, 25. lbkia., 3. zbk., 199-212 orr..

Maddala, G. S. (1986): *Limited-dependent and qualitative variables in econometrics*, Cambridge University Press.

Manes, J.M. (1997): *Marketing para Instituciones Educativas. Guía para planificar la captación y retención de alumnos*, Granica.

Manski, C. F., Sandefur, G. D., McLanahan, S. eta Powers, D. (1992): "Alternative Estimates of the Effect of Family Structure During Adolescence on High School Graduation", *Journal of the American Statistical Association*, 87. lbkia., 417. zbk., 25-37 orr..

Marcenaro Gutiérrez, O. eta Navarro Gómez, M.L. (2001): "Un análisis microeconómico de la demanda de educación superior en España", *Estudios de Economía Aplicada*, 19. zbk., 69-86 orr..

Martín-Cobos Puebla, M. eta Salas Velasco, M. (2006): "La demanda de educación superior: un análisis microeconómico con

datos de corte transversal", *Revista de Educación*, 339. zbk., 637-660 orr..

Mavondo, F.T., Tsarenko, Y. eta Gabbott, M. (2004): "International and Local Student Satisfaction: Resources and Capabilities Perspective", *Journal of Marketing for Higher Education*, 14. lbkia., 1. zbk., 41-60 orr..

Mazzarol, T.W. eta Soutar, G.N. (2008): "Strategy matters: strategic positioning and performance in the education services sector", *International Journal of Nonprofit and Voluntary Sector Marketing*, 13. lbkia., 2. zbk., 141-151 orr..

McFadden, D. (1974a): "Conditional Logit Analysis of Qualitative Choice Behavior", in Zarembka, P. (ed.), *Frontiers of Econometrics*, Academic Press, 105-142 orr..

McFadden, D. (1974b): "The measurement of urban travel demand", *Journal of Public Economics*, 3. lbkia., 4. zbk., 303-328 orr..

McFadden, D. (1979): "Quantitative Methods for Analyzing Travel Behaviour of Individuals: Some Recent Developments", in Henser, D.A. eta Stopher, P.R. (ed.), *Behavioural Travel Modelling*, Croom Helm London, 279-318 orr..

Medina Moral, E. (2003): "Modelos de elección discreta", Universidad Autónoma de Madrid. (http://www.uam.es/personal_pdi/economicas/eva/pdf/logit.pdf)

Mincer, J. eta Polachek, S. (1974): "Family Investments in Human Capital: Earnings of Women", in Schultz, T.W. (ed.), *Marriage, Family, Human Capital, and Fertility*, National Bureau of Economic Research Inc., 76-110 orr..

Mingat, A. eta Eicher J.C. (1982): "Higher Education and Employment Markets in France", *Higher Education*, 11. lbkia., 2. zbk., 211-220 orr..

Modrego, A.M. (1986): "Determinantes de la Demanda de Enseñanza Superior. Estimación de un Modelo para la provincia de Vizcaya". Doktorego tesia, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

Modrego, A.M. (1988): "Demanda de Educación. Resultados de la estimación de un Modelo de Demanda de Educación Superior para la provincia de Vizcaya", *Ekonomiaz*, 12. zbk., 87-98 orr..

Modrego, A.M. (1990): "La Demanda de Educación: Composición y posibles beneficiarios del gasto público en Educación", in *Incidencia del gasto Público en España*, Instituto de Estudios Fiscales, 344-360 orr..

Montgomery, M. (2002): "A nested logit model of the choice of a graduate business school", *Economics of Education Review*, 21. lbkia., 5. zbk., 471-480 orr..

Mora Ruiz, J.G. (1988): "Motivaciones socioeconómicas de la demanda educativa", *Ekonomiaz*, 12. zbk., 41-60 orr..

Mora Ruiz, J.G. (1989): "La demanda de educación superior: una revisión de estudios empíricos", *Revista de Educación*, 288. zbk., 351-375 orr..

Mora Ruiz, J.G. (1990): *La demanda de educación superior: Un estudio analítico*, Consejo de Universidades.

Mora Ruiz, J.G. (1996a): "The Demand for Higher Education in Spain", *European Journal of Education*, 31. lbkia., 3. zbk., 341-354 orr..

Mora Ruiz, J.G. (1996b): "Influencia del origen familiar en el acceso a la educación, en la obtención de empleo y en los salarios", in Grao, J. eta Ipiña, A. (ed.), *Economía de la Educación: Temas de Estudio e Investigación*, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 195-211 orr..

Mora Ruiz, J.G. (1997): "Market trends in Spanish higher education", *Higher Education Policy*, 10. lbkia., 3/4. zbk., 187-198 orr..

Mora Ruiz, J.G. (1998): "La mejora de la información", in Michavila, F. (ed.), *Experiencias y consecuencias de la evaluación universitaria (estrategias de mejora en la gestión)*, Fundación Universidad-Empresa, 135-144 orr..

Mora Ruiz, J.G. (2004): "La necesidad del cambio educativo para la sociedad del conocimiento", *Revista Iberoamericana de Educación*, 35. zbk., 13-37 orr..

Muche, F. eta Wächter, B. (2005): "Opening Up to the Wider World? The External Dimension of the Bologna Process", *IIENetworker Magazine*, Spring 2005.

NAFSA: Association of International Educators (2008): "The Economic Benefits of International Education to the United States: A Statistical Analysis, 2007-2008". (http://www.nafsa.org/eis2008)

Narver, J.C. eta Slater, S.F. (1990): "The Effect of a Market Orientation on Business Profitability", *Journal of Marketing*, 54. lbkia., 4. zbk., 20-35 orr..

Neave, G. eta Van Vught, F.A. (1991): *Prometheus Bound*, Pergamon Press.

OECD (2008a): "Education at a Glance 2008. OECD Indicators". (www.oecd.org/edu/eag2008)

OECD (2008b): "OECD Thematic Review of Tertiary Education. Country Background Report for Spain". (www.oecd.org/spain)

Oliver, R.L. (1980): "A Cognitive Model of the Antecedents and Consequences of Satisfaction Decisions", *Journal of Marketing Research*, 17. lbkia., 4. zbk., 460-469 orr..

Oliver, R.L. eta Westbrook, R.A. (1982): "The Factor Structure of Satisfaction and Related Postpurchase Measures", in Day, R.L. eta Hunt, H.K. (ed.), *New Findings in Consumer Satisfaction and Complaining Behavior*, Bloomington: School of Business, Indiana University, 11-14 orr..

Olshavsky, R.W. (1985): "Perceived Quality in Consumer Decision Making: An Integrated Theoretical Perspective", in Jacoby, J. eta Olson, J. (ed.), *Perceived Quality*, Lexington Books, 3-29 orr..

Ordovensky Staniec, J. F. (1995): "Effects of institutional attributes on enrollment choice: Implications for postsecondary vocational education", *Economics of Education Review*, 14. lbkia., 4. zbk., 335-350 orr..

Oroval Planas, E. (ed.) (1996): *Economía de la Educación*, Ariel.

Parasuraman, A., Berry, L:L. eta Zeithaml, V.A. (1983): "Service Firms Need Marketing Skills", *Business Horizons*, 26. lbkia., 6. zbk., 28-31 orr..

Parasuraman, A., Zeithaml, V.A. eta Berry, L:L. (1985): "A Conceptual Model of Service Quality and Its Implications for Future Research", *Journal of Marketing*, 49. lbkia., 4. zbk., 41-50 orr..

Parasuraman, A., Zeithaml, V.A. eta Berry, L:L. (1988): "SERVQUAL: A Multi-Item Scale for Measuring Consumer Perceptions of Service Quality", *Journal of Retailing*, 64. lbkia., 1. zbk., 12-40 orr..

Pineda Herrero, P. (2000): "Economía de la educación: una disciplina pedagógica en pleno desarrollo", *Teoría de la Educación*, 12. lbkia., 143-158 orr..

Pineda Herrero, P., Moreno Andrés M.V. eta Belvis Pons E. (2008): "La movilidad de los universitarios en España: estudio sobre la participación en los programas Erasmus y Sicue", *Revista de Educación*, 346. zbk., 363-399 orr..

Ponce Núñez, J.M. (2004): "Marketing y Calidad de las Universidades. Demandas sociales y oferta formativa", Congreso Internacional de Universidades, Montevideo 2004ko uztaila, Fundación Interamericana Ciencia y Vida. (http://dspace.uah.es/dspace/handle/10017/1309)

Ponce Núñez, J.M. (2005): "Un nuevo marketing de las universidades. Objetivos formativos y demandas sociales", IV Congreso Internacional de Marketing Público y No Lucrativo, Jérez 2005eko maiatza, Asociación Internacional de Marketing Público y No Lucrativo.

Project Atlas (2008): “Global Destinations for International Students at the Post-Secondary (Tertiary) Level, 2008”. Institute of International Education.

Psacharopoulos, G. (ed.) (1987): *Economics of Education: Research and Studies*, Pergamon Press.

Psacharopoulos, G. eta Woodhall, M. (1985): *Education for Development: An Analysis of Investment Choices*, Oxford University Press.

Quintás, J.R. (1982): *Economía y Educación*, Pirámide.

Radner, R. eta Miller, L. S. (1970): “Demand and Supply in U.S. Higher Education: A Progress Report”, *The American Economic Review*, 60. lbkia., 2. zbk., 326-334 orr..

Rahona López, M. (2005): “La demanda de la educación universitaria en España: Análisis de los factores que condicionaron su crecimiento en la segunda mitad del siglo XX”, *Praxis Sociológica*, 9. zbk., 159-181 orr..

Rahona López, M. (2006): “La influencia del entorno socioeconómico en la realización de estudios universitarios: una aproximación al caso español en la década de los noventa”, *Hacienda Pública Española*, 178. zbk., 55-80 orr..

Reques Velasco, P. (zuz.) (2006): *Atlas digital de la España universitaria*, Universidad de Cantabria, Banco Santander.

Romero Castro, N. eta Fernández López, S. (2002): “Los movimientos internacionales de estudiantes como fuente de ingresos para las instituciones de educación superior”, XII Jornadas Luso-Españolas de Gestión Científica, Covilha (Portugal) 2002ko apirila.

Rosen, S. (1977): "Human Capital: A Survey of Empirical Research", in Ehrenberg, R. (ed.), *Research in Labor Economics*, JAI Press, 1. lbkia., 3-40 orr..

Rowley, J. (2003): "Retention: rhetoric or realistic agendas for the future of higher education", *International Journal of Educational Management*, 17. lbkia., 6. zbk., 248-253 orr..

Salas Velasco, M. (1996): "La regresión logística. Una aplicación a la demanda de estudios universitarios", *Estadística Española*, 38. lbkia., 141. zbk., 193-217 orr..

Salas Velasco, M. (2008): *Economía de la Educación*, Pearson-Prentice Hall.

San Segundo Gómez de Cadiñanos, M.J. (1995): "La intervención pública en educación: la financiación de la enseñanza obligatoria", in Barberá, S. (ed.), *Estado y economía: elementos para un debate*, Fundación BBV, 129-156 orr..

Schatzman, M. A. (2005): "The Bologna Process: Impact on Transatlantic Exchange from the North American Credential Review and Admission Perspective", *IIENetworker Magazine*, Spring 2005.

Schertzer, C.B. eta Schertzer, S.M.B. (2004): "Student Satisfaction and Retention: A Conceptual Model", *Journal of Marketing for Higher Education*, 14. lbkia., 1. zbk., 79-91 orr..

Schultz, T.W. (1961): "Investment in Human Capital", *The American Economic Review*, 51. lbkia., 1. zbk., 1-17 orr..

Selva Sevilla, Carmen (2003): *El capital humano y su contribución al crecimiento económico. Un análisis para Castilla-La Mancha*, Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha.

Shanka, T., Quintal, V. eta Taylor, R. (2005): "Factors Influencing International Students' Choice of an Education Destination- A Correspondence Analysis", *Journal of Marketing for Higher Education*, 15. lbkia., 2. zbk., 31-46 orr..

Soutar, G. N. eta Turner, J. P. (2002): "Students' preferences for university: a conjoint analysis", *International Journal of Educational Management*, 16. lbkia., 1. zbk., 40-45 orr..

Spiess, C. K. eta Wrohlich, K. (2010): "Does distance determine who attends a university in Germany?", *Economics of Education Review*, 29. lbkia., 3. zbk., 470-479 orr..

Stauss, B. eta Neuhaus, P. (1997): "The qualitative satisfaction model", *International Journal of Service Industry Management*, 8. lbkia., 3. zbk., 236-249 orr..

Sternberg, R.J. eta Davis, J.C. (1978): "Student Perceptions of Yale and its Competitors", *College and University*, Spring, 262-279 orr..

Stiglitz, J.E. (1975): "The Theory of 'Screening', Education and the Distribution of Income", *American Economic Review*, 65. lbkia., 3. zbk., 283-300 orr..

Stone, M.A. eta Thomson, S. (1987): "How far can Marketing be Applied within the Further Education Sector?", *Quarterly Review of Marketing*, Autumn, 16-19 orr..

Swan, J. (1983): "Consumer Satisfaction Research and Theory: Current Status and Future Directions", in Day, R.L. eta Hunt, H.K. (ed.), *International Fare in Consumer Satisfaction and Complaining Behavior*, Bloomington: School of Business, Indiana University, 124-129 orr..

Taylor, R., Shanka, T. eta Pope, J. (2004): "Investigating the Significance of VFR Visits to International Students", *Journal of Marketing for Higher Education*, 14. lbkia., 1. zbk., 61-77 orr..

Throsby, C.D. (1991): "The financial impact of foreign student enrolments", *Higher Education*, 21. lbkia., 3. zbk., 351-358 orr..

Throsby, D. (1998): *Financing and Effects of Internationalisation in Higher Education: The Economic Costs and Benefits of International Student Flows*, Organisation for Economic Cooperation and Development, Centre for Educational Research and Innovation.

Tonks, D.G. eta Farr, M. (1995): "Market segments for higher education: using geodemographics", *Marketing Intelligence & Planning*, 13. lbkia., 4. zbk., 24-33 orr..

Traverso Cortés, J. (2002): *Estudio de la imagen interna de la institución universitaria. La imagen interna de la Universidad de Sevilla*, Edición Digital @ tres.

Traverso Cortés, J. eta Román Onsalo, M.L. (2007): "Análisis de la imagen interna de la institución universitaria. Construcción de un modelo para la obtención de la imagen bajo la perspectiva del alumno", *Investigaciones Europeas de Dirección y Economía de la Empresa*, 13. lbkia., 1. zbk., 231-246 orr..

Turcotte, J. C. (1995): "Factors associated with students' decisions to attend selected private postsecondary Christian institutions". Doktorego tesia, University of North Texas.

Turner, D. (2005): "Benchmarking in universities: league tables revisited", *Oxford Review of Education*, 31. lbkia., 3. zbk., 353-371 orr..

Unibertsitateen Koordinaziorako Kontseilua (2007): "Financiación del Sistema Universitario Español".

Unibertsitateen Kontseilua (1987): *Demanda de plazas universitarias*, Ministerio de Educación y Ciencia.

Villarreal, E. (1996): "Eficacia del sistema universitario y mecanismos competitivos de financiación", in Grao, J. eta Ipiña, A. (ed.), *Economía de la Educación: Temas de Estudio e Investigación*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 117-134 orr..

Vrontis, D., Thrassou, A. eta Melanthiou, Y. (2007): "A contemporary higher education student-choice model for developed countries", *Journal of Business Research*, 60. lbkia., 9. zbk., 979-989 orr..

Voon, B.H. (2007): "SERVMO: A Mesure for Service-Driven Market Orientation in Higher Education", *Journal of Marketing for Higher Education*, 17. lbkia., 2. zbk., 216-237 orr..

Willis, R.J. eta Rosen, S. (1979): "Education and Self-Selection", *Journal of Political Economy*, 87. lbkia., 5. zbk., S7-S36 orr..

Zeithaml, V.A. (1988): "Consumer Perceptions of Price, Quality, and Value: A Means-End Model and Synthesis of Evidence", *Journal of Marketing*, 52. lbkia., 3. zbk., 2-22 orr..

Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa (2008): “Estrategia Universidad 2015: Universidades para el progreso, el bienestar y la competitividad”.

.....

http://www.ine.es/ (Estatistikako Institutu Nazionalaren web orrialdea)

http://www.educacion.gob.es/portada.html (Hezkuntza Ministerioaren web orrialdea)

http://www.uis.unesco.org/Pages/default.aspx (UNESCOren Estatistika Institutuaren web orrialdea)

http://www.ox.ac.uk/ (Oxfordeko Unibertsitatearen web orrialdea)